BILBOKO URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA

8

Bilbao Lan Ekintza

EUROPAKO GIZARTE FUNTSA
FONDO SOCIAL EUROPEO

BILBAO Metropoli-30

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao



BILBOKO
URTEKARI
SOZIOEKONOMIKOA

www.lanekintza.net

Uribitarte 6
T: 94 420 53 00
observatorio@lane.bilbao.net

B 2008

Aurkibidea

AGURRA 2

HITZAURREA 3

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKO OROKORRA 4

LURRALDEA, KLIMA ETA INGURUMENA 6

AZPIEGITURAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK 7

ERAIKINAK ETA ETXEBIZITZAK....8

DEMOGRAFIA....9

BIZTANLEEN EGOERA EKONOMIKOA
ETA GIZARTE ZERBITZUAK 10

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA 12

KULTURA ETA KIROLA....13

LAN-MERKATUA.... 14

JARDUERA EKONOMIKOA.... 16

BILTZARRAK ETA TURISMOA 18

INFORMAZIO GIZARTEA, IKERKETA, GARAPENA
ETA TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA.... 19

Bilbao Lan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

% 50eko kofinantzaketa
Cofinancia al 50%
Europako Gizarte Funtsa
Fondo Social Europeo

BILBAO
Metropoli-30

AGURRA

Honen bidez, Lan Ekintza-Bilbaoren Behatoki Sozioekonomikoan Bilbao Metropoli-30 elkartearen lankidetzarekin egiten dugun Urtekari Sozioekonomikoaren bosgarren edizioa aurkezten dugu.

Argitalpen honetan batutako datuek, 200 iturri ezberdin baino gehiagotan jaso direnak, 2008. urtean hiriaren eta bere inguruaren bizitza ekonomiko eta sozialaren nondik norakoen argazki zehatza eta ikuspegi osokoa eta objektiboa eskaintzen dute. Ondorioz, esku artean duzuen hau Bilboko eta bertako auzoen errealitatearen gaineko erreferentziazko dokumentutzat har daiteke.

Lan Ekintzan zera aldezten dugu, tokian tokiko garapenera zuzendutako gizarte-, ekonomia- eta hirigintza-politikak nazioarteko lehiakortasun testuinguruan ongi egokitzeko badira eta eraginkor izateko badira, osoko alderdi horiexek dira, hain zuzen, erabaki-hartze prozesuetan kontuan hartu beharrekoak.

2007 Bilbon eta inguruetan urte ona izan zen arren, 2008 orduan sortutako krisialdiaren eta ziurtasunik ezaren ispilu izan da, oraindik ere bere horretan dirauen makalaldiaren isla.

2008ko Urtekari Sozioekonomikoaren datuen objektibotasunak haien esanahiaren gainean hausnarketa egitera behartzen gaitu. Joerak aztertzen ez ezik, haiei aurrea hartzen ere laguntzen digute datuok; hortaz, berrikuntza piztu eta sustatzeko ezin galdu dezakegun aukera ematen digute. Are gehiago, nahitaezkoa dugu hala jardutea baldin eta krisialdia atzean utzi eta datuek berriz ere gure hiriaren eta inguruaren egoera egonkorraren berri besterik ez ematea nahi badugu.

Jon Sustatxa
Lan Ekintza-Bilbao elkartearen presidente eta
Bilboko Udalaren Enplegua, Gazteria eta
Kirola Sailaren zinegotzi ordezkaria

HITZAURREA

Honenbestez, Sormenaren eta Berrikuntzaren Europako Urtea amaitu da. Ekimen honen xedea zera izan da, sormena sustatzea berrikuntzaren pizgarri izan dadin zein eskumen pertsonal, profesional, enpresakoak eta gizartekoak etengabeko ikaskuntzaren bidez garatzeko eragile nagusi bilaka dadin. Herrialde modernoa eta lehiakorra testuinguru global baten barruan eraikitzera begira egoki diren azterketak eta proposamenak betetzen joateko, “Krisiari aurre egiteko, sormena” lelopean sormen hori hobeto ulertzeko eta baliatzeko ahaleginak egin dira.

2010ean sartzen ari gara, hau da, Pobreziaren eta Gizarte-bazterkeriaren Aurkako Europako Urtean. Oraingo honetan, pobrezia eta gizarte-bazterkeria sufritzen duten pertsonek ondoko eskubide hauek dauzkatela gogorarazi nahi da: duintasunez bizi eta gizartean eginkizun jakin bat betetzea; pobreziaren aurkako borrokan denon erantzukizuna aldarrikatzea; kohesio soziala sustatu eta gizarte inklusioko jarduera egokiak zabaltzea; eta, azkenik, ekintza eraginkorragoak martxan jartzeko beharrezko diren erabaki politikoen ardura nagusia dutenen konpromiso handiagoa eskatzea.

Gaur egun, munduko biztanleriaren %50 hirietan bizi da. Kopuru hori gorantz doa, gainera, eta 2050erako gizadiaren bi heren hiri-inguruetan biziko dela aurreikusi da. Arraza, etnia eta erlijio aniztasuna normala izango da XXI. mendeko Europako hirietan. Herritar berrien etorrera berrikuntzaren eta aurrerapenaren alde egiteko aukera paregabea da gizarte-, ekonomia- eta kultura-garapena lortzera begira eta hala ulertu eta baliatu beharko lukete agintariek.

Horrela, bada, kultura arteko hiri eredua proposatzeko garaia da, aniztasunaren alde egiteko ordua eta, are gehiago, aniztasun hori hirien aktiborik handienetarikotzat eta ondasun iturri hoberenetarikotzat hartzeko une aproposa. Aniztasuna ez da arazoa; alderantziz, ahalmen berritzailea handitzeko aukera ematen duen eragile gisa ulertu beharra dago.

Beraz, hirien aldaketa aniztasun kulturalari oso lotuta dago. Hala, biztanleen aniztasunak mota orotariko baliabideak ekartzen dizkio hiriari. Hori ez ezik, integrazio egokia lortzearren aniztasun horrekin zerikusia daukaten erronkak onartuz gero, hiri irekia sortzen da. Irekiera Bilbao Metropoli-30 elkartearen IPICA estrategiaren (berrikuntza, profesionaltasuna, nortasuna, erkidegoa eta irekiera) balioetako bat da. Hain zuzen, balio honi eutsi dio elkarteak Hausnarketa Estrategikoak ekarri zuen inflexio puntutik hasita eta 2006ko maiatzean egindako Hiriak eta Balioak forora arte. Hala jarduteko arrazoia zera izan da, Bilbo metropolitarraren araberako balio estrategikoak aztertu, zehaztu eta ezartzea.

2005ean Behatokia sortu zenetik Lan Ekintzarekin elkarlanean argitaratu den Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa Bilboko eta haren metropoliko informazio sozioekonomikoa batu eta zabaltzen duen plataforma bihurtu da. Hortaz, 1992az geroztik Bilbao Metropoli-30 elkarteak plazaratutako Urteko Aurrerapen Txostenaren tokia hartu du. Izan ere, metropoliari dagozkion aldagaien bilakaeraren eta egoera orokorraren inguruko informazio eguneratuaren beharra gero eta handiagoa da Lan Ekintza udal sozietatearentzat eta Bilbao Metropoli-30 elkartearentzat hiriaren garapen eta sustapenaren eragile izaten jarraitzeko badira.

Azken finean, horren guztiaren helburua Bilbo hiri berritzailea bilakatzea da, alde batetik; eta bestetik, haren eraikuntza prozesuan parte hartzen dutenak, bere burua proiektu batekin epe luzera identifikatzen duten profesionalak izateaz gain, komunitate irekia osatzen duten langileak ere izatea.

Alfonso Martínez Cearra
Zuzendari Nagusia
Bilbao Metropoli-30

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKO OROKORRA

Nazioarteko ekonomia

NDF eta ELGA bezalako nazioarteko erakundeek munduko ekonomiaren atzeraldia aurreikusi zuten 2008. urterako. Atzeraldi hori, ordea, uste baino gogorragoa izan da azkenean, Lehman Brothers erakundeak porrot egin eta gero, 2008ko iraileko adierazleek ahulduz joan baitira mundu mailako krisialdi finantzarioa nagusitu den arte. Urteko guztirakoa positiboa izanik ere, herrialde gehienetan azken hiruhilekoan lortutako emaitza negatiboak makalaldi honen erakusgarri ezin hobea dira. Nazioarteko erakundeek datozen urteetarako egin duten aurreikuspenari jarraiki, munduko ekonomiaren hazkundea gero eta ahulagoa izango da 2009. urtean (-%4,8). Hala, 2010era arte ez da inon hazkunde tasa positiborik egongo eta, egonez gero, herrialde gutxi batzuetan baino ez da izango. Zailena eta, aldi berean, interesgarriena litzakeena zera da, krisialdi hau noiz amaituko den aurreikustea eta hazkunde motel baina positiboak eta segidakoak noiz hasiko diren argi edukitzea.

Eurogunea

EUROGUNEAN, ELGAren azken datuek adierazi dutenez, %0,9ko BPGdaren hazkundea izan da 2008an (%2,6 2007an). Halere, laugarren hiruhilekoan erregistratutako jarduera -%1,4 jaitsi da. Alabaina, Europako egoera ekonomikoan aniztasuna dago hainbat herrialdek osatzen duten heinean. Alemaniak %1eko hazkundea izan du 2008ko BPGdean (-%1,8 urteko azken hiruhilekoan). Frantziako BPGdak %0,3 egin du gora (laugarren hiruhilekoan, -%1,7). Erresuma Batuan %0,7 igo da 2008. urtean (-%4,9 azken hiruhilekoan). Italian, aldiz, BPGda -%1ekoa izan da (azken hiruhilekoan, -%3). 2009. urterako, jarduera ekonomikoak beherakada nabarmena izango duela aurreikusi da, 2008ko azken hiruhilekoaren makalaldiarekin jarraituz. Dudarik gabe, urte atzerakorra izango da adierazle ekonomikoen aldetik. 2010ean %0,0ko hazkundea nulua orokortuko da eta, iragarritakoa betetzen bada, atzeraldiaren azken urtea izango da. Zenbait herrialdetan, Alemania eta Frantzia bederen, goranzko joera lehenago igarriko da. Beste batzuetan, ordea, Espainia eta Irlanda, adibidez, higiezinen burbuilaren eraginpean egon direlako, atzeraldi egoera luzatu egingo da. Bestalde, ekonomiak atzerago egin ez arren, lan merkatuan ondorio latzak izango dituela aurreikusi da. %10etik gorako langabezia-tasak iragarri dira Eurogunean.

Estatuaren ekonomia

Nazioarteko finantza merkatuen zurrunbiloak ondorioak izan ditu estatuko kontuetan; hala, nahiz eta BPGdak 2008an %1,2ko hazkundea izan duen urtetik urtera (%3,8 2007an), laugarren hiruhilekoan, 1993az geroztik inoiz erregistratu ez diren zifrak lortu dira Estatuan, -%0,7. Kontsumoa eta inbertsioa bat-batean jaitsi dira eta eraikuntzaren sektorea eta eraikuntza xedetzat duten industria sektoreak bereziki nozitu dute eragina. Kontsumo publikoak, ordea, lehengo zifrei eusten die eskaria bere horretan mantentzen saiatzeko.

2009. urtea atzeraldian sakonduz joango den ekitaldia izango dela eta -%3,7ko BPGda erregistratuko dela aurreikusi da (2008ko tasatik 5 puntu beherago). Beherakada latz hau dela-eta, ekonomia atzeraldi fase gogor batean sartuko da. Ondorioak aski nabariak izango dira enpleguan, 2009rako %18tik gorako langabezia-tasara iristea espero baita.

Hazkunde ekonomikoaren beherakada nabarmena, batez ere, urte amaieran

EAEko aldagai makroekonomiko nagusien eboluzioa eta horientzako aurreikuspenak 2007-2009 urteetarako:
(Urtetik urterako aldakuntza errealaren tasa)

ALDAGAIA	2007	2008	2009(1)
BPGd	**4,1**	**2,0**	**0,5**
ESKARIA			
Kontsumo pribatua	3,4	1,1	0,3
Kontsumo publikoa	5,5	5,9	4,9
Kapital-eraketa gordina	5,5	1,4	-0,6
Barne eskaria	4,4	1,9	0,8
Kanpo saldoaren ekarpena	0,0	0,3	-0,3
ESKAINTZA			
Industria	4,0	0,2	-1,1
Eraikuntza	4,6	-0,1	-1,8
Zerbitzuak	4,2	3,3	1,7
PREZIO ETA KOSTUAK			
BPGdaren deflaktatzailea	2,5	3,0	0,5
LAN MERKATUA			
Enplegua(2)	2,8	1,1	-2,6
Langabezia-tasa(3)	3,3	3,8	8,6

(1) Aurreikuspenak. (2) Arduraldi osokoen baliokide diren lanpostuei dagokienez. (3) Biztanleria aktiboaren %tan. 2009ko aurreikuspena urte amaiera arte da baliagarria.

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritza.

Euskal ekonomia

EAEn %2,0ko hazkundea izan du BPGdak 2008. urtean (%3,9 2007an). Hiruhilekotik hiruhilekorako atzeraldia nabarmena izan da bertan, eta urteko laugarren hiruhilekoan, hazkunde txikia baina, hala ere, positiboa izan du (%0,4). Bertan, atzeraldia inguruko ekonomia gehienetan baino beranduago hasi dela ikus daiteke, higiezinen sektorearekiko Estatuan baino menpekotasun gutxiago dagoelako. Nolanahi ere, badira ekonomiaren hondamendiaren adierazgarri diren adierazle negatiboak ere: eraikuntza (-%2,8) eta industria (-%2,9), azken hau eraikuntzaren menpe dauden sektoreen eraginez. Zerbitzuen sektoreak, aldiz, %2,5eko hazkundeari eusten dio.

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenen arabera, euskal ekonomiaren BPGda oso gutxi haziko da 2009an (%0,5). Sektoreka, industriaz gain (-%1,1), eraikuntza (–%1,8) izango da kaltetuenetarikoa. Zerbitzuen sektorea, berriz, hazi den bakarra (%1,7), nahiz eta honek ere 2008ko datuekiko atzeraldia nabarituko duela iragarri den.

Egindako aurreikuspenen arabera, Euskal Herriak Eurogunera eta, bereziki, Frantzia eta Alemaniara esportazio maila areagotu beharra du, kanpo eskariak ekonomiaren hazkundea pizteko balio dezan. Zenbait herrialderi iragarri zaion hobetze hori, baina, ez da 2010era arte gertatuko.

Bizkaiko ekonomia

2008an zehar, Bizkaiko BPGdak behera egin du nabarmen %2,2ra arte (%4,0 2007an), Eustaten arabera. 2008. urtean zeharreko ibilbideari erreparatuz gero zera ageri da, aipatu berri ditugun herrialdeetan bezalaxe, bi alde oso ezberdin erakutsi duen ekitaldia izan dela Bizkaian. Batetik, ekitaldiaren lehen zatian BPGdak %2,6ko hazkunde oso interesgarria izan zuen. Bestetik, abuztutik aurrera, laugarren hiruhilekoan, BPGda %0,7ra arte murriztea ekarri zuen atzeraldia hasi zen. Datu hau, eskasa izanik ere, garatutako ekonomietako positibo bakarra izan da, bai Estatuan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, batak zein besteak 2009. urte korapilatsu eta atzerakorra iragartzen duten zifra negatiboak besterik ez baitituzte.

BPGdaren eskaintzaren hazkundearen osaketa aztertzen badugu, eraikuntzaren apaltasuna (+%0,6) eta industria sektorearen (-%0,1) atzeraldia aipa ditzakegu. Gainera, zerbitzuen sektorearen hazkunde erritmoak (+%3,5) ere bere horretan dirauela ikusiko dugu. Sektore guztietan aurreko urtearekiko atzeraldia egon bada ere, eraikuntzan nabarmenagoa izan da, 12 puntukoa, hain zuzen. Industriak ere 3 puntu egin du behera. Zerbitzuek, aldiz, zifra onak lortzen darraite.

2008ko laugarren hiruhileko datuek ekonomiaren atzeraldiak dagoeneko lan merkatuan eragina izan duela adierazten dute.

LURRALDEA, KLIMA ETA INGURUMENA

Lurraldea

Bilboko udalerriak 40,65 km²-ko azalera hartzen du eta zortzi barruti administratibotan banatzen da: Deustu, Uribarri, Otxarkoaga-Txurdinaga, Begoña, Ibaiondo, Abando, Errekalde eta Basurtu-Zorrotza. Barruti txikiena Begoña da, 1,77 km²-rekin; lurralde zatirik handiena hartzen duena, aldiz, Ibaiondo (9,65 km²).

Bilbon hirigintza-jarduera anitz bideratu da, garraio azpiegitura modernoen alde eta hiri barruan guneak berreskuratzearen alde. Horretarako, gune horietan kultura ekipamendu adierazgarriak eta jarduera ekonomikoaren eragileak ezarri dira. Ekintza hauek guztiak, bada, nazioarteko erreferentzia bihurtu dute Bilbo berrikuntzaren eta hiri-eraldaketaren ikuspuntutik eta, horri esker, 2008an, 87 herrialderen artean aukeratu dute Shangaiko 2010eko Erakusketa Unibertsalean aurkeztuko diren hirigintzako jardunbide egokien inguruko proiektu sare batean parte hartzeko.

Klima

2008. urteko datuen arabera, aurreko urtean baino ur gehiago bildu da Bilbon; hala, metatutako prezipitazioa 1.317 l/m²-koa izan da, eta 2007an, 1.044 l/m²-koa. Tenperaturei dagokienez azken urteetako joera mantentzen da: erregistratutako batez besteko gehienezko tenperatura 18,8ºC-koa izan da eta gutxienekoen batezbestekoa 11,5 ºC-koa.

Ingurumen

2008. urtean ingurumen-jasangarritasunaren aldeko hainbat ekimen bideratu du Bilboko Udalaren Hirigintza eta Ingurumen Sailak:

- Euskadin inoiz egindako zoruetako kutsadura garbitzeko lanik handiena amaitu da, Boluetan 120.000 metro kubikoko azaleran garbiketa egin eta 270 tona industria hondakin batu eta gero.
- Hiriko Mapa akustikoa aurkeztu da. Abando, Errekalde eta Deustu dira hots-kutsadura gehien daukaten barrutiak. Otxarkoaga-Txurdinaga eta Uribarri dira hots gutxien sufritzen dutenak.
- Bioaniztasuna 2010 Tokiko Entitateen sareari atxiki zaio hiria, bioaniztasuna eta ondare naturala kontserbatzeko gizarte politikak sustatzeaz arduratzen den ekimena.
- Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioa ezarri da Montañoko Udal Zentroan; 20kW-ko ahalmena duenez, energia-iturri berriztagarrien alde udal batek egindako apusturik handiena da.
- Bizikleten doako mailegu zerbitzua. Orain bizikletak entregatzeko 2 puntu gehiago daude (Atxuriko eta Abusuko polikiroldegiak), 12, guztira. Zerbitzuak 150 bizikleta jartzen du eskura eta, orain arte, 18.033 pertsonak erabili dituzte, guztira 22.089 mailegu egin dituztela.
- Hauez gain bestelako jarduerak ere bideratu dira: Eskola Agenda 21 ekimenaren 3. urtea, Aste Berdea, Mugikortasunaren Astea, Energia berriztagarrien rally ekologikoa, 2008ko Autorik gabeko eguna edo Eraztun Berdearen garapena.

Bilbo lider izan da 2008an EAE osoko paper eta kartoi bilketan, herritar bakoitzak 41,7 kilo eman baitu. Ontzi arinen bilketari dagokionez, 11,6 kg/bizt. batu dira.

Metro Bilbaok energia berriztagarriak besterik ez ditu erabili urte osoan zehar kontsumitu duen energia ekoizteko. Horrela bada, atmosferara 48.000 tona CO^2 gutxiago botatzea lortu du enpresak.

Urte honetan, gainera, ingurumen-kudeaketarako ziurtapenen bat duen enpresa kopurua hazi da Bilbon.

Bilbok ingurumen-jasangarritasunaren bidetik darrai.

2008ko klima aldagai nagusiak Bilbon (Deustuko estazioa).

ADIERAZLEAK	2008
Batez besteko tenperatura (ºC)	14,8
Gehienezko tenperatura absolutua (ºC)	39,6
Gutxienezko tenperatura absolutua (ºC)	1,0
Gehienezko tenperaturen batezbestekoa (ºC)	18,8
Gutxienezko tenperaturen batezbestekoa (ºC)	11,5
Eguneko batez besteko hezetasuna (%)	73,4
Guztirako prezipitazioa (l/m²)	1.317
Egun bateko gehienezko prezipitazioa (l/m²)	125
Prezipitazioa (egun kop.)	185
Irradiazioa ordu erdian (MJ/m²)	11,3
Haizearen batez besteko lastertasuna (km/h)	10

Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saileko meteorologia txostena.

2008ko ingurumen-kudeaketarako ziurtapenak Bilbon.

ZIURTAPENA	ZIURTAGIRI KOP.
EMAS	3
ISO 14001	175
Ecodiseño araua	3
Ekoscan araua	19

Iturria: IHOBE, Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoa

Garraio publikoak bidaiari gutxiago izan ditu, Metro Bilbaok izan ezik, egindako bidaien ia erdia garraio mota honetan egin baitira.

Bilbo jatorri-helmuga duten erabiltzaileen laburpena, 2007-2008.

GARRAIOAK	2007	2008
AIREPORTUA	4.277.610	4.182.901
BILBOKO PORTUA	172.626	179.572
METROA	85.864.456	86.333.743
BILBOKO TRANBIA	2.906.352	2.846.713
BIZKAIBUS (Bilbo jatorri-helburu duten lineak)	30.876.000	30.196.000
TERMIBUS-ESKATU-TAKO AUTOBUSAK	75.050	70.450
TERMIBUS- AUTO-BUS ERREGULA-RRAK	2.336.929	2.362.516
BILBOBUS	27.705.000	26.004.171
EUSKOTREN (tran-biarik gabe)	7.090.000	6.851.881
FEVE (Bilbo-Balma-seda)	1.771.223	1.506.466
FEVE (Erregionala)	143.593	135.112
RENFE (Aldiriak)	18.772.000	18.128.000
IBILGAILU-PARKEA	170.807	171.407

Iturriak: erakunde bakoitza eta Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

OINARRIZKO AZPIEGITURAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Oinarrizko azpiegiturak

2008. urtean, 1979an hasitako Saneamendu Plan Integralari amaiera eman zitzaion. Plan honek, Nerbioi itsasadarraren irudi berria hobetzera begira, 900 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa izan du. Oraindik ere zenbait azpiegitura garrantzitsu eraikitzeke daude, adibidez, Lamiakoko Araztegia. Bilboko lehen mailako sareko ur kontsumoak behera egin du 31.273.860 m³–tara arte, biztanleko eta eguneko litro hornidurak bezalaxe.

Garraio eta komunikazioak

*Bilboko Aireportu*ak guztira 4.182.901 bidaiari izan ditu 2008. urtean; aurreko urtearekiko %2 baino gehiago jaitsi da, beraz. Merkantzien kargari dagokionez, jaitsiera neurrizkoagoa izan da (%1,5 inguru). Bilboko Aireportua handitzeko proiektuak aurrera jarraitzen du 114 milioi euroko inbertsioa duela.

*Bilboko Portu*ko merkantzien mugimenduak behera egin duela ikusi ahal izan da 2008. urte amaieran, nahiz eta beherakada hori oso nabarmena ez izan. Kontainerretan garraiatutako merkantzien eta likido handien kopuruak portuak inoiz izan dituen altuenak dira. Bidaiarien trafikoak %4 egin du gora aurreko urteko datuekin alderatuz gero.

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren esanetan, 2008an 179,7 milioi bidaiarik erabili dute *Bizkaiko garraio publikoa*; horien artean %64 trenbidez bidaiatu da, hau da, aurreko urtean baino %0,6 gutxiago. *RENFE* aldiriak zerbitzua erabili duten pertsonen kopurua 18.128.000koa izan da. Aipagarria da 2008ko abenduan Miribillako geltokiak ateak ireki dituela, aldirietako C-3 linearen barne. Bizkaiko garraio publikoan egindako bidaien ia erdia *Metro Bilbao*rekin egin dira, %47, zehatzago esanda; Bizkaibuseko bidaiak, aldiz, guztirakoaren %17 izan dira.

*Bilboko Tranbi*ak 2.847.000 pertsonari eman dio zerbitzu, 2007an baino gutxiago eta, hortaz, guztirako joan-etorrien %2 gutxiago.

Bizkaiko hiriburuko hiri barneko autobus zerbitzuak, *Bilbobus*, erabiltzaile kopuru handia izaten jarraitu du urte honetan, guztira 26.004.171 bidaiariri eman baitio zerbitzu. Dena den, azken bost urteetan agertu duen goranzko joera bertan behera utzi du 2008an.

Urte berean, eguneko 351.034 ibilgailu erregistratu dira Bilboko udalerrirako hamaika sarbideetan. Bilbora sartzeko eta bertatik irteteko trafikoaren bilakaerari erreparatuz gero, zegoen egoera berean geratu dela dirudi (urteko +%0,1) 2003tik 2008ra. Bilboko automobil-parkea 171.407 ibilgailuk osatzen dute jada. Guztira, TAO duten 15.334 aparkaleku dago 11 eremutan banandurik.

Sarbideen irisgarritasuna hobetzera begira, Bilboko Udalak hainbat eraikinetan traba arkitektonikoak kentzeko bere ahaleginetan dihardu. Bidegorrien sareak eraikitako 14 kilometro ditu jadanik eta 2009. urterako 24 kilometro izango dituela espero da.

ERAIKINAK ETA ETXEBIZITZAK

Etxebizitzaren prezioak hazkunde neurritsuagoa agertu du eta, horri esker, %5,7ko beherakadarekin amaitu du urtea EAEn.

Etxebizitza eta lokalak

Bilboko hiriak hartzen duen 4.065 hektareako azaleran 11.481 eraikin dago, 154.897 etxebizitza eta 34.573 lokal, guztira. 2008. urtean, etxebizitzen kopurua igo egin da eta 1.358 pisu berri dago: 33 Otxarkoaga-Txurdinagan, 87 Begoñan, 711 Ibaiondon, 368 Abandon, 136 Errekalden eta 76 Basurtun. Deustuko eta Uribarriko auzoetan, aldiz, etxebizitzak galdu dira, 11 eta 42, hurrenez hurren.

Urte honetan, etxebizitzaren prezioen goranzko joera neurritsuago bilakatu da. Tasazio Sozietatearen arabera, Euskal Herriko batez besteko prezioen beherakada 2008ko bigarren seihilekoan %5,7/m²-koa izan da. Halarik ere, estatuko batezbestekotik gora jarraitzen du: 3.183 €/m² Euskal Herrian eta 2.712 €/m² Estatuan. Bilboko udalerrian 3.129 €/m²-ko zifra erregistratu da, EAEko batez besteko mailatik pixka bat beherago dagoena Estatukoa aise gainditu arren.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak 2007ko datuekiko beherakada izan dela adierazi du. Horrez gain, eskainitako etxebizitza askeen batez besteko prezioa 338.900 €-koa (-%1,99) izan dela jakinarazi du. Bigarren eskuko etxebizitzen prezioa ere -%3,19 jaitsi da. Igo den prezio bakarra Babes ofizialeko etxebizitzena izan da (%3,74). Bestetik, m² erabilgarri bakoitzeko, etxebizitza askearen prezioa 4.053 €/m²-koa izan da eta babes ofizialeko etxebizitza, aldi berean, 1.372 €/m²-ko preziora igo da.

EAEko Alokairu erregimenaren txostenak ezartzen duen legez, erkidegoak Estatu osoko errentarik altuenak ditu. Pisu bat alokairuan hartzeak hileko 968,9 €-ko prezioa du; Bilboko kasuan, hileko 1.030,6 € izango litzateke. Babestutako merkatuan, batez besteko errenta hileko 234 €-koa da. (BOEetan, 380 €/hileko dira eta etxebizitza sozialetan, 118 €/hileko).

2008. urtean EAEn erregistratutako transakzio kopuruak ere behera egin du. Hala, 21.122 eragiketa zenbatu dira (-%20,51 2007ko datuekiko) guztira, horietako 10.810 Bizkaian (-%24,01). Gehienbat bigarren eskuko etxebizitzetan nabaritu da beherakada (-%35,12 EAEn eta -%35,49 Bizkaian).

EAEko etxebizitza-parkea zahar samarra da (batez beste, 40 urte); hortaz, gero eta garrantzi handiagoa du etxebizitza eta eraikinetan egin beharreko zaharberritzeak. Surbisak, Udal birgaikuntzarako hirigintza sozietatea, 168 etxebizitza eta 25 lokalen barneko zaharberritze lanetan parte hartu du 2008an, 12,1 milioi eurotik gorako aurrekontuarekin.

Udal etxebizitzak

Bilboko Udal Etxebizitzak elkarteak babes ofizialeko higiezinen salmenta bultzatzen du, baita gizarte alokairuak ere. Guztira, 3.522 etxebizitzaz eta 936 lokalez osatutako ondarea kudeatzen du. Eskatzaileen profila 15.000 euro baino gutxiagoko diru-sartzea duten 35 urtetik beherakoei dagokie. Hileko batez besteko errenta 220 eurokoa da.

Udal Etxebizitzen Inbertsio Programaren barne, 24 eta 40 etxebizitza izango dituzten bi eraikinen eraikuntza-lanen hasierari ekin zaio Bilbo Zaharrean.

2007-2008ko Bilboko etxebizitza kopuruaren bilakaera barrutien arabera (%).



Iturria: Lurralde taldea. Bilboko Udaleko Hiritarrekiko Harremanen Zerbitzua.

Bilboko guztirako biztanleriak gora egin du; Ibaiondo izan ezik ez dago biztanleak galdu ez dituen barrutirik, ordea.

Bilboko 2008ko biztanleriaren piramidea, sexuaren eta adin-tarteen arabera (milaka).



Iturria: Udal errolda.

Bilboko biztanleriaren bilakaera barrutien arabera, 2007-2008.

BARRUTIAK	2007	2008	Ald.(%)
Deustu	51.989	51.730	-%0,5
Uribarri	38.858	38.542	-%0,8
Otxarkoaga-Txurdinaga	28.871	28.818	-%0,2
Begoña	43.390	43.296	-%0,2
Ibaiondo	58.064	59.403	%2,3
Abando	51.624	51.538	-%0,2
Errekalde	47.476	47.363	-%0,2
Basurtu-Zorrotza	33.666	33.490	-%0,5
GUZTIRA	353.938	354.180	%0,1

Iturria: Udal errolda.

Bilbon 354.180 biztanle erroldatuta zegoen 2008ko urtarrilean. Bilbo metropolitarreko biztanleen %39 eta Bizkaia osoko %31 osatzen dute. Hori horrela, urtea zifra positiboekin amaitzeaz gain, 2007ko datuekiko %0,1 igo da biztanleen kopurua.

Biztanleriaren hazkunde txiki hau 2000. urteaz geroztik udalerriak mantendu duen ibilbide demografikoaren ildotik doa.

Saldo begetatibo negatiboa dauka hiriak jaiotza-tasa baxua dela-eta. 2008an, Bilboko jaiotza-tasa gordina (milako 8,69) Bizkaikoa (9,67), EAEkoa (10,08) eta Estatukoa (11,38) baino baxuagoa izan da.

Ibaiondon 1.339 auzokide gehiago dago eta, horrexegatik, biztanlerik galdu ez duen barruti bakarra izan da. Izan ere, hazkunde hori dela-eta izan du udalerriak azken saldo positiboa, nahiz eta 242 biztanle berri baino erregistratu ez dituen.

Sexuen arabera, emakumezkoak (186.727) gehiengoa dira, biztanleria guztiaren %52,7. Gizonezkoak, berriz, 167.453 izan dira urte honetan, hau da, gainerako %47,3.

Biztanleriaren banaketa adinaren arabera honako hau da: %15,6k 20 urte baino gutxiago du, %63k 20tik 64ra bitarteko adina du eta, azkenik, %21,4k 65 urtetik gora du. Biztanleria gazteena duen barrutia Otxarkoaga-Txurdinaga da; adineko gehien daukaten barrutiak, aldiz, Abando eta Uribarri. Biztanleriaren batez besteko adina 44,13 urtekoa da.

1998tik 2008ra bi joera nagusitu dira demografiaren aldetik: batetik, jaiotza-tasa baxua (%10,4 gutxiago 0 eta 19 urte bitartekoetan) eta, bestetik, biztanleriaren zaharkitze prozesu etengabea, (65 urtetik gorakoak %9,1 gehiago izan dira 2008an, hau da, Bilboko biztanleria guztirakoaren %21,4).

Biztanleria dentsitate handiena duten barrutiak Begoña eta Abando dira, m²–ko 24.000 biztanleren gainetik baitaude. Basurtu-Zorrotzan erregistratu da dentsitate gutxien, 4.724 bizt./m². Uribarrik du Bilboko batezbestekoaren dentsitate antzekoena.

Kanpoko biztanleria

2008. urtean 25.263 atzerritar egon da Bilbon, biztanle guztien %7,1. Udalerrian 132 nazionalitatetako herritarrak bizi dira: egun hiribilduan bizi direnen %59 Erdialdeko eta Hego Amerikako jatorrikoak dira eta, hauen artean, %31 Boliviatik etorri dira.

Azken hamar urteetan hiribilduak hartu dituen gehienak latinoamerikarrak izanik, euren kopurua bikoiztu egin da. Europakoak, aldiz, %17,4ra jaitsi dira 2008an, 1996an ia %41 izan ziren arren.

Atzerritarren %57,2 Ibaiondon, Errekalden eta Deustun bizi da. Horrez gain, Ibaiondon eta Errekalden, beste barrutietan ez bezala, atzerriko biztanleen ehunekoa biztanleria orokorraren ehunekoaren gainetik dago.

Begoñan, udalerriko errumaniar kopururik handiena dago; Deustun eta Uribarrin, baina, kolonbiarrak eta boliviarrak gehiengoa dira. Frantziarrek eta paraguaitarrek Abandon bizitzea dute gogokoen; txinatarrek, aldiz, Errekalden. Ibaiondon nazionalitate askotariko herritarrak bildu dira, baina aljeriarrak, marokoarrak eta senegaldarrak dira ugarien.

5 kapitulua

BIZTANLEEN EGOERA EKONOMIKOA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

Baliteke Bilboko herritarren ongizatea eta aurrerapena Barne Produktu Gordina (BPGd) eta errenta bezalako adierazleekin neurtzea udalerriaren gizarte garapena zehazteko nahikoa ez izatea. Halarik ere, estatistiketan oinarritzen direnez, urte honetako biztanleen egoera ekonomikoaren bilakaeraren ikuspegi aski zorrotza eskaintzen digute, gizarte errealitatearen neurrikoagoak izango liratekeen Giza Garapenaren Indizea edo Ongizate Ekonomiko Jasangarriaren Adierazlea bezalako aldagaiak mundu osoan orokortzen ez diren bitartean behintzat.

Horrela, bada, Bilboko batez besteko familia-errenta erkidegoko, probintziako eta eskualdeko batez bestekoaren gainetik dago 32.463 eurorekin, baina beste euskal hiriburu bien eta Getxo, Lezama edo Loiu bezalako udalerrien atzetik ere bai.

Per capita BPGdari dagokionez, EAE dago buruan biztanleko 32.133 eurorekin, Estatuko batez bestekoa (24.020 euro) baino %34 gehiago. Sailkapen honetan, EAEren atzetik Madrilgo Erkidegoa (biztanleko 31.110 euro), Nafarroa (30.641 euro) eta Katalunia (28.095 euro) daude. Gainera, BPGdak bilakaera positiboa izan du EAEn eta %5 hazi da, nahiz eta 2007an hazkunde nabariagoa izan zuen (%8).

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) egiten duen Bizi Baldintzei buruzko Inkestaren arabera, EAEko familien batez besteko diru-sarrera hirugarren tokian legoke 32.498 eurorekin, Nafarroako (36.257€) eta Madrilgo datuen atzetik (35.628€).

Azken bost urteetan, euskal familien bi herenek lasaitasun handia agertu dute beren etxeko egoera ekonomikoarekiko eta, horrez gain, etorkizunerako bizimodu erosoa espero dutela adierazi dute. 2008. urtean, aldiz, egoerak okerrera egin duela nabari dutenen portzentajeak gora egin du: zorrak dituztenen arteko %25,5ek zalantzak ditu etorkizunean biziko duen egoerari buruz eta %4,8k egoera kezkagarria iragarri du (%18,9 eta %3,4, hurrenez hurren, 2007an).

2008an, babes sozialeko programak askotu egin dira lehendik ere bazeuden sistemak areagotzeko. Diru-sarreren Bermerako eta Gizarteratzeko legea eta Gizarte Zerbitzuen legea atera dira; Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eratu da eta, estatu mailan, “Babes Sozialerako eta Gizarteratzeko Estrategien Estatuko Txostena, 2008-2010” sortu da. Azken hau Lisboako Estrategiaren helburuei ekiteko oinarrizko erreferentzia izateko egin da.

Nahiz eta diru-sarreren bermerako sistemak aldizkako diru-laguntza (Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera) baten bidez mantenurako oinarrizko diru-sarrera ziurtatzen duen, kontzeptu hauetan egindako gastua Euskadin 47z biderkatu da, onuradunak, berriz, 9,5ez soilik biderkatu direla.

Bilboko batez besteko familia-errenta 32.463 eurokoa da, erkidegoko, probintziako eta eskualdeko batez bestekoaren gainetik.

Per capita BPGdaren urteko aldakuntzaren (%) bilakaera EAEko eta lurralde historikoetako biztanle bakoitzeko, 2000-2008.



Iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak.

Oinarrizko errentako eta gizarte-larrialdietarako laguntzen eta laguntza berezien bilakaera Bilbon 2005-2008 urteetan.

LAGUNTZA MOTA	2005	2008
OINARRIZKO ERRENTA		
Bizikidetzako unitateak	9.536	12.241
Pertsonak	18.342	22.930
Gastua (€tan)	54.299.627	79.117.565
GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK		
Bizikidetzako unitateak	6.484	7.421
Gastua (€tan)	7.902.137	10.906.683
UDAL LAGUNTZA BEREZIAK		
Bizikidetzako unitateak	96	116
Gastua (€tan)	150.000	250.000

Iturria: Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Saila.

Hori horrela, 2008. urtean langabeziako prestazioa jaso zutenen kopurua 51.900 pertsonakoa izan zen EAEn, 2005. urtean baino 8.900 gehiago. Halaber, azken bost urteetan EAEko pentsiodunen portzentajea %9 igo da (guztira, 479.400 pertsona 2008an), erretiro-pentsioaren onuradunen gorakadagatik (29.900 pertsona gehiago), batez ere.

Eusko Jaurlaritzak egindako “Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta”-ren arabera, 39.737 familia euskaldunetan mantentze- eta metatze-pobreziaren arrisku egoeraren bat nozitzen dute. Horrek zera esan nahi du, Autonomia Erkidegoko etxeen %5engan edo 100.250 pertsonarengan (guztirako biztanleen %4,7) dutela eragina egoera horiek.

Pertsona hauen gehiengoa arrisku talde nagusien barne dago: guraso bakarreko familiak, lan egonkorrik ez duen 45 urtetik beherako emakume edo gizon bat buru dutenak; lan egonkorrik ez duten 65etik beherako pertsona bakarrak; EBetik kanpoko herrialdeetatik etorritakoak eta lan egonkorrik gabeko 45etik beherakoen familia taldeak.

Oso esanguratsua da pobreziak Bilboko adierazleetan (guztirako biztanleen %9,4) eragindako alde nabarmena, zeren pobreziak jotako Euskadiko eremurik nabarmenena bihurtzeaz gain, gainerako euskal eskualdeetatik oso urrun kokatzen baituen.

Errealitate hori Administrazioko estamentu guztien Gizarte-ongizate politiken atzean dago, berdintasuna eta gizarte kohesioa sustatzeko beharrezko diren ekonomia eta enplegu politiken osagarri diren heinean.

Hortaz, Euskadin gizarte zerbitzuetan gastatutakoa 1.616 milioi eurora heldu zen ia 2007an, aurreko urtean baino %11 gehiago, hau da, euskal BPGdaren %2,45 eta biztanleko 753 euroko batez besteko gastua (Bizkaian, 741). Zenbateko honetatik, 530 euro funts publikoetatik ateratakoak dira.

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

Bilboko hezkuntza eta prestakuntza zentroek beste udalerrietako hainbat ikasle erakartzen dute.

Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioa

2008-2009 ikasturtean, araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioen ikasle kopurua Bilbon 53.499koa izan zen, aurreko ikasturtean baino %1 gutxiago. Hezkuntza motaren araberako banaketari dagokionez, Haur eta Lehen Hezkuntza dira kopurutsuenak, 27.453 ikaslerekin. Ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak 10.389 ikasle ditu; Batxilergoan 5.013 ikasle matrikulatu dira; eta, azkenik, Lanbide Heziketan 5.280 ikasle daude. Hezkuntza bereziak eta helduenak 5.364 pertsona gehitzen diote guztirako ikasleen kopuruari.

Hezkuntza mota honetako 155 ikastetxe daude Bilbon, 83 jabetza pribatukoak eta 72 ikastetxe publiko.

Bilboko udalerrian Bizkaia osoko araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioko ikasleen ia %30 biltzen da. Portzentaje honen barruan alde handia dago irakaskuntza mailaren arabera; esaterako, haur hezkuntzako ikasleak %26,1 dira eta LHkoak %42. Azken datu honek zera erakusten du, Bilboko lanbide heziketako zentroek beste udalerrietako ikasleak erakartzeko gai direla.

Unibertsitateko irakaskuntza

2007-2008 ikasturtean, Bizkaiko unibertsitateko ikasleak EAE osoko %52,1 izan dira, 33.926 ikasle, guztira. Aurreko urtearekiko ikasle kopurua %2,8 jaitsi da, hortaz. Ikasle guztien %78,1 zentro publikoetan aritu da eta %21,9 pribatuetan. Ikasle eta irakasleen arteko ratioak hobera egin du eta 11,6koa da jadanik.

Lanerako prestakuntza eta etengabekoa

Bilbon, 4.722 pertsonek bere gaitasun eta trebetasun teknikoak lortu edo hobetu dituzte EEZPren Lanerako Prestakuntzako zein Lanbideko 109 ikastaroetan.

Lan munduratzea

2008ko adierazle ekonomiko nagusien bilakaera ikusita, Lanbideko lanerako prestakuntzan parte hartu dutenen arteko askok lana aurkitu izana aipatzekoa da, EAE mailan %71 izan dira eta. Bilbon, datu hori %67,9koa izan da, hots, kontratazioek beheranzko joera izan dutela baieztatu ahal izan da.

Lanbide Heziketako titulua dutenen lan munduratze maila neurtzen duen Bizitza aktiboan sartzeari buruzko inkestaren arabera, ikasketak 2006an bukatu zituzten Bilboko ikasleen artean okupazio-maila %64,5ekoa da, aurreko urtekoa baino portzentajezko 5,1 puntu gehiago.

Azkenik, interesgarria da oso UPV/EHUko lan munduratze mailaren bilakaerari erreparatzea. Inkesta egin duten azken promozioen datuei kasu egiten badiegu, EHUko ikasleen okupazio-maila graduatu eta hiru urtera %83tik (2001eko promozioa) %89,8ra bitartekoa da (2004ko promozioa). Aztertutako epe bereko langabezia-tasaren batezbestekoa %10,1ekoa da. Emaitzarik txarrena 2001eko promozioari dagokiona da, %12,9, hain zuzen, eta hoberena, 2004koa, %6,6 besterik ez.

Bilboko araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioetako ikasleak mailaren eta titulartasunaren arabera, 2008-2009 ikasturtea.

HEZKUNTZA	Publikoa	Pribatua	Guztira
Haur hezkuntza	4.826	7.105	**11.931**
Lehen hezkuntza	6.467	9.055	**15.522**
Haur eta Lehen hezkuntza berezia	13	53	**66**
Helduen hezkuntza	4.967	248	**5.215**
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	3.749	6.640	**10.389**
Derrigorrezko bigarren hezkuntza berezia	9	10	**19**
Batxilergoa	2.274	2.739	**5.013**
Erdi mailako lanbide heziketa	659	1.419	**2.078**
Goi mailako lanbide heziketa	1.411	1.791	**3.202**
Hezkuntza berezia: eginkizunen ikaskuntza	17	47	**64**
GUZTIRA	**24.392**	**29.107**	**53.499**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Arte Eder Museoak 100 urte bete ditu, proposamen kulturalak eta kirola egitea oso aintzat hartzen duen hirian.

Bilboko kultur guneen eta kirol ekipamenduen erabilera 2008an.

Kultura edota kirol guneak	Erabiltzaileak
Guggenheim Bilbao Museoa	951.369
Euskalduna Jauregia	326.277
Arte Eder Museoa	223.197
Arriaga Antzokia	173.861
Liburutegi sarea	78.252
Bilbao BBK Live jaialdia	80.000
Udal polikiroldegiak	69.601
Kobetasonik jaialdia	53.000
Bilborock-La Merced	52.734
Bilbao Arte Fundazioa	37.620
Bilbao Eszena	14.834
Udal kirol ikastaroak	12.669
Udal Bandak (Musika eta Txistulariak)	10.700
Zinebi Nazioarteko Jaialdia	10.386
Jet Lag Bio	10.000
BAD Bilbao Antzerki Dantza	3.536
Zirkuitoa	1.680
Udal Musika Eskola	1.556
Otra Actividad Cultural Municipal (1)	236.835

(1) Dagoeneko taulan aipatutako udal ekipamenduen datuak izan ezik.

Kultura

Bilboko Udala udalerriaren "bizitza" kulturalaren sustatzaile eraginkorra eta beharrezkoa izan behar da. Horretarako, jarduera anitz antolatzeaz aparte, zerbitzu eta entitate egonkorren kudeaketa ere hartzen du bere gain.

2008ko jarduera kulturala 8 Programa zabaletan bana daiteke, 54 proiektuen bitartez garatu ahal izan direnak. Ondorioz, 3.167 ekitaldi egin dira eta hauetan 591.004 herritarrek parte hartzeko aukera izan dute.

Arriaga Antzokiak 63 ikuskizun ezberdinen 235 emanaldi eskaini ditu, guztira 173.861 ikusle batu dituztenak. 2008an bildu duen diru-kopurua 3.403.527 eurokoa izan da.

BILBAO ESZENAk 14.834 parte-hartzaile gehiago izan ditu zentroan eta, horrez gain, urteko ikastaroetan 133 ikasle eduki ditu matrikulatuta. Zirkuitoan antzerki amateurreko 24 konpainiek esku hartu dute.

BAD, Bilboko Antzerki eta dantza garaikidearen jaialdiak hamar urte bete ditu 2008an. Programazioak, 22 konpainiaren laguntzaz, 58 ekitaldi izan ditu. Guztira, ikuskizunok 3.536 ikusle izan zituzten.

Euskalduna Jauregiak, kultura jarduerei soilik kasu egiten badiegu, 346 emanaldi taularatu ditu urte honetan. 326.277 ikusle izanda, sarreren salmentagatik 9 milioi euro lortu ditu.

Bilborock proiektuaren barne 299 ekitaldi antolatu dira, guztira 52.734 pertsona bertaratzea lortu dutenak.

Bilbaomusikak 1.556 matrikula lortu ditu Udal Musika Eskolan eta 10.000 pertsonatik gora batu ohi ditu Euskalduna Jauregian egiten diren Udal Musika Bandaren kontzertuetan.

Bilbao BBK Live jaialdiaren 3. urteak eta **Kobetasonik**en lehenak sei egunetan 133.000 musikazale biltzeko balio izan dute.

Bilboko Udal Liburutegiek, 300.000 aleko funts bibliografikoa dutenak, 650.000 bisitatik gora jaso dute. Hori ez ezik, dagoeneko txartela daukaten 78.252 erabiltzaile dituzte.

Guggenheim Museora 951.369 pertsona hurbildu da urte honetan programatutako zazpi erakusketak ikusteko xedeaz. Museoak antolatu dituen jarduera hezigarrietan 472.809 parte-hartzaile egon da. Jadanik 16.000 baino gehiago dira Museoaren Lagunak, urte honetan, kudeatzen duten baliabideen %65 bere kabuz sortzeko gai izan direnak.

2008. urtean, Bilboko Arte Eder Museoak 100 urte egin ditu, "ehun urteko historia eta hamar mendetako artea". Guztira, 223.197 bisitari izan ditu, 2007an baino %35 gehiago, Sorolla. Espainiaren ikuspegia erakusketa paregabea hiribildura ekarri duelako, batik bat.

Bilbao Arte Fundazioak berriz ere nabaritu du guztirako bisitari kopuruaren gorakada urte honetan; guztira 37.620 izan dira, 2007an baino %9,6 gehiago.

Bilboko museoen eskaintza honako hauekin osatzen da: Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa, Berreginen Museoa, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa eta Elizbarrutiko Arte Sakratuko Museoa, besteak beste.

Kirolak

Bere xedea herritar guztiei kirola hurbiltzea izanik, Bilbao Kirolak proiektuak udaleko kirol instalazioetan 69.601 erabiltzaile izatea lortu du. Kirol ikastaroetan 12.669 pertsonak izen eman du 49 kirol-modalitatetan 715 talde osatuz, kirol egokitua barne. Begoñan eta Errekalden dago kirol ekipamenduen eskaintzarik zabalena.

LAN MERKATUA

Lan egitura

Jarduera ekonomikoaren atzeraldiak eragin aski nabarmena izan du lan merkatuan 2008. urtean. Gainera, urte hainbatetan goranzko joera eutsia izan ondoren eta 2007ko urtean hazkunderik garrantzitsuena erregistratu ondoren, urteko azken hiruhilekoan atzeraldia areagotu egin da, hala erakusten baitute galdutako lanpostuek. Enpleguen desagertze honen erruz, langabezia-tasa %11,5era heldu da Bilbon.

Makalaldia eraikuntza sektorean hasi zen 2007an, gerora, 2008. urtea igaro ahala gainerako sektoreetara zabaltzeko. Industria ere, 2007an susperraldia izan eta gero, lanpostuen galera nabarituz joan da 2008an. Zerbitzuak, aldiz, beste jarduera arloen bilakaera negatiboa berdintzeaz arduratu behar izan dira eta horretan saiatu dira.

Bilbo metropolitarraren barne, enplegu tasa altuena duen eskualdea Ezkerraldea da. 170.931 lanpostu dago bertan, zera, 2003. urtearekiko 17.000 lanpostu berri baino gehiago sortu direla esan nahi du horrek, beste eskualde guztietan baino gehiago. Bigarren postuan Bilbo legoke 150.399 lanposturekin, epe berean 12.000 lanpostu inguru irabazita. Aurreko urteko datuekin alderatuz gero, eskualde hauek biak dira atzera pixka bat egin dutenak enpleguari begira. Hala, azken urteetako goranzko joera bertan behera geratu da.

Bilbon, jarduera arloen arabera okupatutako pertsonen banaketa eginez gero, zerbitzuetan batzen direla gehienak ikusiko dugu. Enpresa zerbitzuetan daude gehien, %14,4, eta merkataritza sektorean beste %13,4. Bilbon okupatuta dauden %10 eraikuntzan aritzen dira eta %9 garraio eta komunikazioen sektorean. Jarduera arlo hauetan bietan, gizonezkoak dira nagusi. Industria jardueretan (%5) arlo metalurgikoa da langile gehien biltzen dituena, hauen kasuan ere, gehienak gizonezkoak direla.

Hona hemen emakumezkoak nabariago diren beste arlo batzuk: osasuna eta gizarte zerbitzuak, hezkuntza, merkataritzako beste zerbitzu batzuk, etxe-zerbitzua, ostalaritza eta enpresa zerbitzuak.

Gizarte Segurantzan afiliatutakoen kopurua 178.531koa izan da Bilbon 2008. urte amaieran, beraz, %1,9 (3.463) afiliatu gutxiago egon dira. Irailetik aurrera nabaritu da beherakada hori, erkidego mailan baino apur bat lehenago. Ekitaldi amaierarako, beherakada %1,1ekoa izan da.

Afiliatu kopuruaren urtetik urterako aldakuntzak zera adierazten du, 2008ko azken zatian, bai eraikuntzan, bai industrian, afiliatuen guztirakoa maldan behera erori dela. Hala ere, zerbitzuen sektoreak ekonomiaren erortze horri eustea lortu du. Horrela, bada, zenbait arlotan igo da afiliatuen kopurua, hala nola hezkuntza (%6,6), osasun jarduerak eta herri administrazioa (%3,2 bietan), eta, azkenik, energiaren sektorea (%3,5). Dena den, badira beste zerbitzu batzuk afiliatuen kopurua gutxitzen ikusi dutenak: ostalaritza (-%14), garraioa eta komunikazioak (-%1,9), enpresa zerbitzuak (-%2,1) eta zerbitzu kolektiboak edota pertsonalak (-%8), besteak beste. Finantza bitartekotzak ere atzerakada txikia nabaritu du urte honetan (-%0,3).

Bilbon, 2008ko ekitaldia %11,seko langabeziarekin eta %1,9 afiliatu gutxiagorekin amaitu da.

2008ko langabezia-tasa sexuaren eta adinaren arabera, lurraldeka.

	Bilbo	Bizkaia	Euskal Herria	Estatua
Gizona	%11,5	%10,8	%8,4	%13,8
Emakumea	%9,8	%9,0	%6,1	%10,7
< 25 urte	%13,7	%13,3	%11,8	%18,0
> 25 urte	%10,6	%10,0	%9,0	%14,0
GUZTIRA	**%11,0**	**%11,0**	**%10,0**	**%17,0**

Fuente: Servicio Público de Empleo Estatal.

Bilboko afiliatu kopuruaren eta langabeziaren bilakaera. 2003-2008.



Iturria: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala eta Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoa.

Enpleguaren Zerbitzu Publikoan erregistratutako pertsonen kopurua 18.156koa izan da Bilbon pasa den abenduan, urte osoko zifrarik altuena. Igoera kontuan hartzekoa da, izan ere, 2007an lan egin nahian baina enplegu barik zeuden pertsonekiko %31 igo baita. Abenduko langabezia-tasa %11,5ekoa izan da. Zifra hurbilekin erkatuz gero, Bilbok okerrago egin duela ageri da, Bizkaian eta autonomia erkidegoan %10,8ko eta %10,2ko langabezia-tasak erregistratu diren heinean, hurrenez hurren. Estatuarekin (%16,5) alderatuz gero, ordea, toki hobean legoke Bilbo.

Sexuaren arabera, langabezia gizonezkoetan igarri da batik bat, jarduera ekonomikoaren atzeraldia gehien nozitu duten sektoreetan nagusi direlako (eraikuntza eta industria). Horrela, bada, %48 hazi da gizonezkoen langabezia-tasa; emakumeena, aldiz, %19.

Langabeziaren gorakada gehien sufritu dutenak, baina, atzerritik etorritako langabetuak izan dira. Urte honetan, datu honen %89ko hazkunde esponentziala erregistratu da, gehienbat 25 eta 34 urte bitarteko gizonengan eragina izan duena.

2008. urtean Bilbon bizi direnei egindako kontratuak 143.785 izan dira, 2007an zehar egin zirenak baino %7 gutxiago. Jaitsiera hori gizon gazteenek sufritu dute gehien. %92 aldi baterakoak izan dira, urte osoaren buruan %7 behera egin duen kontratazio modalitatea, hain zuzen. Kontratu finkoak ere %3 jaitsi dira. Hazi den mota bakarra erretiro partzialeko kontratua da (%1).

Laneko ezbehar-tasa

2008. urtean Bilbon egoitza soziala duten enpresen ezbehar-tasa totala 51.520koa izan da eta, horien artean, %51,7k ez zuen bajaren beharrik izan eta 31 heriotza-istripuak izan ziren. 2008. urtearekiko %6,1 igo da, guztira 3.148 istripu izan diren heinean.

JARDUERA EKONOMIKOA

Bilboko enpresa sarea

Bere jarduera Bilbon garatzen duen establezimenduen kopurua 39.101era igo da 2008. urtean, hau da, aurreko urtean baino %4,2 gehiago. Guztira, establezimendu hauek 170.810 pertsonari eman diote lana. Enplegatze tasa hori %2,8 igo da 2007ko datuarekiko. Establezimenduko lanpostu kopuruen batezbestekoak ez du aldaketa handirik izan: 2008an 4,36 izan da eta 2007an 4,33.

Jarduera sektoreka zerbitzuetakoak (bankuak, aseguruak, enpresentzako zerbitzuak) dira gehien, guztira, 11.485 establezimendu. Hauek 50.301 lanpostu mantentzen dituzte. Jarraian, merkataritza dago, 9.872 lokaletan 26.894 pertsona enplegatzen dituen sektorea.

Barrutikako banaketa eginez gero, Abandok jarraitzen du Bilboko enpresa sarearen buruan, hau da, bertan dago enpresa dentsitaterik handiena: Bilbon dauden 100 establezimenduko 37,9 Abandon daude kokaturik (38 izan ziren 2007an). Hona hemen beste datu argigarri bat: 1.000 biztanleko 287,7 establezimendu dago Abandoko barrutian.

Bilboko establezimenduen kopurua eta enpresa dentsitatea 2008. urtean, barrutika.



Iturria: Eustat eta Udal errolda.

Establezimenduak 39.000 baino gehiago dira Bilbon. Txikizkako merkataritzak horietako %16,5 hartzen du eta guztirako enpleguaren %10 sortzeaz arduratzen da.

Bilboko establezimenduen eta enpleguaren banaketa 2008. urtean, jarduera sektoreka.

Jarduerak	Establezimenduak	Enplegua
Bankuak, aseguruak eta enpresentzako zerbitzuak	11.485	50.301
Dendak eta konponketak	9.872	26.894
Beste zerbitzu jarduera batzuk	6.086	46.950
Eraikuntza	4.379	15.953
Garraio eta komunikazioak	2.852	11.208
Ostalaritza	2.833	9.579
Industria eta energia	1.594	9.925
Guztira	**39.101**	**170.810**

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

Bilboko txikizkako merkataritzako establezimenduak, enplegua eta azalera (EJSNren banaketa) 2008an, jarduera arloen arabera.

Barrutiak	Establezimenduak	Enplegua	Azalera m²-tan
Abando	2.051	7.614	256.854
Ibaiondo	1.327	2.750	76.256
Begoña	779	1.453	47.538
Deustu	755	1.756	59.333
Errekalde	601	1.330	48.080
Uribarri	438	791	23.308
Basurtu-Zorrotza	380	619	20.282
Otxarkoaga-Txurdinaga	253	427	12.816

Oharra: Barrutikako batuketa partzialak eta guztirakoak ez datoz bat, barrutika zehaztu gabeko establezimenduak daudelako. Horren ondorioz, ezin da establezimenduen kopuruei dagozkien enplegu eta azaleraren datuak zehaztasunez esleitu.

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

Datu baxuenak Otxarkoaga-Txurdinagan erregistratu dira, guztirakoaren %3,6 (1.415 establezimendu) eta 1.000 biztanleko 49,1eko enpresa dentsitatea.

Abandoko dentsitate maila handiaren eraginari esker, Bilboko batez besteko dentsitatea 110ekoa da, Bizkaiak (92,2) edota Euskal Herri osoak (95,4) mila biztanleko erakusten dituzten ratioen oso gainetik.

Establezimenduen tamainari begira, 2008an, aurreko ekitaldietan bezalaxe, Bilboko enpresa sareak unitate txikietan banatzeari ekin dio. Normala da, orduan, mikroenpresak Bilbon nagusi izatea: establezimenduen %89,4k 5 langile baino gutxiago ditu (34.997 enpresa). Bilbon establezimenduko langileen batezbestekoa 4,3 langilekoa da.

Enpresaren eite juridikoari dagokionez, Bilboko 21.179 enpresa (establezimenduen %54,2) pertsona fisiko ziren 2008. urtean. Mikroenpresek eite horretarako joera izan ohi dute. Bere aldetik, sozietate mugatuak gero eta gehiago dira eta Bilbo osoan 10.746 enpresa izatera heldu dira 2008an.

Bilboko txikizkako merkataritza

Bilboko merkataritzaren garrantzia ekonomian duen eraginaren eta hiriko bizitzan duen presentziaren ondorioa da. Bilboko enpresa sarearen barne sektore honek duen indarra ez da nolanahikoa, 2008. urtean hiribilduko guztirako establezimenduen %16,8 (6.591 lokal) eta enplegu osoaren %10 hartu baititu bere gain (17.408 lanpostu). Bilboko txikizkarien establezimenduen guztirako azalera 562.461 m²-koa da, eta horien batez besteko tamaina nahiko txikia, egia esateko (2,6).

2008. urtean, Bilboko txikizkako merkataritzaren jarduera arlorik ugariena elikagaiena izan da (1.810 establezimendu). Hauen barne autozerbitzuak zein espezializatutako establezimenduak sartzen dira, guztirakoaren %27 egiten dutenak. Ondoren, Jantzi eta oinetakoen salmentan jarduten diren establezimenduak ditugu, 1.434, guztira (%22). Hauen atzean, Txikizkako beste merkataritza jarduera batzuk ditugu (jostailuak, liburuak, etab.), 1.374 establezimendu, guztira (%21).

Udalerriko merkataritza jarduerarik nabarmenena azaltzen duen barrutia Abandokoa da, 2.051 establezimendurekin (guztirakoaren %30). Enplegatu guztien %44k egiten du lan hauetan guztietan, guztira, merkataritza azaleraren (256.854 m²) %46 hartzen duten lokalak, alegia. Lokalen batez besteko tamaina 130,25 m²-koa da.

Azpimarratzekoa da, baita ere, Abando txikizkako merkataritzako jarduera azpisektore gehienetan denda kopururik handiena hartzen duen barrutia dela. Gainerako barrutiak askoz atzerago daude ezaugarri honi dagokionez, elikagaien eta establezimenduetatik at egindako merkataritzaren kasuan izan ezik. Azken jarduera bi hauetako lokal kopuru handiena duen barrutia Ibaiondo da. Abandoko barrutia jantzi eta oinetakoen azpisektorearen buruan dago, Bilboko sektore guztiaren ia erdia bereganatzen baitu, %45,5, hain zuzen.

BILTZARRAK ETA TURISMOA

Bilbok EAEko turismoaren hiriburua izaten jarraitzen du

2008. urtean etorritako bisitariak 2007an baino %3,5 gutxiago izan dira eta, horren inguruan, betiere aurreko urteko datuak erreferentziatzat hartuz, ostatu-gauen kopuruak %4,2 egin du behera. Hori horrela, 2002. urteaz geroztik lurralde honetan bizitako goranzko joera bertan behera geratu da 2008an.

Estatuko turista kopuruaren beherakada Gipuzkoan gehien nabaritu delarik (%8,2), Bizkaia izan da atzerritarren bisiten galera handiena nozitu duen eskualdea (%4,4). Batez ere, urte honetan britainiar askoz gutxiago etorri delako gertatu da hori. Nolanahi ere, Bizkaia helburu nagusia da Euskadira datozen turista atzerritarrentzako, bisita guztien %50 eskualde honetan hartzen baitira.

Biltzarrak

2008ko datuak aurreko urtekoa aise gainditu du 192.110 ordezkarirekin. Guztira egin diren bilerak 981 izan dira, 2007an baino hogeita sei gutxiago.

2001etik 2008rako bilakaeran goranzko joera eutsia nagusitu dela ageri da; izan ere, bisitarien kopurua %152 hazi da eta bileren guztirakoa %87 igo da. Horrezaz gain, lortutako emaitzek Bilbon erabilitako sustapen estrategien baliagarritasuna baieztatzen lagundu dute eta, ondorioz, hiria bilerak egiteko zein formatu handiagoko batzarrak antolatzeko topagune aparte gisa aurkeztu ahal izan da. Hala, 2001ean bilerako 146 ordezkari egon baziren, 2008an 196 egon dira (Estatu mailan 152 izan dira, 2007ko azken datu eskuragarrien arabera).

Turismo jarduera

2008. urtean 604.318 bidaiari, kanpokoak zein estatukoak, etorri dira Bilbora. Turismo sektorearen joera orokorraren ildo beretik, adierazle honek %3 egin du behera eta, horrela, 2001ean hasitako hazkundea eten egin du.

Bilbon batzen dira, hain zuzen ere, Euskadi osoan erregistratutako 2.020.446 sarreren %30. Hala, gure erkidegoko turismoaren hiriburua izaten jarraitzen du, baita bidaiarien portzentajezko galera txikiena nozitu duena ere. Bisitarien %63,4 Estatutik etorriak dira; gainerako %36,6, atzerritarrak.

Bilbon egindako ostatu-gauak 1.115.693 izan dira, 2007an baino %2,9 gutxiago. 2008ko hotelen eskaintzak, ordea, %3,3 egin du gora eta, guztira, 2.337.368 ostatu-gau jarri dira eskura urte osoan. 53 establezimenduk osatu dute eskaintza hori, batez beste 121 ostatu-gau eskaini dituztenak.

Maiatzetik irailera bitartean jaso ditu hiriak turista kopuru handiena. Uztailean eta abuztuan, adibidez, 60.000 bisitaritik gora etorri da Bilbora. Abenduan eta urtarrilean erregistratu ohi dira, aldiz, zifrarik eskasenak, 40.000 bisitarien muga gainditu ezinik geratzen direla.

Sasoitik sasoirako aldaketa hauek bileretako turismoak orekatzen ditu, ohiko turismoaren behe-denboraldian hain justu areagotzen baitu bisitarien etorrera. Hala, 2008ko hilabeteetan zehar bilerek eragindako mugimenduei erreparatuz gero, ohiko turismoaren kontrako joera dutela ageri da. Azaroan erregistratu zen kopuru nabarmenena (%13,4) eta abuztuan, aldiz, txikiena (%0,8).

2008ko bilera eta turismoaren sasoitik sasoirako bilakaera alderatua.



Iturria: Bilbao Convention Bureau.

INFORMAZIOAREN GIZARTEA, IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA

Bilbon Estatuko asmakizunen (patenteak eta erabilgarritasun ereduak) %2,1 egiten dira.

2008ko Bizkaiko 10 langiletik gorako establezimenduak, informazioaren teknologietako ekipamenduen eta langileen arabera (establezimenduen %).



Iturria: Eustat. Informazio gizartearen inkesta, IGI enpresak

Bilboko patente eta marken eskaeren bilakaera, 2007-2008.

ESKAERAK	2008	URTEKO ALDAKUNTZAREN %	ESTATUAREKIKO %
Patenteak	89	%7,2	%2,3
Erabilgarritasun ereduak	50	%25,0	%1,9
Industria-diseinua	19	-%36,7	%1,3
Markak	1.198	-%19,8	%2,4
Merkataritzako izenak	123	%12,8	%2,1

Iturria: Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoa

Informazioaren gizartea

2008ko Bizkaiko datuek EAEren joera berbera erakusten dute: ekipamendu ezberdinek gora egin dute Bizkaiko zein erkidegoko establezimenduetan. Ordenagailu pertsonalaren kasuan, 2007ko datuekiko hazkundea portzentajezko 4,5 puntukoa izan da; %72,8koa, beraz, Bizkaiko establezimenduetan. Posta elektronikoaren erabilera ere igo da (portzentajezko 5,95 puntu) eta %62,3ra heldu da. Bestalde, establezimenduen % 64,7n badute Interneteko konexioa, zifra hori 2007arekiko 4,8 puntu igo dela. Telefono mugikorraren hazkundea ez da horren nabarmena izan (2,8 puntu) baina Bizkaiko enpresetan nagusi den ekipamendua da, hala ere, horietako %78,8tan ezarri baitute.

2008an, Bizkaiko etxeetako %56,8k ordenagailua izan dute, %48,7k Interneteko konexioa eta %45,3k posta elektronikoa. 2007ko urtearekiko, Internet daukaten etxeetan nabaritu da hazkunderik garrantzitsuena, portzentajezko ia 5 puntu igo baita. Bestalde, Bizkaiko biztanleen %89,2k telefono mugikorra du.

Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerak

Eustaten datuen arabera, EAEn 1.090,265 milioi euro inbertitu da 2007an ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko zein I+G jardueretan, hau da, aurreko urtean baino %20,1 gehiago.

2007. urtean egindako gastu hori EAE osoko BPGdaren %1,65 da, 2006koa baino 0,18 gehiago. Euskal BPGdaren hazkunde nominalek azken urteetan portzentaje horrek nolabaiteko hazkunde iraunkorra izatea eragin dute. Ondorioz, EAE Espainiako batezbestekoaren gainetik jarri da (%1,27), baina oraindik 25en Europar Batasuneko batezbestekoaren azpitik jarraitzen du (%1,85 2007. urtean).

Bizkaiko BPGdaren ehunekoarekiko I+G gastua %1,49 izan da, 2006an baino 0,15 gora, hau da, 502.796 milioi eurokoa (EAE osoko %46,1).

2007. urtean, euskal enpresek 2.610 milioi euro zuzendu dituzte berrikuntza teknologikoko jardueretara, diru kopurua 2006ko datuekiko %10,9 handitu ondoren, Eustaten esanetan. Gastu hori BPGdaren %4,0 litzateke. Berrikuntzarako beharrezko diren jarduera nagusiei erreparatuz gero, barne I+G jardueretan egindako gastua azpimarratzekoa da, guztirakoaren %41,8 baita.

Orduan, bada, nahiz eta berrikuntzari zuzendutako gastu orokorra urtetik urtera haziz joan, berrikuntzarik egin duten enpresen portzentajeak bere horretan dirau. 2005-2007 epealdian enpresen %16,1 berritzailea izan da EAEn, 30.202, guztira.

Bilboko Patente eta Marken Bulegoan egiten diren izaera ezberdineko eskaera guztiak aztertzeak agerian uzten du bere berrikuntza-gaitasun handia. Izan ere, 2007ko datuekiko asmakizunen (patente eta erabilgarritasun ereduak) kopuruak gora egin du Bilbon.

Eskatutako 89 patenteek eta 50 erabilgarritasun ereduek EAE osoko modalitate horietako guztirakoaren %38,7 egiten dute. 1.198 markak guztirakoaren %52 dira, eta 123 merkataritzako izenak eta 19 industria-diseinuak, %54,2 eta %39, hurrenez hurren.

BilbaoLan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

2008ko Urtekari Sozioekonomikoa

Dokumentu osoa ondoko helbidean dago eskuragarri:

www.lanekintza.net

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa

2008

BILBOKO
urtekari sozioekonomikoa

anuario socioeconómico de

BILBAO

Observatorio Socioeconómico de Bilbao

LAN EKINTZA-BILBAO. Uribitarte, 6-1º. 48001 Bilbao • Telefono: 94 420 53 00/54 03 • www.bilbao.net/lanekintza • e-mail:observatorio@lane.bilbao.net
BILBAO METROPOLI-30. Gran Vía 45-2º. 48011 Bilbao. Teléfono: 94 415 86 85. www.bm30.es <http://www.bm30.es>

%50eko kofinantzaketa
Cofinancia al 50%
Europako Gizarte Funtsa
Fondo Social Europeo

Bilbao Lan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

BILBAO Metropoli-30

Bilboko urtekari sozioekonomikoa 2008

BilbaoLan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

AURKIBIDEA

Testuinguru sozioekonomiko orokorra 6
- Nazioarteko ekonomia 6
- Estatuaren ekonomia 11
- Euskal ekonomia 13
- Bizkaiko ekonomia 15

1. Lurraldea, klima eta ingurumena 22
- Lurraldea 22
  - *Bilbo metropolitrraren birsorkuntza urbanoa* *22*
- Klima 27
- Ingurumena 28
  - *Ingurumen jarduerak Bilbon* *28*

2. Oinarrizko azpiegiturak, garraioak eta komunikazioak 36
- Oinarrizko azpiegiturak 36
- Garraioak eta Komunikazioa 39
  - *Bilboko Aireportua* *40*
  - *Bilboko Portua* *40*
  - *Trenbide Sistema* *41*
  - *Bide-Sarea* *44*
  - *Geltoki Intermodala* *46*
- Mugikortasuna Bilbon 46
  - *Garraio publikoa eta pribatua* *46*
  - *Mugikortasun iraunkorra: oinezkoak eta bizikleta* *48*
- Aparkalekuen kudeaketa 49

3. Eraikinak eta etxebizitzak 52
- Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak 53
- Etxebizitza berriaren prezioa 54
- Erabilitako etxebizitzaren prezioa 57
- Alokatutako etxebizitza 57
- Garaje, trasteleku eta lokalak 60
- Etxeak eraikitzea eta berregokitzea 61
- Etxebizitzaren beharra eta eskaria 67
- Higiezinen finantzazioa eta familien zorpetzea 69

4. Demografia 73
- Aldaketa demografikoak: Erronka ala aukera? 73
- EAErako aurreikuspenak 76
- Bilbao: Biztanleriaren datu orokorrak 77
- Bilbo metropolitarra 85
- Kanpoko biztanleria 87

5. Biztanleen egoera ekonomikoa eta gizarte zerbitzuak 94
- Biztanleen egoera ekonomikoa 97
  - *Batez besteko familia-errenta eta errenta pertsonala* *97*
  - *Per capita barne produktu gordina* *99*
  - *Etxeetako diru-sarrerak eta gastuak* *100*
- Babes soziala 103
- Zerbitzu sozialak 106
  - *Gastua gizarte zerbitzuetan* *114*

6. Hezkuntza eta prestakuntza 118
- Biztanleriaren hezkuntza-maila 118
- Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioa 120
- Irakaskuntza arautuaren programa osagarriak 124
- Araubide bereziko irakaskuntza 125
- Lanerako prestakuntza eta etengabekoa 129
- Unibertsitateko irakaskuntza 131
- Prestakuntza maila ezberdinetako parte-hartzaileen lan munduratzea 135
- Atzerritarren hezkuntza maila 137

7. Kultura eta kirola 141
Kultura 141
Liburutegiak *142*
Arte eszenikoak *143*
Museo jarduerak *150*
Udal jarduera kulturala *155*
Kirolak 157
8. Lan-merkatua 161
Lan eta gizarte ingurua Europan eta estatuan 161
Enplegu politika europar batasunean *161*
Lan eta gizarte egoera espainiako estatuan *162*
Lan Merkatuaren ikuspegi orokorra 163
Biztanleriaren lan egitura *164*
Lan Merkatua eskualdeka Bilbo Metropolitarrean 166
Aldagai nagusiak *166*
Kontratazioak *171*
Gizarte segurantzako afiliazioa *173*
Inkestatutako langabezia *175*
Langabezia erregistratua *176*
Etorkinak *181*
Lan baldintzak 183
9. Ekonomia-jarduera 192
ETEak Europan 192
ETEak Espainiako Estatuan 193
EAEko enpresa-sarea 196
Enpresen demografia *197*
Bilboko enpresa-sarea 198
Enpresa-establezimenduak *198*
Sozietate berriak *205*
Bilboko txikizkako merkataritza *206*
Hainbat eremutako enpresa-sarearen konparazioa 213
Ekonomia sozialeko enpresak 215
Jarduera ekintzailea 219
10. Biltzarrak eta turismoa 228
Biltzarrak eta topaketak 228
Testuinguru orokorra *229*
Bilbon egindako bilerak *230*
Bilbao Exhibition Centre *233*
Euskalduna jauregia *235*
Turismo jarduera 236
Bilboko turismo jarduerao *237*
Bilboren eta Bizkaiaren, eae-ren eta beste arloen arteko turismo jardueraren konparazioa *241*
11. Informazioaren gizartea. Ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoa 246
Informazio Gizartea 246
Informazio eta komunikazioaren teknologien bilakaera *248*
Informazio gizartea enpresetan *249*
Informazio gizartea etxeetan *256*
Agenda digitala *259*
Berrikuntza, ikerketa eta garapen teknologikoa 261
Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerak *264*
Patenteak eta markak euskal autonomia erkidegoan *269*
Berrikuntzaren testuingurua. Kooperatiba-ikerketarako zentroak, teknologia parke eta zentroak *272*

Testuingurru sozioekonomiko orokorra

Foto: Bilbao Turismo.

Bilbao Lan Ekintza

Bilbaoko Bizitzaren Sozioekonomiko Ikuskatzailea
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

Testuinguru sozioekonomiko orokorra

Testuinguru sozioekonomiko orokorra

Nazioarteko ekonomia

Munduko ekonomiaren atzeraldia aurreikusitakoa baino sakonagoa izan da. Hala ere, NDFren ustetan, %3,2ko hazkundea erregistratu da.

2008. urtean, munduko ekonomiak atzerantz egin du etengabe. Estatu Batuetako hipoteka merkatuak sortutako egoeraren eraginez, gerora beste ekonomia aurreratuetara zabaldu zela eta 2007ko abuztutik aurrera finantza merkatuak kolokan jarri zituela kontuan hartuta, urte honetarako, nazioarteko erakundeek munduko ekonomiaren atzeraldia iragarri zuten. Atzeraldia uste baino askoz nabarmenagoa izan da, ordea. Ondorioz, lehen seihilekotik aurrera, batez ere, aurreikuspenak jaitsi behar izan dituzte.

Urteko lehen seihilekoan oraindik emaitza positiborik izan zen. Irailetik aurrera, aldiz, adierazle guztiek sekulako makalaldia erakutsi dute. Atzeranzko joera orokortu den arren, munduko ekonomiak %3,2ko hazkundea erregistratu du Nazioarteko Diru Funtsaren aburuz.

Erakunde honek %4,1eko hazkundea aurreikusi zion munduko ekonomiari 2008rako, aurreko urtean (%4,9 2007an) erregistratutakoaren azpitik. Estatu Batuentzako (%1,9) jaitsi ditu gehien Nazioarteko Diru Funtsak hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak. Bestalde, Eurogunearen eta Japoniaren kasuan, hazkunde aurreikuspenak %2,1 eta %1,7koak dira, hurrenez hurren. Aitzitik, garatze bidean dauden ekonomietan hazkunde erritmo bizia aurreikusi da.

Beste alde batetik, ELGAk (Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea) ezarritako BPGdaren hazkunde aurreikuspena %2,9koa zen 2008. urtean erakundea osatzen zuten herrialde guztietarako. Dena den, urtearen erdi aldera berrikusi egin du aurreikuspen hori eta %1,8ra jaitsi du. Estatu Batuentzako berrikuspenari begira, herrialde honen hazkundeak behera egingo du, %2tik %1,2ra. Euroguneari dagokionez, aurreikuspena %1,7koa da, nahiz eta hasieran %1,9koa zen.

Berrikuspen hauek mundu osoko burtsetan ere izan dute eraginik, 1929ko burtsaren porrota gertatu zeneko beste jaitsi behar izan baitira. Kanbio-merkatuetan ere nozitu dira egokitzapen hauek; ondorio gisa, dolarraren eta libraren balio-galtzea ekarri dute beste moneta batzuekiko, euroa eta yena, besteak beste.

Lehengaien prezioak hazi egin dira 2008ko uztailera arte, bai petrolioan eta bai elikadurarako lehengaietan. Orduz geroztik, baina, jaitsi egin dira berrikuspenak urte amaiera arte. Petrolio upelaren prezioaren berrikuspena nabarmentzeko modukoa da, 147 $-ekoa izanik urte amaierarako 39 $-ekoa besterik ez zela.

Bazirudien EEBBtako finantza sektoreak eragindako atzeraldia mundu osoan arintzeko Banku Zentralek hartutako neurriak nahiko izango zirela, hots, interes-tasa jaistea eta arazoak zituzten erakundeak likideziaz hornitzea. Halere, egoera goitik behera aldatu zen Lehman Brothers erakundeak porrot egin zuenean, 2008ko irailetik aurrera, eta mundu mailako krisi finantzarioa bilakatu zen.

Gertaerak nondik nora zihoazen ikusita, konfiantza falta arruntu egin zen, bai finantza sisteman, bai ekonomian. Ondoriozko murrizketek eta merkatuaren likidezia ezak azkar jaitsi arazi zuten kontsumitzaile eta enpresen eskaria. Hori horrela, mundu osoko ekoizpen eta merkataritza maila maldan behera joan ziren, batez ere industrializatutako herrialdeetan.

2008ko laugarren hiruhilekoaren hazkunde ekonomikoaren datuak makalaldi honen erakusgarri ezin hobea dira. Urteko guztirakoa positiboa izanik ere, azken hiruhilekoan emaitza negatiboak izan dira herrialde gehienetan.

Herrialde garatuei dagokienez, Eurostaten arabera, Estatu Batuek %1,1eko hazkundea lortu dute urte amaieran. Laugarren hiruhilekoan, berriz, -%0,8koa izan da. 2008. urte bukaeran okerrera nabarmen egin zuen herrialdeetako bat Japonia izan zen; nahiz eta urte osoko hazkundea -%0,6koa izan, azken hiruhilekoan -%4,5 erregistratu zuen. Euroguneak ere %0,8ko hazkundea izan zuen arren, azken hiruhilekoan -%1,4 erregistratu zuen. Datu orokor hauez gain, aipagarria da Alemanian eta Frantzian gertatutakoa: aurrenekoan, urteko hazkundea %1,3koa izan zen eta azken hiruhilekoa -%1,8; Frantzian, urte osorako datua %0,4koa izan zen eta laugarren hiruhilekoa -%1,7.

Bestalde, garatze bidean dauden herrialdeek, 2007an ekonomia garatu nagusiek ez bezala ekonomiaren sustatzaile izan zirenak, hazkunde erritmo motelagoak izan dituzte 2008an. Dena den, ekonomia aurreratu horien hazkunde tasak erraz gainditu dituzte.

Asiako herrialdeen artean, NDFren datuen arabera, Txinak eta Indiak %9,0ko eta %7,3ko hazkundea izan zuten, hurrenez hurren, 2008. urtean. Hala ere, aurreko urtean baino gutxiago hazi ziren, orduan %13,0ko eta %9,3ko portzentajeak lortu zituztelako. Latinoamerikari erreparatzen badiogu, Brasilen %5,1eko hazkundea aipatu beharko dugu. Nahiz eta aurreko urtean beste ez hazi, herrialde aktiboenen artean egon zen. Mexikon nahiko mantsotu zen goranzko joera, 2007ko %3,3tik iazko %1,3ra, dudarik gabe, Estatu Batuetako ekonomia ahula hain hurbil izatea-gatik. Hazkunde tasa inportanteak izan dituen beste herrialde bat Errusia da, pixka bat behera egin duen arren, aurreko ekitaldiko %8,1etik 2008ko %5,6ra.

Nazioarteko erakundeek **datozen urteetarako egin duten aurreikuspenari** jarraiki, munduko ekonomiaren hazkundea gero eta ahulagoa izango da 2009. urtean. Hala, 2010era arte ez da inon hazkunde tasa positiborik egongo eta, egonez gero, herrialde gutxi batzuetan baino ez da izango.

2008an, Txina, India, Brasil eta Errusia bezalako garatze bidean dauden herrialdeek hazkunde erritmoa moteldu zuten. Datozen urteetarako aurreikuspenek diotenez, 2009rako jaitsi egingo dira, nahiz eta 2010erako zenbait herrialdetan hazkunde-tasak igo egingo duen.

Nazioarteko aldagai makroekonomiko nagusien eboluzioa eta horientzako aurreikuspenak 2007-2010 urteetarako:
(Urtetik urterako aldakuntza tasa)

KONTZEPTUA	2007	2008	2009	2010
BPGd ERREALA				
EEBB	2,2	1,1	-2,8	0,9
Japonia	1,9	-0,6	-6,8	0,7
Eurogunea	2,6	0,9	-4,8	0,0
ELGA	2,7	0,8	-4,8	0,7
NAZIOART. ESKARI ERREAL				
EEBB	1,4	-0,3	-3,5	0,8
Japonia	1,2	-0,9	-3,4	0,6
Eurogunea	2,4	0,6	-3,1	0,0
ELGA	2,4	0,4	-3,7	0,8
BPGdaren DEFLAKTATZAILEA (1)				
EEBB	2,6	3,3	0,2	0,8
Japonia	-0,5	1,4	-1,4	-1,4
Eurogunea	2,2	3,3	0,5	0,7
ELGA	2,3	3,2	0,6	0,8
LANGABEZ. TASA (Bizt. Akt. %)				
EEBB	4,6	5,8	9,3	10,1
Japonia	3,8	4,0	5,2	5,7
Eurogunea	6,8	7,5	10,0	12,0
ELGA	5,4	5,9	8,5	9,8

(1) BPGd osatzen duten ondasun eta zerbitzu guztien prezio maila neurtzen duen indizea.

Iturriak: ELGA (2008ko abendua).

2009ko hirugarren hiruhilekoan, EEBB eta Japonia beren ekonomiaren egoera suspertuko duten lehenak izatea espero da. Eurogunean, Frantzia eta Alemania etorriko dira bere onera azkarren; Espainia eta Irlanda, aldiz, azkenak izango dira. Txinak eta Indiak goranzko joerari eutsiko die eta munduko ekonomiaren eragileetako bat osatuko dute.

2009an, ekonomia aurreratuek -%4,8 galduko dute ELGAren ustetan. Herrialdez herrialdeko aurreikuspenen arabera, Estatu Batuek -%2,8 egingo dute behera; Japoniak -%6,8, eta Euroguneak, -%4,8.

Zailena eta, aldi berean, interesgarriena litzakeena zera da, krisialdi hau noiz amaituko den aurreikustea eta hazkunde motel baina positiboak eta segidakoak noiz hasiko diren argi eduki-tzea. Honen harira, ELGAren datuek 2009ko hirugarren hiruhilekotik aurrera joerak aldatuko duela erakusten dute. Hala izanez gero, Eurogunea izango litzateke bere onera itzultzen azkena, zeren 2009ko laugarren hiruhilekoan tasa negatiboak izango dituela aurreikusi baitioten.

Erakunde honen datuei jarraituz, 2010eko ekitaldirako %0,7ko hazkundea izango dute ELGAko herrialdeek, Estatu Batuetan eta Japonian %0,9 eta %0,7 hasiko direla, hurrenez hurren. Bi herrialde hauek izango dira, antza denez, beren ekonomien egoera bere onera ekartzen lehenak, 2009ko hirugarren hiruhilekoan jada hazkunde positiboa izango baitute.

Hala ere, 2010. urterako Euroguneko zenbatespenen arabera, BPGdak hobera egingo du, nahikoa portzentaje negatiboak uzteko baina ez hazkunde nabarmena lortzeko adina (%0,0ko zenbatespena). Aurreikuspen hau ezberdina da ELGA eremua osatzen duen herrialde bakoitzean. Alde batetik, Frantzia eta Alemania krisialdia atzean utziko duten lehenak izatea espero da, higiezinen sektoreak horrenbesteko eragina ez duelako herrialde hauetan. Hain zuzen ere, horrexegatik izango dira Espainia eta Irlanda susperraldia nabariko duten azkenak.

Bestalde, NDFk emaitza oso bestelakoak aurreikusi ditu herrialdearen arabera. Txinak eta Indiak goranzko bidean jarraituko dute eta munduko ekonomiaren eragileak izango dira. 2009an %6,5 eta %4,5 hazi dira, hurrenez hurren, eta 2010ean hobetzeko aukera izango dutela aurreikusi die erakunde honek, %7,5eko eta %5,6ko portzentajeekin.

Herrialdez herrialde xehetasunak aztertuz gero, bakoitzaren egoera argi eta garbi ageriko zaigu, 2009 eta 2010erako aurreikuspenak zein uneko egoera hau gainditzeko izango dituen zailtasunak. Horrexegatik, herrialde eta eremu ekonomiko gailenen azterketa egingo dugu jarraian.

ELGAren datuei jarraituz, **ESTATU BATUETAKO BPGdaren hazkundea** %1,1ekoa izan da 2008an (%2,2 2007an). Herrialde honetan atzeraldia 2007. urteko bigarren erdian hasi zen jada, bere finantza sistemaren zurrunbiloa dela-eta.

2008ko lehen seihilekoan bilakaera positiboa izan ondoren, urteko bigarren erdian makalaldian murgildu zen, batez ere finantza porrotek eraginda. Honek ondorioak izan zituen bai kontsumo pribatuan, bai kontsumitzaileen konfiantza faltan. Halaber, lan merkatuak okerrera egin zuen (%9ko langabezia-tasa aurreikusi da 2009rako) eta, inbertsioen eta esportazioen egoerak, likidezia areagotzera begira zenbait neurri hartzera behartu zuen Erreserba Federala, interes-tasei zein zergei dagozkienak.

Ezin aipatzeke utzi dolarraren balio-galtzea, EEBBtako tituluetan kanpo inbertsioak behera egin duelako gertatutakoa. Jaitsiera horren arrazoia hazkunde aurreikuspenak hoztearen eta interes-tasak murriztearen ondorioa da.

2008ko laugarren hiruhilekoan Estatu Batuek nozitu duten atzeraldiak bere horretan iraungo duela uste da, gutxienez, 2009ko lehen seihilekoan zehar. Aurreikuspena -%2,8koa da urte osorako, baina datorren urterako %0,9koa izango dela espero da.

JAPONIARI buruzko ELGAren datuek jarduera ekonomikoaren murrizketa handia sufritu duela erakusten dute, 2008an BPGdaren hazkunde tasa -%0,6koa izan duela (%1,9 2007an) eta azken urtearen beheranzko joera nabarmendu duela.

Bilakaera honen zergatia esportazioen beherakadan dugu, baita kanpo eskariaren moteltzean eta kontsumo pribatuaren jaitsieran ere. Horretan guztian lan merkatuaren ahuleziak ere izan du zerikusirik. Kanpo jarduerek bere hazkunde ekonomikoaren oinarrietako bat izaten jarraitzen dute; yenaren balio-galtzeak, ordea, hori ere okertzen lagundu du.

Beraz, herrialde honetarako aurreikuspenak 2009. urterako negatiboak dira oso, -%6,8 ingurukoak. Hala jarraituko du munduko merkataritza pizten ez bada eta kanpo eskariak gora egiten ez badu, bederen. Dena den, 2010erako dagoeneko %0,7ko hazkundea izango duela espero da.

EUROGUNEAN, ELGAren azken datuek adierazi dutenez, %0,9ko BPGdaren hazkundea izan da 2008an, aurreko urtean lortutakoaren oso azpitik (%2,6). Emaitza, beraz, positiboa da, baina urte honetako ekonomiaren atzeraldiaren adierazgarri ere bada. Uste baino nabarmenagoa izan da atzeraldi hori, laugarren hiruhilekoan gehienbat, non -%1,4ko beherakadak ekonomiaren momentu latza argi uzten baituen.

2008ko irailetik aurrerako finantza gorabeherek sakonarazi zuten laugarren hiruhileko honetako egoerak sisteman konfiantza falta ekarri zuen eta, hori ez ezik, likidezia eskastu egin zen finantza merkatuetan eta jarduerak nabarmen egin zuen behera.

Likidezia eza orokortu zela, agintariek azkar esku hartu zuten: bankuen arteko merkatua likideziaz hornitu eta, era berean, interes-tasak jaitsi zituzten. Bestalde, EBeko gobernuek ekonomia bultzatzeko neurriak hartu zituzten, azpiegiturak sustatzeko, batez ere, eta bide batez, krisialdi honen zartakoak arintzen laguntzeko.

Ildo honetan, Europako Banku Zentralak interes-tasan egindako aldaketak nabarmendu behar dira. 2008. urte amaieran %3,45eko tasa ezarri zuen eta azken hiruhilekoan %2 jaitsi zuen.

2008ko BPGdaren aldakuntza tasa arlo ekonomikoko:
(%)



Iturria: NDF, ELGA, EIN eta Eustat.

Eurogunean jarduerak behera egiten jarraitzea saihesteko banku arteko merkatua likideziaz hornitzeaz gain, agintariek interes-tasa jaitsi eta azpiegiturak berriztatzea ere sustatu zuten.

Gobernu europarrek hartutako neurriei esker, defizit publikoak 2007ko %0,7tik 2008ko %1,9ra igo dira. Europako Batzordearen datuen arabera, 2009an %5,3koa izango da.

Aldagai nagusien azterketak zera adierazten digu, barne eskariaren hazkundea izan dela aldagairik kaltetuena (%0,6 2008an eta %2,3 2007an). Horren arrazoia kontsumo pribatuaren, inbertsioaren eta kanpo eskariaren moteltzea lirateke. Ekonomiaren gainbeherako egoera honek ez du eraginik izan lan merkatuan. Langabezia-tasa egonkor mantendu da %7 inguruan, 2009an igoko dela uste den arren.

Azkenik, ezin aipatzeke utzi inflazioaren bilakaera negatiboa, prezioek %3,3ra igo bitartean, enpresen lehiakortasuna murriztuz joan baita.

2009. urterako ekonomia-uzkurdura nabaria aurreikusi da, 2008ko azken hiruhilekoaren atzeraldiaren ondoren. NDFk Eurogunearen BPGda -%4 jaitsiko dela iragarri du, ELGAk, berriz, -%4,8ko igoko dela aurreikusi duela. Behin betiko zifra edozein dela ere, erabat argi dago ekitaldia atzerakorra izango dela.

Hala ere, Europako egoera ekonomikoan aniztasuna dago hainbat herrialdek osatzen duten heinean. Alemaniak %1eko hazkundea izan du 2008ko BPGdean, nahiz eta urteko azken hiruhilekoan -%1,8koa izan duen. Esportazioen eta barne eskariaren ahuleziak eraginda lortu du zifra hori. Frantziako BPGdak %0,3 eskas baino ez zuen egin gora. Azken hiruhilekoan -%1,7ko hazkundea izan zuen. Erresuma Batuak %0,7ko haz-kundea lortu zuen 2008an baina, azken hiruhilekoan, higiezinen merkatuaren eta finantza sektorearen beherakada dela eta, -%4,9ko zifra erregistratu zuen. Italiak erabateko joera negatiboa izan zuen 2008an: -%1ekoa urte osorako eta -%3koa azken hiruhilekorako.

2010ean, hazkunde nulu eta guzti, egoera ekonomikoaren ondorio atzerakorrak igarriko dira lan merkatuan, eta %10etik gorako langabezia-tasak iragarri dira Eurogunean.

Eurogunerako aurreikuspenei dagokienez, 2010ean, aurreko urteko atzeraldia hazkunde eza bihurtuko da: %0,0. Zenbait herrialdetan, Alemania eta Frantzia bederen, goranzko joera lehenago igarriko da. Beste batzuetan, ordea, Espainia eta Irlanda, adibidez, higiezinen burbuilaren eraginpean egon direlako, atzeraldi egoera luzatu egingo da.

Bestalde, ekonomiak atzerago egin ez arren, lan merkatuan ondorio latzak izango dituela aurreikusi da. %10etik gorako langabezia-tasak iragarri dira Eurogunean.

Estatuaren ekonomia

Estatuko Barne Produktu Gordinak urtetik urterako %1,2ko gorakada izan du 2008. urtean, aurreko urteko %3,8ko hazkundearekiko atzeraldi gogorraren adierazgarri. Urtean zehar tasa horrek izan dituen gorabeherak xehetasunez aztertuz gero, Espainiako ekonomiaren etengabeko beheranzko prozesua ikusiko dugu. Lehen hiruhilekoan %2,7ko hazkundea izan zuen eta, urte amaieran, dagoeneko uzkurdura sakonean murgilduta, -%0,7koa.

Nazioarteko finantza merkatuen zurrunbiloak kontu nazionaletan izandako ondorioak merkatuan konfiantza galtzea eta likidezia eza izan dira, higiezinen sektorea gelditu izanak eta kontsumoak eta inbertsioak bat-batean jaisteak frogatzen dutenez.

Estatuan ez da hazkunde negatiboko halako egoerarik gailendu 1993. urteaz geroztik. Orduan, Bartzelona 92 eta Sevillako Expo erakusketa zirela-eta Estatuaren ekonomia zabaldu ostean, proiektu hauek amaitzean, hazkunde erritmoa bertan behera geratu zen.

Testuinguru honetan, barne eskaria %0,1era arte moteldu dela ere nabarmendu beharra dugu, 2007an %4,2ko portzentajeak izan ondoren, eta kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren beherakadak eraginda. Kontsumo publikoak, baina, ekinean darrai eskariaren zifrak bere horretan mantentzeko.

Finantza erakundeen egoeraren ondorioz, finantzazio arazoak sortu dira bai familietan, bai enpresetan. Ekonomiak izango duen bilakaerak sortzen duen mesfidantzak ondasun eta zerbitzu mota askoren eskariak behera egitea ekarri du. Hala, eraikuntza sektoreak eta horren menpeko den industriak ere nabaritu dute.

Azkenik, kanpo eskaria hobetu dela azpimarratzekoa da, BPGdaren gorakada ia osorik berorren erruz izan dela (%1,1ekoa 2008an eta -%0,5 2007an). Halere, gorakada horrek ez du esportazio jarduerek gora egin dutenik esan nahi; izan ere, jaitsi egin dira gutxika-gutxika. Alderantziz, Estatuaren jardueraren makalaldiak eragindako inportazioen beherakada izugarria dela-eta igarri da esportazioen hobetzea.

Prezioei begira, 2008an aurreko urtean baino inflazio-tasa baxuagoak egon dira. Inflazioa %1,4ra igo da 2008an, hots, 2007an baino askoz nabarmenagoa izan da (%4,2). Alabaina, prezioen nondik norakoek urte honetan bi joera ezberdin jarraitu dituzte.

Nazioarteko finantza merkatuen fidagarritasun ezak eta likidezia eskasiak higiezinen sektorea geldiarazi eta kontsumoa eta inbertsioa jaitsiarazi dituzte.

Estatuko aldagai makroekonomiko nagusien eboluzioa eta horientzako aurreikuspenak 2007-2009 urteetarako:
(Urtetik urterako aldakuntza errealaren tasa)

ALDAGAIA	2007	2008	2009(1)
BPGd	**3,8**	**1,2**	**-3,2**
ESKARIA			
Barne eskaria	**4,2**	**0,1**	**-5,3**
Kontsumo pribatua	3,4	0,1	-3,1
Kontsumo publikoa	4,9	5,3	3,5
Kapital-eraketa gordina	5,3	-3,0	-15,1
Kanpo eskaria (ekarpena BPGdaren hazkundeari)	**-0,5**	**1,1**	**2,3**
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa	4,9	0,7	-8,9
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa	6,2	-2,5	-15,1
PREZIO ETA KOSTUAK			
BPGdaren deflaktatzailea	3,2	3,0	0,7
LAN MERKATUA			
Enplegua(2)	2,7	-0,6	-5,3
Langabezia-tasa(3)	8,6	13,9	18,1

(1) Aurreikuspenak. (2) Arduraldi osokoen baliokide diren lanpostuei dagokienez. (3) Biztanleria aktiboaren %tan.

Iturria: EIN eta Ekonomia Ministerioa.

Espainian prezioak Eurogunean baino gehiago igo dira, hortaz, kanpo merkatuetan lehiakortasuna galdu dute bertako enpresek.

Oinarrizko produktuen eta petrolioaren garestitze orokorrak bere horretan segitu zuen uztailera arte, %5,3ko inflazioa eraginez. Gorakada honen ondoren, harritzekoa da urte bukaera arte behera egin izanak, epe horretan 3,9 puntu jaitsi baitzen. Erabateko aldaketa honen arrazoia urteko azken lauhilekoan eskaria jaitsi zela da, baita petrolio upelaren prezioaren espekulazioa amaitu izana ere; uztailean, Brent petrolio upelak 147 $-eko prezioa zuen eta urte amaieran 43 $ besterik ez zuen balio.

Halaber, Espainian prezioak Eurogunean baino gehiago igo zirenez, Estatuko enpresek lehiakortasuna galdu zuten kanpoko enpresekiko. Alemania (%1,1) eta Frantzia (%1,2) ditu Espainiak kanpo merkatu nagusi. 2009an zehar prezioek agertu duten bilakaerari erreparatzea nahitaezkoa da, prezioek beheranzko joera mantenduz gero deflazio egoera gailen zitekeelako, urte amaieran bere onera etorri arren.

2009. urtea atzeraldian sakonduz joango den ekitaldia izango dela eta -%3,7ko BPGda erregistratuko dela aurreikusi da (2008ko tasatik 5 puntu beherago). Beherakada latz honen ondorioz, ekonomia atzeraldi fase gogor batean sartuko da. Ondorioak aski nabariak izango dira enpleguan, 2009rako %18,4ko langabezia-tasara iristea espero baita.

Euskal ekonomia

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2008an %2,0ko hazkundea izan du BPGdak, hau da, 2007koaren (%3,9) azpitik, eta lehen hiruhilekotik hasita, jarduera ekonomikoa era nabarmenean motelduz joan da hiruhilekotik hiruhilekora, betiere hazkunde zifra negatiboetan sartu gabe.

Nabarmentzekoa da Europako Batasuneko ekonomia gehienek 2008ko azken hiruhilekoan BPGdaren hazkunde zifra negatiboak jadanik zituztela, euskal ekonomiak hazkunde txikia baina hala ere positiboa zuen bitartean, %0,4koa, hain zuzen.

Eskariaren aldetik, barne eskariak (%1,9) eta inbertsioak (%1,4) zifra positiboak eduki dituzte eta kontsumo publikoak %5,9ko hazkundea izan du. Hala eta guztiz ere, aurreko ekitaldiaren datuak bestelakoak izan ziren, barne eskariak %4,4ko hazkundea izan zuelako eta, batez ere, inbertsioak %5,9 egin zuelako gora.

2008ko urte osoko zifrak positiboak izan ziren arren, laugarren hiruhilekoan ekonomiak okerrera egin zuen adierazgarri dira, ordurako zenbait osagaitan negatiboak baitziren epe horretako zifrak, kontsumo publikoan izan ezik (%6,1).

Eskariaren ikuspuntutik, ekonomiaren hiru sektore nagusiek, industriak (%0,2), eraikuntzak (-%0,1) eta zerbitzuek (%3,3) azpimarratzeko moduko atzerapena nabaritu dute aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero. Dena den, aurreko urtean ere, bai industriak, bai eraikuntzak, gutxi gorabehera puntu bateko jaitsiera izan zuten (4,0 eta 4,6, hurrenez hurren). Zerbitzuei dagokie hazkundearen erritmoa bere horretan edukitzea, eraikuntzak higiezinen burbuilaren ondoriozko joera negatiboa erakusten duen bitartean.

Azken hiruhilekoan, eraikuntzan (-%2,8) eta industrian (-%2,9) ahulezia nabaria ageri da, eraikuntza azken xedetzat duten industrien eragina dela-eta. Zerbitzuen sektoreak, aldiz, %2,5eko hazkundeari eusten dio.

Prezioei dagokienez, Euskal Herrian Estatu mailan baino gehiago igo dira, %0,5. Inflazioa %1,9koa izan da Euskal Herrian, zera, 2007an erregistratutakotik 2 puntu beherago. Uztailera arte goranzko hazkundea erakutsi du eskari sendoari esker, baina urte amaieran sano egin du atzera krisialdia dela medio.

Eurogunearen datuekin erkatzean, inflazio handiagoa edukitzeagatik Estatuak Euroguneko beste herrialde batzuekiko lehiakortasuna galdu duela aipatu dugu jada, Frantziarekiko eta Alemaniarekiko, bereziki.

Hazkundea moteldu arren, euskal ekonomiaren BPGdaren zifrak positiboak izan dira hiruhileko guztietan.

EAEko aldagai makroekonomiko nagusien eboluzioa eta horientzako aurreikuspenak 2007-2009 urteetarako:
(Urtetik urterako aldakuntza errealaren tasa)

ALDAGAIA	2007	2008	2009(1)
BPGd	**4,1**	**2,0**	**0,5**
ESKARIA			
Kontsumo pribatua	3,4	1,1	0,3
Kontsumo publikoa	5,5	5,9	4,9
Kapital-eraketa gordina	5,5	1,4	-0,6
Barne eskaria	**4,4**	**1,9**	**0,8**
Kanpo saldoaren ekarpena	0,0	0,3	-0,3
ESKAINTZA			
Industria	4,0	0,2	-1,1
Eraikuntza	4,6	-0,1	-1,8
Zerbitzuak	4,2	3,3	1,7
PREZIO ETA KOSTUAK			
BPGdaren deflaktatzailea	2,5	3,0	0,5
LAN MERKATUA			
Enplegua(2)	2,8	1,1	-2,6
Langabezia-tasa	3,3	3,8	8,6

(1) Aurreikuspenak. (2) Arduraldi osokoen baliokide diren lanpostuei dagokienez. (3) Biztanleria aktiboaren %tan. 2009ko aurreikuspena urte amaiera arte da baliagarria.

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritza.

Euskal Herriarentzat ere balio du esan berri dugunak, %1,1eko indizea izanik, Eurogunetik ez ezik estatu mailatik gora ere baitago. Inflazio-diferentzia portzentajezko 0,8 puntukoa izan da. Horrek zera esan nahi du, Europako Batasuneko familiekin alderatuz, gure produktu eta zerbitzuen lehiakortasunak behera egin duela eta euskal familien erosteko ahalmena ere jaitsi egin dela.

Ekonomiaren hazkundea testuinguru ezberdinetan alderatuz gero, EAEn atzeraldia inguruko ekonomia gehienetan baino beranduago hasi dela ikus daiteke, higiezinen sektorearekiko Estatuan baino menpekotasun gutxiago dagoelako. Dena den, finantza eta higiezinen sektoreetako krisialdi hau beste sektore guztietara zabaldu da, industria bera ere barne hartuz.

Euskal Herrian duen garrantzia kontuan izanda, oso adierazgarria da 2008ko irailetik aurrera etxetresna elektrikoen sektoreak bizi duen atzeraldia, eraikuntzarekin estuki lotuta dagoen heinean, baita automobilgintza sektorearen jarduera-ren beherakada ere.

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenen arabera, euskal ekonomiaren BPGda oso gutxi haziko da 2009an. Halere, munduko ekonomia nagusien gainetik egongo da, hauek 2008ko azken hiruhilekoan atzeraldi sakonean sartuta egongo baitira.

EAEri dagokionez, 2008ko datuekiko aurreikusitako murrizketa puntu batetik gora dago (%1,5) eta hazkundea %0,5ekoa izatea espero da. Halere, aurreikuspenak egitean zentzuz jokatu behar da, mundu osoko ekonomiaren makalaldia dela-eta ziurtasunik eza nagusi delako.

S2009. urterako atzeraldi gogorra egongo dela aurreikusi da, bai eraikuntzan (–%1,8), bai industrian (-%1,1). Eraikuntza eraginik gehien nozitu duten sektoreetako bat da, hain zuzen. Zerbitzuen sektorea, berriz, hazi den bakarra (%1,7), nahiz eta honek ere 2008ko datuekiko atzeraldia nabarituko duela iragarri den.

Alderatutako BPGdaren hazkundearen eboluzioa Eurogunean eta EHAEn 1997-2008 urteetarako:
(Urtetik urterako aldakuntza errealaren %)



Iturria: ELGA. Eustat eta guk egindakoa, EIN.

Gaur egungo mundu mailako egoeraren eta ekonomiaren ahuleziaren eraginez kontsumo pribatua izango da kaltetuen, 2008. urtearekiko jaitsiera nabarmena izango duela espero baita (%0,3). Aurreikuspen hauek inbertsioaren okerrerako ere izango dira. Horregatik, gobernuek hainbat neurri ezarriko dituzte gastu publikoa areagotzeko, epe luzera defizit publikoa handituko dutenak.

Egindako aurreikuspenen arabera, Euskal Herriak Eurogunera eta, bereziki, Frantzia eta Alemaniara esportazio maila areagotu beharra du, kanpo eskariak ekonomiaren hazkundea pizteko balio dezan. Zenbait herrialderi iragarri zaion hobetze hori, baina, ez da 2010era arte gertatuko.

Bere onera bueltatzeko, Euskal Herriak Eurogunera egindako esportazioen kopurua areagotu behar du, Frantziara eta Alemaniara egindakoak, bereziki.

Bizkaiko ekonomia

2008an zehar, Bizkaiko Barne Produktu Gordinak behera egin zuen nabarmen 2007ko hazkundearekiko, betiere %2,2ko hazkunde positiboa izanik (%4,0 2007an), Eustaten Kontu Ekonomikoei jarraiki. Beheranzko joera argia agertu du, beraz, EAEren ekonomiaren bilakaeraren ildo berean, nahiz eta erkidegoko gainerako lurraldeetatik gora egon. Zifra hauek Estatukoen eta Eurogunekoen gainetik ere badaude. Aurreko urtearekiko datuak kontuan hartuta, 2008rako Bizkaiko ekonomiaren hazkunde tasak EAEn (%2,0) eta Estatuan (1,2%) erregistratutakoa gainditu ditu. Horrez gainera, Eurogunekoa (%0,9) ere atzean utzi du, etorkizunerako baikor izateko moduko datua litzatekeena.

BPGdaren hazkundearen eboluzioa Bizkaian. 2000-2008:
(Urtetik urterako aldakuntza errealaren %)



Iturria: ELGA. Eustat eta guk egindakoa.

BPGdak behera egin du Bizkaian azken hiruhilekoan; hala ere, emaitzak positibo izaten jarraitzen du.

Alabaina, urtean zeharreko ibilbideari erreparatuz gero zera ageri da, aipatu berri ditugun herrialdeetan bezalaxe, bi alde oso ezberdin erakutsi duen ekitaldia izan dela. Batetik, ekitaldiaren lehen zatian BPGdak %2,6ko hazkunde oso interesgarria izan zuen, nahiz eta aurreko urtekoaren azpitik egon. Bestetik, abuztutik aurrera, laugarren hiruhilekoan, BPGda %0,7ra arte murriztea ekarri zuen atzeraldia hasi zen. Datu hau, eskasa izanik ere, garatutako ekonomietako positibo bakarra izan da, bai Estatuan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, 2009. urte korapilatsu eta atzerakorra iragartzen duten zifra negatiboak besterik ez baitituzte.

BPGdaren eskaintzaren hazkundearen osaketa aztertzen badugu, eraikuntzaren apaltasuna (+%0,6), alde batetik, industria sektorearen (-%0,1) atzeraldia, bestetik, eta zerbitzuen sektorearen hazkunde erritmoak (+%3,5) ere bere horretan dirauela ikusiko dugu. Kasu guztietan aurreko urtearekiko atzeraldia egon bada ere, eraikuntzan nabarmenagoa izan da, 12 puntukoa, hain zuzen. Industriak ere hiru puntu baino gehiago egin du behera. Zerbitzuek, aldiz, zifra onak lortzen darraite. Lehen sektoreak aurreko urteetako ibilbide aldakorra agertzen jarraitu du.

BPGdaren hazkundearen eboluzioa Bizkaian sektoreka 2000-2008 urteetan:
(Urtetik urterako aldakuntza errealaren %)



Iturria: ELGA. Eustat eta guk egindakoa, EIN.

2008ko jarduera ekonomikoen analisiaren arabera, **industria jarduera** ekonomiaren atzeraldiaren isla dela ageri da. Sektore honetako adierazlearen bilakaerari begira, Industria Ekoizpenaren Indizea (IPI) deritzona -%2,4koa izan da urtetik urtera (2007ko %3,4koa ez bezala), EAE osorako ezarritako -%3,4tik behera.

Jarduera sektoreen portaerari dagokionez, **Manufaktura-industriaren** makalaldia (-%3,8 2008an) aipatzekoa da, baita **Erauzketa Industriarena** (-%23,1) ere. Aldiz, **Energia Elektrikoa, Gasa eta Uraren** sektorea aurrera egin duen bakarra izan da (%10,2).

Manufaktura-industrian, gai elektrikoen (%1,8) eta garraio materialen (%3,3) hazkundea nabarmen daiteke. Gainerako azpisektoreek, ordea, joera negatiboa agertu dute, batez ere zurgintzak (-%18,9) eta beste manufaktura batzuek (-%12,1).

Eraikuntzaren sektorean, aldiz, jarduera adierazle nagusiek islatzen dutena kontuan hartuz gero, 2008ko ekitaldia higiezinen merkatuaren krisia nagusitu zenekoa zela eta lizitazio ofizialen atzerakada (-%18,9) eragin zuela ikusiko dugu, eraikuntzan baino obra zibilean, batik bat.

Hasi eta bukatutako etxebizitza askeen kopuruak %24 baino gehiago egin du behera 2008an, aurreko urteen atzeranzko joera are gehiago nabarmenduz. Bestalde, bukatutako eta hasitako babestutako etxebizitzak %2,38 eta %1,44 jaitsi dira, hurrenez hurren. Sektoreko zifra onargarri bakarrak izan dira hauek, hain zuzen.

2007an ez bezala, babestutako etxebizitzak hasteko beheranzko erritmoa -%11,9tik –%1,44ra pasatu da 2008an, sektore publikoak egindako ahaleginei esker.

Zerbitzuen sektoreko ia adierazle guztiek bilakaera negatiboa izan dute 2008. urtean, etorkizunean konfiantza ahultzen duen eta kontsumoan eragin negatiboa duen ekonomiaren ikuspegi ilunagatik.

Garraioan, Loiuko aireportuaren trafikoa %2,7 jaitsi da aurreko urteko bidaiari kopuruarekin alderatuta. Aitzitik, Bilboko Metroan %0,6 igo da kopuru hori. Bestalde, Bilboko Portuko merkantzien trafikoa ere -%1,2 gutxitu egin da eta Loiuko aireportuko merkantzien zirkulazioak -%1,6 egin du atzera.

Turismoaren sektorean, hoteletan emandako gau kopuruak beherantz dirau (%3,6); horrez gain, hotelak aurreko urteko okupazio-mailatik behera geratu dira (%43,7).

Azkenik, merkataritza jardueren inguruan, aurreko urtean baino egoera askoz okerragoa erakutsi du merkataritzako salmenten kopuruak (-%3,6). Gehienbat, handizkako merkataritzaren jarduera moteldu delako (-%3,9) gertatu da, txikizkakoak ere askoz hobe egin ez duen (-%2,9) arren.

2008ko **prezioen** bilakaerak inflazio-tasa gorakorra agertzen jarraitu du urteko lehen seihilekoan, batez ere elikagaiei eta petrolioari dagokien heinean. Irailetik aurrera, baina, finantza sektorearen krisia areagotu ahala, bat-batean behera egin dute prezioek urte bukaeran. Bizkaian, tasa hau %1,8koa izan da urtea amaitzean, Estatuko zifraren gainetik (%1,4); dena den, aurreko urtean %4,2koa izan zelarik, nabarmen jaitsi dela ageri da.

Bizkaiko Industria Ekoizpenaren indizearen eboluzioa jarduera azpisektoreka 2006-2008 urteetan:
(Aldakuntza tasa)

SEKTOREAK	2006	2007	2008
IPI Orokorra	**5,5**	**3,9**	**-2,4**
IPI Erauzketa-industriak	**8,9**	**25,4**	**-23,1**
Mineral metalikoak eta ez metal.	8,9	25,4	-23,1
IPI Manufaktura-industria	**5,5**	**4,5**	**-3,8**
Eskulan elektrikoa	5,2	8,2	1,8
Zurgintza industria	3,5	3,9	-18,9
Kautxua eta plastikoa	2,2	3,7	-8,7
Metalurgia eta gai metalikoak	7,0	5,3	-4,9
Industria ez metalikoa	4,1	6,5	-7,7
Elikagaien industria	0,3	-0,4	-2,3
Makineria	5,6	6,3	-5,1
Garraio materialak	7,1	9,1	3,3
Beste manufaktura batzuk	0,9	1,4	-12,1
Papera, edizioa eta grafikoak	1,2	4,0	-4,8
Industria kimikoa	8,3	0,9	-3,5
Ehungintza eta jantzigintza	-5,3	2,0	-5,0
IPI Energia elektrikoa, gasa eta ura	**5,4**	**-0,7**	**10,2**

Iturria: EUSTAT.

Bizkaiko eraikuntza jarduera adierazleen bilakaera 2006-2008 urteetan:
(Urtetik urterako aldakuntza tasa)

ADIERAZLEAK	2006	2007	2008
Lizitazio ofiziala	96,9	-8,7	-18,90
Hasitako BOE eta etxebizitza sozialak	1,2	-11,91	-1,44
Bukatutako BOE eta etxebizitza sozialak	-47,0	9,62	-2,38
Hasitako etxebizitza askeak (2)	-7,42	2,7	-24,95
Bukatutako etxebizitza askeak (2)	-5,3	-18,31	-24,40

Iturria: EUSTAT eta beste batzuk.

Bizkaiko zerbitzuen jarduera adierazleen bilakaera 2006-2008 urteetan:
(Urtetik urterako aldakuntza tasa)

ADIERAZLEAK	2006	2007	2008
Bidaiarien aire zirkulazioko trafikoa	0,8	10,3	-2,7
Merkantzien aire zirkulazioko trafikoa	-13,6	-5,5	-1,6
Bidaiarien hiri barneko garraioa (metroa)	2,5	7,6	0,6
Merkantzien itsas trafikoa (Bilbo)	11,9	3,3	-1,2
Hoteletan emandako gauak	16,5	4,62	-3,6
Hotelen okupazio-maila	45,8	45,6	43,7
Merkataritza salmentak (Nazioart. Merkat. Ind.)	6,2	4,6	-3,6
Txikizkako merkataritza salmentak	0,9	2,0	-2,9
Handizkako merkataritza salmentak	9,4	6,0	-3,9
Enplegua zerbitzuetan (BJA)	2,2	1,1	2,4

Iturria: EUSTAT eta beste batzuk.

Bizkaiko, EAEko eta EB-15eko KPIaren bilakaera, 2000-2008 urteetan:
(Abendutik abendurako %)



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

Bizkaiko KPIaren bilakaera gastu-multzoka, 2006-2008 urteetan:
(Abendutik abendura)

	2006	2007	2008
Elikagaiak eta edari alkoholgabeak	3,0	6,7	2,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,4	5,9	3,9
Jantzigintza eta oinetakogintza	2,1	1,8	0,7
Etxebizitza	4,0	5,0	5,7
Etxeko hornidura	4,1	3,4	3,7
Medikuntza	2,1	-1,1	-0,5
Garraioa	1,5	7,0	-5,4
Komunikazioak	-1,8	0,8	-0,3
Aisialdia eta kultura	-1,2	-0,6	0,5
Irakaskuntza	5,1	4,3	5,7
Ostalaritza	3,8	4,1	4,8
Beste batzuk	2,9	3,0	4,2
Bizkaiko orokorra	2,5	4,2	1,8
EAE	2,6	4,2	1,9
EB (KPI harmonizatua)	2,2	2,3	1,1

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

Prezioak produktuaren arabera aztertzen baditugu, garraioan (-%5,4), medikuntzan (-0,5) eta komunikazioetan (-0,3) prezioek behera egin dutela ikus daiteke. Gainera, jantzigintza eta oinetakogintzan zein aisialdi eta kulturan prezioek gora egin dute, nahiz eta gorakada oso nabarmena ez izan, %0,7 eta %0,5, hurrenez hurren. Elikagaiak eta edari alkoholgabeak (%2,2) eta edari alkoholdunak eta tabakoa (%3,9) garestitu egin dira. Dudarik gabe, baina, inflazio handiena erakutsi dutenak etxebizitza (%5,7), irakaskuntza (%5,7) eta ostalaritza (%4,8) izan dira.

2008an zeharreko **kanpo jardueraren** bilakaerari erreparatuz gero, joera aldakorra izan duela ikus dezakegu: lehen seihilekoan areagotze aipagarria izan du aurreko urtearekiko; urte amaieran, berriz, 2008ko laugarren hiruhilekoan, esportazioek zein inportazioek beherakada nabaria izan dute.

Esportazioek 7.983,9 milioi euro batu dituzte 2008an, aurreko urtean baino %1,52 gehiago. Inportazioak, bere aldetik, 12.901,3 milioi euro lortzera iritsi dira eta urtetik urtera %11,8 hazi dira.

Hala, Bizkaiko merkataritzako balantza defizitarioa izan da 2008. urtean ere (-4.917,5 milioi euro), defizita aurreko urtekoarekiko nabarmenki handituagatik ere. Gainera, esportazioen inportazioekiko estaldura-tasa %61,9ra jaitsi da (%66,5 2007an).

Nolanahi ere, urteko zifretan ezin igarri daiteke urteko azken hiruhilekoan erregistratutako hondamendia, non esportazioek %20,9 egin baitute behera aurreko urteko epe berarekiko eta %18,8 aurreko hiruhilekoarekiko. Inportazioek, ere, izan dute jaitsiera nabarmenik urte amaieran: -%20,4koak izan dira aurreko urteko hiruhileko berarekiko eta -%34,4 aurreko hiruhilekoarekiko. Kanpo defizitak hobera egin du azken hiruhilekoan, baina horren arrazoia inportazioen beherakadan legoke, ez ordea esportazioen portaeran.

Produktuen araberako analisiak erakutsi duenez, produktu ez energetikoen kanpo salmenta (%1,7) neurrizkoa izan da 2008an; alderantziz, produktu energetikoen esportazioak asko igo dira (%21,8) eta esportazioen areagotze orokorraren atzean daude.

Inportazioek antzeko portaera agertu dute, produktu ez energetikoen kanpo erosketak urtetik urterako %1,3ko igoera azaldu baitu (produktu energetikoen erosketa, berriz, %26,2 igo da). Produktu ez energetikoek, %50etik hurbil egon arren, Bizkaiko inportazioen erdia baino gutxiago hartu dute 2008an (%45,7, 2007ko %51,2 ez bezala).

Produktu ez energetikoen kanpo merkataritzari begira, metalezko produktuen (%13,2) eta nekazaritza produktuen (%10,6) kanpo salmenten igoera aipa daiteke, baita garraio materialen (-%23,4), paper eta arte grafikoen (-%4,1) eta produktu kimikoen beherakada nabaria ere (-%2,6). Inportazioei dagokienez, garraio materialen (%28,9) kanpo erosketen igoera azpimarra dezakegu, bien bitartean, zurgintzak eta altzarigintzak (-%41,6), ehungintzak (-%10,2) eta papergintzak (-%10,3) nabarmenki behera egin dutela.

Lan merkatuaren inguruan, Eustatek eginiko Biztanleria Jardueraren Araberako Inkestako datuek Bizkaian 2008. urtean lan merkatuaren adierazle nagusiek hobera egin dutela erakutsi dute. Azken hiruhilekoaren datuei erreparatuz gero, ordea, lana zuten pertsonen kopuruaren beherakada eta langabetuen gorakada ageri da. Hau da, ekonomiak dagoeneko lan merkatuan eragina izan duela adierazten dute datu hauek.

Biztanleria aktiboa (%1,75) eta okupazioa (%1,35) igo egin dira 2008an eta, aldi berean, langabezia modu nabarmenean areagotu da. Ekitaldiaren bukaeran 26.100 langabetu zegoen. Honela bada, biztanleria aktiboa dagoeneko 531.900 pertsonek osatzen dute; horien artean, 505.800 okupatuta daude. Hortaz, 2007ko langabezia-tasa inoiz lortu gabeko minimoetatik berriz igo da %4,9raino.

Enpleguaren sektorekako analisiaren arabera, industriak eta zerbitzuek okupazio-maila igo dute Bizkaian (+%0,37 eta +%2,4, hurrenez hurren), eraikuntzaren sektorean, aldiz, -%5,43ra jaitsi dela.

Bizkaiko kanpo merkataritzaren bilakaera 2003-2008 urteetan:
(Milioi eurotan):

URTEA	Esportazioak		Inportazioak		Merkataritza saldoaren balioa
	Balioa	% Δ	Balioa	% Δ	
2003	4.481,7	1,4	5.838,5	6,2	-1.356,8
2004	5.171,4	15,4	7.108,7	21,8	-1.937,3
2005	5.355,0	3,6	8.791,0	23,7	-3.436,0
2006	6.590,5	23,1	11.069,0	25,9	-4.478,5
2007	7.864,1	19,3	11.535,6	4,2	-3.671,4
2008*	7.983,8	1,5	12.901,3	11,8	-4.917,4

** Behin-behineko datuak.*
Iturria: EUSTAT, Aduana eta zerga berezien datuetan oinarrituz

Langabeziak nabarmen egin du gora ekitaldi bukaeran.

Argazkia: Bilbao Turismo.

Lurraldea, klima eta inguruneа

BilbaoLan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

1. kapitulua

Lurraldea, klima eta ingurunea

1. kapitulua

Lurraldea, klima eta ingurunea

BILBO METROPOLITARRAREN BIRSORKUNTZA URBANOA

Bilbo hiri birsorkuntzaren adibide Shangain

Bilboko hiri berrikuntzaren esperientziak 2010eko Shangaiko Erakusketa Unibertsalera bidaiatuko du, munduko praktika urbano hoberenetako baten adibide lez, hiriak azken 25 urteotan bizi izandako eraldatze ikusgarriari esker. “Hiri hobea, Bizitza hobea”, garapen iraunkorra, bai hiriei, zein hiritarrei, lelo pean bideraturikoa izango da Shangaiko hirian 2010eko maiatzaren 1etik urriaren 31ra arte ospatuko den Expoaren gai ardatz nagusia.

Bilbo gaurko egunean hiri eraldaketa eta suspertze eredu da mundu osoan birsorkuntzan dauden hiriendako

Bilbok urte gutxian nazioarteko erreferente izatea lortu du hiri berrikuntza eta eraldatze eredu, eta honek mundu osoko 87 herrialdetako 113 hautagaitzaren artean aukeratua izateko aukera eskaini dio, Shangain elkartuko diren praktika urbano onetako 55 proiektuetako taldearen parte izateko.

Hiria Bartzelonarekin batera egongo da Hiri Praktika Hoberenen Arloa deitzen denean, eta “Bizitzeko moduko Hiriak” sailean.

Shangaiko expoa 310 hektareako azalera batean garatuko da, Pudongeko barrutian, Huangpu ibaiaren ertzean. 70 milioi pertsonak bisitatzea espero da, eta honek, gertaerak izango duen nazioarteko garrantzi ikaragarriaren ideia egiteko aukera ematen du, eta baita ere, konturatzeko, zer nolako plataforma zoragarria izango den, gure Bilbo kanpoan ezagutzera emateko.

Argi dago Bilbo eta honen area metropolitarra gaurko egunean hiri eraldatze eta suspertzearen eredu izateak, eta mundu osoan birmoldaketan dauden hiriak Bilbotik igarotzeak ideia bila, ez gaituela harritu behar. Hiriak garatu duen berpizkunde adimentsua, garraio azpiegitura modernoen aldeko apustua eginez, eta udalerriko erdiguneko espazioak berreskuratuz, bertan ekipamendu kultural enblematikoak eta jarduera ekonomikoaren erakarleak txertatzeko, paradigma da, antzeko helburuen atzetik dabiltzan hirientzako.

Egia esan, 2008. urtean zehar Bilbo Metropolitarra Suspertzeko Elkarteak, BM 30ek, Bilboko hiri birsorkuntza esportatu zuen hogeiren bat herrialdetara. Elkarte honek, Bilbo metropolitarraren hiri suspertzea ezagutarazteko eta nazioarte mailako beste ekimen batzuen ezagutza zabaltzeko konpromisoa zuen, eta aurreko urtean zehar hogei bat herrialdetako erakunde ezberdinetako ordezkariak hartu zituen, denak ere Bizkaiko hiriburuan aurrera

eramandako prozesua ezagutzen interesatuak zeudenak, eta kasu batzuetan hau eredutzat hartzeko ere bai, beste metropoli batzuen garapenerako.

Japoniatik Kolonbiara, Estatu Batuetatik Taiwanera, Txile, Frantzia edo Mexikotik pasatuta, asko dira herrialdeak Bizkaiko hiriburuaren eta honen inguruaren hiri birsortze prozesuagatik jakin-mina erakutsi dutenak.

80etako urteetan hasi zen Bilboren suspertze prozesuak indarrean dirau, eta nahiz eta hemen eta orain, 2008an, urrunekoa iritzi geniezaiokeen hiri degradatu haren deskribapenari, hiri ez atsegin, eta are gogorra ere bertako biztanleentzat, ez da ahaztu behar, hain zuzen, ekonomia, gizartea eta ingurunea hain hondatua izanaren egiaztapen horixe bera izan zela eragin zuena, azken batean, administrazio publiko ezberdinek, plangintza global, integral eta koordinatu baten beharra ikusi zezaten, Bilbo eta honen area metropolitarra erdigune dinamiko eta moderno bihurtzeko. Horrela lortu da Bilboren hazkunde ekonomikoa hirugarren sektorean, eta honetan oin hartuta sortu da hiri garbi, dinamiko eta hiritarrarentzako atsegin honen “irudi berria”.

Kasu honetan, osagai berria izan da erakunde publiko eta entitate pribatuen lankidetza, zerbitzu eta azpiegituren garapen azkar bati bide eman diona, eta Bilbori aukera eman, indar ekonomikoentzako erakargarritasun foku lez jarduteko.

1989an, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udalak, Bilbo Metropolitarraren Birgaitze Plan Estrategikoa landu zuten, eta 1991n sortu zen Bilbo Metropoli 30, eragile publiko, pribatu eta sozialak biltduz, planaren elkarte kudeatzaile gisa, Bilboren birsortzeari ekiteko.

1992an sortu zen “Bilbao Ría 2000”, zonalde hondatu eta erabilera barik utzitako industria areak berreskuratzeko helburuarekin, hiraren bilbea hobetuz, eta urbanismoa, garraioa eta ingurumena batera uztartuko zituzten ekimenak burutuz.

Hiri eta ingurune birsortze honetan modu erabakigarrian izan du eragina 1979an sortutako Itsasadarraren Saneamenduko Osoko Planak, eta berak lortu du, inguruneari dagokionean, Europa osoko estuario kutsatuenetakoa zena berreskuratzea. Ia hogeita hamar urte eta 900 milioi euroko inbertsioaren ondoren, 2008. urte amaieran gabiltza lortzen, etxe eta industrietako ur hondakin guztien isuriak, esparru metropolitarrean araztuak izan daitezen itsasadarrera iritsi aurretik. Gaurko egunean, eta planaren emaitzen ondorio, bi hodi biltzailek biltzen dituzte (banak itsasadarraren ertz bakoitzean) udalerri eta industria guztietako ur hondakinak, eta eroaten, Galindoko biltegira, han araztuak izan daitezen, eta ondoren berriro hauek itsasadarrera isurtzeko.

Argazkia: Bilbao Ría 2000.

Argazkia: Bilbao Ría 2000.

Argazkiak: Bilbo Itsasadarra 2000.

Lurraldearen kudeaketa eta eraldaketa jasangarria

Eraldaketa prozesua orain auzoetara dago bideratua, beti ere natura baliabideekin eta ingurunearekin begirunez jokatuko duen hazkundea oinarri.

Bilboko hiritarrak merezi du bizitza kalitate egokia gozatu ahal izatea, eta honek, behar bezala uztartzea eskatzen du, hiri garapena, eta natura inguruaren jagotea udalerriaren lurraldean.

Tokiko Agenda 21-en asmoa lurraldearen kudeaketa eta hiri plangintza indartzea da, ingurune, gizarte eta ekonomia edukiak, denak batera integratuz, etxebizitza beharrizanei erantzuteko, auzoen birsortzea eta hauen hiri integrazioa bultzatzeko, Itsasadarraren baldintzen hobetzea eta honen hiri integrazioa ere bultzatzeko, eta aldi berean espazio publikoen aniztasuna eta funtzionalitatea mantentzeko.

Urbanizazioaren garapenak Bilbo Hiriaren hurbileko inguruen ezaugarrien eraldaketa ekarri du eta Bilboko Agenda 21en asmoa da, plangintza jasangarriagoaren garapena, lur kontsumoari dagokionean, eta natura espazioen mantentze eta egituratzeari eta animalia eta landare motak babestu eta jagoteari dagokienean.

Prozesu hau gero eta zuzenago doa auzoetara bideratzen ikuspuntu urbano eta sozialetik, eta hala jarraitu behar da hau burutzen, natura baliabideekin eta ingurunearekin begirunez jokatuko duen hazkundea oinarri izanik.

Horrela, Bilbok ulertzen du hiri barneko aniztasuna bera dela hiriaren nortasunaren seinale, eta zentzu honetan, birsortze proiektuek mantendu egin gura dute aniztasun hori, Bilbo hoberen ordezkatzen duen sinboloa, Itsasadarra, oinarri duela, eta aldi berean, eraikuntza enblematikoak txertatuz, Bilboko udalerriaren zentraltasuna eta erakargarritasun gaitasuna indartzeko.



Argazkiak: Bilbo Itsasadarra 2000.

Bestalde, garrantzizkoak dira auzoak modernizatzeko burututako inbertsioak. Hala, Otxarkoaga, Errekalde-Betolaza eta Uretamendi, edo Altamira, Hobetzeko Planak, edota Indautxuko Plaza eta Zabalburu berriztatze saioak, besteak beste.

Marko berri honetan, eta hiriaren birsortzean geureganaturiko arrakastak eragindako baikortasunez, metropolia baldintza onetan dago, indarberrituta, eraldaketari areago ekiteko. Azpiegituretako asko jada burututa, ahalegin berriak, aurrerapenen norabide osagarrian bideratu dira, metropolia Ezagutzaren Gizarte berriaren estratan gidatzeko ahaleginean.

Udalaren Hirigintza Sailak udal plangintza eguneratzen eta garatzen jarraitzen du, eta hau jendaurrean erakusten eta honen gaineko informazioa eskaintzen. Horrela, 2007-2011 denboraldirako, helburuak bost gai multzoren inguruan egituratzen ditu:

- Plan Orokorraren eguneratzea erabilerraztasunari, etxebizitzen bereizteari, eta berdeguneen zenbaketari dagokienean, eta Zorrotzaurre eta Olabeagako hiri parametroen ingurutik.
- Plan Berezien garapena. Zorrotzaurre, Olabeaga, Basurto-Garellano eta San Mameskoa; Itsasadarraren Erabilera plan berezia; Pagasarrikoa; eta Bidegorrien plan berezia.

- Ordenantza berriak, erabilerraztasunaren, lonjetako etxebizitzen, eta berdeguneen zenbaketaren inguruan.
- Hobekuntza informatikoak hirigintza kontsultak errazteko posta elektronikoaren bidez, eta katalogatutako eraikuntzaren sistematizazio informatikoa.
- Hiritarren parte hartzearen integrazioa, Plangintza Batzordea abian jarriaz, hirigintza informazioaren koordinazio eta hobekuntza, eta parte hartze prozesuen antolaketa.

Udalaren Hirigintza Sailak udal plangintza eguneratzen eta garatzen jarraitzen du eta hau jendaurrean erakusten eta informazioa eskaintzen.

Zorrotzaurreko inguruaren antolamendua eta kudeaketa izan da jarduera kopuru handiena eskatu duena, behin betiko onartu behar izan denez Plan Orokorraren aldaketa, ondoren, beste hainbeste egiteko osasun ekipamenduko eta hirugarren sektoreko erabileretarako zonaldetako Plan Bereziekin. Inguru hau da Udalak izendatutako aukera, berrikuntza eta ekonomia berrirako.

Zorrotzaurre da Udalak izendatutako aukera ingurua berrikuntza eta ekonomia berrirako.

Bestalde, Basurto-San Mames-Olabeaga zonaldeko hiri plangintzak, koordinazio berezia eskatu du beste erakundeekin: Foru Aldundia, RENFE eta Bilbao Ría 2000; eta azken honekin dihardugu ere bereziki lanean Garellanoren garapenean. Era berean aipatu behar da dagoeneko esleitu dela Zorroza Muturraren antolamendurako aukeren ikerketa egitea. Basurto-Olabeaga, aisia, kirol eta berrikuntza produktiborako, eta Zorroza Muturra enpresa garapenerako.

Boluetako etxebizitza babestuen eraikuntza proiektuari dagokionean, azpimarratu behar da, lurraren deskontaminazio aurrelanez gain, Plan Bereziaren kudeaketa jada aurreratua, hurbileko Muturreko Meatzearen eta Losada Pintorearen kalearen arteko sektorea berrantolatu eta garatu duena.

Etxebizitza babestuaren kapituluan, Plan Orokorra aldatu da, eta dagokion garapen Toki Ordenantza ere, Bilboko hainbat ingurutan behe solairuak ere etxebizitza lez erabili ahal izateko; beste hainbat jarduera ere bideratu dira Udal Etxebizitzei lur eraikigarria eskaintzen jarraitu ahal izateko.

Bilboko Udalak baimena zabaldu du behe solairuak ere etxebizitza lez erabili ahal izateko hiriko hainbat ingurutan.

Argazkiak: Bilbo Turismoa.

Etxebizitzaren atal honetan bertan, Iralako birgaitze diru laguntza politika mantendu da, eta handitu erabilerraztasunaren hobekuntzari dagokiona (igogailuak eta eragozpen arkitektonikoak), 165 laguntza bitartean, denera 671.317€ko kopuru orokorrez, eta azpimarratzeko, 3.260 etxebizitzen onuran.

Erabilerraztasunaren haritik, aipamen berezia egin behar zaio ere, etxebizitza eraikuntzetarako erabilerraztasunaren hobekuntza helburu, Plan Orokorrean eginiko aldaketaren onarpenari eta dagokion Toki Ordenantzarenari ere.

Bilboko eta Bilbo Metropolitarreko lurraldearen banaketa 2008, erabileren arabera.

LURRALDEAREN ERABILERA	BILBO	BILBO METROPOLITARRA
Kalifikazio Globala		
Etxebizitza	1.302,72 Ha	5.330,71 Ha
Ekonomia Jard.	94,35 Ha	3.334,23 Ha
Sistema Orokorrak	1.079,06 Ha	5.702,7 Ha
Urbanizaezina	1.596,24 Ha	36.339,59 Ha
Urbanoa Etxebizitzak		
Azal. Gordina	1.211,37 Ha	3.881,94 Ha
Bizitza kopurua gaur egun	151.897 Etxe	379.046 Etxe
Etxebizitza libre egin-gabeak	9.470 Etxe	26.106 Etxe
BPE Egin-gabeak	4.364 Etxe	9.962 Etxe
Etxebizitzak Denera	165.731 Etxe	415.114 Etxe
Urbanizagarria Etxebizitzak		
Azal. Gordina	91,35 Ha	1.448,77 Ha
Bizitza kopurua gaur egun	593 Etxe	12.221 Etxe
Etxebizitza libre egin-gabeak	385 Etxe	8.650 Etxe
BPE Egin-gabeak	1.606 Etxe	8.772 Etxe
Etxebizitzak Denera	2.584 Etxe	29.643 Etxe
Urbanizaezina Etxebizitzak		
Azal. Gordina	20,43 Ha	440,1 Ha
Bizitza kopurua gaur egun	212 Etxe	11.596 Etxe
Etxebizitza libre egin-gabeak	11 Etxe	444 Etxe
Etxebizitzak Denera	223 Etxe	12.040 Etxe
Urbanoa Ekonomia Jard.		
Azalera Gordina	74,66 Ha	2.675,95 Ha
Azalera Erabilia	73,96 Ha	2.257,96 Ha
Azalera hutsik	0,7 Ha	417,97 Ha
Urbanizagarria Ekonomia Jard.		
Azalera Gordina	19,69 Ha	658,28 Ha
Azalera Erabilia	9,36 Ha	240,37 Ha
Azalera hutsik	10,33 Ha	417,91 Ha
Sistema orokorrak		
Ekipamenduak	142,1 Ha	1.236,7 Ha
Espazio Libreak	511,01 Ha	1.896,34 Ha
Bideak	236,56 Ha	1.445,11 Ha
Portuak	0 Ha	148,22 Ha
Aireportuak	0 Ha	487,73 Ha
Trena	37,49 Ha	153,43 Ha
Oinarrizko Azpiegiturak	151,9 Ha	335,17 Ha
Lurzoru urbanizaezina		
Babes Berezia	1.047,95 Ha	6.621,32 Ha
Ingurune Hobekuntza	0 Ha	1.755,77 Ha
Basoak	0 Ha	10.659,48 Ha
Nekazaritza eta Landa eremua	512,78 Ha	10.167,87 Ha
Mendi Larreak	0 Ha	0,9 Ha
Azal. Ur Babes.	15,08 Ha	1.484,37 Ha
Erabaki barik	0 Ha	4.998,17 Ha
Erauzketa Jard.	0 Ha	211,61 Ha
Landa guneak	20,43 Ha	440,1 H

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Udalplan 2008. 2008ko urtarrileko datuak.

Lurraldearen banaketa erabileren arabera

Bilbo Metropolitarrak 499,4 km^2-ko azalera du denera, eta 35 udalerrik osatzen dute. Bizkaia osoko biztanleriaren %79 osatzen dute, eta 2008. urtean denera 906.399 biztanle dituzte.

Hamar udalerri handienen artean, biztanleen kopuruari dagokionean (Bilbo, handiena; Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Basauri, Sestao, Galdakao, Leioa eta Erandio), 782.740 biztanle biltzen dituzte, eta hori area metropolitar guztiaren %86,3 da. Bilbo da, 354.180 biztanlerekin, udalerri populatuena.

Bilbo Metropolitarreko Alde Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak erregulatzen du (behin-behingoz) lurzoruaren erabilera Bilboko inguru metropolitarrean, 2005eko apirilaren 19ko Foru Akordioa oinarri. Helburu hau betetzeko, planak EAEn indarrean diren lurralde antolamendu arauak jarraitzen ditu, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Foru Sailak markatutakoak.

Planaren helburu nagusiak dira jarrera aktibo eta konpromiso handiagokoa lortzea ingurune fisikoarekin, hiri espazioaren eraldaketarekin, eta jarduera ekonomiko berriarekin, eta horretarako koordinatzen ditu 16 urteko denbora epe batean burutu beharreko ekintzak, lurralde inguru honetan eragina izango dutenak, hiriaren alderdi funtzionalaren garapen iraunkorra bermatu ahal izateko.

Bilboko udalerriko lurralde antolamendua Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren arabera burutzen da. Plan honetan ezartzen dira lurzoruaren erregimen juridikoak, hauen kategoria, hauen egitura orokorra eta organikoa osatzen duten osagaiak, eta lurzoruaren jabetzaren eskubidearen hirigintza gaitasunak.

Klima

- *Tenperatura maximoa Bilbo*
- *Batez besteko tenperatura maximoa Bilbo*
- *Batez besteko tenperatura Bilbo*
- *Batez besteko tenperatura minimoa Bilbo*
- *Tenperatura minimoa Bilbo*
- *Batez besteko tenperatura Klima Ozeaniko hezea*

Bizkaiko probintzia, eta berarekin Bilboko udalerria, isuri atlantikoan dago, eta Euskalmetek ondo azaldu lez, klima mota mesotermikoa ageri du, nahikoa barea tenperaturei dagokienean, eta oso euritsua. Urte garai lehor bako klima epel hezea esan ohi zaio, edo klima atlantikoa, ozeanoak klimaren gain duen eraginarengatik. Aire masek leundu egiten dituzte beren tenperaturak ozeanoko ur epelen kontaktuan, eta hauek lur ertzera iristen direnean eragiten dute egunaren eta gauaren arteko alde termikoak ez daitezen oso nabarmenak izan, eta ezta ere, uda eta neguaren artekoak.

Tenperaturen ezaugarri nagusia hauen baretasuna da, eta ondorio lez, bertako neguen leuna da nagusiki nabarmendu beharra. Horrela, udak ere nahikoa leunak diren arren, urteko batez besteko tenperaturek, itsasertzean, Euskal Herri osoko balio handienetako bat erregistratzen dute, 14ºC-etik gorakoa. Udak nahikoa freskoak izaten dira, baina izan litezke bero latzeko tarte laburrak ere, tenperaturak 40ºC-ak ere iritsi ahal dituztenak.

2008. urtea, tenperaturari dagokionean, bero kalifikatu liteke Bilbon, batez besteko tenperaturak 14,8ºC-ak iristen dituenez. Urtearen lehen erdiak batez bestekoaren gainetiko tenperaturak eman ditu, eta bigarren seihilabetekoa berriz, hotzago izan da. Zehatz, ekaineko bigarren hamabostaldiak erakutsi zituen tenperaturarik garaienak, nahiz eta egunik beroena uztaila amaieran etorri zen, orduan 39,6ºC-ekin. Edonola, tenperatura ez da egun bakar batean ere gradu batetik behera jaitsi.

2008ko prezipitazioen balantzea ere positiboa da hiriarendako, 1.317 l/m^2 bildu dituenez, aurreko urtean baino 273 gehiago. Egia esan, 24 orduko epean izandako prezipitazio handienak ekainaren 1ean jazo ziren, eta oso modu berezian eragin zion Bilbo Handiaren inguruari. Deustuko estazioan bildu zen kopururik esanguratsuena 124,7 mm-rekin, eta ondoren Mungian (96, 3 mm) eta Laudion (88 mm).

2008an Bilbo gainean 185 egunez egin zuen euri, eta 2007an, 166an.

Tenperaturen bilakaera 2001-2008.



Iturria: Eustat.Garraio eta Herri Lan Saila: txosten meteorologikoa. Eusko Jaurlaritza.

Eurien garapena Bilbon 2002-2008.



Iturria: Eustat.Garraio eta Herri Lan Saila: txosten meteorologikoa. Eusko Jaurlaritza.

Bilboko klimaren aldagai nagusien bilakaera 2007- 2008. Deustuko Estazioa.

ADIERAZLEAK	2007	2008
Batez besteko tenperatura (ºC)	14,6	14,8
Tenperatura minimo absolutua (ºC)	37	39,6
Tenperatura minimo absolutua (ºC)	-0,8	1,0
Maximoen arteko batez besteko tenperatura (ºC)	18,2	18,8
Minimoen arteko batez besteko tenperatura (ºC)	11,7	11,5
Eguneroko batez besteko hezetasuna (%etan)	80,8	73,4
Prezipitazioak denera (l/m^2)	1.044	1.317
Prezipitazio maximoa egun batean (l/m^2)	44,3	125
Prezipitazioak (egun kop.)	166	185
Izotz egun kop.	2	0
Batez besteko irradiazioa orduko (MJ/m^2)	8,5	11,3
Haizearen batez besteko abiadura (km/h)	11,4	10

Iturria: Eustat.Garraio eta Herri Lan Saila: txosten meteorologikoa. Eusko Jaurlaritza.

Bilbo Agenda 21 lan tresna bat da garapen iraunkorraren sustraietan hartzen duena oinarri.

Orain dela hamar urte Bilboko Udalak Alborg gutuna sinatu zuen eta bat egin zuen Europako Hiri Jasangarriak kanpainarekin. Udalak hala, zeharka, bere egin zituen iraunkortasunaren oinarriak eta irizpideak udal kudeaketarako.

Hortik aurrera garatzen da Bilbon Tokiko Agenda 21en ezarpen prozesua, eta hasteko Abiada diagnostikoa burutzen da -Ingurumen Kalitate Eredua Udal Kudeaketan 1999-2000 planaren lanen abiatze esparruan-. Eta aldi berean, proposatzen da, bertan lantzen diren alderdi batzuekin zerikusia duten adierazleen kalkulua egitea.

Euskadin, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren helburuak lortzea indartzeko, 2002aren amaieran sortzen da Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea, Udalsarea 21. Bilboko udalak bere atxikimendua eskaintzen dio Udalsarea 21-i, eta Tokiko Agenda 21en ezarpen prozesua dinamizatzen du udal mailan.

Bilbo Agenda 21-ek tokiko iraunkortasuneranzko trantsizioa bilatzen du. Lan tresna bat da eta garapen iraunkorraren sustraietan hartzen du oinarri, denak batera uztartzen saiatuz, justizia sozia-la, ekonomia iraunkorra, eta hiri inguru eta natura altxor iraunkorra, guztien arteko oreka lortzeko, eta hala, hiritarren bizitza kalitatearen hobetzea ere bai.

Konpromiso bat da ingurunearen hobekuntza etengabean jarduteko, eta Tokiko Ekintza Plana burutuz aldarrikatzen dugu bertan udal politiken helburu eta estrategia bateratuak finkatuz.

Zehatz, Bilboko Udalaren Tokiko Ekintza Plana 2005-2008 garatzen da zenbait lerro estrategikoren bidez, eta jasotzen, ura eta airea lako natura baliabideen trataeratik hasi eta lurralde plangintza eta kudeaketa iraunkorreraino.

Honek berarekin dakar udal politika sektorial guztiak ingurumen ikuspegia aurrean dela burutzea, eta denak Hirigintza eta Ingurumen Sailetik koordinatuak.

Tokiko Ekintza Planak-Tokiko Agenda 21eko ekintzen banaketa, 2007-2008, gai esparrutan.

GAI ESPARRUAK	*2007*	*2008*
Inguru sozial eta ekonomikoa	*%23,5*	*%27,1*
Mugikortasuna eta garraioa	*%10,9*	*%11,2*
Lurraldea eta plangintza	*%9,1*	*%8,6*
Sentsibilizazioa eta parte hartzea	*%8,6*	*%11,0*
Udal administrazioaren ingurune kudeaketa	*%8,6*	*%7,6*
Hondakinak	*%8,1*	*%7,5*
Bioaniztasuna eta natur gunea	*%7,8*	*%6,5*
Ura	*%6,9*	*%6,5*
Energia	*%5,4*	*%4,9*
Ekonomia jardueren ingurune kudeaketa	*%4,7*	*%3,8*
Akustikoa	*%2,4*	*%1,8*
Atmosfera	*%1,9*	*%1,5*
Lurzoruak	*%0,6*	*%1,0*
Ingurumen arriskua	*%1,4*	*%1,0*

Iturria: Udal Sarea 21, EAEko Tokiko Ingurumenaren Iraunkortasunari buruzko Txostena 2008.

INGURUMEN JARDUERAK BILBON

Udalerri mailan, Bilboko Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Sailak, ingurunea hobetzeko hartutako konpromisoen esparruaren barruan, hainbat jarduera burutu ditu 2008. urtean barrena , hiriaren iraunkortasunerantz:

- Biodiversidad 2010 Tokiko Erakundeen Sareari emadako atxikimendua. Tokiko Gobernuen Sarea + Biodiversidad, FEMP, Espainiako Udal eta Probintzien Federazioaren sekzioa da, eta bere jarduna, kontserbazioaren esparruan garatzen du eta biodibertsitatearen ikerketa eta erabilera iraunkorrenean, eta baita ere gure natur ondarearen babesean.

- Hiriko Mapa Akustikoaren aurkezpena, oraindik ere errepide, trenbide eta portuko sektore mapen bidez osatu beharko dena, dagokien Administrazio Publikoak burutuak. Mapa akustikotik eratortzen da Abando, Errekalde eta Deustu direla soinu kutsadura maila handiena jasaten duten barrutiak, eta ostera, Otxarkoaga-Txurdinaga eta Uribarri gutxien kaltetuak.
- Bizikleta mailegu zerbitzua: Bilboko Udalak sustatzen duen doaneko bizikleta mailegua, esan liteke, 2008ko datuei begira, dagoeneko igaro dela aisialdi aukera izatetik, ordezko garraio aukera izatera.

  Zerbitzuaren hasieratik erregistraturiko 18.033 pertsonetako 6.141ek 2008an eman du izena. Eta zerbitzuak eskueran jartzen dituen 150 txirrinduen mailegu kopuru osoa 22.089koa izan da.2008an beste mailegu puntu bi jarri dira abian (Atxuri eta Abusuko kiroldegietan), eta jadaneko badira 12 hirian barrena zabalduak. Guztien artean Arriaga plazakoak bereganatzen ditu maileguen % 42,25.

  Txirrinduen maileguak, garraio publikoaren indartzea, bidegorriak eraikitzea eta hobetzea, edota autorik gabeko eguna dira zenbait jardun kontzientziatzea bultzatzeko eta garraio bide iraunkorren sustatzea eta hauen erabilera.

Bizikleten maileguak, garraio publikoaren indartzea, bidegorriak eraikitzea eta hobetzea, edota autorik gabeko eguna dira hainbat jardun kontzientziatzea eta garraio bide iraunkorren sustatzea eta erabilera bultzatzeko

- Udal inbertsioa eguzki energiatan. Bilboko Udalak 450.000 euro inbertitu ditu azken lau urteotan eguzki energiatan. EVErekin lankidetzan 6 instalazio fotovoltaiko ipini ditu eta eguzki plaka termiko bat, guztien artean CO_2 isurien 56.500 kg-ren murrizketa ekarriko dutenak. 2008an Lan Ekintzaren Mendi Zentroaren estalkian instalatu da Udalak jabetzan duen eguzki instalazio fotovoltaiko handiena, 20kWeko potentzia duena.
- Eskola Agenda 21: Eskola Agenda 21ek izan gura du iraunkortasunaren aldeko hezkuntza eta formazio estrategia nagusia, eta lan lerro garrantzitsua doa bihurtzen udaletako ekintza planen barne. 2008an Eskola Agenda 21en 3. argitalpenari ekin zaio, eta Bilbon 50 ikastetxek hartu dute parte (27 publiko eta 23 pribatuk), denera 23.000 ikasletik gora, eta gai nagusia klima aldaketa izan da.

  Euskadiko denerako kopuruek erakusten dute 2008-2009 ikasturterako parte hartzea 465 ikastetxerena izan dela eta 183.460 ikasle izan direla parte hartzaile.
- Auto bako eguna 2008. Irailaren 22an, astelehenez, ospatu zen berriro Bilbon egun bako egunaren edizio berria, eta Ledesma kalea itxi zitzaion trafikoari. Egun honetarako prestaturiko ekimenak osatu ziren irailaren 16an hasi eta aipatu 22an bertan amaitu zen Europako Mugikortasunaren Aste osoko jarduerekin, “Aire garbia denontzat” lelo pean. Aurtengo berrikuntzarik nabarmenenak izan dira, lehen “Euskal Herriko Eko Rallya”-ren edizioa, eta itsasadarra garraio bide modura erabiltzea doaneko pedaloak jarrita. Egunero sartzen eta irteten dira Bilbotik 250.000 ibilgailu, eta auto bakoitzak isurtzen ditu 3 tona CO_2 urtean.

- Hirigintza eta Ingurumen Saila, Udalsarea 21ekin lankidetzan, 2008an hasi da Udal Ekobarometroa lantzen. Hau ikerketa bat da, hiriko bizilagunen iritzia ezagutu nahi duena, ingurunearekin zerikusia duten alderdi guztien inguruan. Gainera aukera emango du udalerriaren ingurumen egoeraren gaineko adierazleak lortzeko, gero Tokiko Agenda 21eko prozesuko Tokiko Iraunkortasun txostenak jasoko dituenak.

2008an amaitu dugu udalerrian Euskadin inoiz burutu den lurzoruaren deskontaminaziorik handiena, Boluetatik 270 tona industri hondakin erauzita, eta industria hondakinon bila 120.000 metro kubiko lur bahetu ondoren. Deskontaminazio lanak derrigorrean gauzatu behar izan dira Boluetako orubean 1.100 etxebizitza eraikitzeko asmoa dagonez, horietako 680 etxebizitza babestu.

Bilbo izan da 2008an EAEko buru paper eta kartoi bilketan. Ecoembesen arabera hiritar bakoitzak 41,7 kilo kartoi eta paper ekarri ditu, 2 gehiago Euskadiko batez bestekoa baino. Hala ere, ontzi arinen bilketan, Bilbo, 11,6 kg/bizt.-rekin, batez bestekoaren puntu bat azpitik geratzen da.

Ingurumen kudeaketaren ziurtagiriak Bilbon 2008.

ZIURTAGIRIA	*Ziurtagiri kopurua*
EMAS	*3*
ISO 14001	*175*
ECODISEÑO ARAUA	*3*
EKOSCAN ARAUA	*19*

Iturria: IHOBE, Ingurumen Kudeaketarako Elkarte Publikoa.

2008an egin zen Bilbon Ekodiseinuaren gainean nazioarteko araudi berria landu behar duen Nazioarteko Normalizazio Erakundearen Batzorde Teknikoaren lehen bilera. Arau berezi honek zehazten ditu erakunde baten produktu eta zerbitzuen diseinu eta garapen prozesuaren eskaerak, beronek arduratsu jokatu duela esan ahal izan dezagun inguruneari dagokionean.

Nazioarteko Batzordeak Bilbo aukeratu zuen bere lanen abiapuntu, hain zuzen, euskal enpresa ehunak ekodiseinuaren alde egin duen apustu garbiarengatik. Hala, Aenoren ekodiseinu ziurtagiridun 27 enpresetatik 13 Euskal Herrikoak dira, eta hauetako 3 Bilboko.

Zentzu honetan, 2008an hazi egin da Bilbon kokatutako enpresen artean ingurumen kudeaketa ziurtagiriak dituztenak.

Azkenik, azpimarratu, energia berriztagarriekin lotutako teknologiaren garrantzia ikerketari lotutako adierazle baten bitartez, zelan den, OEPM, Espainiako Patente eta Marken Bulegoan sail honetan jasotako patente eskaerak.

Bulego honek 2000-2008 denbora epean burututako ikerketa batetik eratorri liteke EB munduko liderra dela arlo honetako patenteetan, eta ondoretik datozkiola AEBak eta Japonia. Europan, Espainiak 4. postua hartzen du; eta Espainiako estatuan, EAE, energia berriztagarrien inguruko 81 asmakizun eskararekin, 3. postuan ageri da ikerketa burutu den denbora aldi osorako, eta lehen tokia hartzen du 2008an, ondore justuan dihoazkiolarik Madril eta Katalunia.

Atmosfera

Atmosferaren kutsadura identifikatu da planetak dituen ingurune arazo handienetako eta derrigor konpondu beharrekoen artean. OME, Osasunaren Mundu Erakundeak frogatu du osasunaren gaixotasunen eta kutsadura mailen arteko lotura.

Zentzu honetan, administrazioak, murrizketa proposamenekin joan dira erantzuten, bai isuri, eta bai giroko airean onargarri izan litezkeen kutsadura mailen murrizketak. Eta hau legeen bidez egin dute, airearen kalitatearen gaineko Zuzentarau Markotik eta ondoko beste zuzentarauetatik abiatuta, gero hauek Espainiako ordenamendu juridikoan izan duten transposizioraino 1073/2002 eta 1796/2003 Errege Dekretuen bidez.

Hain zuzen dekretu hauek betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak hainbat Ekintza Plan landu ditu, LABEINen laguntzarekin, eta plan hauen eragina jasoko duten inguruetako 22 udalen lankidetzarekin, airearen kalitatea hobetzeko.

Ibilgailuen trafikoa da Bilbok duen ingurumen arazo nagusietakoa.

Kasu bakoitzeko atmosfera arazoen arabera, planak bakarkakoak izan litezke, udal bakarrarentzakoak, edota bateratuak inguru geografikoetan. Muga legalak gainditzen dituzten udalak behartuta daude airearen kalitatea hobetzeko jarduerak burutzen.

Nerbioi-Ibaizabal beherea eskualdeko airearen kalitatearen Ekintza Planak Atmosferaren kutsadura diagnostikoan adierazten duen legez, Bilbon ibilgailuen trafikoa da ingurumen arazo nagusietakoa (egunero 250.000 ibilgailuren sarrera-irteera ditu), eta hori, nahiz eta garraio publikoak, ondo, hiritarren gero eta mugikortasun eskaera handiagoari erantzuten dion udalerriaren barrenean, eta hori datu positiboa da.

Iraganean industria ehundura izan bazen airearen kutsaduraren -bertan ziren SO_2 maila garaien- kausa nagusia, gaur egun, ibilgailu trafikoaren isuriek lurzoruaren mailan, eta honi gehitzen zaizkion inguruko udalerrietakoek eragiten dute zenbaitetan airearen kalitate mailek indarrean dagoen legedia ez betetzea. Hau da, ibilgailuen ihes-hodietako NO_2, nitrogeno dioxidozko gasen isuriei, eta diesel motorren eraginez ohikoagoa den PM, partikula bihurtutako materialari, erantsi beharra dago, errepideen inguruan eta trafiko handiena duten kaleetan etengabe jazotzen den hautsaren berresekidura iraunkorra airean.

Oro har, ez dira sumatzen ED 1073/2002an ezarritako lege mugen gainditzeak SO_2, NO_2 eta CO kutsatzaileentzat, baina bai atzeman dira ezarritako mugen gainditzeak PM10 kutsatzailearen kasuan.

Bilbok, hainbat estazio ditu atmosferaren kalitatea neurtzeko eta berauek osatzen dute Airearen Kalitatearen Kontrol Sarea.

CO, NO_2, PM, O_3 eta SO_2-ren urteko batez bestekoak airean, µgr/m3, Bilboko estazioetan, 2008.

	Elorrieta	Indautxu	Europa Parkea	Zorrotza2	Larraskitu	Mazarredo	Arraitzmedi	Elorriaga
Karbono monoxidoa - CO	-	-	0,2	0,3	-	0,4	-	-
Nitrogeno dioxidoa - NO_2 36	36	-	33	42	37	42	19	24
Esekitako partikulak - PM	18	26	27	13	33	30	17	-
Ozonoa - O_3	42	31	39	-	-	39	59	46
Sufre dioxidoa - SO_2	11	-	10	-	-	8	7	-

Iturriak: Bilbo datuetan, Bilboko Udala.

Estazio hauek sakabanatuta daude Bilboko geografia espazio osoan eta airearen kalitatearen hainbat aldagai neurtzen dituzte, Europar Batasunak finkatutako mugak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.

Aire kalitate on edo onargarriko egunak ehunekoetan euskal hiru hiriburutan. 2005-2008.

	2005	2006	2007	2008
Bilbo	91,8	86,3	92,9	95,9
Donostia-San Sebastián	96,2	98,4	98,1	98,6
Vitoria-Gazteiz	95,6	95,1	95,9	98,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Atmosferaren Kutsaduraren Estatistika.

Bilboko Udalak lan garrantzitsua egiten du ibilgailuek isuritako gasak kontrolatzeko, eta hori egiten da Elorrietako Ibilgailuen Kontrolerako Estazioan. Estazio honetan kontrol sistematikoa egiten zaie udal ibilgailuei, Bilbobus eta Bizkaibuseko garraio publikokoei, eta udal kontratetan dihardutenei ere besteren artean.

Industrien isurien aldizkako segimendua ere egiten da, eta hauen artean, eta esanguratsu asko, Zabalgarbiri. Baita berokuntza instalazioen neurtze kanpainak ere.

2005etik Bilbo hobetzen joan da aire kalitate on edo onargarriko egunen portzentajea, eta 2005-2008 epean, %92ra ez iristetik ia %96 izatera pasatu dira udalerriak aire ona edo onargarria arnasten duen urteko egunak. Hiru hiriburuetatik Bilbo da okerren dagoena hala ere, airearen kalitateari dagokionean.

Edonola ere, azpimarratzekoak dira ingurumen praktika onetako adibideak, zelan, Metro Bilbaokoa, 2008an ez dituenez honek energia berriztagarriak baino erabili urte osoan kontsumitu duen energia ekoizteko. Ahaleginaren ondorio, ez dira 48.000 tona CO_2 isuri atmosferara.

Energia EAEn

Euskadiren energia estrategia 2010. Hainbat programaren emaitzak 2008.

ADIERAZLEAK	HELBURUA 2010	EMAITZA 2008
Eraginkortasun energetikoa (ppt)	975.000	668.500
Energia Berriztagarrien erabilera (ppt)	978.000	431.800
Berriztagarrien partea	12%	5,5%
Gas naturalaren partea	52%	44%
Autosorkuntza elektriko tasa	114%	65%

Iturria: EVE Urteko Txostena 2008 EVE. (2008ko behin-behingo datuak).

EVE, Energiaren Euskal Erakundeak, bere 2008 Urteko Txostenean adierazten duen lez, Euskadiren energia estrategia 2001-2010 denbora eperako, garrantzizko erronka da, helburuengatik, eta hartzen dituen ingurumen konpromisoengatik. Horrela, 3E deitzen den estrategiak denak batera uztartzen ditu Eusko Legebiltzarrak ezarritako irizpideak, EBren zuzentarauak, eta EAEren baldintzapen ekonomiko, sozial eta lurraldeetakoak. Helburuak honetara laburtu litezke:

- Eraginkortasun energetikoko jarduerekin jarraitu alor guztietan. % 15eko energia aurrezki maila lortu, denera 975.000 ppt (pareko petrolio tona).

- Baliabide berriztagarrien aprobetxamendu hobea lortu. 4 aldiz biderkatu energia berriztagarrien erabilera, 978.000 ppt-tara iristeko. Hauek euskal energia eskaera guztiaren %12 lirateke.
- Sorkuntza parkea berregituratu, zentral termiko konbentzionalen ordez eraikiaz 2.800 MW lortuko lituzketen gas natural bidezko ziklo konbinatuko instalazio lehiakorragoak, eta gutxiago kutsatuko luketenak.
- Kiotoko Hitzarmenean ezarritako helburuak betetzen lagundu, eta bertan, ingurunearen kalitatea hobetu.
- Eragile desberdinen arteko akordioak eta elkarren arteko parte hartzeak bultzatu, ikerketa eta garapena indartzeko energia gaietan.

...oinarrizko, azpiegiturak, garraioak eta komunikazioak

Argazkia: Bilbao Turismo.

BilbaoLan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

2. kapitulua

Oinarrizko azpiegiturak, garraioak eta komunikazioak

2. kapitulua

Oinarrizko azpiegiturak garraioak eta komunikazioak

Oinarrizko azpiegiturak

Ur hornikuntza eta saneamendua

Bilboko ur hornikuntzaren lehen mailako sarea guztiz berriztatua egongo da 2011rako.
2008an lehen mailako sareko ur kontsumoaren beheranzko joerak bere horretan dirau, 31.273.860 m³-tara jaitsi baita.

Iparraldeko Ur Konfederazioak, Iparraldeko Hidrologia Planaren bidez, Bilbo metropolitarra hornitzeko ur-baliabideak erregulatzen ditu. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa da Bizkaiko lurraldeko kudeaketaren arduraduna. Entitate honek Bizkaiko Foru Aldundiarekin duen lankidetza mantentzen du kantitateari eta kalitateari begira Bizkaiko udal guztiei behar bezalako ura hornitzeko. Halaber, 2009an amaitzekoa den Saneamendu Plan Integralean aztertutako jardueren bidez, hiriko eta industriako isurketa ia guztien bilketa eta arazketaz arduratzen da.

2007an hasitako hobekuntza ekintzak martxan jartzeari ekin zaio urte honetan zehar. Hauen artean, ur banaketa sarea automatizatu eta kontrolatzera bideratuak nagusitu dira, sarearen joerari buruzko datuak lortzeaz gain, kontrolatutako ur bolumenen eta isurien murrizketaren hobetzea ahalbidetzen baitute.

Kontsumorako ur kopuru mugatua izateak arlo ezberdinetan zentzuzko kudeaketa egitera behartzen du. 2005-2008 urteetarako Agenda 21eko Toki-ekintza Planak oinarritzat dituen printzipioen inguruan etorkizuneko belaunaldientzako baliabide naturalak gordetzea dago. Batez ere, uraren eta energiaren erabilera eraginkorrari emango zaio lehentasuna, ditugun baliabideak datozen belaunaldien beharrak asetzeko nahiko izan daitezen. Gaur egun, 2009-2013 Toki-ekintza Plana abian jartzeko lanean ari dira.

Bilboko edateko ura hiru iturri ezberdinetatik lortzen da. Uraren ziklo osoaren kudeaketaren abiapuntua Ordunteko zingiran hartzen diren uretan dago. Ordunteko urak guztirakoaren %67 dira eta Sollano araztegian garbitzen dira. Gainerako %33 Zolloko –Ganekogorta mendilerroan– eta Zadorrako urtegietan batzen da, gero Venta Altako estazioan arazketa egiteko.

Araztutako ura andel handietara eta handik hirira eramaten duen lehen mailako sareak, bigarren mailako sareak –edateko ura hirietako kaleetan barrena sare pribatuetara eramaten duena- eta, azkenik, saneamenduko sareak zera eskatzen dute: hornikuntza eta saneamenduko sare modernoak izatea eta hauek ongi kontserbatzea, herritarrentzako kalitatezko uraren hornikuntza bermatzeko. Bilboko Udala horren jakitun da eta hartara azpiegitura hidraulikoetan inbertsio handiak bideratzeko ahalegina egin du. Lehen mailako sarea 2011rako guztiz berriztatua egongo dela aurreikusi da. Bestalde, Bilboko zenbait auzoren bide nagusietan azpiegiturak hobetzera zuzendutako proiektu gehiago bultzatzeko ustea du 2009. urterako.

Gainera, Udaletxea kontsumoko uraren kalitatearen kontrol zehatza egiten ari da eguneroko lagin adierazgarrien eta kontsumitzailearen kanilaren eremuan kontrolak eginez. Hauek guztiek gure kontsumoko urak kalitate egokia duela erakusten dute.

Bilboko lehen mailako sareko ur kontsumoak beheranzko joerari eutsi dio eta 31.273.860 m³–tara jaitsi da, biztanleko eta eguneko litro hornidura bezalaxe.

Saneamenduko sareari dagokionez, Galindoko Hondakin Uren Araztegiak eskualdeko hondakin ur gehienak tratatzen ditu. Portzentaje hori betetzeko eta Galindok duen gehiegizko lana arintzeko, Lamiakoko araztegia eraikitzeko proiektua abian jarriko da.

Bestalde, Nerbioi Itsasadarraren Saneamendu Plan Orokorraren amaiera iragarri da aurten, 900 milioi euro inbertitu ostean araztu gabeko etxeko edo industriako urik eremu metropolitarrera ez iristea lortu duena. Nolanahi ere, Ur Partzuergoak lanean dihardu, ez soilik gune metropolitarrean baizik eta Bizkaia guztian. Horretarako, kolektoreak eta herritarren bizi-kalitatearen onerako izan daitezkeen instalazio berriak eraikitzen ari da. Egiteke daude oraindik azpiegitura garrantzitsu batzuk, Lamiakoko araztegia kasu, 100 milioi euroko inbertsioa aurreikusita duena eta ingurumenarekiko eragina aztertzeko izapidetze prozesuan dagoena. Halaber, Galindoko hondakin uren instalazioak hobetzeko prozesua ere abian dago. Hobetze hori hirugarren mailako tratamenduan datza, gatzak eta uretan disolbatutako elikagarriak ezabatu ondoren ia-ia edateko moduan uzteko balio duena.

Bilboko ur-horniketaren bilakaera 2007-2008. urteetan.

ADIERAZLEAK	2007	2008
Urteko uraren kontsumoa lehen mailako sarean	31.460.000 m³ 997,8 L/seg	31.273.860 m³ 991,69 L/seg.
Urteko baliabideak jatorriaren arabera	%34,72 Partzuergoa	%39,65 Partzuergoa
	%65,28 Ordunte eta Zollo	%60,35 Ordunte eta Zollo
Hornidura litrotan biztanle eta eguneko	244	242
Ur-andel kopurua eta edukiera	16 dep.- 89.729 m³	16 dep. 89.729 m³
Udalari hornitutako guztirako ur-bolumena lehen mailako sarean	31.460.000 m³	31.460.000 m³

Iturria: Bilboko Udaleko Obra eta Zerbitzuen Saila.

Bilboko saneamenduaren bilakaera 2007-2008. urteetan.

ADIERAZLEAK	2007	2008
Euri-kutxatila kopurua	9.833	10.753
Kutxatila fekalen kopurua	8.596	8.905
Kutxatila mistoen kopurua	1.867	1.821
Parrilla kopurua biltzaile buruetan	103	113
Gutunontzi motako estolda-zulo kopurua	6.883	6.852
Parrilla motako estolda-zulo kopurua	9.993	12.220
Euri-ur hodien metroak	278.808	262.955
Ur-fekal hodien metroak	256.438	264.114
Hodi mistoen metroak	15.200	7.495
Biltzaile bisitagarrien metroak	58.184	23.910

Iturria: Bilboko Udaleko Obra eta Zerbitzuen Saila.

Hiri-hondakinen bilketa

Bilboko etxeetako zein industria, merkataritza eta instituzioetako hondakin asimilagarrien kudeaketa operadore pribatuen bidez egiten da. Hiri-hondakinen gaikako bilketari dagokionez, 2007. urtean legez 2008an ere beira, paper eta kartoi eta pila gehiago bildu da; linea marroian, aldiz, alderantzizkoa gertatu da.

Etxeko hondakin arriskutsuen eta ehunen kasuan, berriz, gero eta gaikako zabor-bilketarako gune gehiago jarri ditu Udalak udalerriko auzoetan sakabanaturik.

Argiztatze publikoa

2008. urtean goranzko joera mantendu da Bilboko argiztatze publikoaren inguruko adierazleetan. Bideko argi puntuak %1,5 igo dira 32.200 izan arte eta guztirako ahalmena 7.200 Kw areagotu da.

Bilboko herri-argien bilakaera 2007-2008. urteetan.

ADIERAZLEAK	2007	2008
Bideko argi puntuak	31.711	32.200
Potentzia (Kw)	7.070	7.200
Kontsumoa (Kwh)	30.446.428	30.259.451

Iturria: Bilboko Udaletxeko Obra eta Zerbitzuen Saila.

Hiri-altzariak

Bilboko hiri-altzarien bilakaera 2007-2008. urteetan.

ADIERAZLEAK	2007	2008
Jardinera metroak lerroan	4.734	4.788
Kaleko eserleku kopurua hirian	8.240	8.527
Haurrentzako jokoetarako ekipamendua	106	116
Paperontzi kopurua	5.205	5.344

Iturria: Bilboko Udala. Udaletxe eta Zenbait Eraikinetako Zaintzaileen Azpitaldea.

Bilboko hiri-altzarien xedeak bere horretan dirau, zera, hiriaren apaingarri izatea eta ekipamendu eta zerbitzuei begira gero eta egokiago bilakatzea.

Zerbitzuan dagoen gas sarea

Bilboko gas sarea 2007-2008. urteetan.

ADIERAZLEAK	2007	2008
Gas naturala kontsumitzen duten etxe kopurua	64.944	69.514
Sartze indizea (gas naturala kontsumitzen duten etxeak/guztirako etxeak)	%50,3	%53,8
Eraikitako sare kilometroak	321,934	324,321
Zerbitzuan dauden sare kilometroak	321,934	324,321
Berokuntza zentrala duten etxeak	10.922	11.486
Banakako berokuntza duten etxeak	40.028	43.009
Sukalde eta ur bero sanitarioa duten etxeak	25.916	26.470

Iturria: Naturgas Energia.

Naturgas Energiak 2008. urte bukaeran 5.870 kilometroko garraio gasbide eta banaketa sarea zuen, Euskal Herrian, gehienbat. Bertan, 135 euskal udalek nabarmentzen dituzte gas naturalaren abantailak.

Bilbon 2008. urtean gas naturala kontsumitu duten etxebizitzen kopurua 69.514koa izan da; aurreko ekitaldian baino %5 baino gehiago igo da, beraz.

Ekitaldi honetan eraikitako sare kilometro kopurua ere areagotu egin da; pasa den urtean 321,934 Km izan ziren eta 2008an 324,321 Km-tara iritsi gara. Gainera, guzti-guztiak ari dira zerbitzu ematen.

Gas naturala erabiltzen duten etxebizitzen artean, banakako berokuntza erabiltzen dutenak nagusi dira oraindik berokuntza zentrala erabiltzen dutenekiko. Hala, aurrenekoak 43.009 dira eta bigarrenak, 11.486.

2008. urte amaieran, Naturgas Energiak lau bulego zituen Bizkaian dagoeneko, Bilboko Santimami zumarkalean Bezeroari Arreta egiteko bulego berria inauguratu ondoren. Egoitza nagusia ere bertan dago.

Telefonia

Bilboko telefonia sarearen bilakaera 2007-2008. urteetan.

ADIERAZLEAK	2007	2008	Δ (%)
Ahots linea kopurua *(linea baliokideak)*	***165.398***	***165.428***	***%0,02***
Enpresakoa	43.899	47.665	%8,58
Etxekoa	121.499	117.763	-%3,07
CATV Digitala kontratatu dutenak *(etxekoa)*	***6.584***	***7.459***	***%13,29***
Interneteko bezero kopurua *(banda zabal zuzena)*	***52.096***	***71.840***	***%37,90***
Enpresakoa	15.109	18.245	%20,76
Etxekoa	36.987	53.595	%44,90
RDSI linea kopurua *(linea baliokideak, "Ahots linea kopurua" idazpuruaren barne)*	***17.502***	***17.579***	***%0,44***
Enpresakoa	16.818	16.945	%0,76
Etxekoa	684	634	-%7,31

Iturria: Telefónica eta Euskaltel.

Telefoniari lotutako ekipamenduen inguruan, mugikorrak irabazi duen garrantzia ezin ukatukoa da, bai enpresentzako, bai partikularrentzako komunikazio bitarte funtsezko bihurtu baita. Eustaten arabera, Euskal Herriko lau etxetik ia batean hiru mugikor baino gehiago dago. Datu hori partikularrek telefono mugikorrak zenbateraino erabiltzen dituzten adierazgarri da. Dena den, betiere Eustaten esanetan, linea finkoak oraindik ere ekipamendurik ohikoenak dira (%92,2).

Enpresa eta establezimenduek ere ahalegin garrantzitsua egiten jarraitzen dute teknologia berriak bere jarduerei gehitzeko. 2008an euskal enpresa gehienek izan dituzten ekipamendu teknologikoak hauexek dira, portzentaje handienetik txikienera: telefono mugikorra (%72,2), Internet (%66,4) eta posta elektronikoa (%63,5). Aipatzekoa da ere gero eta enpresa gehiagok izan dutela langile kopuru handiagoa Internetera konektatuta. Joera hori hiru lurralde historikoetan eta sektore ekonomiko guztietan nagusitu da. Zehazki esanda, Interneteko konexioa daukaten langileen igoeraren balantzea pixka bat gorago dago zerbitzuen sektorean eta Bizkaiko enpresetan.

Garraioak eta Komunikazioa

Bilbo zerbitzuetako hiri turistikoa, modernoa, anitza, integratzailea eta sormenezko ekimenen bultzatzailea izateak komunikazio azkarrak eta modernoak izatera behartzen gaitu zerbitzuak modu eraginkorrean emateko bagara.

Gune metropolitarraren eta zehazki Bilboko hiriaren kokapen geografiko estrategikoak -Europako Atlantikoko ertzaren erdian- bere inguruaren zailtasun orografikoekin topo egiten du. Zailtasun horiek, bada, ingeniaritza proiektu garrantzitsuak derrigorrez egitera bultzatu dute, lur, itsaso zein aire bidez komunikatzeko duen potentziala garatu ahal izateko.

Garapen ekonomiko eta sozialaren eta mugikortasunaren arteko lotura estua, azken hau areagotzeko balio duen heinean, oso positiboa izan daiteke baita ere garapen jasangarria lortzeko, ingurumena eta eskuragarri dauden baliabide naturalak errespetatzen dituen garapen mota. Ildo honetan, hainbat ekimenek mugikortasuna zentzuz garatzearekin bateragarria den garraioen antolaketa bultzatzen dute, hala nola trenbide eredu berria, lastertasun handiko linea berrien garapena, garraio intermodalak eta egonaldi laburreko itsas garraioak (Short Sea Shipping) bultzatzea.

Garraio eta komunikazio sareari behin betiko bultzada ematekotan, Bilbo Metropolitarra Berpizteko Plan Estrategikoak zenbait lan burutzea erabaki zuen. Aurreikusitako garraio eta komunikazio azpiegituren sareko atal nabarmena eraiki da dagoeneko. Hori horrela, egungo beharrentzako egokiak diren kalitatezko zerbitzuak eskaini ez ezik, lurraldearen garapena eta metropoliaren nazioarteko harremanak errazten dituzten tokiko eta mundu mailako komunikazioak ere ahalbidetzen ditu.

Gaur egun, sortutako sarea osatzeko jarduera ezberdin gehiago aurreikusi eta burutu ere egiten dira Euskadin zein Bilbon, bereziki. Hona hemen aurrera eramandako batzuk: metroa handitzea, “Supersur” autobidea egitea, Loiuko Aireportua handitzea, hiribildua aireportuarekin trenbide-tunel baten bidez konektatzea, lastertasun handiko trena egitea eta euskal Y proiektuaren azpiegiturak garatzea, gerora ardatz atlantikoarekin eta Mediterraneoko igarobidearekin jarraitzeko.

Bilboko gune metropolitarra ardatz atlantikoaren erdigunean kokatuta dago eta honek, portuaren eta aireportuaren azpiegitura berrien bidez, Amerika eta Europako iparraldearekin itsaso eta aireko komunikazioak errazten ditu. Europarekin ere lur bidezko komunikazioa erraztu du Europako eremuko errepide eta trenbide komunikazio ardatz nagusiekin duen konexioaren bidez. Era berean, konexio honek azpiegiturak Kantauriko erlaitzaren eta Mediterraneoaren arteko ardatz modura erabiltzea ahalbidetzen du.

Bestalde, metropoli barneko mugikortasuna eraginkorra da azpi-eskualdeen arteko konexio sare modernoari esker. Hau oraindik hobekuntza fasean dago eta garraio publikoak berebiziko zeregina du prozesu horretan zerbitzu eraginkorra eta lehiakorra emateko bada.

BILBOKO AIREPORTUA

Bilboko Aireportuak guztira 4.182.901 bidaiari izan ditu 2008. urtean; aurreko urtearekiko %2 baino gehiago jaitsi da, beraz. Zifra hauek mundu mailako krisialdi ekonomikoak aire bidezko garraioaren sektorera ekarri duen atzeraldiaren barne ulertu behar ditugu. 2008ko uztailetik eta abuztutik aurrera nabaritu da atzeraldirik handiena.

Bilboko aireportuko bidaiari eta merkantzia trafikoaren bilakaera 1990etik 2008ra.



Iturria: Bilbao Air.

2007-2008ko Bilboko aireportuko aire bidezko zirkulazioaren bilakaera, kontzeptuaren arabera.

TRAFIKOA	2007	2008
TRAFIKOA		
Merkataritzakoa	4.254.395	4.149.572
Estatukoa	3.174.156	3.053.177
Nazioartekoa	1.080.234	1.096.395
Guztira	**4.277.610**	**4.172.901**
ERAGIKETAK		
Merkataritzakoa	54.877	52.966
Estatukoa	37.009	35.709
Nazioartekoa	16.183	17.257
Guztira	**63.079**	**61.680**
MERKANTZIAK (Kg)		
Zama	3.229.774	3.178.758
Posta	2.388	4.318

Iturria: Bilbao Air.

Merkantzien kargari dagokionez, baina, aurreko urteetako joera bera ikusi da. 2007an 3.229.774 Kg garraiatu zen; 2008an, aldiz, 3.178.758 Kg eraman dira, hau da, erregistratutako beherakada 2007an 2006arekiko jaitsi zena baino neurritsuagoa izan da (%1,5 inguru).

Bestalde, Bilboko Aireportua handitzeko proiektuak aurrera jarraitzen du. Horren xede nagusia bidaiari kopurua bikoiztea da. Hori lortzeko, 2014rako 8 milioikoa behar luke kopuru horrek. Aireportua egokitzeko beharra gaur egungo egoeraren azterketa eta eskariaren aurreikuspena kalkulatzean agertu da. Orduan, bada, terminalean hegal berria eraikitzeko eta zerbitzuak areagotzeko plana bideratu da 114 milioi euroko inbertsioarekin.

BILBOKO PORTUA

Argazkia: Bilbao Turismo.

Bilboko Portuko merkantzien mugimendua 39,3 milioi tonakoa izan da 2008. urtean. Trafikoek bost urtez bilakaera positiboa izan ondoren, jarduerak behera egin du pixka bat (%1,5) gaur egungo ekonomiaren bide beretik. Krisialdi egoera honek ez du eraginik izan edukiontzietan sartutako merkantzien guztirakoaren gainean, ezta likido handien gainean ere. Hauek %4 eta %2 igo dira, hurrenez hurren; izan ere, inoiz izan duten emaitzarik hoberena lortu dute urte honetan. Alderantzizkoa gertatu da solido handiekin eta merkantzia orokorrarekin.

Merkatuei begira, Europako Atlantikoko herrialdeak jarraitzen dute trafiko gehienen jatorri edota helmuga bezala. Hau da, erregistratutako datuak Short Sea Shipping trafikoek Bilboko Portuan duten garrantziaren erakusgarri izan dira beste behin.

Bidaiarien trafikoari begira, 2008an Euskadira gurutzaldietan edo Ferryan etorri direnak 179.572 izan dira, guztira, aurreko urtean baino %4 gehiago. Getxoko kaian 38 gurutzaldi porturatu dira, 2007ko datua ia-ia bikoizten duen kopurua. Bestalde, P&O enpresako Ferryak, Bilbo eta Erresuma Batuko Portsmouth-eko portua lotzen dituena, hamabost urte bete ditu zerbitzu hau ematen. 2008an, 142.446 bidaiari izan ditu ferryak, 2007an baino %5 gutxiago.

Bilboko Portu Agintaritzak 61,2 milioi euroko inbertsioa egin du 2008an, eta 2009. urtean ere halako aurrekontu nabarmena izango du. Zehazki esanda, 54,4 milioi euro inbertituko ditu portuko instalazioen handitze lanekin jarraitu ahal izateko.

2008ko Bilboko portuko itsas-trafikoa, kontzeptuaren arabera.

ADIERAZLEAK		2008	Δ 2007-2008
Ontziak	Eskalak	3.585	-%0,28
	T.E.G.* (zama edukiera)	48.822.105	%3,71
Edukiontziak	T.E.U.S. **	557.345	%0,50
Gurutzaldiak	Eskalak	38	%72,7
	Bidaiariak	37.126	%61,6
Bidaiariak	Ontziratuak	43.719	-%6,71
	Lehorreratu-takoak	51.554	-%8,11
	Bidean	84.299	%21,01
Merkantziak (Tm)	Kargatuak	10.222.321	%3,41
	Deskargatuak	27.758.129	-%2,76

** TEG: Tona Erregistro Gordina.** TEUak: Twenty Equivalent Units*

Iturriak: Txostena 2008. Bilboko Portu Agintaritza.

TRENBIDE SISTEMA

Trena garraio-modu iraunkorrena da ikuspuntu guztietatik ikusita. Gure gune metropolitarrak eremu geografiko ia osoa hartzen duen erabateko trenbide sistema du eskura.

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren esanetan, 2008an 179,7 milioi bidaiarik erabili dute Bizkaiko garraio publikoa; horien artean %64 trenbidez bidaiatu da, hau da, aurreko urtean baino %0,6 gutxiago.

Euskal Herriko trenbide sistema modernoago bilakatzeko ahaleginak hainbat proiektu ditu abian, adibidez, lastertasun handiko sare berria, Euskotrenbideak sarearen ibilbidea hobetzea, laster gehituko diren bidaiari eta merkantzietarako unitate berriak, Gasteizeko tranbia martxan jartzea eta euskal hiriburuak Madril eta Bartzelonarekin lotzeko RENFEren Alvia trenak erabiltzea.

Metro Bilbao

Metro Bilbaok 86.333.743 bidaia erregistratu ditu 2008. urte bukaeran, beraz, aurreko urteko datuarekiko %0,5eko igoera izan du. 469.287 pertsona gehiagok erabili dute garraio mota hau, zera, eguneko 1.300 bidaia gehiago egin dira eta, guztira, 86 milioi bidaiatik gora.

Abando, Casco Viejo, Moyua eta Indautxuko geltokiak dira, egun ere, gehien erabiltzen direnak eta 6 milioi bidaiarien kopurua gainditzen dutenak. Bestalde, Portugaleteko geltokiak ere hartu du garrantzia sarearen barne, tren-aldaketa egin zutenen gorakadak erakusten duen bezala. 2.827.074 bidaia egin ziren guztira 1. eta 2. lineen artean.

2008. urtean, Matiko, Uribarri, Alde Zaharra, Zurbaranbarri, Txurdinaga, Otxarkoaga, Zabalburu, Irala, Errekalde, Galdakao eta Usansolon azterketa edo eraikuntza-proiektua egiteko kontratua egin da. Geltoki hauek, horrela, metroa handitzeko 3., 4. eta 5. lineentzako planei behin betiko lotuta geratuko dira.

Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin batera, urtean zehar metro unitateei bosgarren kotxe bat gehitu ahal izateko instalazioak egokitzeko lanak egin dira. Bosgarren kotxe hori tren unitate bakoitzari gehitzeak erosotasuna eta edukiera areagotuko ditu. Zutik 601 pertsona sartuko lirateke eta beste 140 eserita. Egun lau kotxeek duten edukiera, aldiz, 480 zutikako eta eseritako 112 pertsonakoa besterik ez da. 2008. urtean egindako hobekuntzetako beste bat Bilboko geltokietan megafonia berria jartzea izan da.

Renfe

RENFEren aldiriko zerbitzuak 420 tren eskaintzen ditu lanegunetan. Zerbitzu hauek Abando eta Santurtzi arteko C-1 linean, Abando eta Muskiz arteko C-2 linean eta Abando eta Urduña arteko C-3 linean ematen dira.

Bilboko metroa erabiltzaile kopuruaren gorakada izan duen garraio bide bakarra izan da.

2008an 128.000 pertsonek erabili dute aldiriko zerbitzua, 2007an baino %3 gutxiago. Trenbidez bidaiatzen diren guztirakoaren %15,7 dira horiek. Bidaiari gehien galdu duen linea Bilbo-Urduñakoa da.

Merkantzia eta logistika zerbitzuengatik RENFEk 19.995,34 mila euroko fakturazioa lortu du aurten.

Aipatu beharra dago 2008ko abenduan Miribillako geltokia inauguratu zela, Bilbo eta Urduña lotzen dituen RENFE aldirien C-3 linearen barne. Halaber, Alvia tren berri bat martxan jarri da, lastertasun handikoa eta lekuz aldatzeko arrodadura duena. Honek Bilboko eta Bartzelonako hiriak konektatzen ditu Estrella Pío Baroja gaueko trenaren ordez. Alvia tren berriak RENFEk 2004-2010 epe barruan martxan jarriko dituen 560 trenen artean daude.

RENFEk aditzera eman duen beste hobekuntza bat zera da, Creditrans ekimenean sartzeko bere instalazioak berriztatu eta egokitzea. Horrela, txartel bateratuaren abantailak eskainiko lituzkeen bederatzigarren garraio operadorea bihurtuko litzateke.

Feve

2008. urtean zehar, Bilbo-Balmaseda aldiriko lineak 1.506.466 pertsona izan ditu, eta Bilbo-Santander eta Bilbo-Leon ibilbide erregionalek 135.112 bidaiari eraman dituzte guztira. Geltoki eta geraleku guztietako bidaiari mugimendurik handiena Bilboko La Concordian erregistratu da.

Kadaguako eta Historiaren Tren turistikoek 2.335 bidaiari eraman dituzte, guztira.

Merkantzia-trenei dagokienez, garraiatutako tona bolumena %9 jaitsi eta 1.053.636tan geratu da.

FEVEk Bizkaiko bidaiari eta merkantzien garraioaren kalitatea hobetzeko inbertitzen jarraitzen du; hala, 11,78 milioi euroko inbertsioa du aurreikusita (BEZ kanpo) probintzia osoan. Jarduera hauek, 2005etik 2020ra bitarteko Azpiegitura eta Garraioaren Plan Estrategikoaren (PEIT) Trenbideko kapituluan sartzen dira, aldiriko planari eta trenbideko ohiko sarea hobetzeko ekimenei jarraiki.

Honen inguruan, ezin aipatzeke utzi 2008an Transcantábrico deritzonaren hogeita bosgarren urteurrena ospatu izana. Horrela, tren honek tren turistiko hoberenen artean leku hartu du jadanik.

Euskotren

Euskotrenek zerbitzu hauek eskaintzen ditu: trena, Larreinetako funikularra, Zumalakarregiko igogailua, Tranbia eta autobus zerbitzua Bizkaibusen bidez.

Tren-zerbitzuei dagokienez, Bilbo jatorri eta helmuga duten ibilbideek urte honetan 6.851.881 bidaiari erregistratu dituzte, Larreinetako funikularra barne. Txorierriko lineak, esaterako, gorakada txikia izan du; Bilbo-Ermua eta Bilbo-Bermeo lineetan, aldiz, %5eko eta %6ko beherakada nabaritu da 2007. urtearekin alderatuz.

Euskotrenbideak elkarteak bidaiarien trenbide parkea eraberrituko du hurrengo hiru urteetan eta horretarako unitate berriak eskuratuko ditu.

2007tik 2008ra Bilbo jatorri-helmuga izan duten erabiltzaileen laburpena, garraio mota nagusien arabera.

GARRAIOAK	2007	2008
AIREPORTUA	4.277.610	4.172.901
BILBOKO PORTUA	172.626	179.572
METROA	85.864.456	86.333.743
TRANBIA	2.906.352	2.846.713
BIZKAIBUS Bilbo jatorri-helburu duten lineak	30.876.000	30.196.000
TERMIBUS Eskatutako autobusak	75.050	70.450
TERMIBUS- Autobus erregularrak	2.336.929	2.362.516
BILBOBUS	27.705.000	26.004.171
EUSKOTREN Tranbia eta funikularrik gabe	7.090.000	6.851.881
FEVE Bilbao-Balmaseda	1.771.223	1.506.466
FEVE Erregionala	143.593	135.112
RENFE Aldiriak	18.772.000	18.128.000
IBILGAILU-PARKEA	170.807	171.407

Iturriak: Erakunde bakoitza eta Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

BIDE-SAREA

Bilbok hiria Bilbo metropolitarrarekin eta kanpoaldearekin konektatzen duten hamaika bide garrantzitsu ditu. Sarbide guztietatik, zazpi ahalmen handikoak dira (A), hau da, lau errei edo gehiagorekin. Beste laurak, ordea, ahalmen txikikoak dira (B), bi erreiko bideak.

2008. urtean Bilboko udalerriko hamaika sarbideetan 351.034 ibilgailu erregistratu dira egunero. Guztirako honetatik, 14.935 (%4,3) ibilgailu astunak izan dira. Nahiz eta trafikoak 2007an aurreko urtearekiko %2,2 gora egin zuen, 2008an kontrako bidea hartu du (-%0,2). Dena den, beherakada hori Bizkaiako gainerako udalerrietan baino gutxiago igarri da, %0,7ko jaitsiera erregistratu baita oro har lurralde honetan.

Zehatzago esateko, trafikoak behera egin du Bilboko hamaika sarbideetako seitan; kasu nabarmengarriena Orueta-Santo Domingokoa edo Ibarsusi-Etxebarrikoa izan da. Trafikoak gora egin duen sarbideen artean, Artxandako tunelak aipatu beharra dago. Areagotze hori 2008an zehar Deustu-Enekuriko sarbidean egindako handitze lanek ekarri dute. Bestetik, Miribilla auzoa zabaltzearekin bat Miribilla-Hego konponbideko sarbideak ere trafiko gehiago izan du urte honetan.

Bilbo metropolitarraren sarrera eta irteerako trafikoaren bilakaerari erreparatuz gero, 2003tik 2008ra bitartean datuak ez atzera eta ez aurrera egin duela ikusiko dugu (urteko %0,1). 2003an eguneko 349.247 ibilgailu egon baziren, 2008an 351.034 zenbatu dira. Bilakaera jasangarri honen atzean garraio publikoaren –Metroa, bereziki- hobetzea eta zerbitzuen areagotzea daude, baita azken urteetan Bilboko erdigunean ez aparkatzeko erabilitako neurriak ere.

Bilboko sarbideetako trafikoaren bilakaera 2007tik 2008ra.

SARBIDEA	*2007 2008*	*2003 2008*
	% urteko tasa	
Deustu-Elorrieta BI-711 (B)	*-3,3*	*-6,6*
Deustu-Enekuri BI-604 (A)	*-0,7*	*7,9*
Artxandako tunelak BI-626/BI-627 (A)*	*7,4*	*8,3*
Orueta-Sto. Domingo BI-631 (A)	*-2,7*	*-1,4*
Ibarsusi-Etxebarri N-634 (A)	*-2,1*	*-3,0*
Bolueta-Zubialdea 712 (B)	*1,3*	*-4,9*
Miraflores-Hego konponbidea Ekialdeko Saihesbidea BI-631 (A)	*1,7*	*7,6*
Zabalburu pl.-Hego konponbidea Juan de Garai (A)	*0,1*	*-1,8*
Jesusen Bihotza-Hego konponbidea Sabino Arana (A)	*0,5*	*-1,2*
*Basurtu-Kastrexana BI-3736 (B)***	*-4,1*	*-4,1*
Basurtu-Zorrotza N-634 (B)	*-2,6*	*-7,5*
GUZTIRA	***-0,2***	***0,1***

Iturriak: Trafikoaren bilakaera Bizkaiko errepideetan 2008. urtean. Bizkaiko Foru Aldundia.

** Artxandako tunela (La Salve): BI-626; Ugaskoko tunela (Deustu): BI-627.*

Bilboko trafikoaren banaketa sarbideen arabera.



Iturriak: Trafikoaren bilakaera Bizkaiko errepideetan 2008. urtean. Bizkaiko Foru Aldundia.

Termibus

Hamar urteko zerbitzuaren buruan, Termibus Estatuko eta nazioarteko autobusen erreferentziazko irteera eta iritsiera puntu bilakatu da Bilbon, eta zerbitzu zentralizatua eta sarbide erraza eskaintzen ditu. Horretarako, toki estrategiko batean kokatuta dago, autobide sarbideetatik gertu linea erregularreko eta lineaz kanpoko ibilbideak errazteko. Aldi berean, Bilboko hiri-barruko eta hiriarteko garraio ezberdinetarako konexioak ditu.

2008. urtean, aurrekoan bezalaxe, lekualdaketa erregularren jarduera zifrak gehitu egin dira eta lineaz kanpokoetan gutxitu egin dira bidaien eta bidaiarien kopuruari dagokienez

2008ko urtarrilean geltokiaren perimetroa estaltzeko itxitura berezia instalatu zen, kalera zein etxebizitzetara iristen den zarata murrizteko ahaleginetan. Nolanahi ere, Termibus aldi baterako konponbidea dela kontutan hartu behar da, Sustapen Ministerioak Abandoko Intermodala eraikitzeko neurriak hartu arte.

2007tik 2008ra Termibus erabili duten pertsonen bilakaera, zerbitzu motaren arabera.

ZERBITZUAK	2007	2008
BIDAIAK		
Eskatutakoak	1.501	1.409
Erregularrak	124.640	124.998
Bidaiak, guztira	**126.148**	**126.407**
BIDAIARIAK		
Eskatutakoak	75.050	70.450
Erregularrak	2.336.929	2.362.516
Bidaiariak, guztira	**2.411.979**	**2.432.966**

Iturria: Termibus.

Bizkaibus

2008an Bizkaibusek 30.196.000 pertsonari eman dio zerbitzu guztira, 2007. urtean baino %2,2 gutxiago, alegia. Jaitsiera honen arrazoia, aurreko urtekoa bezain nabarmena izan ez bada ere, metroaren handitzea litzateke. Bizkaiko Garraio Publikoaren Txostenak (Bizkaiko Garraio Partzuergoak egina) emandako datuen arabera, Bizkaiko garraio publikoa erabiliz egindako bidaien ia erdia Metro Bilbaorekin egin dira, %47, zehatzago esanda; Bizkaibuseko bidaiak, aldiz, guztirakoaren %17 izan dira.

2008. urtean Bilbo-Balmaseda linea espres deritzona ireki da Kadaguako igarobideko azken zatia martxan jartzen dela baliatzeko. Azken urteetan, Foru Aldundia linea espres hauek zabaldu nahian ibili da lurralde osoan zehar, Bilbo eta hirigune handiak lotzeko asmoz. Halaber, hainbat pertsonentzako baliagarriak diren azpiegiturak eraikitzen ere saiatu da, adibidez, aireportua edo Zamudioko Teknologia Parkea. Oro har, zerbitzu hauek izan dira erabiltzaileen artean harrera onena izan dutenak eta, hori horrela, urtetik urtera bidaiari gehien irabazten dituztenak dira.

Garraio publikoko lineak berrantolatzeari begira Foru Aldundiak enkargatu zuen azterketa eta diagnostikoa 2009an zabalduko da. Bertan, ekimen anitz proposatzeko ustea du, esaterako, linea batzuk ezabatzea edo haien maiztasuna murriztea. Izan ere, azken bost urteetan etengabe bidaiariak galduz joan diren lineen eragin atzerakorra gutxiagotzeko saiatuko da ekimen hori aurrera eramaten, baita kalitatea hobetzeko eta erabiltzaileen eskakizunak asebeteko dituzten beste zerbitzu batzuk eskaintzeko ere.

Bilboko sarrera eta irteerako trafikoaren bilakaerari erreparatuz gero, 2003tik 2008ra bitartean datuak ez atzera eta ez aurrera egin duela ikusiko dugu (urteko %0,1). 2003an eguneko 349.247 ibilgailu egon baziren, 2008an 351.034 zenbatu dira.

GELTOKI INTERMODALA

Geltoki Intermodalak Bilboko eta bere metropoliko funtsezko lau garraiobide lotzen ditu: Metro Bilbao, RENFEren Aldiriak, Eusko Tran tranbia eta Termibuseko autobusak. Hauek, bai hiriarteko zerbitzuak, bai beste hiriburuekin konexioak dituzte.

San Mamesen kokatutako aldageltoki geltoki hau garraiobide publiko ezberdinen lotura intermodal nagusia da eta, gainera, tren-tokiak hiri-kokapenean erabat integratzea dakar.

Mugikortasuna Bilbon

GARRAIO PUBLIKOA ETA PRIBATUA

Eusko tran (Bilboko tranbia)

2008. urtean Bilboko Tranbiak 2.847 pertsonari eman dio zerbitzu, 2007an baino gutxiago eta, hortaz, guztirako joan-etorrien %2 gutxiago.

Gaur egun, Eusko Tranek kudeatzen duen Bilboko Tranbiak 12 geltoki (Atxuri, Erribera, Arriaga, Abando, Pío Baroja, Uribitarte, Guggenheim, Abandoibarra, Euskalduna, Sabino Arana, San Mames eta Basurtu), eta 4.870 metroko ibilbidea ditu, guztira. Enpresaren proiektuetako bat Bilboko tranbiako eraztuna ixtea da, Autonomia eta Hurtado de Amezagatik eta Abandoko geltokia dagoen Plaza Biribilera bideko kaleetan zehar. Zorrotzaurre berreskuratu den heinean, balizko beste proiektu bat Euskalduna Zubitik harago irlara arte zabaltzea litzateke. Horrela, tranbiako linean 4 geltoki gehiago egongo lirateke Zorrotzara heltzeko.

Eta azkenik, enpresak beste zabaltze proiektu bat ere badu esku artean, tranbia zerbitzua Bilbo-Atxuri geltokitik Etxebarriko San Antonio geltokira edo agian Basauriko Ariz geltokira arte luzatzearena, alegia. Horretarako, egun Euskotrenek erabiltzen dituen bideak baliatuko lirateke, bi geltokiak aldageltoki modura erabiliko bailitzateke.

2007tik 2008ra bitartean Bilbon dauden ibilgailu aktiboen bilakaera, motaren arabera.

IBILGAILUA	2007	2008
Autobusak	775	786
Kamioiak	16.158	16.255
Ziklomotorrak	5.931	5.948
Motozikletak	9.434	10.478
Atoiak	2.191	2.183
Ibilgailuak	133.977	133.277
Traktoreak	2.341	2.480
Guztira	**170.807**	**171.407**

Iturria: Bilboko Udaletxeko Ekonomia eta Ogasun Saila.

Bilbobus

Bilbobus Bizkaiko hiriburuko hiri barneko autobusen zerbitzuak hainbat pertsonarentzat lanean jarraitzen du. Hauek oso ondo baloratzen dute enpresak eskainitako zerbitzua. 2008an 26.004.171 pertsonari eman dio zerbitzu, zera, aurreko urtean baino %6 gutxiago. Zifra honek azken bost urteetan erregistratutako goranzko joera bertan behera utzi du. Nolanahi ere, kontuan eduki behar da datu hauek hiriarteko garraio zerbitzu gehiago dituen hiri bateko eskaintzari dagozkiola, hau da, metroa, tranbia eta halakoak.

149 autobus ditu enpresak, 44 lineetan zehar aritzen direnak. 2008. urtean, aurreko urtearekiko informaziozko euskarrien kopuruak gora egin du (%4). Halaber, geltoki kopurua areagotu izana ere nabarmentzekoa da, aurrreko urtean 458 baziren, aurten 470 izan baitira.

Bilboko Udalaren ingurugiro konpromisoaren barne isuri gutxiago eragiten duten motordun unitate berriak urtero gehitzea dago aurreikusita. Horrez gain, hiri barneko garraio publikoko zerbitzua hobetzeko eta berritzeko politikak irisgarritasun eta mugikortasun irizpideak betetzen dituzten ibilgailuak erosteko beharra kontuan hartzen du.

Ibilgailu pribatua

2008. urtean Bilboko automobil-parkeak 171.407 ibilgailu izan zituen, azken urteotako goranzko joerarekin jarraituz. Hala ere, ekitaldi honetan gorakada hau ez da horren nabarmena izan.

Bilboko barruti ezberdinen ibilgailu kopuruaren banaketari erreparatuz gero, ia barruti guztietan orokortu den ibilgailu kopuruaren gorakada nagusitu da. Aurreko urtean bezalaxe, Abando da aurten ere ibilgailu gehien dituena, atzetik Deustu duela. Ibilgailu kopuru murritzena daukatenak Otxarkoaga-Txurdinaga eta Basurtu-Zorrotza dira.

Bilboko garraio zerbitzua osatzen duten taxiak, funikularrak, igogailuak eta halakoak aurki daitezke hirian zehar sakabanaturik. Hauek, desnibel fisikoak modu erosoan saihesten laguntzen dute eta hiria irisgarriago bihurtzen da.

2007tik 2008ra bitartean Bilbon dauden ibilgailu aktiboen bilakaera, barrutiaren arabera.

BARRUTIA	2007	2008
Barrutirik gabe	24.438	24.524
Deustu	17.883	18.049
Uribarri	12.393	12.677
Otxarkoaga-Txurdinaga	19.259	19.371
Begoña	22.313	23.039
Ibaiondo	36.915	35.535
Abando	21.262	21.551
Errekalde	16.344	16.661
Basurtu-Zorrotza	170.807	171.407
Guztira	**170.807**	**171.407**

Iturria: Bilboko Udaletxeko Ekonomia eta Ogasun Saila.

2007tik 2008ra beste garraio mota batzuk erabili dituzten pertsonen bilakaera.

GARRAIOAK	2007	2008
Taxiak (baimenak)	774	774
Artxandako funikularra	489.000	512.000
Larreinetako funikularra	181.651	181.749
La Salveko igogailua	194.000	59.000
Begoñako igogailua	554.000	492.000
Solokoetxeko igogailua	814.000	785.000
Arangoitiko igogailua	278.000	--
Ereagako igogailua	251.000	276.000
Zubi Esekia	4.567.000	4.463.000
Portugaletetik Areatzara doazen ontziak	582.000	551.000

Iturria: Erakunde bakoitza eta Bizkaiko Garraio Partzuergoa.
(--) Datu hau ez dago eskuragarri.

MUGIKORTASUN IRAUNKORRA: OINEZKOAK ETA BIZIKLETA

Iraunkortasunaren aldagarria Bilbo metropolitarraren eraldatze prozesuan dago, bai egitura produktiboetan, bai metropolian bizitzearen berezko eremu eta gaietan. Mugikortasunari dagokionez, parke, oinezkoentzako kale edo bulebarrentzako tokia handitzen ari da hiriko puntu ezberdinen birmoldaketaren bidez eta egiteko dauden proiektu berrien diseinuen bidez. Leku batetik bestera oinez ibiltzea oso ohikoa da oraindik ere Bilboko herritarren artean.

Irisgarritasuna hobetzera begira kale, plaza eta hiriko beste toki komun batzuetan egiten ari diren jarduerak osatzeko, eraikin ezberdinetako traba arkitektonikoak kentzea bultzatu da. 2008. urtean zehar, Udaletxeak 165 eskaera onartu ditu, traba arkitektonikoak kentzeko 113 eta igogailuak instalatzeko 52. Guztira, 671.317 €-ko diru-laguntza eman zaio 3.351 etxebizitzari.

Bilbo metropolitarreko Lurralde Plan Partzialak (PTP), Eusko Jaurlaritzak 2006an onartu zuena, oinez eta bizikletaz aritzeko “ibilbide naturalistikoak” proposatzen ditu. Bidegorri berriek “Txorierriko erdiguneak” lotuko ditu EHUra arte, eta Plentziatik hasita Lemoizera eta Butroira helduko dira.

Bilbon bizikletaz mugitzeko, bidegorrien sareak eraikitako 14 kilometro ditu jadanik eta 2009. urterako 24 kilometro izango dituela espero da. Bidegorri sarea zabaltzeari ekingo zaio Bilboko bizikleta-bideen plan bereziak ezarritako plangintzari jarraiki. Horrela, ia-ia 10 Km hartuko dituzten lau zati berri garatzeko proiektua dago Txurdinaga-Otxarkoaga, Miribilla, Zorrotza eta Uribitarten. 2008an Etxebarria parkeko ibilbidea eraiki da.

Jarduera hauek osatzeko, bizikleta mailegu zerbitzua garatu da garraiobide honen erabilera sustatzeko eta era berean, ibilgailuen erabilera hiri barnean murrizteko. Mailegu zerbitzuaren bizikleta kopurua areagotzeko eta horiek hobetzeko asmoa abian dago. Gainera, 2009. urterako tandemak ere eskuragarri jarriko dira zerbitzu honen bitartez.

2008ko Mailegu zerbitzuaren azken txostenari jarraiki, 18.033 pertsonak eman du izena guztira zerbitzu honetan. Hauen artean, 6.141ek 2008an egin dute. Zerbitzu eman den 199 egunetan 22.089 mailegu egin ditu, eguneko 111 batez beste.

Bestalde, uda batetik bestera zabalduz doaz bizikletak doan edo alokatzeko eskura jartzen dituzten zerbitzuak, Barakaldon, Getxon, Uribe Kostan zehar...

Aparkalekuen kudeaketa

Bilboko Udalak hiriko aparkaleku azpiegiturak hobetzeko lan egiten jarraitzen du, aparkatzeko eta autoz ibiltzeko arazoak murrizteko asmoarekin eta, era berean, oinezkoentzako tokia irabazteko xedearekin.

Aparkalekuetako 2003-2007ko Plan Estrategikoaren barne, 2008an Bilboko garajeetan 19.898 aparkaleku egongo zirela aurreikusi zen: bertakoentzako 16.618 partzela (Udalak 40 urtez bertan bizi direnei emakidan eskainitakoak) eta errotaziorako 3.280 partzela.

Azken aldian irekitako aparkalekuak hauek izan dira:

- El Carmelo II, Santutxun, errotaziorako eta bertakoentzako aparkaleku mistoa. 306 partzela ditu.
- Euskadi Plaza, Bilbao Ría 2000k bultzatutako proiektua. 783 aparkaleku ditu, 405 saltzeko direnak eta errotaziorako beste 378.

Hona hemen arlo honen inguruan egindako beste jarduera interesgarri batzuk:

- Kobetas parkean autokarabanetarako aparkaleku gisa eta kanpin gisa erabil daitekeen instalazioa eraiki da. 75 aparkaleku ditu, guztira.
- Derioko hilerria berritzeko programaren barne 20 aparkaleku sortzeko proposamena sartzen da.

2009. urterako, bada, hainbat proiektu egiteke dago, adibidez, Zorrotzako Azoka Plazako bertakoentzako aparkalekua, 109 partzela izango dituena. Bilbao Ría 2000 ekimenaren sustapenarekin, Mazarredoko aparkalekuaren inaugurazioa 2010erako aurreikusi da. 184 ibilgailurentzako edukiera izango duen lur azpiko aparkalekua eraikitzeko ustea daukate bertan. Lezamako Bide Zaharreko aparkalekua ere eraikitze prozesuan dago.

Bestalde, Auzoetako Aparkalekuetako Plana azalerako 1.100 aparkaleku berri egiteko konpromisoari atxiki zaio, 2008tik 2011ra bitarteko epean eta 5 milioi euroko inbertsioa erabiliz. Hala, Hiribilduaren inguruko auzoetan 10 lursail berreskuratu ditu Bilboko Udalak 2011. urtea baino lehen aparkaleku horietako %80 eraikitzeko ustearekin.

Bilboko kaleetako aparkaleku behar nabaria TAO sistemarekin kontrolatzen da. Sistema honekin, aparkatzeko tokia eremutan banatuz eta aparkaleku libreen errotazioa sustatuz, auzokoen aparkaleku beharraren eta beste gidarien beharraren arteko oreka bilatu nahi da. Ordenantza hau Bilboko kaleetan aplikatzen da. Kale guzti hauek 11 eremu geografikotan banatuta daude eta kolore bitan margotuta daude onartutako aparkaleku denbora maximoaren arabera: Berdea (bost ordu) edo Urdina (bi ordu).

2009rako Begoñan eta Santutxun TAO zerbitzua zabaltzeko asmoa dago.

Guztira, TAOren araberako 15.334 aparkaleku dago 11 eremutan banandurik.

2008an Bilbon TAO duten aparkaleku kopurua, kolore eta eremuaren arabera.

EREMUAK	BERDEAK	L BERDEA	URDINAK	GUZTIRA
1. ZONALDEA Abando	1.079	0	408	1.487
2. ZONALDEA Indautxu	872	0	453	1.325
3. ZONALDEA Indautxu	1.109	0	328	1.437
4. ZONALDEA Ametzola	693	0	158	851
5. ZONALDEA Basurtu	1.132	0	149	1.281
6. ZONALDEA Errekalde-berri	1.615	0	93	1.708
7. ZONALDEA Iralabarri	1.283	0	0	1.283
8. ZONALDEA Deustu	1.584	148	162	1.849
9. ZONALDEA Castaños-Matiko	760	0	131	891
10. ZONALDEA Alde Zaharra-Begoña	1.511	0	19	1.530
11. ZONALDEA Santutxu	1.499	0	148	1.647
GUZTIRA	**13.137**	**148**	**2.049**	**15.334**

Iturria: Bilboko Udaletxeko Esku-hartze Estrategikoen eta Aparkalekuen Saila.

eraikunak eta etxebizitzak

Foto: Bilbao Turismo.

BilbaoLan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

3. kapitulua

Eraikinak eta etxebizitzak

3. Kapitulua

Eraikinak eta etxebizitzak

1985. urteko Hiribilduko Lurralde Antolamendurako Plan Nagusiaren eboluzioa nabarmena izan da urteak joan ahala, non Bilboko antolamenduaren inguruko beharrak ezinbestez aldatuz joan diren. Horrexegatik, Bilboko Udalak Planaren berrikusketa prozesuari ekin zion 2006an, XXI. mendeko Bilboko hiri-antolamenduaren oinarrizko irizpideen arabera egokitzearren. Orduz geroztik, Planaren xedea zera izan da, Bilbon zegoen etxebizitza multzoa finkatzea, jarduera ekonomikoa mantentzea eta auzoak suspertzeko eragile bihurtuko diren ekipamenduak sortzea, zaharberritze eta irisgarritasun kontuei begira bizi-kalitatea hobetzeko asmoarekin.

Indarrean egon den bitartean, Plan Nagusiak egokitzapen eta aldaketa asko izan ditu, lege-mailako eta araubidezko xedapenak direla-eta. Besteak beste, Bilbo metropolitarraren alde funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (LPP) dago.

Bilbo metropolitarraren alde funtzionalaren LPPren helburu nagusiak honako hauek dira: inguru fisikoarekiko konpromiso biziagoa lortzea, hirigunearen eraldaketaren bitartez garapen jasangarria bermatzea eta, azkenik, lurralde mailan eragina daukaten ekintzak koordinatuz jarduera ekonomikoa sustatzea. Ekintza hauek guztiak 16 urteko epean egin beharrekoak lirateke.

Estatu mailan, etxebizitza askea jabetzan hartzeko diru-jartze handiena egin behar duten gazteak Euskadikoak dira.

Lurzorua administratzeko formula honen barne, gehienez 88.633 etxebizitza eraikitzeko aurreikuspena egin da. Hori horrela, lurzoruko hektarea bakoitzeko eraikitako etxebizitzen portzentajea handitu egin da, batez ere, Eskuinaldean. Guztira eraikiko diren etxebizitzen artean, 48.290 gaur arte indarrean egon den plangintzari jarraiki egingo dira. Beste 24.820 etxebizitza lurraren dentsitatea areagotzearen (etxeak pisuekin ordezkatzea) ondorioa lirateke, eta gainerako 15.523 etxebizitzak garapen berriei dagozkie, hau da, etxebizitzak eta jarduera ekonomikoa uztartzen dituzten formula mistoak izango dira.

Etxebizitzaren sektorea Euskadiko errealitatea aldatzen ari da edo, hobeto esanda, herri askorena, non herritar kopuruak gutxika-gutxika gora egiten duen. Joera honen atzean hiriburuetako eta hirigune handietako etxebizitzen prezio altuak daude, baita inguru naturaletan etxea edukitzeak berarekin dakarren bizi-kalitate maila hobea ere. Dena dela, herrien urbanizatze honek herri txikiak “lohiri” bihurtzeko arriskua handitzen du, lan egiteko derrigorrez beste toki batzuetara mugitu beharra izango baitute bizilagunek.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan gero eta biztanle gehiago dago, azken urteetako goranzko joerari jarraiki. EINk eman dituen azken datuen arabera, 2008. urtean %0,7 igo da biztanleria aurreko urtearekiko, nahiz eta indize positibo hori 2007. urtearekiko erregistratutako %16,03ko atzerritarren gorakadari esker baino mantentzen ez den. Gaur egun, Bilbon bizi diren atzerritarrak EAE osoko %5,43 dira.

2008. urtean krisialdiak eragin berebizikoa izan du etxebizitzaren sektorearen egoeran, interes-tasak asko igotzeaz gain, finantza-entitateek ere kredituak emateko zailtasunak jarri dituztelako. Honek guztiak merkatuaren jarduera moteltzea ekarri du eta, hori ez ezik, aurreko urteetako joera aldatu da. Adituen arabera, gutxienez 2010era arte iraungo du atzeraldiak.

OBJOVIk (Espainiako Etxebizitzaren Gazte Behatokia) 2008ko laugarren hiruhilekoaren gainean egin duen txostenaren arabera, Estatu mailan etxebizitza aske bat jabetzan hartzeko diru-jartze handiena egin behar duten gazteak Euskadikoak dira. 2008. urte amaieran prezioek eta interes-tasek behera egiteak Euskadiko etxebizitzen prezioen goranzko joera aldatzea ekarri duen arren, etxebizitza erostea, oraindik ere, ia guztiz eskuraezina da gazteentzat. Txosten honetan xedatutakoari jarraiki, gazte batek %258ko igoera behar luke bere soldatan etxebizitza aske baten erosketa arriskurik hartu gabe finantzatzeko. Bestalde, familia-unitate gazte batek %120,6 igo behar luke jasotako diru-sarrera. Horrela, bada, gero eta zailagoa da gazteentzat etxetik joatea, ez bakarrik etxebizitzaren merkatuaren egoeragatik, baizik eta kolektibo honentzako lan-baldintzek ere okerrera egin dutelako.

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Bilboko 4.064,9 hektareako azaleran, 2008. urtean, 11.481 eraikin zeuden eta, hauen artean, 154.897 etxebizitza eta 34.573 lokal.

Bilboko etxebizitzen guztirako kopurua irregularki dago sakabanatuta zortzi barrutietan zehar. Kopuru murritzena Otxarkoaga-Txurdinagan dago, 10.894 besterik ez; Ibaiondon, ordea, kopuru handiena dago erregistratuta, 26.659, guztira.

Hektareako etxebizitza dentsitatea aztertuz gero, Begoñak eta Abandok daukate pisu kopururik nabarmenena, hektareako 105,8 eta 110,2, hurrenez hurren. Datu hau udalerriaren batezbestekoaz oso gainetik dago, 38,1ekoa besterik ez baita.

Bilbon 1.358 etxebizitza gehiago egin dira 2008an.

2008. urteko Bilboko etxebizitzen banaketa barrutika.

BARRUTIAK	*Etxebizitza kop.*	*Okupatuta dauden etxebizitzak*	*Etxebizitza hutsak*	*Biztanleak / etxebizitzako*	*Hektareako etxebizitza dentsitatea*
Deustu	*21.999*	*20.070*	*1.929*	*2,6*	*44,4*
Uribarri	*17.339*	*15.731*	*1.608*	*2,4*	*41,4*
Otxarkoaga-Txurdinaga	*10.894*	*10.278*	*616*	*2,8*	*27,9*
Begoña	*18.730*	*17.525*	*1.205*	*2,5*	*105,8*
Ibaiondo	*26.659*	*23.809*	*2.850*	*2,5*	*27,6*
Abando	*23.567*	*20.103*	*3.464*	*2,6*	*110,2*
Errekalde	*21.129*	*19.115*	*2.014*	*2,5*	*30,3*
Basurtu-Zorrotza	*14.580*	*13.096*	*1.484*	*2,6*	*20,6*
GUZTIRA	***154.897***	***139.727***	***15.170***	***2,5***	***38,1***

Iturria: Lurralde taldea. Bilboko Udaleko Hiritarrekiko Harremanen Zerbitzua.

Aurreko urtearekin alderatuta, Bilbon 1.358 pisu berri gehiago egin dira: 33 Otxarkoaga-Txurdinagan, 87 Begoñan, 711 Ibaiondon, 368 Abandon, 136 Errekalden eta 76 Basurtun. Alderantziz, Deustun eta Uribarrin etxebizitza gutxiago dago, 11 eta 42 pisu gutxiago, hurrenez hurren.

Etxebizitza bakoitzeko biztanle kopuruari dagokionez (etxebizitza okupatua), hiriburuko barrutietan banaketa uniformea dago etxebizitzako 2,5 biztanleko batezbestekoaren inguruan. Barrutietako balioen aldakuntza-tartea Begoñako 2,5etik Otxarkoaga-Txurdinagako 2,8ra bitartekoa da.

Etxebizitzen okupazioari begira, Bilboko biztanleak 139.727 etxebizitzetan bizi dira, hortaz, aurreko urtean baino 950 etxebizitza gehiago dago okupatuta.

Hutsik dauden etxebizitzak 15.170 izan dira Bilbon 2008an, aurreko urtean 14.762 izan zirela. Otxarkoaga-Txurdinaga da etxebizitza huts gutxien (616) duen barrutia, eta gehien dituena, Abando (3.464).

2008an 22 lokal gutxiago zenbatu dira Bilbon (2007an 34.595 izan ziren, eta 2008an, 34.573); hau da, aurreko urteko goranzko joera aldatu egin da. Okupazio mailari dagokionez, horietako %68,5 aktibo daude.

2007-2008. urteetako Bilboko etxebizitza kopuruaren aldaketa barrutika.



Iturria: Lurralde taldea. Bilboko Udaleko Hiritarrekiko Harremanen Zerbitzua.

Etxebizitza berriaren prezioa

2008. urtean, EAEn eskainitako etxebizitza askeen batez besteko prezioa %2 jaitsi da 338.900 eurora arte.

2008. urtean zehar, higiezinen merkatua doituz joan da etxebizitzaren prezio neurritsuagoei esker. Halaber, ondasun higiezinen balioa goratzeko aukerak okerrera egiteak eta finantzaketa baldintza gero eta zorrotzagoak nagusitzeak ere izan dute horretan eragina.

2009. urterako, Tasazio Sozietateak iragarri duenez, prezioek behera egingo dute edo, hoberenera jota ere, 2008ko balioen inguruan mantenduko dira probintziako hiriburu guztietan.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egindako Higiezinen Eskaintzari buruzko Inkestak 2008ko laugarren hiruhilekorako emandako datuen arabera, eskainitako etxebizitza askeen (berriak zein bigarren eskukoak) batez besteko prezioa 338.900 eurokoa izan da EAEn 2008. urtean. Hori horrela, joera aldatu egin dela ageri da, aurreko urterako aurreikusitako preziotik (345.800 euro) %2 behera baitago. Etxebizitza berrien merkatuari begira, Babes ofizialeko etxebizitzen batez besteko prezioa %3,7 igo da, 104.200 eurotik 108.100 eurora. Etxebizitza askeen batez besteko prezioa, ostera, %3,5 jaitsi da, 349.300tik 337.200 eurora. Lurralde historikoen araberako banaketari dagokionez, batetik besterako aldea badagoela ikus daiteke. Izan ere, Bizkaia da etxebizitza berrien (babes ofizialekoak zein askeak) batez besteko prezioen beherakada nabaritu duen lurralde bakarra. Gipuzkoan gora egin du bi kasuetan, eta Araban, Babes ofizialeko etxebizitzen batez besteko prezioa igo egin da, baina askeenak behera egin du.

EAEko bigarren eskuko etxebizitzetan ere doitu dira prezioak beherantz, %3,2, hain zuzen (350.700 eurotik 339.500 eurora).

Etxebizitza Ministerioak plazaratutako higiezinen transakzioen gaineko datuak Euskadin eragiketa kopurua jaitsi den erakusgarri dira. 2008. urtean egindako salmenta eta erosketak 21.122 izan dira Euskadin, 2007. urtearekiko %20,5 jaitsi da eragiketa kopurua, beraz.

Tasazio Sozietatearen esanetan, 2008an, 1993az geroztik lehen aldiz jaitsi da etxebizitzaren prezioa Espainian, termino absolutuetan. Hala, etxeen batez besteko prezioa probintziako hiriburuetan 2.712 €/m²-koa da, hots, 2007an erregistratutakotik %6,6 behera.

"Tasazio Sozietatearen Etxebizitzaren Inguruko Txosten"-eko datuen arabera, 2008ko bigarren seihilekoa lehenengoa baino txarragoa izan da, prezioak -%5,5 jaitsi baitira. Estatu mailan, prezioak gutxien jaitsi diren probintzia hiriburuak hauexek dira: Soria (-%0,2), Leon (-%2,6) eta Lugo (-%2,7). Beste muturrean, beherakada nabarmenak erregistratu dira, hala nola Almerian (-%11,9), Vitoria-Gasteizen (-%10,5) eta Las Palmasen (-%9,6). Euskadin %5,7ko beherakada izan da.

Termino absolutuetan, probintzia hiriburu garestiena Bartzelona da, batez besteko 4.243 €/m²-ko prezioarekin. Gainera, 4.000 euroko muga gainditzen duen bakarra da. Ondoren, Donostia-San Sebastián (3.918 €/m²) eta Madril (2.658 €/m²) daude. Alderantziz, Pontevedra hiri merkeena da, 1.435 €/m²-ko prezioarekin eta, honen atzetik, Badajoz (1.470 €/m²) eta Lugo (1.499 €/m²).

Euskadin eta hiru hiriburuetan prezioek duten beheranzko joera aipatzeko modukoa da. Donostiako hirian, etxebizitza berrien batez besteko prezioak (3.918 €/m²) Euskadiko eta Estatuko batezbestekoa aise gainditzen du. Gasteizen eta Portugaleten bereziki, prezioek nabarmen egin dute behera. Izan ere, 2007ko datuekiko %10,5 eta %11,9 jaitsi dira, hurrenez hurren, hau da, Estatuko zein Euskadiko mailan erregistratutako batez besteko aldakuntzako portzentajea baino askoz gehiago. Beraz, Gasteizeko datua Euskadiko eta Estatuko batez besteko prezioaz beherago dago. Bilbokoak eta Donostiakoak, ordea, toki bera mantentzen dute Estatuko batezbestekotik gora.

Tasazio Sozietateak argitaratu dituen datuak erreferentziatzat hartuz eta "Euskal Herriko 2008ko etxebizitza berriaren merkatuaren azterlanaren sintesia" lanari jarraiki, Bilboko zenbait barrutitan, etxebizitza berrien prezioak hiriko batezbestekotik askoz gorago daude, baita Euskadiko batezbestekotik gorago ere. Etxebizitza berriaren prezioa, 2008ko abenduaren 31n izan zuenekoa, hain zuzen, etxebizitza berrien prezioen banaketaren taulan agertzen da.

2007-2008. urteetako etxebizitza berriaren batez besteko prezioaren (€/m²) bilakaera eremu ezberdinetan.

EREMUA	2007KO ABENDUA	2008KO ABENDUA	▲▼
Estatua	2.905	2.712	-%6,6
Euskal Herria	3.375	3.183	-%5,7
Bilbo	3.268	3.129	-%4,2
Donostia-San Sebastián	4.061	3.918	-%3,5
Vitoria- Gasteiz	2.988	2.675	-%10,5
Barakaldo	2.916	2.846	-%2,4
Basauri	2.120	2.154	%1,6
Getxo	3.272	3.010	-%8,0
Leioa	2.798	2.599	-%7,1
Portugalete	2.753	2.425	-%11,9
Santurtzi	2.781	2.707	-%2,7
Erandio	2.571	2.454	-%4,5

Iturria: Tasazio Sozietatea.

2008. urteko Bilboko etxebizitza berrien prezio banaketa barrutika.

Barrutiak	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa
Uribarri	3.412	3.934	3.673
Ibaiondo	2.889	7.380	5.134,5
Abando	5.292	7.398	6.345
Errekalde	3.660	4.328	3.994

Iturria: Tasazio Sozietatea.

2008. urteko salgai dagoen etxebizitza berriaren batez besteko prezioaren (€/m²) konparazioa eremu ezberdinetan.

EREMUAK	Etxebizitza berri askeen kopurua	Prezioa (€/m²)	Prezioa etxebizitzako (mila €-tan)
EAE	4.949	4.053,8	337,2
Bizkaia	2.408	4.234,2	346,9
Araba	995	3.257,4	272,0
Gipuzkoa	154,6	4.243,4	360,0
Bilbo metropolitarra*	1.396	4.607,9	137,4
Bilbo	436	5.346,5	440,0
Deustu-San Inazio	--	-	-
Uribarri	--	-	-
Otxarkoaga	--	-	-
Bolueta	56	4.780,1	410,4
Alde Zaharra	240	4.667,0	366,0
Abando	108	7.158,1	557,3
Errekalde	30	3.907,3	251,8
Basurtu	3	-	-

** Bilbo metropolitarra Lurraren Antolamendu Planean diseinatutako funtzio-arlori dagokio.*

(--) Ez da erakusgarririk aurkitu.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta.

Etxebizitza berri askeen eta salmentarako babestutakoen prezioen konparazioa m² erabilgarriko eremu ezberdinetan (2008ko 4. hiruhilekoa).

EREMUAK	Etxebizitza askea	Δ* 2007-2008	Babes ofizialeko etxebizitza	Δ* 2007-2008
EAE	4.053,8	-%1,4	1.372,0	+%3,8
Bizkaia	4.234,2	-%3	1.380,5	+%3
Araba	3.257,7	-%0,4	1.359,4	+%3,2
Gipuzkoa	4.243,4	+%1,2	1.398,2	+%6,5

** Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldakuntza.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko Higiezin, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta.

Merkatu askeko etxebizitza

Merkatu askeko etxebizitza aztertzeko beste iturri bat hartuko dugu kontuan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokia. 2008. urteko laugarren hiruhilekoan, EAEn salgai zeuden etxebizitza berri askeek zeukaten azalera erabilgarriaren prezioa 4.053,8 €/m²-koa zen, hau da, aurreko urtekoarekiko %1,4 gutxiago. Gipuzkoa da, nola ez, hiriburu garestiena, 4.243,4 €/m² erabilgarriko, Bizkaiaren atzetik, 4.234,2 €/m² erabilgarriko (-%3 2007ko datuarekin alderatuz). Bi hiriburuak EAEko batezbestekotik askoz gorago daude. Araba da batezbesteko horretatik behera dagoen bakarra, 3.257,4 €/m² erabilgarriko prezioarekin.

Bilbon prezioak bere horretan dirau, 2007. urtearekiko %0,7 besterik ez baita jaitsi. Boluetako eta Errekaldeko barrutietan, m²-ko batez besteko prezioak izan duen beherakada handia ere nabarmentzekoa da, -%15 eta -%28, hurrenez hurren. Alde Zaharra da, ordea, etxebizitza askeen batez besteko prezioak gora egin duen barruti bakarra (%8,2).

Babestutako merkatuko etxebizitza

Etxebizitzaren batez besteko prezioari egiten badiogu kasu, BOEn batez besteko prezioa 108.100 €-koa da EAE mailan, eta 100.000 €-koa Bizkaia mailan. Hori horrela, urte honetan aurrekoaren datu bertsuak lortu dira, pixka bat gorago baino ez.

EAEko m² erabilgarriko prezioa 1.372 €-ra igo da, aurreko urtearekiko %3,7 gehiago. Bizkaian, aldiz, 1.380,5 €-koa izan da (+%3). Ascobi-Bieba txostenaren arabera, 2008. urtean, autonomia erkidegoetako babestutako etxebizitzaren gehieneko salmenta-prezioak (€/m²) Kataluniako 1.940,5 eurotik Murtziako 1.061,2 eurora bitartekoak dira. EAE zerrendako erdiko tokietan legoke, m²-ko 1.452,1 euroko gehieneko prezioarekin.

Erabilitako etxebizitzaren prezioa

2008. urteko laugarren hiruhilekoan EAEn eskainitako erabilitako etxebizitzen batez besteko prezioa 4.199 €/m²-koa izan da, 2007. urtearekiko -%3,6ko hazkunde negatiboa erregistratu ondoren.

2008. urtean, Bizkaian bildu da EAEko erabilitako etxebizitzaren eskaintzaren erdia, %51,5. Batez besteko prezioak %2,2 egin du behera 2007ko datuarekiko. Gipuzkoan, erabilitako etxebizitzaren prezioak EAE osoko altuena izaten jarraitzen du, 2007arekiko aldaketa nabarmenik izan ez duela. Araban aurki daitezke, ordea, preziorik baxuenak.

Bilbon, batez besteko prezioaren %2,7ko gorakada erregistratu da eta dagoeneko 4.651 €/m²-ko zenbatekora iritsi da. Barrutikako azterketa eginez gero, Otxarkoaga eta Abando dira 2007arekiko batez besteko prezioaren gorakada handiena jasan dutenak, %7,7 eta %9,9, hurrenez hurren. Otxarkoaga, Abando eta Boluetan soilik igo da salgai dauden erabilitako etxebizitzen m²-ko batez besteko prezioa.

2008. urteko salgai dagoen erabilitako etxebizitzaren batez besteko prezioaren (€/m²) konparazioa eremu ezberdinetan.

EREMUAK	Etxebizitzak	Prezioa (€/m²)	Prezioa etxebizitzako (mila €-tan)
EAE	13.395	4.199.0	339,5
Bizkaia	6.906	4.393,7	352,4
Araba	4.366	3.591,2	290,3
Gipuzkoa	2.123	4.809,0	398,4
Bilbo metropolitarra	6.530	4.424,7	152,9
Bilbo	2.669	4.651,0	374,2
Deustu-San Inazio	143	4.397,9	367,1
Uribarri	260	4.150,3	300,8
Otxarkoaga	42	4.601,8	347,5
Bolueta	365	4.290,4	302,5
Alde Zaharra	386	4.109,9	306,0
Abando	839	5.663,0	503,7
Errekalde	391	4.092,4	313,7
Basurtu	244	4.184,9	328,9

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta.

Alokatutako etxebizitza

fotocasa.es deritzon higiezinen atariaren txostenari jarraiki, Estatu mailan IESE Negozio Eskolarekin elkarlanean egindakoa, 2008. urte amaieran, alokairuaren prezioa hileko m²-ko 9 eurokoa da. Hori ez ezik, txostenak zera dio, jendeak gehien eskatzen duen alokairuko etxebizitzaren eredua 60 m²-ko pisua litzatekela, hileko 539 €-ko errentarekin.

Betiere txostenean ezarritakoaren arabera, etxebizitzaren alokairua sei autonomia erkidegotan besterik ez da garestitu 2008an. Igoerarik nabarmenena Galizian (+%7,6), Kantabrian (+%5,8), Euskadin (+%5,6), Extremaduran (+%3,8), Asturiasen (+%1,4) eta Kanariasen (+%0,6) gertatu da. Aitzitik, beherakada aipagarrienen artean hauek ditugu: Valentziako Erkidegoa (-%8,8), Katalunia (-%8), Gaztela-Mantxa (-%6,3), Madril (-%4,4) eta Aragoi (-%4,2). Era berean, hileko m²-ko prezio altuenak Bartzelonan (12,1€), Bizkaian (11,7 €), Gipuzkoan (11,6 €), Madrilen (11 €) eta Araban (10,3 €) erregistratu dira. Beste muturrean Ourense, Jaén eta Cáceres daude, besteak beste.

“Alokairu-erregimena Euskal Autonomia Erkidegoan” azterlanak etxebizitza bat alokatzeko Estatuko prezio altuenak Euskadin daudela baieztatzen du. Horrez gain, argi dago etxebizitza bat behar duten pertsonek gero eta gehiago jotzen dutela alokairura etxebizitza bat erosi beharrean. Zehazki esanda, lehen etxebizitza eskuratzeko beharrean daudenen artean, %12k hautatu zuen alokairua 1998an. 2008an, aldiz, portzentaje hori %40koa izan da. Aldi berean, etxebizitzaz aldatu nahi dutenen artean ere, alokairua %37k aukeratu dute.

2008. urteko “EAEko etxebizitza beharrari eta eskaerari buruzko inkestan” euskal familien %5,3 alokairuko etxebizitzetan bizi dela jakinarazi da. Inkesta honetan hurrengo ondorio hauek atera dira:

- 2007. urtearekiko, alokatutako etxebizitza batean bizi diren familien kopurua mantendu egin da.
- Errentariak bizi diren etxeak txikiagoak eta zaharragoak dira.
- Alokairu-erregimenean dauden familia gehienak lehen baino gazteagoak dira eta, horrez gain, pertsona bakarrek okupatzen dituzten etxebizitzak dira nabarmengarri.
- Alokairuko etxebizitzetan bizi direnak beren jabetzapekoetan bizi direnak baino denbora askoz gutxiago geratzen dira etxe bakoitzean.
- Alokairu-erregimenean bizi diren hiru familiatik batek etxebizitza aldatzeko beharraren berri eman du; etxearen jabe direnen artean, berriz, %3k baino ez du halakorik adierazi.
- Etxebizitza zaharberritzeko beharra gero eta nabariagoa da; gainera, etxebizitzaren egoera txarra da, hain zuzen, aldaketa hori behar izateko arrazoi nagusia.
- Gazte gehienek gero eta ohikoagotzat jotzen dute aurreneko etxebizitza bat eskuratu baino lehen alokairuan bizitzeko aukera, baina aldi baterako soilik egitea nahiago dute.

Alokairuko etxebizitzek, batez beste, 74,7 m²-ko tamaina eta 41 urte dituzte. Oro har, etxe bakoitzeko kide kopurua 2,5ekoa da, eta hauen batez besteko adina 49 urtekoa. Gehienek nazionalitate espainiarra daukate (%84,2), nahiz eta atzerritarrak ere %15 diren, 2007an baino apur bat gehiago (%11,4).

Alokatutako erabilitako etxebizitza askeen eta errenten (€/hileko) konparazioa eremu ezberdinetan (2008ko 4. hiruhilekoa).

EREMUAK	Etxebizitzak	Errenta (€/hileko)
EAE	603	968,9
Bizkaia	247	968,8
Araba	227	895,0
Gipuzkoa	130	1.086,5
Bilbo metropolitarra	235	984,4
Bilbo	119	1.030,6
Deustu-San Inazio	8	979,7
Uribarri	5	886,9
Otxarkoaga	--	-
Bolueta	12	865,7
Alde Zaharra	9	954,2
Abando	64	1.154,9
Errekalde	11	893,3
Basurtu	11	882,8

** Etxebizitza kolektiboen errentak biltzen dira bakarrik.*

(--) Ez da erakusgarririk aurkitu.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta.

Merkatu askeko alokairua

EAEn pisu bat alokatzeko 968,9 €/hileko behar dira, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak eman dituen datuen arabera. Honek 2007ko datuarekiko %8,8ko igoeraren berri ematen digu. Datu hauek Eusko Jaurlaritzako Higiezinen Eskaintza Estatistiketan azaltzen dira. Lurraldeka, Gipuzkoan dago errentarik altuena, 1.086,5 €/hileko. Bizkaiko batez besteko errenta hileko 968 eurokoa da; Arabakoa, aldiz, hileko 895 eurokoa soilik dela hiru lurraldeetako murritzena da.

Babestutako merkatuko alokairua

Alokairu askeek euskal merkatuan duten prezioa babestutako merkatuko pisuena baino %24,1 handiagoa da. Azken hauen prezioa 234 €/hileko da, babes ofizialeko etxebizitzen (380 €) eta etxebizitza sozialen (118 €) arteko batezbestekoa atera ondoren.

Portzentajeei begira, 2008. urteko laugarren hiruhilekoan alokairuan eskainitako etxebizitza babestuen batez besteko errentak aurreko urtearekiko igo direla ageri da, %20,4, hain zuzen ere. Horrela, babes ofizialeko etxebizitzen batezbestekoa %16,9 igo da. Aldiz, etxebizitza sozialen batez besteko errenta -%10,4koa izan da.

EAEn goranzko bilakaera nabaritu da, oro har; lurraldeka, ordea, badago alderik batzuen eta besteen artean. Bizkaian %29,6 jaitsi da 2007koarekiko, eta Araban, %19,5. Gipuzkoan, baina, %98ko igoera erregistratu da.

Hiriburuen datuei kasu eginez gero, Gasteizen, babestutako etxebizitzaren hileko errenta %18,7 jaitsi da; Donostian eta Bilbon, ordea, %18,2 eta %44,5 igo da, hurrenez hurren. Bilbon gertatutako gorakada nabarmena azpimarratzekoa da. Aldi berean, bi hirietako errentak hiru hiriburuen batezbestekotik askoz gorago daude.

Babes ofizialeko etxebizitzak alokairuan guztira eskainitako babestutako etxeen %43,9 dira, eta gainerakoak etxebizitza sozialak dira, hau da, %56.

Alokatzeko dauden babestutako etxebizitzen eta hileko errentaren konparazioa eremu ezberdinetan (2008ko 4. hiruhilekoa).

	ETXEBIZITZA KOP.			HILEROKO ERRENTA (€/hileko)		
EREMUAK	Babestutako guztirakoak	Babes ofizialekoak	Etxebizitza sozialak	Babestutako guztirakoak	Babes ofizialekoak	Etxebizitza sozialak
EAE	**2.396**	**1.053**	**1.343**	**233,8**	**380,3**	**118,0**
Bizkaia	767	338	430	268,2	442,5	130,1
Araba	715	4	711	108,4	127,3	106,9
Gipuzkoa	914	712	202	301,8	350,9	128,1
HIRIBURUAK	**1.687**	**857**	**830**	**256,8**	**395,8**	**110,7**
Bilbo	401	303	98	384,0	462,5	133,8
Vitoria- Gasteiz	666	4	662	109,7	127,3	108,1
Donostia- San Sebastián	621	551	70	329,6	359,3	97,2

(--) Ez da erakusgarririk aurkitu.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta.

Garaje, trasteleku eta lokalak

GARAJEEN ESKAINTZA

Garajeen %95 salmentarako eskaintzen dira, eta %5 besterik ez, alokairu-erregimenean.

2008ko lehen hiruhileko datuen arabera, EAEn saltzeko eskaini diren garaje askeen batez besteko prezioa 26.458 €-koa da (2007ko hiruhileko bereko datutik %25 gora). Lurralde mailan, Bizkaiak batezbesteko altuena du, 28.766 €-rekin (+%35,6, 2007koarekiko). Gero Gipuzkoa dago, 23.403 €-rekin (+%11,1) eta, azkenik, Araba, 19.201 €-rekin (-%9,6). Hortaz, prezioek gora egin dute bai Bizkaian, bai Gipuzkoan, eta Araban jaitsiera neurritsua agertu dute.

Alokairu-erregimenari dagokionez, EAEn eskainitako garaje guztien batez besteko errenta 88 €/hilekoa da. Gipuzkoan erregistratu da errentarik altuena, 109 €/hileko; haren atzetik, Bizkaia eta Araba daude, 93 €/hileko eta 68 €/hileko, hurrenez hurren.

Eskaintzan emandako garajeen guztirakoari begira, salmentarako eskaintzen direnak alokairuan eskaintzen direnak baino gehiago direla ageri da. Zehatzago esanda, aurrenekoak %95 dira, eta bigarrenak, %5.

Babestutako garajeen merkatuari dagokionez, salmenta-erregimenean eskainitako batez besteko prezioa 11.983 €-koa da (2007ko hiruhileko berean baino +%3,8 gehiago), eta lurraldetik lurraldera ez da alde handirik igarri. Hileko batez besteko errenta 34 eurokoa da. Lurraldeka, Gipuzkoan erregistratu da batezbesteko altuena, 43 €/hileko; ondoren, Bizkaian, hileko 36 €-rekin, eta azkenik, Araban, hileko 22 €-rekin.

TRASTELEKUEN ESKAINTZA

2008. lehen hiruhilekoan salmentarako utzitako trasteleku askeek 985 €/m²-ko batez besteko prezioa izan dute. Bestalde, alokairu-erregimenean eskainitako trastelekuen batez besteko errenta 89 €/hilekoa izan da. Bizkaiak trasteleku askeen eskaintza ia guztia hartzen du, guztirakoaren %77. Gipuzkoan %17 dago, eta Araban, gainerako %6.

Merkatu babestuari dagokionez, salgai dauden trastelekuak 449 €/m²-ko batez bestekora heldu dira eta alokatzeko daudenen errenta 17 €/hilekoa izan da.

MERKATARITZA-LOKALEN ESKAINTZA

2008. urteko lehen hiruhilekoan EAE osoan salgai zeuden eskainitako lokal askeen batez besteko prezioa 1.990 €/m²-koa izan da. Honek joan den urteko aldi bereko batezbestekoarekiko %2,7ko beherakada erregistratu dela esan nahi du. Lurraldeka, Gipuzkoako datua m²-ko 2.254 €-koa izan da; Bizkaikoa, 2.180 €-koa, eta azkenik, Arabakoa, 1.781 €-koa.

2007ko datuarekiko, EAEn salgai jarritako lokal askeen batez besteko prezioak %2,7 egin du gora. Alokairuen batez besteko errenta %12,6 igo da.

Alokatutako lokalei egiten badiegu kasu, Erkidegoko batez besteko errenta 1.345 €/hileko da (+%12,6, 2007ko lehen hiruhilekoarekin erkatuz gero). Hiru lurralde historikoen batezbestekoak antzekoak dira; aldiz, urteko bilakaerari erreparatuz gero, ibilbide bereiziak izan dituztela ageri da. Horrela, Gipuzkoako batez besteko errenta pixka bat murriztu delarik, Araban eta Bizkaian, datu hauek nabarmentzeko gorakadak izan dituzte.

Babestutako lokalak batez besteko 937 €/m²-ko preziora heldu dira EAEn, beraz, aurreko urtean baino %10 garestiago dira. Bizkaian, batez besteko prezioa 779 €/m²-koa da. Babestutako alokairuan eskainitako lokalen artean, batez besteko errenta hileko 230 €-koa izan da.

Etxeak eraikitzea eta berregokitzea

Eraikuntzaren sektoreak atzeraldi handia jasan du Euskadin 2008an, azken hamarkadan %4tik gorako hazkunde erritmoa izan ondoren, urtea -%1eko jaitsierarekin amaitu baitu. Sektoreak %2,3ko hazkunde-tasa positiboarekin hasi zuen urtea baina -%2,9ko datuarekin amaitu du, Eusko Jaurlaritzaren Koiunturaz Txostenaren 2008ko azken hiruhilekoaren balantzeari jarraiki. Urtean zehar, higiezinen merkatua doituz joan da etxebizitzaren prezio neurritsuagoei esker. Halaber, ondasun higiezinen balioa goratzeko aukerak okerrera egiteak eta finantzaketa baldintza gero eta zorrotzagoak nagusitzeak ere izan dute horretan eragina.

EAEn egindako erosketa-salmenta eragiketak %20,5 jaitsi dira 2007ko datuarekiko.

Higiezinen doitze horren ondorioz, eskariaren presioa txikiagoa da, hau da, etxebizitzen inguruko higiezinen transakzioak neurtzeko adierazleak -Etxebizitza Ministerioak argitaratutakoa- 2007. urtearekiko behera egin duela argi dago. 2008an, 21.222 salmenta edo erosketa egin da Euskadin, urteko %20,5 gutxiago, 2007ko datuarekin alderatuz gero.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak aditzera eman duenari jarraiki, salmentarako zein alokairuan eskainitako etxebizitzen kopurua %31,1 igo da. Hasitako etxebizitza kopuruak behera egin du, ordea, eta 2008an 13.787 izan dira. Azken hamarkadan nabaritu den beherakadarik handiena izan dela esan liteke.

2008. urtean, Bizkaian %0,3 jaitsi da etxebizitza berrien batez besteko salmenta prezioa. Erabilitako etxebizitzetan, aldiz, batez besteko prezioaren beherakada %8,2koa izan da.

Gehiegizko eskaintzari aurre egiteko eta hainbeste etxeri aterabidea emateko prezioa zuzentzea nahitaezkoa da. Horrexegatik jaitsi da prezioa %3 inguru Euskadin, 2008. urtean. Dena dela, etxebizitza publikoak guztirakoaren zati handi bat izanik, eraikuntzaren sektorearen jaitsiera motelagoa izan da, oro har.

Ascobi-Biebak Higiezinen inkesta egiten du urtetik urtera, Bizkaiko etxebizitzen (berriak zein erabilitakoak) salmenta prezioen bilakaeraren xehetasun handiko "argazkia" ateratzeko asmoarekin. Azterketa hau egiteko, Ascobi-Biebak salmenta edo erosketako azken eragiketak baino ez ditu kontuan hartzen. Hortaz, txosten honetan oinarrituko gara ondorio nabarmenenak ateratzeko:

Etxebizitza berrien salmentari dagokionez, m²-ko batez besteko salmenta prezioa 4.159 €-koa izan da 2008an (aurreko urtearekiko %0,3 jaitsi da). Etxebizitzen batez besteko prezioa 341.028 €-koa da. Bestalde, batez besteko tamaina 85 m² erabilgarrikoa da, zera, aurreko urtean baino apur bat handiagoa. Etxebizitzaren kokapenak ere badu eraginik, zenbat eta toki hobean egon, orduan eta garestiagoa izango baita m² -ko, 2.751 €-tik 6.807 €-ra bitarteko aldearekin. Eraikuntza berriko etxebizitzak Bilbon (Iturralde), Urdulizen eta Galdakaon aurki ditzakegu, bereziki. Gehienbat 2 edo 3 logela, 2 bainugela, berokuntza eta igogailua dituzten etxebizitzak dira. %70ek trastelekua du, eta %64k, garajea. Pisu hauek saltzeko batez besteko epea 278 egunekoa izan da 2008an, aurreko urtean 203 izan zirela. Hortaz, argi dago aurreko urteekin alderatuz gero, epe horrek luzera joko duela.

Erabilitako etxebizitzen salmentari dagokionez, m²-ko batez besteko salmenta prezioa 3.646 €-koa izan da 2008an (aurreko urtearekiko %8,2 jaitsi da). Etxebizitzen batez besteko prezioa 288.464 €-koa da, urtetik urterako -%4,6ko aldakuntza-tasarekin. Batez besteko tamaina 79 m² erabilgarrikoa da. 2007ko datuari erreparatzen badiogu, etxebizitzen batez besteko tamaina pixka bat hazi dela ikusiko dugu. Etxebizitza berrien kasuan bezalaxe, zenbat eta toki hobean kokatuta egon orduan eta handiagoa izan da m²-ko prezioa, 2.976 €-tik 4.520 €-ra bitarteko aldearekin. Erabilitako etxebizitza gehienak Bilbon (Abando), Getxon eta Barakaldon daude. Ohikoena, etxebizitza hauen kasuan, 3 logela eta bainugela bat izatea da. Aztertutako pisuen %79k berokuntza daukate, eta %63k, igogailua. Garajea eta trastelekua, aldiz, pisuen %30ek baino ez dituzte. Saltzeko batez besteko epea 306 egunekoa da, hau da, 2007an baino 150 egun gehiago.

Lehenago esan dugun bezala, EAEn 2008. urtean erregistratutako transakzio kopurua 21.122koa izan da (2007an baino %20 ,5 gutxiago). Bizkaian 10.810 egin dira, zera, %24 gutxiago. Murrizketa honek etxebizitza berrian eragin gutxiago du (-%2,5 EAEn eta -%6 Bizkaian) bigarren eskuko etxebizitzan baino (-%35,1 EAEn eta -%35,5 Bizkaian).

EAEn ekitaldi honetan hasitako etxebizitza kopurua 15.264koa dela kalkulatzen da, zera, 2007ko 18.385 unitateetatik askoz beherago. Sustapen motari begira, eta 2007ko datuekin alderatuz, etxebizitza askeak %30 gutxiago (guztira, 8.147) izan dira; babestutako etxebizitzak, berriz, betiere 2007an erregistratutakoa erreferentziatzat hartuz, %7,4 gehiago (guztira, 7.117).

1998tik 2008ra bitartean EAEn hasitako etxebizitzen bilakaera, sustapen motaren arabera.



Babestutako etxebizitzen datuak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari dagozkie eta etxebizitza askeenak Sustapen Ministerioak egin dituen estimazioak dira.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila eta Sustapen Ministerioa.

2007ko datuekin erkatuz gero, Bizkaian EAEko joera bera ikus daiteke, zeren hasitako etxebizitza askeen kopurua jaitsi (-%44,6) eta babestutakoena igo egin baita (+%2,4), babes ofizialekoak zein etxebizitza sozialak izan. Oro har, 2002ko datuak erreferentziazko izanik, joera honek bere horretan jarraitu du orain arte etxebizitza askeen kasuan, ez ordea babestutako etxebizitzen kasuan.

2002tik 2008ra bitartean eraikitako etxebizitzen (hasitakoak eta bukatutakoak) bilakaera, etxebizitza motaren arabera.

URTEA	ETXEBIZITZA ASKEAK		BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK			
	Hasitakoak	Bukatutakoak	Hasitakoak		Bukatutakoak	
			Babes ofizialekoak	Etxebizitza sozialak	Protección oficial	Etxebizitza sozialak
2002	4.533	7.866	2.058	477	1.303	115
2003	5.521	3.579	1.833	259	1.993	255
2004	5.042	4.859	1.735	127	2.072	125
2005	3.760	4.567	1.416	60	1.401	354
2006	3.481	4.325	1.228	368	1.244	325
2007	4.846	4417	1.145	26	1.233	482
2008	2.683	2671	1.173	124	1.606	73

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Babes ofizialeko etxebizitzaren datu-basea.

Babestutako etxebizitzak eraikitzea

2000tik 2008ra bitartean hasitako babestutako etxebizitzen eraikuntzaren bilakaera eremu ezberdinetan.

URTEA	Etxebizitza mota	Bilbo	Bilbo metropolitarra	Bizkaia	EAE
2000	Babes ofizialekoak	263	479	501	2.191
	Etxebizitza sozialak	206	282	318	582
2007	Babes ofizialekoak	353	532	1145	5302
	Etxebizitza sozialak	0	0	26	590
2008	Babes ofizialekoak	255	767	1173	4793
	Etxebizitza sozialak	0	124	124	847
Δ 2000-2008	Babes ofizialekoak	-%3	%60,1	134,1%	%118,8
	Etxebizitza sozialak	-%100	-%56	-61%	%45,5
Δ 2007-2008	Babes ofizialekoak	-%27,8	%44,2	%2,4	-%9,6
	Etxebizitza sozialak	-	-	%377,9	%43,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Babes ofizialeko etxebizitzaren datu-basea.

Aldameneko taulako datuei erreparatuz gero, Bilbon eta Bizkaian babestutako etxebizitza (Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Etxebizitza Sozialak) gehien hasi ziren urtea 2001 izan zen. Data horretatik aurrera, zeharo gutxitu da zifra hori Bilbon, urtetik urtera murrizketa bertsua agertuz. Gauza bera gertatu da Bizkaia osoan, non 2008an izan ezik, hasitako babestutako etxebizitzen guztirakoak %10,76 egin duen gora. Datu on honek Bilbo metropolitarrean agertutako etxebizitza mota honen gorakadan du sorburua, hazkunde hori %67,48koa izan den heinean. EAE mailan ez da hala gertatu, ordea, azken urteetan hasitako babestutako etxebizitzen kopuruak etengabe baina gutxika-gutxika egin baitu gora: 2001ean 4.284 etxebizitza zenbatu baziren, 2008an 5.640 izan dira.

Aipatzeko beste datu bat etxebizitza sozialen kopurua litzateke. 2000. urtetik aurrera, hauen kopurua erabat gutxitu da Bilbon. Bestalde, bai Bilbo metropolitarrean, bai Bizkaia osoan, bilakaera desberdina erakutsi dute. 2008. urtean zehar 124 etxebizitza sozialen eraikuntzari ekin zaio Bizkaian, Bilbo metropolitarrean den-denak. Aurrera nabarmen egin dela esan nahi du horrek, aurreko urtean hasi ziren guztiak Bilbo metropolitarretik kanpo egin baitziren.

Eraikin eta etxebizitzak berregokitzea

EAEko etxebizitza-parkea nahiko zaharra da, nahiz eta azken urteotan etxebizitza asko eraiki den. 2001eko Biztanleria eta etxebizitzen erroldak dioenez, etxebizitza-parkearen batez besteko antzinatasuna 40 urtekoa da, 60. eta 70. hamarkadetan bereziki ekin baitzaion etxebizitzak eraikitzeari (guztirakoaren %45 inguru). Gainera, 1920. urtean baino lehenago eraikitako 120.000 etxebizitza gutxi gorabehera daudela kontutan hartzen badugu, hurrengo urteetan birgaitze jarduerak gehiagotu egingo direla dirudi.

Bilbao Surbisa deritzon Bilboko berregokipenerako hirigintzako udal elkartearen ardurapean dago zaharberritze lan pribatuak egitea eraikinetan, lokaletan eta merkataritza establezimenduetan. 2008an, 117 eraikin eta 1.597 etxebizitzetan hobetze eta zaharberritze lanak egin ditu. Gainera, Surbisari esker, 168 etxebizitzen eta 25 lokalen barneko berrikuntza ere egin ahal izan da. Horretarako duen aurrekontua iazkoa baino 12,1 milioi euro gehiagokoa da, 5,5 milioi euroko ekarpen publikoa barne. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Surbisa beraren onespena izan duten baimendutako maileguak eta diru-laguntzak izan dira ekarpen publiko horren parte.

Surbisak 2008an bideratutako jardueraren inguruko datu interesgarriak.

BERREGOKITZAPENA	Alde Zaharra	Bilbo Zaharra*	Artatzu Bekoa	Guztira
Eraikinak	73	42	2	**117**
Etxebizitzak	845	732	20	**1597**
Barnealdea zaharberritu beharreko etxebizitzak	96	87	0	**183**

** Bilbo Zaharrean Trenbideko Auzoetan egindako jarduerak daude barne.*

Iturria: Bilboko berregokipenerako hirigintza elkartea. Surbisa.

Zaharberritze pribatuari eskainitako diru-laguntzak mota askotariko lanak sartzen ditu; hona hemen adibide batzuk: eraikinetako aurrealdea eta estaldurak konpontzeko lanak; eraikinetan igogailuak instalatzea; etxeen barneko lanak; lokalak egokitzeko edo hosgabetzeko lanak eta, azken finean, hirian bizi-kalitatea hobetzera begira egindako lan anitz.

Surbisak hiri osora zabaltzen du bere jarduera-eremua; hala ere, 2008ko hirigintza berregokipenerako ekintza nagusiak Alde Zaharrean bideratu dira, 169 espediente izapidetu baitira bertan. Halaber, Bilbo Zaharrean, San Frantziskon eta Zabalan hainbat lan egin da, 129 espediente, guztira. Ekintza hauez guztiez gain, Errekalden amaitu berri den Artatzu Bekoa aipatu beharra dugu, non 2,6 milioi euroko inbertsioarekin 25 eraikin berriztatu diren.

Hirigintza berriztapenari kasu egiten badiogu, Alde Zaharrari egin beharko diogu arreta beste behin, bertan egindako zaharberritze ekintza kopuruaren aldetik barruti guztien buru baita. 2008. urtean, eraikinen zaharberritze-lanetarako 101 baimen eta etxebizitzen barnealdea berriztatzeko beste 165 eman dira. Bilbo Zaharrean ere antzekoa gertatzen da, bertako eraikin askok ehun urte dituztela, zaharberritze-lanek gora egin duten heinean, batez ere, San Frantziskon eta Gorte kalean. Lan hauek gune hauetan urteak daramatzaten pertsonek edo bizilagun berriek hasten dituzte, 35 urtetik beherakoak, gehienbat. Bi kolektiboek guztirako esku-hartzeen %70 hartzen dute.

Era berean, merkataritza establezimenduetako zaharberritze-lanen emaitzak ere positiboak dira. Merkataritza jarduerak gora egin duela nabari da, elikadura, zerbitzu eta ostalaritzako negozio berriak martxan jarri direlako. Irisgarritasuna hobetzeko zaharberritze-lanei dagokienez, oztopo arkitektonikoak ezabatu edo saihesteko igogailuak eta arrapalak instalatzeko lanak egin dira, batik bat Alde Zaharrean eta Bilbo Zaharrean.

Eratu zenetik, Surbisak 1.512 eraikin zaharberritzeko lanetan eta 2.532 pisutako barnealdea berriztatzekoetan parte hartu du. Horrela, auzo hauetan egindako zaharberritze-lanek 18.614 etxebizitzaren egoera hobetzeko balio izan dute.

Berritasun modura, 2008ko abenduan, Surbisak Zorrotzaurre berregokitzeko diru-laguntzen inguruko arau berezia onetsi du, babes daitekeen aurrekontuaren %50eko laguntza gutxienekoa bermatzen duena. Hori ez ezik, aurrekontuaren %70 ere bermatuko luke, gutxienez, baldin eta eraikin bakoitzean egiteke dauden oinarrizko lan guztiak bideratzeko erabakia hartuko balitz.

Gainera, Surbisak Otxarkoagako irisgarritasuna hobetzeko plan berezia gauzatzeko ekimenean parte hartzen du, etxebizitzetan igogailuak instalatzeko proiektuarekin.

Argazkia: Bilbao Turismo.

Udal Etxebizitzak entitatearen 2008ko jardueraren inguruko datu interesgarriak.

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK	GUZTIRA
Guztirako etxebizitza kop. 2008/12/31n	3.522
Alokairuan kudeatutako etxebizitza kop.	3.332
Esleipen izapidetze prozesuan dagoen etxebizitza kop.	97
Zaharberritze prozesuan dagoen etxebizitza kop.	95
2008an saldutako etxebizitza kop. (eskriturak eginda)	85
Ezinduentzako moldatutako etxebizitza kop.	71
Guztirako lokal kop. 2008/12/31n	936
Alokairuan kudeatutako lokal kop.	674
Alokatzeko utzitako lokal kop.	262

Iturria: Udal Etxebizitzak.

Bilboko Udalak, Eusko Jaurlaritzarekin eta Autonomia Erkidegoko beste udalekin bat eginez, zenbait programa jarri ditu martxan jadanik babes ofizialeko etxeen eta alokairu sozialen salmenta sustatzera zuzendutako hirigintza politika garatzeko.

Udal Etxebizitzak elkartea 1918an sortu zen, udalaren menpeko erakunde gisa. Etxebizitza merkeagoak eraikitzeko eta errentapean administratzeko asmoarekin eratu zen. Gaur egun, bere historian zehar bizitako aldaketa juridiko zein administratiboak kontuan izanik, izaera juridiko ezberdineko bi entitatek osatzen dute:

- "Udal Etxebizitzak Toki Erakunde Autonomiaduna", Bilboko Udalaren menpekoa eta izaera administratibokoa, 1998ko ekainean sortutakoa.
- Udal Etxebizitzak, Akziokako Elkarte Komanditarioa.

Bilboko Udal Etxebizitzak elkarteak 3.522 etxebizitzaz eta 936 lokalez osatutako ondare higiezina kudeatzen du. Hori horrela, hiriko biztanle proportzioari begira, Estatuko higiezinen parke handiena da, baita zaharrenetarikoa ere, batez besteko 40 urteko eraikinak baitira.

Babestutako alokairuko etxebizitzaren eskatzaileen profil nagusia 15.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera duen 35 urtetik beherako gazte batena da, normalean. Udalaren higiezinen parkeko hileko batez besteko errenta 174 eurokoa da, sinatutako alokairu kontratuetan 220 euro ingurukoa den arren.

Beste lan askoren artean, 2008an 24 etxebizitza izango dituen eraikin berri baten eraikuntzari ekin zaio Gorte kalean. Alde Zaharrean ere, Harrobi plazan, hain zuzen, babestutako 40 etxebizitza izango dituen beste eraikin bat eraikitze prozesuan dago. Sustapen hauek guztiak Udal Etxebizitzen Inbertsio Programaren barnekoak dira. Egitasmo honi jarraiki, 2011rako 1.970 etxebizitza berri egingo dira guztirako 228 milioi euroko inbertsioari esker. Nola ez, etxe berri hauek hiribilduko auzo eta barruti guztietan zehar sakabanatuko dira. Horrek zera esan nahi du, 2011. urterako babestutako alokairuko 5.138 udal etxebizitza egongo direla Bilbon.

Esleipenen artean Bizigune-Bilbao ekimenari dagozkionak ere sartzen dira. Bizigune gazteenei zuzendutako programa da, Euskadin hutsik dauden 30.000 etxebizitzen arteko zati handia alokairuko merkatura ateratzea xede duena. Azken bi urteetan behin ere erabili ez diren etxebizitzei buruz ari gara soilik, salmentarako zein alokairurako merkatuan epe horretan behin ere jarri ez direnak. Eusko Jaurlaritzak eta Udal Etxebizitzak elkarteak hartu dute programa hau martxan jartzeko ardura.

Elkarte honek urtero egiten du asebetetze inkesta etxebizitzen jabeen eta errentarien artean. 2008. urtean, hutsik dauden etxebizitzen mobilizazioaren programak balorazio positiboa izan du galdeketa horretan. Hutsik egonda Biziguneren eskuetan etxebizitza utzi duten jabeen %83,9k programarekin pozik dagoela azaldu du. Guztirako asebetetze indizea %78,8koa da, 2007koa baino 5,5 puntu gora. Lasaitasuna, segurtasuna eta konfiantza dira etxebizitza hutsa Biziguneren bitartez alokairuan jartzeko jabe berriek aurkitzen dituzten arrazoiak.

Azken urte honetan, errentarien guztirako asebetetze indizea %79,8koa da, 2007koa baino ia 10 puntu gora. Biziguneren bitartez etxebizitza bat alokairuan hartzeko arrazoia zergati ekonomikoa izan da, nagusiki. Alokairuan hartutako etxebizitzen ezaugarrien artean, kokapena eta tamaina izan dira baloratuenak. Horrez gain, programaren barne errentari gisa parte hartu dutenek esan dutenez, nabarmengarriena jasotako arreta on eta adeitsua izan da.

Etxebizitza beharra neurtzen duen indizeak behera egin du segidako laugarren urtez eta %8,6koa izan da 2008an.

Etxebizitzaren beharra eta eskaria

2008ko EAEko Etxebizitzen Beharrei eta Eskariei buruzko Inkestaren datuen arabera, euskal etxeen %8,6tan lehen etxebizitza bat eskuratzeko beharra daukaten gazteak daude. Halere, etxebizitzaren beharra neurtzen duen indizeak behera egin du segidako laugarren urtez, 2007an %10,1 ingurukoa baitzen. Bilakaera demografikoak zein lehenengo etxebizitza eskuratzeak dakartzan berezko zailtasunek ezinbesteko eragina izan dute beheranzko joera horretan. Beste eragile batzuk gaur egungo egoera ekonomikoa eta honek enpleguan duen eragina dira.

Eustaten datuei jarraiki, EAEn 829.255 familia-unitate dago, eta lehenengo etxebizitza behar duten gazteentzako 74.461 etxebizitza dagoela kalkulatzen da. Datu hau kolektibo honek orain dela zenbait urte lortu duen daturik altuenarekin alderatuz gero, hau da, 90.000 unitate, zera ondoriozta dezakegu, gazteentzako behar diren lehen etxebizitzen kopuruak behera egin duela, batez ere 2007an eta 2008an.

Etxebizitzaren eskariaren urtebeteko bilakaeran ere ikusi da murriztapenik. Urtebeteko eperako eskaria egonkor agertu da (15.000 etxebizitza, gutxi gorabehera), baina 2003ko maila altuenekin alderatuz, 10.000 etxebizitza ingurura jaitsi da.

Etxebizitzen beharrei erreparatuz gero, 2008an, euskal familien %4,9k adierazi du gaur egun duen bizilekua aldatzeko beharra duela. Zifra absolutuetan 40.894 etxebizitza litzateke, guztira. 2008. urtean lortutako indizeak, 2003az geroztik (+%4,1) izandako goranzko joera bertan behera uztea ekarri du, 2007ko beharraren indizearekiko portzentajezko hiru puntu murriztu baita (%7,9).

Lehen etxebizitza eskuratzeko eta etxebizitzaz aldatzeko beharra eta eskaria EAEn 2008an.

ETXEBIZITZEN BEHARRA	*Lehen etxebizitza eskuratzeko*	*Etxebizitzaz aldatzeko*
Beharra (etxebizitzen %)	*8,6*	*4,9*
Etxebizitza beharrezkoak	*74.461*	*40.894*
Etxebizitzen eskaria urtebetera	*15.547*	*8.207*

Iturria: Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saila.
EAEko Etxebizitzaren beharrari eta eskariari buruzko 2008ko inkesta.

2007tik 2008ra bitartean EAEn etxebizitza eskuratzeko beharra izan duten pertsonen finantza-gaitasunaren bilakaera.

FINANTZA-GAITASUNA	2007	2008	Δ 2007-2008
BATEZ BESTEKO DIRU-SARRERA	1.389 €/ hileko	1.603 €/ hileko	+%15,4
HILEROKO ORDAINKETA	457 €/ hileko	580 €/ hileko	+%26,9
ORDAIN DEZAKETEN GEHIENEKO PREZIOA	158.920 €	168.072 €	+%6,4

Iturria: EAEko Etxebizitzaren beharrari eta eskariari buruzko 2008ko inkesta.

2007tik 2008ra bitartean EAEn etxebizitzaz aldatzeko beharra izan duten pertsonen finantza-gaitasunaren bilakaera.

FINANTZA-GAI-TASUNA	2007	2008	Δ 2007-2008
BATEZ BESTEKO DIRU-SARRERA	1.618 €/ hileko	1625 €/ hileko	+%0,4
HILEROKO ORDAINKETA	477€/ hileko	522 €/ hileko	+%9,4
ORDAIN DEZAKETEN GEHIENEKO PREZIOA	229.000 €	214369 €	-%6,4

Fuente: Encuesta sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en CAPV 2008.

Etxebidek EAEn, Bizkaian eta Bilbon zozketatutako etxebizitzen bilakaera, 2007-2008. urteetan.

EREMUAK	2007	2008
Bilbo	193	203
Bizkaia	445	527
EAE	2.111	3.341

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrarekin gertatzen den legez, krisialdi ekonomiko eta finantzarioak izan du zer esanik etxebizitzaren beharra subjektiboki adierazteko orduan, horren inguruko adierazpen gutxiago egon baita. Bestalde, inkesta honetan, uneko etxebizitza berregokitzeko beharrak gora egin duela ageri da. Izan ere, baldintza ekonomikoen ezegonkortasunak eragindako zailtasunak eta ekarritako arriskuak kontuan hartuta, hainbat familiak erabaki du hobe dela hala egitea.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra daukaten pertsonen profil sozioekonomikoak bere horretan dirau, gutxi gorabehera, aurreko urtekoekin alderatuz. Batez beste 28,7 urte dituen gizonezkoa litzateke, kontratu finkoa eta ikasketa profesionalak eginda dituena.

Gazteek eskuratu nahiko luketen etxebizitza berria edo erabilitakoa da (bata zein bestea berdin zaie), 64 m²-ko batez besteko azalera duena -aurreko urteetan baino murritzagoa-, eta jabetzapekoa. Izan ere, egoera horretan dauden %59,6 gaztek adierazi du bere lehen etxebizitzaren jabe izateko nahia.

Kolektibo honen batez besteko diru-sarrera hileko 1.603 eurokoa da, aurreko urtean baino %15,4 gehiago. Hiletik hilera ordaindu beharreko zenbatekoa ere handiagoa da (+%26,9), hileko 580 €-ra iritsi baita. Azkenik, etxebizitza bategatik ordain dezakaten gehienezko prezioa 168.072 €-koa da, batez beste, hau da, +%6,4 gehiago.

Finantzazioari dagokionez, gazte gehienek kreditua erabili ohi dute. Izan ere, ia %94 dira finantzazio mota hori baliatu dutenak. Halere, gero eta gazte gehiagok baliatu du beraiek aurreztutakoa zein familiartekoen laguntza ekonomikoa. Horren eraginez, gero eta txikiagoa izan da gazte hauek eskatu behar izan duten kredituaren zenbatekoa. Agerikoa da jabetzapeko etxebizitza bat eskuratzeko gazteek duten zailtasuna. Izan ere, hileko diru-sarreraren %53 zuzendu behar dute horretara eta ez da nolanahiko portzentajea.

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien kasuan ere aurreko urteetako profil bera mantendu da. Familia-unitateen batez besteko tamaina 2,8 kidekoa da. Etxebizitzaren beharra neurtzen duen indizea, hau da, etxebizitza aldatu nahi dutenen kopurua areagotuz joan da familia handitu ahala. Bestalde, etxeko erreferentziazko pertsonaren adina -%13,5 jaitsi da: 2007ko batezbestekoa 56,2 urtekoa izan bazen, 2008koa 48,6 urtekoa izan da. Etxebizitzen tamainak ere behera egin du %15 aurreko urtearekiko (2008an, 68 m²). Aitzitik, etxeen antzinatasunak %4,3 egin du gora eta orain 36 urtekoa da.

2008. urtean, aldatzeko beharra duten familien batez besteko diru-sarrera hileko 1.625 eurokoa izan da, aurreko urteetan bezala. Familia hauen ustetan, etxebizitza finantzatzearren epe luzerako ordainketak egitera zuzen dezaketen hileko zenbatekoa 522 eurora igo da. Etxebizitzen batez besteko prezioa 214.369 eurokoa da, beraz, %6,4 igo da. Nahiz eta kreditua finantzazio mota erabiliena izan %55ek baino ez du erabiltzen jadanik, zera, aurreko urteetan baino askoz gutxiago baliatu da.

Gutxiagotze hori finantzek eta krediituek bizi duten egoera latz honetan hipoteken zorpetzeak eragindako atzeraldiaren ondorioa izan liteke.

1997. urte erdian, Eusko Jaurlaritzak Etxebide–Euskal Etxebizitza Zerbitzua martxan jarri zuen biztanleen eta Euskal Administrazioaren arteko lotura modura eta etxebizitza gaietan zerbitzua emateko asmoarekin. 2001. urtean, Etxebide etengabe egokitutako eta berpiztutako zerbitzua izatera pasatu zen eta, izan ere, gero eta irismen gehiago du.

Etxebide–Euskal Etxebizitza Zerbitzuak EAEn egindako BOEn eraikuntza-sustapen guztien berri izateko aukera ematen du. Horrela, bada, gero eta gehiago dira Etxebideren zerbitzua etxebizitza bat lortzeko aukera gisa erabiltzen dutenak. 2008an alokairu-erregimenean izen eman zutenak 55.245 pertsona izan ziren, hau da, 2007ko datutik %5,4 gora. Bestalde, 2008. urtean, EAEn zozketatzeko dagoen etxebizitza kopurua ere handitu egin da. Hala, 3.341 etxebizitza eskaini dira zozketatzeko, 2007an baino %58,3 gehiago. Igoera hau Bizkaiko eta Bilboko datuetan ere islatu da, nahiz eta horrenbesteko gorakada ez duten izan. Bizkaian, 2007an baino %18,4 etxebizitza gehiago eskaini da, eta Bilbon, %5,2 gehiago besterik ez.

Hipoteken ahalegin finantzarioa handiegia da oraindik ere, familien diru-sarrera gordinen erdia ia hartzen duen heinean.

Higiezinen finantzazioa eta familien zorpetzea

Azken urteetan, etxebizitzen prezio altuek, alde batetik, eta hipoteka-krediituak emateko bete beharreko baldintza txikiagoek, beste alde batetik, zorpetze maila handietara eraman dute hainbat eta hainbat familia. Hori horrela, familia askok beren gaitasun ekonomikoen mugan bertan legozkeen maileguen ardura hartu du bere gain.

Higiezinen Erregistro Estatistikak hipoteka ordaintzeko hileko kuota eta soldaten kostua lotzen ditu eta, horrela, hipoteka bati aurre egiteko behar den ahalegin finantzarioa kalkulatzen du. 2008ko azken hiruhilekoan datu hau %47,5ekoa izan da EAEn, zera, Estatuko gainerako erkidegoetan bezala. Bi kasu horietan, EAEn zein Estatu mailan, 2007ko azken hiruhilekoan hitzartutako hipotekentzako ahalegin finantzarioaren portzentajetik beherago dago 2008ko datua (EAEn, %48,8). 2008ko azken hilabeteetan erregistratutako hipoteka-krediituen erreferentziazko interes-tasen beherakadak ere izan du zerikusirik horretan. Dena den, hipoteken ahalegin finantzarioa handiegia da oraindik ere, familien diru-sarrera gordinen erdia ia hartzen duen heinean.

Argazkia: Bilbao Turismo.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiaren datuen arabera, 2008. urtean, familien %29k indarrean dagoen hipoteka bat izan dute, beraz, ezin da esan datu hau asko igo denik (2007an egoera berean zeudenak %28 ziren).

Maileguek familien errentan daukaten eragina kontuan izanik, aipatzekoa da kredituen kuotak ordaintzera diru-sarreren ehuneko handiagoa zuzentzen duten etxebizitzak are gehiago direla. Hortaz, 2008an hipoteka-krediturен bat eduki duten etxeen %44k (%30, 2007an) guztira duten diru-sarreraren %30 baino gehiago erabili dute hipoteka ordaintzeko.

Uneko egoera ekonomikoa aintzat hartuta, adituek zera aurreikusi dute, 2009an zehar kreditu eragiketak are gehiago motelduz joango direla. Izan ere, EINren Hipoteka Estatistikaren datuek dioten bezala, 2008. urtean 1.284.318 hipoteka eman dira guztira Estatuan landa-finka eta hirikoentzako, 2007ko datuarekiko -%27,4 gutxiago. Hipoteka kopuruaren jaitsiera hau hipoteka-kredituak emateko baldintzak gogortu izanaren ondorioa da, besteak beste.

EAEn 46.745 eman dira, 2007an baino %11,3 gutxiago. Hauetatik, %97,2 hiri-finketarako izan dira, eta gainerako %2,8, landa-finketarako. Bizkaian 25.742 izan dira emandako hipoteka berriak, 2007an baino -%8,4 gutxiago. Hauen artean, 24.879 hiri-finketarako izan dira, eta 593, landa-finketarako.

Badirudi gero eta hipoteka berri gutxiago sinatzen dela EAEn, oro har, eta Bizkaian, konkretuki, datuok Estatuko gainerako probintziekin erkatzen baditugu, behintzat.

Estatu mailan zein EAEn eta Bizkaian, Aurrezki-kutxak izan dira, Bankuak edo beste entitate batzuen ordez, hipoteka-mailegu gehien eman duten entitateak 2008. urtean. Estatuan, guztirakoaren %55,1 eman dute; EAEn, %71,9, eta Bizkaian, azkenik, %78,5.

demografia

Bilbao Lan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

4. kapitulna

Demografia

4. kapitulua

Demografía

"Aldaketa demografikoak: Erronka ala aukera?[1]"

Hurrengo hamarkadetan, Europak aldaketa garrantzitsuenari egin beharko dio aurre, biztanleriaren zahartzea, alegia, berezko hazkundea moteltzearen ondorioz.

Europako Batzordeak, Eurostaten bidez, "Europako zifrak" 2008ko urtekarian adierazi duen legez, aldaketa demografikoak eta bere ondorioak izango dira Europak hurrengo hamarkadetan gainditu beharko dituen erronka nagusiak. Aldaketa hauen artean garrantzitsuena **biztanleriaren zahartzea** da jadanik.

Biztanleriaren guztirako aldakuntza bi adierazle nagusi oinarritzat hartuz osatzen da: batetik, berezko hazkundea (bizirik jaio direnen eta hildakoen arteko diferentzia edo, bestela esanda, ugalkortasunaren eta hilkortasunaren arteko aldea); bestetik, migrazio-saldoa, zera, inmigrazio eta emigrazio mugimenduen arteko aldea.

Laurogeiko hamarkadaren bukaera arte berezko hazkundea zen biztanleriaren areagotzearen eragile nagusia, beste eragileekiko alde handiarekin. Alabaina, 60. hamarkada hasieratik aurrera biztanleriaren berezko hazkundeak etengabe behera egin zuen. Izan ere, 90. hamarkadara arte, nazioarteko migrazio-mugimenduei esker, biztanleria kopuruak ezin izan du goranzko joerarik agertu.

Eurostatek egindako zenbait txostenen arabera, EBeko lurralde askotan (EAE horietako bat da), mende honetan, heriotza-kopuruak jaiotza-kopurua gainditu du.

Horren adibide bat zera litzateke, EB27-an 2005. urtean gertatutako biztanleriaren 2 milioi pertsonako gorakada. Kopuru horren barne, 1,7 milioi migrazio-saldo positiboaren ondorioa dira. Hortaz, gainerako 0,3 besterik ez dagokio biztanleriaren berezko hazkundeari.

Hazkunde demografiko txikiena daukaten lurraldeak Alemania, Polonia, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Hungaria, Errumania, Bulgaria, Baltikoko hiru herrialdeak eta, hein batean, Suedia eta Finlandia ere dira.

Biztanleriaren berezko hazkundea moteltzearen arrazoi nagusia Europako Batasuneko biztanleek gero eta haur gutxiago dituztela da. Gaur egun EB osatzen duten 27 herrialdeetan, ugalkortasun koiuntura-adierazleak behera egin du hirurogeigarren hamarkada hasierako 2,5etik 1993ko 1,5era. Ondorengo urteetan, maila berean mantendu da.

[1] *Eurostaten 2008ko urtekaritik hartutako izenburua.*

Datu honek dirudien baino garrantzi handiagoa du. Izan ere, munduko tokirik garatuenetan ugalkortasun koiuntura-adierazlea emakume bakoitzeko 2,1 haur ingurukoa izateak zera esan nahiko luke, herrialde horiek ordezkatze-atarira iritsi direla. Beste modu batera esanda, maila horretara heltzeak emigrazio edo inmigraziorik egon ezean biztanleria kopurua egonkor mantentzea ekarriko luke.

Mundu mailan, ugalkortasun koiuntura-adierazlearen batezbestekoa 2,65 da; mutur batean, Afrika legoke, 4,98rekin, eta bestean, Europa, 1,4rekin (**EAEn 1,20koa da eta Bizkaian, oraindik baxuagoa, 1,14koa**). Ipar Amerika Europako mailatik 0,58 puntu gorago dago eta gainerako kontinenteak 2,36tik gora.

Ugalkortasun-tasa orokorren (Tfx) eta adierazle sintetikoen (ISF) bilakaera.
EAE 1975-2005.



Iturria: Eustat. 2005eko adierazle demografikoak.

Hainbat arrazoi dago gaur egun Europan daukagun biztanleriaren zaharkitzea eragiten dutenak, hala nola **ugalkortasun maila txikiak**, bizi-itxaropen gero eta handiagoak, eta bigarren mundu gerra osteko baby boom deritzon belaunaldikoak jadanik erretiratzeko adina izatea.

Horrez gain, langabezia, bizitza aktiboaren batez besteko iraupena eta biztanle europarren adinen piramidea bezalako eragileak ere kontuan hartzen baditugu, ondoko hau ondoriozta dezakegu: Europako ekonomiek daukaten erronka eta, aldi berean, duten aukera zera dela, gure bizitzeko era mantentzen lagunduko duten neurri edo irtenbide ezberdinak proposatuz parte hartzea.

"Ongizatezko estatua" mantendu ahal izateko, egitura sozial eta ekonomikoetan aldaketa nabarmenak egin beharko dira.

Izan ere, aipatutako eragile demografikoek lan egiten duten eta egiten ez dutenen artean gorde beharreko orekan dute eragina. Adinekoen kopuruak gora egin du; lan egiteko adina dutenen kopuruak, ordea, beheranzko joera dauka. Izatez, jakina da lanaren kantitate eta kalitatea, batetik, eta emankortasuna, bestetik, "ongizatezko estatua" mantentzeko berebizikoak direla.

Biztanleria adin-tarteen arabera. EB27 (1996=100).



Iturria: Eurostat. Eurostateko urtekaria 2008.

Biztanleriaren zaharkitze prozesua dela-eta, erabateko aldaketak nabariko dira ondoko hauetan: osasun- eta laguntza-sistemak, familien egitura, biztanleria aktiboaren parte-hartzea, gizarte segurantza, herri finantzazioa eta lehiakortasun ekonomikoa.

Hori horrela, Europako hainbat herrialdek dagoeneko aitortu dute enplegu-tasa –emakumezkoena, bereziki– igoarazteko beharra. Euren ustez ezarri beharreko neurriak familia eta lana uztartzeko proposamenak eta mendekotasunaren aldekoak egitea edo lanaldia malgutasunez antolatzeko aukera ematea dira.

Proposatzen duten beste neurri bat bizitza aktiboa luzatzea da. Horretarako, lan-ibilbide malguagoak bideratuko dituzten ekimenak bultzatu beharra dago, horri esker, lanean urte gehiago ematea eta erretreta atzeratzea posible izango litzatekeelako. Bestalde, emankortasuna hobetuko luketen garapen teknologikoak bultzatzea ere komeni da herrialde hauen ustetan, baita migrazio-politika berriak sustatzea edota giza-kapitalaren, pertsonen eskumenen eta halakoen garapenean inbertitzea ere.

Aldaketa saihestezinak dira herrialde guztion erronka. Horrexegatik da hain garrantzitsua berehala horiei aurre egitea, abagune ezin hobea ere badira eta.

EAErako aurreikuspenak

EIN edo Eurostat bezalako estatistika erakundeek estatu zein nazioarte mailan zer nolako etorkizuna espero behar dugun jakiteko egiten dituzten ikerketak ez dira aurreikuspen soiltzat hartu behar. Izan ere, joerei erreparatu eta adituen iritziei ere kasu egiten diotenez, egoera nolakoa izango den aski ongi eta modu logikoan aurreikusten dute.

Ildo beretik doa **EAE 2020. urtean nolakoa izango den** azaltzeko Eustatek egin duen txostena. Lan horretan adierazitakoak bat datoz beste alorretan egindako azterketekin, batez ere egitura demografikoaren eragile nagusien joeraren aurreikuspenari dagokionez. Hona hemen egoera honen deskribapen xehea:

- Migrazio-saldoa gure biztanleriaren hazkundearen eragile nagusia izango da. Beti positiboa izango da nahiz eta gero eta txikiagoa izan. 2007an, adibidez, 18.000 migratzaile garbi zeuden baina 2020rako 4.000 besterik ez direla egongo aurreikusi da. Beherakada honen kausa nagusia kanpo migrazio-lekualdatzearen gutxitzea izango da, emigrazioen kopurua egonkor mantenduko baita.
- Bizkaia izango da hazkunde txikiena agertuko duen eskualdea. Gainera, kontuan hartutako epe horren bukaeran hazkunde negatiboa izango du. Izan ere, ikerketak adierazi duen bezala, 2013tik aurrera, hazkunde begetatiboa negatiboa izango da EAEn. Epe horretan, Araban besterik ez da ikusiko hazkunde positiboa.
- 20 urtetik beherakoen kopuruaren portzentajezko hazkundea nabaria izango da. Halere, ez da nahikoa izango 65 urtetik gorakoen gorakadari aurre egiteko. Hortaz, biztanleriaren zaharkitze prozesuak bere horretan dirau. Nabarmentzekoa da, baita ere, 85 urte edo gehiago dituztenen proportzioa, 2005ean %2 izanik 2020an %4,1 izango baita. (Bilbon %2,7 izan da 2008. urtean).
- Bien bitartean, "helduen" edo 20 eta 64 urte bitartekoen kopuruak behera egiten jarraituko du. Gutxi gorabehera, biztanleria osoaren %60 besterik ez dira izango, 2001ean baino gutxiago.
- Ugalkortasunak gora egingo du hein batean, baina jaiotza-kopurua txikiagoa izango da. 25 eta 39 urte bitarteko emakumeak gero eta gutxiago direlako gertatzen da hori, adin-tarte horrek hartzen baitu guztirako ugalkortasunaren %90.
- Hilkortasun-tasa txikiagoak egongo dira adin-tarte guztietan eta, ondorioz, jaiotzean bizi-itxaropena handituko da. 81,2 urtekoa izango da gizonezkoentzat eta 87,3koa emakumezkoentzat (gaur egun, batezbestekoa 80,8 da).

EAEren 2020rako Eustaten aurreikuspen txostenak zera dio, migrazio-saldoa hazkundearen eragile nagusia izango dela, baina Bizkaian haziko dela gutxien. Izan ere, aurreikuspenak egindako epetik hurbil hazkunde negatiboa egongo da eskualde honetan.

EAEko biztanleriaren egituraren bilakaera adin-tarte handien arabera. (%). Aurreikuspena.



Iturria: Eustat. 2020ko aurreikuspen demografikoak.

Bilbao: Biztanleriaren datu orokorrak

Bilboko 2008ko demografiak, hau da, kapitulu honen gai nagusia, ez du aldaketa nabaririk agertu iazko datuekin alderatu ondoren. Dena den, zenbait adierazleren jokabidea eta azkenaldi honetako joera demografikoak aztertuz gero, Bilbon ere aurrez Europako herrialdeen kasurako aipatu ditugun bilakaera eta egoeraren oso antzekoa izango dela esan liteke.

Altak y bajak

Bilbon hazkunde zifra positiboak erregistratu dira 2008an.

2008ko urtarrilaren 1ean **354.180** biztanle zegoen Bilbon erroldatuta. Udalerrian zeharreko biztanleen batez besteko dentsitatea 8.713 bizt./km²-koa da. Bilboko udalerrian Bilbo metropolitarraren biztanleen %39 bizi da, hots, 906.399 lagun. Bizkaiko guztirako biztanle kopuruaren (1.146.421) %31 dira horiek. 2000tik aurrera ibilbide demografiko erregularra erakutsi du hiriak, gora zein behera egin nabaritzeko moduko aldaketarik egon ez dela. 2008. urte bukaeran hazkunde positiboa erregistratu da, hiribilduan 242 pertsona gehiago bizi baitira.

Zehatzago esanda, saldo hau 17.936 alta eta 17.694 baja batzearen ondorioz lortzen den emaitza da.

Bilboko biztanleriaren bilakaera, 1900-2008.



1980. urtean, Erandio Bilboren parte zen oraindik. 1983an banandu zen.

Iturria: Udal errolda.

Erregistratutako guztietatik, 3.079 alta jaiotzak izan dira. Beste 8.996 udalerriz aldatu dutenak, 4.906 atzerritik itzuli direnak eta 955 erroldan agertu ez direnak. Baja kopuru handiena udalerriz aldatu dutenek eragin dute, guztira 10.893 izan baitira; hauen ondoren, hildakoak (3.644).

Grafikoan oso argi azaltzen da alta eta bajek eragindako biztanle mugimendua. Hala, kopuru positibo bakarra kanpo migrazio-saldoa dela ikus dezakegu (4.906 pertsona).

Gure inguruko gainerako gizarteetan bezalaxe jaiotza-tasa baxuak ditugu. Gainera, heriotzak jaiotzak baino 565 gehiago izan direnez, **saldo begetatibo** negatiboa dugu. Biztanleriaren berezko ordezkatze prozesuari auzokide berrien sarrera gehitu behar zaio, atzerritarrak batik bat. Horrekin guztiarekin, azken saldoa ahalik eta positiboena izango da udalerriarentzat.

Saldo begetatibo desorekatuenak dituzten barrutiak Abando eta Deustu dira, -306 eta -172 pertsonakoa, hurrenez hurren. Bestetik, saldo positiboa duen barruti bakarra Ibaiondokoa da (175 pertsona).

Bilboko biztanleriaren alta eta baja erregistroen banaketa, kausaren arabera.



Iturria: Udal errolda.

Jaiotza-tasa gordinen bilakaera alderatua eremu geografikoaren arabera, 1998-2008. (1.000 biztanleko).



Iturria: EIN - Oinarrizko adierazle demografikoak. Bilboko Udal Errolda. Guk egindakoa.

Jaiotza-tasak hobera egin du 2008an, gutxi izan bada ere; halere, EAErekin eta estatuarekin alderatuz, tasa baxuenak izan ditu azken hamar urteotan.

Jaiotza-tasa gordinen bilakaerari erreparatuz gero, gutxika-gutxika gorantz doala esan liteke. Halere, bai Bilbok eta bai Bizkaiko eskualde osoak tasa baxuenak izan dituzte EAE zein estatu mailan azken hamar urteotan.

Bilboko jaiotza-tasa 8,69‰-ra arte igo da 2008an eta mileko 1,91 puntu hazi da 1998. urtearekiko. Kasu honetan ere, Bilboren hazkundea aintzat hartutako hiru lurraldeetako txikiena izan da epe horretarako.

Hiri barneko mugimendua dela-eta, hau da, udalerri berean gertatzen diren bizileku aldaketei esker, 2008. urtean hainbat barrutitan biztanle gutxiago egon da, Deustu (201 lagun), Errekalde eta Abandon, batez ere. Uribarri eta Basurtu-Zorrotzan ere nabaritu da, baina ez horrenbeste. Otxarkoaga-Txurdinagaren eta Ibaiondoren kasua oso bestelakoa da, biztanle kopuruak nabarmen egin baitu gora, 134 eta 332 pertsona gehiago, hurrenez hurren. Bi barruti hauek 2004az geroztik agertu duten hazkunde sendoaren jarraipena da.

Biztanleriaren mugimendu naturala, 2008.

BARRUTIAK	SALDO BEGETATIBOA	HIRI BARNEKO MUGIMENDUA	MIGRAZIO-SALDOA
Deusto	-172	-201	323
Uribarri	-95	-56	25
Otxarkoaga-Txurdinaga	-56	134	-65
Begoña	-42	131	-46
Ibaiondo	175	332	1.349
Abando	-306	-131	580
Rekalde	-38	-173	364
Basurto - Zorroza	-31	-36	42
GUZTIRA	**-565**	**0**	**2.572**

Iturria: Udal errolda.

Bilboko saldo begetatiboaren, migrazio-saldoaren eta hiri mugimenduaren bilakaera, 2001-2008.

URTEAK	SALDO BEGETATIBOA	MIGRAZIO-SALDOA	HIRI BARNEKO MUGIMENDUA
2001	-706	273	13.992
2002	-944	1.100	15.212
2003	-767	374	18.332
2004	-615	1.592	18.624
2005	-1.053	1.951	23.946
2006	-788	2.628	26.601
2007	-695	2.513	20.258
2008	-565	2.572	19.049

Iturria: Udal errolda.

Udalerriz aldatzeagatiko biztanleriaren aldaketen inguruan, Bilbok hartu dituenak baino 1.897 bizilagun gehiago galdu ditu. Saldo negatibo hau bere horretan mantendu da azken urteotan hiri handi guztietan, hiriburuak uzteko eta kanpoaldera joateko joeragatik.

Bereziki Bilbo metropolitarretik aldendu dira biztanleak beste udalerri batzuetan bizilekua aurkitzeko. Prozesu horretan, garraioa zeharo hobetu izanak, etxebizitzen prezioak eta bizitoki atseginagoak nahi izateak ere lagundu dute.

Udalerriz aldatzeagatiko alta eta bajak barruti guztietan banatu dira, baina Ibaiondon besterik ez da saldo positiboa erregistratu (113 pertsona gehiago erroldatu da). Horrez gain, udalerrian alta gehien jaso dituena da, %24. Bigarren, Abando dago %15,6rekin eta gero Deustu %14rekin.

Migrazio-fluxuen inguruan, 2000 izan da joera aldaketaren erreferentziazko urtea Bilbon, urte horretan izan baitu hiriak lehen aldiz kanpo migrazio-saldo positiboa. Atzerritik etorritako pertsona kopuru nabarmenari esker gertatu da.

Izan ere, 2008an **kanpotik etorritako etorkinak** 4.906.

izan ziren guztira. Horrek zera esan nahi du, nahiz eta udalerriz aldatzeagatik galdu diren bizilagunen kopuru garbia 1.897koa izan den, azken migrazio-saldoa positiboa ez ezik 2.572 biztanlekoa izan dela.

Hiriguneak utzi eta kanpoaldera bizitzera joateko joera orokorrari esker, Bilbok 1.897 pertsonako saldo negatiboa dauka.

Migrazio mugimenduak. 2008.

2008	Atzerrira doazenak	Atzerritik
Udalerriz aldatzen dutenak	10.893	8.996
Atzerritarren Mugimendua	437	4.906
GUZTIRA	**11.330**	**13.902**
Migrazio-saldoa	**2.572**	

Iturria: Udal errolda.

Biztanleria adin eta sexuaren arabera

Adin-tarte guztietan, 0 eta 30 bitartekoetan izan ezik, emakumeak gehiago dira.

Bilboko biztanle gehienak emakumezkoak dira, guztirako biztanle kopuruaren %52,7, alegia. Emakumezko baino gizonezko gehiago (%51) agertzen duen adin-tarte bakarra 0 eta 30 urte bitartekoa da. Hortik aurrera, tarte guztietan emakumezkoak dira gehiengoa (%54,3). Esaterako, nabarmentzekoa da oso 65 urtetik gorakoen guztirakoari dagokionez emakumezkoen portzentajea %61 dela ikustea. Are gehiago, 85etik gorakoen artean, erroldatutako ehun pertsonako 26 besterik ez dira gizonezkoak.

Hala eta guztiz ere, 2007ko datuekin alderatuta, gizonen kopurua izan da handitu den bakarra (262 pertsona). Emakumeak, ordea, iaz baino 18 gutxiago dira.

Bilboko biztanleriaren batez besteko adina 44,13 urtekoa da (42,04 gizonen kasuan eta 46,01 emakumeenean).

Neska gutxiago jaio dira, baina jaio direnen bizi-itxaropena oraindik handiagoa da. Hala erakusten du, behintzat, emakumezkoen biziraupenaren adierazle altuak.

Bilboko biztanleriaren piramide alderatua, adin-tarteen eta sexuaren arabera (1998tik 2008ra).



Iturria: Udal errolda.

1998ko eta 2008ko biztanleria-piramideak erkatzen dituen grafikoan ageri den legez, azken hamar urteotako datuek bilakaera gutxikor argia erakusten dute. Grafikoa, gainera, bi joera demografiko nagusien adierazgarri ezin hobea da: batetik, jaiotza-tasa baxua, eta bestetik, biztanleriaren zaharkitze prozesu etengabea.

Ezinbestean bi eragile hauek izan duten ondorio ezin argiagoa dira 2008an nabaritu diren 10 eta 34 urte bitarteko biztanleen murrizketa eta hirurogei urte baino gehiago dituztenen gorakada aipagarria.

Bada, ordea, itxaropentsu izateko moduko daturik: 2008an 5 urtetik beherako haur gehiago erregistratu da, hots, jaiotza-adierazlea hobetuz doa.

Kontuan har dezakegun beste datu aipagarri bat gero eta 60 eta 69 urte bitarteko biztanle gutxiago egotea da. Antza denez, joera hau hiri guztietan nabarmendu da eta, kasu gehienetan, migrazio-saldo negatiboak erregistratu dira. Izan ere, lan-bizitza aktiboa amaitzeko orduan gertatzen dira itzulerako emigrazio hauek.

5 urtetik gorako haurrak gero eta gehiago izatea Bilbon jaiotza-adierazlea suspertzen ari den seinale da.

Bilboko biztanleriaren egituraren bilakaera adin-tarteen arabera, 1998-2008.

ADINA	1998	2007	2008	Δ 2007-2008	Δ 1998-2008
0-19 urte bitartekoak	61.571	54.585	55.151	566	-6.420
20-64 urte bitartekoak	229.142	223.525	222.916	-609	-6.226
≥ 65 urte	69.744	75.828	76.113	285	6.369

Iturria: Udal errolda.

2008. urtean, Bilboko biztanleria jarraian azaltzen den legez egituratu da adinaren arabera: %15,6k 20 urte baino gutxiago du, %63k 20tik 64ra bitarteko adina du eta, azkenik, %21,4k 65 urtetik gora du.

1998tik 2008ra bitarteko datuak biztanleriaren zaharkitze prozesuaren adierazgarri dira beste behin: 65 urtetik beherako adin-tarteetan gero eta lagun gutxiago izateaz gain, adin horretatik aurrera gorakada %13koa da.

2007. urtearekin alderatuz %1 igo da 20 urtetik beherakoen eta 64tik gorakoen kopurua, erdiko adin-tarteetako biztanleria gutxitu den arren. Datu hauek ulergarri egiteko zera esango dugu, Bilbon jaiotza gehiago egon dela eta familia edukitzeko adina dutenak udalerritik alde egin dutela. Alabaina, aurten bizilagun gehien galdu duen adin-tartea 65 urtetik gorakoena izan da, %28,1 gutxiago zenbatu baitira. Hauen ondoren, 45 eta 64 urte bitartekoak aipa daitezke, adin-tarte honen guztirako kopurua %25,4 murritzago izan delako.

Barrutien eta haien biztanle kopuruaren araberako adina aintzat hartuz gero, gazte kopururik nabarmenena Otxarkoaga-Txurdinagan dagoela ikusiko dugu, bertako biztanleen %26 0 eta 24 urte bitartekoak baitira. Beste muturrean Begoña eta Uribarri daude, adin horretako biztanleen %18 baino ez dutelako.

Otxarkoaga-Txurdinaga ere nabarmendu beharra dugu Ibaiondorekin batera 65etik gorako biztanle kopururik txikiena duelako (%18). Ildo honetan, adineko gehien dituzten barrutiak Abando eta Uribarri dira (%24).

65 urte edo gehiago dutenen portzentajearen bilakaera Bilboko guztirakoarekin alderatuz. 1990-2008.



Iturria: Udal errolda. Guk egindakoa.

Biztanleria jaioterriaren arabera

Biztanleriaren banaketa jatorriaren arabera.



Iturria: Udal errolda.

Bizi diren hirian bertan jaio direnen portzentajea %50 da ia-ia, eta Euskaditik kanpo jaio direnena, %25. Azken hauen artean, Gaztela eta Leonetik etorritakoak dira gehienak, %48.

Atzerritik etorritakoen kopuruak gora egin du nabarmen, bost urtetan bikoiztu egin baita Bilbon.

Biztanleria barruti eta auzoen arabera

14. taulan ikus daitekeenez, Bilboko biztanleak proportzionalki banatzen dira zortzi barrutietan zehar, gutxi gorabehera. Ehuneko 8 puntu baino pixka bat gehiagoko aldea dago Ibaiondoko barrutiaren eta Otxarkoaga-Txurdinagakoaren artean, Bilboko guztirako erroldatuen %16,8 bizi baitira aurrenekoan eta %8,1 bigarrenean.

Batzuen eta besteen arteko proportzioa ez da berdina, ordea, barrutien dentsitatea neurtzen badugu. Begoñan eta Abandon dago biztanle kopuru handiena, 24.000 km^2–ko; Basurtu-Zorrotzan, berriz, ez da 5.000 biztanlera heltzen. Uribarrik du Bilboko batezbestekoaren dentsitate antzekoena.

Bilboko biztanleriaren bilakaera barrutien eta biztanleriaren dentsitatearen arabera, 1998-2008.

DISTRITOS	1998	2008	Δ (%) 1998-2008	Δ 2007-2008	Densidad Hab./Km^2
Deustu	54.088	51.730	-4,3%	-259	10.448
Uribarri	43.156	38.542	-10,6%	-316	9.205
Otxarkoaga-Txurdinaga	30.479	28.818	-5,4%	-53	7.390
Begoña	47.686	43.296	-9,2%	-94	24.451
Ibaiondo	51.364	59.403	15,6%	1.339	6.156
Abando	53.307	51.538	-3,3%	-86	24.094
Errekalde	46.214	47.363	2,5%	-113	6.802
Basurto - Zorroza	34.163	33.490	-1,9%	-176	4.724
GUZTIRA	**360.457**	**354.180**	**-1,7%**	**242**	**8.713**

Iturria: Udal errolda.

Biztanleria gazteena Otxarkoaga-Txurdinagan dago. Begoñako eta Uribarriko barrutietan, aldiz, gazteen portzentaje txikiena dugu.

Hiriburuan 1998-2008 hamarkadan zeharreko biztanle kopuruaren bilakaera aztertuz gero, udalerriak gero eta biztanle gehiago galdu izana nabarmendu beharko genuke (6.277 lagun 1998tik aurrera). Zortzi barrutietako seitan igarri da murrizte hori gehien. Hamar urteko epe horretan, Errekalde eta Ibaiondo, bereziki, hazi dira soilik.

Bestalde, biztanlerik gehien galdu duen barrutia Uribarri izan da, 4.614 lagun gutxiago baitu. Ibaiondok nabaritu izan du gorakadarik handiena, ordea, 8.039 auzokide gehiago hartu duelako.

Bilboko biztanleriaren bilakaera auzoen arabera, 2007-2008.



Iturria: Udal errolda.

Ibaiondon besterik ez da hazi biztanle kopurua. Bestalde, Uribarri lagun gehien galdu dituen barrutia da.

Nahiz eta Bilboko guztirakoarekin alderatuz gero Ibaiondok biztanle kopuru nabarmenena duen, -%17, Begoñako barrutia da dentsitate maila handiena duena.

2008an biztanle gehiago hartu duen Bilboko barruti bakarra Ibaiondo izan da. Guztira, 1.339 pertsona gehiago erroldatu dira Bilbo Zaharran, San Frantziskon, Zabalan eta San Adrianen, batez ere. Solokoetxen baino ez da biztanlerik galdu, izan ere.

Bestalde, biztanle gehien galdu duen Bilboko barrutia Uribarri izan da urte berean, 316 pertsona, guztira. Kopuru horretako %59 Zurbaran auzotik irten dira, hain zuzen.

15. grafikoan ageri denez, Deustun eta Basurtu-Zorrotzan ere igarri da biztanleen beherakada handia.

Nabarmentzekoak diren biztanleen galeren artean ondoko hauek ditugu Zurbaranen ondoren, lagun gehien galdu dutenetik gutxien galdu dutenera: Ibarrekolanda (-149), Indautxu (-142), Begoña (-124), Ametzola (-119), eta Zorrotza (-90).

Ibaiondoko auzoetan erroldatu dira gehienbat etorritako atzerritarrak; horrexegatik hazi da guztirako biztanle kopurua bertan. Auzo hauetan erregistratutako kopuruetatik urrun egon arren, Iralabarri, Abando eta Castaños auzoetan ere badira gero eta biztanle gehiago.

Bilbo metropolitarra

Bilbok ditu biztanle gehien eta Arrankudiagak, aldiz, gutxien, Bilbo metropolitarrean.

Bilbo metropolitarrak 499,4 km^2-ko azalera eta 35 udalerri ditu. Hauek, Bizkaiko biztanleria osoaren %79 hartzen dute, 2008an 906.399 biztanle, hain zuzen ere.

Auzokide kopuruari begira nabarmengarrienak diren udalerriek (Bilbo, Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Basauri, Sestao, Gal-dakao, Leioa eta Erandio) 782.740 biztanle dituzte, gune metropolitarreko guztirakoaren %86,3.

Bilbok ditu biztanle gehien eta Arrankudiagak, aldiz, gutxien. Biztanle dentsitate handiena Portugaleteko hiribilduan daukagu. 3,2 km^2-ko azalera baino ez du; eskualdeko azalerarik txikiena duen udalerria da, beraz. Azalera handiena duen herria Zeberio da, 47,1 km^2 izanik Bilbok baino 5,9 km^2 gehiago baitu.

1998tik 2008ra bitarteko Bilbo metropolitarraren bilakaerari erreparatuz gero zera ikusiko dugu, biztanle gehien zituzten udalerriek galdu egin dituztela eta txikietan gero eta bizilagun gehiago dagoela. Zifra absolutuei dagokienez, Portugalete, Basauri, Bilbo, Sestao, Santurtzi, Getxo eta Barakaldon galdu dira biztanle gehien. Alderantziz, Leioak, Sopelanak eta Arrigorriagak biztanleak irabazi dituzte.

Biztanleak galdu dituzten udalerriak, 1998-2008.

Iturria: Udal errolda.

Bilboko gune metropolitarrean hiria uzteko joera nabarmendu ahala, zuzenean bere eraginpean dauden eremuak biztanlez bete dira. Horrela, bada, hiriaren eta eremu horien artean orain arte egon diren harremanak ere aldatu egin dira.

Azpiurbanizazioa edo erdigunetik aldenduz hirien kanpoaldea garatzeko prozesua ez da bera Bilbo bezalako tamaina erdiko hirietan eta hiri handietan. Hala ere, gauza bat ziurra da: hiri handietan bezalaxe, Bilbon ere lanpostuak kanpoaldera eramaten ari direla edo hiri inguruko eremu horietan hirugarren sektoreko jarduerak ezartzen ari direla. Bilboren kasuan, kanpoalde hau eremu apartek osatzen dute, dentsitate handia daukaten gune hurbil eta eskuragarriak.

50. eta 60. hamarkadetako hazkunde ekonomikoak, hiriburuak eskualde osoko eta beste eskualdeetako biztanleak hartzea ekarri zuen. Orain, aldiz, kontrakoa gertatzen ari da, biztanleak hiriburutik irten eta aldameneko udalerrietara doazelako. Garraioari esker, biztanle kopuru handia bildu zen hiriburuetan garai hartan, trenbideari esker, batez ere. Izan ere, eskualdeetako hiriburuak gune ekonomiko nagusi bihurtu ziren, ekoizpen, administrazio eta hirugarren sektoreko jarduerak batzen zituztenak.

Lanpostuak eta hirugarren sektoreko jarduerak kanpoaldera eramateko joera dago, hau da, biztanle dentsitate handia izan arren, geografikoki hurbil eta eskuragarri dauden inguruetara.

Bilbo eremu metropolitar handiaren benetako erdigune bihurtu da, espezializatua, hirugarren sektoreko jarduerez hornitua, profesionala, turismorako erakargarria eta multikulturala dena.

Gaur egun ere, azpiegitura eta garraiobideek aurrera egiten jarraitzen dute, metroa baitugu horren azken adibidea. Halere, ia industria osoa Bilboko hiritik desagertu da, eraiki gabeko lur-azalera urriegia da eta etxebizitzen prezioek gora eta gora doaz. Horregatik guztiagatik, barneko migrazioak eta udalerri aldaketak nagusitu dira.

Aldaketa hauek, baliabide eta zerbitzu mailan beren burua hornitzeko gai diren herrietara egin dituzte biztanleek. Horrela, herri hauek eskaintzen duten bizi-kalitatea hobetzeaz gain, aukerak sortzeko ahalmena izatea ere lortu dute.

Ondorioz, Bilboko udalerria gune metropolitar zabal baten benetako erdigune bihurtu da.

Hortaz, gaur egungo Bilboko hiriaren irudia zera da, hiriburu espezializatu batena, hirugarren sektorean aditua, profesionala, turismorako erakargarria eta multikulturala dena. Azken finean, gune metropolitarraren “city” deritzon erdigune txikia bilakatu da.

Kanpoko biztanleria

Biztanle atzerritarren kopurua %14 igo da 2007an.

EINren datuen arabera, EAEko guztirako atzerritarrak 116.650 izan ziren 2008an, hau da, aurreko urtean baino 18.126 pertsona gehiago eta guztirako biztanleriaren %5,4. Dena den, zifra hauek oraindik ez dira Espainiako egoeraren adierazgarri, estatuan dagoeneko %11,4 egiten duten 5,3 milioi atzerritar bizi direla kontuan hartuta.

Azken hamar urteen buruan, bertako biztanleak 44.500 pertsona gutxiago dira. Halere, etorkinei esker (101.452) ekitaldi bukaeran biztanleriaren saldoa positiboa izan da.

Bizkaiak atzerritarren erdia hartzen du ia-ia (58.130), baina Araban dago inmigrazio tasa altuena (%7,3).

Latinoamerikako jatorria dutenak guztirakoaren %46,7 dira. Ondoren, Europar Batzordeko herrialdeetatik etorritakoak daude, batez ere, dagoeneko EAEko atzerritar multzo ugariena osatzen duten Errumaniako 12.837 pertsona. Afrikarren artean, Marokotik eta Aljeriatik heldu direnak nabarmen daitezke. Nahiz eta Bizkaian ere hauen kopurua aipagarria izan, ez dute gehiengoa osatzen, non Boliviarrak ugariago diren. Gauza bera gertatu da Bilbon, 2005 eta 2008 urteen artean kolektibo hau %72 hazi baita.

Bilboko atzerritarrak 25.263 pertsona izan ziren guztira 2008an, 2007an erregistratutako bertakoen kopurua baino %14 gehiago.

Nazionalitatearen arabera

Bilbon 132 nazionalitatetako hiritarrak bizi dira, egun hiribilduan bizi direnen %59 Erdialdeko eta Hego Amerikako jatorrikoak izan arren. Hauen artean, Boliviarrak %31 dira.

Barrutien arabera

2008. urtean, Ibaiondok, Errekaldek eta Deustuk kolektibo honen %57,2 hartu dute, azken urteotan barruti hauetan jatorri honetako atzerritarrak biltzeko joerari jarraituz. Ibaiondoko auzoan bertan atzerritar guztien %27,4 bizi dira.

Hala, zifra absolutuei erreparatzen badiegu, Ibaiondok hiribildura etorritako atzerritar berrien %28,3 hartu duela ageri da. Ondoren, Basurtuk hartu ditu gehien, %15,3, Errekaldek beste %14 eta, azkenik, Deustuk, %12. Askoz atzerago daude gainerako barrutiak, nahiz eta hauetan ere atzerritarren kopuruak gora egiten duen. Etorkin gutxien hartu duen barrutia Otxarkoaga-Txurdinaga izan da, bertan erregistratutako kopurua ez baita %3ra heltzen.

Atzerritik etorritako biztanleen ehuneko hazkundearen iazko datuekin alderatuz, Basurtuk %24,3ko gorakada nabaritu du eta, Ibaiondok, %14koa. Beste muturrean Abando dago, erregistratutako %10,6rekin aurreko urtearekiko hazkunde txikiena izan duena.

Udalerriko guztirako biztanleriaren eta atzerriko biztanleen banaketaren arteko alderaketa oso adierazgarria da. Izan ere, Ibaiondon eta Errekalden, atzerriko biztanleen ehunekoa biztanleria orokorraren ehunekoaren gainetik dago. Ibaiondoren kasuan, alde hori ehuneko 10,6 puntukoa da. Alderantzizko alderik nabarmengarriena Otxarkoaga-Txurdinagan dugu berriz ere, biztanleria orokorraren ehunekoa atzerritarrenena baino 5 puntu gorago baitago.

Datu hauek ikusita, normala da auzotarren artean etorkin gehien dituzten auzoak Ibaiondokoak izatea (udalerri osoko %27,4). Barrutia osatzen duten bederatzi auzoei begira, San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabalan biltzen da %53,3, horixe baita udalerriko alderik baztertuenetarikoa. Horrexegatik, bada, dira auzo hauek tokiko eta erkidegoko administrazioen plan berezien jarduketaren xedea.

Bilboko biztanleria atzerritarraren bilakaera nazionalitateen arabera, 2005-2008 (%).

NAZIONALITATEA	2005	2008	Δ 2005-2008
EUROPA	***2.699***	***4.396***	***%62,9***
Errumania	782	1.962	%151
Portugal	420	540	%28,5
Italia	265	399	%50,5
Frantzia	226	293	%29,6
AFRICA	***3.000***	***4.513***	***%50,4***
Maroko	1.031	1.594	%54,6
Senegal	356	490	%37,6
Aljeria	285	521	%82,8
IPAR AMERIKA	***190***	***149***	***-%21,6***
ERDIALDEKO AMERIKA	***615***	***820***	***%33,3***
HEGO AMERIKA	***9.076***	***13.928***	***%53,4***
Kolonbia	3.609	3.683	%2
Bolibia	1.310	4.666	%256
Ekuador	2.023	1.866	-%7,8
AUSTRALIA-OZEANIA	***9***	***12***	***%33,3***
ASIAKO HERRIALDEAK	***1.038***	***1.445***	***%39,2***
Txina	816	1.149	%40,8

Iturria: Udal errolda.

Bilboko biztanleria atzerritarraren banaketa barrutien arabera, 2008.



Iturria: Udal errolda.

Bilboko guztirako biztanleriaren eta atzerritarren banaketa barrutien arabera, 2008 (%).



Iturria: Udal errolda.

Barrutiaren araberako nazionalitate adierazgarrienak honako hauek dira: kolonbiarrak eta boliviarrak gehiengoa dira Deustu eta Uribarrin; Begoñan, udalerriko errumaniar kopururik handiena dago; Ibaiondoko %27,4 nazionalitate anitzek osatzen dute, baina aljeriarrak, marokoarrak eta senegaldarrak dira ugarien. Frantziarrek eta paraguaitarrek Abandon bizitzea dute gogokoen; txinatarrek, aldiz, Errekalden.

Sexuaren arabera

Atzerriko emakumeen portzentajea, Afrikako jatorria dutenak izan ezik, gizonena baino handiagoa da.

Sexuaren arabera, gizonezko eta emakumezkoen kopuruen arteko berdintasuna azpimarratzekoa da. Izan ere, Bilbon erroldatuta dauden etorkin guztien %50,3 emakumezkoak dira (12.700).

Europatik etorri direnen artean oreka bistakoa da. Multzo adierazgarrienaren kasuan, errumaniarrena, alegia, emakumeak gizonak baino puntu bat gorago besterik ez daude.

Latinoamerikako jatorria dutenen artean, emakumezkoak %58 dira. Hauen artean, paraguaitarrek eta brasildarrek %68 osatzen dute.

Afrikarren kasua oso bestelakoa da, gizonen eta emakumeen arteko alde izugarria baitago: gizonezkoak, etorkin guztien batez besteko %70 dira. Zenbait komunitatetan, gainera, portzentaje hori %95ekoa da, senegaldarren kasu. Salbuespen modura, Ekuatore Gineatik etorritakoen artean, gehienak emakumeak dira (%68,3).

Bilboko bertako eta atzerriko biztanleriaren banaketa adinaren eta sexuaren arabera, 2008.



Iturria: Udal errolda.

Adinaren arabera

Udalerrira iritsitako atzerritarrak erdiko adin-tarteetan sar daitezke, ekoizpen eta ugalketa indize handienak dituztenak, hain zuzen. 20 eta 44 bitartekoak, adibidez, %66 dira. Aldi berean, nabarmentzekoa da horri lotutako 15 urtetik beherakoen kopurua, 3.473 haur, guztira.

Udalerrira etorritakoen artean, 15 eta 19 urte bitartekoak gutxiengoa dira. Halere, hauen ehunekoa adin-barte bereko bertako biztanleek osatzen dutena baino gorago dago.

Adinekoen kopurua ez da igo, familiak berriz elkartzeko prozesuak bertan behera utzi diren adierazgarria litekeena.

Udalerrira etorri diren atzerritarrak 20 eta 44 urte bitartekoak izan dira gehienbat.

Antzinatasunaren arabera

Hainbat hamarkada igaro dira Europatik, Afrikatik eta Latinoamerikatik Bilbora lehen atzerritarrak etorri zirenetik. Dena den, joera aldatu egin da, zeren hasieran europarrak ugariago baziren, azken hogei urteetan latinoamerikarrak izan dira hiribilduak hartu dituen gehienak (hauen kopurua bikoiztu egin da epe horretan).

Grafikoak erakusten duen legez, Europako beste herrialdeetatik etorritakoak %41 ziren 1996an eta %17,4 baino ez dira izan 2008an.

2000. urtetik aurrera, migrazio-ziklo berri baten hasierarekin, kontinente bakoitzetik datozenen kopuruak berdintsuak dira. Alde handiagoa dago, ordea, nazionalitate jakin bateko datuei erreparatuz gero.

Bilboko biztanleria atzerritarraren bilakaera kontinenteen arabera, 1996-2008.



Iturria: Udal errolda.

Hezkuntza mailaren arabera

Bilboko biztanle atzerritarren hezkuntza maila, 2008.

HEZKUNTZA MAILA	*Atzerritar kop.*
Ikasketarik gabe. Eskolaurrekoak eta lehen hezkuntzakoak	*12.505*
Lanbide Heziketakoak	*969*
Bigarren hezkuntzakoak	*9.139*
Erdi-goi mailako hezkuntzakoak	
Goi mailako hezkuntzakoak	*1.705*
Master, graduondoko eta doktorego ikasketak	*68*
GUZTIRA	***25.263***

Iturria: Udal errolda.

Atzerriko biztanleen hezkuntza mailari buruzko erroldako datuak ez dira guztiz fidagarriak, zeren herritar bakoitzak adierazi duena besterik ez du batzen. Egia esan, ez zaie inongo baieztapenik edo ziurtagiririk eskatu erroldatzeko unean. Horrez gain, herritarrak erroldan izen ematerakoan zuen hezkuntza maila bakarrik adierazten du.

Erroldan agertzen diren atzerritarren %49k ez du ikasketarik egin edo, gehienez, lehen mailako ikasketak egin ditu soilik. %36k bigarren mailako ikasketak bete ditu; %7k, aldiz, goi mailako ikasketak.

Datu hauek atzerritarrek bertakoek baino prestakuntza maila hobea daukatela adierazten dute. Atxikitako grafikoak ere hala erakusten du. Nahiz eta datuok hainbat iturri eta urtetakoak izan, horiek erkatzean maila guztien arteko ezberdintasun nabaria ageri da, goi mailakoetatik oinarrizkoenetaraino.



Biztanleen egoera ekonomikoa eta gizarte zerbitzuak

Bilbao Lan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

5. kapitulua

Biztanleen egoera ekonomikoa eta gizarte zerbitzuak

Capítulo 5

Biztanleen egoera ekonomikoa eta gizarte zerbitzuak

Bilboko biztanleriaren egoera ekonomikoa kapituluan zehar erabiliko ditugun adierazleekin neurtzea zaila da erabat, baldin eta biztanle horien ongizatearen berri ere eman nahi badugu. Nazioarteko estatistika komunitateak aurrera egin du bai, inflazioa, errenta maila, langabezia edo enplegua bezalako fenomenoak modu orokorrean eta ikuspegi beretik ikusten lagunduko diguten estatistika arauak onartuz. Halere, aurrerapena edo gizarte-ongizatea bezalako adierazleak, gaur egun, lan-proposamen soiltza-t besterik ezin ditugu hartu, ez baitira oraindik guztiz garatutako eta adostutako adierazleak.

Hala, mundu osoan onartutako gizarte garapeneko adierazle sorta ez edukitzeak ez du esan nahi horren inguruko eztabaidarik ez dagoenik: gizarte garapena zer den, berorren helburuak zeintzuk behar lukete, eta, horri jarraiki, horren aurrerapena ebaluatuko duten adierazleak zeintzuk diren argitzen saiatzen ari dira. Horra hor, bada, azken hamarkadetan zehar kontzeptu eta adierazle berriak sortzea ekarri duten gizarte garapenaren helburu eta xedeen gainean egin den eztabaida bizia.

Argitaratutako azken Foessa txostenean, “La visión del desarrollo social en el siglo XXI”, 2008 (Gizarte garapenaren ikuspegia XXI. mendean) gizarte garapenaren, herrialde baten eta bertakoen gizarte bilakaeraren zein lortutako emaitzen berrikuspen zabala historian zehar egin da.

Bizitzea egokitu zaigun unean eta tokian (errenta maila altuko herrialdeek osatutakoa), aurrerapen materialaren kontzeptua eta ondasun eta zerbitzuen ekoizpena handitu beharra ezin lotuago daude. Hazkunde ekonomiko eza atzeraldi eta krisialdi bezala hartzea horren erakusgarri litzateke.

Azken hogeita hamar urteetan, nazioarteko erakundeak “gizarte garapena”, “giza garapena” eta “garapen jasangarria” kontzeptuak bat egitearen alde agertu dira, aurrerapenaren eta biztanleriaren ongizatearen adierazle modura. Horrela, ohiko hazkunde ekonomikoan oinarritutako aurrekontuak alde batera utziz, garapena dimentsio anitzeko prozesua dela onartuko genuke. Orduan, pertsona prozesu horren erdian egoteaz gain, gizarte eraldaketen protagonista ere izango litzateke.

Ez da nahikoa haztea, ezta pobrezia gutxiagotzea ere, edota banaketa hobetzea... Aldi berean, datozen belaunaldientzako ingurumena babestu beharra ere badago egitekoen artean.

Ongizatearen eta hazkunde ekonomikoaren arteko harreman konplexuaren adibide bat Easterlinen paradoxan aurki dezakegu, Richard Easterlinek 1973an plazaratutako artikulu batean aurreratu zuena. Bertan egileak frogatu nahi duena zera da, nahiz eta ekonomia estatubatuarrak hazkunde garrantzitsua izan duen, epe horretan biztanleek adierazi duten batez besteko zoriontasuna maila bertsuan mantendu dela.

Ongizate adierazlearena egiteko per capita BPGdaren ahalmen eskasak aldagai honen balio benetakoagoa lortzen lagunduko duten beste adierazle batzuk aintzat hartzera eraman gaitu. Estrategia ezberdinak oinarritzat hartuz, urteetan zehar saiakuntza bat baino gehiago egin da ongizatearen aparteko adierazle bat diseinatzera begira.

Aurreneko estrategia BPGdaren azterketa xehetasunez egitean datza. Horretarako, BPGdaren barne kontuan hartzen den arren ongizatearen adierazle behar ez lukeena ezabatu beharko litzateke eta, gero, ongizatearen adierazle batek eduki beharko lukeen eta BPGdaren barne ez dagoena gehitu beharko litzateke. Hau guztia adierazlearen ezaugarri monetarioa mantenduz egin beharko litzateke. Eredu honen ildotik hainbat proposamen egin dira, besteak beste: Ongizate Ekonomiko Jasangarriaren Adierazlea, Ongizatearen Alde Ekonomikoen Indizea, Ongizate Ekonomiko Jasangarriaren Indizea, Benetako Aurrerapenaren Adierazlea edo Levy Institutuko Ongizate Ekonomikoaren Adierazlea, LIMEW.

Bigarren estrategia bat aldagai monetarioak (kontsumo pribatua, esaterako) zein ez monetarioak (bizi-itxaropena edo errentaren banaketa, adibidez) kontuan hartuko lituzkeen ongizate indizeak eraikitzea izango litzateke. Adierazle mota honek, baina, aldagaiak aukeratzeko arazoei aurre egin behar izateaz gain, neurri-unitate oso ezberdinetako aldagaiak batera erabiltzearen zailtasunari aurre egin beharra dakar berarekin: monetarioak, urteak, portzentajeak, etab. Unitate ezberdinak baliatzeak estandarizazio sistemaren bat ezartzea eskatzen du eta, ondoren, aldagai bakoitzak edo ongizate arlo bakoitzak ongizatearen adierazle agregatuaren barne duen garrantzia erabaki behar da, adibidez, Giza Garapenaren Indizearen (GGI) barne.

Aurreko kasuan legez, herrialde jakin bateko ongizatearen bilakaera kalkulatzeko ongizatearen adierazle sintetikoak erabiliz gero, denek izango dute antzeko emaitza. Horrek zera esan nahi du, emaitza horietatik eratorriko datuak, ongizatearen adierazle gisa per capita BPGd erabiltzean lortutako ongizate mailatik beherako hazkundea izango lukeela, aldagai ezberdinak baliatu arren eta indizea eraikitzerakoan baliatutako metodologiak edozein direla ere. 1. grafikoan ageri denez, biztanleko errenta da beste behin bilakaera aldekoena duen aldagaia. Adierazle sintetikoek, ordea, hobetze horren irudi ezkorragoa agertzen dute gizarte desberdintasunen alde handiak direla-eta: osasunaren zein soldaten datuen arteko aldeek eta pobreziak gora egiten jarraitzen dute.

Honen guztiaren ondorio argia, beraz, per capita BPGd aurrerapenaren edo gizarte garapenaren adierazle bakar modura erabiltzeko balio ez duela da. Bestelako edozein adierazlerekin alderatuz gero, bistakoa da per capita BPGdaren eta ongizatea neurtzeko beste adierazleen arteko alde nabarmena hor dagoela. Zoriontasunaren ekonomiak ez du ematen oso baliagarria izango denik, baina hala ere interesgarritzat jo dezakegu. Horren ildotik, BPGdaren hazkundeak, hoberenera jota ere, zoriontasunaren hazkundea eragiten du, maila oso txikian bada ere. Behintzat, hala erakusten dute gaiaren inguruko inkesta batzuek.

Gero eta ageriagoa da BPGd aurrerapenaren edo gizarte garapenaren adierazle bakartzat erabiltzea alferrikakoa dela, gizarte ongizate maila hobeto ezagutzen laguntzen duten adierazle berriak badaudela kontuan hartzen badugu.

Portzentajezko BPGdaren eta Ongizate indizearen araberako autonomia erkidegoen arteko aldea.



**Eskualde bakoitzaren balioak 0tik (Ongizateari zein portzentajezko BPGdari begira balio txikiena duen eskualdea, kasu honetan, Extremadura) 1era bitarteko eskalan adierazten dira; Ongizate indizearen arabera balio altuena agertzen duena Nafarroa da, eta BPGdaren arabera, Madril.*
Iturria: Jurado y Pérez (2007).

Hortaz, per capita BPGd ongizatearen adierazle gisa baztertzen badugu, nahitaezkoa izango dugu gizarte baten jokabidea ongizate eta gizarte garapeneko datuen arabera ebaluatzen lagunduko diguten beste adierazle batzuk baliatzea. Oraindik ere, baina, arazo honi ez zaio irtenbiderik aurkitu.

Horrexegatik, kapitulu honetan zehar, estatistikoki oinarri sendoagoa daukaten adierazleak aztertuko ditugu biztanleriaren egoera ekonomikoa aztertzeko: errenta, BPGd, diru-sarrerak eta gastuak... Izan ere, adierazle hauek beste arloekiko izan duten bilakaera erakutsi eta haiekiko alderaketa egiten lagunduko digute, betiere datozen urteetan gizarte errealitatearen ikuspegi zorrotzagoa eskaintzen duten beste datu batzuk erabiltzeko aukera izateko itxaropenarekin.

[1] Barne produktu gordina (BPGd) epe jakin batean (hiruhilekoa eta urtea, normalean) herrialde baten ondasun eta zerbitzuen ekoizpen orokorrak sortutako guztirako diru-balioa da. Biztanle kopuruarekin zatituz gero per capita BPGd ateratzen da.

Biztanleen egoera ekonomikoa

BATEZ BESTEKO FAMILIA-ERRENTA ETA ERRENTA PERTSONALAA

2006an EINk burututako Etxe sektoreko errenta kontuen arabera, EAEko batez besteko errenta gordin pertsonala biztanleko 18.335 eurokoa izan zen 18 urte edo gehiago zituzten biztanleentzat. Araban, zehazki, 18.866 euroko balioa lortu zuen, Gipuzkoan 18.755 eurokoa eta, azkenik, Bizkaian, 17.940 euro/biztanleko, hau da, urteko igoera %6,8, %7,5 eta %7,1 izan zen, hurrenez hurren. Estatuko batezbestekoak %5,6 egin zuen gora, nahiz eta Asturias bezalako zenbait erkidegotan %9,2ra iritsi zen.

2006ko biztanleko errenta gordinaren banaketa.



Iturria: EIN. Espainiako Eskualdekako Kontabilitatea.

EAE (18.335 euro) eta Nafarroa (17.887 euro/biztanleko) izan ziren 2006. urtean Errenta Gordin Eskuragarri altuenak izan zituzten autonomia erkidegoak. Euskadik Estatuko batezbestekoa %29z gainditu zuen. Aldiz, Extremadurak (11.098 euro/biztanleko) eta Andaluziak (11.438 euro/biztanleko) erregistro baxuenak izan zituzten.

2006an, Euskadiko errenta pertsonalak Estatuko batezbestekoa %29z gainditu zuen.

Estatuko batezbestekoa 14.192 euro/biztanleko izan zen. Hamaika erkidego daude gainetik, besteak beste: EAE, Nafarroa, Madril, Katalunia, Balearrak, Aragoi, Errioxa, Kantabria, Gaztela eta Leon, Asturias eta Melilla. Estatuaren batezbestekotik behera 8 erkidego izan ziren: Ceuta, Valentziako Erkidegoa, Galizia, Kanariak, Gaztela-Mantxa, Murtzia, Andaluzia eta Extremadura.

EAEko batez besteko errenta pertsonala %45 igo da azken sei urteetan, Bizkaian gertatu den antzera (%44).

Bilbo da biztanle gehien eta ezberdintasun ekonomiko handienak dituen hiria. Hortaz, bertako batez besteko errenta pertsonala EAEko gainerako hiriburuetatik oso urrun dago.

Emaitza hauek aurreko urtekoarekin erkatuz gero, bai Asturiasko Printzerriko familiak, bai Melillakoak, 2006an Estatuko batez besteko per capita errentaren gainetik geratu zirela ageri da. Aurreko urtera arte, batezbesteko horretatik beherako datuak erregistratu zituzten, ordea.

2000-2006. epealdiko bilakaera aztertzen badugu, sei urte hauetan EAEko batez besteko errenta pertsonala %45 igo dela ikus daiteke, 2000. urteko 12.604 eurotatik 2006ko 18.335 eurotara. Igoera hau Bizkaiak (%44) izan duenaren antzekoa da, 12.473tik 2006ko 17.940 eurotara.

Gure inguruko bertako familia-errenta gordinaren eta batez besteko errenta pertsonalaren azken datu eskuragarriak 2003koak dira, eta eskualde eta hirien arteko alde nabaria erakusten dute. Hala da hiru lurralde historikoen hiriburuen kasuan: Donostia buruan dago, 15.496 euroko errenta pertsonala eta 36.525 euroko familia-errentarekin eta, bere atzetik, Gasteiz, 14.505 euroko eta 35.093 euroko datuekin, hurrenez hurren. Bilbo da biztanle gehien eta ezberdintasun ekonomiko handienak dituen hiria. Hortaz, bertako batezbestekoa gainerako hiriburuetako datuetatik urrun dago, errenta pertsonala 13.922 eurokoa eta familiakoa 32.463 eurokoa izanik.

Horrela, bada, Bilboko biztanle bakarren zein familien errentak erkidegoko, probintziako eta eskualdeko batez bestekoaren gainetik daude, zortzigarren postuan, hain zuzen, nahiz eta beste bi probintziako hiriburuen atzetik eta Getxo, Lezama, Loiu eta Sondika bezalako udalerrien atzetik dagoen. Dena den, nabarmentzekoa da ere, Bilbon, errenta hauen %25 lanaz bestelako iturrietatik datorrela eta, are gehiago, kontzeptu honengatiko errentarik altuena duen udalerria ere badela. Baliteke datu hori Bilboko enpresa sare txikiak duen garrantziari zor izatea. Alderantziz, Leioa, Galdakao edo Berango bezalako udalerrietan errenten iturri nagusia lana dela ageri da.

1997tik 2003ra batez besteko familia-errentaren eta errenta pertsonalaren (€) bilakaera arlo ezberdinetan.

ARLOAK	1997		2001		2003	
	Errenta pertsonala	Familia-errenta	Errenta pertsonala	Familia-errenta	Errenta pertsonala	Familia-errenta
EAE	9.888	25.357	12.676	30.009	13.647	32.609
Bizkaia	9.795	25.011	12.321	29.549	13.376	32.201
Bilbo	10.546	26.309	12.881	29.730	13.922	32.463
Bilbo Handia	9.875	25.106	12.383	29.519	13.416	32.186
Plentzia-Mungia	11.168	27.819	14.068	33.061	15.642	36.940

** Atal honetan aztertuko diren arloak Bilbo metropolitarra osatzen duten udalerri gehienak sartzen dituzten eskualdeen araberakoak dira.*

Iturria: Eustat. Familia-errenta eta errenta pertsonalaren gaineko estatistika.

PER CAPITA BARNE PRODUKTU GORDINA

EINak autonomia erkidegoen 2008ko Espainiako Eskualdekako Kontabilitatearen inguruan plazaratu dituen datuei begira, Euskal Herria izan da Barne Produktu Gordinaren igoera errealaren tasa altuena erregistratu duena urte honetan. %2,1eko datuaz Estatuko batezbestekotik bederatzi hamarren gora geratu da. Sailkapen honetan Nafarroako Foru Erkidegoa (%1,9) eta beste lau lurralde egongo lirateke Bilboren atzetik: Balearrak, Extremadura, Galizia eta Ceuta, (%1,8). Hori horrela, guztira 13 erkidego hazi da Estatuko 2008ko batezbestekoaren gainetik.

Bestalde, 2008. urtean BPGdaren hazkunde txikiena izan duten lurraldeak Valentziako Erkidegoa (%0,5), Gaztela-Mantxa eta Katalunia (%0,7, kasu bietan) eta Andaluzia (%0,8) dira. Lau autonomia erkidego hauek, gainera, Europar Batasuneko (EB-27) batez besteko erregistrotik behera gelditu diren bakarrak izan dira.

Emaitza honetara eraman duten eragileak aztertuz, Estatuko batezbestekoarekiko industria sektorearen bizitasunak izandako garrantzia ezinbestekoa izan dela ikus dezakegu, hala gertatu baita Euskal Herriko, Nafarroako Foru Erkidegoko, Galiziako eta Extremadurako hazkunde tasekin.

Aragoiko kasua azpimarratzekoa da, non Estatuko batezbestekotik beherako BPGdaren igoera erregistratu arren, zerbitzuen sektorean Estatu osoko hazkunderik nabarmenena izan baituen, Nazioarteko Erakusketaren egoitza izateari esker. 2007. urtean, beraz, Aragoik izan du hazkunde ekonomikorik handiena termino errealetan (%4,5), Estatuko batezbestekoa baino zazpi hamarren gehiago.

2000tik 2008ra bitarteko BPGd errealaren urtetik urterako aldakuntza tasari begira, Estatuko batez besteko igoera %3,1ekoa izan dela kalkulatu da. Euskal Herriak ez du erregistro hori gainditu, aldi berean %3ko aldakuntza tasa izan duelako.

Per capita BPGdaren terminoetan, EAE zerrenda-buru da 32.133 €/biztanleko kopuruarekin, Espainiako batezbestekoa (24.020 €) baino %34 gorago. Jarraian, Madrilgo Erkidegoa (31.110 €/biztanleko), Nafarroa (30.614 €) eta Katalunia (28.095 €) daude.

Alderantziz, Extremadura Espainia osoko per capita BPGd murriztuena duena da 16.828 €/biztanleko kopuruarekin. Horren aurretik, baina Estatuko batezbestekotik urrun, honako hauek daude: Andaluzia, 18.507 €/biztanleko eta Gaztela-Mantxa, 18.471 €-ko per capita BPGd kopuruarekin.

EB-27 herrialdeetako batezbesteko per capita BPGd kopurutik (25.100 €/biztanleko, Eurostatek emandako datuen arabera) gorako zifrak erregistratu dituzten zazpi autonomia erkidego daude, haien artean EAE.

Uneko krisialdiagatik ere, BPGdaren datu ekonomikoek goranzko bilakaera izan dute EAEn, nahiz eta hazkundea txikiagoa izan den, %8koa 2007an eta %5ekoa 2008an.

Euskadik %2,1eko BPGdaren hazkunde-tasa izan du industria sektorearen bizitasunari esker, beraz, gehien hazi den autonomia erkidegoa izan da 2008an.

Per capita BPGdaren urteko aldakuntzaren (%) bilakaera EAEko eta lurralde historikoetako biztanle bakoitzeko, 2008. urtea.



Iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak.

2005eko biztanleko per capita BPGd, eskualdeen arabera.



Iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak.

Tokian tokiko datuei begira, eskura dugun per capita BPGdaren azken adierazlea 2005ekoa da. Horri kasu egiten badiogu, aldagai horren eta errentaren arteko aldea nabaria dela ikusiko dugu. Izan ere, per capita BPGd (lurralde baten sortutako BPGd lurralde horretan bizi diren biztanle kopuruarekin zatituz kalkulatzen dena) horren benetako balioa beheregi edo goregi jo izana gerta liteke, adibidez, lurralde horretako biztanleak beste udalerrietara lan egitera doazen edo, aldiz, lurralde horrek beste udalerrietako langileak bere enpresetarantz erakartzen dituen arabera. Errenta pertsonal eskuragarria lanetik eta "beste errenta batzuetatik" eratorritako errenta pertsonalek osatzen dute. Hala gertatzen da Plentzia-Mungiako eskualdean, adibidez, bertako errenta pertsonal altuena biztanleko lurraldeak sortzen duen BPGdetik gora baitago.

ETXEETAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) egiten duen Bizi Baldintzei buruzko Inkestak 2007an Espainiako etxeetako batez besteko diru-sarrera 29.367(1) €/urteko kopuruan jarri du, aurreko urtekoa baino %5,5 handiagoa.

Autonomia Erkidegokako banaketari jarraiki, EAE hirugarren postuan kokatuta dago bertako etxe bakoitzak batez beste 32.498 € dituelako. Nafarroak eta Madrilek gainditzen dute 36.257 €-ko eta 35.628 €-ko etxeko batez besteko diru-sarrerak dituztelako, hurrenez hurren. Etxe bakoitzeko diru-sarrera garbi gutxien duen erkidegoa Extremadura da, 22.259 €-rekin.

Euskadin %2,6 igo da diru-sarrera maila urte batean, horrexegatik egin du gora bi postu eta Katalunia eta Balearrak atzean utzi ditu.

Adierazle honetako aldagai ezberdinak aztertuz gero zenbait fenomeno esanguratsu ondorioztatuko ditugu. Etxeko batez besteko errenta baxuagoa da erreferentziazko pertsona emakumezkoa denean, gizonezkoa izan beharrean. Hori horrela, Estatuko datuen arabera, erreferentziazko pertsona emakumea denean etxeko batez besteko diru-sarrera 26.857 eurokoa da; gizona bada, berriz, 30.852 eurokoa da.

[2] 2007ko Bizi Baldintzei buruzko Inkestak, Europar Erkidegoko araudiari jarraiki, familiak etxebizitzari ematen dion erabileraren balioa erreferentziazko datu bezala kontuan hartu du lehen aldiz, baldin eta etxebizitza horren jabea baita. Diruz baloratu ezin den adierazlea da, diru-sarrerak eta pobrezia-tasak neurtzeko oso baliagarria dena. Datu hau kalkulatzeko egotzitako alokairuaren metodoa erabiltzen da (benetako alokairuetan eta etxebizitza beraren balorazio subjektiboan oinarritzen den etxebizitzaren erabilera baloratzeko metodo mistoa).

Adinaren arabera, 65 urte edo gehiago dituen erreferentziazko pertsona duten etxeena da errentarik murritzena. Hezkuntza mailari arreta eginez gero, diru-sarreraren kopuruan ezinbesteko eragina duela ikusiko dugu. Erreferentziazko pertsonak goi mailako hezkuntza duen etxeetan 34.666 euroko diru-sarrera dago, batez beste. Pertsona horren hezkuntza maila lehen mailakoa edo beheragokoa bada, aldiz, etxeko 18.541 euroko diru-sarrera dagokio.

2007ko Familiako aurrekontuen gaineko inkestaren arabera, etxeetako urteko kontsumo gastua 32.001 eurora igo da, batez beste, hau da, aurreko urtean baino %4,7 gehiago. Pertsonako batez besteko gastua, bestetik, 11.673 eurokoa izan da. Espainiako kontsumo gastu guztirakoak %7,5 egin du gora 2007an, aurreko urteko datuarekin erkatuta.

Espainiako etxeen batez besteko gastuari dagokionez, %25,6 etxebizitzarekin erlazionatutako gastuetara doa (alokairua, ur eta argindar gastuak, gasa, komunitatea, konponketak, berogailua), %14,4 garraiora eta %14,2 elikagaietara eta alkoholik gabeko edarietara.

Etxeko batez besteko errenta baxuagoa da erreferentziazko pertsona emakumezkoa denean, 3.995 euro gutxiago, hain justu.

EAEko etxeetako urteko gastuaren (%) egituraren bilakaera 2007. urtean.



Iturria: : EIN. Familien aurrekontuen inguruko inkesta.

EAE pertsonako gastu gehien (13.325 €) erregistratzen duen hirugarren erkidegoa da, Madrilen eta Nafarroaren atzetik.

Taldekako banaketari begira, igoera nabarmenena nabaritu dutenen artean honako hauek ditugu: hotelak, kafetegiak eta jatetxeak; komunikazioak; altzariak, etxeko ekipamendua eta etxebizitza mantentzeko ohiko gastuak; jantzi eta oinetakoak eta, hauez gain, etxebizitzarekin erlazionatutako gastuak, alokairu errealak, ura, argindarra, gasa, komunitatea, konponketak, berokuntza eta, kasuan kasu, alokairua ere barne sartzen dituztenak, batik bat.

EAEn etxeko gastuetara %29 zuzentzen bada, Estatuko batezbestekoa %25,6koa da.

Pertsonako gastu gehien erregistratzen duten autonomia erkidegoak Madril (13.467 €), Nafarroa (13.341 €) eta EAE dira, 13.325 €, azken honen kasuan. Beste alde batetik, gastu gutxien duten erkidegoak Extremadura (9.210 €) eta Gaztela-Mantxa (9.976 €) dira. Bi muturrei arreta egiten badiegu, beraz, zera ondoriozta dezakegu: Madrilgo pertsonako batez besteko gastuak %15,4 kopuruaz gainditzen duela Estatuko batezbestekoa eta Extremadurako gastua, aldiz, %21,1 gutxiago dela.

Balio absolutuetan, Estatuko gastu osoaren barneko autonomia erkidego bakoitzaren guztirako etxeen gastuaren proportzioa, erkidego horien biztanleriari lotuta dago. Hori horrela, Estatuko gastu guztirakoan ekarpen handiena egiten duten erkidegoak biztanle kopuru handiena dutenak dira. Katalunia (%17,6), Andaluzia (%15,8) eta Madril (%15,7) dira, hain zuzen ere, eta, guztira, ia Estatuko kontsumoaren erdia batzen dute.

Honen harira, bizilekutzat hartutako udalerriaren tamainak gastu maila handiagoa edo txikiagoa izatean baduela zerikusirik esan daiteke. 100.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerrietan, pertsonako gastua batezbestekotik %6,7 gora egon da 2007an.

Erreferentziazko pertsonaren edo diru-sarrera nagusiaren ardura duenaren hezkuntza-mailaren araberako azterketa egiten badugu, bigarren edo hirugarren zikloko unibertsitateko ikasketak dituztenen etxeetan erregistratu da gasturik handiena (45.717 euro, batezbestekotik %44,2 gora).

Bestalde,ikasketarik gabeko edo oinarrizko mailako ikasketak dituzten erreferentziazko pertsonen etxeetan Elikagaietara (%17,9) zuzendu da gastu portzentaje handiena. Unibertsitateko ikasketak dituzten erreferentziazko pertsonen etxeetan, ordea, portzentaje hori %10,9koa izan da, azken hauek aisialdiarekin eta kulturarekin lotutako gastuaren proportzioa igo baitute.

Pertsonako gasturik handiena (20.827 euro) bakarrik bizi direnen eta 65 urtetik behera dituztenen etxeetan erregistratu da. Ondoren, haurrik gabeko bikoteen etxeak (14.719 euro) daude eta, azkenik, bakarrik bizi diren 65 urtetik gorakoak (14.019 euro).

Hego Euskal Herriko Aurrezki-Kutxen Federazioaren 2008ko 4. hiruhileko Kontsumitzailearen Egoera Ekonomikoaren Txostenaren arabera, zorrak (hipoteka-krediduak edo bestelako maileguak) dauzkaten eta aurreztutako dirurik duten etxeen portzentajeak atzera egin du: azken urteetako daturik baxuena da, alegia, %21,1. Hala ere, 7, taulan ikus daitekeenez, gero eta gehiago dira zorrak estaltzeko beste aurreztu dutela uste dutenen kopurua (%16,7).

Euskal familien aurrezki eskuragarritasunaren bilakaera. Zorpetuta dauden etxeen portzentajea, 2004-2008.

ESKURAGARRITASUNA	*2004*	*2005*	*2006*	*2007*	*2008*
Aurrezki eskuragarritasuna	*25,6*	*40,4*	*24,8*	*23,5*	*21,1*
Zorpetzearen gainetik	*21,1*	*16,4*	*20,6*	*16,4*	*16,7*
Erdia baino gehiago	*3,6*	*7,8*	*2,5*	*2,5*	*2,6*
Erdia baino gutxiago	*%7,8*	*16,2*	*1,7*	*4,6*	*1,8*

Iturria: Hego Euskal Herriko Aurrezki-Kutxen Federazioa.

Hurrengo taula honek adierazten duenez, familiaren egoera ekonomiko orokorrarengan zorrek duten eragina, familia gehienen (%64,9) aburuz, jasateko modukoa da. Halaber, egoera gogor egiten zaiela diotenen kopurua gero eta handiagoa da (%17,2), eta gauza bera gertatzen da gehiegizkotzat jotzen dutenekin (%2,5).

Azken bost urteetan, familien bi herenek lasaitasun handia agertu dute beren etxeko egoera ekonomikoarekiko eta, horrez gain, etorkizunerako bizimodu erosoa espero dutela adierazi dute. 2008. urtean, aldiz, egoerak okerrera egin duela nabari dutenen portzentajeak gora egin du: zorrak dituztenen arteko %25,5ek zalantzak ditu etorkizunean biziko duen egoerari buruz eta %4,8k egoera kezkagarria iragarri du (%18,9 eta %3,4, hurrenez hurren, 2007an).

Zorpetzearen eraginaren bilakaera familiaren egoera ekonomikoarengan (zorpetuta dauden etxeen portzentajea, 2004-2008).

ERAGINA	2004	2005	2006	2007	2008
Ia ez da nabaritzen	15,1	11,9	17,9	10,0	15,1
Jasan daiteke	67,1	72,8	67,1	76,6	64,9
Gogor egiten da	15,1	12,2	12,1	9,9	17,2
Gehiegizkoa da	2,7	3,1	2,9	3,5	2,8

Iturria: Hego Euskal Herriko Aurrezki-Kutxen Federazioa.

Babes soziala

Europako Kontseiluak babes soziala eta gizarte-inklusioa koordinatzeko prozesuen integrazio garrantzitsua bideratu zuen 2006an. Horrekin zera lortu nahi zuen: elkarren arteko lankidetza suspertu, arindu eta eraginkorrago bihurtu, handitzearen osteko Europaren eremuaren barne arlo hauetako plan eta estrategia nazionalen segimendua eta ebaluazioa egitea, eta Lisboako Estrategia berrikusiaren esparruan garatutako Erreformen Programa Nazionalekin hartu-eman eraginkorragoa sustatzea.

Orduz geroztik, Estatu Kideek ohiko xedeak estrategia nazionalen eremura eramateko konpromisoa hartu dute bere gain ondoko hiru arloetan: Gizarte-inklusiorako Ekintza Plan Nazionala, Pentsioen estrategia eta Osasun arretarako eta epe luzeko zainketarako estrategia berria. Estrategia hauek Europar Batzordearen aurrean aurkeztu beharko lirateke 2006tik 2008ra bitarteko Babes Sozial eta Gizarte-inklusiorako Estrategia Txosten Nazional baten bitartez.

Aurkeztu zen 2006-2008. urteetako lehen Estrategia Txosten Nazionalak Espainiako eredu soziala berritzea aipatzen zuen helburu nagusi gisa eta, horrekin batera, eredu hori zabaltzea eta epe ertain eta luzera finkatuko zuten neurriak hartzea. Txostena lau ardatzen inguruan egituratu zen: gizarte-inklusioa, pentsioak, osasun arreta eta epe luzeko zainketa.

2006-2008. urteetako txostenaren arlo bakoitzean azaldutako neurriak eta jarduerak ia erabat bete dira. Hala, eredu soziala eraberritzeko prozesuan aurrerapauso nabarmena egitea lortu da eta, gainera, ongizate estatua finkatze aldera dagozkien aldaketak eginez eta alor honetan ezin garrantzitsuagoak diren arauak onartuz egin da.

Horrexegatik, mundu mailan hedatu den egoera ekonomiko ezkorragatik ere, 2008-2010. urteetako Babes Sozial eta Gizarte-inklusioko Estrategien Txosten Nazional berria aurkeztu da. Azken honek aurrekoaren ildo beretik aurrera egitea du helburu; oraingo honetan, baina, norabide estrategiko bikoitza izango du.

.

batetik, gizarte-inklusio aktiboa sustatzen saiatuko da, hau da, lan mundura sartzearekin batera errentak bermatzeko politika egokia eta kalitateko zerbitzuetarako sarbidea bultzatzeari ekingo dio, hezkuntza zerbitzuetarako, batik bat; bestetik, immigrazioaren hazkundearen eta gizarte-bazterkeria egoeran daudenen zahartzearen eraginaren inguruan hausnarketa egitea aldeztuko du.

Txosten hau gero eta hurbilago dagoen 2010. urteko egoerari heltzeko oinarrizko erreferentziatzat hartuko da, Lisboako Estrategiaren helburuen lorpena, Pobreziaren eta Gizarte-bazterkeriaren Aurkako Europako Urtea eta Europar Batasunaren presidentzia espainiarra aurrean ditugularik.

Espainiako gastu publikoa, Barne Produktu Gordinarekiko (BPGd), gero eta EBeko batezbestekotik hurbilago dago. Oraindik ere, baina, batezbesteko horretatik zazpi puntura dago. Zehatzago esanda, BPGdaren %38,8, EB15-eko datua %46,1 izan zela kontuan hartuta. Europako herrialde guztiak barne sartuz gero, portzentaje horrek behera egiten du: %45,8. Nolanahi ere, datu hori oraindik Espainiaren datutik oso urrun dago.

Espainia Europako batezbestekotik hurbil egoteak ez du esan nahi gastua igo denik BPGdarekiko, baizik eta azken urteetan herrialde gehienetan gertatutako atzeraldiak eragindako egoera dela. Izatez, Espainiako gastu publikoa 2004koa baino beherago dago (BPGdaren %38,8, orduko %38,9ren aurrean). EB15-en kasuan, urte honetan %47,6koa izan da eta 2004an %46,1ekoa. Portzentaje hauen garrantzia ez da nolanahikoa non hamarren bat gora edo behera egiteak gastuak 1.000 milioi euro baino gehiago gora edo behera egiten duela esan nahi duen.

Gaur egun, Espainiako gastu publikoaren datutik behera zazpi herrialde baino ez daude: Irlanda, Estonia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Errumania eta Eslovakia. Beste muturrean Frantzia, Suedia eta Danimarka daude, non Estatuaren eraginak Barne Produktu Gordinaren erdia baino gehiago hartzen duen, hots, Irlandan baino 15 puntu gehiago, politika publikoak pribatu egiteko prozesuan gehien aurreratu duen herrialdea.

Europaren datuekiko Espainiaren gastu publikoko maila murritzaren ildo beretik, diru-sarrerak ere sailkapenaren behealdetik aurki ditzakegu. Estatuaren diru-bilketa Barne Produktu Gordinaren %41 izan da pasa den urtean, EB15-eko batezbestekoa %45,5 izan dela. Honek zera esan nahi du, 2004. urtetik aurrera Espainiako BPGd 2,5 puntu igo dela (25.000 milioi euro). Aldi berean, EBean bederatzi hamarreneko igoera besterik ez da nabaritu.

BPGdarekiko gastu publikoak Espainian horren eragin txikia duela (EBean ez bezala), gastu soziala ere txikienetakoa da. Izan ere, Barne Produktu Gordinetik zazpi puntura dago: %20,8, %27,8ko BPGdarekiko. Beste behin Suedia da Europako herrialdeen buru egindako gastu sozialari dagokionez, BPGdaren %32 zuzentzen baitu xede horretara. Beste muturrean, Estonian, %12,5eko gastu soziala besterik ez da egin.

Autonomia erkidegoen mailari dagokionez, Euskadin abenduaren 23ko 18/2008 Legea onartu zen Diru-sarreren Bermea eta Gizarte-inklusioa bultzatzeko. Horren xedea Diru-sarreren berme

eta gizarte-inklusioko sistema arautzea da. Ildo beretik, honako hauen nondik norakoak ezartzeko helburu bikoitza du: alde batetik, laguntza ekonomikoak zein gizarte-bazterkeria saihestera zuzendutako tresnak lortzeko eskubidea bermatzea. Beste alde batetik, gizartean eta lan munduan bazterkeria egoerak arintzera eta baliabide pertsonal, gizarteko edo ekonomiko nahiko ez duten pertsonen inklusioa erraztera begira, herritar gisa dituzten eskubideak modu eraginkorrean erabil ditzaten lortzea.

Diru-sarrerak bermatzeko sistema honek aldizkako (GGD) laguntza ekonomiko baten bitartez mantentzea errazten duten diru-sarrera oinarrizkoak bermatzen ditu. 9. taulan ageri denez, hogei urtean 47z biderkatu da kontzeptu hauetan egindako gastua, onuradunen kopurua 9,5ez biderkatu dela.

EINk argitaratutako datuen arabera, 2008. urte amaieran langabeziako prestazioa jaso zutenen kopurua 51.900 pertsonakoa izan zen Euskadin, 2005. urtean baino 8.900 gehiago.

2008an prestazio horiek banatutako modua argitzen duen daturik ez dago eskuragarri, baina 10. taulan gutxi gorabeherako banaketa irudikatu da: %66 kotizaziodun prestazioei dagokio (lanpostua nahi gabe galdu duten eta Gizarte Segurantzan 360 egunetik gora kotizatu duten pertsonentzako). %32 diru-laguntzak dira (kotizaziodun prestazioa agortu eta Lanbide arteko gutxieneko soldataren %75etik beherako diru-sarrera –banaka eta familiako senide bakoitzeko- edo familiako arduraren bat –edo ardurarik gabe, 45 urte baino gehiago edukiz gero- izanik langabezian jarraitzen dutenentzako). Eta, azkenik, %2k Gizarteratzeko errenta aktiboa jasotzen du, Lanbide arteko gutxieneko soldataren %75etik beherako diru-sarrera izateaz gain lana aurkitzeko zailtasun bereziren bat duten eta beharrizan-egoeran dauden kolektiboei zuzendua baitago.

EAEko pentsiodunen kopuruak ia %9 egin du gora azken bost urteetan, erretiroari dagokiona bereziki, erretiratutako 29.900 pertsona gehiago baitago orain. Murriztu egin den pentsio bakarra zurztasunekoa da, 1.100 pentsio gutxiago eskatu baitira.

Zenbatekoaren ikuspuntutik, 2008an Euskadin batezbesteko hileko pentsioa 900 eurokoa izan da, aurreko urtean baino %6,5 gehiago eta autonomia erkidegoen arteko handiena.

Diru-sarreren bermerako sistemako adierazleen bilakaera EAEn, 1989-2008. urteetan.

	1989	2008
Gastua	4,2 milioi	197,3 milioi
Onuradunak	4.196	39.715

Iturria: Gizarteratze Zuzendaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.

Langabeziagatiko prestazioen onuradunen kopuruaren bilakaera EAEn, 2004tik 2007ra bitartean, prestazio motaren arabera.

	2004	2005	2006	2007
KONTRIBUZIO-MAILA	29.521	30.648	30.598	29.956
Kontribuziokoa	..	..	30.577	29.922
Nekazaritzako aldi baterako langileen kontribuziokoa	..	..	21	33
LAGUNTZA-MAILA	12.990	13.188	13.690	14.343
Sorospena	12.990	13.188	13.690	14.343
Nekazaritzako aldi baterako langileen sorospena	..	..	..	..
Nekazaritzako errenta	..	..	..	..
GIZARTERATZE-KO ERRENTA AKTIBOA	462	617	623	784
GUZTIRA	**42.973**	**44.453**	**44.911**	**45.082**

Iturria: Laneko Estatistika eta Gizarte Gaietarako Urtekaria.

2004tik 2008ra bitarteko pentsioen eta batez besteko zenbatekoaren bilakaera EAEn, pentsio motaren arabera.

	2004		2008	
	Pentsioak	Batez besteko zenbatekoa (€)	Pentsioak	Batez besteko zenbatekoa (€)
LANERAKO EZINTASUN IRAUNKORRA	41.200	867,87	44.400	1.033,41
ERRETIROA (1)	260.900	840,55	290.800	1.023,72
ALARGUNTZA	122.100	515,82	128.500	628,35
ZURZTASUNA ETA FAMILIARTEKOEN ALDEKOA	16.800	287,44	15.700	401,41
GUZTIRA	**440.900**	**733,16**	**479.400**	**898,27**

1) 1997ko abenduaz geroztik, abenduan ere bai, 65 urtetik gorako Lanerako Ezintasun Iraunkorraren onuradunen pentsioak, SOVI (Zahartzaro eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Asegurua) pentsioak izan ezik, Erretiroarengatiko kategorian sartzen dira.

Iturria: Laneko Estatistiken Buletina. Lan eta Immigrazio Ministerioa.

Zerbitzu sozialak

Gizarte moderno eta bidezko baten helburu berebizikoen artean hazkunde ekonomikoak herritar ororentzako aurrerapena eta bizi-kalitatea ekar dezan dago.

Hori horrela, errentaren banaketa hobetzera zuzendutako ekin-tzen artean administrazio zenbaiten Gizarte-ongizateko programa sorta anitza legoke. Hauen xede nagusia gizarteko sektore baztertuenen babesa eta sustapena izan behar da, bidezkotasun, solidaritate eta gizarte kohesioaren ikuspuntutik.

Zentzu honetan, Gizarte ongizate politika oro bideratzeko kausa berdintasuna eta gizarte kohesioa sustatzeko beharrezko diren ekonomia eta enplegu politiken osagarri bilakatzea izan behar da.

Erronka honen jarduketa-eremua eratzeko, 2008. urte bukaeran Gizarte Zerbitzuen inguruko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartu zen Eusko Legebiltzarrean. Honen xedea zera da, izaera unibertsaleko Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema arautuz eta antolatuz, diru-laguntza eta gizarte zerbitzuetarako eskubidea Euskal Autonomia Erkidegoan sustatzea eta bermatzea.

Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemak biztanle guztien gizarte ongizatea sustatzea du helburu, beste sistema eta politika publikoekin elkarlanean. Hona hemen horren bitartez lortu beharrekoak:

- Norbere autonomia sustatzea eta menpekotasunak eragindako behar pertsonalei eta familiakoei arreta egitea.
- Babesik gabeko egoeretan sortutako beharrei aurrea hartzea eta haiei arreta egitea.
- Bazterkeria egoerak saihestea eta artatzea eta pertsona, familia eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
- Larrialdi egoerek sortutako behar pertsonal eta familiakoei aurrea hartzea eta haiei arreta egitea.

Betiere gizarte zerbitzuen berdintasuna eta unibertsaltasuna bermatuz egitekoa da hori guztia.

Sistema honi dagozkion betebeharren artean Eusko Jaurlaritzaren “Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta, 2008” azterlana bideratzea dago. Bertan pobrezia eta ezegonkortasuna estatistikoki neurtzeko zailtasuna aipatzen da.

Zailtasun horrek ezegonkortasunak berekin dakarren errealitatearen konplexutasunarekin zerikusia du, ikuspegi sozioekonomikoari bakarrik kasu eginda ere alde ezberdin anitz dituen errealitatea baita. Hortaz, familien errenta maila txikiek (mantentzeko kolokatasun egoera) zein bizi-baldintza orokorrei eta erreserba modura metatutako ondare-mailari (metatzeko kolokatasun egoera) lotutako mugapenek sortutako dimentsio anitzeko errealitatea da.

Bestalde, gabezia-egoeren larritasuna asko alda daiteke kausaren arabera: batzuetan, oinarrizko beharrak asetzeari lotutako arazoak

dira (pobrezia, zehatz esateko), eta beste batzuetan, gizarte jakin batean ohikoak diren ongizate mailetara iristeko gaitasunik eza azalerazten duten zailtasun konplexuagoekin du zerikusia.

Gabezia horiek, gainera, arrisku egoeren isla dira, gehienetan, erabat finkatutako arazo latzagoak izan beharrean. Izan ere, bai pobrezia, bai ezegonkortasuna modu ezberdinetan agertzen zaizkigu bizitzan zehar. Zenbait kasutan bete-betean agertzen dira eta beste batzuetan ezkutuan edo gerta litezkeen arrisku soil bezala azaltzen dira.

Mantentze- eta metatze-pobreziaren arrisku egoerak batera kontuan hartzen baditugu, egoera horretan dauden familiak Euskadin 39.737 direla ikusiko dugu. Honek zera esan nahi du, arrisku egoera horiek Autonomia Erkidegoko etxeen %5en igartzen direla eta guztira 100.250 pertsonari eragiten diotela, hots, guztirako biztanleriaren %4,7.

Arazorik larriena mantentze-pobreziaren arrisku egoera soilik jasaten duten pertsonena da, arrisku egoeran dauden guztirakoen %85,6 eta biztanleen %4. Hauentzako irtenbidea errenta mailak hobetzea litzateke.

Metatze-pobreziaren arrisku egoerak, bere aldetik, euskal biztanleen %0,5i eragiten dio, hau da, arrisku egoeran dauden pertsona guztien %11,6ri.

Pobreziaren bi dimentsioetako –mantentzea eta metatzea– gabeziak uztartzen dituzten egoerak dira zailenak, euskal biztanleen %0,1i eragiten diotenak (arrisku egoeran daudenen %2,8). Kasu honetan, arazo horiek gainditzeko, errenta mailak igotzeaz gain epe luzerako bizi-baldintzei eta ondare-baliabide osagarrien mailari lotutako gabeziei irtenbidea aurkitzea ere beharrezkoa da.

Pobreziaren arrisku egoera bizikien jasaten duten familietan ondoko ezaugarri hauek dituen erreferentziazko pertsona edo titular nagusia dago:

- Pertsona bakarrak eta guraso bakarreko familiak; %8,1 bakarrik bizi diren pertsonak dira eta %14,2 guraso bakarreko familiak (%3,6 haurrik gabeko bikoteek osatzen dute, %3,2 haurrak dituzten bikoteek eta %4,4 beste familia-multzo batzuk eta familia ugariek).
- Emakumeak. Arrisku egoerak ia hiru bider gehiago dira emakume baten menpeko diren etxeetako pertsonen kasuan (%9,5 dira emakumeen menpekoak eta %3,7 gizonezkoen menpekoak).
- Gazteak. Batez ere, 35 urtetik beherakoen (%10,9) edo 35 eta 44 urte bitartekoen artean (%7,6) dira nagusi arrisku egoerak. Askoz txikiagoak dira tasak, ordea, 45 urtetik gorako erreferentziazko pertsona batekiko menpekoen kasuan. Arazorik larrienak 35 eta 44 urte bitartekoen familietan nabaritu dira.

Nahitaezkoa da hazkunde ekonomikoko politiken eta gizarte-inklusioko politiken arteko koordinazio lotura egotea.

- Ikasketa prestakuntza gutxiko pertsonak. Pobreziaren eragina gehien sufritzen dutenak lehen mailako ikasketak dituztenak dira, %6,5eko tasarekin. Aldiz, ikasketa maila altuagoa dutenen menpeko familietan adierazle hori %1,3ra jaisten da.
- Okupaziorik gabeko pertsonak eta egonkortasunik gabeko enplegudunak. Langabetutako pertsona bat buru den familien artean pobrezia motaren bat sufritzen dutenak %46,8 dira. Hala ere, pobrezia arriskua Euskadiko bateztestekotik oso gora dago, bai lanik gabe daudenen kasuan, bai egonkortasunik gabeko enplegudunen artean (aldi baterako kontratuarekin edo kontraturik gabe lanean ari diren eta etxeko ardurak bere gain dituzten beharginak). Eragin hori are nabariagoa da egonkortasunik gabeko enplegudun baten menpeko pertsonengan (%12,9; lanik gabeko erreferentziazko pertsona baten menpekoen kasuan %6 izango litzateke). Izan ere, lan egonkorra duen pertsona bat (kontratu finkoa daukaten soldatapekoak eta beste inoren kontura lan egiten ez dutenak) buru duten etxeetan besterik ez dago batezbestekotik oso beheragoko tasa (%1,5).
- Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetako etorkinak. Pertsona hauen %34,3k pobrezia motaren bat jasaten du.
- 14 urtetik beherako umeak dituzten familiak. Umerik gabeko familien kasuan, pobrezia motaren bati lotutako biztanleen proportzioa %3,4koa da. Bestetik, etxean 14 urtetik beherako ume bat edo gehiago duten familiei dagokienez, tasa hori %7,1ekoa da.

Mantentze- eta metatze-pobreziaren arrisku egoeretan nabaritako eraginaren bilakaera EAEn, 2004 eta 2008 bitartean, familia-etxebizitzako Biztanleriaren Eraginaren arabera.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren "Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta, 2008".

Aurreko datuei begira, pertsona hauen gehiengoa arrisku talde nagusien barne dagoela ikus dezakegu: guraso bakarreko familiak, lan egonkorrik ez duen 45 urtetik beherako emakume edo gizon bat buru dutenak; lan egonkorrik ez duten 65etik beherako pertsona bakarrak; EBetik kanpoko herrialdeetatik etorritakoak eta lan egonkorrik gabeko 45 urtetik beherakoen familia taldeak. Pobreziaren arrisku egoeran bizi direnen %62,5en kasuan, ondoko ezaugarri hauek nagusi dira: guraso bakarreko familia, pertsona bakarra, etorkina, gaztea, batez ere, eta egonkortasunik gabeko lan egoera.

Aipatutako kolektiboak kopurutsuenak dira, hortaz, mantentze-pobreziaren arrisku egoeran daudenen artean (guztirakoaren %61,8). Metatze-pobreziaren eraginpean daudenen artean are nabariago da nagusi direla (%71,2).

Lurraldekako azterketa eginez gero, Bizkaiak dauden arriskuen %67,1 biltzen duela ageri da, bai pobreziaren dimentsioan, bai metatze-pobrezian. Gipuzkoan (%20,5) eta Araban (%20,5), ordea, datu horiek askoz atzerago daude. Aintzat hartutako arazoen eragina %5,9koa da Bizkaian, Araban (%4) eta Gipuzkoan (%2,9) baino askoz nabariagoa, alegia.

Kolektibo baztertuenak Bizkaian nagusi izatea azaltzeko Autonomia Erkidegoko tasa demografiko kopurutsuena duen lurraldea dela esan daiteke (aldi berean, ongizaterako sarbidearekin zerikusia duten ezaugarriei dagokien datuetan ere nagusi da Bizkaia beste lurraldeekiko, nahiz eta nagusitasun hori %51,8koa justu-justu izan). Nolanahi ere, horren beste kausa bat pobreziaren arrisku mailaren eta ongizate ezaren datuen eragin erlatibo handiagoa izango litzateke. Ildo honetan, Bizkaia lehen postuan dago jadanik pobreziaren arrisku egoeraren eragina neurtzen duen adierazlean (%5), baita ongizate ezaren eraginaren ingurukoan ere (%16,7).

Balorazio hori eskualdeen arabera eginez gero, oso esanguratsua da pobreziak Bilboko adierazleetan eragindako alde nabarmena, zeren pobreziak jotako Euskadiko eremurik nabarmenena bihurtzeaz gain, gainerako euskal eskualdeetatik oso urrun kokatzen baitu, mantentze-pobreziari zein metatze-pobreziari dagokionez.

Bilbok Euskadiko pobreziaren mapan duen garrantziak gora egiten du, normala denez, demografiaren aldetik duen inportantzia kontuan hartzen badugu. Horrela, Euskadin pobrezia arrisku egoeraren batean (mantentze- edo metatze-pobrezia dela ere) dauden pertsonen %33,4 udalerri honetan daude.

Pobrezia errealaren adierazleek Bilboko datua beste behin txarrenetarikoa dela baieztatu baino ez dute egiten. Horien eragina guztirako biztanleen %6,1ek nabaritzen du, hau da, EAE osoko %3,2ko batezbestekoa bikoiztu egiten du ia-ia. Pobrezia egoeren banaketari dagokionez, Bilbon pobrezia errealeko egoeren %31,7 legoke. Adierazle objektiboa soilik kontuan hartuz gero, datu hori %36koa izango litzateke. Kasu honetan, Bilboko datua Autonomia Erkidego osoko batezbestekoaren oso gainetik dago, %5,5ekoa izanik bikoiztu baino gehiago egiten baitu.

Bizkaian arrisku egoeren %67,1 batzen dira, eta Bilbon, pobreziak jotako Euskadiko pertsona guztien %33,4 bizi da.

Mantentze- eta metatze-pobreziaren arrisku egoeren eragina EAEn, 2008. urtean, eskualdeen arabera.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren "Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta, 2008".

Bestalde, Donostialdea eta Gasteiz Euskadiko batez besteko zifren inguruan daude, adierazle objektiboarekiko %2,3 - %2,4ko tasarekin eta zuzendutako objektiboarekiko %3,1ekin. Pobrezia errealaren datuaren barne %32,2 eta %33,5 dagokie, adierazle bat edo bestea aintzat hartzen den arabera.

Zifra hauek lurralde guztietan hobetu dira, Bilbon izan ezik. Udalerrian, bai familien, bai pertsonen pobreziaren arriskuaren tasak asko igo dira.

Pobrezia arriskuaren eta ongizate ezaren inguruko PGDIren adierazleen (%) bilakaera EAEn, Bizkaian eta Bilbon, 1996tik 2008ra.

	MANTENTZE-POBREZIA								METATZE-POBREZIA			
	Pobreziaren arriskua				Ongizate ezaren arriskua				Pobreziaren arriskua			
	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008
ETXEAK												
EAE	4,6	5,5	4,9	4,6	31,6	28,8	23,6	17,8	1,6	2,1	1,8	0,5
Bizkaia	4,9	7,3	5,8	5,5	34,4	34	26,3	20	2	3	2,1	0,7
Bilbo	5,7	8,9	7,4	7,9	40,2	37,2	28,3	24	2,1	3,7	2,8	0,9
PERTSONAK												
EAE	4	3,6	3,5	4,1	28,3	20,9	19,8	14,6	1,8	2,6	2,2	0,7
Bizkaia	4,2	4,9	4,5	5	31,5	25,6	22,3	16,7	2,4	3,8	2,8	1
Bilbo	4,6	6,4	6,4	8,2	37,2	29,1	25,2	21,9	2,7	4,8	5,6	1,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta (PGDI).

EAEko pobrezia-tasa (%3,1) EBeko batezbestekoa (%5) baino askoz beherago dago.

Amaitzeko, interesgarria litzateke gaur egungo Europar Batasuneko herrialde kideekiko EAEren egoera aztertzea. Eskuragarri ditugun datuen arabera, Euskadik maila ona agertu du 2008an pobreziaren adierazleari kasu egiten badiogu. Euskadin 2004az geroztik nabaritako pobrezia tasaren beherakadari esker, %3,1eko pobrezia-maila erregistratu da autonomia erkidegoan. Euskadiko adierazlea Europar Batasunekoa baino askoz txikiagoa da, EB15-en datuarekin zein oraingo EB25-en datuarekin (%5 ingurukoa bi kasuetan) alderatzen dugula. Espainiaren datua baino murritzagoa da, baita ere. Espainian, pobreziaren datuak behera egin du 2004 eta 2006 bitartean, %7tik %8ra iritsi baita.

Euskadiko egungo pobreziaren eragina Europako baxuenetarikoa da. Pobrezia-tasaren araberako mailarik hoberena erakusten duten herrialdeen artean (%2tik %3ra bitartean), Euskadiz gain ondoko hauek ere badaude: Austria, Eslovenia, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Luxenburgo, Belgika, Holanda, Frantzia, Danimarka eta Finlandia. Bestalde, Irlandan ere nabarmenki jaitsi dira pobrezia-tasak azken urteotan.

Beste muturrean, %6tik %9ra bitarteko pobrezia-tasak dituztenen artean, Europako ekialdeko gainerako herrialdeak daude, baita Mediterraneoko herrialde gehienak ere, Italia barne. Erresuma Batua ere pobrezia-maila handiagoa duten herrialdeen multzoan sartu da oraingoan. Tartean, %4tik %5era bitarteko tasa agertzen dutenak daude, Malta edo Txipreren kasu eta, horiez gain, Suedia edo Alemania bezalako herrialde aurreratuak ere.

Diru-sarrera gutxieneko pertsona kopurua edo ongizate eza neurtzen dituen adierazleari dagokionez, Euskadik ez du EBeko batezbestekora iristea lortu. Euskadiko tasa %14,8koa da, beraz, ez du diru-sarrera gutxieneko kopuru murritzena duten herrialdeen pareko datua, azken hau %10 eta %13 bitartean egon baita 2006an. Tasa hori lortu dutenen artean, hauek ditugu: Austria, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Eslovenia, Suedia, Herbehereak, Frantzia eta Alemania.

%14tik %16ra bitartean, Belgika eta Luxenburgo, Txipre eta Bulgaria edo Hungaria bezalako Ekialdeko zenbait herrialde daude. Ekialdeko gainerako herrialdeak eta Europako hegoaldekoak Europako batezbestekotik askoz gorago daude, baita Erresuma Batua eta Irlanda ere. Espainia, bere aldetik, diru-sarrera gutxienekoen kopuru murritzenak dituztenen artean dago, Greziak eta Letoniak soilik gainditzen duten %20ko tasarekin.

Espainian, 2007an EINk egindako Bizi Baldintzen Inkestaren (BBI) arabera, bertan bizi direnen %19,7 pobrezia erlatiboaren atalasetik behera dago, 2006an lortutako datutik bi hamarren behera. Tasa hori emakumeen kasuan handiagoa da (%20,9) gizonezkoenean baino (%18,6). Gizonezkoetan hamarren bat gehitu bada, emakumezkoetan hiru hamarren jaistea lortu da.

Adinaren arabera, pobrezia erlatiboa gehien jasaten dutenak 65 urte edo gehiago dituztenak (%28,5eko tasarekin) eta 16 urte baino gutxiago duten pertsonak dira (%23,4ko tasarekin).

Bizkaian, biztanleriaren pobreziaren eta ezegonkortasun ekonomikoaren mailak ere oso garrantzitsuak dira. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko 2008ko balantzearen arabera, laguntza publikoa behar duten onuradunen kopurua eta oinarrizko errenta jasotzen dutenena gorantz doaz gehienbat, 2008an %14tik gorako urteko hazkundea izan baitu).

Guztira 28.048 etxe eta 57.779 pertsona sartzen dira barne. Azken hauen profila emakume batena da, haur txikirik gabekoa, 25 eta 44 urte bitartekoa eta diru-sarrerarik ez duena. Etxe hauen erdia ia Bilboko familiak dira. Kontzeptu honegatik egindako gastu guztirakoa 151.783.339 eurokoa da. Familia bakoitzari emandako hilabeteko batez besteko zenbatekoa 535,47 eurokoa izan da.

Urte honetan, oinarrizko errenta jaso duten familien kopurua 6.122koa izan da, aurreko urtean baino %32 gehiago.

Bilboko kasuarekin jarraituz, herritarren zati handi baten beharrei udalak emandako erantzunak, 16. taulan ageri denez, zera ekarri du: 2008an 22.930 pertsonek oinarrizko errenta jasotzea, 2007an baino %7,7 gehiago eta Bilboko biztanle guztien %6,5. 2008ko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestaren arabera pobrezia arriskuan %8,2 pertsona daudela kontuan hartuta, Bilbon ematen den Oinarrizko Errentaren estaldura, zerbitzu honek pobrezia eta bazterketaren aurka eta gizarte-egoera ahuleko kolektiboen aldeko lanean izan dezakeen garrantziaren adierazgarri da. Gastu absolutua joan den urtekoarekiko %13,6 igo da eta 2005eko 54,3 milioi eurotik 2008ko ia 80 milioitara pasatu da.

Estatuko 2007ko pobrezia erlatibo tasa, adinaren eta sexuaren arabera (%).

ADINA	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
< 16 urte	23,4	23,5	23,2
16tik 64 urtera	16,8	15,9	17,8
> 65 urte	28,5	26,1	30,2
GUZTIRA	**19,7**	**18,6**	**20,9**

Iturria: EIN. Bizitzako baldintzen inkesta.

Oinarrizko errentako eta gizarte-larrialdietarako laguntzen eta laguntza berezien bilakaera Bilbon 2005-2008 urteetan.

LAGUNTZA MOTA	2005	2008
OINARRIZKO ERRENTA		
Bizikidetzako unitatea	9.536	12.241
Pertsonak	18.342	22.930
Gastua (€)	54.299.627	79.117.565
GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK		
Bizikidetzako unitatea	6.484	7.421
Gastua (€)	7.902.137	10.906.683
UDAL LAGUNTZA BEREZIAK		
Bizikidetzako unitatea	96	116
Gastua (€)	150.000	250.000

Iturria: Bilboko Udalaren Gizarte Ekintza Saila.

Gizarte-larrialdietarako diru-laguntzak Euskal Herriko autonomia erkidegoan bizi diren pertsonentzako dira edo, kasuan kasu, bizikidetzako unitateko pertsonentzako. Hauen guztien artean, laguntza hauek oinarrizko gastuei aurre egiteko baliabide nahiko ez dutenei emango zaie betiere, gizarte-bazterkeriako egoerak saihestea edo arintzea xede baitute. Diru-laguntza hauek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bitartez emango dira. 2008an zehar, Bizkaiko Foru Aldundiak 24.078.085 euro zuzendu ditu ekimen honetara, 10.991.393 euro Bilborako soilik izan direla. Udalerrian, izan ere, espediente berrien kopuruak zein egindako gastuak %5,3 egin dute gora.

Gizarte-bazterkeriaren aurkako beste ekimen bat gizarteratze-hitzarmenak sinatzea dugu. Hitzarmen hauetan parte hartzen dutenen (onuradunak eta oinarrizko gizarte zerbitzuak) adostasunez ezartzen dira bizikidetza independenteko unitate ekonomiko jakin bateko kideen gizarteratze pertsonal eta soziala eta lan munduan sartzea lortzeko zehazki egin beharrekoak. Gizarteratze-hitzarmen hauek, pertsonaren behar osokoak aintzat hartzen dituen norberaren araberako gizarteratzeko ibilbide edo prozesua ezartzera bideratutako dokumentu irekiak dira. 2008an mota honetako 1.009 hitzarmen sinatu da Bizkaian.

2004az geroztik, hitzarmen hauek arautzeaz eta finantzatzeaz Bilboko Udaleko Gizarte Ekintzako eta Enplegu eta Ekonomi Sustapenerako Sailak arduratzen dira. Auzolan eta Gizarteratze hitzarmenak bezalako berariazko programen bidez gizarte-bazterketako egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonei erabilera sozialeko lan aukera bat ematen zaie. Hala, aldi baterako eta arduraldi partzialeko lan kontratuak eskaintzen zaizkie, laneko praktikak ere barne sartzen dituen trebakuntza prozesu batekin batera.

2008-2009ko Auzolan programaren barne Lan Ekintza-Bilbaok garatu dituen trebakuntza ekintzak honako hauek izan dira: Ostalaritzako laguntzailea, Azaleren garbiketa eta Garbiketa langilea.

Programaren hiru trebakuntza ekintzen jasotzaileak Bilbon bizi diren langabetuak izan dira. Garbiketa Langile ekintza hiriko gune ahulenetako bateko biztanleei zuzendu zaie bereziki: Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala. Auzolan programatik pasatu den parte-hartzaile kopurua 34 pertsonakoa izan da. Parte-hartzaile guztietatik, %97k hasitako ekintzak bukatu ditu eta %3k bukatu baino lehen bertan behera utzi ditu, lana aurkitu izanagatik. Guztirakoaren %24 gizonak izan dira, %73 36 urtetik gorakoak. Ikasketa-maila gutxikoak dira, oro har, %76k lehen mailako ikasketak gainditu gabe utzi zituelako. Azkenik, programan dauden immigranteak %62 direla nabarmendu behar da. Kolektibo hau urtetik urtera igotzen ari da.

Gizarteratzeko laguntza bereziak aldizkako diru-laguntzak dira, gizarte-bazterketako egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen oinarrizko beharrei arreta egitera eta gizartean integratzea erraztera zuzendutakoak.

Laguntza hauek hartu dituztenak 6.351 izan dira 2008an. Guztirako gastua 1.946.994 eurokoa izan da, 250.000 euro Bilboko 116 bizikidetzako unitateentzako izan direla. Aurreko urtearekin alderatuta, 43 espediente gutxiago kudeatu dira, nahiz eta gastua handiagoa izan den.

Beste prestazio mota bat pentsio eta sorospen hartzaileen-tzako banakako laguntzak dira; urte bukaeran jadanik 4.840 izan ziren.

Gutxieneko bermerako laguntza prestazioaren xedea zera da, Oinarrizko errenta osorik edo haren zati bat hartzen duten pertsona guztiek Lanbide arteko gutxieneko soldata hilero jaso dezaten bermatzea.

Azken finean, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Sailak emandako datuen arabera (18. taula), Bilbon zuzenean artatutako pertsona kopurua guztira 48.310 izan da, 2007. urtean baino %15 gehiago. Hauen arteko %55,1 kasu aktiboak dira.

Horrez gain, Bilboko Udalak 1.734.000 euro bideratu ditu "etxerik gabekoen" egoeraren larritasuna arintzeko. Horren ildoan aurrera eramandako ekintzak oinarrizko hiru ardatzen inguruan egituratu ditu Udalak: ostatua, jana eta arropak. Gizarte Ekintza Sailaren esanetan, Bilbon etxerik gabeko 94 pertsona erregistratuta daude.

Bizkaiko lurraldean, Bilbon besterik ez daude udal jabetzapeko aterpetxeak. Bata, eskakizun maila handikoa, Elejabarrin dago, eta bestea, eskakizun maila txikiagokoa, Mazarredon. Elejabarrikoak 100 pertsonentzako tokia du eta gosari, bazkari eta afariak ematen ditu. Urteko artatutako pertsona kopurua 1.400 ingurukoa izaten da. Hauen jatorriaren arabera, %71 atzerritarrak dira, %9 bizkaitarrak eta %20 Euskadi eta Estatuko gainerako udalerrietakoak. Zerbitzu hauek erabili dituztenen %80 gizonezkoak dira eta guztirako okupazioa %97koa izan da. Mantenu zerbitzuari dagokionez, 13.000 bazkari, 16.000 gosari eta 17.000 afari eskaini dira.

Mazarredoko egoitzan 32 ohe daude eskura. 2008an 10.000 gau eman dituzte, guztira, erabili dituzten 103 pertsonek. Erabiltzaileen jatorria ez da Elejabarrin ikusitakoa bezalakoa: %31 bizkaitarra da, %59 Estatuko beste herrietakoa eta %19 atzerrikoa.

EINren etxerik gabeko pertsonen gaineko inkestako datuen arabera, Euskadi laugarren tokian izan da 2008an, eguneko etxerik gabeko pertsona gehien hartu dituzten erkidegoen artean. Euskadiren kasuan, 1.209 pertsona izan dira, Madrilgo, Kataluniako eta Andaluziako datuen atzetik.

Autonomia erkidego guztietan dauden 615 zentroetan eguneko 13.650 pertsonari eman zaio ostatua. Zentro horien %65,2 100.000 biztanletik gorako udalerrietan daude eta gehienak pribatuak dira (%77).

Zentro hauetan lan egin duten pertsonen %59,3 boluntarioak izan dira. Batez beste bertan lan egin dutenak 13.586 izan dira, 2006ko datuarekiko %5,7 gora. Nabarmentzekoa da %32,5 denbora osoko arduraldiko kontratua izanda ari izan direla zentro hauetan.

Bilboko udal gizarte zerbitzuetan arreta eman zaien pertsonak, 2008.

ZERBITZUAK	*Datuak*
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	*26.635 kasu aktibo* *48.310 pertsona*
Oinarrizko etxez etxeko laguntza	*Artatutako 11.600 pertsona*
Laguntasun zerbitzua	*451 zerbitzu* *58.375 zerbitzu ordu*
Telelaguntza zerbitzua	*2.586 zerbitzu aktibo*
Egoitzetan sartutakoak	*Menpeko 431 adineko* *18 autonomo*
Eguneko zentroetan sartzeak	*Menpeko 143 adineko* *Autonomo 1*
Esku-hartze sozioedukatiboa	*633 espediente* *Adin txikiko 1.554* *1.079 heldu*
Arreta psikosoziala	*187 espediente*
Gizarte larrialdiak	*453 larrialdi kasu*
Gizarteratzeko laguntza bereziak	*1.407 espediente*
Gizarteratze hitzarmenak	*349 berri* *Berrikusitako 85 hitzarmen*
Elejabarriko aterpetxea	*1.388 pertsona ezberdin* *1.622 ostatu emate*
Etorkinak	*Artatutako 4.215 pertsona (IUZE)*

Iturria: Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Saila.

Menpekotasunaren zerbitzuak eta onuradunak Bizkaian, 2008. urtean.

EMANDAKO GIZARTE ZERBITZUAK	Pertsona onuradunak
ADINDUAK	
Eskaerak	14.000
Pertsona onuradunak	17.600
Egoitzak	140
Egoitzetan dauden tokiak	9.111
Apartamentuetan dauden tokiak	531
Komunitate-etxebizitzetan dauden tokiak	833
Eguneko egoitzak	53
Eguneko egoitzetan dauden tokiak	1.724
Unitate soziosanitarioak	84 pertsona
Telelaguntzaren onuradunak	8.058
EZINDUAK	
Egoitzak	52
Egoitzetan dauden tokiak	1.051
Eguneko egoitzetan dauden tokiak	952
Okupazio-zentroetan artatutako pertsonak	1.259

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila.

Zentroetan egindako guztirako gastua 176,13 milioi eurokoa izanik, 2006an baino %21,8 gastatu zela esan nahi du. Ostatu sareko batez besteko edukiera eguneko 13.650 tokikoa izan zen. Horien artean, 2.436 abegi-etxeetan eskaini ziren, beste 551 ostatu-etxeetan eta 10.663 taldekako ostatuetan (aterpetxe eta egoitzak).

Lehen aipatutako diru-laguntzez aparte, 2007an Menpekotasunaren Legea indarrean sartu zenetik aurrera, bizkaitar askok izan dute eskura bere bizi-kalitatea hobetzeko aukera Bizkaiko Foru Aldundiko menpekotasunari arreta egiteko programaren bitartez. 2008. urtean 14.000 eskaera aurkeztu dira. Hauen artean nabarmen daitezkeenak familia-gunea zaintzera bideratutako laguntzak izan dira, izan ere, herritarrek gehien eskatu dituztenak ere badira eta (4.063 eskaera). Laguntza mota honen ondoren, egoitzetan sartzeko eskaerak izan dira gehien eskatu direnak (3.100) eta, askoz atzerago, eguneko egoitza batean sartzeko eskaerak (700).

Familia-gunea zaintzeko prestazioek sekulako gorakada izan dute 2007ko datuarekiko, orduan 404 espediente besterik ez baitzen sortu. Espedienteen kopuruak goranzko bidea hain nabarmenki hartu izanak urte erdi inguruan legea indarrean sartzeari zor dio.

GASTUA GIZARTE ZERBITZUETAN

2007an Bizkaian gizarte zerbitzuetan egindako gastua 1.616 milioi eurora igo zen, aurreko urtean baino %11 gehiago eta ekonomiaren urte horretako hazkundearekiko lau puntu baino gorago, Eustaten Gizarte zerbitzuen estatistikaren arabera.

Gastu hau Euskadiko BPGdaren %2,45 da; bestetik, biztanleko batez besteko gastua 753 eurokoa da, 530 funts publikoetatik ateratakoak direla.

Lurraldeka, gastuaren hazkundeak antzeko joera agertu du batzuetan zein besteetan: %10 Araban eta %11 Bizkaian eta Gipuzkoan. Per capita datuen arabera, Araban biztanleko batezbestekoa 840 eurokoa da. Hori horrela, guztien buru dago, Bizkaiko 741 eta Gipuzkoako 733 euroko zenbatekoen aurretik.

Gizarte zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera EAEn 2007. urtean (%).

Iturria: Eustat. Gizarte zerbitzuen estatistika.

Herri administrazioek egindako ahalegina 1.139 milioi eurokoa izan da, zera, gastuaren %70. Sektore pribatuak jarri du gainerako %30. Gastatutako lau eurotik bat (409 milioi euro) erabiltzaileen kuotekin eta beste salmenta batzuen bidez finantzatu da. Guztirako horretatik, egoitzetan dauden adinekoek 177 milioi euro eman dute, hau da, zentro hauen gastu orokorraren %45.

Euskadiko gizarte zerbitzuek zuzenean 22.985 pertsonari eman diote lana. Hauetatik %68,6 emakumeak izan dira. Gizarte zerbitzuek Bizkaian sortutako lanpostuak 11.165 izan dira. Hauetatik %70,7 emakumeek betetzen dituzte.

Gizarte zerbitzuen aniztasunaren barne, baliabide gehien jaso dituzten arloak biztanleria osoari eta adinduei zuzendutakoak dira, bien artean guztirako gastuaren %66 egiten baitute.

Biztanleriari zuzendutako baliabideen artean zenbatekoari eta bilakaerari begira ezer nabarmentzeko bagara, familiei egindako transferentziak aipatu behar ditugu. Hauen artean, Oinarrizko Errentaren programen bitartez 174 milioi euro (%10) eman dira, eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) bitartez, 41 milioi euro (%7). Bi programa hauekin egindako gastua biztanleko batez besteko 100 eurokoa izan da Euskadin. Halere, Bizkaian Oinarrizko Errentaren programak izandako eragina azpimarratzekoa da, non biztanle bakoitzak 116 euro jaso baititu.

Gizarte finantzaketaren xede den beste kolektibo bat adinekoena dugu, egoitzetako, eguneko egoitzetako eta etxez etxeko laguntza zerbitzua bezalako prestazioekin, batik bat.

2007. urtean 18.051 pertsonentzako tokia izan da egoitzetan, zera, 65 urtetik gorako 100 adinekoentzako batez beste 4,5 toki eskaini dira. Azken urteetako joerari jarraiki, 1.200 (%7) toki gehiago eskaini da egoitzetan urte honetan. Administrazioak, jabetza publikoko zentroekin lankidetzan, guztirako tokien %30 eskaini du. Bestalde, erakunde pribatuekin ere antzeko portzentajea (%31) itundu du. Lurraldeka, Bizkaiak 10.088 toki ditu, guztira; gehienak pribatuak dira, halere, toki publikoak guztirako %14,7 besterik ez dira eta. Erabiltzaileen kopurua 8.472ra igo da, eskura dauden toki kopurutik behera. Dena den, horrek ez du esan nahi baliabide honen bitartez eskainitako laguntzaren beharra duten pertsona guztiei arreta ematen zaienik, guztirako tokien artean 7.185 zentro pribatuetakoak direlako.

Bilbon dagoen kopuruari buruz, 21. taulan ikus daitekeenez, 570 zentrotatik 72 elkarteak dira, 31k zerbitzu tekniko orokorrak eskaintzen ditu eta bakar batek Orientazio zentroaren titulartasuna du. Eguneko egoitzen kopurua 119ra igo da, eta egoitzena, 246ra. Nabarmentzekoa da eguneko egoitzen (+11) eta bestelako egoitzen gorakada hau, urte honetan 48 zentro berri ireki baitira, guztira.

Bizkaiko gizarte zerbitzuetako pertsonalaren, gastuaren eta finantzaketaren bilakaera 2005etik 2007ra.

BIZKAIA	2005	2006	2007
Guztirako pertsona kopurua	18.909	19.702	20.080
Bertako langileak	10.514	11.169	12.029
Boluntarioak	8.395	8.533	8.051
Guztirako gastua (milaka eurotan)	677.656	763.614	847.797
Ohiko gastua	462.720	527.494	596.723
Familiei egindako transferentziak	182.927	206.201	220.015
Kapitalaren gastua	32.009	29.919	31.060
Finantzaketa	677.656	763.614	847.797
Publikoa	479.719	552.241	607.314
Pribatua	197.938	211.373	240.483
Gastua/biztanleko (Eurotan)	590,6	671,7	740,8
Gastua/ BPGd	2,3	2,4	2,6

Iturria: Eustat. Gizarte zerbitzuen estatistika.

Laguntza zentroen kopuruaren bilakaera arlo ezberdinetan 2007. urtean, zentroaren motaren arabera.

ARLOAK	Bilbo	Plentzia Mungia	Bilbo Handia	Bizkaia	EAE
Guztira	570	63	1.000	1.379	2.783
Elkarteak	72	14	141	224	429
Zerbitzu tekniko orokorrak	31	14	85	170	396
Orientazio zentroak	1	0	1	1	3
Eguneko egoitzak	119	16	251	356	655
Egoitzak	246	16	355	437	897
EOZB (1)	22	3	66	82	183
Beste batzuk	79	0	101	109	220

(1) Enplegurako Okupazio Zentroak eta Zentro Bereziak.
Iturria: Eustat. Gizarte zerbitzuen estatistika.

hezkuntza eta prestakuntza

Bilbao Lan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao



6. kapitulua

Hezkuntza eta prestakuntza



6. kapitulua

Hezkuntza eta prestakuntza

Biztanleriaren hezkuntza-maila

EAEko biztanleen %78k bigarren hezkuntza gainditu du, Estatuko batez bestekotik portzentajezko 18 puntu gora.

Eustatek argitaratutako datuei jarraiki, 2008an Autonomia Erkidegoko biztanleen %78k Bigarren mailako hezkuntza gainditutа zuen, gutxienez, hau da, aurreko urtean baino %1,7 gutxiago. Zifra hau EB27-ko %78,5eko batezbestekoaren azpitik dago, baita Estatukotik nahiko urrun ere, urte berean %60koa izan dena.

Aurreko grafikoan ageri den legez, biztanleriaren heziketa mailari dagokionez, EAE –Erresuma Batuarekin batera– erdi inguruan dago EB27-ko herrialdeen artean, gai honetan ohi denez aurreratuago egon direnen atzetik, hala nola Suedia, Finlandia, Austria, Belgika edo Frantzia. Aldi berean, Herbehereak, Alemania, Italia edo Luxenburgori aurrea hartu die EAEk.

EB27-n bigarren hezkuntza gutxienez gainditu duen 20-24 urteko populazio tasa 2008an (pertsonen %).



Iturria: Eustat eta Eurostat.

EAEn erregistratutako bilakaera aztertzean, 2008an azken hamar urteetako mailarik txarrena lortu duela ageri da. Tasen arteko tarterik handiena portzentajezko %4,1 puntukoa da, baldin eta 2001eko datuekin alderatzen baditugu (%82,1).

Unibertsitate prestakuntza hezkuntza-maila ia unibertsala da, hau da, Espainian eta EAEn populazio guztiak eskura dezakeen prestakuntza. 2007-2008 ikasturtean matrikulatutako ikasleen inguruan EINek argitaratu dituen azken datuen arabera, Espainiako unibertsitate-hezkuntzan 1.396.607 ikasle egotea lortu zen, Estatuko guztirako populazioaren %3, hain zuzen, eta 2006-2007 ikasturtean baino ia 14.000 gutxiago.

Zifra absolutuetan, unibertsitateko ikasle kopuruaren rankingaren buruan Madril dago eta ondoren, Andaluzia, Katalunia, Valentziako Erkidegoa eta Gaztela eta Leon.

Autonomia Erkidegoen populazioaren arabera, unibertsitate-matrikularen ratioak Madril jartzen du lehenengo postuan, biztanleen %3,7 matrikulatu delako 2007-2008 ikasturterako unibertsitate publiko zein pribatuetan. Bigarren postuan Gaztela eta Leon dago, ikasleen %3,2 matrikulatu delako Erkidego honetan bizi den populazio osoaren arabera.

Ratiorik txarrena duen erkidegoa Balear Uharteak dira, non populazioaren %1,2 bakarrik matrikulatu den unibertsitatean 2007-2008 ikasturterako.

EAE zazpigarren postuan dago, matrikulatutako 56.849 ikaslerekin. Unibertsitateko ikasketetan biztanle guztien %2,6 matrikulatuta dago, beraz, autonomia erkidegoetako 5. postuan dago.

Unibertsitatean matrikulatutako ikasleak eta populazio osoaren gaineko %. 2007-2008 ikasturtea.



Iturria: EIN. Unibertsitate Irakaskuntzaren Estatistika Espainian. 2007-2008.

Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioa

2008-2009 ikasturtean, araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioen ikasle kopurua Bilbon 53.499koa izan zen, aurreko ikasturtean baino %1 gutxiago.

Erregimen orokorreko ikasleen banaketa mailaren eta lurraldearen arabera, 2008-2009.

	EAE	Bizkaia	Bilbo
HAUR HEZK.	91.206	45.703	11.931
LEHEN HEZK	110.095	56.600	15.522
DBH	69.046	35.632	10.389
HHE	30.638	16.623	5.215
BATX.	28.832	14.907	5.013
LH	25.330	12.686	5.280
HB	1.033	527	149
GUZTIRA	**356.180**	**182.678**	**53.499**

Iturria: Eustat.

Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioak ematen dituzten ikastegiak Bilbon, 2008-2009 ikasturtean, titulartasunaren arabera.

IRAKASKUNTZA	Sare publikoa	Sare pribatua	GUZTIRA
Haur hezkuntza (1. zikloa)	45	34	**79**
Haur hezkuntza (2. zikloa)	35	32	**67**
Lehen hezkuntza	35	29	**64**
Hezkuntza berezia	7	4	**11**
Helduen hezkuntza (HHE)	3	8	**11**
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	18	31	**49**
Batxilergoa	14	23	**37**
Lanbide heziketa (erdi maila, goi maila eta lanbide hastapena)	6	21	**27**
Lanbiderako hastapen prestakuntza eta lanbide hastapeneko programak	1	13	**14**

Zentro batzuetan hezkuntza maila bat baino gehiago ematen da.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioko 155 ikastetxe daude Bilbon, 83 jabetza pribatukoak eta 72 ikastetxe publiko. Bilboko zentroek EAEko guztirako ikastetxeen %14 eta guztirako ikasleen %15 hartzen dute.

Bizkaian soilik irakaskuntza araubide honetako ikasleen %51,3 dago. Eskualdearen barne, Bilbon 53.499 ikasle dago, ia-ia %30, alegia. Portzentaje honen barruan alde handia dago irakaskuntza mailaren arabera; esaterako, haur hezkuntzako ikasleak %26,1 dira eta LHkoak %42. Azken datu honek zera erakusten du, Bilboko lanbide heziketako zentroek beste udalerrietako ikasleak erakartzeko gai direla.

Sare publikoa da haur eta lehen hezkuntzarako ikastetxe eskaintzarik handiena duena, baita hezkuntza berezirako ere. Gainerako araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioan, sare pribatua da ikastetxe kopuru handiena duena. Lanbide heziketak garrantzi berezia hartzen du, 21 ikastetxe pribatu baititu sare publikoko 6 ikastetxeekin alderatuta. Derrigorrezko bigarren hezkuntzan ere 31 ikastetxe pribatu daude, publikoak 18 besterik ez direla.

2008-2009 ikasturtean, araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioen ikasle kopurua Bilbon 53.499koa izan zen, aurreko ikasturtean erregistratutakoa baino %1 gutxiago.

Hezkuntza motaren araberako banaketari dagokionez, Haur eta Lehen Hezkuntza dira kopurutsuenak, 27.453 ikaslerekin; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak 10.389 ikasle ditu; Batxilergoan 5.013 ikasle matrikulatu dira; eta, azkenik, Lanbide Heziketan 5.280 ikasle daude.

Sare pribatuak ikasle kopuru handiagoa dauka eta 2007-2008 ikasturteko datuekiko %1 igo da. Sare publikoak, ikasle kopuru murritzagoa izateaz gain, %3,2 egin du behera epe berean.

Euskal ikasleen %54,4k sare pribatuan egiten ditu ikasketak, publikoan dihardutenen portzentajea %45,6koa dela. Sare publikoan ikasle kopuru handiena duten araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioak Haur eta Lehen Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia dira.

2urtetikbeherakoikasleentzat,eskolatze-eskaintzakhaurtzaindegiak eta ikastetxe pribatuak ditu alde batetik, eta bestetik, udal haur-eskolak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Udalen artean eratutako partzuergotik sortu diren haurreskolak.

Bilbon guztira 10 ikastetxe homologatu daude. Hauetako 2 udalarenak dira (Elejabarri eta Francisco de Goya Haur Eskolak) eta gainerakoak haurreskolak dira: Deustu, Mina del Morro, Zamakola, Matiko, San Inazio, Arangoiti, Miribilla eta Cervantes.

Irakaskuntza mailak

Ikasle gehienak Haur eta Lehen Hezkuntzan daude, biek batera 27.453 ikasle baitituzte; 11.293 sare publikoan daude eta 16.160 pribatuan. 2007. urtearekin alderatuta, bilakaerak %1,5eko hazkunde gehigarria erakusten du.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, sare pribatuaren ikasle kopurua handiagoa da, 6.640 ikasle sare publikoko 3.749 ikasleren aurrean, eta titulartasunaren araberako ikastetxe kopuruari dagokionez, sare pribatukoak gehiengoa dira. Datu hauek iazko ikasturteko datuekin konparatzean, ikasle kopurua %0,3 jaitsi dela ikus daiteke.

Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioaren ikasleak Bilbon, 2008-2009 ikasturtean, maila eta titulartasunaren arabera.

IRAKASKUNTZA	Publikoa 2008-2009	Pribatua 2008-2009	GUZTIRA	
			2008-2009	2007-2008
Haur hezkuntza	4.826	7.105	**11.931**	**11.841**
Lehen hezkuntza	6.467	9.055	**15.522**	**15.199**
Haur eta Lehen hezkuntza berezia	13	53	**66**	**57**
Helduen hezkuntza	4.967	248	**5.215**	**6.125**
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	3.749	6.640	**10.389**	**10.356**
Derrigorrezko bigarren hezkuntza berezia	9	10	**19**	**20**
Batxilergoa	2.274	2.739	**5.013**	**5.033**
Erdi mailako lanbide heziketa	659	1.419	**2.078**	**2.019**
Goi mailako lanbide heziketa	1.411	1.791	**3.202**	**3.316**
Hezkuntza berezia: eginkizunen ikaskuntza	17	47	**64**	**58**
GUZTIRA	**24.392**	**29.107**	**53.499**	**54.024**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Batxilergoan 5.013 ikasle daude guztira; 2.274 irakaskuntza publikoaren sarean daude eta 2.739 pribatuan. Aurreko ikasturtearekin alderatuta batxilergoko ikasle kopurua %0,4 jaitsi da, hau da, 20 ikasle gutxiago daude.

Lanbide Heziketan, erdi mailakoa zein goi-mailakoa izan, ikasle gehienak titulartasun pribatuko ikastetxetan matrikulatuta daude. Ikasturte honetan, bi mailetan matrikulatutako ikasleak 5.280 izan dira, eta hauetako %61ek sare pribatua aukeratu dute. Datu hauek iazko ikasturteko datuekin konparatzean, ikasle kopurua %1 jaitsi dela ikus daiteke.

Hezkuntza Berezian matrikulatutako ikasle kopurua, lehen zein bigarren hezkuntzan, guztira 149koa da, eta aurreko ikasturtearekin alderatuta 14 ikasle berri gehiago daude. Hezkuntza mota honetan sare pribatuko eta publikoko ikasle kopuruen arteko ezberdintasuna nabaria da, %26 sare publikoan eta %74 pribatuan baitaude.

Hizkuntza eredu desberdinei dagokienez, 2008-2009 ikasturtean ikasle kopurua handitu da eredu guztietan, A ereduan izan ezik, non 2.008 ikasle galdu diren.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen kopuruak %1,5 egin du gora 2007ko datuekiko. Bigarren mailakoenak ere gora egin duen arren, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan beheranzko joera nabaritu da, azken honek matrikulen %1 galdu duela.

Banaketaren analisiaren arabera, gaztelaniazko irakaskuntzako A eredua ikasleen %37,3k erabiltzen dute, irakaskuntza elebiduneko B eredua %27,6k eta D eredua, zeinean ia klase guztiak euskaraz ematen diren, %33,8k. Azken hau izan da, portzentajeei dagokienez, gehien hazi dena. Azkenik, euskara ikasi behar ez duten ikasleentzako X ereduak ikasle kopuru osoaren %1,2 biltzen du. Gainera, eredu mota hau ez dago sare publikoaren barne.

Hezkuntza Sailaren esanetan, hizkuntza eredu ezberdinak euskal hezkuntza sistematik desagertzeko arrazoia eskaera falta da.

Ikasleak hizkuntza ereduaren arabera Bilbon, 2008-2009 ikasturtean.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

EAEn orokorrean, eta Bilbon bereziki, gaztelaniaz ikasteko eskaera 19.984 ikaslek egin zuten lehen aukera bezala 2008-2009 ikasturtean, sare pribatu eta publikoa batera kontuan hartuz. Eskaerari B eredua gehitzen badiogu, Bilbon 14.779 ikasle hartzen dituena, guztira 34.763 ikaslez hitz egiten ari gara.

Nahiz eta HHEn legez eredu elebidunik ez egon, estatistika kontuak aintzat hartuz eta informazioa ahalik eta homogeneoen egitera begira, A ereduan matrikulatutako ikasleak sartu dira.



Ikastetxeak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Informazioaren gizarte berriari egokitzeko garapenak eskatzen duen aldaketa egiturazkoa, ekonomikoa, kulturala eta soziala egin ahal izateko behar-beharrezkoak dira bai prestakuntza, bai teknologia berrien gaineko informazioa ere.

Ildo honetan, hezkuntza prozesu horiek osatzen dute, hain zuzen, eskumen berrien inguruan biztanleak hezteko, bazterkeria oro saihesteko eta informazioaren garapen bateratua erdiesteko baliagiarria izango den funtsezko tresna.

Ikastetxeetan egin beharreko lanari dagokionez, UNESCOk berak, hau da, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak zera onartu du, IKTak gaur egun ezinbesteko tresna direla hauek guztiak posible egiteko bagara: ikasleek ezagutza anitz eskuragarri izatea, klaseko kideekin elkarlanean aritzea, adituei galdetzea, ezaguerak parketatzea eta, tresna kognitiboak erabiliz, buruketa konplexuak ebaztea. IKTei esker, ikasleek baliabide berriak eskura dituzte ezagutzak adierazteko eta sormena garatzeko.

2000. urtean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Plan Premia deritzona diseinatu zuen, IKTak hezkuntza arloan sustatzeko ekintza-plan zentralizatu gisa. Eusko Jaurlaritzaren «Euskadi Informazio Gizartean Plana» izeneko ekimen orokorrari jarraituz jarri zuen martxan sailak programa hau. Plan horrek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berrien zabaltze eta erabiltzea EAEko lurraldean sustatzea zuen helburu.

Teknologia berrien gaineko prestakuntzari eta informazioari esker, ikasleek ezagutza baliabide kontaezinak izango dituzte eskura beren sormenaren mesederako.

IKTen erabileraren bilakaera EAEko ikastetxeetan (2002/2003 – 2008/2009).

IKTak	2002-2003	2008-2009	2008-2009	
			Publikoa	Pribatua
Ordenagailuak / 100 ikasle	8,85	12,67	13,80	11,58
Ikasleak / Ordenagailua	11,3	7,89	7,25	8,63
Irakasleak / Ordenagailua	5,04	2,86	2,96	2,73
Ikasgelan ordenagailua erabiltzen duten irakasleak	%41,78	%61,83	%62,40	%60,96
Pentium IV, baliokidea edo maila handiagoko prozesadorea erabiltzen duten ordenagailuak	14,53	%82,29	%80,73	%84,21
Sarea daukaten ikastetxeak	%66,71	%99,74	%100,00	%99,28
CentWeb orria daukaten ikastetxeak	%40,86	%67,96	%56,43	%88,76

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Premia Planak, ikastetxeetan gutxieneko azpiegitura beharrezkoak egotea bermatu du, Informazioaren Gizartea deritzonaz balia daitezen. Horretarako, lau ardatz nagusi ezarri dira: oinarrizko sare lokala zentroetan instalatzea; ekipamendu informatikoaz hornitzea; banda zabal bitartez Intranet hezigarri batera eta, honen bidez, Internetera konektatzea ahalbidetzea; eta, azkenik, zaharkiturik gelditutako ekipamenduak ordezkatzea.

EAEko ikastetxeetan bizitako bilakaera nabarmena informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezartzeko laguntzako programa hauen ondorioa da. Izan ere, irakasleek eta ikasleek klaseak prestatu, eman eta hartu ahal izateko IKTetan oinarritutako behar dituzten baliabideak dituzte jadanik.

Irakaskuntza arautuaren programa osagarriak

Irakaskuntza arautuaren udal programa osagarriak Bilbon 2008an.

PROGRAMAK	*Ikastegiak*	*Ikasleak*
Igeriketa irakasteko ikastaroa	*26*	*1.763*
Laguntza sozioedukatiboko tailerrak	*9*	*569*
Baserri-eskolak	*2*	*52*
Haur eskolak	*3*	*138*
Lanbide hastapena	*26*	*338*
Udako eskola	*5*	*222*
Irakurketa-animazioa	*33*	*12.118*

Iturria: Bilboko Udalaren Enplegua, Gazteria eta Kirola saila.

2008. urtean zehar, Bilboko Udalak hezkuntza jarduerekin aurrera jarraitu du, udalerriko ikasleek irakaskuntza arautuan jasotzen duten heziketa sendotzeko helburuarekin.

Ikasturte honetan, eskainitako jardueren artean azpimarragarria izan da irakurketa sustatzeko programa, partaide ugari bildu baititu. Bertan udalerriko 33 ikastetxetako 12.188 ikaslek hartu dute parte. Garrantzitsuak izan dira ere igeriketa ikastaroak -26 eskoletako 1.763 gazte aritu baitira- eta 569 pertsonak parte hartu duten laguntza sozioedukatiboko tailerrak.

Udal arlo eskudunak derrigorrezko eskolatzea betetzeko zainzaren aldeko ekintzak bultzatzen dihardu, hezkuntzan aukera-berdintasuna lortzera begira. Hortaz, esku hartzen jarraitzen du “Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea ezabatzea Bizkaiko Lurraldean” programaren barne. EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza jaso du.

Bitartekotza ekintza nagusi hauek ikasleekin, familiekin eta ikastetxeekin egiten ditu Udalak.

Era berean, balioen gainean hezteko ekintzen inguruan, Bakean hezteko programa eta unitate didaktikoak nabarmendu beharra dugu, Bizikidetzaren garrantzia ikasgelan jorratzera begira.

Araubide bereziko irakaskuntza

Araubide bereziko irakaskuntzak eta araubide orokorrekoak hezkuntza sistema osatzen dute. Irakaskuntza arautuaren barruan dago eta bere tituluak Estatuak homologatu ditu. LOGSEren II. Tituluan araututa dago zehazki eta hiru arloren barruan ematen du heziketa: irakaskuntza artistikoa (musika, dantza eta arte plastikoak eta diseinua), hizkuntza-irakaskuntza eta kirol-irakaskuntza, azken hau berri-berria delarik.

Araubide bereziko irakaskuntzak 1.153 zentro eta 380.445 matrikula hartzen ditu barne EAEn. Bizkaian dago zentro guztien %48,5 eta hauetan guztietan egiten da, bada, matrikulen %52.

Araubide bereziko irakaskuntza, arututakoa eta Estatuak homologatutako tituluak barne, hiru arlotan banatzen da: irakaskuntza artistikoa, hizkuntzak eta kirola.

Musika eta dantza

EAEn, diziplina hauek ematen dituzten ikastetxe arautu eta arautu gabeko publiko eta pribatuak 110 musika-eskola eta 2 dantza-eskola dira guztira. Lurraldearen arabera, Gipuzkoa da musika-eskola gehien dituen lurraldea, 53 guztira, EAEko %47,3. Bizkaia da hurrengoa, guztira 44 musika-eskola eta dantza-eskola batekin, EAEko %40,2. Azkena Araba da, 13 musika-eskola eta dantza-eskola batekin.

Musika ikasketetan matrikulatutakoak 41.968 dira, %93 arautu gabeko zentroetan ari direla. Sare motari begira, %58 zentro publikoetan matrikulatutakoak dira.

Musika ikasketak 2.183 irakaslek ematen dituzte. Irakasle eta ikasleen arteko ratioa 21,16koa da sare publikoan eta 17,05ekoa pribatuan.

Araubide bereziko irakaskuntza bitarteko musika eta dantza ikasketak ondoko maila hauetan egituratzen dira: oinarrizko maila, erdi maila eta goi maila. Bilbon musika eta dantza heziketa ematen duten hainbat eskola daude eta instrumentu (25 motatakoak) edo musika joera sorta handi batetik hautatzeko aukera ematen dute, hala nola rocka, jazza edo musika klasikoa, besteak beste. Aldi berean, kantua, konposizioa edo orkestra-zuzendaritza eta korua bezalako diziplinak ere badaude eskuragarri.

Mailaren araberako banaketari erreparatzen badiogu, 2008-2009 ikasturtean erdi eta oinarrizko mailetako eskaintza 20 ikastetxe baimenduk eman zuten guztira. Horietako 3 sare publikokoak dira eta beste 17ak zentro pribatuetakoak.

Mailaren araberako ikasleen banaketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak argitaratutako datuek zera adierazten dute: oinarrizko hezkuntzan 1.363 matrikula dagoela, lanbide heziketan 1.249 daudela eta goi mailakoan 365 daudela. Eustaten esanetan, Bizkaian dago matrikula kopururik handiena (1.921 ikasle). Gainera, hauetako %66 emakumezkoak dira.

Bestalde, BilbaoMusikaren lana ere aipatzekoa da honen inguruan, Bilboko Udalaren menpeko Tokiko Erakunde Autonomiaduna. Erakunde honek Musika Eskolaren, Udal Musika Bandaren, Udal Txistulari Bandaren eta Prestakuntza tailerren kudeaketa bere gain hartzen du. Laburbiltzeko, udal mailako kultura musikala eta musika-adierazpenak sustatu eta zabaltzeaz arduratzen da.

Bilboko musika eta dantza eskolak, 2008-2009 ikasturtea.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.



2008. urtean zehar bideratu dituen jarduera nabarmengarrienen artean honako hauek ditugu:

- **Udal Musika Eskola:** Matrikulen kopuruak goranzko joeran jarraitu du Eskolan eta 2008-2009 ikasturtean 1.556 izan dira, guztira. Horrela, bada, aurreko urtean erregistratutakoekiko %5,7ko hazkundea izan da. Urte honetan ere, pianoa -291 ikasle berrirekin-, ohiko dantza -184 matrikulaziorekin- eta gitarra klasikoa zein elektrikoa -211 matrikula gehiagorekin- izan dira izen emandakoek gehien eskatu dituzten diziplinak. Entzunaldi, kontzertu eta Jam Session deritzenen programazioaren inguruan, antolatutako hiru kontzertu ziklo nabarmen daitezke: Interprete Gazteak, Gazteria Musikala eta Irakasleen kontzertu zikloa.

  Prestakuntza tailerretan matrikulen %25eko gorakada nabaritu da 2007arekiko eta, guztira, 130 pertsonak parte hartu du. Horrezaz gain, uztailean egiten diren Udaleku Musikalek 150 haurren parte-hartzea izan dute.

- **Udal txistulari banda:** 2008. urtean indarra hartzeko aukera izan du bandak, publikoari zein programazioari dagokion heinean. Izan ere, Euskalduna Jauregiko kontzertuen denboraldian zehar ikuskizun bakoitzeko batez beste 200 pertsona (A 3 aretoa) eta 500 pertsona (A 1 aretoa) bertaratu baitzen. Era berean, jarduera hauetan hartu du parte: 48 protokolozko ekitaldi, 25 kalejira eta animazio ekitaldi Bilboko Zazpi Kaleetan zehar eta 7 kontzertu EAEn barrena. Amaitzeko, ezin aipatzeke utzi 2008an segidako hirugarren urtez egindako Bilboko Txistularien Alardearen antolakuntza.

- **Udal musika banda:** 2008an aldaketa anitz bizi izan ditu bandak, urritik aurrera Arriaga Antzokiko denboraldiko kontzertuak Euskalduna Jauregiko Auditoriumera pasatu baitziren. Horrek zera ekarri du, urteko batez besteko okupazioak %2,44 gora egitea, hau da, 10.000 pertsona baino gehiagoren aurrean jo izana.

Aurreko urteetan bezala, Areatzako kioskoan ohiko kontzertuak emateari ekin dio. Bestalde, Tenerifen egindako Banda sinfonikoetako zuzendari, konpositore, moldatzaile eta instrumentisten IV. Biltzar iberoamerikarraren kontzertu batean parte hartu du.

Dantzaren kasuan, 2008-2009 ikasturtean 83 pertsona matrikulatuta egon dira. Horien artean, 81 Arabakoak izan dira; beste biak, Bizkaikoak. Diziplina honetan, emakumezkoen presentziaren nabarmengarritasuna erabatekoa da, 8 gizonezko besterik ez baita matrikulatu Araban.

Dantza ikasketak emateko EAEko baimendutako zentro bietako bat Bilbon dago. Bertan, oinarrizko mailako prestakuntza eskaintzen da.

Honi zera gehitu beharko litzaioke, udalerriko musika eta dantza zentro arautu gabekoetan emandako prestakuntza.

Arte plastikoak eta diseinua

Ikaskuntza mota hauek, barne hartzen dituzten arlo guztietan ikasleak profesionalki gaitzea da, hala nola arte plastikoetan, lanbide artistikoetan, diseinuan eta kultur ondarea zaintzean eta zaharberritzean. Azken arlo hauek, diseinuarekin batera, unibertsitate maila akademikoa daukate.

2008-2009 ikasturtean zehar, guztira 689 pertsona matrikulatu da Arte plastiko eta diseinuko eta Diseinuko goi mailako ikasketetan, araubide bereziko irakaskuntzaren barne. Hauetariko 514 (%74,6) emakumeak izan dira.

Ikasleak 6 zentrotan banatzen dira, horietako 3 Bizkaian daudela, hiriburuan, zehatzago esanda: Arte Plastikoetako eta Diseinuko bi Zentro eta Bigarren Hezkuntzako Institutu bat. Udalerrian ematen diren diziplinak arte plastikoen ingurukoak dira: argazkigintza artistikoa, ilustrazioa, publizitaterako arte grafikoak eta dekorazio eta obra proiektuen zuzendaritza.

Eustaten azken datuen arabera, sare pribatuan ikasleen %69 sartzen da. Bizkaian, datu hori are nabariagoa da, zeren zentro publikoetan erregistratutako 14 matrikulazioek eskualde osoan egindakoen %6 baitira, hain justu.

Arte plastiko eta diseinuko eta Goi mailako diseinuko ikasketetako ikasleen banaketa sexuaren, lurraldearen eta sarearen arabera, 2008-2009.

LURRALDEA		GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak
EAE	Publikoa	**376**	514	175
	Pribatua	**313**		
BIZKAIA(1)	Publikoa	**14**	11	3
	Pribatua	**216**	161	55
BILBO(1)	Publikoa	**14**	11	3
	Pribatua	**216**	161	55

(1). 2007-2008 ikasturteko datuak.
Iturria: Eustat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Hizkuntzen irakaskuntza

EAEko sare publikoaren barneko hizkuntzen ikaskuntza ofiziala 12 Hizkuntza Eskola Ofiziali dagokio, lurraldean zehar sakabanaturik daudenak. Bat Araban dago, beste lau Gipuzkoan eta, gainerako zazpiak, Bizkaian (Bilbon dago horietako bat).

Prestakuntza mota hau 4 mailatan oinarritzen da: oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasunekoa, matrikula ofiziala zein librea izan.

2008-2009 ikasturtean, EAE osoan 319 irakasle aritu dira HEOetan. Guztirako matrikulak, aldiz, 29.243 izan dira. Horien artean, 20.242 ofizialak izan dira eta 9.001 libreak. Sexuaren arabera, matrikulen %66,6 emakumeenak izan dira; hortaz, gizonezkoak %33,4 besterik ez dira izan.

EAEn aurreko urtean baino hiru zentro gehiago dago hizkuntzen ikaskuntza ofizialerako.

2008. urtean, erdikegoko HEOetan erregistratutako matrikulen kopuruak %15,3 egin du behera.

Basauriko Hizkuntza Eskola Ofizial berrian ingelesezko, frantsesezko eta euskarazko klaseak eman zaizkio 534 ikasleri.

Nahiz eta urte honetan aurrekoan baino 3 zentro gehiago eta 20 irakasle gehiago izan diren, ikasleen kopuruak behera egin du %15,3.

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialeko ikastaroetara 8.241 ikasle joan dira guztira 2008-2009 ikasturtean, 2007-2008 ikasturtean baino %20,4 gutxiago. Matrikula ofiziala guztirako ikasleen %67k atera du. Gainerako %33k matrikula librea nahiago izan du. Aurreko urtean ez bezala, oraingoan matrikula libreen kopurua jaitsi egin da.

Hizkuntzen inguruan Europako Esparru Komunean zehaztutako mailaren araberako eskumenak erreferentziatzat hartuz, zera ondoriozta dezakegu: 2.275 ikaslek oinarrizko mailan izen eman dute, 2.901ek tarteko mailan, 2.135ek maila aurreratuan eta 930ek gaitasuneko mailan.

Orain arte bezala, 7 hizkuntza eskaintzen dira: ingelesa, frantsesa, alemana, euskara, errusiera, gaztelania, italiera eta portugesa. Bilboko Eskola Ofizialean, 2008-2009 ikasturtean ingeleseko 2.365 ikaslek matrikula ofiziala egin dute, euskarako 1.178k, frantseseko 861ek, alemaneko 401ek, italierako 359k, gaztelaniako 198k eta azkenik, portugeseko eta errusierako kasuan, 73na.

Matrikula libreari dagokionez, euskarako 1.411 ikasle matrikulatu dira, ingeleseko 1.001, frantseseko 111, italierako 91, alemaneko 63, gaztelaniako 21 eta azkenik, errusierako 17 eta portugeseko 18.

Barakaldoko Hizkuntza Eskola Ofizialak, ingelesa, euskara, frantsesa eta alemana eskaintzen dituena, 3.206 ikasle izan ditu 2008-2009 ikasturtean, aurreko urtean baino %9,7 gutxiago. Ikasle ofizialak guztirakoaren %71 izan dira. Aukeran egon diren hizkuntzetatik ingelesak izan ditu ikasle gehien (1.054) matrikula mota honetan. Matrikula librea 934 ikaslek hautatu dute, horietako %65,6k euskarazko ikasketak egiteko.

Bere lehen urtean, Basauriko Hizkuntza Eskola Ofizialak 534 ikasle bildu ditu guztira, ingeles, frantses eta euskarako klaseetan.

Bilbo metropolitarrean Getxoko HEO ere badago eta, horrez gain, 2009-2010 ikasturterako Santurtzin martxan jarriko da beste bat, bertako eta inguruko udalerrietako ikasleek hizkuntzak ikasteko erraztasun handiagoa izan dezaten.

Kirol irakaskuntza

Kirol irakaskuntzari esker kirol teknikariak modu egokian presta daitezke araututako hezkuntza sistemaren bidez. Irakaskuntza mota hau erdi eta goi mailan egituratzen da.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutako hiru ikastetxe daude EAEn kirol irakaskuntza eskaintzen dutenak, probintzia hiriburu bakoitzean bat. Bilbon dagoen zentroa, futbolerako zein areto-futbolerako egokitua, kirol teknikari titulua (futboleko entrenatzaile) ematera zuzenduta dago.

Kirol irakaskuntza EAEn 2008-2009 ikasturtean 274 ikasle edukitzera iritsi da. Eustaten lurraldekako azken datuen arabera, Bizkaian, ikastaro mota hauetan erregistratu diren matrikulak 117 izan dira, 4 besterik ez direla emakumezkoenak izan.

Lanerako prestakuntza eta etengabekoa

Bai langabezian daudenentzako, bai lanean ari direnentzako, lanerako prestakuntza eta etengabekoa eskumen eta trebetasun teknikoak lortu zein hobetzeko aukera paregabea dira. Horrela, beren lanbide profila zabaltzeaz gain, lan munduan sartzeko aukera gehiago izatea lortuko dute edo, dagokion kasuan, lan merkatuan jarraitzea.

Lanpostu bat aurkitu eta mantentzeko, langileek lan merkatuaren eskakizunei egokitzen zaizkien eskumenak behar dituzte izan, enpresek, lehian aritzeko, ikertzeko, berritzeko eta hazteko eskumen horien beharra baitute. Are gehiago, ikasketa maila baxua eta prestakuntza ezak pertsona hainbat lan merkatutik bazterturik egotera eramaten ditu, gazte asko ere bai. Horrela, enpresa anitz ere langile kualifikatuen gabezia nozitzen ari da eta ezagutza baliabiderik gabe geratzen ari da.

Lanerako prestakuntza eta etengabekoa eta, nola ez, bizitza osoko prestakuntza deritzona, aukera paregabea dira bai pertsonentzako, bai enpresentzako.

Cedefop (Lanbide Heziketaren Garapenerako Europako Zentroa) erakundeak oraintsu argitaratutako txosten batean dioen bezala, baliteke hemendik denbora gutxira Europan kualifikazio gabezia arazo larria izatea. Bizi-itxaropena gero eta handiagoa izanik eta jaiotza-tasak gero eta baxuagoak izanik, gutxiago dira lan merkatuan sartzen diren gazteak lan-bizitza luzatuz doan bitartean. 2020. urterako aurreikusi denez, enpleguen %50ek kualifikazio maila ertaina eskatuko dute, eta %31,5erako beharrezko izango den maila altua izango da. Aldi berean, kualifikazio handirik gabeko langileen eskariak heren bat egingo du behera 1996ko datuarekin alderatuta (%18,5ekoa izango da soilik).

EEZP-EINek emandako ikastaroak Bilbon 2008an. (Ikasle kop.).

IKASTAROEN EMAITZA	Ikasle kop.		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Ebaluazio negatiboarekin amaitu dutenak	28	31	59
Ebaluazio positiboarekin amaitu dutenak	1.072	1.368	2.440
Lanean hasteagatik utzi dutenak	160	223	383
Beste zioengatik utzi dutenak	126	156	282
GUZTIRA	**1.386**	**1.778**	**3.164**

Iturria: EEZP-EIN.

Hasierako hezkuntza eta prestakuntzari esker, gerora garatu eta etengabe hobetu beharko diren oinarrizko gaitasunak lortzen dira. Ildo honetan, EEZP-EIN erakundeak antolatuta, 190 ikastaro eskaini dira 2008an 40 zentro laguntzailetan. 3.164 pertsonek hasi zituzten ikastarook eta %79k (2.499) amaitu zituzten.

Langabezian zeuden 383 pertsonek utzi zituzten prestakuntza ekintza hauek lana aurkitzeagatik. Hauek kenduta, ikastaroak utzitako pertsonen portzentajea hasierako ikasle guztien %9 besterik ez litzateke izango, orduan.

Ikastaro osoa bete zutenen artean, ia guztiek bete zituzten ikasketa-xedeak eta %2,4k besterik ez du ebaluazio negatiboa izan.

Adinaren arabera, ikastaroak hasi zituztenen artean %59,5 zen 16 eta 34 urte bitartekoa. 34tik gorakoak 1.280 ikasle izan ziren, guztira, horietako %18k 50 urte baino gehiago zuela. Ikastaroa utzitakoen artean, %68k 16tik 34ra zuen. Datu positiboa zera litzateke, adin-tarte berekoak direla ikastaroren bat hasitako guztien %24. Zenbat eta ikasleak urte gehiago izan, orduan eta errazago da ikastaro guztia egitea. 34 urtetik gorakoen artean %16,6k utzi zuen ikastaroa.

Sexuen arabera, emakumezkoak gehiengoa dira, guztirakoaren %56. 2008ko datu absolutuei erreparatuz gero, prestakuntza jaso dutenak aurreko urtean baino 599 emakume gutxiago eta 318 gizon gutxiago izan dira.

Ikastaroa ez bukatzeari dagokionez, horretarako kausa edozein dela ere (lana aurkitzea edo beste edozein), emakumeen %21ek eta gizonen portzentaje berdinak prestakuntza bertan behera utzi dute.

Lanerako prestakuntzako ikasleen lan munduratzea zenbait arlotan, 2007/2008 (%).



Iturria: Lanbide. Lanbide. Ebaluazio Saila, lanerako prestakuntzako ikastarotan parte hartu dutenei egindako inkesta bukatu eta 6 hilabete geroago.

Egindako 190 ikastaroen eduki zehatzak 18 lanbide-arlotan banatzen dira gaitasun teknikoen arabera. Gehien eskatutakoak Administrazioa eta kudeaketa eta Informatika eta komunikazioak izan dira. Ikastaro hauetan parte hartu dutenen artean %27,4k eta %20,7k gainditu dute, hurrenez hurren. Irudi pertsonala, Ostalaritza eta turismoa eta Fabrikazio mekanikoa ere ikasleek nahiago dituztenen artean daude.

Ikastaroa amaitu eta segidako sei hilabeteetan lana aurkitu dutenei kasu eginez gero, prestakuntza espezialitatearen arabera, honako hauek nabarmen daitezke zifra positiboenak lortu izanagatik: Programazio informatikoa, Ibilgailu mota oro gidatzeko ikasketak, Merkataritza kudeaketa eta Salmenta teknikoa. Osasunaren eta Metaleko eta mekanikako industriaren ingurukoek ere lan munduratze zifra nahiko onak agertu dituzte. Eraikuntzarekin eta Arte grafikoekin lotutakoak dira, ordea, lan munduan sartzerakoan arrakasta gutxien erakutsi dutenak.

Oro har, eta 2008ko adierazle ekonomiko nagusiei erreparatuta, lanerako prestakuntzako ikasleek izan duten lan munduratze maila oso ona izan da, EAEko guztirakoaren %71k lortu baitu lana aurkitzea prestakunta egin eta gero.

Amaitu eta sei hilabetera lana lortutakoen ehunekoa %67,9koa izan da Bilbon eta %83,3koa Uribealdean. Beste udalerrietako portzentajeak bata eta bestearen artean daude. Datu hauek aurreko urteko zifrekin alderatuz gero zera ikusiko dugu, kontratazio kopuruaren beheranzko joera baieztatuta dagoela eta gero eta nabarmenagoa dela.

Unibertsitateko irakaskuntza

Testuinguru orokorra

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren 2008-2009 ikasturterako Espainiako unibertsite-sistemaren oinarrizko datuen inguruko txostenari jarraiki, gaur egun 77 unibertsitate daude Estatuan, 50 publikoak eta 27 pribatuak. Bost unibertsitate dira bertaratu gabeko unibertsitateak eta, horien artean, UNED da publikoa den bakarra.

2008-2009 ikasturtean prestakuntza maila ezberdinak eskaini dira Espainiako unibertsitateetan. Lehen eta bigarren zikloko ikasketak, graduko ikasketak (aurten eman dira lehenengoz), master ofizialak (2006-2007 ikasturtean eskaini ziren lehen aldiz) eta doktorego programak. Hauek guztiak Europako Goi Mailako Hezkuntzako Esparruak (Bologna Plana deritzona) bultzatzen dituen erreformak lirateke, Europako goi mailako hezkuntza bateratzeko prozesuaren xedeak lortzeko sortuak.

Asmo handiko helburu honek tituludunen trukea errazago egiteko xedea du. Horrek curriculumen erreforma eta tituluak Europa mailan homologatzea dakar, unibertsitate ikasketetako edukiak merkatuaren eta enpresen eskakizunen arabera egokituz, batez ere.

EAEko unibertsitate irakaskuntza hiru unibertsitateri dagokio: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, publikoa, eta Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea, pribatuak. Irakaskuntza teknikoa, zientzia esperimentalak, osasun zientziak, giza zientziak, eta gizarte zientziak eta juridikoak hartzen ditu. 2007-2008 ikasturtean 5.592 irakasle aritu dira irakaskuntzan. Horietako %79,8k zentro publikoetan egin dute lan, 4.462 irakaslek, guztira. Sare pribatuan 1.130 irakasle izan dira, %20,2. Bizkaian aritu diren irakasle kopurua 3.153 izan da, horien arteko 2.652k zentro publikoetan eta 501ek zentro pribatuetan egin dutela.

EAEko ikasle kopuruaren joerak beherantz jarraitzen du, azkeen urteetan bezala. 2007-2008an 65.101 ikasle zenbatu dira, -35.735 emakumezko eta 29.366 gizonezko-, zera, aurreko ikasturtean baino %1,5 gutxiago. Bizkaian 2007-2008 ikasturtean matrikulatu ziren ikasleak 33.926 izan ziren, guztira.

Unibertsitate ikasketak ikastegi publikoetan egin dituzten ikasleak pribatuetan egin dituztenak baino gehiago dira, bai EAEn, bai Bizkaian. Horrela, EAEn ikasleen %78,1 unibertsitate

EAEko unibertsitate publiko zein pribatuetan matrikulatutakoak aurreko ikasturtean baino %1,5 gutxiago izan dira.

Unibertsitateko ikasleak EAE eta Bizkaian, 2007-2008 ikasturtean.

ADIERAZLEAK	*EAE*	*Bizkaia*
Ikastetxe publikoak	*50.824*	*26.717*
Ikastetxe pribatuak	*14.277*	*7.209*
2 zikloko ikasketak	*32.347*	*19.136*
1. zikloko ikasketak	*25.935*	*12.692*
2. zikloko ikasketak	*3.367*	*2.098*
3. zikloko ikasketak	*2.249*	*0*
Graduondoko programak	***1.203***	***0***
IKASLEAK, GUZTIRA	***65.101***	***33.926***

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

publikoetara joan da eta pribatuetara, %21,9 besterik ez. Bizkaian, unibertsitate publikoek ikasleen %78,8 hartu dute, pribatuek %21,2 baino hartu ez dutela.

Ikasle eta irakasleen arteko proportzioa 2007-2008 ikasturtean zehar 11,6 ikasle irakasleko izan da, hau da, aurreko urteetako ratioa hobetu da ikasle kopurua jaistean. Sare publikoan erregistratutako ratioa (11,4) pribatuarena baino hobea da, azken honetan 12,6 ikasle baitago irakasle bakoitzeko.

Euskal Herriko Unibertsitateko ikastegiak eta ikasleak

UPV/EHUko 2007-2008 ikasturteko unibertsitateko ikasleak eta urteko bilakaera campus eta Bilboko ikastegien arabera.

IRAKASTEKO TOKIA	IKASLEAK 2006-2007	IKASLEAK 2007-2008	Δ %
Arabako Campusa	7.825	7.854	%0,4
Gipuzkoako Campusa	12.084	12.139	%0,4
Bizkaiko Campusa	23.587	23.551	-%0,1
GUZTIRA, EHUn	**43.496**	**43.544**	**%0,1**
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	3.522	3.414	-%3,1
Industri eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoa	3.336	3.340	%0,1
Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	2.423	2.425	%0
Irakasleen Unibertsitate Eskola	2.334	2.336	%0
Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	1.672	1.672	%0
Basurtuko Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	190	259	%36
BILBOKO IKASTEGIAK GUZTIRA	**13.477**	**13.446**	**-0,2**

Iturria: EHU/UPV.

Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitateak, informazio instituzionaleko atalean adierazten duen legez, “1980an gaurko izaera bereganatu zuen, Bilboko Unibertsitate zaharrean oinarrituta eta 1936ko Euskal Unibertsitatean inspirazioa hartuta. Eduardo Chillidak egindako ikurra hartu zuen, eta Iparragirreren bertso-lerro ezaguna erantsi zion: Eman ta zabal zazu, euskal kulturaren bokazio unibertsalaren ispilu. UPV/EHU indarrez betetako errealitatea dugu gaur. 50.000 kide baino gehiagok osatua, Euskadin egiten den ikerketaren %95 egiten du, eta milioi laurden bat titulatu sortu ditu jakintzaren hainbat eta hainbat arlotan.”

Titulartasun publikoa izanik, 437 milioi euroko aurrekontua du. Hiru campusetan banatuta dago -gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde bakoitzeko bat- eta 31 fakultate eta eskola dauzka, atxikitako 3 zentroez gain. Prestakuntza eskaintza aski zabala du, hala nola Medikuntza, Gizarte Zientziak, Arte Ederrak, Zuzenbidea, Ekonomia eta Enpresa Zientziak edota Industria Ingeniaritza.

2008. urtea berebizikoa izan da Euskal Herriko Unibertsitatearentzako, arduradun nagusia aukeratzeko hauteskundeak egin baitira bere baitan. Hauteskundeok maiatzean egin ziren eta, ondorio gisa, Iñaki Goirizelaia Errektore berri izendatu zuten. Kargu hau sufragio unibertsal haztatuaren bidez hautatzen denez, unibertsitateko komunitate osoak (54.702 pertsona) izan du boto eskubidea erabiltzeko aukera.

EHUk bere egituren zati garrantzitsu baten etengabeko modernizazioaren ildoan jarraitzen du, 2008-2009ko Urteroko Jarduera Planari jarraiki.

Plan honen barne, aipatzekoa da UPV/EHUko Zientzia Parkea, Euskadin proiektu estrategikoa litzatekeena, erakundeen aurrean urte erdi aldera aurkeztu dutena. Unibertsitatearen Ikertu txostenean agertu den legez, Zientzia Parkearen helburu nagusietako bat berrikuntza, sormen eta diseinu jardueretarako gunea sortzea da. Halaber, oinarri teknologikoko enpresa berriak eta kualifikazio maila altuko lanpostuak sortzea ekarriko luke, inguruaren behar sozialei arreta egiten dien unibertsitateko campus baten gaitasun zientifiko eta teknologikoak baliatuz.

Guztira, 188.000 m² izango ditu eta eraikitako azalerak 75.000 m² hartuko ditu Bizkaiko Campusaren Leioa-Erandioko eremuan. Parkeak 123 milioi euroko inbertsioa beharko du eta 2.500 langilerentzako zuzeneko lanpostua sortuko duela uste da.

Urte honetan, hasiera eman zaio areto nagusi berria eraikitzeko obrari, Álvaro Siza arkitekto portugaldarren diseinuari jarraiki egingo dena. 18 milioi euroko aurrekontua duen obra hau behin eraikita, BBKrena izango da eta honek utziko dio EHUri bere xedeetarako erabil dezan. 2010. urte hasieran amaitzeko aurreikuspena egin da.

Eraikinaren oinplanoa lauki formakoa da eta "L" letraren itxurako altxaera du. Abandoibarran kokatuko da, Rafael Moneoren Deustuko Unibertsitateko Liburutegi ondoan. Izan ere, aldamenean izango duen eraikinaren altuera berekoa izan dadin, solairu bat gehitu zaio. Horrela, 4 solairu edukiko ditu eta guztirako azalera 9.000 m²-koa izango da. Aurrealdean lauzak eta gris koloreko harria egongo dira ikusgai eta eraikinaren egitura hormigoizkoa eta altzairuzkoa izango da.

Bertan, Errektorearen eta EHUko Gobernu Kontseiluaren gela eta bulegoak kokatuko dira, baita 450 pertsonentzako entzungela, biltzar eta erakusketa aretoak, eta lur azpiko aparkalekua ere.

Era berean, Gizarte Arloetako Eraikina eraberritzeko proiektuari hasiera eman zaio, Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultatea erabat berregituratzean datzan egitasmoa. Lana 2009an bukatuko dela aurreikusten da; 17.425 metro karratu sartuko ditu barne eta 14 milioi euroko aurrekontua dauka.

Urte honetan, Leioako Arboretum parke botanikoa inauguratu da. Landarediz beteriko 19 hektarea hartzen ditu, 130 espezietako 1.700 zuhaitz barne. Gainera, erakusketak egiteko pabiloia, anfiteatroa eta heliosziametroaren plaza ere aurki daitezke parke barruan. Gune hau paisaiaren inguruko balio jostagarri eta hezigarriak azpimarratzeko sortu da. Berorri eraikitzera esleitutako aurrekontua 2 milioi eurokoa izan da.

Aurreko ikasturteko datuekin erkatuz gero, jarraian azaldutako taulan ageri denez, UPV/EHUko 2007-2008ko ikasleen kopuruak gora egin du nahiz eta gorakada ia hautemanezina izan (%0,1). Bizkaiko campusean soilik galdu da ikaslerik, 36 zehazki esateko; dena den, hain gutxi izanik, ez da kontuan hartzeko datua.

Bilboko ikastegiei dagokienez, aurreko urteko zifren parekoak lortu dituzte oraingoan ere. Basurtun dagoen Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen kasuan, asko igo da ikasle kopurua, portzentajezko 36 puntuak gainditu direla. Orain arte erregistratutako joeratik kanpo geratzen da datu hau.

Euskal Herriko Unibertsitateak bere egituren zati garrantzitsu baten modernizazioaren ildoan jarraitzen du; egiteko dagoen Zientzia Parkea horren adierazgarri ezin hobea litzateke.

Álvaro Sizaren areto nagusi berria Euskal Herriko Unibertsitatearen bandera-ontzi bihurtzekoa da Bilbon, 2010erako aurreikusita dagoen inauguraziotik aurrera.

Deustuko Unibertsitateko ikastegiak eta ikasleak

Deustuko Unibertsitatea 1886an sortu zen. Erakundearen informazio atalean adierazten den legez, sorreran, industria siderurgikoan, itsas garraio eta ontzigintzan oinarrituta hazten ari zen klasearen, eta Euskal Herriko kultur interesak eta Jesusen Lagundiak goi mailako ikasketak sortzeko zituen kezkek eta interesek bat egin zuten.

1916an, Deustuko Unibertsitate Komertzialak lehenengo ikasle taldea hartu zuen, Ekonomia eta Enpresa Zientzietan Espainian izango ziren lehenengo lizentziatuen taldea osatuko zuena, titulu horrek onespena jaso baino 25 urte lehenago. 1963an, Donostiako Gipuzkoako Unibertsitate Ikasketa eta Ikasketa Teknikoen Institutua eratu zen, lehendik ere bazeuden hiru erakundek bat egitean. Institutu hori, geroago, Deustuko Unibertsitatera bilduko zen. Horrelaxe sortu ziren Bilboko eta Donostiako campusak.

Unibertsitate honek onespen zabala eta irudi ona du Estatu osoko unibertsitate eta negozio eskolen artean. Horrezaz gain, enpresa eta erakunde anitzekin harreman estuak dituenez, emandako prestakuntzari zein egindako ikerketa proiektuei inguruaren arabera egokitutako osagai praktikoa gehitzen die. Horri esker, bada, etorkizuneko prestakuntza beharren aurretik doa.

“Deusto Business School” martxan dago jadanik. Euskadiko izen oneko lehen negozio eskola da, zuzendari eta enpresak prestatzeko ikastegi berri bihurtuko dena.

2008an “Deusto Business School” martxan jarri da. Euskadiko izen oneko lehen negozio eskola da, zuzendari eta enpresak prestatzeko ikastegi berri bihurtuko dena. Goi-zuzendaritzako programak ematen hainbat hamarkada egon ostean, berezko nortasuna duen negozio eskola bat sortzea erabaki du, exekutibo eta enpresei zuzendutako graduondoko ikastaroen zorroa sustatzeko. Ekimen hau Enpresa Zientzien Fakultatean sortu zen, “Komertziala” izenarekin ezaguna dena, eta ondoren Donostiako campuseko ESTE atxiki zitzaion.

Guztira arlo ezberdinetako 25 titulazio ditu, Diplomaturak eta Lizentziaturak batuz. Sona handikoenak Enpresen Zuzendaritzarekin zerikusia dutenak dira, 1886. urtean sortu zenetik aurrera eman den titulazioa berau. Gainera, 34 master ofizial eta 43 titulu propio ere badu bi campusetan, Bilbokoan eta Donostiakoan.

2008-2009 ikasturtean 7.085 ikasle izan dira guztira lehen eta bigarren zikloan. Irakasle eta ikertzaileak, berriz, 1.800 izan dira. 2008an, Deustuko Unibertsitatea EAE osoko liburutegi handienaren eraikitze prozesuari amaiera eman dio. Abandoibarrako kokagune ezin hobean, Rafael Moneok tradizioa eta berrikuntza uztartzen dituen eraikina egin du. IIBG/CRAI (Ikaskuntza eta ikerkuntzarako baliabideen guneak) liburutegian ia milioi bat liburuki gordetzen dira (XIV. mendetik XIX. mendera arteko lan inprimatuak dituzten 60.000 aleko funts Zahar eta historikoa barne).

40 milioi euro inbertitu dira liburutegia digitalaz gain irakurketa aretoetan 1.000 mahai jartzeko eta bakarka lanean aritzeko balio duten 44 gela egiteko, baita Deusto Business School zentroa udalerrian kokatzeko ere. Azken hau aurten eraiki da zuzendaritzako hezkuntzan “world-class” kategoria lortzera begira.

Prestakuntza maila ezberdinetako parte-hartzaileen lan munduratzea

Lanbide Heziketako ikasleen lan munduratzea. 2006ko promozioa.

LHko titulua dutenen lan munduratze maila neurtzen duen Bizitza aktiboan sartzeari buruzko inkestaren arabera, ikasketak 2006an bukatu zituzten Bilbo metropolitarreko ikasleen arteko okupazio-maila Plentzia-Mungian erregistratu den %78,9tik Eskuinaldeko %63,5era doa.

Bilboko eremuan, enplegatuen ehunekoa %64,5era iritsi da, iazko ekitaldiko tasa baino 5,1 portzentaje-puntu txikiagoa. Bilbo metropolitarreko gainerako eskualdeetan ere okupazio-mailak gora egin du. Gauza bera gertatu da EAE osoan (%67,9).

Lanbide-arloei erreparatuz gero, fabrikazio mekanikoa, ostalaritza eta ibilgailuen mantentze-lanak dira lan munduratze maila hoberena lortu dutenak. Halaber, prestakuntza amaitzerakoan langabezia, okupazioa eta jarduerarik ezaren arteko oreka handiagoa erakutsi dute. Kontrako muturrean daude lehen sektorearekin zerikusia daukaten jarduerak, hala nola zura, altzariak edota administrazioa.

Lanbide heziketako ikasleen lan munduratzea prestakuntza zentroaren lurralde geografikoaren arabera. 2006. urtea.

LURRALDEA	Ikasleak	Langabeak	Okupatutakoak	Jarduerarik gabe
Bilbo	2.017	%15,1	%64,5	%20,4
Plentzia-Mungia	26	%5,3	%78,9	%15,8
Ezkerraldea	1.088	%17,6	%68,5	%13,9
Eskuinaldea	388	%19,9	%63,5	%16,6
Ibaizabal	193	%9,4	%73,1	%17,5
EAE	**7.204**	**%13,8**	**%67,9**	**%18,4**

Iturria: Lanbide.

EHUko ikasleen lan munduratzearen bilakaera promozioen arabera. 2000-2004

Interesgarria da oso EHUko promozioen lan munduratze mailaren bilakaera aztertzea. Inkesta egin duten azken promozioen datuei kasu egiten badiegu, EHUko ikasleen okupazio-maila graduatu eta hiru urtera %83tik (2001eko promozioa) %89,8ra bitartekoa da (2004ko promozioa). Aztertutako epe bereko langabezia-tasaren batezbestekoa %10,1ekoa da. Emaitzarik txarrena 2001eko promozioari dagokiona da, %12,9, hain zuzen, eta hoberena, 2004koa, %6,6 besterik ez.

Jarduerarik ezak %4 inguruko joera jarraitua du aztertutako urteetan: hasierako %4,3tik azken urteko %3,6ra doa.

EHUko unibertsitateko ikasleen lan-egoera. 2000-2004ko promozioak.



Iturria: Lanbide. Lan munduratzeko inkesta. Graduatu eta hiru urte geroago jasotako datuak.

Enplegu tasarik handiena duten ezagutza eremuak ikasketa teknikoak eta osasun-ikasketak dira.

EHUko unibertsitateko ikasleen lan munduratze tasak. 2004ko promozioa (2007ko azaroa – 2008ko urtarrila).

EZAGUTZA EREMUA	*Jarduera tasa*	*Enplegu tasa*	*Langabezi tasa*
Zientzia esperimentalak	*%92*	*%86*	*%7*
Zientzia teknikoak	*%97*	*%94*	*%3*
Osasuna	*%98*	*%95*	*%3*
Gizarte zientziak	*%96*	*%88*	*%8*
Zientzia ekonomiko-juridikoak	*%97*	*%89*	*%8*
Giza zientziak	*%94*	*%82*	*%13*
Batezbestekoa	***%96,5***	***%89,8***	***%6,9***

Iturria: UPV/EHU – Unibertsitatea zenbakietan.

EHUko 2004ko promozioak %89,8ko enplegu tasa izan zuen batez beste, aurreko ikasturtearena 3 portzentaje-puntutan gaindituz. 2003ko eta 2004ko promozioen aldaketaren saldotik titulazio guztien enplegu-tasaren hazkundea eratortzen da. Horien artean, Giza Zientzien (6,2 puntu) eta Gizarte Zientzien (5,2) hazkundea nabarmendu beharra dago.

Enplegu tasarik handiena duten ezagutza eremuak ikasketa Teknikoak eta Osasunekoak dira, %94-95 inguruko enplegu-tasa agertzen baitute. Aldiz, lan aukerarik gutxien duen ezagutza eremua gizarte-zientzietakoa da, non langabezia-tasa %13ra iristen den. Halere, datu hori 2003ko promozioarekiko portzentajezko 5 puntu beherago dago. Gizarte ikasketetan ere nabaritu da langabezia-tasaren beherakada garrantzitsua, %13tik %8,4ra. Izan ere, ezagutza eremu orok egin du behera langabezia-tasari dagokionez. Bestalde, aipagarria da ere jaitsiera txikiena eduki duen ezagutza eremua zientzia ekonomiko-juridikoak izatea (-%0,7).

Atzerritarren hezkuntza maila

EINren datuen arabera, EAEko guztirako atzerritarrak 116.650 izan ziren 2008an, hau da, aurreko urtean baino 18.126 pertsona gehiago eta guztirako biztanleriaren %5,4. Dena den, zifra hauek oraindik ez dira Espainiako egoeraren adierazgarri, estatuan dagoeneko %11,4 egiten duten 5,3 milioi atzerritar bizi direla kontuan hartuta.

Bizkaiak atzerritarren erdia hartzen du ia-ia (58.130), baina portzentualki Araban dago inmigrazio tasa altuena (%7,3). Bizkaian, Bilbo dugu atzerriko biztanle kopuru nabarmenena biltzen duena (%43,5), kanpotik etorritako 25.263 pertsona baitaude bertan erroldatuta.

Atzerritarren kopuruaren gorakadak eragin bera sortzen du hezkuntza arloan, batez ere eskolan, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan. Horrela, bada, nahiz eta 2000. urtean eskolatutako atzerritarrak %1 besterik ez izan, 2008an %7,4 izatera iritsi dira. Beraz, ikasturte honetan, atzerriko 2.908 ikasle berri izan ditugu gure artean. Sistema publikoaren eta itunpekoaren guztirako zifrei begiratuz gero, 26.475 pertsona zenbatu dira urte honetan.

2000. urtean eskolatutako atzerritarrak %1 baziren, 2008an %7,4 izan dira.

Atzerriko ikasle tasaren bilakaera EAEn (2000-2001 ikasturtetik 2008-2009 ikasturtera).



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Guk egindakoa

Euskal hezkuntza sistemaren xedea ikasle atzerritarrak sare publikoan eta pribatuan zuzen banatzea bada ere, errealitatea bestelakoa da eta sare publikoan ikusten da atzerritar gehien. Hortaz, eskolatzeko adinean dauden kanpoko ikasleen gorakadaren "gainkarga" hori sare publikoko irakasleengan ezartzen da.

Zehazki esanda, 2008an 19.985 ikasle eskolatu dira sare publikoan, guztirakoaren %75,5. Gehienbat sare publikoan sartzen diren HHEko matrikulazioak kanpo utziko bagenitu ere, atzerritarren kopurua %66,5ekoa izango litzateke.

Atzerriko ikasleak mailaren eta sarearen arabera. 2008-2009 ikasturtea (Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioa).

SAREA	Publikoa	Pribatua	GUZTIRA
HAUR HEZK.	2.717	896	**3.613**
LEHEN HEZK.	5.414	2.335	**7.749**
DBH	2.995	2.285	**5.280**
HHE	7.324	99	**7.423**
BATX. ETA LH	1.491	845	**2.336**
HB	44	30	**74**
GUZTIRA	**19.985**	**6.490**	**26.475**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Guk egindakoa.

Atzerriko ikasleak jatorriaren arabera. 2008-2009 ikasturtea (Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioa).



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Guk egindakoa.

Egoera gero eta zailago bihurtzen da, ikastetxe batzuen eta besteen arteko aldea erabat nabaria delako. Nahiz eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zentro bakoitzeko ezarritako atzerritarren gehienezko kopurua %30ekoa izan, dagoeneko hogeita hamar dira portzentaje hori gainditzen duten ikastetxe publikoak. Alderantziz, ikastetxe gehienetan (%55), ikastalde bakoitzeko atzerritarrak %5 dira gehienera jota ere.

Bereizkerirako joera honi aurre egiteko, Hezkuntza Sailak Kulturartekotasunerako eta ikasle etorri berrien inklusiorako programa martxan jarri du, aurten 17,8 milioi euroko aurrekontua duena. Programa honen xedea aniztasuna errespetatu eta desberdintasunak baztertuko dituen eskola inklusiboa eraikitzen laguntzea da.

Dagoeneko martxan badiren baliabideen osagarri izateko sortu da, adibidez, atzerritar kopuru handia duten ikastetxeetarako kulturartekotasun koordinatzaileak proposatzea, edota hizkuntza indartzeko irakasleak sartzea, ikasturte honetan 275 izan direnak.

Grafikoan ikasle atzerritarren banaketa ageri da, haien jatorriaren arabera.

Hizkuntza ereduei dagokienez, A eredua (gaztelaniaz) da gehien eskatzen dutena, izan ere, etorritako %44 espainiera hitz egiten duten herrialdeetatik baitatoz. Dena den, azpimarratzekoa da, baita ere, azken bost urteetan gaztelaniazko ereduan eskolatu direnak %15 gutxiago izan direla, eta horrekin D ereduan (euskaraz soilik) sartu direnen kopurua igo egin dela.

kultura eta kirola


Foto: Bilbao Turismo.

BilbaoLan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

7. kapitulua

Kultura eta kirola

7. Kapitulua

Kultura eta kirola

Kultura

Guggenheim Bilbao Museoa 1997an ireki zenetik Bilbok eta bere metropoliak bizi izandako eraldaketak, hiri osoarena zein jarduera ekonomikoarena, eskaintza kulturala biderkatzea ekarri du. Izan ere, biztanleria gero eta landuagoaren behar berriei, alde batetik, eta Bilboko ekonomiak hirugarren sektorerantz egindako norabide aldaketak sortutako eskakizunei, beste alde batetik, erantzun emateko egokitu da eskaintza kulturala, bisitarientzako erakargarriago bilaka dadin.

Testuinguru honetan, duela hamar urte Bilbao Metropoli 30 deritzon Bilbo Metropolitarra Berpizteko Elkarteak hiriguneak eraberritzeko prozesuan kultura ekipamenduek duten garrantzia nabarmentzen zuen plazaratu zuen bilakaeraren txostenean. Bertan zera adierazten zuen elkarteak:

“Hiriak ohiko aktiboei –artea eta kultura– etekina ateratzen ari dira hiriguneak berpizteko. Museoak, antzokiak, operak eta entzungelak baliatzen ari dira garapen ekonomikoa sustatzeko. Azpiegitura kultural hauek ekonomiaren eta hiriaren beraren berreskuratze prozesu handiagoaren barne beste eraikin eta eremuekin hartu-emanak izateko sortuak dira, hain zuzen.

Kultura ekipamenduek, gainera, hirien arteko lehiakortasun eta sormen eta segurtasun maila handiagoak lortzen laguntzen dute, baita gizarte kohesioa lantzen ere, kultura arteko zein gizarteko belaunaldien arteko ulermena areagotu ahal izateko. Horrezaz gain, herritarrek garapen kolektiboan parte har dezaten lagungarri dira, zeren nortasun sentimendua barneratzea eta tokiko tradizioak aldeztea edo sortzea baitakar.

2008an Bilboko Udalak 3.000 ekintza kultural sustatu ditu eta hauetan milioi erdi herritar baino gehiagok hartu du parte.

Bilbo metropolitarraren oraintsuko bilakaeran, kulturari dagokionez, inbertitzeko ahalegin handiagoa da nagusi, horren bitartez lortu baita Bilbo metropolitarrak aisiari eta kulturari ondo loturiko hiri baten irudia eskaintzea”.

Abiapuntu hori izanik, Kultura eta Hezkuntza Sailaren bitartez, Bilboko Udalak hiribilduaren jarduera kulturalaren kudeaketa eta dinamizazioaren alde egiten du nabarmen, jarduera anitz antolatuz eta zerbitzu ezberdinak eta entitate egonkorrak eskueran jarriz. 2008an antolatutako ekintzak 3.000tik gora izan direla azpimarratu beharra dago, guztira hiriko milioi erdi pertsona baino gehiagoren parte-hartzea eskatu dutenak.

Bestalde, liburutegi sarea edo udal artxiboa bezalako zerbitzu egonkorrek eta bestelako entitateek, hala nola, Bilbao Musikak, Arriaga Antzokiak eta Bilbao Arte Fundazioak, Bilboko biztanleen eskaera, interes eta arduren beharra asetzeko programazio eta zerbitzu-eskaintza osokoa eta etengabekoa eman zuten, kultura eta arte adierazpeneko modalitate eta genero guztietan.

Udalaren eskutik, Promobisa elkarteak zenbait ekintza garatu da ekitaldi handietako formatua erabiliz, hiria sustatzeko eta, sinergiak baliatuz, bisitariak erakartzeko ere. Hirian izan duten eraginarengatik uda hasieran egiten diren musika jaialdi bi aipatu behar dira: aurrena, Bilbao BBK Live jaialdia, bere 3. urtean, ia 80.000 pertsona batu baititu. Bigarrena Kobetasonik jaialdia da, 2008koa bere lehen urtea izanik, heavy eta rock musikaren inguruan bi egunetan 53.000 musikazale baino gehiago biltzea lortu duela.

Jarduera hauek guztiak eta museoen eskaintza, abangoardiako azpiegitura kulturalak eta sektoreko ekimen pribatuaren esfortzuak zein aurrera egiteko grina Bilboko eta inguruetako izaera kulturalaren parte dira. Horiei esker, hiritarren bizi-kalitatea hobetzen da eta bisitariak etor daitezen metropolia erakargarriago bihurtzen da.

BIBLIOTECAS

Bilbok eskaintza ezin hobea jartzen du eskura dagoeneko 14 zentro dituen Udal Liburutegien sarearekin (beste liburutegi publiko batzuk eta pribatuak gehituz gero, 20 izango lirateke): Bidebarrietako Liburutegi Nagusia, Deustuko eta Begoñako barrutietako liburutegiak, 9 auzoko liburutegi San Ignazio, Zurbaranbarri, Otxarkoaga, San Frantzizko, San Adrian, Zabala, Errekalde, Irala eta Zorrotzan, Bilbao Musika (musikara soilik zuzendutako funtsekin) eta Buiako zerbitzugunea. Halaber, Garellanoko liburu-gordailua dago nahiz eta pertsona orori irekita ez egon. Gordailu honek liburutegi sareko funtsen zati handi bat hartzen du liburutegien arteko mailegu eta zerbitzuetarako.

Bilboko Udal Liburutegien Urteko Memorian azaltzen den legez, 2008. urtea emankorra izan da, errendimenduaren adierazle guztietan islatu denez.

Liburutegietara egindako bisitak %2 igo dira; gorakada handiegia ez izanagatik, urteetan zehar agertutako beheranzko joerari buelta emateko nahiko izan da. %10,3 igo da, bestetik, kide berrien kopurua (azken urteetan erregistratutako igoerarik nabarmenena), beraz, dagoeneko 78.000 pertsona dira Bilboko udal liburutegietako erabiltzaile-txartela daukatenak.

Bilboko liburutegien gaineko adierazleen bilakaera, 2004-2008.



Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

Orain arte ere haien kopurua aski nabarmena izanagatik, katalogo bibliografikoan eta web orrian egindako kontsultek gorantz jarraitu dute (%168,5 eta %20, hurrenez hurren). Etxerako maileguak %12,6 egin du gora eta Internet bidez berritutako maileguen kopurua ia %23 igo da aurreko urteko datuarekin alderatuz gero.

Liburutegiek antolatutako jardueretan parte hartu duten pertsonen kopuruak ere gora egin du %10,7, liburutegietan zein haietatik kanpo egin direla. Teknologia berriei dagokienez, %5,4 pertsona gehiagok erabili dituzte liburutegietan eskuragarri jarritako ordenagailuak. Are gehiago, beren ordenagailua liburutegi zenbaitetan egokitutako WIFI guneetan erabili dutenen kopurua %158,5 igo da.

Udal liburutegiek doan ematen dizkiote hiritar orori informazioa, kultura eta ezaguerarako sarbide zerbitzuak. Horrela, adin guztietarako eta gai askotako 300.000 ale baino gehiago jartzen dituzte beraien eskura, ondoko euskarri hauetan: liburuak, aldizkariak, egunkariak, CD-ROMak edo DVDak. Horiez gain, zerbitzu hauek ere eskaintzen dituzte: laguntza pertsonalizatua informazio bilaketan, liburutegiak ezagutzeko ikastaro eta bisitaldiak, jarduera kulturalak, Internetera sarbidea doan, biztanleria osoari zuzendutako irakurketa suspertzeko liburutegietako programak eta katalogora sartzeko eta abarretarako baliagarria den web orri bat.

2008ko Bilboko liburutegien datuak.

LIBURUTEGIA	Bisitak	Bisita/biztanleko	Erabiltzaileak	Maileguak	Funtsak	Barrutiak
Deustu	85.915	2,7	10.586	54.306	24.075	Deustu
San Ignazio	29.073	1,5	5.548	28.578	19.477	
Zurbaranbarri	7.122	0,6	1.981	6.999	8.795	Uribarri
Otxarkoaga	21.686	1,9	2.494	12.135	15.576	Txurdinaga-Otxarkoaga
Begoña	73.533	1,2	10.759	46.441	27.230	Begoña
Bidebarrieta	320.115	0,9	29.154	175.234	123.172	Ibaiondo
Bilbao Musika	15.866	-	811	5.069	7.252	
San Adrian	7.910	0,7	1.604	6.498	8.091	
San Frantzizko	24.195	2,3	2.929	12.358	16.198	
Zabala	2.650	0,4	607	4.042	3.640	
Errekalde	48.873	1,4	6.869	26.649	13.887	Errekalde
Zorrotza	30.059	2,5	3.244	17.634	14.558	Basurtu-Zorrotza
Irala	10.468	0,9	**1.666**	8.472	8.449	Errekalde
Buia	273	0,9		323	5.108	Ibaiondo
Garellanoko liburu-gordailua				2.034	63,398	Basurtu-Zorrotza
Guztira	**677.738**	**2**	**78.252**	**406.772**	**358.906**	

**Irala/Buiako erabiltzaileak lehenengoari atxiki daitezke.*

Iturria: Bilboko Udaleko Kultura Saila.

ARTE ESZENIKOAK

ANTZERKIA, DANTZA ETA MUSIKA

Bilbao Eszena

BILBAO ESZENA antzerki baliabideen zentroa, 2004ko martxoaren 27an, hau da, Antzerkiaren Mundu-mailako Egunean bertan inauguratu zen udal zerbitzua da. 600 m²-ko azalera du, denetariko baliabide material eta teknikoez hornitutako entseguetarako doako areto handi bi hartzeko nahikoa. Bi areto horiez gain, lanerako edo bilerak egiteko aproposak diren gelak ere badira bertan, ordenagailua eta Internet WIFI eta guzti, baita arte eszenikoen gaineko dokumentazio zentro bat ere. Hori guztia arte eszenikoetan prestakuntza, sormena eta ekoizpena errazteko xedeaz bideratu da. Esandakoez gain, Barrutietako Udal Zentroetan ere entseguetarako beste 7 areto daude erabiltzaileen eskura.

Zentro hau bokazio berritzaileaz sortua izan da, udalerriko antzerki eta dantza talde amateurren eta konpainia erdi profesionalen zerbitzura zein arte eszenikoetan interesaturik dagoen pertsona ororen zerbitzura egoteko asmoarekin. Zentroaren xede

nagusia, hortaz, Bilboko antzerki amateurraren eta erdi profesionalaren lana babestea eta zabaltzea da eta, harago joanez, Bilbo Handikoa eta Bizkaiko probintzia osokoa ere bai.

2008an zehar, zentroak Antzerki hastapenetako zein hobekuntzako ikastaroak, Eszenakoak, Umeentzako Antzerkia, Antzerki musikala, Antzerki hastapenetako familientzako klaseak eta hainbat ikastaro monografiko antolatu ditu, besteak beste. Guztira, prestatutako ekitaldietan 14.834 parte-hartzaile bildu da.

2007-2008 ikasturtean (urritik ekainera), urteko ikastaroetan matrikulatutako ikasleak 133 izan dira. Ikasle horietatik %42k euskaraz emandako ikastaroetan izen eman dute eta %48k gaztelaniaz eskainitakoetan. Gehienbat udalerriko bertakoak izan dira, %74,4, eta gainerako %24,7, Bizkaiko hainbat tokitatik etorritakoak. Euskaditik kanpo etorri direnak %1era ere ez dira iritsi.

Bilbao Eszena egitasmoaren barne Hiribilduko antzerki eta dantza amateurreko eszena osatzen duten taldeen emanaldiak ere sustatu eta antolatzen dira. Zirkuitoa programa dugu horren adibide bat, taldeek Barrutietako Udal Zentroetan euren lanak aurkezteko aukera izan dezaten sortutakoa.

Zirkuitoak antzerki amateurreko taldeetako jarduerak sustatzen ditu. 2008. urtean 24 konpainiek hartu dute parte (2007an baino 8 gehiago), eta sei hilabetetan zehar programatutako 25 emanaldietara 1.680 ikusle bertaratzea lortu dute. Hori horrela, Arte Eszenikoetako antzerki amateurreko erreferentziazko zirkuitu bihurtu da, Euskadin dagoen bakarra, hain zuzen. 2001ean martxan jarri zenetik izan duen ikusle kopuru guztirakoa 18.000 pertsonakoa izan da egindako 180 emanaldietarako.

Arriaga Antzokia

Arriaga Antzokiaren historia Hiribilduaren Antzokia zeritzonarekin hasi zen. Eraikin honek, gaur duen kokapen bera izanik, 1886ra arte iraun zuen zutik, bi karlistada eta Bilboko setioak lekuan igaro ondoren eraisteko itxi zutenen arte. Bost urteko lanak eta milioi bat pesetako inbertsioa eginda, 1890ean Arriaga Antzokia jaso zuten, eta oraingo honetan, bertako plazaren izen bera hartu zuen (Juan Cristóstomo de Arriaga Bilboko konpositorearen omenez).

1914ko abenduaren 22an sute batek ia guztiz suntsituta utzi zuen eraikina. Federico de Ugalde arkitektoak berreraiki zuen eta 1919an inauguratu zen berriro.

Ireki orduko “lehen mailako” plazatzat hartu zutenez, garai hartako aktore eta antzerki munduko konpainia berebizikoenak izan ziren Bilbon. Gerra Zibilaren garaian bere jarduera bertan behera utzi beharra izan zuen, baina Arriagak ohi bezalako normaltasuna berreskuratu zuen gatazka amaitu eta gero.

1978an Bilboko Udalak Arriagaren jabetza bere gain hartu zuen eta berriz eraberritu zuen. 1986. urteko abenduan, bada, beste behin ireki zituen ateak, dagoeneko udaleko kapitalarekin soilik kudeatutako sozietate anonimoaren eskuetan zegoela. Aro berri honetan, agertokia punta-puntako artista eta ikuskizunekin bete

Arriaga Antzokiko 2008ko ikuskizunak, generoaren arabera.



Iturria: Arriaga Antzokia (Bertaratutakoen eta okupazio-mailaren estatistika).

2008an Arriaga Antzokiak bere historia osoko okupazio-mailarik altuena izan du.

du, erabateko estreinaldiak hartu ditu eta, horrezaz gain, gerora munduko hainbat plazatan aurkeztu diren muntaketen ekoizpena ikusi du.

2008an Arriaga Antzokiak bere historiako okupazio-mailarik altuena izan du, kasik %69,35era iritsi baita. 63 ikuskizun ezberdinen 235 emanaldi eskaini ditu, guztira 173.861 ikusle batu dituztenak. Ikuskizun bakoitzeko batez beste 781 ikusle izanda, aurten antzokiak 186 egunez ireki ditu ateak.

Egindako 63 ikuskizun horien artean, 20 antzerki muntaketa, 16 dantza ikuskizun, 7 kontzertu, 9 opera etxe, zarzuela 1, 3 musikal eta mota anitzeko beste 7 ikuskizun izan ziren.

Pertsona kopuru handiena batzen duen generoa musikala da, mota honetako lanak ikustera guztirakoen %29 bertaratu baitzen. Hala, bada, ikusle gehien izan dituzten ikuskizunak bi musikal izan dira: “Hoy no me puedo levantar” eta “High School Musical”. Ondoren, antzerki-lanak izan dira ikusienak, %24rekin, eta dantza ikuskizunak, %16rekin. Sara Barasen lanak izan dira beste behin genero honen barne ikusle gehien lortu dituztenak.

2008an bildu duen diru-kopurua 3.403.527 eurokoa izan da. Ikusle bakoitzeko bildutakoaren arabera, musika ikuskizunak dira diru gehien batzea lortu dutenak (%36,3) eta kontzertuak gutxien bildu dutenak (%11,2). Diru-sarrerarik nabarmenena lortu duena “Hoy no me puedo levantar” izan da, 1.374.352 eurorekin, guztirakoaren %40,3, hain zuzen ere.

BAD (Bilbao Antzerkia Dantza)

BAD Bilbao Antzerkia Dantza, hots, Bilboko Antzerki eta dantza garaikidearen jaialdiak, hamar urte bete ditu 2008an. Urteurrena ospatzeko, 22 konpainiaren laguntzaz, 58 ekitaldiko programazioa antolatu du. Guztira, ikuskizunok 3.536 ikusle izan dituzte.

BAD Bilboko Udalaren Kultura eta Hezkuntza Saileko erronka dugu. Honen xedea zera da, sortzaile berrien abangoardiako ikuskizun berritzaileagoak eta, batez ere, ohizkotik kanpo direnak oholtzara eramatea, antzerkia gazteei hurbiltzeaz gain epe luzera harekiko atxikidura izan dezaten balio duen plataforma izan dadin.

Euskalduna Jauregia

2003. urtean “World´s Best Congress Centre 2003” Apex Award deritzona jaso zuelarik, hau da, nazioarte mailan dagoen saririk gorena, Bilbo berriaren eraldatze eta sendotzearen mugarri adierazgarrienetarikoa dugu. 53.000 m²–ko azalera duen erabilgarritasun anitzeko konplexua da, instalazio berritzaileekin horniturikо hainbat gune barne sartzen dituena. Azken hauen kalitatea eta konplexuak eskaintzen duen zerbitzu sorta dira onespen maila altuaren berebiziko oinarria.

1999ko otsailaren 19an inauguratu zen Federico Soriano eta Dolores Palacios arkitektoek sortutako lana: etengabeko eraikitze-prozesuan dagoela ematen duen itsasontzia, Euskalduna ontziolako dike batetik irteten ari dela ematen duela.

Foto: Bilbao Turismo.

Bilboko erdigunean kokatuta dagoelarik, ekonomia- eta enpresamunduko zein erakundeko, gizarteko eta kulturako jarduera sorta zabala hartzen du. Hemen garatzen da, halaber, ABAOren Opera Denboraldia, Estatu osoko eta Europako garrantzitsuenetarikoa eta izen onenekoa. Bilbao Orkestra Sinfonikoak, 1922an lehen kontzertua eman zuen musika erakunde bikainak ere egoitza du bertan.

2008. urtea Euskalduna Jauregiaren historiako ekitaldirik onena izan da, dudarik gabe, 861 ekitaldi eta emanaldi hartzeaz gain (2007an baino 11 gehiago) %94ko okupazio-maila izan baitu.

Lortutako zifrak ezin hobeak dira kultura jarduerei soilik kasu egiten badiegu ere, urte honetan 346 emanaldi taularatu dituelako. 326.277 ikusle izan dituela, sarreren salmentagatik 9 milioi euro lortu ditu jauregiak. Biltzar jarduerak direla-eta bertaratutakoen kopurua gehituz gero, milioi erdi pertsona inguru lirateke guztira.

2008an, 800.000 eurotik gorako superabitarekin amaitu du urtea, zera, ez du diru-laguntza publikoren beharrik izan. Are gehiago, 2008an Jauregiak bultzatutako jarduerak Euskadiko BPGdarengan 60 milioi euroko eragin ekonomikoa izan du.

Musika jarduera eta ikuskizunei dagokienez, honako hauek izan dira programatutako 346 emanaldiak: orkestra eta abesbatzen 79 kontzertu; musika klasikoko 11 kontzertu eta errezitaldi; 63 Musika-Música kontzertu; 30 opera emanaldi; 18 ballet eta dantza emanaldi; 3 zarzuela; 100 antzezlan eta 42 kontzertu eta errezitaldi.

Ikuskizunen aniztasun honi esker, maila handieneko artistak etorri dira Euskaldunako agertokira, Asier Polo, Ainhoa Arteta, Soile Isokoski, Günter Neuhold, Pedro Halffter, Lorena Mc-Kennit, Luz Casal, edo Chick Corea eta John McLaughin, besteak beste.

Barakaldo Antzokia

Berritu eta gero, Barakaldo Antzokiak Barakaldoko eta inguruetako jarduera kulturalaren erreferentziazko azpiegitura izateari eutsi dio. Antzerkia, zinema, dantza, musika diziplina ezberdinak eta eskoletako ikuskizunak eskaintzen ditu.

2008. urtean 58.583 pertsonek gozatu dute 234 emanalditan aurkeztutako 156 ikuskizunez. 355.801 euro batu dira hauekin guztiekin.

156 ikuskizun horietatik 31 antzezlanak izan dira, batez beste 2,3 emanaldi egin dituztenak eta, guztira, 17.797 ikusle bertaratzea lortu dutenak. Halaber, 27 musika eta dantza ikuskizun eta ekitaldi liriko egin dira, 9.480 ikusle izan dituztenak. Zinema emanaldieta-

Euskalduna Jauregiko 2008ko ikuskizunak, generoaren arabera.



Iturria: Euskalduna Jauregia.

Barakaldo Antzokiko 2008ko ikuskizunak, generoaren arabera.



Iturria: Barakaldo Antzokia.

Bilborock-La Merced ekimenak Euskal Herriko Musika Artxiboa gordetzen du, hamar mila erreferentzia baino gehiago dituena.

ra bertaratutakoak 3.262 izan dira. Azkenik, Antzokian egindako jarduerekin amaitzeko, eskola-umeei zuzendutako 16 ekitaldiak eta jatorri anitzeko beste 45 aipatu behar ditugu, guztira 28.044 pertsonaren parte-hartzea izan dutenak.

Social Antzokia

Basauriko Social Antzokia 1993. urtean bigarren aldiz inauguratu zuten, arte eszenikoetarako eta zinemarako gune bezala. Basauriko Udal Kultur Etxearen kudeaketapean dago eta eskaintza multimedia (zinema, antzerkia, musika eta dantza) jartzen du eskura hainbat adierazpen mota bat eginez. Hala, merkatuari begira komertzialak direnak eta nortasun publikoko erakunde batek derrigorrez ikerketari eskaini beharreko tokia uztartzen eta hauen arteko oreka aurkitzen saiatzen denez, publiko heterogeneo eta zabalari egokituko zaion programazioa antolatzen du.

Kamerino zabalak eta ikuskizunetarako instalazio teknikorik aurreratuenak ere baditu, guztirako 756 ikuslerentzako edukierarekin. Zentroak 300 bazkide baino gehiago ditu.

2008. urtean zehar, 45.000 pertsona inguruk ikusi dituzte Social Antzokiko ikuskizunak eta zinema emanaldiak, aurreko urtean baino 8.000 gehiago. Bertaratu direnen artean, 27.000 zinemara joan dira eta beste 17.000 ikuskizun ezberdin ikustera. Hori horrela, aurreko urteko datuekiko 6.000 eta 2.000 ikusleren gorakada nabaritu da, hurrenez hurren. Bestetik, guztirako diru-bilketa 133.193 eurokoa izan da, 2007an baino 25.000 euro gehiago.

Basauriko udal antzokiaren agertokian aurten ikusi direnen artean Biarritzeko Balleta, Joaquín Achúcarro pianojolea edo “La Bohème” opera ditugu. Iaz ikusle gehien izan zituen ikuskizuna “Los Lunnis”-ena izan zen. Zinemari dagokionez, Anima Basauri deritzon Nazioarteko Animazio Zinemaldia azpimarratu behar dugu.

Bilborock-La Merced

Bilborock-La Merced Bilboko kultura jardueraren erreferentea da 1997. urtean ateak ireki zituenetik. 1.330 m²-ko azalerarekin eta gaur egungo teknologia ekipamenduekin, hiribilduko kultura jardueren ardatzetako bat da; musikatik antzerkira, eta bidean dantza, zinema edo poesia bezalako arte adierazpenak ere landuz doan kultura jarduera anitza garatzen da bertan.

Erabilera anitzeko areto bat izateaz gain, 500 pertsonentzako edukiera duena, musika-taldeek erabil ditzaketen zazpi lokal dauzka entseguetarako. Hauek behar bezalako ekipamendua daukate eta hosgabeturik daude.

Gune berean Euskal Herriko Musika Artxiboa gordetzen da, 10.000 erreferentzia baino gehiago dituelarik, kontsultarako multimedia sistema egokitu batekin ikus daitezkeenak.

Ageri denez, zentro honen jarduera aniztasuna ez da nolanahikoa; hala ere, BilboRock – La Merced proiektuaren 2008ko programazioan garrantzi handiena izan duten adierazpen eszenikoak 85 kontzertuak eta formatu txikiko 90 antzerki emanaldiak izan dira.

Instalazioetan hartu diren 299 ekitaldietan 52.734 pertsona batu dira, guztira, aurreko urteko datuetatik hurbil, hortaz. Era berean, batez beste 5 jarduera egin dira aste bakoitzeko.

Datuak datu, uda partean (uztaila, abuztua eta iraila) hogei bat ekitaldi besterik egiten ez direla kontuan hartuta, gainerako hilabeteetan eguneko 2 edo 3 jarduera ere egin ohi direla esan nahi du horrek. Izan ere, agertoki honek eskaintzen duen balioaniztasuna eta dinamismoari esker egin ahal izan da.

Azkenik, lortutako emaitzak, poesia errezitaldiak, kontukontalariak, prentsaurrekoak eta hitzaldiak bezalako jarduerak urteko programazioaren barne finkatu diren adierazgarri izan dira.

Bilborock 2008ko jarduerak eta bertaratutakoak.

JARDUERA	Programapeko ekitaldiak	Bertaratutakoak
Antzerkia	90	19.257
Kontzertuak	85	20.261
Zinema eta bideoa	42	4.249
Kontukontalariak	9	608
Txotxongiloak	15	525
Magia	6	1.499
Poesia errezitaldiak	7	460
Prentsaurrekoak	1	15
Biltzarrak-batzarrak	11	2.921
Dantza	2	682
Programatutako bisitak	2	18
Mota anitzeko ekitaldiak	11	1.918
Beste batzuk	18	321
Guztira	**299**	**52.734**

Iturria: Bilborock – La Merced.

Bilbaomusika

BilbaoMusika Bilboko Udalaren menpeko Tokiko Erakunde Autonomiaduna da, Musika Eskolaren, Udal Musika Bandaren, Udal Txistulari Bandaren eta Prestakuntza tailerren kudeaketa bere gain hartzen duena. Laburbiltzeko, udal mailako kultura musikala eta musika-adierazpenak sustatu eta zabaltzeaz arduratzen da.

Arautu gabeko musika irakasketak eman, kontzertuak, hitzaldiak eta entzunaldiak antolatu, musikarekiko zaletasuna eta hainbat ekimen garatzeko beste erakunde eta musika elkarteekin lankidetzan aritu eta halakoak egiten ditu proiektu honek kultura eta musika adierazpena zentzu zabalenean hedatzeko eta ezagutarazteko asmoz.

2008. urtean ondoko jarduketa-eremuetan jardun izan da:

Udal musika eskola

Entitate honetako matrikulazioek gora egin dute berriro 2008-2009 ikasturtean, guztira 1.556 matrikula lortu arte (aurreko ikastaroan baino %5,7 gehiago). Urte honetan ere, pianoa -291 ikasle berrirekin-, ohiko dantza -184 matrikulaziorekin- eta gitarra klasikoa zein elektrikoa -211 matrikula gehiagorekin- izan dira izen emandakoek gehien eskatu dituzten musika-tresnen diziplinak.

Bilborock, La Galera, Ayala Antzokia, Hika Ateneo, Euskalduna edo prestakuntza zentroak izan dira udalerriko erreferentziazko tokiak hamarka entzunaldi, kontzertu eta Jam Sessions deritzenak antolatzeko, ikasleen zein irakasleen eskutik. Honen inguruan, antolatutako hiru kontzertu ziklo nabarmen daitezke: Interprete Gazteena, Musikari Gazteen Kontzertuak eta Bidebarrieta Kulturgunean egindako Irakasleen Kontzertuen Zikloa.

Izen oneko profesionalak emandako Prestakuntza tailerretan aurreko urtearekiko %25eko igoera nabari da parte-hartzaile kopuruari dagokionez. Hori horrela, 130 pertsonak gai oso ezberdineko tailerretan izateko aukera izan du, Pedagogia eta abesbatzen zuzendaritzatik hasita, musika-tresnen mantentze eta konpontze lanetaraino.

Ikasturte honetan zehar Bilboko ikastetxeei eskainitako doako Kontzertu Didaktikoak 15 izan dira.

Urtetik urtera parte-hartzaile gehiago dituzten jardueren artean, Colonias Musicales de Verano – Udaleku Musikalak aipatu beharra dugu, gaztetxoentzako musika, kantua eta dantza bizigarri egiteko asmoarekin, haientzako bereziki prestatutako baliabide erakargarriak erabiltzen baitituzte, hala nola pintura, mimoa, marrazkia, koreografiak, eta halakoak. Udalekuak pasa den uztailean egin ziren BilbaoMusikan, 4 eta 12 urte bitarteko 160 haurrekin. Bukatzerakoan, azken kontzertu bat eman zuten Bilborock aretoan.

Udal txistulari banda

2008. urtean, Euskalduna Jauregian egin ohi dituzten kontzertuek hiribilduaren musika eskaintzako programazioaren barne lekua hartu dutela ageri da, jauregiko aretoetan batez beste 700 pertsona batu baitituzte. Era berean, jarduera hauetan hartu du parte: 48 protokolo edo inaugurazioko ekitaldi, 25 kalejira eta animazio ekitaldi Bilboko Zazpi Kaleetan zehar, eta 7 kontzertu EAEn barrena hainbat musika-talderekin (Ohiko Bandaz, akordeoiz edo ganbera taldeaz lagundurik).

Amaitzeko, ezin aipatzeke utzi 2008an segidako hirugarren urtez egindako Bilbao'2008 Bilboko Txistularien Alardearen antolakuntza, txistulari, dultzainari eta perkusiolari askoz gain, San Anton Abesbatza, Euskadi Brass Metal Boskotea eta beste hainbaten parte-hartzearekin ehun pertsonatik gora batu dituen ekitaldia.

Udal musika banda

El año 2008 ha sido de novedades para la Banda, al trasladar 2008an aldaketa anitz bizi izan ditu bandak, Arriaga Antzokiko denboraldiko kontzertuak Euskalduna Jauregiko Auditoriumera pasatu baitziren. Horrek zera ekarri du, urteko batez besteko okupazioak %2,44 gora egitea, hau da, kontzertuetan 10.000 ikusle baino gehiago izatea, guztira.

Era berean, Areatzako Kioskoan egin ohi dituzten udaberri eta uda parteko kontzertuekin zein protokolozko hainbat ekitaldirekin jarraitu dute, bai auzuneetan egindakoak, bai egun berezien kariaz bideratutakoak: Aste Nagusia, Musikaren Europako Eguna, Autorik Gabeko Eguna, Hiribilduaren Fundazioaren Urteurrena, Begoñako Amabirjinaren Erromeria, etab.

Bestalde, Tenerifen egindako Banda sinfonikoetako zuzendari, konpositore, moldatzaile eta instrumentisten IV. Biltzar iberoamerikarraren kontzertu batean parte hartu du.

Arte Eszenikoei zuzendutako kapituluari amaiera emateko, ezin aipatzeke utzi Bilbao Exhibition Centren egindako III Foro Internacional de Artes Escénicas Escenium 2008 edo Escenium 2008, Arte Eszenikoen Nazioarteko III. Foroa, Estatuko arte eszenikoen sormenezko, banaketa eta programazioko sektoreen topagunea izan zena. Escenium biltzarra da, baina ikuskizunak plazaratzeko eta merkaturatzeko tokia ere bada. Azken finean, lanerako tresna da, izatez.

MUSEO JARDUERAK

Guggenheim Bilbao Museoa

Guggenheim Bilbao Museoa, Frank O. Gehry arkitekto estatubatuarraren lan bikaina, XX. mendeko arkitektura eraikuntzen arteko abangoardiakoenen artean legoke. Museoak, guztirako 24.000 m²-ko azalera izanik, “egitura ausarteko eta diseinu berritzaileko mugarri arkitektonikoa da, bertan erakusgai dagoen artearen hondoko oihal paregabea osatzen duena”.

Erakusketa-eremuak 11.000 m² hartzen ditu, eta hiru mailatan banandutako 20 galeriatan egokitu da. Galeria hauetan nabarmenena tamaina handiko artelanen erakusketara zuzenduta dagoena dugu eta, nola ez, 50 metroko altuera duen erdiko ataria, bisitarientzako harrera-gunea eta norabide hartzeko tokia dena.

951.369 bisitari izan ditu Museoak 2008an, aurreko urtean baino %5 gutxiago. Inauguratu zeneko 1997. urtetik aurrera metatutako bisita kopuruari gehitzen badiogu, guztira 11.095.201 pertsona hartu ditu Museoak. 2008an jasotako bisitariek Bilduma iraunkorraren hiru aurkezpenez eta aldi baterako lau erakusketez gozatzeko aukera izan dute.

Museoa bisitatzen dutenen jatorri geografikoari begira, joera Bilboko turismo datu orokorren ildo beretik doala ageri da. EAEtik etorritakoak gehiago izan dira, iazko %6tik %10era igo baita zifra. Bizkaitarrak dira nagusi hauen artean, hau da, erkidego osoko %70. Bestalde, atzerritik etorritakoak %66ra jaitsi dira, 2007an baino portzentajezko puntu bat behera. Museora datozenen artean, Frantziakoak, Alemaniakoak eta Ingalaterrakoak dira gehienak.

Azken sei urteetan Guggenheim Bilbao Museoak publiko ezberdinen esku jarri dituen hezkuntza programetan parte hartu dutenen kopuruak gora egin du: hezkuntza arloko pertsonak, umeak, familiak, gazteak, lagunak, talde sozial baztertuak, etab. Horrela bada, 2008an 472.809 pertsonek hartu zuten parte programa hauetan, aurreko urtean baino %4,9 gehiago.

2007-2008 urteetako bisitarien ehunekoaren bilakaera, jatorri geografikoaren arabera.



Iturria: Guggenheim Bilbao Museoaren 2008ko balantzea.

2007-2008 urteetako atzerriko bisitarien ehunekoaren bilakaera, jatorri geografikoaren arabera.



Iturria: Guggenheim Bilbao Museoaren 2008ko balantzea.

Guggenheim Museoa Europako kultura erakundeen buru izaten jarraitzen du norbere burua finantzatzeko gaitasunari begira: %65.

1998-2008 urteetan Museoak euskal ekonomian izandako eragin ekonomikoa.



Iturria: Guggenheim Bilbao Museoaren 2008ko balantzea.

2008an, Museoak WikiDocentes proiektua ere jarri du martxan, mundu osoko museoetan aitzindaria den ekimena. Irakasleen artean informazio-trukea eta parte-hartzea sustatzea xede duen artearen inguruko on-line foro batean datza.

Bestalde, publiko orokorrarentzako eta Museoaren Lagunentzako 2008an bideratutako 20 jardueretan 359.253 pertsonek esku hartu dute.

Urte honetako arte programazioa ulergarriago egiteko diseinatutako lau gune didaktikoetan 269.316 pertsonek izen eman dute, guztira.

2008. urteko ekitaldi amaieran, Museoaren Lagunak 16.029 ziren, jadanik, hau da, Estatuko kolektiborik handiena eta Europako nabarmenenetarikoa. “Kide Korporatiboak” programaren kideen kopurua 146koa da dagoeneko.

Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerek Euskadiko BPGdarengan 231 milioi eurotik gorako eragin ekonomikoa izan dute 2008an. Arte-gune honetara etorritako bisitek egindako gastuaren ondorioz, BPGdeko 210.072.873 milioi eurotik gorako aberastasuna sortu da. Hori ez ezik, Euskadiko Herri Ogasunentzako 28 milioi euro baino gehiagoko ekarpena egin du Museoak eta, gainera, 4.196 lanpostu mantendu ditu.

Guggenheim Bilbao Museoa Europako kultura erakundeen buru izaten jarraitzen du norbere burua finantzatzeko gaitasunari begira. 2008. urtean erdietsitako indizea %65 ingurukoa da.

Bilboko Arte Eder Museoa

2008. urtean, Bilboko Arte Eder Museoak 100 urte egin ditu, “100 urteko historia, 10 mendeko artea” duen museoak, hain zuzen, bere lehenengo Mendeurrenaren kariaz egindako ospakizunaren izenburuak dioen bezala.

Gaur egungo Museoaren jatorria hasierako Arte Eder Museoan (1908an sortu zen eta 1914an ireki zituen ateak) eta Arte Modernoko Museoan (1924an inauguratua) dago. Instituzio biak eta bildumak 1945ean elkartu ziren, eta urte hartan bertan egin zen eraikin zaharra. 1970ean eraikin modernoa gehitu zen eta, 2001ean, berrikuntza lan handia egin ostean, Museoak gaur egun duen itxura hartu zuen.

Museoa erakundeek eta herritarrek egindako ekarpenekin eta museoak berak erositako lanekin bere bilduma osatuz joan da. Guztira, XII. mendetik gaur egunera arteko tarte kronologiko zabalaren adierazgarri diren 8.000 artelan baino gehiago dira. Pintura, eskultura, marrazki, grabatu eta dekorazio-artearen erakusgarrien adierazpen artistiko anitzak osatzen du bilduma.

Bilboko Arte Eder Museoak 223.197 bisitari hartu ditu 2008. urtean, hau da, 2007ko kopuruarekiko 58.294 bisita gehiago. Dudarik gabe, %35eko gorakada horren atzean Sorolla. Espainiaren ikuspegia erakusketa programazioaren parte legez hiribildura ekarri izana dago.

Hain tradizio luzekoa izanik eta bere bilduma bikainaren aberastasun eta interes handia dela-eta, Bilboko Museotzat hartu ohi da eta Bizkaiko lurraldeari ere oso lotuta egon da beti. Hori horrela, ez da harritzekoa, beste museoetan gertatzen denaren kontra, bertaratzen diren bisitariak nagusiki Bilbokoak eta Bizkaikoak izatea, batzuek eta besteek programazioen bisiten guztirakoaren %76 egiten baitute.

Hauen ondoren, atzerritik etorritakoak dira Bilboko museoaren proposamenak gustukoen dituztenak. Izan ere, Alemaniako edo Frantziako turistek gure hiribilduan horren ohikoak diren Kataluniatik edo Madrildik etorritako bisitarien kopurua gainditzen dute.

2008an Bilboko Arte Eder Museoak izandako bisita kopurua eta horien jatorria.



Iturria: Bilbao Arte Fundazioa.

Fundación Bilbao Arte Fundazioa

Bilbao Artek sortzaile gazteen eskura jartzen ditu bere proposamen artistikoak garatzeko behar dituzten bitarte eta azpiegiturak: lagaturiko guneak, grabatu eta serigrafia tailerrak, irudi digitala, eskultura, argazkilaritza, filmazio-platoa, dokumentazio zentroa eta proiektuetarako gelak.

1998an inauguratu zenetik, Bilbao Arte Fundazioko jardueretan parte hartu dutenen kopurua igo besterik ez da egin. 2008. urtean, fundazioak berriz ere nabaritu du guztirako bisitari kopuruaren gorakada urte honetan; guztira 37.620 izan dira, 2007an baino %9,6 gehiago.

Urtean zehar honako jarduera eta proiektu hauek ahalbidetu ditu:

- Proposamen artistiko ezberdinak garatzeko bekak. Bilbao Arte Fundazioak, BBK-ren lankidetzarekin, hautatutako arte proiektuak bideratzeko beharrezko diren material suntsikorrak eskaintzen ditu. 2008an 25 pertsonek jaso dute beka bana Fundazioaren barne.
- Nazioartean entzute handia duten sortzaileek landutako diziplina artistiko guztien inguruko ikastaro, mintegi eta hitzaldiak. Aldi berean, pintura, argazkilaritza, eskultura, irudi digitala eta grafikoa eta diseinua espezifikoki lantzeko tailerrak garatu dira.
- Erakusketa proiektuen komisario-lanetarako deialdiak.
- Sortzaile gazteen lanen erakusketak eta ate-irekitze jardunaldiak.
- Trukea Europako eta Amerikako beste arte zentro batzuekin.
- Aholkularitza artistikoa egitasmo instituzionalak garatzeko.

Ekimen hauek guztiak Bilbao Arteren funtsezko xede bikoitza lortzera zuzenduta daude: alde batetik, sortzaile gazteei profesionalizazio berebizikoa ematea, maila tekniko handiko lanak sortuz; eta bestetik, artearen arloan aritzeko azpiegitura modernoak artisten esku jartzea.

Ildo horretan, Zentroak artista gazteei euren sormenezko lanak gara ditzaten baldintza egokienak eskaintzen dizkie, egungo arte-praktikarako behar diren bitarteko guztiekin, hots, arte-sorkuntzarako espazio bat.

Bilbao Arte Fundazioaren erabiltzaile eta bisitarien kopuruaren bilakaera, 1998-2008.



Iturria: Bilbao Arte Fundazioa.

Bilbao Arteko jardueretako erabiltzaile eta bisitariak 2008an.



Iturria: Bilbao Arte Fundazioa.

Bilboko Artelan Berreginen Museoa

El Museo de Reproducciones Artísticas de Bilbao, fue creado en Bilboko Artelan Berreginen Museoa 1927an sortu zen arte klasikoaren maisulanen kopia bilduma gordetzeko. Horren asmoa, bizkaitarrek erreprodukzio horiez gozatzeko aukera izateaz gain, Arte eta Lanbide Eskolako Arte Ederretako saileko ikasleentzat eredu gisa baliagarri izatea ere bada. Museoaren geletan emandako marrazketa, modelagintza eta pintura klaseek, laurogei urte baino gehiagoren buruan arkitekto, artista eta artisauen belaunaldi asko eta asko prestatzeko balio izan dute.

Artelanak molde-lanak direlako dira hain baliagarriak bilduma hauek, zera, museo askotako artelanen aurreneko kopiekin eginda daude. Besteak beste, Florentziako Akademiako eta Vatikanoko, Berlingo eta Louvreko museoetako edo Museo Britainiarreko artelanak berregin ziren. Honi esker, hainbat maisulanen erreprodukzio zehatzak ikusteko aukera dugu, hala nola “Panateneas” edo “Partenoiko frisoa”, Michel Angeloren “Esklabuak” eta “Moises”, “Miloko Venus”, “Samotraciako Garaipena”, “Laocoonte”, “Apoxiomenos”, “Gabiesko Diana” edo “Belbedereko Apolo” eta “Belvedereko soina”, besteak beste.

2006az geroztik Mariaren Bihotzeko eliza zaharberrituan dago. Kokapen berri horretan, museoak dituen 197 kopien arteko 21 artelan daude ikusgai (etorkizunean instalazio zaharretan jarriko dira erakusgarri). Bestalde, mota orotariko kultura jarduerak egiteko erabiltzen da, moda desfileak, erakusketak...

Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa

Itsas Museoak Bilboko metropoliaren museo eskaintza zabala osatzen du. Bere edukiek, itsas jarduerak gizartearengan, ekonomiarengan eta inguruko ohiturengan izan zuen eraginaren berri ematen diote bisitariari. Itsasoari oso lotuta dagoen herri baten historiaren eta gaur egungo egoeraren atal garrantzitsua jartzen du erakusgai.

Xede horretarako erakusketa iraunkorrak eta aldi baterakoak eskaintzen ditu, eta bildumako ontziak zein museoa bisitatzen dutenak sartzen dituzten dikeak ere baditu erakusgai. Bestetik, dokumentazio zentroa, gela didaktikoa eta museo jarduera anitza eta kalitatezkoa posible egiten duten instalazio modernoak dauzka.

Euskal Museoa, Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa

Hiribilduko alde zaharrean, Donibane elizaren ondoan dago Euskal Museoa, San Andresko (1604) eskola jesuitaren izan zenaren eta antzinako Erruki-etxearen eraikinean. Eraikinaren berezko balioari, non klaustroak etxearen ardatzarena egiten duen, erakunde honek gordetzen dituen bildumen aberastasuna gehitu behar zaio, orube bizkaitar honen aztarnarik zaharrenetatik gure herriko tradiziozko bizimoduaren testigantzara arte.

Elizbarrutiko Arte Sakratuko Museoa

Gizakundeko moja domingotarren komentu zaharrean dago, Bilboko Udalaren jabetzapeko kokapenean. XVI. mende hasierako eraikin honek, batez ere Bizkaiko parrokietako, Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoko, Bizkaiko Foru Aldundiko eta zenbait komentu bizkaitarreko funtsak ditu erakusgai.

El Pobaleko Burdinola

Muskizen dago kokatua, Sorginlekuko El Pobal dorretxe ondoan. El Pobaleko burdinola XIII-XIV. mende inguruan zabaldu zen burdinola hidraulikoen motakoa dugu. XVIII. mendean, Villarías Markesa bizi zela, gaur ezagutzen dugun moduan zaharberritu zuten. Barakaldon jarri zen lehen Labe Garaia pizteko bertako sua erabili zela esan ohi da.

Burdinola hau harri-hormez eginda dago eta bere barruan instalazio hidraulikoa, forja eta ikaztegiak edo mea gordetzeko lekuak daude. Porra eta gurpil bertikala bere lekuan mantentzen dituen Bizkaiko burdinola bakarra da. Bertan bisita daitezkeenak ondokoak dira: ola osatzen zuten gelak, irinaerrotaren gelatxoa –guztiz osorik dago eta funtzionatzeko gai da oraindik ere- eta, amaitzeko, Salazartarren jauregi-etxea izan zena. Etxe hau orduko bizimoduaren adierazgarria dugu, gotikoko azken aldikoa. Olagizonak hartzeko eraiki zen XVI. mende hastapenetan.

El Pobaleko Burdinolak 15.060 bisita izan ditu 2008an, 2004an inauguratu zenetik kopururik handiena. Izan ere, %8,1eko gorakada izan du, aurreko urtean baino 1.139 bisitari gehiago izan baititu.

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa deritzona, Euskal Herriko meatzaritzaren historia eta kultura ikertzera eta zabaltzera zuzendutako zentroa da, Bizkaiko meatzaldeakoa, batik bat. Gallartako herrian dago, aire zabaleko burdina-ustiapen handiaren ondoan. Leku horretan Euskal Herri osoko altuera gutxieneko puntua aurkitzen da (aire zabalean), itsas mailaren azpitik 20 metrora.

Meatzaritzaren Museoaren helburuetako bat meatzaritzaren industria-ondarearen babesa da. Bizkaiko meatze-jarduerak ondare aberatsa utzi du Bizkaian, Meatzalde osoan zehar banaturiko industria-hondarretan. Museoak hauen ezaugarrien eta kokapenaren berri ematen du.

2008an zehar 12.000 pertsonen bisita jaso du, aurreko urtean baino %30 gehiago.

Argazkia: Enkartur- Turismoa Enkarterrietan.

Riaria, Industria Museoa

Museo honek 2006ko urtarrilean ireki zituen ateak Portugaleten, "oroimen historikoa" landu eta egi bihurtzeko. Hona hemen bere helburua: "Iraultza Industrialak inguru honetan izandako eragina ezagutaraztea, eta XIX. mende bukaeran eta XX. mendean zehar Bizkaiko eta Espainiako industrializazioan izan zuen zerikusiaren berri ematea".

Museoa Itsas Etxean dago, itsasadar erriberan kokatutako erabilera anitzeko eraikin modernoan. Duela urte asko Euskal Herriko garapena bultzatu zuten labe garaiek eta siderurgiak hartzen zuten tokira begira dago, egon ere. Bertan Bizkaiko Labe Garaietako piezak daude ikusgai. Lurralde honen ahalmen industrialaren berebiziko adierazlea izan zen enpresa hau hiru lantegi batu zirenean sortu zen: Altos Hornos y Fábricas de Hierro y Aceros de Bilbao, Barakaldon kokatua, eta La Iberia eta La Vizcaya, Sestaokoak biak. Horrela bada, lanabesak, makineria, tresnak, maketak, koadroak eta bestelako objektuak ikus daitezke Museoko areto ezberdinetan zehar, dagozkien azalpen panelekin batera.

UDAL JARDUERA KULTURALA

"Es en el municipio donde la persona primero reconoce su propia cultura, el ámbito en el que primero se estructura la identidad colectiva (Udalerrian bertan ezagutzen du bakoitzak berezkoa duen kultura, hasiera-hasieratik; nortasun kolektiboa egituratzeko aurreneko eremua da, izan ere)".[1]

Argazkia: Bilbao Turismo.

Bilboko Udaleko Kultura Sailak hiriko kudeaketa kulturalean aurrerapausoak egiten jarraitu zuen 2008. urtean, baliabide gehiago erabiliz eta kultura Bilbo berriaren hazkundearen funtsezko gaitzat hartuz eta sustatuz.

2008ko jarduera kulturala 8 Programa zabaletan bana daiteke, 54 proiektuen bitartez garatu ahal izan direnak. Ondorioz, 3.167 ekitaldi egin dira eta hauetan 591.004 herritarrek parte hartzeko aukera izan dute.

Aipatzekoa da Bilboko udalerriak kulturarako sarbidea pertsona ororen eskura jartzeko egiten duen ahalegina, udalerri guztiko barrutietan sakabanatutako liburutegi sarea mantentze-lanekin zein deszentralizatutako programazioko proiektuekin, udal zentroetan eta aire zabalean egindakoak. 2008an 614 ekitaldi eraman ditu aurrera horren inguruan, 53.243 pertsonen parte-hartzea izan dutenak.

Antzerki sormenari laguntzeko proiektuak ere sustatzen dira, 15.000 pertsonen esku-hartzea izan duen Bilbao Eszena egitasmoak erakusten duen legez. Horren osagarri, publiko berriak sortzera bideratutako programa litzateke, ikastetxeentzako ekintzak antolatzea xede nagusi duen proiektua.

Horrez gain, hirian dagoeneko ohikoak diren kultura adierazpenak ere badira, adibidez, Fant, Fantasiazko Zinemaren XIV. Zinemaldia edo Zinebi, Zine Dokumental eta Laburmetraia Nazioarteko 50. Zinemaldia. Azken honek, urte honetan 85 herrialdetako

[1] *Iñaki López de Aguileta, Cultura y Ciudad (2000).*

Bilboko Udalaren 2008ko kultura jarduerak. Osoko datuak.

PROGRAMAK	PROIEKTUAK	EKITALDI KOP.	BERTARATUTAKOAK
ARTE SORMENARI LAGUNTZA	Bilbao Eszena, Zirkuitoa, X Bilbao Antzerkia Dantza BAD	611	20.050
KULTURAREN HIRIBURU	Zinebi Nazioarteko 50. Zinemaldia eta Zinebiklub, IX Bilboko Kalealdia, Fant Fantasiazko Zinemaren XIV. Zinemaldia, II Aste Santua	118	50.446
KULTURA ERAKUNDE ETA ELKARTEAK	Bilbao Arte Fundazioa, TEA Bilbao Musika, Arriaga Antzokia	449	227.957
PUBLIKO BERRIAK SORTZEA	Bilbon Eskolatik Antzerkira, Bilboko Eskola Umeentzako XIII. Antzerki Lehiaketa, Bilboko Txotxongiloen Nazioarteko XXVII. Jaialdia, Dantza Eskoletara, Auzoko Txarteldegia.	412	27.388
LITERATURAREN SUSTAPENA	Bilboko Udal Liburutegien Sarea, Bilbaopoesía, Bidebarrieta Kulturgunea, Literatura Lehiaketak, etab.	514	118.423
MEMORIA ETA HIRIA	Bilbao Auzoz Auzo, Dantza Plazetan, Udaberriko Bertso Saioak, XX. Bilbainada Lehiaketa	237	49.658
HURBILTASUNEKOAK	Deszentralizatutako kultura programazioa, Expodistrito, Kultura Tailerrak, Bilbao Distrito Jazz, Gabonetako Abesbatza Kontzertuak	780	80.796
ZIENTZIA, ARTE ETA ZIENTZIA HUMANISTIKOEN KULTURA SUSTATZEA	Zientziaren VII. Astea, Bidebarrieta Zientifikoaren V. edizioa, Bilbao Arte eta Cultura 08.46	46	16.286
8 PROGRAMA	54 PROIEKTU	3.167 EKITALDI	BERTARATUTAKO 591.004 PERTSONA

Iturria: Bilboko Udaleko Kultura Saila.

2.849 filmen izen-ematea erregistratu du (2007an baino 201 gehiago), horietatik 80 nazioarteko lehiaketarako hautatu direla.

Azken urteotan, PROMOBISAren bitartez, Bilboko Udalak bultzatu dituen hiriaren sustapen lanei jarraiki, 2008an ere hiriaren irudiaren onerako etorkizuneko aukerak identifikatzeko ahalegin handia egin du. Horri esker, musika, kirola eta kulturaren arloan ekitaldi garrantzitsuak egi bihurtu ahal izan dira.

Musikari dagokionez, Bilbao BBK Live Jaialdiaren ibilbidea nabarmendu beharra dago, urte honetan hirugarrenez egin baita. Aurten ia 80.000 pertsona bildu ditu, ia erdia Estatuko gainerako erkidegoetatik zein beste herrialdeetatik zetorrela. Azken hauen artean, %7,9 Frantziakoak ziren, eta %1,6, Europako beste herrialdeetakoak eta EEBBetakoak.

Ekimen honek 10.496.361 euroko zuzeneko eragin ekonomikoa du udalerrian, berorrek ekarritako ondoriozko eraginak kontuan hartu gabe.

Jaialdi honen sinergiaz baliatzeko eta joera espezifikoagoa duen publiko baten eskariari arreta egiteko Kobetasonik jaialdiaren aurreneko edizioa jarri da martxan aurten, heavy eta rock musikan oinarritutakoa hau. Bi egunen buruan, 53.000 pertsonatik gora batu ditu jaialdi honek. Ekitaldiaren eragin ekonomikoa 7.795.000 eurokoa izan omen da.

Bestetik, moda edo gastronomia bezalako beste kultura arlo batzuetan ere izan direla ekitaldiak aipatu beharra dago, Bilbao International Art & Fashion eta Arts & Cook, hurrenez hurren.

Azkenik, Bilboko Udalaren Enplegua, Gazteria eta Kirola Sailak antolatutako hiriko gazteen adierazpenen inguruko lehen jaialdia nabarmentzekoa da, Jet Lag Bio 08 deritzona. Aurten, Bilboko, Berlingo, Dakarreko, Medellingo, San Frantziskoko eta Shanghaiko gazteek garatzen dituzten kultura adierazpen ezberdinei bidea ireki die jaialdiak.

Eguneko 3.000 pertsona baino gehiago elkartu dituen jaialdi parte-hartzailea eta berritzailea da.

Kirolak

2008an inbertsio handia egin da urritasunen bat daukaten pertsonei kirola hurbiltze aldera.

Ariketa fisikoa orokortzera begira herritarrek kirola egin dezaten, Bilboko Udalaren Enplegua, Gazteria eta Kirola Sailetik eta Bilbao Kirolak-Udal Kirol Erakundearen aldetik ere egiten ari diren sustapenaren ondorioz, azken hamarkadan gora egin dute kirol jarduerek. Hori horrela, udaleko kirol instalazioetan izen eman edo bertako ikastaroetan parte hartu dutenen kopurua igo egin da etengabe.

Izan ere, 2008. urtean, erabiltzaileen eta harpidetutakoen kopuruak orain arteko hazkunde joerarekin jarraitu du, nahiz eta aurreko urtearekin alderatuz jaitsi egin den. Hala, 43.701 harpidetu zenbatu da 2008an (banakako, familiako eta unibertsitateko abonamenduak) eta, guztira, udal kirol instalazioetako erabiltzaileak 69.601 izan dira, 2007an baino -0,9 gutxiago.

Sailak antolatutako kirol ikastaroetan 12.669 harpidetu dago jadanik, horietatik 2.571 2008an erregistratu diren harpidetu berriak izan direla, hau da, aurreko urtekoak baino %26 gehiago. Guztira, 715 talde osatu dira 49 kirol modalitate ezberdinetan: 36 dagozkien aretoen barne egitekoak, 6 igeritokikoak eta 4 kirol egokitukoak. Nabarmentzekoa da, baita ere, ikastaroetan izen eman dutenen %60 emakumezkoak izatea.

2008. urtean, Bilbao Kirolak-Udal Kirol Erakundeak inbertsio handia egin du instalazioak eta zerbitzuak egokitzera begira, batik bat urritasunen bat dutenentzako kirola egitea errazago izan dadin irisgarritasuna, erosotasuna eta funtzionaltasuna hobetzeko, bai aldageletan, bai instalazio guztietan. Gainera, udalaren kirol ekipamenduen segurtasuna areagotzeko neurri berritzaileak ezartzea xede izan du erakundeak.

Hiribilduko biztanleei kirola egiten laguntzeko 9 polikiroldegi dago Bilbon, hiriko barruti guztietan banaturik. Guztira, 37 gimnasio, 13 frontoi, 14 tenis pista eta 22 igerileku daude, beste ekipamendu batzuen artean.

Hori ez ezik, 8 futbol zelai daude udalerriko auzoetan sakabanaturik, aire zabalekoak eta belar artifizialekoak. Azkenik, Arraunketapabiloiko instalazioak ere aipatzeko modukoak dira, baita Esperanzako Frontoia ere, pilotan aritzeko.

Bilbao Kirolak-en izena eman duen pertsona kopuruaren bilakaera, 2000-2008.



Iturria: Bilbao Kirolak.

Kirol guneez gain Aire zabaleko kirol-eremuak ere badira, saskibaloia, ping-ponga, tenisa eta abar egiteko hirian egokitutako guneak. Herritar guztien eskura daude, oro har, doakoak dira eta ez dago erreserba egiteko beharrik.

Bilbao Kirolak-en kirol instalazioak 2008an.

KIROL-GUNEAK	Begoña	Artxanda	La Casilla	Deustu	Errekalde	S. Ignazio	Zorrotza	Atxuri	Abusu	Guztira
Pabiloia	1	1	1	1	1	1	1	0	1	8
Frontoia	6	3	0	0	2	1	0	0	1	13
Padela	0	4	0	0	0	0	2	0	0	6
Squasha	3	0	0	1	2	2	0	0	0	8
Belarrezko polikiroldegiko p.	2	1	0	1	0	0	0	0	0	4
Estalpeko erabilera anitzeko pol. p.	0	0	0	0	0	0	1	0	0	1
Gimnasioak	8	3	1	4	7	5	4	3	2	37
Tenis-pista	3	2	0	0	2	1	1	0	0	9
Estalpeko tenis-pista	2	0	0	0	2	1	0	0	0	5
Saskibaloi guneak	2	0	0	0	0	0	0	0	0	2
Estalpeko igerilekua	2	1	0	2	2	2	2	1	1	13
Estali gabeko igerilekua	3	3	0	0	3	0	0	0	0	9
Futbol zelaia	0	0	0	0	1	1	1	0	0	3
Errugbi zelaia	0	0	0	0	1	0	0	0	0	1
Beisbol zelaia	0	0	0	0	1	0	0	0	0	1
Gelak	2	0	0	0	0	0	0	0	0	2
Ambigú kafetegia	1	1	1	0	1	0	0	0	0	4
Jauzi-eremua	1	0	0	0	1	0	0	0	0	2
Atletismo-pista	0	0	0	0	0	0	1	0	0	1
Atletismo-pista zuzena	1	0	0	0	1	0	0	0	0	2
Billar-aretoa	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Hondartza boleibol pista	0	0	0	0	1	0	0	0	0	1
Rokodromoa	0	0	0	0	1	0	0	0	0	1
Sauna	0	0	0	1	0	1	0	0	0	2
7na jokatzeko futbol zelaia	0	0	0	0	2	2	2	0	0	6
Ikasketa gelak	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1

Iturria: Bilbao Kirolak

Bestalde, Bilbao Kirolak-ek kirola sustatzera urte honetan zuzenduko duen diru-kopuruak nabarmen egin du gora. Diru-laguntzen guztirakoa 363.050 eurokoa izango da aurten, hain zuzen. Beraz, aurreko urteko aurrekontuarekiko igoera %136koa izan da, batez beste. Diru-laguntza hauek hiru ataletan bana daitezke: gizarte eta federazioetako ekimenak garatzeko eta kirol entitateen lekualdatzeak sustatzeko laguntzak; parte-hartzeko kirol programentzako laguntzak; eta, amaitzeko, hiribilduan garatzen diren kirol ekitaldi jakin batzuetarako diru-laguntzak.

Horrela, Bilbao Kirolak Nazioarteko III. Milia edo Indoor Futbol Liga Nazionaleko I. Txapelketa bezalakoak sustatu dira eta, modu zabalagoan, Everestera igoteko mendizale bilbotarren lehen ekimenari ere babesa eskaini zaio, 2008ko maiatzaren 22an gailurrera iritsi zirenak.

Udalaren eskutik eta Promobisa elkartearen bitartez, formatu handiko kirol ekitaldiak bideratu dira, hiria sustatzeko eta bisitariak sinergia baliatuz erakartzeko xedearekin: Bilbao-Bizkaia Masters Tenis Txapelketaren Finala; Efrén Vázquezi motoziklismoaren gailurrean aritzeko emandako babesa, 2008an 125cc-ko abiaduran Espainiako Txapeldun titulua lortzen lagundu duena; eta, azkenik, Mundobasket 2014 ekimenaren egoitza izateko Bilbo hautagai ofizialen zerrendan sartzea.

lan merkatua



Bilbao Lan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

kapitulua

8.

Lan merkatua



8. kapitulua

Lan merkatua

Lan eta gizarte ingurua Europan eta estatuan

ENPLEGU POLITIKA EUROPAR BATASUNEAN

Europako Gizarte Barneratzeko Estrategia, Lisboako Estrategia izenez ezagutzen dena, Lisboan eta Feiran bildu zen Lisboako Europako Kontseiluan sortu zen 2000. urteko ekainean. Bertan, hainbat akordio lortu zen, eta ezarri ere bai, gainera, 2010. urtera arteko gizarte politikaren ildoak. Helburu nagusia errotik ateratzea izan zen Europar Batasunetik pobrezia eta gizarte bazterketa.

2008ko uztailaren 2an, Europako Batzordeak ekimen pakete bat aurkeztu zuen esparru sozialean, hainbat politika bilduaz ikuspuntu integratu batekin, eta Europa Sozialarekiko konpromiso berrian. Pakete honek erakusten du zelan lagundu dezakeen EBk aukerak sortzen, sarbidea errazten eta solidaritatea erakusten: ekimen berriak hartuz, enplegu sorkuntza, hezkuntza, eta ahalmenen garapena suspertzeko, bereizketaren aurka borrokatzeko, mugikortasuna bultzatzeko, eta europarrek bizitza luze eta osasuntsuagoak izan ditzaten bermatzeko.

Gizarte Agenda Berrituak indartzen eta osatzen ditu politika nazionalak eta Enplegu eta Hazkunderako Lisboako Estrategia, eta ondoko helburuak ezartzen:

- Aukerak sortu, hau da, lanpostu gehiago eta hobeak sortu, mugikortasuna erraztu, eta bereizketa zuzena edo zeharkakoa eragiten dituzten oztopoak deuseztatu. Bermatu, guztiek beren ahalmenak garatzeko aukera izan dezatela, Europako aniztasuna errespetatuz.
- Gizarte egoera ahuleneko pertsonei sarbidea eskaini, hauen aukerak ere bermatzeko. Sarbidea bermatu, heziketa, gizarte babesa, osasun-arreta eta kalitate altuko zerbitzuetara, hauek denek ezberdintasunak gainditzen lagundu dezaketelako. Gazteria hornitu, eta heziketa eta gaitasunen garapenerako sarbidea bermatu norberaren bizitza osoan zehar.
- Elkartasuna erakutsi, gizarte egoera ahuleneko pertsonei lagunduaz, hauen gizarte barneratzea bultzatu, eta arazo iragankorren arriskuan daudenei lagundu.

2008an Europan jazotako lan-gertaera nagusienen artean, nabarmentzekoak dira, gehienezko lan denborari buruzko Zuzentaraua, aldi bateko lan agentzietako lanari buruzko Zuzentaraua, eta itsas sektoreko gizarte agenteen arteko Akordioa.

LAN ETA GIZARTE EGOERA ESPAINIAKO ESTATUAN

Zazpigarren urtez jarraian, CEOEk eta CEPYMEk, CCOO eta UGTrekin batera, Konfederazio Arteko Akordioaren luzapena sinatu zuten 2007ko Negoziazio Kolektiborako, aldi berean, irizpide, orientabide, eta gomendioz hornituz, hitzarmenen negoziatzaileak 2008ko negoziaketarako.

Horrela, 2007an hitzartutako edukiei, lau gai berri erantsi zitzaizkien 2008rako, lau eranskinetan emanak agertu zirenak:

- Testuinguru ekonomikoan diren Erakunde enpresarial eta sindikalen balantze bateratua egiten da, eta honetan kokatu behar da 2008ko Negoziazio Kolektiborako Konfederazio Arteko Akordioa.
- Hauetan jasotzen dira gai haiek zeinetan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna erdiesteko Lege Organikoak negoziazio kolektiboari egiten dion erreferentzia.
- Lan arriskuen prebentzioaren gaian gomendatzen da, Espainiako Lan Osasun eta Segurtasunerako Estrategian hitzarturikoaren ildotik, sektore hitzarmenetan, lan osasun eta segurtasunaren hedapen eta sustapen programak zehaztea, eta langileen parte hartzea bultzatzea, beren prebentzio betebeharren burutze arduratsuan.
- Eta bertan jasotzen da ere, 2006ko apirilaren 26ko, lantokiko erasoei eta indarkeriari buruzko Akordio marko europarra.

Gainera, Gizarte Elkarrizketaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordeak, Gobernu ordezkariek, CEOEk, CEPYME, CCOO eta UGTk osatua dagoenak, 2008ko uztailaren 29an onartu zuen “Ekonomia, enplegua, lehiakortasuna eta gizarte aurrerapena sustatzeko Adierazpena” izeneko dokumentua.

Adierazpenean, beharrizan hauek erakusten dira:

- Produktibitatearen irabazietan oinarrituriko hazkunde ekonomiko orekatu eta egonkorra berreskuratzea.
- Enpresen finantzaketa beharrizanei aurre egitea, bereziki ETEenak, ez bakarrik hauen bizirautea lortzeko, baizik, baita ere, inbertsio proiektu berriei lagundu eta iniziatiba berriak sustatzeko.
- Zerbitzu eta ondasun merkatuak gaitasun handiagoz hornitzea, gure lehiakide nagusien aurrean inflazio diferentziala gutxitu eta egitura erreformak burutzeko asmoz.
- Zientzia eta teknologia sisteman, eta enpresetan, ahalmen ikertzaile eta berritzailea handitzea.
- Giza kapitalean inbertitzea, gure hezkuntza sistema hobetuz, eskola porrotaren tasa gutxituz, eta lanbide heziketa eta honek enpleguarekin duen lotura indartuz.



- Enplegu Zerbitzu Publikoen funtzionamendua eta osagarritasuna hobetzea.
- Enplegua eta immigrazioaren arteko lotura hobetuko duen politika migratzailea garatzea, horretarako lan merkatuaren beharrizanei estu loturiko immigrazio politikak jarriaz martxan.
- Espainiako Lan Osasun eta Segurtasunerako Estrategia garatzea. Eta horretarako indartu nahi dira Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskapenaren giza baliabideak, eta baliabide materialak, eta gizarte ordezkariekin beharrezko diren araudi eta antolakuntza erreformak aztertu.

Beharrizan hauek aintzat hartzeko, hainbat alorretan jardungo da: gizarte elkarrizketaren markoan, enplegu politiketan, immigrazioan, enplegu berdintasunean, prestakuntza eta inbertsioan giza kapitaletan, negoziazio kolektiboan eta gizarte babesean, hala zelan, momentu bakoitzean garrantzitsu deritzen beste hainbat gaietan ere, beti ere ekonomiaren suspertzea, enplegu sorrera, eta gizarte kohesioa bultzatzeko.

Lan Merkatuaren ikuspegi orokorra

EAE da Lisboako goi-bileran 2010erako ezarritako helburuetatik puntu gutxien (2,0) urruntzen den erkidegoa

Jarduera ekonomikoaren hondatzeak nabarmen eragin zuen lan merkatuan 2008 urtean zehar, eta jaitsiera hau urteko azken hiruhilekoan nabarmendu zen, biztanleria okupatuaren eboluzioak erakusten duen lez, honek hazkunde negatiboak erakutsi zituenez joera positiboko urte askoren ondoren. Enpleguaren suntsiketa hau zela eta, langabezia tasa goratu egin zen, eta aurreikuspenek erakusten dute igoera hau mantendu egingo dela denboran, eta gogorragoa izango dela euro zonaldean baino.

Ekonomia kontuetako enpleguaren azterketari begira, lanpostu kopuruaren dezelerazioa nabarmentzen da. Dezelerazio hau eraikuntzaren sektorean hasi zen 2007an eta gainontzeko sektoreetara igaro zen 2008 urtean zehar. Eraikuntza sektoreak etxebizitzarako inbertsioaren murrizketa argia nabarmendu zuen, eta finantziazio baldintzen gogortzea. Industria, era berean, 2007an indarberritu ondoren, enplegua galduz joan zen pixkanaka hiruhilekoz hiruhileko 2008an zehar, bitartean zerbitzuak ageri dira gainontzeko adarretako eboluzio negatiboa orekatzen.

2008ak lan kontuan ahultze zeinuak erakusten dituen arren, enplegu tasaren 2008ko batez bestekoak bai adierazten du beherakada txiki bat hurbileko eremuetan eta estatuko inguruan, nahiz eta Europar Batasun 27an zelanbaiteko igoera izan den 2007ko ekitaldiaren aldean. Esan beharra dago EAE dela Lisboako Gailurrean 2010erako ezarritako helburuetatik puntu gutxien (2,0) urruntzen den erkidegoa (%70).

Arreta emakumezkoen enplegu tasan jartzen badugu, urtez urte du emaitza positiboa azterturiko alor guztietan, egia bada ere Europar Batasunak duela igoerarik handiena. Estatuko esparrua da urrutien dagoena (5,2) Lisboako Helburuak markatzen duen emakumezkoen enplegu tasatik (%60). 2000. urtearen aldean, esan liteke denbora epe honetan jauzi kualitatibo handiena eduki duen adierazlea dela, emakumezkoa lan mundura sartzearen ondorioz, eta igoera hau bereziki nabarmentzen dela Bizkaian (18 puntu), EAEn (16 puntu) eta Espainian (14 puntu).

55 eta 64 urte bitarteko adin taldearen enplegu tasak ere joera ona erakusten du 2008an, eta hamarrenen bat hazten da kontuan harturiko esparru guztietan. Kasu honetan Bizkaia da ezarritako %50eko helburutik gehien urruntzen dena, ia 8 puntuko aldeaz.

Enplegu Tasen Bilakaera 2000-2008. Lisboa eta Stockholm-eko helburuak. (%).

	ENPLEGU TASA GUZTIRA			EMAKUMEZKOEN ENPLEGU TASA			55-64 URTE ARTEKOEN ENPLEGU TASA		
	2008ko enplegu tasa	Helburuetarako falta da	2000 urtetiko aldaketa	2008ko enplegu tasa	Helburueta-rako falta da %60	2000 urtetiko aldaketa	2008ko enplegu tasa	Helburueta-rako falta da %50	2000 urtetiko aldaketa
EB 27	65,9	4,1	3,7	59,1	0,9	5,4	45,6	4,4	8,0
Espainia	64,3	5,7	8,2	54,9	5,1	13,7	45,6	4,4	8,8
EAE	67,6	2,4	10,4	58,8	1,2	15,8	45,4	4,6	11,4
Bizkaia	65,8	4,2	11,7	57,2	2,8	17,9	42,1	7,9	9,0

Iturria: Eustat (Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta) eta Eurostat.

BIZTANLERIAREN LAN EGITURA

EAEko lan panoramari arreta ipiniaz Eustatek egiten duen BJAren bitartez, sumatu genezake zelan lanpostu sorrera moteltzen joan zen 2007aren aldean, eta 3.000 lanpostu baino gutxiago sortu azken urtean. Kopuru hauek eten egiten dute azken urteetan data hau bitartean ezarritako joera positiboa, orduan lortu baitziren enpleguaren maximoak eta langabeziaren adierazleen minimoak.

EAEko Lan Adierazleen Bilakaera 2004-2008. (Pertsonak milaka).



Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta.



16 urte edo gehiagoko biztanleria jardueraren arabera EAEn 2008an.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Biztanleria Aktiboa	1.005.100	570.200	435.000
Lanean Dabilen Biztanleria	967.400	550.600	416.700
Biztanleria Langabetua	37.700	19.500	18.200
Biztanleria Ez-aktiboa	820.900	317.200	503.700

Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta.

Bizkaiko lan adierazleen bilakaera 2004-2008. (Pertsonak milaka).



Iturria: EUSTAT. Biztanleria Inkesta Jardueraren Lotuta.

Langabezia-tasa inkestatuaren bilakaera 2005-2008, esparruka.



** Estimazioa.*
Iturria: Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta. Eustat.

EAEn lanean dabilen biztanle kopurua 967.400 pertsonatara iritsi da, eta honek aurreko urteko kopuruekin alderatuta %0,3ko igoera, oso apala, adierazten du. Biztanleria aktiboari dagokionez, 2007an hasitako joera positiboak jarraitzen du 1.005.100 pertsonatara iritsiz, %0,8ko igoera leuna aurreko urtearen aldean. Langabezia tasari dagokionean, bai esan genezake, azken urteetako beheranzko joera apurtu dela %16ko igoerarekin urtebetean, eta 37.700 langabetu kopurura iritsita.

Generoaren ikuspuntutik aztertuta, biztanleriaren jardueraren araberako egitura azterketak erakusten digu gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago direla biztanleria aktiboaren artean (lanean direnak eta langabeak), eta emakumezkoak dira gehiengo ez-aktiboen taldean.

Lan Merkatuaren portaera Bizkaian oso lotua ageri da euskal multzo osoaren ezaugarriekin. Horrela, hainbat ugaritu dira pertsona aktiboak, lanean dabiltzanak eta langabeak. Igoerak urtebetean %0,8koak izan dira aktiboen artean, Guztira 525.200 pertsona izanik; lanean dabiltzan pertsonen multzoak %0,5 egin du gora, 502.400ko kopururaino, eta langabezia %10 hazi da, 22.800 pertsonako multzoa osatuz, eta aurretik gertatzen ari zen langabeziaren beheranzko joera apurtuz. Ez-aktiboen taldeak bere aldetik, %1,3ko jaitsiera xumea izan du, eta 458.100 pertsona ditu.

Generoaren arabera, desberdina da dinamismoa aurreko urtearen aldean, jorratzen den aldagaiaren arabera. Horrela, hazi egin da emakumezkoen talde aktiboa (9.000) eta ez-aktiboa gutxitu (-9.700). Aldaketa hau, krisi egoerak hainbat familiaren ekonomia hondatu izanaren ondorioz jazo da, emakumezkoak lan bila abiatzen direnez egoera konpondu guran. Honek, aldi berean langabezian den biztanleriaren hazkundea dakar (1.200), batez ere emakumezkoen sailean. Gizonen sailean berriz, aktiboen taldea txikitu egin da (-3.500), ez-aktiboena igo (3.600), langabetuak ere igo egin dira (800) eta lanean dabiltzanak urritu (-5.400).

Soldatapeko aldi baterako kontratudunen multzoak, urte askoan zehar jaitsi gabe egon ondoren, bigarren urtez erakusten du jarraian beheranzko joera. Estatu osoan jaitsi egin dira gizonezko zein emakumezkoen multzoak, eta gauza bera jazo da EAEn ere. Bizkaian, aldi baterako kontratudun soldatapekoen kopurua txikiagoa da 2008an, 2007an baino, baina emakumezkoek igoeratxo bat erakusten dute kontratazio mota honetan.

Inkestaren ikuspuntutik begiratuta, langabezian den biztanleriaren azterketak nahiko argi azaltzen digu bai EAEk eta bai Bizkaiak estatuaren eta Europar Batasun 27koen azpitiko langabezia tasa dutela. Horrela, gure eremu hurbilenekotan 2008ko langabezia tasa %4,5 eta %5 artean dabilen artean, estatuan %14raino puzten da eta 27en EBn %6,8koa da batez bestekoa.

2005etiko bilakaerak beheranzko joera erakusten digu eta 2007an erregistratzen dira minimoak, orduan lan merkatuak pribilegiozko egoera gozatzen zuenez, eta indizeak langabezia teknikoaren azpitikoak dira. 2008an gorakada txiki bat erakusten dute, Bilbo Handian izan ezik, eta hau da bakarra beherako bidean jarraitzen duena.

2008. urtea beste esparru batzuekin alderatzean, generoaren araberako desberdintzeak, gizonezkoen aldekoagoa den balantzea erakusten digu, hauek %4ko tasa izanik Bizkaian eta EAEn, %6,3koa EB-27an, eta %13koa Espainiako osotasunean. Emakumezkoek gizonezkoek baino kota altuagoa erakusten dute, puntu bat eta biren artekoa, esparruen arabera.

Langabezia-tasa inkestatua, esparru ezberdinetan, 2008an, generoaren arabera.

LANGABEZIA TASA	EB-27	ESPAINIA	EAE	BIZKAIA
Gizonezkoak	%6,3	%13,0	%3,4	%4,1
Emaku-mezkoak	%7,4	%15,0	%4,2	%4,6
GUZTIRA	**%6,8**	**%14,0**	**%3,8**	**%4,3**

Iturria: EB-27 – Eurostat, Espainia – INE eta EAE eta Bizkaia – Eustat.

Lan Merkatua eskualdeka Bilbo Metropolitarrean

ALDAGAI NAGUSIAK

Jardueraren araberako lan merkatuaren azterketa, Bilbo Metropolitarra osatzen duten eskualdeei begira, 2007. urtean Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza sailak eginiko Lan Merkatuaren Erroldari esker lortzen dugu, hau dugunez azken datu eskuragarria, eta aurreko urteetako datuekin batera berak ematen digu ikuspegi zabalagoa izateko aukera.

Bilbo Metropolitarraren inguruan 2007an, enplegu zenbaketa handiena bereganatzen duen eskualdea Ezkerraldea da 170.931 lanposturekin, eta honek, 2003an zenbaturikoen aldean, 17.000 lanpostu baino gehiagoko igoera adierazten du, handiena gainontzeko eskualde guztien artean. Hurrena Bilbo ageri da 150.399 lanposturekin, eta denboraldi honetan 12.000 lanpostu irabazi ditu. Esan beharra dago edonola, 2007ko

Bilbo Metropolitarreko enpleguaren bilakaera 2003-2007, eskualdeka.



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Eusko Jaurlaritza.



lanpostuak aurreko urtekoekin alderatuta, bi eskualde hauek direla atzerakada txiki bat jasan dutenak, azken urteetako igoera joera apurtuz.

Nahikoa urrun kokatzen dira Eskuinaldeko eskualdeak (72.626) eta Bizkaiko Kostakoa (54.778). Aurreko urtearekiko alderatzea kasu honetan positiboa da lanpostuen sorreran, batez ere azken eskualde honetan, eta 2003. urtera begiratuz gero, 5.000 lanpostu gehiago zenbatzen dira. Eskuinaldearen kasuan, lanpostuen alorrean lorturiko irabaziak 9.000 dira.

Enplegu tasari dagokionez, Bilbo Metropolitarra osatzen duten eskualdeetako bakar bat bera ere ez da heltzen euskal multzo osoaren batez bestekora (%68). Bizkaiko Kostaldea da EAEko batez bestekora gehien hurbiltzen den eskualdea, puntu eskas bateko aldeaz. Beste muturrean, eskualdeetako urrunena Ezkerraldea da (%65,2), atzetik Bilbo doakio %65,4rekin, eta azkenik, Eskuinaldea (%65,9). Gizonezkoen arteko tasarik altuena Eskuinaldean dago %77rekin, eta emakumezkoena Bizkaia Kostaldean (%57).

2007ko Enplegu tasa eskualdeka, generoaren arabera (%).

ESKUALDEAK	ENPLEGU TASA		
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	GUZTIRA
Bizkaiko Kostaldea	%76,6	%57,1	%67,1
Eskuinaldea	%76,9	%55,1	%65,9
Ezkerraldea	%76,6	%53,4	%65,2
Bilbo	%75,9	%55,2	%65,4
EAE	**%78,5**	**%57,4**	**%68,1**

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Eusko Jaurlaritza.

Enplegu tasaren bilakaera 2001-2007 (%), eskualdeka.



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Eusko Jaurlaritza.

Azken urteetako bilakaerak, enpleguaren hazkunderako joera erakusten du lau eskualdeetan bultzada handiarekin 2003tik aurrera, eta bereziki indartsua izan da Ezkerraldean 2001era itzultzen bagara, %65,2ko enplegu tasa lortuaz 2007an. Azken urtean enplegu tasa osotara gehien hazi den eskualdea Bizkaiko Kostaldea izan da, %3,9 puntuko hazkundearekin, eta %69ko tasa lortuaz 2007an, euskal batez bestekoa bera baino handiagoa. Esan beharra dago eskualde honek 2003ra arte igoera nabaria bereganatu zuela, baina hiru urtez gelditu egiten da, eta, 2007an berriro du bultzada garrantzitsua.

Bilbok ere bilakaera positiboa izan du, baina besteetatik hainbat bereizten da 2006ko alderatzea negatiboa duelako hamarren batez, besteek indar handiago edo txikiagoko igoerak erakusten dituzten bitartean. Eskuinaldeko eskualdeak jauzi handia egin zuen 2003 eta 2005. urteen artean, baina hainbateko geldialdia pairatu du gero igoeran, 2007an %66ko kopurua lortuz.

Biztanleria aktiboa

Jarduera tasak eta honen alderaketak esparru ezberdinen artean, erakusten digu, adierazle hau Autonomi Erkidegoko batez bestekoaren (%70,3) azpitik dagoela, Bizkaiko Kostaldeko eskualdea izanik honi gehien hurbiltzen zaiona %69,2ko tasarekin. Hurrena Bilbo eta Eskuinaldea ageri dira %68,8ko tasarekin. Ezkerraldea da txartoen kokatua dagoena %67,8 punturekin.

Adierazle honek azken urteetan zehar izan duen bilakaera ikusita, esan liteke bilakaera, orokorrean, positiboa izan dela, nahiz indartsuagoa ere bai zonalde batzuetan besteetan baino. 2001etik hona, igoera handiena Bilbon jazo da, non tasa 2,1 puntu hazi den. Ezkerraldea, bestalde, ia puntu bat hazi da, eta azkenik Bizkaiko Kostaldea, 0,1 apala. Eskuinaldeak ere tasa berau mantendu du.

Biztanleria jardueraren arabera, esparru desberdinetan* 2007.

ESPARRUAK	16-64 urte bitarteko biztanleria	Biztanleria aktiboa	Jarduera Tasa	Lanean dabilen biztanleria	Biztanleria langabetua	Biztanleria ez-aktiboa
Bizkaiko Kostaldea	81.628	56.463	69,2%	54.778	1.685	25.166
Eskuinaldea	110.224	75.812	68,8%	72.626	3.186	34.411
Ezkerraldea	262.105	177.597	67,8%	170.931	6.666	84.507
Bilbao	229.933	158.086	68,8%	150.399	7.687	71.847
EAE	1.425.959	1.002.357	70,3%	970.957	31.400	423.602

** Aztertuko diren esparruek Bilbo Metropolitarra osatzen duten udalerri gehienak biltzen dituzten eskualdeei begiratzen diete.*

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Eusko Jaurlaritza.

Bilbo eskualdeko gainontzekoek ere (Bizkaiko Kostaldea eta Ezkerraldea) EAEren azpitiko jarduera tasak dituzte, baina EAEko batez bestekora hurbilagokoak, %68,8, %67,5 eta %67,5ekoak, hurrenez hurren.

Goiko koadroko datuak aurreko urtekoekin alderatzen baditugu, ondorioztatu dezakegu, biztanleria aktiboa, hau da, lan egiteko prest dagoena, hazi egin dela Bizkaiko Kosta eta Eskuinaldeko eskualdeetan, euskal batez bestekoaren antzeratsu, baina jaitsi egin dela Bilbon eta Ezkerraldean. Biztanleria ez-aktiboaren aldetik, azterturiko esparruetan beherakako joera bateratua ageri da guztietan intentsitate handiagoz edo txikiagoz. Laneko adinean dagoen biztanleriari dagokionez, esparru guztietan jaitsi da, Bizkaiko Kostan izan ezik, non biztanleria %5 hazi den.

Lan egin gura baina ezin duten pertsonei dagokienean esan beharra dago kopurua gutxitu egin dela eskualde guztietan Eskuinaldean izan ezik, honek igoera garrantzitsua jasan duenez 2006ko 1.728 pertsonatatik 3.186 pertsonatara igaroaz 2007an. Lan egiten duten pertsona multzoak berriz, hazi egin dira Eskuinaldean eta Bizkaiko Kostaldean, baina jaitsi Ezkerraldean eta Bilbon.

Jarduera tasaren bilakaera esparru desberdinetan 2001-2007 (%).



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Eusko Jaurlaritza.



Adina

Bilbo eta EAEko enpleguaren egitura 2007, adinaren arabera alderatua.



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Eusko Jaurlaritza.

Bilboko eskualdearen eta EAEren artean, adinaren arabera, enpleguari buruz alderaturiko datuek, ez dute ezberdintasun handirik erakusten, nahiz eta kontuan hartu behar den, 45 eta 64 urte bitarteko pertsonen multzoa, handiagoa dela Bilbon EAEn baino (%38, EAEko %36ren aldean). Euskal multzoaren batez bestekoa puntu bat handiagoa da Bilbokoa baino gazteriaz ari garenean, eta 1,4 puntu garaiagoa, 25 eta 44 urte bitartean, eta tarte honetan kokatzen da lanean dabilen pertsona multzo handiena.

Generoaren eta adinaren araberako azterketa Bilboko udalerrira eramanez, eratorri genezake, 45 eta 64 urte bitarteko adin tartean gizonezko gehiago dabilela lanean emakumezko baino, erdiko adin tartean berriz, emakumezkoak dira gehiago. Gazteenen artean, aldea orekatuagoa dago, hemen ere emakumezkoen aldekoa den arren.

Bilboko Enpleguaren Egitura 2007, genero eta adinaren arabera alderatua.



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Eusko Jaurlaritza.

Jarduera sektoreak

Bilboko Eskualdeak zerbitzu sektoreko espezializazioa du ezaugarri, eta lau pertsonatik hiruk egiten du lan zerbitzu sektorean, Bilbo Metropolitarreko zonaldea izanik hirugarren sektoreak pisu gehien duena 111.292 pertsonarekin. Gainontzeko eskualdeetan ere hau da garrantzi gehien duen jarduera besteen aldean. Duda izpirik gabe, sektore hau urteetan zehar garrantzia irabazten joan da, industria lako beste batzuen kaltean, hau mugetako zonaldeetara mugitu denez, bereziki Bilboren kasuan, non jarduera honek erabiltzen zituen orubeek etxebizitzatarako erabili diren edota zerbitzuekin loturiko jardueretarako.

Industria jarduerak tradizio handia du EAEn, eta oso bereziki Bizkaian. Bilbon 23.698 pertsonari ematen dio lan, biztanleriaren %16ri. Kopuru hau, aztertzen gatozen eskualdeen arteko txikiena da, Bizkaiko Kostaldea izanik aldiz, industriak pisu gehien duena, EAEkoaren antzerakoa, %26,6rekin. Ezkerraldeak, tradizio handiko ingurua industria jardueretan, pertsonen %23,4 du sektore honetan enplegatua.

Eraikuntzak ere badu bere garrantzia, eta hirugarren postua hartzen du jarduera ranking-ean. Euskal batez bestekoa %9n dago, eta hori baino pisu handiagoa duten eskualdeak ere badaude, hala zelan, Ezkerraldearen kasua (%12,7), zeinen atzetik datorren Bilbo (%10), eta baita zifra horretara heltzen ez diren beste batzuk ere, zelan Bizkaiko Kostaldea (%7) eta Eskuinaldea (%8).

Nekazaritza nahiko hondarreko jarduera da gaur egun Euskal Herrian, baina badaude oraindik zonaldeak, nekazaritzak hainbateko presentzia mantentzen duenak. Hori da Bizkaiko Kostaldearen kasua, eta honek nekazaritza tradizioko eskualdea izaten segitzen du, biztanleriaren %3,7ko okupazio mailarekin, Ezkerraldean bitartean %1en inguruan baino ez dabil hau.

Lanean dabilen biztanleria 2007an eskualde desberdinetan, jarduera sektoreka (%).



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Eusko Jaurlaritza.

Bilbon, lanean dabilen biztanleriaren (150.399) jarduera-adarren araberako xehatzeak erakusten digu, zerbitzu sektorearen barruan lanean ari den biztanleria, gehienbat enpresa zerbitzuen eta merkataritza sektoreen artean banatzen dela, zeintzuetan beharginen %14,4k eta %13,4k egiten duen behar hurrenez hurren. Bilbon beharrean dabiltzan pertsonen %10ek eraikuntzan egiten du, eta %9k garraio eta komunikazioen alorrean, adar biak ere gizonezkoak nagusi dituztenak. Industria jardueraren barruan, gehienek adar metalurgikoan dute lana (%5), gizonezkoen presentzia handia duen sektorea hau ere.

Bestalde ordea, beharrean pertsona gutxien hartzen dituzten sektoreak dira Nekazaritza eta Erauzketa Industriak, Kautxua eta Beste industria ez metalikoak, guztien artean Bilboko biztanleria okupatuaren %1,4 baino hartzen ez dutenak.

Emakumezkoek garrantzi handiagoa erakusten duten sektoreak dira berriz, osasunarekin eta gizarte zerbitzuekin zerikusia dutenak, hezkuntzarekin, beste merkataritza zerbitzuekin, etxe-zerbitzuekin, eta ostalaritza eta enpresa zerbitzuekin.

Egitura profesionala

Bilbon 2007an lanean zebilen biztanleriaren egitura profesionalari dagokionez, Teknikariak dira kategoria ugariena enplegu guztien %31,6 bereganatuaz. Genero aldetik nahiko orekatua dagoen kategoria da. Ez da hala gertatzen Zuzendarien maila gorenarekin, enplegu osoaren %7 dena, eta nabarmen erakusten duena gizonezko profila, lau zuzendaritik ia hiru gizonezko direnez.

Badira beste maila batzuk, administrariena bezalakoa, batez ere emakumezkoak direnak enplegatuak (%61). Bestalde, Beste Langileak jasotzen dituen maila, askotarikoa da, barne hartzen dituenez langile kalifikatuak zein ez kalifikatuak, eta hauen artean, besteak beste, peoiak. Talde hau nahiko handia da eta 73.000 pertsonatik hurbil hartzen ditu, eta horietako %63 gizonezkoak.

Bilbon lanean dabilen biztanleria 2007, genero eta jarduera sektoreen arabera.

JARDUERA	Gizo-nezkoak	Emaku-mezkoak	GUZTI-RA
Enpresa zerb.	11.730	9.864	21.594
Merkataritza	10.500	9.640	20.140
Eraikuntza	13.616	1.579	15.195
Garraioa-komunik.	9.401	3.989	13.390
Osasuna-gizarte zerbitzuak	3.393	9.066	12.459
Hezkuntza	3.954	8.039	11.993
Administrazio Publikoa	5.012	2.453	7.466
Metalurgia	6.562	802	7.364
Beste merkat. zerb.	2.469	4.702	7.171
Ostalaritza	3.564	3.283	6.847
Etxeko zerb.	348	5.381	5.728
Finantza-erakundeak	2.484	2.020	4.504
Makineria eraik.	2.403	157	2.560
Paper ind.	1.734	781	2.515
Garraio mat.	1.839	233	2.072
Mat. elektrikoa.	1.212	749	1.962
Eskulan ind. anitzak	1.052	652	1.704
Energia ekoiz.	1.400	135	1.535
Ind. petrokimikoa	899	334	1.234
Elikadura ind.	503	364	867
Kautxu ind.	642	142	784
Beste ind. ez metalikoak	575	-	575
Erauzketa ind.	527	-	527
Nekazaritza	214	-	214
GUZTIRA	**83.033**	**64.365**	**150.399**

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Eusko Jaurlaritza.

Bilbon lanean dabilen jendea 2007, maila profesional eta generoaren arabera.



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Eusko Jaurlaritza.



Bere aldetik, gizonezkoen %55,9 tradizionalki gizonezkoenak diren sektoreetan dabiltza lanean, hala, Industria mota desberdinetan (erauzketakoak, kautxua, papergintza, manufakturak, petrokimika...), edo eraikuntzan eta material elektrikoetan.

KONTRATAZIOAK

Kontratazioak dira Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatzen duen beste adierazle administratiboetako bat, eta informazio interesgarria eskaintzen digu lan merkatuaren egoera ezagutzeko. Horrela, 2008an zehar eginiko lan kontratuak 360.320 izan ziren Guztira Bilbo Metropolitarrean eta honek beherakada garrantzitsua erakusten du aurreko ekitaldian erregistratu zirenen aldean, 14.587 kontratu gutxiago, horrela hautsiaz azken urteetako gorakako joera.

Bilbo Metropolitarrean eginiko Kontratuen Bilakaera 2006-2008.



Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Bere aldetik, Bilbo Metropolitarrean bizilekua Bilbon duten pertsonei egindako kontratuak, eskualdeko enpresetan edo kanpokoetan, 360.503 izan ziren. Kasu honetan ere atzerakada garrantzitsua da 2007an erregistraturikoen aldean, 25.102 kontratu gutxiago direnez, oso nabarmen bizituaz aurreko bi urteetan ematen hasitako beherakada, 437 kontratu gutxiago izan baitziren 2006 eta 2007 artean.

Horrela, bi ikuspuntuetatik aztertzen ari garen kontratu kopuruen arteko tartea estutu egin da, handiagoa izanik orain bizilekua eskualdean duten pertsonei egindako kontratuen multzoa.

Kontratuak bizilekua eskualdean duten pertsonen ikuspuntutik aztertzen baditugu, konparaketak erakusten digu %7 jaitsi direla aurreko ekitaldian erregistraturikoen aldean. Baina jaitsiera hau ez da berdina izan genero bientzako, gizonezkoen kontratuek %12ko jaitsiera izan dutenez, eta emakumezkoenek berriz, -%1ekoa baino ez.

Bilbo Metropolitarrean eginiko kontratuak 2008, genero eta adinaren arabera.

	Gizonezkoak			Emakumezkoak			GUZTIRA BM
	< 25 urte	25-44	>45 años	< 25 urte	25-44	>45 urte	
Bizilekua Eskualdean duten langileak 2008	47.780	100.525	23.241	48.805	106.094	34.058	360.503
Bizilekua Eskualdean duten langileak 2007	56.345	113.689	24.553	51.656	108.720	30.642	385.605
Aldaketa 2007-2008	-%15	-%12	-%5	-%6	-%2	%11	-%7

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Adinari dagokionez, pertsona gazteenak dira kontratu galera handiena jasan dutenak, eta hurrena 25-44 urte bitarteko adin ertaineko pertsonak. 45 urteak gainditzen dituztenen kontratu galerak %5 jaisten dira gizonezkoetan, baina emakumezkoen artean %11 ere igotzen dira erregistroak.

Jarduera sektoreka aztertuz, erraz sumatu genezake kontratu kopuru handiena Zerbitzuen sektorean jazo dela. Hurrengo sektoreak Eraikuntza eta Industria dira, baina distantzia handira. Multzo txikiena berriz, nekazaritza eta arrantza sektorean gertatzen da, baina hau da ostera, gutxi bada ere, 2007tik hazi den bakarra. Kontratu kopuruan gehien jaitsi den sektorea Eraikuntza da, %19 kontratu gutxiagorekin. Industriak %6 gutxiago du eta Zerbitzuek %5 gutxiago.

Bilbo Metropolitarrean 2008an eginiko kontratu motari begira, mugagabeak edota aldi baterakoak, ikusten da, 100 kontratutik 9 baino ez direla mugagabeak. Banaketa hau azken ekitaldietan erregistratu denaren oso antzekoa da. Aurreko urtean eman ziren kontratuen aldean, kontratu motaren ikuspegitik begiratuta, aurkitzen dugu, aldi baterako kontratuak proportzio handiagoan jaitsi direla (-%6) kontratu mota egonkorragoak baino (-%2,5).

Generoaren ikuspuntutik, emakumezkoak dira %1eko hazkuntza izan dutenak kontratu egonkorren artean, gizonezkoek bitartean %5 gutxiago izan dituzte mota honetako kontratu mugagabeak. Aldi baterako kontratuen kasuan, emakumezkoek %1,2 gutxiago izan dituzte, eta gizonezkoen kasuan -%12,5eraino igotzen da.

Bestalde, Bilboko udalerri barruko datuen portaera, Bilbo Metropolitarreko osoko datuen antzekoa da, ezaugarri berezi batzuk ageri diren arren. Udalerriak eskualdean duen eragina neurtu ahal izateko, esan beharra dago, Bilboko enpresetan egiten direla Bilbo Metropolitar osoko kontratuen %52, eta eskualdean bizi diren pertsonen kontratuen %40.

2008an Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren bulegoetan Bilbon bizi diren pertsonei egindako kontratuak, 143.785 izan dira, %7 gutxiago 2007an barrena eginikoak baino. Honek kontratuen formalizazioaren moteltze nabarmena erakusten du, momentuko lan merkatuaren eta orokorrean ekonomiaren ahuleziaren harian. Kontratu kopuruaren gutxitzeak batez ere gizonezkoei eta gazteenei eragin die.

Kontratuak jardueraren arabera aztertuz, 2008an zehar hazi egin dira osasun eta gizarte zerbitzuetako jardueretan erregistraturiko kontratuak (%16), hezkuntzan, energian, etxe-zerbitzua duten etxebizitzetan eta nekazaritzan. Bestalde, eraikuntzan kontratu gutxiago sortzen dira, berezkoa denez higiezinen krisiaren ondorioz, eta baita ere, industrian, merkataritzan, administrazio publikoan, zerbitzu pertsonaletan, bitartekaritza finantzarioan eta higiezinen jardueretan, alokairuetan eta enpresentzako zerbitzuetan. Ostalaritza ostera, lehengo moduan mantendu da.

Kategoria profesionalen arabera azterturik, kontratu hazkundeak izan dira, 2007aren aldean, teknikarien multzoan eta sukaldaritza zerbitzuetako langileen artean. Beste kategoria guztietan, langile kalifikatuek eta ez-kalifikatuek, administrariek edota zuzendaritzakoek, kontratu kopuru txikiagoa izan dute.

Bilbo Metropolitarrean 2008an egindako kontratuen banaketa eta urte-arteko aldaketa, jarduera sektoreka.

	Bizilekua Eskualdean duten langileak 2008	*Aldak. % 2007-2008*
Lehen sektorea	*2.088*	*%3*
Industria	*25.823*	*-%6*
Eraikuntza	*30.919*	*-%19*
Zerbitzuak	*301.673*	*-%5*

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Bilbo Metropolitarrean bizi direnei eginiko kontratuen bilakaera, motaren arabera, 2007-2008.

	2008	*2007*	*Aldaketa 2007-2008*
MUGAGABEA			
Gizonezkoak	*16.625*	*17.574*	*-%5,4*
Emakumezkoak	*15.485*	*15.370*	*%0,8*
Guztira	*32.110*	*32.944*	*-%2,5*
ALDI BATERAKO			
Gizonezkoak	*154.921*	*177.013*	*-%12,5*
Emakumezkoak	*173.472*	*175.648*	*-%1,2*
Guztira	*328.393*	*352.661*	*-%6,9*
GUZTIRA BM			
	360.503	*385.605*	*-%6,5*

Iturria: Lanbide, European Force Task (EFT) eta BJAtik eratorritako datuetatik.



Ikasketa mailari dagokionean, ikusi liteke zelan kontratuen multzorik handiena egiten zaien maila akademiko ertain-baxua duten pertsonei, kalifikazio berezirik ez dutenei (%78), eta honek badu loturarik aurreko azterketarekin, kategoria profesional bilatuenak direnez, hain zuzen, kalifikazio txikienekoak.

Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratu diren 100 kontratuko 92 izan dira aldi baterako izaera izan dutenak. Kontratu tipologia hauek hala ere, urtebete lehenago izanikoak baino hainbat gutxiago gertatzen dira, %7 gutxiago 2008 guztian barrena. Eta hala egiten dute ere atzera mugagabeko kontratuek %3. Hazten den kontratu mota bakarra erretiro partziala da (%1), gainerako guztiak gutxiago dira.

Aldi baterako kontratuen iraupenari dagokionean, azpimarratu behar da aldi baterako 100 kontratuko 38k, 30 egunetik azpiko iraupena dutela, eta beste hainbeste direla ere iraupen zehaztu bakoak.

Begiratzen badiegu Bilboko enpresetan formalizaturiko kontratuei eta Bilbon bizi den biztanleriarekin erregistraturikoen bereizketari, hainbat desberdintasun sumatu genezake. Lehen aukerari begira, grafikoan ikusi genezake zelan 2006 eta 2008. urteen arteko bilakaera beheranzkoa den azterturiko azken urtean, eta zehatz, %10 jaisten dira Bilbon kokatutako enpresetako erregistroak 2007koen aldean, Guztira 188.982 izanik.

Bilbon bizi diren pertsonek formalizatutako kontratuei dagokienez, jaitsiera gertatzen da 2007 eta 2008 urteetan ere, baina ez da aurretik aipaturiko aukeran gertaturikoa bezain nabarmena, %5ekoa denez, eta 143.785, 2008ko urtean barrena erregistraturiko kontratuak. Aldi berean esan behar da hala ere, 2006 eta 2007a bitartean hainbateko igoera jazotzen dela udalerrian bizi direnen kontratu kopuruan, 2008an jaisteko. Laburbilduz esan, Bilbon kokatutako enpresek egindako kontratu gehiago erregistratzen dela, udalerrian bizi diren pertsonekin formalizatzen direnak baino.

Bilbon egindako Kontratuen bilakaera 2006-2008.



Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Etengabeko hazkunde aldi luze baten ondoren, Gizarte Segurantzako afiliazioa Euskal Herrian dezelerazio profila erakusten joan da 2008ko urtean aurrera, harik eta jada azaroan urte arteko lehen beherakada erregistratzen duen arte. Honek adierazten du lan indarraren ahultzea administrazioaren alor honetan. Hilabete honetan afiliatu kopuruak %0,3n egin du behera aurreko urteko hil beraren aldean. Urtea amaitzean EAEko afiliatuen kopurua 955.895 pertsonakoa da, eta honek %1,1eraino puzten du jaitsiera urte arteko aldean.

Gizonezkoen afiliazioak %3,3 egin du atzera EAEn, baina emakumeek aldi berean %1,4 irabazi dute.

Bizkaiko datuek beheranzko joera berdina mantentzen dute, nahiz ez izan euskal eremu osokoa bezain nabarmena.

Horrela Bizkaiak 483.007 afiliaturekin ixten du urtea, eta datuak, urtebete aurretik erregistraturikoen aldean, EAE osoan ematen den atzerakada berdina erakusten du.

Bilbora etorriz, 2008ko abenduaren 30ean Gizarte Segurantzan afiliatutakoen kopurua 178.531koa da, eta honek, aurreko urteko data berean lortutakoaren aldean, 3.463 afiliatu gutxiagoko beherakada erakusten du, %1,9ko jaitsiera ehunekoetan. Afiliazioen jaitsiera udalerrian irailean hasi zen, zerbait lehentxoago aurretik aipatuak ditugun esparruetan baino.

Erregimenen azterketa eginez, ikusi genezake urte amaieran afiliatu guztien %84 dagoela erregimen orokorrari atxikia, %13,7 autonomoenean eta %1,5 etxekoan. Itsasoko eta nekazaritzako erregimenek ez dute %0,4 eta %0,2ko presentzia baino. 2007ko datuekiko konparaketak ehunekoetan erakusten digu, gertatutako afiliazio galeran, nekazaritza erregimena (-%5), orokorra eta autonomoena (-%2) direla beheranzko eragina jasan dutenak. Etxekoak (%7) eta itsasokoak (%18,5) aldiz, kotizatzaileak irabazi dituzte.

Jarduera sektoreei begira, 2008ko abenduan Bilbon bizi diren pertsona afiliatuak, batez ere, Zerbitzu sektorean ageri dira gehienak, eta oso bereziki higiezinen, alokairuen eta enpresa zerbitzuetako jarduerak biltzen dituzten haietan, eta hauetan ageri dira afiliatu guztien %20. Afiliatuen beste multzo handia osatzen dute merkataritza eta konponketako jardueretan izena emana dutenek (%14). Osasunaren inguruko jarduerek %9 hartuko lukete, eta oso hurbil hezkuntzakoak %8,5ekin eta eraikuntzakoak %7,8rekin. Zerbitzu kolektiboek eta pertsonalek afiliatuen %6,8 biltzen dituzte.

Bere aldetik, manufaktura industriak afiliazio osoaren %5,5 biltzen du. Euskal osotasunean gertatzen denaz bat, 2008. urteko azken aldian afiliazioak jausialdia izan du eraikuntzan eta industrian. Jausialdi hau udan hasi zen, eta hortik aurrerako hilabeteetan amildegian goitik behera abiatu urte amaierara bitartean. Aldiz, eraikuntzako jausialdia zuzenik lotuta ageri da azken urteotako eraikuntza jardueren gehiegikeriari, eta honen ondoriozko ahuleziak oso berreskuratze geldoa aurreikusarazten du. Industria bere aldetik lotuago ageri da ekonomia globalaren ibiliekin eta espero izatekoa da lehenago egonkortuko dela, nazioarteko egoerak bide ematen duen neurrian.

Zorionez zerbitzu sektoreak eutsi egin dio ekonomiak jasan duen motelaldiari. 2007. urte amaieraren aldean, hainbat jarduera izan dira afiliatuak irabazi ere egin dituztenak, hala hezkuntzak (%6,6), osasunaren inguruko jarduerek, eta administrazio publikoak, biok %3,2rekin, eta energiaren sektoreak (%3,5). Bestalde ordea, lehen aipaturiko eraikuntzaren (-%10) eta industriaren (-%6,1) galerekin batera aipatu behar dira, afiliatu gutxiago dituztenen artean, merkataritza (-%5), ostalaritza (-%14), garraioa eta komunikazioak (-%1,9), enpresa zerbitzuak (-%2,1), eta zerbitzu kolektiboak eta pertsonalak (-%8). Bitartekaritza finantzarioak atzerakada arina jasan du (-%0,3).

Gizarte Segurantzan afiliatutako langileen bilakaera Euskal Herrian, Bizkaian eta Bilbon 2003-2008 (abenduaren 31n).



Iturria: Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa.

Bilbon Gizarte Segurantzan afiliatutakoen bilakaera 2003-2008, afiliazio erregimenaren arabera.

AFILIAZIOAK	2003	2008
Erregimen Orokorra	143.700	150.456
Autonomoen erreg.	24.220	24.411
Etxeko erreg.	1.892	2.643
Nekazaritza erreg.	340	302
Itsasoko erreg.	675	719
GUZTIRA	**170.827**	**178.531**

Iturria:Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra.



Gizarte Segurantzan afiliatuak Bilbo Metropolitarrean 2008, afiliazio erregimenaren arabera.

AFILIAZIOA	Erregimen Orok.	Autonomoak	Etxea	Nekazaritza	Itsasoa	GUZTIRA
Bilbo	150.456	24.411	2.643	302	719	178.531
Barakaldo	21.838	5.419	260	31	0	27.548
Basauri	13.137	2.830	92	7	0	16.066
Getxo	12.567	6.524	1.481	25	140	20.737
Leioa	11.861	2.271	163	7	33	14.335
Portugalete	5.894	2.879	160	11	126	9.070
Santurtzi	4.391	2.698	87	7	199	7.382
Bizkaia	**382.334**	**89.836**	**6.999**	**1.018**	**2.820**	**483.007**

Iturria:Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra.

Bilbo Metropolitarreko udalerri esanguratsuenen erradiografia egiten badugu afiliazio erregimenaren arabera, erraz asmatu liteke zein den hauetako bakoitzaren profila. Bilbo da erregimen orokorrak pisu handiena duen udalerria, %84koaz. Ondoren datoz Leioa eta Basauri %83 eta %82rekin, hurrenez hurren.

Bere kontura behar egiten dutenen pisu handiena Santurtzin gertatzen da (%37), eta ondoren Portugaleten (%32) eta Getxon (%31). Etxeko erregimena berriz, Getxon ageri da zabalduena (%7), beste udalerri guztietan baino nahikoa zabalago. Zalantza barik Santurtzi da itsasoko erregimenari dagozkion afiliazioek pisu handiena erakusten duten udalerria (%3).

Bizkaia osoan afiliazioen banaketa horrela moduz gertatzen da: %79 dira besteren kontura behar egiten duten afiliatuak, %19 autonomoak, %1,4 etxeko erregimenekoak, nekazaritzak ez du %0,2 apala baino, eta itsasoak %0,6 hartzen du.

INKESTATUTAKO LANGABEZIA

Inkestaren arabera, langabetutako biztanleriaren azterketak ezagutarazten digu EAEk zein Bizkaiak estatuko eta EB 27ko datuen azpitiko langabezia tasa erakusten dutela. Horrela, gure hurbileneko inguruetan, 2008ko tasa %4,5 eta %5en artean dabil, eta estatuko osotasunean aldea nabarmena da %14rekin. 27en EBn, batez bestekoa %6,8koa da.

2005etiko bilakaerak beheranzko joera marrazten du, eta minimoak 2007an erregistratzen dira, lan merkatua orduan pribilegiozko egoera batean zegoenez, langabezia teknikoaren beraren azpitiko indizeekin. 2008an hazkunde txikia sumatuko da, salbu Bilbo Handian, non leku bakarra bada ere beheranzko joerari eutsiko zaion.

Ikuspegi konparatibo batean beste esparru batzuen aldean, 2008an generokako bereizketak gizonezkoen aldeko balantzea erakusten digu %4ko tasaz Bizkaian eta EAEn, eta %6,3 UE-27an eta %13 Espainiako osotasunean. Emakumezkoek kota garaiagoak bereganatzen dituzte gizonezkoek baino, puntu bat eta bi gehiagoren artean, esparruaren arabera.

Langabezia inkestatuaren tasaren bilakaera 2005-2008, esparruka.



*Iturria: BJA. Eustat. *Estimazioa.*

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Bilbon 2008ko abenduan Enplegu Zerbitzu Publikoan izena emanda dauden pertsonen kopurua 18.156koa da, urte guztiko mailarik altuena. Igoeraren garrantzia esanguratsua da, aurreko urtekoaren aldean %31ko igoera erakusten duenez, lan egiteko prest bai, baina enplegurik ez duten pertsonen artean. Egia esan, halako daturik ez genuen ezagutzen 1998tik.

Urte honetan zehar gertatu den egoeraren berezitasuna da, berezko enplegu galtzeari, biztanleria aktiboaren hazkundea erantsi behar zaiola, garaian hainbat emakumezko gehiagok diharduenez enplegu bila familia ekonomia hondatua zelanbait osatu guran. Honek are gehiago hazi ditu langabezia tasak.

Langabeziaren bilakaerari dagokionez 2008ko urtean zehar, honen mailakako igoera sumatu liteke, lehen hiruhilekotik hasita, eta zer edo zer jaisten den arren maiatzean eta gero berriro uztailean. Abuztutik aurrera berriro hasiko da goraka, joera nabarmen bizituz azaro eta abenduko hilabeteetan. Abenduko langabezia tasa %11,5ean ageri da.

Inkestaturiko langabezia tasa, esparru desberdinetan, 2008, generoka.

LANGABEZIA TASA	EB-27	ESPAINIA	EAE	BIZKAIA
Gizonezkoak	%6,3	%13,0	%3,4	%4,1
Emakumezkoak	%7,4	%15,0	%4,2	%4,6
GUZTIRA	%6,8	%14,0	%3,8	%4,3

Iturria: UE-27- Eurostat, Espainia-INE eta EAE eta Bizkaia- Eustat.



Tasa hauen hurbileneko inguruetakoekiko konparaketak, Bilboren desabantaila erakusten du, Bizkaiak eta Erkidego Autonomoak %10,8 eta %10,2ko kopuruak ageri dituztenez hurrenez hurren. Konparaketak berriz, hainbat egiten du Bilboren alde, hau estatu osoko kopuruen aurka egiten denean, honetako langabezia tasa %16,5ekoa denez.

Langabeziaren eraginak generoaren arabera bereziki kaltetzen ditu gizonezkoak. Hori eratorri liteke jabetzen bagara zelan gizonezko langabetuen tasa 2007ko abendutik 2009ko abendura %48 igo den, eta emakumezkoena aldiz, %19 baino ez. Kopuru absolutuetan neurtua, bi generoen arteko aldea modu nabarian joan da txikiagotzen urtean zehar. Adibide gisa esan genezake 2008ko urtarrilean 1.924 emakume gehiago zirela gizonezkoak baino, eta abenduan berriz, aldea ez zela 414koa baino. Tasa terminoetan berba eginez, aldea handiagoa ageri da. Emakumezkoen langabezia tasa %13,7koa den bitartean, gizonezkoena %10en inguruan baino ez dabil.

Langabezia tasa, genero eta adinaren arabera, 2008ko 4. hiruhilekoan, esparruka.

	Bilbo	*Bizkaia*	*Euskal Herria*	*Estatua*
GUZTIRA	***%11,5***	***%10,8***	***%8,4***	***%13,8***
Gizonezkoak	*%9,8*	*%9,0*	*%6,1*	*%10,7*
Emakumezkoak	*%13,7*	*%13,3*	*%11,8*	*%18,0*
< 25 urte	*%10,6*	*%10,0*	*%9,0*	*%14,0*
> 25 urte	*%11,0*	*%11,0*	*%10,0*	*%17,0*

Iturria: Lanketa propioa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko datuetatik abiatuta.

Langabezia adinaren arabera sailkatuz, ikusi liteke langabeziaren hazkunde nagusia 2008ko urtean barrena, eta kopuru absolutuetan, batez ere 25 eta 34 urte arteko pertsonen tartean gertatzen dela, 1.139 langabetu gehiago izanik abenduan urtarrilean baino. 35 eta 44 urte artean daudenak 980 gehiago dira, eta 45 urtetik aurrerakoak 852 gehiago. Igoerarik txikiena 25 urte baino gutxiago dituztenen artean jazo da (441). Tasei begiratuz gero, 2008ko abenduan erregistraturiko altuena 45 eta 64 urte bitartekoen multzoari dagokio, %15,6rekin. Ondoren gazteenak (16-24), %10,6rekin. Gainerakoen artean %9,5 ingurukoa da.

Nabarmentzeko datua gertatzen da gazteriaren artean (16 eta 34 urte bitartean), gizonezkoak gehiago direla emakumezkoak baino. Ostera, joera alderantzizkoa da 35 urtetik gorakoen artean, eta hainbat eta alde handiagoa emakumezko eta gizonezko langabetuen artean, 45 urtetik gorakoen multzoan.

Jarduera sektoreei begira, zerbitzu sektorea da lider pertsona langabetuen kopuruan, 100 langabetutik 67 direnez gero sektore honetatik datozenak. Urtebetean, sektore honetan behar egin duten pertsona langabetuen kopurua nahikoa hazi da, %26raino, eta 1.760 pertsonari eragiten dio kopuru absolutuetan. Baina batere zalantza barik, eraikuntza da sektore kaltetuena ehunekoei bagagozkio, %75eko hazkunde batekin, eta 1.063 pertsona langabetu gehiago urtebeteko epean, urtarrilean 1.490 baino ez zirenean.

Industria zen, bereziki urteko lehen hiruhilekoan, hoberen ageri zen jarduera, jaitsierak erakutsiaz langabe kopuruetan, baina urte amaierarako hau ere kaltetua gertatu da bere jardueran, igarotzen ari garen krisiaren ondorio, eta %25 langabetu gehiago ageri ditu 2007ko abenduaren aldean, 280 pertsona gehiago.

Aurretik batere lanik egin gabe, langabezian dauden pertsonak urte amaieran %28 gehiago dira 2007. urteko amaieran baino. Hazkunde honek badu bere azalpena, pentsatzen badugu, igarotzen ari garen egoera kritikoaren ondorioz, orain arte ez-aktibo zeuden hainbat pertsona igaro direla pertsona aktibo izatera, eta lan munduan sartzeko asmoa erakutsi dutela.

Bilboko biztanleria langabetuaren soslai akademikoa definitzera jotzen badugu, gehienak ez dira kalifikazio profesional bereziaren jabe. Langabezian dauden 100 pertsonatik 77k ez du kalifikazio zehatzik. Bestalde, 2008ko abenduan, 2.096 dira Lanbide Heziketako ikasketak izanik lan bila dabiltzan pertsonak, eta hauetako %58 emakumezko. Beste hainbeste gertatzen da unibertsitate mailekin. Hemen ere %63 dira emakumezko. Honek erakusten du emakumezkoek aukeratzen dituzten ikasketek, bai LHko adarretan zein unibertsitatekoetan, gaitzago dutela lan munduko sarrera.

Urtebetean zehar, lana egin gura duten pertsona kopuruen bilakaera aztertzen badugu, mailaren bateko formazioa dutenak, dela LHn, dela unibertsitate mailakoetan, urteko lehen hilabeteetan bilakaera negatiboa erakutsi dute, baina langabeziak indarra hartu du urteko azken hiruhilekoan, bereziki lanbide heziketako ikasketak dituzten gizonezkoen artean (436). Nahiz eta langabeziak okerren tratatzen dituen pertsonak kalifikazio akademiko txikiena dutenak izan: 3.167 langabetu gehiago 2008ko urtarriletik.

Bizkaiko langabetuen arteko hirutik batek Bilbo du bizileku.

Antzinatasunari dagokionez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan izena eman eta lana egin gura duten pertsonen %55ek sei hilabete baino gutxiago darama egoera horretan. Egia da pertsona kopuru hau %45 hazi dela aurreko ekitaldiko abendukoaren aldean. Talde honetan gehiengo dira gizonezkoak eta 25 eta 34 urte bitartekoak. 6 hilabete eta urtebete arteko multzoak ere igoera nabarmena jasan du urtebetean (%41), eta horrek adierazi gura lezake lan merkatutik azken hilabeteetan irtendako pertsonak direla, eta igarotzen ari garen dezelerazio ekonomikoaren ondorio.

Bestalde, datu positiboa da langabezian 3 urte baino gehiago daramaten pertsonen multzoa (2.701) hainbat jaitsi dela aurtengo urtean zehar, eta aurreko urteko garai bereko datuen aldean %1,6ko jaitsiera ageri du. Ez da datu batere txarra, kontuan izanik talde honetako pertsonen %83 gainera 45 urtetik gorakoa dela, eta hauen lan merkaturatzea gaitzagoa gertatzen da beste adin baxuagokoena baino. Multzo honetan nahikoa gehiago dira emakumezkoak (%69) gizonezkoak baino.

Maila profesionalari dagokionean, langabezian dagoen lau pertsonatik bat da kalifikaziorik gabeko langilea (eta multzo hau %40 hazi da urtebetean), eta %19 zerbitzu sektorekoa. Baina urtebete honetan igoera handia erakusten du era barean langile kalifikatuen multzoak (%67).

Bilbo eta metropoliaren azterketa zabalago batean abiatuta, esan genezake, Bizkaiko hiru langabetutik bat Bilbon bizi dela. Nahikoa urrun ageri da ondoren Barakaldoko udalerria (%9), eta ondoren Getxo %5,4rekin. Bizkaiko lurraldearen osotasunak 2008ko abenduan 22.570 pertsonako multzoa ageri du lanerako prest, eta honek %35eko gehikuntza esan gura du urtebetean. Taulan ageri diren gainerako udalerriek ere langabetuen igoerak erakusten dituzte eta Barakaldo ageri da nabarmen (%34), Bilborekin batera (%33). Igoera txikiena izan duen udalerria Getxokoa da %20ko hazkundearekin.



Esparru desberdinetan erregistraturiko langabeziaren konparaketa 2008ko abenduan, genero eta adinaren arabera:

UDALERRIAK	Gizonezkoak			Emakumezkoak			GUZTIRA LANGABETUAK
	< 25 urte	25-44	>45 urte	< 25 urte	25-44	>45 urte	
Bilbo	876	4.744	3.253	581	4.639	4.063	18.156
Barakaldo	328	1.506	879	162	1.212	876	4.963
Basauri	155	624	367	79	607	519	2.351
Getxo	117	762	490	78	768	799	3.014
Leioa	88	355	225	31	338	306	1.343
Portugalete	150	689	399	82	625	537	2.482
Santurtzi	169	768	445	95	744	460	2.681
Sestao	159	570	351	78	575	369	2.102
GUZTIRA BIZKAIA	**3.293**	**14.570**	**9.643**	**1.875**	**14.238**	**11.951**	**55.570**

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publiko.

Generoka sumatutako joerei begira, oro har esan liteke nahikoa orekatua ageri dela langabezia gizonezkoen eta emakumezkoen artean, nahiz badiren udalerriak, balantza alde batera edo bestera bultzatzen dutenak. Hala, esaterako, Barakaldoko udalerrian gizonezko gehiago ageri da langabezian (%55), eta Santurtzin edo Sestaon ere puntu bateko aldea ateratzen diete emakumezkoei. Aztertutako beste udalerri guztietan berriz, emakumezko gehiago ageri da langabezian, Getxon izanik aldea nabarmenena (%55).

Adinari dagokionean, guztien ezaugarri da, langabezia batez ere 25 eta 45 urte bitarteko multzoan ageri dela, nahikoa orekatua izaki banaketa bi generoen artean, nahiz oro har zer edo zer gehixeago diren gizonezkoen multzoan.

Esparru desberdinetan erregistraturiko langabeziaren konparaketa 2008ko abenduan, sektoreka.

UDALERRIAK	NEKAZARITZA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK	AURREKO JARDUERA BARIK
Bilbo	169	1.901	2.553	12.137	1.396
Barakaldo	19	715	1.115	2.884	230
Basauri	19	438	347	1.382	165
Getxo	34	418	240	2.110	212
Leioa	9	207	185	854	88
Portugalete	12	334	398	1.561	177
Santurtzi	14	334	648	1.481	204
Sestao	51	255	365	1.245	186
GUZTIRA BIZKAIA	**627**	**9.017**	**8.043**	**34.260**	**3.623**

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publiko.

Jardueraren ikuspuntutik, interesgarria da aztertzea zein ekonomia sektoretatik datozen langabetuak, ondo banatutako ikuspegia lortu ahal izateko udalerrika, eta ondoren hauetako bakoitzak sektoreka erakusten dituen ahuleziak ezagutzeko. Aztertutako udalerrietan ezaugarri berdin bat ageri da guztietan, langabetuen multzorik handiena, denetan ere, zerbitzuen sektoretik datorrela, eta ehunekorik altuena Getxo eta Bilboko udalerriek erakusten dute %70ekin. Aldiz, lehen sektorea da eraginik txikiena izan duena, Sestaokoa izanik hala ere kopururik altuena erakusten duena langabetuen arteko %2,4rekin, eta ondoren Getxokoa (%1,1). Beste esparruetan %1etik beherako indizeak ageri dira.

Eraikuntzaren eta industriaren sektoreek bigarren eta hirugarren lekuak hartzen dituzte udalerriaren arabera. Santurtzi, Barakaldo, Sestao, Portugalete eta Bilbon eraikuntzak du bigarren lekua nahikoa ehuneko nabarmenez, Santurtzin lez, non lau langabetutik batek jardun duen sektore honetan. Basauri, Leioa, Getxo eta Bilbon berriz, industria jarduera ageri da bigarren lekuan, %19 eta %15 bitarteko portzentajeetan. Aurretik beharrean jardun bako langabetu kopururik handiena Sestaoko udalerriak erakusten du (%9).

Bizkaian langabezian dauden pertsonen multzo handiena zerbitzuen sektoretik dator. Aldiz, lehen sektorea da eraginik txikienekoa.



ETORKINAK

Gure inguruko biztanleria atzerritarraren multzoa gero eta talde garrantzitsuago da, hala maila sozialean zein demografiari begiratuta, eta hori jazotzen da estatu mailan, autonomia erkidegoan, probintzian, eta zelan ez, Bilbon bertan ere bai. Horregatik eskaini gura diogu atal berezitua talde honi lan merkatuaren ikuspegitik. Gainera, aipatu behar da talde hau dela hain zuzen ahulenetakoa lan inguruaren makaltze egoeren aurrean, eta berauek izan ohi direla lehenak langabeziaren zerrendak betetzen.

Beren jatorria atzerrian duten Gizarte Segurantzako afiliatuei dagokienean, Euskal Autonomia Erkidegoan 49.538 afiliazio genituen 2008ko abenduko azken egunean, eta honek %5eko hazkundea esan gura du urtebete lehenagokoaren aldean, nahiz eta aldi berean, 2.049ko jaitsiera izan duen aurreko hilabetearen parean. Esan genezake hazkundea badela, baina hau motelxeagoa dela.

Bizkaiko lurraldera etorrita, data bereko afiliazioek 21.139ko kopurua iristen dute. Aurreko urteko kotizazio atzerritarren aldeko konparazioan %7ko hazkundea erakusten dute, 2 puntu euskal batez bestekoaz gainetik. Horretatik eratorri genezake afiliazioen ikuspuntutik multzo honek ez duela artean ahulezia zeinu garrantzizkorik erakusten garai honetan hasi berria den krisiaren aurrean.

Kotizazio atzerritarrek generoari dagokionean profil maskulinoa dute, 10etik 6 dira-eta gizonezko, nahiz aldi berean esan behar den 2008an emakumezkoen afiliazioa %13 igo dela, bitartean gizonezkoena %4 baino igo ez denean.

Afiliazio erregimenari bagagozkio, erregimen orokorra da nagusi, eta Bizkaian afiliazio atzerritarren %66 da besteren kontupeko langile. Autonomoen portzentajea %15en inguru mugitzen da, eta honetan bai nabari da desberdintasun aipagarria jatorriaren arabera. Askoz saiatuagoak dira bere kontura behar egiten Europar Batasuneko herrialdeetatik datozen pertsonak, %28 Bizkaian, eta soilik %10 EBtik kanpoko herrialdeetakoak.

Hurrengo erregimen nabarmenena etxeko langileak jasotzen dituena da, hau ere %15 inguruan dabilena. Baina kasu honetan balantza irauli egiten da eta Europar Batasunetik kanpoko biztanleria atzerritarra da, batez ere, kategoria honetan kotizatzen duena, %20, europar jatorriko %4ren aldean, Bizkaiko kasuan.

Euskal multzoan, jatorria osotara begiratuta, gehienak Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etortzen dira (34.376), eta honen aldean 17.418 dira EBko herrialdeetako hiritarrak, nagusiki Polonia, Txekiar Errepublika, Frantzia eta Italiatik datozenak. Europar Batasunetik kanpokoen artean nabarmen dira Kolonbia, Ekuador, Maroko eta Boliviakoak, hauek direnez guztien %67.

Afiliatu atzerritarrak Genero, Erregimen eta Jatorriaren arabera Bizkaian eta Euskal Herrian 2008/12/31n.

Herrialdeak	Bizkaia			Euskal Herria		
	GUZTIRA	Europar Batasuna	Batasunaz kanpoko	GUZTIRA	Europar Batasuna	Batasunaz kanpoko
ERREGIMENAREN ARABERA						
Erregimen Orokorra	13.930	4.181	9.749	33.943	10.966	22.977
Autonomoak	3.198	1.787	1.411	6.835	3.922	2.913
Nekazaritza	709	226	483	2.013	1.019	994
Itsasoa	141	54	87	212	97	115
Etxeko langileak	3.161	239	2.922	6.535	425	6.110
GENEROAREN ARABERA						
Gizonezkoak	12.490	4.753	7.737	29.583	12.163	17.420
Emakumezkoak	8.649	1.734	6.915	19.955	4.266	15.689
GUZTIRA	**21.139**	**6.487**	**14.652**	**49.538**	**16.429**	**33.109**

Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.

Kontratazioei dagokienean, bertan kokatutako atzerritarrekin formalizatutako kontratuak 19.435 dira Bilbon eta honek %0,3ko igoera apala erakusten du 2007an sinatu zirenen aldean. Eta hori ere edonola, emakumeei esker, %6 gehiago direlako, gizonezkoen kontratuak %3 behera etorri diren bitartean. Honek izan lezake bere azalpena, pentsatuz gero, bereziki eraikuntzan gertatu den jardueraren jausialdia, eta oro har baita ere kalifikazio gutxiko lanpostuetan jazotakoa, izan direla bereziki kontratazioaren murriztea ekarri dutenak, eta alor bi horietan jatorri atzerritarreko langileek garrantzizko pisua dutenez.

Esan beharra dago 2008ko azken hiruhilekoan kolektibo honekin erregistraturiko kontratu kopurua %11 jaitsi zela aurreko hiru hilabeteetan eman zirenen aldean, eta hori adierazten du ere Gizarte Segurantzako afiliatuetan jazotako dezelerazioak.

Langabeziaren ikuspuntutik, langabezian dauden nazionalitate atzerritarreko pertsonei bereziki erasotzen die langabeziaren hazkundeak. 2008ko abenduan 2.000 pertsona daude erregistraturik, eta honek langabezian dagoen biztanleriaren %11 esan gura du. Benetan arreta deitzen duena, hala ere, aurreko urtearen aldean jasan duen igoera esponentziala da, %89, eta honek bereziki eragiten dio gizonezkoen multzoari, %121eko igoera ere izan duenez, emakumezkoen %48ren aldean. 25 eta 34 urte arteko adin tartea da jatorri atzerritarreko langabeen artean pertsona gehien biltzen dituena.

Bilboko biztanleria langabetu osoan gertatzen denaz guztiz bestela, jatorri atzerritarreko gizonezkoak gehiago dira emakumezkoak baino, 1.319, 681en aldean. Edonola, egia da ere kolektibo hau maiz enplegatzen dela bereziki ezkutuko ekonomian, udalerrian bizi diren guztiek ez dutenez legez bertan behar egin ahal izateko baimenik. Egoera hau bereziki ageria da emakumezkoen artean, eta hauek parte handi batean etxeko lanetan enplegatzen dira.



Lan baldintzak

Negoziazio kolektiboa

Negoziazio kolektiboari buruzko informazioa EAEko negoziazio kolektiboaren egituraren ikerketatik lortu da, Lan Harremanen Kontseiluak bi urtean behin burutzen duen ikerketatik.

Honetatik eratortzen da 2008an barrena garatutako hitzarmen kolektibo, EAEn aplikagarri direnen multzoa, 1.026koa izan dela eta hauek 642.636 pertsonen gain izan dutela eragina. Ezaugarri nabarmenena dute negoziazio kolektibo honen alor nagusiena sektore pribatuari dagokiola (%97), eta batez ere sektorekakoa dela (%81,3). Esan behar da ere EAEn eragina duen negoziazio kolektiboaren multzoak barne hartzen dituela EAEn bertan negoziatutako hitzarmen kolektiboak, EAEn bertan erregistraturikoak, eta baita ere, estatu mailako hitzarmenak izanik gure erkidegoan hitzarmen berezirik ez duten sektoreei eragiten dietenak, edota gure erkidegoan kokatutako lantokiak dituzten estatu mailako enpresei. Edonola ere, negoziazio kolektiboaren parterik handiena EAEn bertan egiten da (%79).

Bizkaia osoan 296 dira indarrean dauden enpresa hitzarmenak, Guztira enpresa pribatuko 38.462 langileren gain eragina dutenak. Bere aldetik, sektoreko hitzarmenak 48 dira Guztira, eta guztira 209.078 langilerengan dute eragina. Honek guztiak esan gura du Bizkaian 2008an Guztira 344 hitzarmen negoziatu zirela, eta guztira 247.540 pertsonarengan eduki zutela eragina.

Indarrean diren hitzarmen kolektiboak eta zenbat langilerengan duten eragina EAEn eta Bizkaian 2008.

ESPARRUA	ENPRESA		SEKTOREA		GUZTIRA	
	Hitzarmenak	Zenbat angilerengan eragina	Hitzarmenak	Zenbat langilerengan eragina	Hitzarmenak	Zenbat langilerengan eragina
BIZKAIA	296	38.462	48	209.078	344	247.540
LURRALDE ARTEAN (*)	27	7.748	8	20.697	35	28.445
EAEn erregistratuak	575	87.067	226	421.270	696	508.337
ESTATUAN (**)	224	33.190	121	101.109	330	134.299
GUZTIRA EAE	**799**	**120.257**	**227**	**522.379**	**1.026**	**642.636**

(*) EAEko lurralde arteko esparrua. (**) Estatu mailako esparrua eta EAEn eragina.

Iturria: Euskadiko Lan Harremanen Kontseilua.

EAEko lurraldeen arteko esparruko 27 enpresa hitzarmen ditugu, 7.748 enplegaturengan eragina dutenak, eta beste 8 sektore hitzarmen, Guztira 20.697 lanposturen gain eragina dutenak. Guztira 35 hitzarmen sinatu ziren, eragina 28.445 pertsonarengan izan zutenak.

EAEn Guztira 799 enpresa hitzarmen daude, Guztira 120.257 enplegaturentzako, eta sektore hitzarmenak 227 dira, Guztira 522.379 langileren gain eragina dutenak. Hala EAEn indarrean ziren hitzarmenak guztira 1.026 ziren, eta Guztira 642.636 soldatapeko pertsonarentzako.

Estatu mailako enpresa hitzarmenak, EAEn eragina dutenak, Guztira 224 dira eta guztira 33.190 langilerengan dute eragina. Sektore hitzarmenak berriz, 106 dira eta Guztira 101.109 lanpostutan dute eragina. Hala, estatu mailan, EAEn eragina duten 330 hitzarmen baino gehiago negoziatu ziren, Guztira 134.299 langilerentzako.

2008ko negoziazioaren bilakaerari dagokionean, esan behar da, Lan Hitzarmenen Kontseiluaren arabera, hitzarmen kolektiboren baten pean diren langile kopuru osoaren %50,8rengan eragina duten hitzarmen kolektiboak berritu behar zirela. Ehuneko altua da, iraunaldia 2007ko abenduan amaitzen zuten hitzarmenei gehitu behar zaizkielako aurretik berritu zain geratutako beste hainbat akordio ere.

Beste urte batez ere zailak izan dira negoziazio prozesuak, eta hori erakusten du hitzarmen kolektibo baten eragin pean dauden pertsonen soilik %19,7rentzako lortu izanak akordioak, aurreko urtean lortutako %37,9ren aldean. Horrela, 2008ko urtean aurrera, urtealdiaren hasieran burutzeko zain zen negoziazio guztiaren soilik %38 baino zer edo zer gehixeago amaitu da, hitzarmenek eragina izan behar luketen pertsona kopurutan neurtuta.

Horrela, 2008ko urtea, negoziazio kolektiboaren pean diren langileen %31,1ekin amaitu da hitzarmen kolektiboa berritu barik. Nahiz eta, jadaneko sinatuak diren hitzarmenak, baina 2009ko lehen hilabeteetan baino erregistratuko ez direnak ere, kontuan hartzen baldin badira, edo eragin mugatuko itunak, eta azken baieztapenaren zain dauden aurre-hitzarmenak, aipatu portzentajea %13raino jaitsiko litzatekeen.

2008an negoziazio prozesuek soilik hitzarmen kolektibo baten eragin pean dauden pertsonen %19,7rentzako lortu dituzte akordioak, baina aurreko urtean %37,9rentzat izan ziren.



Negoziazioaren oinarrizko edukietako bati dagokionean, emaitzek erakusten dute 2008rako hitzartutako gehikuntza %4,4koa dela. EAEn erregistraturiko hitzarmenetako soldata gehikuntza, %5ekoa izan da, eta estatu mailako hitzarmen, EAEn eragina dutenena, %2,7koa. Era berean, enpresa hitzarmenetan soldata gehikuntza %3,6koa izan da eta sektore hitzarmenetan %4,6koa.

2008an itundutako soldata gehikuntzek kopuru handixeagoak erakusten dituzte aurreko urteetarako adosturikoen aldean. Gehikuntza hau, batez ere, sektore hitzarmenetan gertatu da nagusiki, enpresakoetan ostera, urritu egin dira soldata gehikuntzak.

Egoera, estatuko osotasunean gertatutakoaz bestelakoa da. Honetan, 2008rako adostutako soldata gehikuntzak apalagoak dira aurreko urtean itundutakoen aldean, bai enpresa hitzarmenetan eta bai sektorekoetan ere, inflazioaren jaitsierarengatik. Oro har, EAEn eragina duten hitzarmenetan itundutako soldata gehikuntzak handiagoak dira estatuko osotasunean baino.

Soldata gehikuntza KPIarekin alderatuaz, ikusiko dugu 2008an itundutako soldata gehikuntza %4,4koa izan zen bitartean, EAEko batez besteko KPIaren aldaketa %4,1ekoa izan zela. Eta honek erosteko ahalmenaren 0,34 puntuko irabazia esan gura du ehunekoetan, beste ingurumaririk kontuan hartu barik.

Berrikuspen, edota soldaten bermeko klausulei dagozkien doikuntzek berriz, eta 2008. urteko KPIak eduki duen bilakaeraren ondorio, batez beste -%0,02ko eragina ekarri dute, 2008ko abenduko inflazioa %1,4koa izan delako, txikiagoa aldez aurretik aurreikusitakoa baino (%2koa).

Negoziazioaren oinarrizko beste edukietako bat, lanaldiaren inguruan ibili ohi da. Eta honi dagokionez, esan behar da berritzen ari diren hitzarmenak mantentzen segitzen dutela azken urteetako lanaldiaren murrizketarako joera, nahiz eta gero eta balio murritzagoetan izan. Era berean sumatzen da azken urteetan txikiagoa dela lanaldia murriztea adosten duten hitzarmenen ehunekoa.

2008rako berritutako hitzarmenen %26k bakarrik ezartzen ditu lanaldi murriztapenak aurreko urtekoen aldean. Eta ehuneko hau hainbat txikiagoa da azken urteotan ematen zena baino. Soilik EAEn erregistraturiko hitzarmenetan, batez beste, ordu eta erdi baino gehixeagoko murriztapena lortzen da urteko.

Bestalde, EAEn itundutako lanaldia urteko 1.703 ordukoa da urte honetarako, eta estatuaren osotasunean berriz, 1.751koa.

Bestaldetik, 2008an jazotako lan gatazken bilakaera desberdina izan da, alde batetik, gatazken kopuru osoari begira (laneko grebak eta Preco-ren aurrean aurkeztutako gatazkak), eta beste aldetik, gatazka hauek eragina izan duten pertsona kopuruari begira. Horrela, gatazken kopurua Guztira hazi egin da 2007aren aldean %14,5, baina gatazka hauek eragina izan duten langileen bolumen osoa jaitsi egin da (-%5,6).

2008rako hitzartutako soldata gehikuntzak EAEn eta Bizkaian.

ESPARRUA	*Soldata gehikuntza soldataren berrikuspen klausula barik*	*Berrikuspen klausulen eraginak*	*Soldata gehikuntza Guztira*
BIZKAIA	*5,01*	*-0,01*	*5,00*
LURRALDE ARTEAN (*)	*4,43*	*0,00*	*4,43*
EAEn erregis-tratuak	*4,98*	*-0,01*	*4,97*
ESTATUAN (**)	*2,82*	*-0,08*	*2,74*
GUZTIRA EAE	*4,46*	*-0,02*	*4,44*

(*) EAEko lurralde arteko esparrua. (**) Estatu mailako esparrua eta EAEn eragina.

Iturria: Euskadiko Lan Hitzarmenen Kontseilua.

Indarrean diren hitzarmen kolektibo lanaldi murrizketa eragileen ehunekoa eta hauen eraginpeko pertsonen kopuruak. 2008. EAE eta Bizkaia.

ESPARRUA	*Hitzarmenak*	*Berrikuspen klausulen eraginak*
BIZKAIA	*28,6*	*28,4*
LURRALDE ARTEAN (*)	*42,1*	*40,6*
EAE	*25,8*	*30,7*
ESTATUAN (**)	*12,8*	*11,2*

(*) EAEko lurralde arteko esparrua. (**) Estatu mailako esparrua eta EAEn eragina.

Iturria: Euskadiko Lan Hitzarmenen Kontseilua.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza sailak emandako datuen arabera 2008ko urte osoan zehar 232 lan greba gertatu dira, Guztira 41.183 parte hartzaile izan dituztenak, eta guztira lanik egin gabeko 73.769 egun eragin dituztenak. Aurreko urteko datuen aldean, greba kopuru handiagoa sumatzen da, nahiz eta hauen eragina txikiagoa izan den.

Laneko greba kopurua EAEn 2006-2008.

	Grebak	Parte hartzaileak	Lan egin gabeko egunak	Parte hartzaileak grebako	Lan egin gabeko egunak grebako	Lanik egin gabeko orduak greban egondako langileko
2006	224	62.577	168.433	279	752	21,5
2007	204	46.492	112.497	228	551	19,4
2008	232	41.183	73.769	178	318	14,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza saila.

Aurreko taulari dagokionean, batez besteko parte hartzaile kopurua grebako, 2007ko 228tik, 178ra igaro da 2008an. Lanik egin gabeko egunak batez beste 2007an 551 izatetik 318ra pasatu dira 2008an. Eta lanik egin gabeko egunak greban egondako langileko 2007ko 19,4tik 2008ko 14,3ra iragan dira, lanegunak zortzi ordukoak estimatuz gero.

2007an gertatutako greben %47,8, hitzarmen kolektiboen negoziazioan izandako desadostasunen ondorio izan dira, eta hauek parte hartzaile guztien %57,4ri eragin diote, lanik egin bako egun guztien %65,1 eraginez. Bestaldetik, nabarmentzekoa da soldata hobekuntzek, industria birmoldaketak eta enpleguaren erregulazioak izan duten garrantzi erlatiboa.

Enplegu erregulaziorako espedienteak

Enplegu erregulaziorako espedienteak, administrazio izaera duten prozedurak dira, hiru eragin mota desberdin izan litzaketenak, langileek, hauek zerbitzuak ematen dizkieten enpresekin dituzten kontratu harremanetan: lanaldiaren murrizketa, lan harremanaren denboraldi baterako etetea, edota behin betiko iraungitzea. Eragin hauek eduki ahal izan ditzan ordea, aldez aurretik izan behar du lan administrazioko agintaritzak onartua.

Azken hamarkadaren ezaugarri izan da espediente kopuru osoaren gutxitzea, hala nola hauen eraginpean izandako pertsonena, lan merkatuaren, eta oro har euskal ekonomia guztiaren egoera onari esker. Hala eta guztiz ere, jarduera ekonomikoaren dezelerazio prozesuarekin batera, 2008an, bai Guztira tramitaturiko espediente kopuruak, zein hauen eraginpean izandako langile kopuruak gora egin dute modu nabarmenean, eta oso bereziki, ondorioz kontratu iraungitzeak ekarri dituzten espedienteak, ondoko taulan ikusi litekeen moduan.

Horrela, EAEn erregistratutako enplegu espediente guztien 2008ko balantzea, hala Euskal Administrazioak tramitatutakoena, zein Administrazioa Zentralak, 634 dira eta 19.552 pertsonarengan izan dute eragina. Kopuru hauek, hurrenez hurren %52 eta %231eko gehikuntzak erakusten dituzte aurreko urtekoen aldean.

Baimendutako enplegu erregulaziorako espedienteen bilakaera EAEn 2005-2008, motaren arabera.

	2005	2006	2007	2008
Espediente kopurua	365	197	295	528
Eragindako pertsonak	7.440	3.862	5.183	13.280
ESPEDIENTE MOTA				
- Murrizketa	46	4	17	108
- Etetea	5.828	1.963	4.177	11.549
- Iraungitzea	1.566	1.895	989	1.623

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza saila.



Sektoreka, eragina bereziki nabarmena ari da gertatzen industrian, honetan pilatzen direnez aurkeztutako espediente ia gehienak.

Soldatak eta lan kostuak

2008an batez besteko lan kostua langileko eta hileko EAEn, 2.776,91 eurokoa izan da, eta kopuru honek %5,7ko gehikuntza esan gura du aurreko urteko denboraldi berdinaren parean.

Batez besteko kostu honen hiru laurdenak dagozkio praktikan soldaten kostuari eta gainerakoa beste era bateko kostuak dira, batez ere Gizarte Segurantzaren kotizazioei dagozkienak.

Jarduera sektoreka aztertuz, lan kosturik handiena Industriari dagokio, batez besteko 3.188€ko kostuarekin, urte betean %15eko igoera esan gura duena, eta ondoren, eraikuntzari, 2.995 eurorekin, eta %7ko gehikuntzaz. Azkenik, zerbitzu sektorea, 2.572 eurorekin eta %11ko hazkundearekin.

Estatuaren osotasunean batez besteko lan kostua langileko eta hileko neurri handiagoan igo da (%5,2), 2.390,4 euroko kopuruan. Lan kostuaren osaketa estatukoaren oso parekoa da, nahiz gure erkidegoan soldataren osagaiak pisu erlatibo handiagoa erakusten duen (%74,4, estatuko %73,4ren aldean), estatuko esparruan handiagoa delako soldataz kanpo eskuratuen pisua.

Autonomia Erkidegoen arteko konparaketa eginez, taulan ikusi liteke enplegatutako pertsonako eta hileko lan kosturik handienak Madrileko Erkidegoari dagozkiola (2.796,6€), eta hurrena bertan EAEri (2.776,9 €/hileko) eta Nafarroari (2.563,1€). Bestalde, Extremadura (1.992,0€), Kanariak (2.039,6€) eta Galizia (2.049€) dira Murtziako Erkidegoarekin batera (2.064,9€) kosturik baxuenak dituztenak.

Laburbilduz, Euskal Herriko erkidegoetako enpresak eta Madrilekoak izan ziren soldata handienak ordaindu zituztenak eta gasturik altuenak izan zituztenak onura sozialetan eta beren langileen lanbide heziketan. Azken alor honetako kosturik txikienak Balear Irlek eta Murtziago Erkidegoak izan zituzten.

Euskal Herriko eta Nafarroako enpresek jaso zituzten diru laguntza eta kenketa fiskal handienak, enpleguarekin eta lanbide heziketarekin zerikusia zutenak.

Banakako lan kostuaren kontzeptua garrantzizkoa da, erraz konparatu litekeenez hala, soldatapeko bakoitzeko ordainketa enplegatutako pertsonako lortutako produktibitatearekin, eta halako konparaketak bereziki interesgarriak gertatzen dira beste esparru batzuekin egiten direnean, enpresen lehiakortasun galerak edo irabaziak aztertu ahal izateko.

Banakako lan kostuaren hazkundea 2008an %3tik gorakoa izan da esparru guztietan, FUNCASek emaniko informazioaren arabera. Banakako lan kostuaren gehikuntzarik handiena EAEri dagokiona da (%3,7), eta ondoren, Andaluzia, Asturias, Katalunia eta Nafarroari (%3,6). Beste muturrean, Balearrek eta Kanariek izan dituzte %3,1ekoez hazkunderik txikienak.

Batez besteko lan kostu osoa eta sektoreka EAEn 2008 (€).



Iturria:Lan Kostuen Inkesta. INE.

Banakako lan kostuaren bilakaera, langileko eta hileko, Autonomia Erkidegoka 2006-2008.

ESPARRUA	Lan kostua langileko eta hileko		Banakako lan kostua
	2006	2008	2008
Estatua	2.183,6	2.390,4	3,4
Andaluzia	1.991,3	2.186,3	3,6
Aragoi	2.181,1	2.369,9	3,4
Asturias	2.160,2	2.372,9	3,6
Balearrak	2.050,4	2.262,6	3,1
Kanariak	1.819,8	2.039,6	3,1
Kantabria	2.047,9	2.232,9	3,2
Gaztela-Mantxa	1.945,9	2.137,1	3,5
Gaztela-Leon	2.036,4	2.205,9	3,3
Katalunia	2.322,8	2.551,7	3,6
Valentziako Erkidegoa	1.965,0	2.154,8	3,5
Extremadura	1.775,1	1.992,0	3,3
Galizia	1.895,3	2.049,8	3,4
Madril	2.586,0	2.796,6	3,5
Murtzia	1.868,3	2.064,9	3,5
Nafarroa	2.416,6	2.563,1	3,6
Euskal Herria	2.509,3	2.776,9	3,7
Errioxa	2.026,2	2.197,7	3,2

Iturria:Lan Kostuen Inkesta. INE eta FUNCAS.

Lan ezbeharren tasa

Oro har, lan ezbeharren tasaren adierazle nagusiek beheranzko joera zekarten 2000. urtetik aurrera, eta hala mantendu ziren 2006ra arte. Urte honetan okerrerako joera izan zuten EAEn, baina berriro erakutsi zuten 2007an beherako joera.

Esan behar da tradizioz gure lurraldean emaitza okerragoak izan ohi direla alor honetan estatuaren gainerakoan baino, batez ere industriak EAEn duen pisua handiagoa delako Estatuan baino. Hala ere, 2007an gertaeren maila EAEn, estatukoaren parekoa izan zen. Baina berriro 2008an EAEko batez bestekoa nahikoa gorago ageri da estatu osokoa baino, hurrenez hurren 45,9 eta 40,9 lanaldian lan ezbeharra izandako pertsonak enplegaturiko pertsonen aldean.

Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen iturrien arabera, 2008ko urtean EAEn lan ezbeharren bat jasan duten langileen bolumen osoak hainbat egin du gora, enpleguaren hazkunde arineko testuinguru batean. Lan ezbeharren kausaz laneko baja hartu behar izan duen pertsona kopuru osoa 50.640koa da, eta hauetako %88 dira ezbeharra lanaldiaren barnean izandakoak, %9 ezbeharra in itinere izandakoak, eta gainerako %3 lan gaixotasunen ondoriozkoak. Esan liteke, hain zuzen azken alor honetan gertatu den igoerak eragin duela lan ezbeharren Guztirako tasaren hazkundea.

EAEn lanaldiaren barruan ezbeharra izan eta baja hartutako pertsonen kopuruari dagokionean, hau %1,1 hazi da, Guztira 44.115 izanik. Lanaldiaren barruan ezbehar larriak izandakoak eta hildakoak gutxiago izan dira, eta ezbehar arinak izandakoak gehiago. Sektorekako azterketak erakusten du lanaldiaren barruan istripuak izan eta baja hartutakoen hazkundea, batez ere industrian eta zerbitzuetan gertatu dela, eta aldiz gutxiago izan direla lehen sektorean eta eraikuntzan.

Lan ezbeharren bilakaera Bizkaian 2004-2008.

	Lanaldiaren barruko ezbehar baja eragileak								Ezbehar baja eragileak in itinere	Gaixotasun profesional baja eragileak	GUZTIRA
	GUZTIRA	Larritasunaren arabera			Sektoreka						
		Arinak	Larriak	Heriotza eragile	Neka-zaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak			
2004	22.483	22.257	193	33	478	7.829	5.118	9.058	2.507	944	25.934
2005	23.663	23.441	197	25	533	8.162	4.994	9.974	2.894	965	27.522
2006	23.549	23.378	139	32	592	8.298	4.964	9.695	2.502	813	26.864
2007	21.788	21.631	129	28	506	7.887	4.497	8.898	2.416	376	24.580
2008	22.334	22.163	145	26	497	8.360	4.245	9.232	2.518	653	25.505

Iturria: Osalan.



Lan ezbeharren konparatiboa EAEn eta Bizkaian 2008.

Lan ezbeharrak	*EAE*	*BIZKAIA*
BAJAK GUZTIRA	*50.640*	*25.505*
Lanaldi barruko ezbehar baja eragileak	*44.437*	*22.334*
Ezbehar baja eragileak in itinere	*4.4.656*	*2.518*
Gaixotasun profesionalak	*1.547*	*653*
Ezbeharra izandakoak/ Okupatuak	*45,9*	*44,5*

Iturria: Osalan.

Lan ezbeharren protagonista nagusia izaten segitzen du oraindik eraikuntzak, ezbeharra izandako 94,2 pertsonarekin mila okupatuko. Hurrena datoz lehen sektorea eta industria, ezbeharra izandako 74,7 eta 74,2 pertsonarekin mila okupatuko, hurrenez hurren. Hirugarren sektorea da, azkenik, kopururik txikiena erakusten duena 28rekin.

Sektoreka, lanaldian ezbeharra izan eta baja hartutakoen hazkundea, batez ere industria sektorean (%2) eta zerbitzuetakoan (%2,7) jazo dira. Aldiz, lanaldian ezbeharra izandakoen kopurua gutxitu egin da lehen sektorean (-%2.2) eta eraikuntzan (-%3,8).

EAEko osotasunean bezalatsu, hiru lurralde historikoek ere lan ezbeharren tasaren igoera erakusten zuten laurogeita hamarretako erdialdetik 2002ra bitartean. 2003tik aurrera, eta 2007ra arte, beherakako joera erakusten du hiru lurraldeetan, 2005ean izan ezik, noiz joera hau eteten den epe labur batez.

Jada 2008an, Bizkaian 25.505 dira baja hartzen duten langileak, eta honek %3,8ko gehikuntza esan nahi du aurreko urtearen aldean. Lan ezbeharren tasaren eraginari dagokionean, Bizkaian ratioa lanaldian ezbeharra izandako 44,5 pertsona izan da mila pertsona okupatuko, eta hau txikiagoa da euskal esparru osoan erregistraturiko batez bestekoa baino (45,9).

ekonomid-jarduera

BilbaoLan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

kapitulua

9.

Ekonomia-jarduera

9. kapitulua

Ekonomia-jarduera

ETEak Europan

ETEak dira Europar Batasuneko ekonomiaren motorra eta, horregatik, Batzordea EB osoko agintariak bultzatzen ari da enpresa txiki eta ertainek operatzen duten esparrua hobetzeko neurri eraginkorrak aplikatzera.

Europar Batasunaren esparruan, Europan gauzatzen den ekonomia- eta lanbide-jardueraren zati garrantzitsua dira ETEak. Europar Batasunean gutxi gorabehera dauden 23 milioi enpresen % 99 ETEak dira (50 langile baino gutxiago dituztenak plantillan), sektore pribatuko enplegu guztien bi heren sortzen dituzte eta industriako zenbait sektoretako enpleguaren % 80 baino gehiago, esaterako, produktu metalikoen fabrikazioan, eraikuntzan eta altzarigintzan. Horrek esan nahi du enpresa txikiak direla, izatez, Europako ekonomiako benetako erraldoiak. Mikroenpresak (10 langile baino gutxiagoko enpresak) dira enpresa guztien % 91,5 eta beraiek sortzen dute enplegu gehien hainbat herrialdetan, esaterako, Italian (% 47) edo Polonian (% 41). Erresuma Batuan, aldiz, enplegu guztien % 46 baino gehiago sortzen dute enpresa handiek.

ETEek gainditu behar dituzten hainbat eta hainbat arazok estatu eta eskualde esparruko lege, arau eta jardunbideekin dute zerikusia. Horregatik, Batzordea EBko agintari guztiak bultzatzen ari da ETEek operatzen duten esparrua hobetzeko ekimen eraginkorrak identifikatu eta aplikatzera. Bultzatze horretan sartzen dira, besteak beste, enpresa sortu berrientzako izapide burokratikoak gutxitzea, pertsona bakarreko enpresei lehen enplegatua kontratatzea erraztuko dien neurriak hartzea eta enpresa txikiei eragingo dieten politikak egiteko orduan kontsulta-prozesua hobetzea. Gainera, estatuko eta eskualdeko agintariei aurrerapenak ebaluatzeko eta estatuen arteko jardunbide egokiak trukatzeko aukera ematen duen Enpresa Txiki eta Ertainaren Europako Gutunaren bitartez (Small Business Act), enpresa-ekimenaren plangintza orokorra hobetu nahi da eta «lehenbizi eskala txikian pentsatu» printzipioa txertatu nahi da politikak egiteko orduan, esaterako, prozesu legegilean eta administrazio publikoan. ETEen hazkundea ere sustatu nahi da, euren garapena oztopatzen duten arazoak gainditzen lagunduz.

2008ko azken lauhilekoan krisia areagotzearen ondorioz, Europar Batasunak Ekonomia Suspertzeko Plana prestatu du urtebukaeran. Planean epe laburreko eta epe luzeko hainbat neurri aurreikusten dira erosteko ahalmena handitzeko, hazkundea suspertzeko eta enplegua sortzeko helburuarekin. Planak 200.000 milioi euroko aurrekontua du (Europar Batasuneko BPGdaren % 1,5) eta ekonomiaren gainerako esparruetan eragiten ari den krisi finantzarioaren aurrean langileak, familiak eta enpresak babesteko erabiliko da. Ahulenek laguntza handiagoa jasoko dute birmoldaketa edo lanbide-heziketarako inbertsio moduan, lanpostuak sortzeko edo lanpostuei eusteko.

ETEak Espainiako Estatuan

DIRCE Enpresen Direktorio Zentralaren arabera, 2008ko urtarrilaren 1ean 3.414.779 ETE (0 eta 249 langile artean dituzten enpresak) zeuden estatu osoan. Alegia, nekazaritza eta arrantza alde batera utzita, errolda osatzen duten 3.419.491 enpresen % 99,8. Bizkaian, bestalde, 92.369 ETE daude eta aurrekoaren antzeko portzentajea du EAEko totalarekiko.

2008ko urtarrileko datuekin Enpresa Txiki eta Ertainaren Politikagintzarako Zuzendaritza Orokorrak egindako "ETE erretratua" izeneko azken txostenaren arabera, ETE gehienek zerbitzuen sektorean dute euren jarduera. Jarduera gehienak higiezinen zerbitzuetakoak, ostalaritzakoak eta janari eta edarien txikizkako merkataritzakoak dira.

2006ko urtarrilaren 1etik 2008ko urtarrilaren 1era bitartean 253.872koa izan da enpresa txiki eta ertainen sorrera garbia. Horrek esan nahi du % 8,0 inguruko hazkundea egon dela. Enpresa horietatik 85.958 2007ko urtarrilaren 1etik 2008ko urtarrilaren 1era bitartean sortutakoak dira. Aldi horretako hazkundea % 2,6 ingurukoa izan da, aurreko urteko % 5,3aren erdia gutxi gorabehera.

Estatu osoan 7,4 ETE daude 100 biztanleko; 15,2 ETE jarduneko 100 biztanleko eta 16,7 ETE 100 biztanle okupatuko. 6,8 enpresa daude km2-ko eta 0,3 enpresa BPGdaren 100.000 euroko (2007ko urtean, merkatuko prezioetan, prezio korronteetan).

Enpresen tamaina desberdina da ekonomia-sektoreen arabera. Enpresa handien, hau da, soldatako 250 langile edo gehiago dituztenen proportziorik handiena industrian dago, bertan biltzen baitira horrelakoen % 23,7. Enpresa txikien proportziorik handiena, aldiz, gainerako zerbitzuen eta merkataritzaren sektoreetan dago.

ETE berriak sortzeko portzentajeak hazten jarraitzen duen arren, 2008an hazkundea % 2,6koa izan da, aurreko urtekoaren ia erdia.

Pertsona okupatu bakoitzeko balio erantsia eta produktibitatea EB-27ko batez bestekoaren azpitik egotea da Espainiako ETEen arazo nagusietako bat.

Enpresen kopurua pertsona okupatuen kopuruarekin lotzen duten adierazleen banaketa sektorialak adierazten du gainerako zerbitzuak deituriko sektorean biltzen diren enpresen batez besteko tamaina beste guztiena baino askoz txikiagoa dela: 9,4 enpresa baitaude 100 langileko. Merkataritzan, bestalde, 3,7 enpresa daude, eraikuntzan 2,5 eta industrian 1,2. Langile kopuruaren araberako banaketari dagokionez, portzentajerik handiena soldatakorik gabekoen enpresek dute, enpresa guztien % 51,3. Hala ere, enpresa mota horren eboluzioa beheranzkoa da, izan ere, 1995eko urtarrilaren bateko % 57,6tik 2008ko urtarrilaren 1eko % 51,3ra jaitsi baita. Atzerapen horri enpresa txikiak (10 eta 49 langile bitartekoak) ari dira etekina ateratzen, 1995eko % 4,5 izatetik 2007ko % 5,0 izatera pasatu baitira.

Soldatakorik gabeko enpresetatik enpresa txikietara lekualdatze horrek Europar Batasuneko ETEen batez besteko tamainarekin gehiago bateratzen laguntzen du. Dena den, Espainiako enpresa-sareak, Italia, Grezia eta Portugalgoekin batera, produkzio-unitate txikiek osatutakoa izaten jarraitzen du, EB-27ko gainerako herrialdeetan baino proportzio handiagoan.

Eurostaten azken estatistikak 2005ekoak dira eta, horien arabera, alde nabarmenak daude mikroenpresek enpleguari egiten dioten ekarpenean, hasi Greziako % 56,5etik eta Eslovakiako % 13rainokoak. Espainiako estatuari dagokionez, % 38,6ko ekarpena dute. Enpresa guztiekiko ETEen portzentajea handiagoa zen Espainian Europar Batasuneko batez bestekoa baino. ETEek, gainera, langile guztien portzentaje handiagoa dute eta ehunekotan, guztizko balio erantsiari dagokionez, Europar Batasunean baino ekarpen handiagoa dute. Pertsona okupatu bakoitzeko balio erantsia eta produktibitatea EB-27ko batez bestekoaren azpitik daude. Horixe da Espainiako ETEen arazo nagusietako bat.

Enpresa sortu berrien portzentaje handi bat jatetxe, ostalaritza, irakaskuntza, osasun eta gizarte-zerbitzuen jardueretan biltzen da. Azken urte hauetan dinamikoena izan den eraikuntzaren sektorean, aitzitik, sortutako enpresa kopurua % 11,4 murriztu da 2006. urtearekiko.

2008ko hazkunde-adierazle dinamikoa herrialdeka.



Iturria: Eurofactor Hispania. Enpresa Konfiantzari buruzko 2008ko Eurofactor Barometroa.

Azpimarratu beharreko beste datu interesgarri batzuk Eurofactor Hispaniak egindako Enpresa Konfiantzari buruzko 2008ko Eurofactor Barometroaren emaitzak dira. Eurofactor Barometroak Europako zazpi herrialde garrantzitsuenetako (Alemania, Belgika, Frantzia, Espainia, Italia, Portugal eta Erresuma Batuko) enpresa txiki eta ertainak (6 eta 500 langile artekoak) aztertzen ditu. Bere hazkunde-adierazle dinamikoak, euren negozio-bolumenaren hazkundea, errentagarritasunaren hobekuntza eta inbertsio-gastuen igoera aldi berean aintzat hartzen dituzten enpresen proportzioa jasotzen duenak, adierazten duenez, Frantzia (% 11) eta Espainia (% 13) dira eboluzioan konfiantza gutxien duten herrialdeak. Espainiaren kasuan aurreko urtearekiko % 11ko beherakada izan den bitartean, Frantzian % 2ko igoera izan da aldi berean. Bestalde, Britainia Handiko ETEak dira baikorrenak (% 20) eta ondoren agertzen dira alemaniarrak (% 19) -% 9ko igoera izan dute iazko adierazlearekiko-, belgikarrak (% 18), portugaldarrak (% 15) eta italiarrak (% 14).

Hazkunde-aurreikuspenei dagokienez, Espainiak lehen tokia utzi du aurten, izan ere, 2008rako Espainiako ETEen % 39k soilik espero du errentagarritasuna handitzea, iazko % 68aren aurrean. Kasu honetan, ETE baikorrenak Britainia Handikoak dira (% 56) eta ondoren datoz belgikarrak (% 54), portugaldarrak (% 50), alemaniarrak (% 48), italiarrak eta espainiarrak (% 39) eta frantsesak (% 37).

Euren negozio-bolumenari buruzko itxaropenei dagokienez, Espainiako ETEek beherakada handia izan dute berriz ere (inkesta egin zaienen % 34k handitzea espero du, aurreko urteko % 50aren aurrean) eta Europako 7 herrialde garrantzitsuenetako azken tokian jarri da. ETE baikorrenak belgikarrak dira, % 53k euren negozio-bolumena handitzea espero baitute. Ondoren britainiarrak daude (% 50), gero portugaldarrak eta frantsesak (% 47), eta italiarrak eta alemaniarrak (% 44).

Inkesta egin zaien enpresek euren ekonomia-ingurunean duten konfiantzari dagokionez, berriz ere Belgika dago lehen tokian (% 94) eta, ondoren, Frantzia (% 91), Erresuma Batua (% 87), Alemania (% 81), Espainia (% 74, aurreko urteko % 89aren aurrean), Portugal (% 72) eta Italia (% 67).

Enpleguari dagokionez, Espainiako ETEen % 27k enplegu kopurua handitzea espero duen arren, aurreko urtean bezala, ugaldu egin dira plantillak murriztea espero dutenak, iazko % 7tik aurtengo % 12ra pasatuz. Gainerako % 61ek enpleguen kopuruari eustea espero du. Berriz ere Belgikako ETEak nabarmendu dira enplegatutako pertsonen kopurua handitzea espero duen % 34arekin. Belgikaren ondoren Espainia eta Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, Portugal eta Italia daude. Bestalde, Espainiako ETEak daude murrizketa egitea aurreikusten duten enpresa-zerrendaren buruan (% 12) eta ondoren alemaniarrak, britainiarrak, italiarrak, frantsesak, belgikarrak eta portugaldarrak.

Enpresa Konfiantzari buruzko 2008ko Eurofactor Barometroaren emaitzek ezkorrenen artean kokatzen dituzte Espainiako enpresak negozio-bolumena, errentagarritasuna eta kontratazioa bezalako esparruetan.

EAEko establezimenduen kopuruaren hazkunde txikia: % 2,3 besterik ez, aurreko urteko % 7aren aurrean. Bizkaia da establezimenduen eta enpleguaren kopuru handienak dituen lurraldea.

Eustatek egiten duen Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendak (JEGID) argitaratutako azken datuen arabera, EAEko establezimenduen kopurua 203.911koa zen guztira 2008an. Datu horren arabera, % 2,3ko hazkundea egon zen 2007arekiko, eta horrek, establezimenduen kopuruan adierazita, 4.601 establezimendu gehiago esan nahi du. 2007an 2006arekiko izandako hazkundea (% 7) baino txikiagoa baieztatzen da.

Establezimendu horiek sortutako enpleguaren aldagaiari erreparatuta, kontabilizatutako 203.911 establezimenduek 942.479 pertsonari ematen diete enplegua. 2007ko 919.370 enplegatuekin alderatzen badugu, 23.109 enplegu gehiago dira.

Lurraldeka banatuta, Bizkaian 104.838 establezimendu zeuden 2008an, 2007an baino ia % 3 gehiago. Establezimendu horiek 478.326 pertsonari ematen zieten enplegua, 2007arekin alderatuta antzeko hazkundea ematen duena. Araban eta Gipuzkoan establezimendu gutxiago daude, 26.936 eta 72.137 hurrenez hurren. Establezimenduek sortzen duten enpleguen kopurua ere Bizkaikoa baino txikiagoa da, hain zuzen ere, 150.985 enplegatu Araban eta 313.168 Gipuzkoan.

Establezimenduen kopuruaren eboluzioa EAEn eta Bizkaian 2005-2008 aldian.



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Establezimenduen eta enpleguaren kopuruen eboluzioa ondorengo grafikoan dago jasota. Grafikoak 2005etik 2008ra bitarteko aldia hartzen du. Lau urte horietan goranzko joera izan du establezimenduen kopuruak, bai EAEn eta bai Bizkaian, % 12,3ko eta % 13ko hazkundeekin hurrenez hurren.

EAEko jarduera-sektorekako 2008ko banaketaren arabera, merkataritza, garraioa eta ostalaritza dira sektorerik ugarienak, % 32,4ko ordezkaritzarekin biak batera hartuta. Ondoren, banka, aseguruak, ondasun higiezinetako jarduerak eta enpresentzako zerbitzuak daude % 22,5arekin eta hirugarren tokian eraikuntza % 15,4arekin. Gainerako sektoreek garrantzi txikiagoa dute: osasun-jarduerek eta beste gizarte-jarduera batzuek % 11,5 hartzen dute, garraioak % 7,7, industriak eta energiak % 7,3 eta herri-administrazioek eta hezkuntzak % 3.

Bizkaiko 2008ko sektoreen banaketa EAEkoaren antzekoa da: merkataritzak eta ostalaritzak dute pisu erlatibo handiena, establezimendu guztien % 33,6arekin. Ondoren, banka eta ondasun higiezinekin zerikusia duten zerbitzuak eta enpresa-zerbitzuak daude, % 23,2arekin eta eraikuntza, azkenik, % 14,6arekin.

Enplegua sektoreka hartzen badugu, EAEn enplegu gehien sortzen duen jarduera Industria eta Energiarena da 222.378 langilerekin, enplegu guztien % 23,6 hain zuzen ere; ondoren merkataritza eta ostalaritzaren jarduera dago 197.081 enplegurekin, enplegu guztien % 21.

Bizkaian enplegu gehien dituen jarduera-sektorea merkataritza eta ostalaritzarena da, sortutako 103.674 enplegurekin, enplegu guztien % 21,6 alegia; ondoren industria eta energiaren sektorea dago, 87.417 enplegurekin eta hortik oso hurbil ondasun higiezinen eta enpresa-zerbitzuen jarduerak, 81.162 enplegurekin, enplegu guztien % 17.

Enpleguen tamainaren egiturari dagokionez, EAEko establezimendu gehienek, % 74,8k hain zuzen ere, 2 enplegu edo gutxiago dituzte, % 18k 3 eta 9 langile artean dituzte, % 5,8k 10 eta 49 langile artean eta % 1,1ek soilik dituzte 50 langile edo gehiago.

Bizkaiko egitura antzekoa da, pixka bat txikiagoa den arren. Horrela, 2 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduen kopurua establezimendu guztien % 75,4koa da.

3 eta 9 enplegu artean dituzten enpresak enpresa guztien % 17,7 dira, 10 eta 49 enplegatu artean dituztenak % 5,8 eta 50 baino gehiago dituztenak % 1,1.

ENPRESEN DEMOGRAFIA

EAEko enpresa-sareak 2008an proiektatzen duen balantzea positiboa da, 4.601 establezimendu berri eta 23.109 enplegu berrirekin, 16.259 enplegu gutxiago 2007ko saldo garbiarekin alderatuta.

Saldoa alten kopuruaren eta bajen kopuruaren arteko aldea da: 17.398 eta 12.797 enpresa izan ziren, hurrenez hurren. Horri aldaketen saldoa gehitu behar zaio, 2008an 0 izan zena. Beraz, 4.601 establezimendu berrikoa da emaitza.

Enpresak jardueraren arabera banatzen baditugu, banka, aseguru eta enpresa-zerbitzuena izan zen dinamikoena, 2.088 establezimendu berriko saldo positiboarekin.

Eraikuntzaren sektorea ez da hain dinamikoa izan, 1.697ko saldo garbia izan baitu, hain zuzen ere, 2007koa baino % 40 txikiagoa. Aipagarria da merkataritza eta konponketen sektoreak izan duen geldialdia. 233ko saldo garbia izan du, oso eskasa 2007ko 2.791ko saldoarekin alderatuta.

EAEko establezimenduen eta enpleguen 2008ko demografia.

	JARDUERA	
	Establezimenduak	Enplegua
Altak	17.398	38.163
Bajak	12.797	29.507
Aldaketen saldoa	0	14.453
2008-2007 saldoa	4.601	23.109

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

EAEko establezimenduen eta enpleguen 2008ko demografia, jardueren arabera.

JARDUERA	ALTAK		BAJAK		ALDAKETEN SALDOA		2008-2007ko SALDO GLOBALA	
	Establ.	Enpleguak	Establ.	Empleos	Establ.	Enpleguak	Establ.	Empleos
Industria eta Energia	773	4.171	942	6.143	-57	1.569	-226	-403
Eraikuntza	4.810	7.873	3.087	5.489	-26	1.733	1.697	4.117
Merkataritza eta Konponketak	3.147	6.401	2.967	5.619	53	611	233	1.393
Ostalaritza	738	1.744	701	1.159	-12	39	25	624
Garraioa eta komunikazioak	998	1.744	1.049	2.351	22	1.333	-29	726
Banka, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak	4.703	9.301	2.624	4.846	9	6.500	2.088	10.955
Beste zerbitzu-jarduera batzuk	2.229	6.929	1.427	3.900	11	2.668	813	5.697
GUZTIRA	**17.398**	**38.163**	**12.797**	**29.507**	**0**	**14.453**	**4.601**	**23.109**

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

2007an gertatutakoaren alderantziz, aurten badira saldo garbi negatiboak dituzten jarduera-adarrak. 2007an portaera apalagoa izan zutenak dira adar horietako gehienak. Industria eta energiaren sektoreak 226 establezimenduko saldo garbi negatiboa du eta garraio eta komunikazioen sektoreak, berriz, 29ko saldo garbi negatiboa.

Enpleguari dagokionez, jarduera-adar guztiek dituzte saldo positiboak, industria eta energiarenak izan ezik. Lehen aipatu den bezala, jarduera-adar horrek establezimenduen saldoa ere negatiboa zuen. Garraio eta komunikazioen sektoreak 29 establezimenduko saldo negatiboa izan duen arren, 726 enpleguko saldo positiboa izan du.

Bilboko enpresa-sarea

ENPRESA-ESTABLEZIMENDUAK

Jardueraren arabera

Enplegua % 2,8 hazi da Bilbon 2007arekin alderatuta.

Jarduera Bilbon garatzen duten establezimenduak 39.101 dira 2008an, 2007an baino % 4,2 gehiago eta guztira 170.819 laguni ematen diote enplegua. Enplegua % 2,8 hazi da aurreko urtearekiko. Establezimendu bakoitzeko batez besteko enpleguen kopuruak ez du ia aldaketarik izan: 2007an 4,33koa zen establezimenduko eta 2008an 4,36koa izan da.

Bilboko enpresa-jardueraren 2008ko banaketa. Establezimenduen kopurua.



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Bilboko bi enpresa-jarduera garrantzitsuenak higiezinen, alokairuen eta enpresa-zerbitzuen jarduera eta merkataritza eta konponketen jarduera dira, 10.324 eta 9.872 establezimendurekin hurrenez hurren.

Okupazioaren ikuspegitik, aurrez establezimenduen kasuan adierazi den bezala, higiezinen, alokairuen eta enpresa-zerbitzuen jarduerak dira nagusi 42.405 langilerekin, eta ondoren merkataritza dator, 26.894 langilerekin. Aurreko urteetako portaera berarekin jarraitzen du.

Bilboko jarduera nagusietako establezimenduen kopuruaren 2005-2008ko eboluzioa.



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Grafikoak Bilboko bi jarduera nagusien ibilbide desberdina erakusten du. Alde batetik, ondasun higiezinen jarduerekin eta enpresa-zerbitzuekin lotutako zerbitzuek hazkunde handia izan dute azken urteotan, % 37,6ko hazkundea 2005az geroztik. Merkataritza, aitzitik, hazi egin da 2005etik 2007ra eta beherakada txikia izan du 2008an. Merkataritza-sektoreak aldi horretan bertan izandako hazkundea % 6,6koa izan da.

Eremu geografiko desberdinen arteko konparazioak emaitza berdintsuak erakutsi dizkigu 2008an aztertutako establezimenduetan eta jardueretan. Merkataritza eta konponketen sektoreak % 25eko pisu erlatiboa izan du batez beste, aztertutako hiru eremuetan. Eraikuntza, bestalde, EAEko % 15,5aren eta Bizkaiko % 14,5aren artean ibili da, Bilbon zertxobait baxuagoa den arren, % 11,2koa hain zuzen ere. Industriaren eta energiaren sektoreak, bestalde, % 7,3ko pisu erlatiboa du EAEn, % 6,4koa Bizkaian eta % 4,1ekoa Bilbon.

Enpleguari dagokionez, emaitzak antzekoak dira: merkataritzak % 16 inguruko pisu erlatiboa du, enpleguari dagokionez, aztertutako hiru eremuetan eta eraikuntza % 9 eta % 11ren artean dago eremu guztietan. Industria eta energia biltzen dituen jarduerak pisu erlatibo desberdina du, enpleguari dagokionez, eremu geografikoaren arabera: EAEn % 23,6, Bizkaian % 19 eta Bilbon % 6 besterik ez.

2008ko establezimenduen kopurua, esparru eta jarduera-adar desberdinetan.

JARDUERA-ADARRAK	EAE	Bizkaia	Bilbo
Industria eta Energia	14.985	6.660	1.594
Eraikuntza	31.523	15.352	4.379
Merkataritza eta Konponketak	50.935	26.988	9.872
Ostalaritza	15.195	8.293	2.833
Garraioa eta komunikazioak	15.766	8.423	2.852
Banka, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak	45.776	24.321	11.485
Beste zerbitzu-jarduera batzuk	29.731	14.801	6.086
GUZTIRA	**203.911**	**104.838**	**39.101**

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

2008ko enplegu-banaketa, esparru eta jarduera-adar desberdinetan.

RAMAS DE ACTIVIDAD	CAPV	Bizkaia	Bilbao
Industria eta Energia	222.378	89.932	9.925
Eraikuntza	96.526	52.746	15.953
Merkataritza eta Konponketak	148.234	78.469	26.894
Ostalaritza	48.847	25.205	9.579
Garraioa eta komunikazioak	53.191	29.274	11.208
Banka, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak	160.829	93.394	50.301
Beste zerbitzu-jarduera batzuk	212.474	109.306	46.950
GUZTIRA	**942.479**	**478.326**	**170.819**

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Barrutika

Abando barrutiak jarraitzen du izaten Bilboko enpresa-bilbearen pilaketa handiena: Bilboko 100 establezimendutatik 27,9 barruti horretan daude kokatuak (2007an 38 ziren) eta 1.000 biztanleko 287,7ko establezimendu-dentsitatea du.

Ibaiondok jarraitzen dio tarte handiarekin (5.287 establezimendu, 2007an baino 177 gehiago), establezimenduen % 13,5 eta 89ko establezimenduko dentsitatearekin. Deustuan establezimendu gutxiago dauden arren (4.652 establezimendu, 2007an baino 47 gehiago), Ibaiondok baino posizio zerbait hobea du, 1.000 biztanleko 89,9 establezimenduko ratioarekin.

Otxarkoaga-Txurdinaga barrutiak ditu balio baxuenak (1.415 establezimendu): 100 establezimendutatik 3,6 bertan kokatzen dira, eta 1.000 biztanleko enpresa-dentsitatea 49,1 establezimendukoa da.

Abandoko pilaketa handiaren eraginez, Bilboko batez besteko dentsitatea altua da: 1.000 biztanleko 110 establezimendu. Bizkaiko eta EAEko ratioen oso gainetik dago, 92,2 eta 95,4koak baitira horiek, hurrenez hurren.

Bilboko 2008ko establezimenduen kopurua eta enpresa-dentsitatea, barrutika.



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda. Udal Errolda.

Tamainaren arabera

2008an, aurreko ekitaldietan bezala, Bilboko enpresa-sarearen ezaugarri nagusiak bere atomizazioa izaten jarraitu du eta mikroenpresak nabarmen nagusitu dira: establezimenduen % 89,4k 5 langile baino gutxiago dituzte eta guztira 34.997 enpresa dira horrelakoak.

6 eta 49 enplegu artean dituzten enpresen kopurua, bestalde, 3.708koa da, % 9 hain zuzen ere. Azkenik, 416 konpainia daude (% 1) 50 enplegu baino gehiagorekin.

Enplegu-geruzen araberako EAEko eta Bizkaiko enpresa-banaketa Bilbokoaren antzekoa da: mikroenpresak dira nagusi, argi eta garbi; izan ere, 10 langile baino gutxiagoko enpresen portzentajea % 92,8 eta % 94 baitira, hurrenez hurren EAEn eta Bilbon.

Establezimendu bakoitzeko enpleguen batez bestekoa 4,3koa da Bilbon, 4,5ekoa Bizkaian eta 4,6koa EAEn.

Jardueraren araberako Bilboko enpresa-tamainaren banaketak adierazten du tamaina handieneko establezimenduak beste jarduera batzuetan dihardutenak direla, esaterako, administrazio publikoan, hezkuntzan eta osasun-jardueretan dihardutenak. Horien batez besteko tamaina 7,71 pertsona/establezimenduko da. Industria eta energiaren jarduera dago ondoren (6,2 pertsona/establezimenduko) eta finantza eta higiezinen jarduerak segidan, 4,4 pertsona/establezimenduko ratioarekin.

Ostalaritzako establezimenduak eta merkataritza eta konponketenak dira tamaina txikienekoak, 3,4 eta 2,7 pertsonarekin hurrenez hurren.

EAEn eta Bizkaian industria eta energiarenak dira enplegu/establezimenduko ratio handieneko jarduerak, 14,8 eta 13,5eko ratioekin hurrenez hurren. Ondoren, dezenteko tartearekin, beste jarduera batzuetan dihardutenak daude, besteak beste, administrazio publikoak, hezkuntza, osasun- eta albaitaritza-jarduerak eta gizarte-jarduerak, EAEn eta Bizkaian 7,1 eta 7,3ko ratioekin hurrenez hurren. Bilbon bezala, dendak eta ostalaritza dira okupazio-maila txikieneko enpresak.

Nortasun juridikoaren arabera

Enpresaren forma juridikoari erreparatuz gero, 2008an, Bilboko 21.179 enpresa guztira, establezimenduen % 54,2 hartzen dituztenak, pertsona fisikoak dira. Batik bat mikroenpresak dira tipologia horretakoak.

Sozietate mugatuak, bestalde, ugaltzen ari dira eta 2008an 10.746 enpresara iritsi dira Bilbo osoan. Ondoren, beste sozietate eta elkarte batzuen multzoa dago 3.620 enpresarekin.

Establezimenduen 2008ko banaketa tamainaren arabera eta eremu desberdinetan (%).



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Beste eremu batzuekin alderatuta antzeko portaera du, izan ere nortasun juridiko ugariena pertsona fisikoarena baita. Arrazoia enpresaren tamainan bilatu behar da: mikroenpresa gehienek nortasun juridiko hori hartzen dute. Bigarren tokian sozietate mugatua dago eta hori ere bat dator enpresa-tamaina txikiarekin.

Establezimenduen 2008ko banaketa nortasun juridikoaren arabera.



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

2000-2008ko eboluzioa

Bilboko establezimenduen eta enpleguaren 2000-2008ko eboluzioa.

JARDUERA	2000	2008	Δ
Establezimenduak	34.128	39.101	% 14,6
Enplegua	143.067	170.819	% 19,4

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

2000tik 2008ra bitarteko aldian hedapen-prozesu aipagarria izan du Bilboko enpresa-sareak, bai establezimenduen kopuruari dagokionez eta bai sortutako enpleguari dagokionez ere.

2008an 2000n baino 4.973 establezimendu gehiago daude (+% 14,6). Enpleguak, bestalde, dezentez gehiago ugaldu dira (% 19,4), 27.752 enplegura iritsi arte.

Jarduera-banaketaren ikuspegitik aztertuta, zerbitzuetan oinarritutako egiturara hurbiltzeko eta garai batean ohikoa zuen industriatik urruntzeko joera erakusten du Bilbok.

Bilboko establezimenduen eta enpleguaren 2000-2008ko eboluzioa, jardueraren arabera.

JARDUERA	2000		2008		Δ	
	Establ.	Enpleguak	Establ.	Enpleguak	Establ.	Enpleguak
Industria eta Energia	2.183	13.243	1.594	9.925	-%27	-%25
Eraikuntza	2.853	12.706	4.379	15.953	%53,5	%26
Merkataritza eta Konponketak	10.012	24.674	9.872	26.894	-%1,4	%9
Ostalaritza	3.274	8.514	2.833	9.579	%13,5	%13
Garraioa, biltegiratzea eta komunikazioak	2.943	11.043	2.852	11.208	-%3,1	%1
Bitartekaritza finantzarioa	1.091	8.241	1.161	7.896	%6,4	-%4
Higiezinen, alokairuen eta enpresa-zerbitzuen jarduera	6.590	28.163	10.324	42.405	%56,6	%51
Administrazio publikoa, defentsa eta gizarte-segurantza.	119	10541	137	10.881	%15,1	%3
Hezkuntza	808	9109	926	10.786	%14,6	%18
Osasun- eta albaitaritza-jarduerak	2.261	9.530	2.524	14.456	%11,6	%52
Gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu pertsonalak	1.994	7.303	2.499	10.827	%25,3	%48
GUZTIRA	**34.128**	**143.067**	**39.101**	**170.810**	**%14,6**	**%19**

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Bai establezimenduen kopuruari dagokionez eta baita enpleguen kopuruari dagokionez ere, gehien hazi diren jarduera-adarrak higiezinen, alokairuen eta enpresa-zerbitzuen jarduerekin zerikusia dutenak dira: 3.734 establezimendu gehiago (% 56,6) eta 14.242 enplegu gehiago (% 51).

Bigarren gehien hazi den jarduera eraikuntza izan da 1.526 establezimendu (% 53,5) eta 3.247 enplegu (% 26) gehiagorekin; bi jarduera horiek lotura handia dute euren artean eta azken urteotan enplegu asko sortu dituzte.

Enpleguari dagokionez, proportzioan hazkunderik handiena izan duen jarduera-adarra osasun- eta albaitaritza-jarduera izan da: % 52ko hazkundea, 203 establezimenduko eta 4.926 enpleguko saldo garbi positiboarekin.

Beste jarduera batzuek, aldiz, garrantzia galdu dute, beste toki batzuetara aldatu direlako edo desagertu egin direlako. Horien artean daude industria eta energiarekin zerikusia duten jarduerak, izan ere, establezimenduen % 27 eta enpleguen % 25 galdu baitituzte.

Bilboko ostalaritzak ere murriztu egin du establezimenduen kopurua. 2000. urtean baino 441 lokal gutxiago daude, baina enplegua % 13 hazi da eta orain 1.065 lanpostu gehiago daude. Garraioak ostalaritzaren antzeko portaera izan du: establezimenduak % 3 murriztu dira, baina enpleguen kopurua % 1 hazi da. Horrek guztiak argi eta garbi uzten du establezimenduen kopurua murriztu egin bada ere, iraun dutenek edo sortu direnek batez beste tamaina handiagoa dutela enpleguaren kopuruari dagokionez.

Eboluzioa establezimenduen barrutietako kokapenaren arabera aztertuta, azken 9 urteotan gehien hazi den barrutia Abandokoa da: 2.462 establezimendu gehiago eta % 19,9 gehiago termino absolutuetan. Proportzioan gehien handitu den barrutia Otxarkoaga-Txurdinaga da, % 20,7arekin.

Azken 9 urteetan handitu egin da bai establezimenduen kopurua eta baita enpleguen kopurua ere Bilboko barruti guztietan.

Bilboko establezimenduen 2000-2008ko eboluzioa, barrutika.

BARRUTIAK	2000		2008		Δ	
	Establ.	%	Establ.	%	Establ.	%
Deustua	4.141	%12,1	4.652	%11,9	511	%12,3
Uribarri	2.625	%7,7	2.747	%7,0	122	%4,6
Otxarkoaga-Txurdinaga	1.172	%3,4	1.415	%3,6	243	%20,7
Begoña	3.470	%10,2	3.677	%9,4	207	%6,0
Ibaiondo	4.545	%13,3	5.287	%13,5	742	%16,3
Abando	12.364	%36,2	14.826	%37,9	2.462	%19,9
Errekalde	3.609	%10,6	3.819	%9,8	210	%5,8
Basurtu- Zorrotza	2.202	%6,5	2.599	%6,6	397	%18,0
GUZTIRA	**34.128**	**%100**	**39.101**	**%100**	**4.973**	**%14,6**

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Bilboko establezimenduen 2000-2008ko eboluzioa, enpresa-tamainaren arabera.

Langile-tartea	2000	2008	Δ	
	Establ. kop.	Establ. kop.	Establ. kop.	%
0-2	26.254	29.713	3.459	%13,2
3-5	4.541	5.264	723	%15,9
6-9	1.431	1.768	337	%23,5
10-19	1.020	1.201	181	%17,7
20-49	558	739	181	%32,4
≥50	324	416	92	%28,4
GUZTIRA	**34.128**	**39.101**	**4.973**	**%14,6**

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Termino absolutuetan bigarren tokian egon arren ehunekoetan hirugarren tokian dagoen barrutia Ibaiondo da: 2000. urtean baino 742 establezimendu gehiago dauzka eta hazkunde portzentuala % 16,3koa izan da.

Ez dago eboluzio negatiboa izan duen barrutirik. Denek handitu dute establezimenduen kopurua jarduera guztietan, proportzio desberdinean izan bada ere.

Bilboko establezimenduen enpresa-tamainaren arabera, azken 9 urte hauetan langile-tarte guztietan handitu da establezimenduen kopurua. Bilbon garrantzitsuena den 0 eta 2 langileko tartean izan da hazkunderik handiena: 3.459 establezimendu berri 9 urtetan (+% 13,2). Enpresaren tamaina handitzen den heinean, txikiagoa da mota horretako establezimenduen hazkundea termino absolutuetan.

Bilboko establezimenduen 2000-2008ko eboluzioa, nortasun juridikoaren arabera.

Nortasun juridikoa	2000	2008	Δ	
	Establ. kop	Establ. kop	Establ. kop	%
Pertsona fisikoa	21.494	21.179	-315	-%1,5
Sozietate Anonimoa	3.473	3.034	-439	-%12,6
Sozietate Mugatua	5.895	10.746	4.851	%82,3
Beste sozietate eta elkarte batzuk	2.719	3.620	901	%33,1
Beste forma juridiko batzuk	547	522	-25	-%4,6
GUZTIRA	**34.128**	**39.101**	**4.973**	**%14,6**

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Gainerako tarteek ere hazkunde portzentual aipagarriak dituzte, % 15,9tik % 32,4ra bitartekoak; hala ere, balio absolutu apalagoetatik abiatzen direnez, hazkunde kuantitatiboak 0-2 langileko tartekoaren oso azpitik daude. Denen batura ez da iristen azken tarte horretan izandako hazkundera.

Establezimenduen batez besteko tamaina ere hazi egin da eta 2000. urtean establezimenduko 3,7 langile izatetik 2008an establezimenduko 4,3 langileko batez bestekoa izatera pasatu da.

Establezimenduen forma juridikoari dagokionez, aipagarria da sozietate mugatuaren modalitateak azken 9 urte hauetan jaso duen bultzada handia: % 82,3 hazi da. Horrek esan nahi du 4.851 establezimendu gehiago daudela forma juridiko honetan.

Bilboko establezimenduen demografiaren 2001-2008ko eboluzioa.



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Bilboko demografiaren eboluzioak, altak eta bajak kontuan hartuta, ibilbide gorabeheratsua du. Badira saldo global negatiboa duten urteak, esaterako, 2001 eta 2003 (878 eta 344 establezimendu gutxiago hurrenez hurren) eta beste batzuek aldiz, esaterako 2008ak, saldo positiboa dute (+ 811 establezimendu), 2007koa baino nabarmen txikiagoa den arren (+ 2.654ko saldo globala).

Bilbo udalerriaren hurbileko beste eremu batzuek garatutako joera positiboa da, oro har. Bilbok, % 14,6 establezimendu gehiagorekin, Bizkaiak edo EAEk baino hazkunde apalagoa izan du enpresa-sareari dagokionez.

Eremu desberdinetako establezimenduen 2000 eta 2008 arteko eboluzioa.

EREMUAK	2000	2008	Δ
EAE	168.264	203.911	%21,2
Bizkaia	86.510	104.838	%21,2
Bilbo Handia	68.613	82.037	%19,6
Bilbo	34.128	39.101	%14,6

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

SOZIETATE BERRIAK

Bilboko Merkataritza Ganberak emandako datuen arabera, 2008an 1.020 sozietate berri eratu dira Bilbon.

Eratutako sozietate berri guztietatik % 67,5 zerbitzuen sektorekoak dira. Ondasun higiezinen eta alokairuen zerbitzuekin eta enpresa-zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak nabarmentzen dira, 251 sozietate berrirekin. Ondoren, merkataritza eta konponketak daude 185 sozietate berrirekin, eta zerbitzu publikoak edo pertsonalak 88 enpresa berrirekin.

Eraikuntzaren sektorean 154 sozietate berri sortu dira, eta industria eta energiaren sektorean, berriz, 178.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, higiezinekin eta enpresa-zerbitzuekin zerikusia duten sozietateen kopuruan 242ko beherakada egon da: 2007an 441 ziren eta 2008an 251 besterik ez dira. Jarduera bakarrak jarraitzen du 2007ko egoera berdintsuan, garraio, biltegiratze eta komunikazioen jarduerak, hain zuzen ere, unitate bakarra gehiagorekin aurreko urtearekin alderatuz gero.

Bilbon 2008an sortutako sozietate berriak, jardueraren arabera.



Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera.

Bilboko sozietate berrien eta kapital sozialaren 2000-2008 aldiko eboluzioa.

URTEA	Sozietate Berriak	Kapital Soziala (milaka €)
2000	1.291	229.189,5
2001	1.330	288.281,2
2002	1.133	149.890,5
2003	1.199	762.915,6
2004	1.256	241.574,0
2005	1.247	227.434,0
2006	1.288	165.277,1
2007	1.461	279.842,2
2008	1.020	160.266

Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera.

Bilboko sozietate berrien 2000-2008 aldiko eboluzioa, sektoreka.

SEKTOREAK	2000-2008	%
Higiezinen eta alokairuen jarduerak eta Enpresa-zerbitzuak	**3.975**	%35,4
Merkataritza eta Konponketak	**2.107**	%18,8
Eraikuntza	**1.512**	%13,5
Zerbitzu publikoak edo pertsonalak	**1.020**	%9,1
Industria eta Energia sektorea	**961**	%8,6
Bitartekaritza finantzarioa	**747**	%6,7
Ostalaritza	**529**	%4,7
Garraioa, biltegiratzea eta komunikazioak	**342**	%3,0
Lehen sektorea	**33**	%0,3
GUZTIRA	**11.226**	**%100**

Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera.

2008an txikizkako merkataritza-jardueraren pixkanakako moteltze orokorra egon da EAEn.

Sozietate berriek 2000-2008 aldian izan duten eboluzioa aldatzen joan da urtearen arabera. 2007an gailurrera iritsi ondoren, neurri handi batean Iberdrolaren Dorreagatik, 2008ko urtea 2006ko mailara itzuli da sozietate berrien kapital sozialari dagokionez. Eta 2006. urtea lehen aipaturiko aldiko baxuenetakoa izan zen.

Jarduera guztiak kontuan hartuta, 2000-2008 aldian 11.200etik gora jarduera sortu dira. Jardueren arabera, ondasun higiezinen eta alokairuen zerbitzuekin eta enpresa-zerbitzuekin zerikusia dutenak ugaldu dira gehien. Ia 4.000 sozietate berri eratu dira, eta zifra horrek aldi osoan sortutakoen % 35etik gora esan nahi du.

Nolabaiteko tartearekin Merkataritza eta Konponketen jarduera dago ia 2.100 enpresa eta % 18,8arekin, ondoren Eraikuntza 1.512 enpresa berri eta % 13,5arekin eta zerbitzu publiko edo pertsonalak 1.020 enpresa berri eta % 9,1arekin.

Gainerako jardueretan ez dira horrenbeste sozietate berri sortu, 1.000 baino gutxiago betiere. Zerbitzu publiko edo pertsonalak, industria-sektorea, bitartekaritza finantzarioa eta ostalaritza jardueretan 500 eta 1.000 enpresa artean sortu dira. Kopuru horien azpitik gelditu dira garraioa eta lehen sektorea.

BILBOKO TXIKIZKAKO MERKATARITZA

Merkataritza-sektorearen eboluzio azkarraren eta lehiakortasun handiaren eraginez, dendak gero eta berritzaileagoak dira eta ekipamendu teknologiko handiagoak, tamaina handiagoa eta profesionaltasun-maila handiagoa dituzte. Oso garrantzitsua da kalitateko eskaintza berezituarekiko sentsibilitatea handitzea, ez bakarrik produktuan, baita bezeroarentzako arreta-zerbitzuan eta erosteko egintzaren inguruko guztian ere, erosketa jostagarriago bihurtuz.

Bilbo metropoliko hainbat tokitan banatuta egoteak, bere dimentsionamenduarekin eta eskaintzarekin, bai txikizkako eta bai aisiarako salmentan, eta banaketa-kateek lagunduta, horrek guztiak ingurune hori bultzatu du bere hedapenerako puntu estrategiko gisa.

2007ko azken lauhilekoan antzematen hasi zen bezala, 2008ko urtean zehar txikizkako merkataritza-jardueraren pixkanakako moteltze orokorra egiaztatu ahal izan da, txikizkako merkataritzaren salmenta-indizean islatu dena: % 2,3ko hazkunde negatiboa izan du EAE osoan. Bizkaian, hazkunde negatiboa % 2,6koa izan da, batez bestekoa baino okerragoa, baina Arabako % 4ko beherakadatik urrun, hala ere. Gipuzkoak, bestalde, % 1eko hazkunde negatiboa izan du.

Hiruhileko portaerak argiago erakusten du 2007an antzematen zen joera. 2007ko % 1,4ko batez bestekotik hazkunde-tasa negatiboetara pasatu da indizea, % 2,3 negatibora iritsiz hain zuzen ere; 2008ko lehen hiruhilekoan areagotu egin zen aurreko urtean hasitako salmenta-hazkundearen moteltzea, aurreko urteko -% 1,3tik -% 2,1era pasatuz. Hirugarren hiruhilekoan susperraldi txiki bat egon da (+% 0,1) eta urte-bukaeran -% 5,4raino erori da indizea.

Txikizkako Salmenten Indizearen 2007-2008ko eboluzioa, lurraldeka (% erreala).



Iturria: Eustat.

Lurraldeka aztertuta, Arabak izan du urteko portaerarik okerrena, tasa negatiboak izan baititu hiruhileko guztietan. Azken hiruhilekoan -% 7,3ra iritsi da. Gipuzkoak ez du aldaketa handirik izan hiru lehen hiruhilekoetan, baina azkenekoan -% 4,3raino erori da. Bizkaiak EAE osoaren batez bestekoaren joera bera izan du eta -% 5,5arekin amaitu du urtea.

Establezimendu motaren araberako 2008ko datuek portaera hobea erakusten dute Bizkaian Ez-espezializatuaren kasuan, izan ere, Salmenta Indizearen -% 5,2ko urteko batez besteko hazkunde negatiboa baitu eta -% 5,4koa Espezializatuaren kasuan. Dena den, aldea minimoa da eta Ez-espezializatuaren hiruhileko eboluzioa zenbaki negatibotan egon da urte osoan. Txikizkako merkataritza Ez-espezializatuko salmenta-indizea egoera larriagotik abiatu zen 2008an, 2007an +% 0,1eko batez besteko hazkundea izan baitzuen merkataritza Espezializatuaren +% 1,7aren aurrean.

Bizkaiko Txikizkako Salmenta Indizearen 2007-2008ko eboluzioa, tipologiaren arabera (% erreala).



Iturria: Eustat.

2008an txikizkako merkataritza-sektorean EAE osoan okupatutako pertsonalak urteko % 0,1eko hazkundea izan du, 2007an izandako urteko % 2,7tik oso urrun dagoena.

2008an txikizkako merkataritza-sektoreko enpleguaren hazkundea Bizkaian urteko % 1,0koa izan da, 2007an izandako % 3,2aren oso azpitik dagoena. Gainerako lurraldeetan hazkundea -% 1,2koa izan da Araban (% 2,9koa 2007an) eta -% 1,0koa Gipuzkoan (% 1,8koa 2007an)

Merkataritzak Bilbon duen garrantziaren arrazoia, bere inpaktu ekonomikoan dago, batetik, eta hiri baten bizitzan irudikatzen duenean, bestetik. Sektore horrek garrantzi handia hartzen du Bilbon. 2008an hiriko establezimendu guztien % 16,5 biltzen du eta enplegu guztien % 10. Establezimenduen batez besteko tamaina txiki samarra da (2,6).

Jardueraren arabera

2008an, Bilboko merkataritza-establezimenduetako jardueraadarrik ugariena janariena da, 1.810 establezimendurekin. Hor sartzen dira autozerbitzuak eta establezimendu espezializatuak ere. Establezimendu guztien % 27 dira. 2007ko datuekin (% 26,6) alderatuta hazkunde txiki bat egon da.

Ondoren Ehunki eta Oinetakoen establezimenduak daude 1.426 lokalekin, guztien % 22. Ondoren txikizkako beste denda batzuen (jostailuak, liburuak, etab.) jarduera dator 1.358 establezimendurekin (% 21).

Enplegatutako langileei dagokienez, Janarien establezimenduetan dago kopururik handiena 4.618 lagunekin, guztien % 27, aurreko urtean baino 0,9 puntu portzentual gutxiago. Ondoren Ehunki eta Oinetakoen establezimenduak daude 3.745 enplegurekin (% 22) eta txikizkako beste denda batzuen establezimenduak 3.165 enplegurekin (% 18).

Azaleraren arabera

Txikizkako merkataritzak 562.461 m²-ko azalera okupatzen du 2008an, establezimenduetan egiten ez den merkataritza kontuan izan gabe (azoka txikiak, etxez etxeko salmenta, posta bidezko salmenta). 2007ko datuekin alderatuta % 1 hazi da establezimenduen azalera, guztira.

Bilboko merkataritza-establezimenduen azalera bi jardueratan pilatuta dago. Bien artean azalera osoaren ia % 50 hartzen dute: Ehunki eta Oinetakoen establezimenduek 136.609 m² dituzte, azalera osoaren % 24 eta Janarien establezimenduek 130.396 m² (% 23).

Bilboko merkataritza-establezimenduen batez besteko azalera 85,34 m²-koa da lokaleko. Batez besteko azalera hori handitzen joan da azken urteotan (2007koarekiko % 2).

Barrutika

Udalerriko merkataritza-jarduera gehien pilatzen den barrutia Abando da, 2.051 dendarekin. Termino erlatiboetan, merkataritza-lokalen 10etik 3 barruti horretan kokatuak daudela esan nahi du horrek. Txikizkako merkataritzak sortzen dituen enpleguen % 44 barruti horretan daude eta barruti horretako establezimenduko batez besteko langileen kopurua 4koa da. Halaber, merkataritza-azaleraren % 46 hartzen du (256.854 m²) eta lokalen batez besteko tamaina 130,25 m2-koa da, udalerriko batez bestekoa baino dezentez handiagoa.

Merkataritzako bigarren establezimendu gehien dituen barrutia Ibaiondo da, 1.327 establezimendurekin. Ibaiondo barrutian daude Zazpikaleak, euren ohiko merkataritza-eskaintza zabalarekin. Ibaiondo barrutian 2.750 lagunek egiten dute lan txikizkako merkataritzan. Sektoreko langile guztien % 15,8 da hori, aurreko urtean baino zertxobait gehiago (0,5 puntu gehiago). Azalerari dagokionez (76.256 m²), sektore horretan erabiltzen den azaleraren % 13,56 hartzen du eta Ibaiondoko lokalen batez besteko azalera 57,5 m²-koa da, 2007koa baino ia 2 m² gutxiago.

Hirugarren eta laugarren tokian Begoña eta Deustua daude, 779 eta 755 lokalekin, hurrenez hurren. Enpleguen batez bestekoari dagokionez, Deustuak Begoñak baino gehiago ditu establezimendu bakoitzeko: 2,5 eta 2,05 hurrenez hurren. Merkataritza-lokalen batez besteko tamaina 78,58 m²-koa da Deustuan eta 61,05 m²-koa Begoñan.

Bilboko Txikizkako Merkataritzako 2008ko establezimenduak eta enplegua, jarduera-adarraren arabera.

JARDUERAK	ESTABL.		ENPLEGUA	
	Nº	%	Nº	%
Janariak	1.810	27	4.618	27
Farmazia, edertasun eta higieneko produktuak	376	6	1.153	7
Ehunkiak eta oinetakoak	1.426	22	3.745	22
Etxeko ekipamendua	811	12	1.762	10
Txikizkako beste denda batzuk (jostailuak, liburuak, optikak, haziak...)	1.358	21	3.165	18
Bigarren eskuko produktuen dendak	52	1	108	1
Establezimenduetan egiten ez den merkataritza	455	7	892	5
Konponketako establezimenduak	303	5	603	3
GUZTIRA	**6.591**	**100**	**17.408**	**100**

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda. EJSN 52.

Bilboko Txikizkako Merkataritzaren 2008ko azalera, jarduera-adarraren arabera.

JARDUERAK	ESTABL.	AZALERA	
	Kop.	M²	%
Janariak	1.810	130.396	%23
Farmazia, edertasun eta higieneko produktuak	376	26.624	%5
Ehunkiak eta oinetakoak	1.426	136.309	%24
Ehunkiak eta oinetakoak	811	97.933	%17
Txikizkako beste denda batzuk (jostailuak, liburuak, optikak, haziak...)	1.358	98.009	%17
Bigarren eskuko produktuen dendak	52	7.516	%1
Establezimenduetan egiten ez den merkataritza	455	--	--
Konponketako establezimenduak	303	--	--
GUZTIRA	**6.591**	**562.461**	**100**

(--) Datu ez-eskuragarria. EJSN 52.

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Bilboko Txikizkako Merkataritzako 2008ko establezimenduak, enplegua eta azalera, barrutika.

BARRUTIAK	Establ.	Empleo	Enplegua Azalera (m²)
Deustu	755	1.756	59.333
Uribarri	438	791	23.308
Otxarkoaga-Txurdinaga	253	427	12.816
Begoña	779	1.453	47.538
Ibaiondo	1.327	2.750	76.256
Abando	2.051	7.614	256.854
Errekalde	601	1.330	48.080
Basurtu-Zorrotza	380	619	20.282
Ezezaguna	405	668	17.994

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda. EJSN 52.

Merkataritzak garrantzi handia hartzen du Bilboko enpresa-sarean. 2008an hiriko establezimendu guztien % 26 biltzen du eta enplegu guztien % 16.

Bestalde, honako hauek dira merkataritza-jarduera txikieneko barrutiak: Otxarkoaga-Txurdinaga denda guztien % 3,8arekin, Basurtu-Zorrotza % 5,7arekin eta Uribarri % 6,6arekin. Hiru barruti horietako establezimendu bakoitzeko langileen kopurua da, hain zuzen ere, udalerri osoko txikiena: 1,62koa Basurtu-Zorrotzan, 1,68koa Otxarkoaga-Txurdinagan eta 1,8koa Uribarrin. Establezimenduaren batez besteko tamainari dagokionez, Otxarkoaga-Txurdinagakoak dira txikienak (50,6 m^2) eta ondoren Uribarrikoak (53,2 m^2) eta Basurtu-Zorrotzakoak (53,3 m^2) datoz.

Jarduera-adarren araberako banaketa ez da homogeneoa barrutika. Janari-dendak eta konponketakoak sakabanatuta daude udalerrian, baina beste adar batzuk, ordea, erdiguneko barrutietan eta merkataritza-guneetan pilatuta daude, esaterako, ehunki, oinetako, etxeko ekipamendu, liburu-denda, optika, bitxitegi eta arte-galeriak.

Bilboko Txikizkako Merkataritzako 2008ko establezimenduak, barrutiaren eta jarduera-ren arabera.

BARRUTIAK	*Janariak*	*Farmazia, drogeriak, edertasuna eta higienea*	*Ehunkiak eta oinetakoak*	*Etxeko gauzak*	*Txikizkako beste denda batzuk*	*2. eskuko artikuluak*	*Merkataritza ibiltaria*	*Konponke-tak*
Deusto	*225*	*45*	*123*	*108*	*180*	*4*	*31*	*38*
Uribarri	*161*	*26*	*59*	*59*	*71*	*1*	*36*	*23*
Otxarkoaga-Txurdínaga	*107*	*10*	*14*	*26*	*33*	*1*	*53*	*9*
Begoña	*256*	*38*	*133*	*99*	*139*	*5*	*55*	*54*
Ibaiondo	*414*	*68*	*319*	*99*	*204*	*9*	*159*	*52*
Abando	*304*	*128*	*649*	*304*	*538*	*25*	*46*	*57*
Rekalde	*208*	*35*	*92*	*71*	*111*	*3*	*27*	*50*
Basurto-Zorroza	*129*	*25*	*36*	*43*	*81*	*4*	*40*	*19*
TOTAL	***1804***	***375***	***1425***	***809***	***1357***	***54***	***447***	***302***

Totalak ez datoz bat, zenbait denda ez daudelako dagokien auzo edota barrutiei esleituta

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda. EJSN 52.

Horrela, Abando da txikizkako merkataritza-jardueraren azpisektore gehienetan denda gehien hartzen dituen barrutia, dezenteko aldearekin gainerako barrutiekiko. Salbuespen bakarra janarien eta establezimenduetan egiten ez den merkataritza da, adar horretan Ibaiondok gainditzen du-eta. Abando barrutiak Ehunki eta Oinetakoen azpisektorean du gehiengoa. Bilboko sektoreko ia establezimendu erdiak hartzen ditu: % 45,5. Halaber, drogeriak, lurrindegiak eta farmaziak biltzen dituen Farmazia, Drogeriak, Edertasuna eta Higienea azpisektoreak ere Bilboko % 34 Abando barrutian du.

Txikizkako merkataritzaren eboluzioa

Bilboko txikizkako merkataritzak 2.892 enplegu sortu ditu guztira 2000 eta 2008 arteko aldian. % 19,9ko hazkundea izan du. Azalera kontuan hartuta, hazkunde esanguratsua izan du: 469.000 m^2-tik 562.461 m^2-ra pasatuz (+% 18,3). Establezimenduen kopuruan, aldiz, hazkundea txikia izan da: 2000ko 6.449 establezimendutatik aurtengo 6.591rainokoa besterik ez.

Bilboko merkataritza-establezimenduen, enpleguen eta azaleraren 2000-2008ko eboluzioa.



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Sektorearen portaera 2007koarekin alderatuz gero, 2008an krisiak eragina izan duela ikusten da. Txikizkako merkataritzak gutxitu egin ditu establezimenduen kopurua eta enpleguak, baina azalera handitu egin du.

2000 eta 2008 arteko grafikoan jasotako joera goranzkoa da aldagai guztietan, hau da, establezimenduen kopuruan, enpleguan eta azaleran, azken urteko datuetan izan ezik, izan ere, bai establezimenduen kopuruak eta bai enpleguek zertxobait behera egin baitute (30 establezimendu eta 182 enpleguko saldo garbi negatiboa). Establezimenduen kopurua pixka bat aldatu da urteen arabera. Joera horretan punturik baxuena 2004koa izan zen, merkataritza-lokalak 6.185eraino jaitsi zirenekoa. 2007ko susperraldiarekin 436 lokal berri sortu ziren hiru urtetan. 2008an, lehen aipatu den bezala, 30 establezimendu gutxiago dira.

Barrutika, azken 9 urte hauetako hazkunderik handiena Abandokoa izan da, % 36,5eko hazkundearekin eta, ondoren, Basurtu-Zorrotzakoa, % 30,5eko hazkundearekin.

Bestalde, dinamikarik gutxieneko barrutiak honako hauek dira: Uribarri, establezimenduen kopuruaren % 1,5eko hazkundea soilik izan duena, eta Begoña eta Errekalde, % 13ko hazkundea izan dutenak.

Txikizkako merkataritzako enpleguari dagokionez, 2000-2008 aldian Basurtu-Zorrotza izan da proportzioan hazkunde handiena izan duena, % 51,7 ingurukoa. Bigarren tokian Deustua dago, % 45,3ko hazkundearekin eta Abando % 44,9koarekin.

Oro har, barruti guztiek eta Bilbo osoak (% 19,9) hazkunde handia izan duten arren enpleguetan, aztertutako aldian hazkunderik txikiena izan duten barrutiak Uribarri eta Otxarkoaga-Txurdinaga izan dira, % 24,3ko eta % 29,4ko hazkundearekin hurrenez hurren.

Bilboko txikizkako merkataritza-establezimenduen 2000-2008ko eboluzioa, barrutika.

BARRUTIAK	2000	2008	Δ
Abando	1.444	1.972	%36.5
Ibaiondo	1.056	1.244	%17.8
Begoña	628	709	%12.9
Deustua	590	703	%19.1
Errekalde	494	558	%13
Uribarri	410	416	%1.5
Basurtu-Zorrotza	275	359	%30.5
Otxarkoaga-Txurdínaga	192	225	%17.2
Ezezaguna	1.360	405	--
Bilbon guztira	**6.449**	**6.591**	**%2,2**

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda. EJSN 52.

Bilboko txikizkako merkataritzako enpleguen 2000-2008ko eboluzioa, barrutika.

BARRUTIAK	2000	2008	Δ
Abando	5.256	7.614	%44.9
Ibaiondo	2.066	2.750	%33.1
Begoña	1.208	1.756	%45.3
Deustua	1.067	1.453	%36.1
Errekalde	1.007	1.330	%32.0
Uribarri	636	791	%24.3
Basurtu-Zorrotza	408	619	%51.7
Otxarkoaga-Txurdínaga	330	427	%29,4
Ezezaguna	2.545	668	--
Bilbon guztira	**14.523**	**17.408**	**%19,9**

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda. EJSN 52.

Bilboko txikizkako merkataritzako enpleguen 2000-2008ko eboluzioa, barrutika.



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Txikizkako Merkataritzaren Magnitude Nagusien 2000-2008ko alderaketa.

ADIERAZLEAK	EAE		
	2000	2007	Δ
Establezimenduen kopurua	31.483	33.247	%5,6
Enplegatuak	64.278	81.988	%27,5
Enplegua/Establ.	2,04	2,4	-
Azalera m²	2.480.860	3.174.292	%27,9
Azalera establ.m²	78,8	95,4	-

ADIERAZLEAK	BIZKAIA		
	2000	2007	Δ
Establezimenduen kopurua	16.596	17.604	%5,9
Enplegatuak	34.146	43.714	%28,0
Enplegua/Establ.	2,05	2,4	-
Azalera m²	(--)	(--)	-
Azalera establ.m²	76,2	(--)	-

ADIERAZLEAK	BILBO		
	2000	2007	Δ
Establezimenduen kopurua	6.447	6.591	%2,2
Enplegatuak	14.519	17.408	%19,8
Enplegua/Establ.	2,2	2,6	-
Azalera m²	469.342	562.461	%19,8
Azalera establ.m²	72,8	85,3	-

(--) Ez dago Bizkairako daturik. EJSN 52.

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Jarduera-adarrari erreparatzen badiogu, txikizkako merkataritzaren eboluzioak erakusten digu txikizkako beste denda batzuetan sailkatutako jardueran —besteak beste, liburu-dendak, optikak eta arte-galeriak hartzen dituen jardueran—, 147 establezimendu gehiago daudela.

Hazkunde aizan duen beste epigrafe bat Ehunki eta Jantzigintzakoa izan da, 133 establezimendurekin. Gure hirian lokal handietan eta erdigunean ezarri nahi izan diren firma komertzialek eragin dute hazkunde hori: Inditex, H&M, Custo Barcelona, Purificación Garcia eta Carolina Herrera dendak, beste batzuen artean. Establezimenduetan egiten ez diren merkataritza-jarduerak ere ugaldu egin dira pixka bat.

Janariak saltzen dituzten lokalak gutxitu dira gehien (-286), izan ere, hipermerkatu eta supermerkatuen hedapen handiaren ondorioz, denda txiki tradizionalek (ultramarinoen dendek, alegia) ateak itxi behar izan dituzte.

Txikizkako merkataritza beste eremu batzuetakoekin alderatuta

Taulan daude jasota hainbat interesgunetako merkataritzari buruzko zenbait magnitude, esaterako, EAEkoak, Bizkaikoak eta Bilbo bertakoak. Baita azpisektore horrek 2000-2008 aldian hiru eremuetan izandako eboluzioa ere.

Txikizkako merkataritzak enpresa-jardueren multzoan duen garrantzia antzekoa da hiru eremu geografikoetan: EAEn (% 16,3), Bizkaian (% 16,7) eta Bilbon (%16,8), bere eboluzioak emaitza desberdinak erakusten baditu ere. Aztertutako aldian hazkunderik txikiena izan duen eremua Bilbo da, bai establezimenduen kopuruari dagokionez (% 2,2) eta bai enplegatuen kopuruari dagokionez (% 19,8). Hala ere, establezimenduko enpleguratiorik altuena du: 2,6 enplegatu lokal bakoitzeko.

EAEk eta Bizkaiak antzeko eboluzioa izan dute: % 5,5 inguru hazi dira biak establezimenduen kopuruari dagokionez eta % 27,5 inguru sortutako enpleguari dagokionez.

Merkataritzari eskainitako azalerari dagokionez, Bizkaiko datuak falta dira, baina EAEko azalera 3.174.292 m²-koa da guztira, eta Bilbon 562.461 m² dituzte, EAE osoko azaleraren % 17,7. Batez besteko tamainari dagokionez, EAEko txikizkako establezimenduek 95,4 m²-ko batez besteko azalera dute eta 2000. urtean 78,8 m²-koa zuten. Bilbok, bestalde, 85,3 m²-ko batez besteko azalera du establezimenduko. 2000ko 72,3 m²-ko batez besteko azalerarekin alderatuta, % 19,8ko hazkundea ematen du zifra horrek.

Hainbat eremutako enpresa-sarearen konparazioa

Inguruko eremuen arteko jarduera, tamaina eta forma juridikoari buruzko hainbat adierazleren portzentajezko banaketa azalduko da ondoren, enpresa-sareak hainbat eremu geografikotan duen portaera ikusteko helburuarekin.

Jardueraren ikuspegitik, argi geratzen da Bilboko enpresa-sareak hirugarren sektorearekin duen lotura. Hirugarren sektoreari dagozkion jarduerek beste eremu batzuetan baino garrantzi handiagoa dute. % 26,4k enpresa-zerbitzuetan eta higiezinen eta alokairuen zerbitzuetan dihardu. EAEn eta estatuan % 19,9 eta % 22,7 aritzen dira, hurrenez hurren, jarduera horretan. Merkataritza ere Bilboko enpresa-sarean garrantzi handia duen sektorea da (% 25,2), gainerako lurraldeen antzeko proportzioekin.

Bilbon nabarmentzen den beste jarduera bat osasun- eta gizarte-zerbitzuekin zerikusia duena da, % 6,5eko ordezkaritzarekin. Estatuan, aldiz, % 3,6raino jaisten da jarduera hori.

Hainbat eremu geografikotako establezimenduen banaketaren 2008ko konparazioa, jardueraren arabera.

JARDUERA	BILBO	BILBO HANDIA	BIZKAIA	EAE	ESTATUA
Industria eta Energia	%4,1	%5,3	%6,4	%7,3	%7,2
Eraikuntza	%11,2	%13,8	%14,6	%15,5	%13,8
Merkataritza eta Konponketak	%25,2	%26,3	%25,7	%25,0	%26,2
Ostalaritza	%7,2	%7,7	%7,9	%7,5	%8,2
Garraioa, biltegiratzea eta komunikazioak	%7,3	%8,1	%8,0	%7,7	%7,0
Bitartekaritza finantzarioa	%3,0	%2,7	%2,6	%2,5	%3,1
Higiezinen eta alokairuen jarduerak eta Enpresa-zerbitzuak	%26,4	%22,2	%20,6	%19,9	%22,7
Administrazio publikoa, Defentsa eta Gizarte Segurantza	% 0,4	%0,3	%0,4	%0,5	e.e.
Hezkuntza	%2,4	%2,4	%2,5	%2,6	%2,0
Osasun- eta albaitaritza-jarduerak	%6,5	%5,1	%4,9	%4,5	%3,6
Gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu pertsonalak	%6,4	%6,2	%6,3	%7,0	%6,2

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Bestalde, Bilbon ere garrantzitsuak izan arren, badira beste eremu geografiko batzuetan baino presentzia txikiagoa duten jarduerak, adibidez industriarekin, eraikuntzarekin eta ostalaritzarekin zerikusia dutenak. Industria eta energiaren eta eraikuntzaren jarduerak 2 eta 4 puntu portzentual inguru jaisten dira Bilbon, Estatu osoko datuekin alderatuta.

Gainerako jarduera-adarrek antzeko ratioa dute beste inguruneetan ere. Ez dago alde handirik.

Enplegu-geruzari dagokionez ere, ez dago alde handirik. Oro har, 0 eta 2 langile arteko establezimendu txikiek (mikroenpresek) dute ordezkaritzarik handiena aztertutako eremu gehienetan eta, batik bat, Estatu osoan. 3tik 5era eta 6tik 9rako tarteetan ere antzeko portzentajeak daude, altuak gainerako enplegu-geruzekin alderatuta. Nabarmentzeko modukoa da 3 eta 5 langile arteko tartean ia 3 puntuko aldea dagoela Estatuarekiko.

Hainbat eremu geografikotako establezimenduen banaketaren 2008ko konparazioa, enpleguaren arabera.

Tamaina	BILBO	BILBO HANDIA	BIZKAIA	EAE	ESTATUA
0-2	%76,0	%75,5	%75,4	%74,8	%77,8
3-5	%13,5	%13,1	%13,1	%13,4	%10,8
6-9	%4,5	%4,6	%4,6	%4,7	5%,0
10-19	%3,1	%3,4	%3,4	%3,5	%3,6
20-49	%1,9	%2,3	%2,3	%2,4	%1,9
≥50	%1,1	%1,1	%1,1	%1,2	%0,9

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda eta EIN. Enpresen Direktorio Zentrala.

Hainbat eremu geografikotako establezimenduen banaketaren 2008ko konparazioa, nortasun juridikoaren arabera.

Tamaina	BILBO	BILBO HANDIA	BIZKAIA	EAE	ESTATUA
Pertsona fisikoa	%54,2	%55,4	%55,7	%54,6	%48,9
Sozietate Anonimoa	%7,8	%7,2	%6,9	%6,7	%6,1
Sozietate Mugatua	%27,5	%26,9	%26,1	%25,6	%36,0
Beste sozietate eta elkarte batzuk	%9,3	%9,0	%9,4	%11,1	%5,0
Beste forma juridiko batzuk	%1,3	%1,5	%1,8	%2,0	%4,1

**Ez dago Bilbo Handiari buruzko 2007ko daturik. Datua 2006koa da.*
Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda eta EIN. Enpresen Direktorio Zentrala.

Hiru euskal hiriburuetako enpresa-dentsitatearen 2008ko konparazioa.

EREMUA	Biztanleak	Establ.	Enpresa-dentsitatea
Bilbo	353.340	39.101	110,7
Vitoria Gasteiz	232.477	19.904	85,6
Donostia San Sebastián	184.248	22.862	124,1

Iturria: Bilboko udal errolda, EIN eta Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Sorkuntza gordinaren, itxieren eta sorkuntza garbiaren 2008ko tasa konparatua.



Iturria: EIN. Enpresen Direktorio Zentrala. Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Aztertutako eremu guztietako (Estatua, EAE, Bizkaia eta Bilboko) enpresen tamaina txikia dela esan daiteke, izan ere, 10 enpresatatik 9k baino gehiagok 10 langiletik behera baitituzte.

Forma juridikoari dagokionez, antzekotasun handiagoa nabaritzen da ingurune hurbilenekin Estatu osoarekin baino. Sozietate mugatua hedatuagoa dago Estatu osoan (% 36), EAEn, Bizkaian eta Bilbon baino (% 25,6, % 26,1 eta % 27,5, hurrenez hurren). Beste sozietate eta elkarte batzuen multzokoak ohikoagoak dira Bilbon (% 9,3), Bizkaian (% 9,4) eta EAEn (% 11,1), Estatu osoan baino (% 4,3).

Hiru euskal hiriburuak alderatuta, lurralde jakin batean 1.000 biztanleko dagoen enpresa-dentsitatea edo establezimenduen kopurua Donostian da handiena, 124,1 establezimendurekin. Bigarren tokian Bilbo dago 110,7rekin eta hirugarren tokian Gasteiz 85,6 establezimendurekin.

Datu interesgarria da enpresa-dentsitatearen rankinga 2007koaren antzekoa izan arren, hiru hiriburuek handitu dutela enpresa-dentsitatea.

Interes handiko adierazlea da enpresen sorkuntza-tasari buruzkoa. Sorkuntza-tasa gordinak enpresa berrien proportzioa neurtzen du aurreko urtean zeudenekin alderatuta.

Indize horren Bilboko, EAEko eta Estatuko konparazioa egiten badugu, grafikoak erakusten duen bezala, antzeko emaitza ikusten da Bilbo eta EAEren artean (% 8,5 eta % 8,7, hurrenez hurren), baina Estatu osokoa baino pixka bat baxuagoa (% 12,3).

Itxiera-tasak ekitaldi jakin bateko itxierak neurtzen ditu aurreko urtean zeuden enpresekin alderatuta eta, ikus dezakegun bezala, oso antzeko balioak izaten jarraitzen dute EAEk eta Bilbok, % 6,4koak gutxi gorabehera. Estatuak, aldiz, askoz balio altuagoa du, % 9,7koa hain zuzen ere.

Azkenik, sorkuntza-tasa garbiak enpresen kopuruaren bariazioa neurtzen du eta sorkuntza-tasaren eta itxiera-tasaren arteko aldea da. Tasa horretan baliorik altuena Estatuak du 2,7rekin. Bilboko eta EAEko balioak antzekoak dira, Estatuarena baino apur bat baxuagoa, % 2,2 eta % 2,3, hurrenez hurren.

Bilbori soilik erreparatzen badiogu, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala, demografiak etengabe eboluzionatzen du, nolabaiteko egonkortasunari eusten dion arren. Horrela, zenbait urtetan sorkuntza-tasa garbia negatiboa da, esaterako 2003an eta, beste batzuetan, aldiz, oso positiboa, esaterako 2007an (% 7,1). 2008ko portaerari dagokionez, ikus daitekeen bezala, sorkuntza-tasa gordina % 2 jaitsi da puntu portzentualetan, eta itxiera-tasa % 3 handitu da puntu portzentualetan 2007arekin alderatuta. Horren ondorioz, sorkuntza-tasa garbia % 2,2koa da, 2007ko % 7,1 baino askoz txikiagoa , baina aurreko urteetakoen antzekoagoa.

Bilboko sorkuntza-tasa gordinaren, itxiera-tasaren eta sorkuntza-tasa garbiaren 2002-2008ko eboluzioa.



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Ekonomia sozialeko enpresak

Lan Sozietateak eta Kooperatibak dira Ekonomia Sozialeko enpresak esaten zaienak. Industria-jardueretan pilatzen dira ekonomia sozialeko enpresen enplegu gehienak. Ondoren, zerbitzuen sektorea, eraikuntza eta nekazaritza daude.

Euskal ekonomia soziala 2.837 enpresak osatzen dute. Enpresa horiek 63.073 enplegu eta 2.944 milioi euroko Balio Erantsi Gordina sortu dute.

Euskal ekonomia sozialak batez bestekoa baino enplegu-maila altuagoa du eta zenbait eskualdetako enpresa mota nagusia da, batik bat Gipuzkoako lurralde historikoan. Euskal ekonomia sozialeko erakunderik garrantzitsuena, Mondragon Corporacion Cooperativa (MCC), EAEko enpresa-talderik handiena da eta Espainiako dibertsifikatuena.

Euskal kooperatibek 55.600 enplegatu dituzte eta sei federaziotako 721 enpresek osatutako Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak ordezkatzen ditu; ERKIDEk biltzen ditu Lan Elkartukoak (555 enpresa eta 34.644 langile, horietatik 24.476 bazkideak), Kreditukoak (2 enpresa eta 2.765 langile) eta Irakaskuntzakoak (78 kooperatiba eta 5.670 langile). Nekazaritza-kooperatiben federazioak, bestalde, 71 enpresa eta 650 langile biltzen ditu, Garraio-kooperatiben federazioak 6 enpresa eta 516 langile, horietatik 95 bazkideak eta azkenik, Kontsumo-kooperatiben federazioak 9 enpresa eta 11.530 langile hartzen ditu bere baitan, horietatik 9.137 bazkideak. Kooperatiba guztien artean gutxi gorabehera 10.808 milioi euro fakturatzen dute guztira eta EAEko bazkide kooperatibisten % 95 inguru ordezkatzen dute.

Euskal ekonomia soziala 2.837 enpresak osatzen dute. Enpresa horiek 63.073 enplegu dituzte eta 2.944 milioi euroko Balio Erantsi Gordina sortzen dute.

Lan Sozietate Anonimoei (LSA) dagokienez, oso presentzia handia dute EAEn, batik bat industria-sektorean. Euskadiko Lan Sozietateen Taldea (ASLE) eratzen duten 300 enpresek ia 9.000 langile elkarturi ematen diete enplegua, eta zifra horrek sozietate mota horretako Estatu osoko % 1,6 hartzen du.

Kooperatibak

Euskal Autonomia Erkidegoan 2008ko abenduaren 31n 1.686 kooperatiba zeuden erregistratuta, aurreko urtean baino 37 gehiago. Horietatik 656 (% 38,9) Bizkaian daude eta 200 Bilbo udalerrian daude kokatuak.

EAEn, Bizkaian eta Bilbon 2008an dauden kooperatibak, motaren arabera.

MOTA	EAE	BIZKAIA	BILBO
Lan elkartua	1.074	468	157
Etxebizitzak	236	61	18
Nekazaritzakoak	97	23	1
Irakaskuntza	93	43	10
Zerbitzu profesionalak	46	22	5
Bigarren mailakoak edo maila handiagokoak	46	11	3
Kontsumokoak	32	16	4
Enpresa-zerbitzuak	34	7	1
Mistoak	20	2	0
Ustiapen komunitariokoak	4	2	0
Enpresa-elkarketak	2	0	0
Korporazio Kooperatiboak	1	0	0
Kreditua	1	1	1
GUZTIRA	**1.686**	**656**	**200**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialeko Zuzendaritzako Kooperatiba eta Lan Sozietateen Erregistroa.

Kooperatiba mota kontuan hartuta, oso pilatuta daude lan elkartukoetan eta etxebizitzenetan. 2007-2008 aldian mota biek izan dute hazkundea, etxebizitzenak, esaterako, % 5,3ko hazkundea izan du 2007arekiko. Bizkaian, bere aldetik, egonkor jarraitu dute lan elkartukoek eta etxebizitzenek, aldiz, % 13ko hazkundea izan dute. Bilbon zertxobait ugaldu dira (% 2 lan elkartuko kooperatibetan).

EAEn kooperatibismoa sustatzen duten hainbat erakunde daude, besteak beste:

- ERKIDE: Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioa. 2008ko abenduaren 31n 635 kooperatibak osatzen zuten, kopuruari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiben % 80 eta fakturazioari eta enpleguei dagokienez % 99. Azken urtean Federazioan sartutako enpresen kopurua 616tik 635era igo da, eta enpleguak 956 gehitu dira. 2008an 7.901 milioi euro fakturatu zituzten, erdiak baino gehiago kanpoko salmentei dagozkienak. Erakundearen arabera, sektore horiek euskal BPGdaren % 8,3 osatzen dute eta Kooperatiba federatuek 42.778 laguni ematen diete lana. Horrez gain, kooperatiben % 32k 20 urtetik gora daramatzate merkatuan.
- KONFEKOOP: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa Euskal Autonomia Erkidegoan dauden Federazio Sektorialak biltzen dituen erakundea da. 1996an sortu zen. 721 Kooperatiba eta 55.600 langiletik gora biltzen ditu, horietatik 38.405 bazkideak.
- ELKAR-LAN, S.COOP: bigarren mailako kooperatiba da. Bere xedea eta azken helburua enpresa kooperatiboak sustatzea, enplegu kooperatiboa sortzea eta garapen ekonomikoa eta soziala dira. Euskadiko Kooperatiben Goi Kontseilua, ERKIDE eta KONFEKOOP dira bere bazkide sortzaileak.

Lan-sozietateak

Lan Sozietateak dira, Kooperatibekin batera, Ekonomia Sozialaren formula juridikoetako bat. Enpresa langileen jabetzakoa izatea da bere ezaugarri nagusia.

2008an 2.132 lan-sozietate zeuden erregistratuta Euskal Autonomia Erkidegoan. Horietatik % 48 sozietate anonimoak ziren eta gainerako % 52 sozietate mugatuak. 2007. urtearekin alderatuta, beherakada txiki bat (% 2) egon da hiru eremuetan aztertutako bi modalitateetan, batik bat sozietate mugatuetan.

EAEn erantzukizun mugatuko 1.108 lan-sozietate daude 2008an. Urtean zehar 32 eratu dira, 2007an baino hogeita hamar gutxiago. 2007arekiko saldo garbia negatiboa da: 24 gutxiago. Bizkaian 635 daude guztira. Horietatik 16 2008an eratu dira, 2007an eratutakoen erdiak. Beraz, eremu horretan ere saldo garbia negatiboa da. Bilbon 215 sozietate mugatu daude, Bizkaiko guztien herena. Aurten 6 sozietate berri eratu dira.

Lan-sozietate anonimoei dagokienez, 2008an 1.024 daude guztira EAE osoan, aurreko urtean baino 18 gutxiago. Horietatik, 3 aurten eratu dira. Bizkaiak, bestalde, 516 lan-sozietate anonimo ditu, 2007an baino 8 gutxiago. Aurten 3 sortu dira. Bilboko egoera antzekoa da. 2008an 3 eratu dira eta lehengoekin batera, orain guztira 183 daude.

2008an dauden eta eratu diren lan-sozietateen kopurua, eremuaren eta motaren arabera.

LAN-SOZIETATEAK	EAE	BIZKAIA	BILBO
LAN SOZIETATE MUGATUA			
2008an daudenak	1.108	635	215
2008an eratutakoak	32	16	6
LAN SOZIETATE ANONIMOA			
2008an daudenak	1.024	516	183
2008an eratutakoak	3	3	3

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialeko Zuzendaritzako Kooperatiba eta Lan Sozietateen Erregistroa.

Lan-munduan txertatzeko enpresak

Lan-munduan txertatzeko enpresak ondasunak eta zerbitzuak lortuz merkatuan lan egiten duten egitura produktiboak dira, eta euren langileak gizarteratzeko helburu gehigarria dute. Igarotzako enpresa gisa jokatzen dute. Gizarteratzeko eta laneratzeko arazoak dituzten pertsonek lan bat egiteko behar diren gaitasunak garatzen dituzte, “lan eginez ikasi” formularen bitartez.

Lan-munduan txertatzeko 3 enpresa zeuden erregistratuta EAEn 2008an, aurreko urtean baino bost gutxiago. Lurralde Historiko bakoitzean bat dago, Bizkaiari dagokiona Bilbon.

Lan-munduan txertatzeko enpresak ekonomia sozialaren barruan sartzen diren arren, ez dute beti hartzen ekonomia sozialaren berezko forma juridikoa. Azkeneko urtean EAEn eratutako guztiak merkataritza-sozietateen sailean daude.

Bilbok 398 Lan Sozietate ditu 2008an.

Ekonomia sozialeko langileen ezaugarriak

Lan eta Inmigrazio Ministerioaren arabera, Estatuan 2008ko abenduaren 31n ekonomia sozialean lan egiten duten pertsonen profilak adierazten du horietako bi heren (% 42,8) emakumeak direla, eta sozietate kooperatiboetan gehiago daudela (% 45,9) lan-sozietateetan baino (% 28,9 anonimoetan eta % 34,9 mugatuetan). Gehiengoa (% 54,2) 40 urtetik beherakoa da, bai lan-sozietateetan eta bai kooperatibetan ere.

Lan-sozietateetako langileen adina ez da homogeneoa: anonimoetan zaharragoak dira eta mugatuetan, berriz, gazteagoak. Langileen % 9,7 soilik dira atzerritarrak (% 4,8 lan-sozietate anonimoetan). EBkoak, Hego Amerikakoak eta Afrikakoak dira kolektibo ugarienak horien artean.

Enpleguen % 72,1 kontratu mugagabekoak dira eta % 27,9 aldi baterakoak. Kooperatiben kasuan % 73,7 dira, anonimoetan % 72,6 eta mugagabeetan 64,7.

% 83,6k lanaldi osoko dedikazioa du. Lan-sozietate anonimoen kasuan % 85,2ra iristen da portzentaje hori, eta lan-sozietate mugatuen kasuan, aldiz, % 79,3ra jaisten da.

Langileak bere sozietatean duen antzinatasuna lan-sozietate motaren baitan dago. Sozietatean urte bat baino gehiago daramaten pertsonen kopurua % 57,9koa da, eta % 78,7ra igotzen da lan-sozietate anonimoen kasuan.

Enplegatuen kategorien araberako banaketak (Gizarte Segurantzako kotizazio multzoen arabera) desberdintasun handiak ditu sozietate motaren arabera. Kooperatibetan, pertsonen % 33,6 kualifikatu gabeak dira eta % 21 ofizialak. Lan-sozietateetan, bestalde, anonimoetako langileen % 50 ia eta mugatuetako % 45 ofizialak dira, eta kualifikatu gabeak % 17,4 eta % 18,2 hurrenez hurren.

Ekonomia Sozialeko langileen Estatuko banaketa 2008ko 4. hiruhilekoan, adinaren arabera (%).

ADINA	Guztira	Koop.	Lan-sozietateak	
			Anonimoak	Mugatuak
<25	**8,9**	8,0	6,9	13,7
25-39	**45,3**	44,8	37,3	50,7
40-49	**35,2**	36,2	39,2	28,8
≥55	**10,7**	10,9	16,7	6,7

Iturria: Espainiako Gobernua. Lan eta Inmigrazio Ministerioa.

Ekonomia Sozialeko langileen Estatuko banaketa 2008ko 4. hiruhilekoan, kontratu motaren arabera (%).

LANALDIA/ KONTRATUA	Guztira	Koop.	Lan-sozietateak	
			S.A.	S.M.
KONTRATU MOTA				
Mugagabea	**72,1**	73,7	72,6	64,7
Aldi baterakoa	**27,9**	26,3	27,4	35,3
LANALDI MOTA				
Lanaldi osokoa	**83,6**	84,3	85,2	79,3
Lanaldi partzialekoa	**16,4**	15,7	14,8	20,7

Iturria: Espainiako Gobernua. Lan eta Inmigrazio Ministerioa.

Ekonomia Sozialeko langileen Estatuko banaketa 2008ko 4. hiruhilekoan, antzinatasunaren arabera (%).

ANTZINATASUNA	Guztira	Koop.	Lan-sozietateak	
			S.A.	S.M.
6 hilabete arte	**32,9**	38,0	13,2	24,5
6 hilabetetik 1 urtera	**9,3**	8,4	8,2	12,5
1etik 3 urtera	**20,1**	17,3	19,5	29,6
3tik 5 urtera	**10,6**	8,8	12,6	15,8
+ 5 urte	**27,2**	27,5	46,6	17,8

Iturria: Espainiako Gobernua. Lan eta Inmigrazio Ministerioa.

Jarduera ekintzailea

Beste urte batez ere Global Entrepreneurship Monitor 2008 Proiektua, Enpresa Institutuak egindakoa, hainbat eremu geografikotako jarduera ekintzailearen neurgailua da. Ondoren azalduko ditugu bere ondorio garrantzitsuenak.

GEM proiektuak pertsona ekintzailearen ikuspegi orokorra du eta ekintzaileek prozesu ekintzailean duten rolean jartzen du arreta. Datu gehienek enpresa berri eta txikiak neurtzen dituzte. GEM proiektuak, aldiz, norbanakoek negozio berri batekin hastean duten portaera aztertzen du. GEM proiektuak prozesu gisa ikusten du eta pertsonen profil desberdinak hartzen ditu kontuan, dauden fasearen arabera: fase goiztiarra, finkatzekoa eta negozioarekin jarraitzeko aukerakoa.

GEM proiektuaren adierazle-gakoetako bat Fase Goiztiarretako Jarduera Ekintzailearen tasa da, TEA izenaz ere ezagutzen dena. Bi motibazio nagusi ditu: batetik, laneko alternatiba hobeei aurre egiteko ekiteko premia (premiagatiko TEA) eta negozio-aukeren aprobetxamendua (aukeragatiko TEA).

Bi motibazioak bereizita TEAk izaten duen eboluzioak baieztatzen du aukeragatik ekiteko motibazioa nabarmen nagusitzen dela. Edozein kasutan, krisiak moteldu egin du inmigrazioak gure herrialdean azken urtean izandako bultzada eta lanik aurkitu ez duten pertsona asko euren jatorrira itzultzea ere eragin du.

2008an Estatuko jarduera ekintzailearen tasa % 8 jaitsi da 2007koarekin alderatuta.

Nazioarteko testuingurua

GEM behatokian parte hartzen duten nazioen arteko jarduera ekintzailearen tasa edo TEAri buruzko konparaziozko emaitzak. Indize handiagoa edo txikiagoa izatea positiboa edo negatiboa izan daiteke eta, batik bat, herrialde batek pertsona ekintzaileak izateko duen premiaren baitan dago.

Azkenik, konparazio horiei dagokienez, kontuan izan behar da ez dutela kontuan hartzen ekimen ekintzaileen kalitatea, kantitatea soilik. Horregatik, gogoan izan behar da ez dela desiragarria nazio batean jarduera-tasa altua izatea aldi berean epe luzera bizirauteko aukerak dituzten, berrikuntza-iturri diren eta enplegua eta aberastasuna sortzen duten negozioak ez baditu. Alderdi horiek GEM Txostenaren ondorengo ataletan daude jasota.

Aurreko edizioetan horrela egin ez bazuen ere, 2008an, nazio parte-hartzaileek euren produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko aplikatutako tresna nagusiekin zerikusia duten adierazleetan erakusten duten orientazio motaren arabera sailkatutako emaitzak aurkeztu ditu GEM proiektuak. Grafikoan ikus daitekeen bezala, ilunago markatuta dauden herrialdeek berrikuntza jotzen dute produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko elementu nagusitzat. Pixka bat argiago markatutako herrialdeak eraginkortasunaren aplikazioaren (berrikuntzaren aurreko irizpidea da) eta helburu hori lortzeko berrikuntzaren artean daude. Azkenik, tonurik

GEM 2008 Txostenean parte hartu duten herrialdeetako Jarduera Ekintzailearen Tasa Totala (TEA).



Iturria: Bussines School Enpresa Institutua GEM 2008 Espainia Txosten Betearazlea.

argienez markatuta dauden herrialdeek produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko gai diren elementutzat jotzen dituzte produkzio-faktoreak (bereziki giza kapitala). Multzo horretakoak dira egoera zaharkituenaren eta produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko bultzada gisa eraginkortasuna aintzat hartzen duenaren arteko trantsizioan daudenak.

Sailkapen berrian deskribatutako lehen edo bigarren fasean dauden hainbat herrialde aurkitzen ditugu jarduera ekintzailearen tasaren zerrendaren buruan. Esaterako, Boliviak du, proportzionalki, GEM 2008 proiektuan parte hartu duten herrialdeetako biztanleria ekintzaileena. Bestalde, lehen fasean dago produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko baliabideen aplikazioari dagokionez, hau da, eraginkortasun-irizpideak aplikatzen hasten ari da eta ez du inplikazio handirik berrikuntzan. Belgika da, aitzitik, 2008ko edizioan jarduera ekintzailearen tasa baxuena duen herrialdea, produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko gako-elementutzat berrikuntza hartzeari dagokionez hirugarren fasean dagoena. Espainia ere multzo horretan dago, baina jarduera-tasa altuagoarekin. Beraz, Bosnia eta Iran bezalako salbuespenak alde batera utzita, % 10etik beherako tasak dituzten nazio gehienak aipatzen ari garen hirugarren fase horretan edo bigarren fasean daude: eraginkortasun-irizpidearen eta berrikuntzakoaren arteko trantsizioan.

Estatua eta Autonomia Erkidegoak

GEM Espainia 2008 Txostenaren arabera eta ekimen ekintzailea edozein sektoretan martxan jartzen den eta 42 hilabete baino gehiago ez dituen edozein negozio edo enpresa-jarduera dela ulertuta, autoenplegua barne, Espainiako 18 eta 64 urte bitarteko biztanlerian 2008an erregistratutako jarduera ekintzailearen tasa % 7koa da, 2007an baino % 8 baxuagoa.

Espainian bizi den pertsona ekintzailearen profilari dagokionez eta azterketa honen metodologiaren arabera, ekintzaileak hainbat kategoriatan sailkatzen dira: ekintzaile sortu berria (jardueraren 3 hilabetera arte), ekintzaile berria (3 hiletik 42 hilera bitartean), ekintzaile finkatua (42 hiletik gora) eta jarduera utzi duen ekintzailea. 2008ko datuek honako profil hau ematen dute:

Ekintzaile sortu berria: 40 urte inguruko gizonezkoa (batez besteko adina handitu egin da 2007koarekiko), goi-mailako ikasketak eta errenta-maila ertaina (jaitsi egin da 2007koarekiko) dituena, jardunekoa, 4 kideko familiakoa, aurretik beste negoziorik izan ez duena eta espainiar naziotasuna duena.

Ekintzaile berria: 38 urte inguruko gizonezkoa, goi-mailako ikasketak eta errenta-maila ertaina dituena, jardunekoa, 3 edo 4 kideko familiakoa, aurretik beste negoziorik izan ez duena eta espainiar naziotasuna duena.

Jarduera utzi duen ekintzailea: Horretara bultzatu dituen arrazoia alde batera utzita, 2008ko uztailaren aurreko 12 hiletan jarduera ekintzaile bat utzi duten pertsonei dagokien profila da ondorengoa.

Gizonezko espainiarra, 41,5 urte ingurukoa, derrigorrezko edo hortik gorako mailako ikasketak eta errenta-maila baxua dituena, lanean ari dena eta 4 laguneko familian bizi dena.

Espainiako autonomia erkidegoek ekintzailetzaren ikuspegitik duten panorama asko aldatu da 2007koarekin alderatuta bizi dugun krisi-egoeraren eraginez. Aurreko urtean Kanarietakoa zen 18 eta 64 urteko biztanleen artean ekimen ekintzaileen portzentaje handiena zuena, baina Madril da 2008ko zerrendaren buruan dagoen autonomia erkidegoa. Madrilgo Erkidegoak berrikuntzaren eta enpresa-azelerazioaren aldeko apustu sendoa egin du koiuntura ekonomiko txarrei ongien aurre egiten dieten sektoreetan (energia berriak, teknologia eta bioteknologia, enpresa-zerbitzuak…). Aragoi dago bigarren tokian, Expo dela-eta azken urteetan egin diren inbertsio handiengatik. Katalunia eta Valentziako Erkidegoa beste erkidego batzuk baino lehenago harrapatu zituen krisiak eta, horregatik, jarduera ekintzailearen beherakada nabaritu dute ez delako gomendagarria enpresa-proiektuak gauzatzea tradizioz sendoak eta helduak diren jarduera-sektoreetan, esaterako, eraikuntzan eta eraikuntzarako materialetan, automozioan, ehungintzan, oinetakoen sektorean, etab.

Oro har, jarduera ekintzailea ia eskualde guztietan gutxitu da eta jaitsiera txiki horren eragina murriztu egin da osotasunean. 2007an 10 Autonomia Erkidego ziren Espainiako batez bestekoaren gainetik zeudenak, baina 2008an 8ra jaitsi da kopurua. Krisia estatu osoari eragiten hasita zegoela adierazten duen sintoma argia da. Ekintzailetza faseko atzerritarren jarduera totalaren % 12,6koa izan da 2008an, 2007an baino % 1,56 txikiagoa. Argentina da gure herrialdeari ekintzaile gehien ematen dizkion herrialdea.

2008ko Jarduera Ekintzailearen Tasaren eskualdeen arteko konparazioa.



Iturria: Bussines School Enpresa Institutua GEM 2008 Espainia Txosten Betearazlea.

EAE da jarduera ekintzailearen adierazleetan igoera izan duen lau Autonomia Erkidegoetako bat.

Orkestrak —Lehiakortasunerako Euskal Institutuak— zuzendutako "EAEko Global Entrepreneurship Monitor 2008 Txostena"-ren arabera, EAEk 2008an izan duen jarduera ekintzailea Espainia eta Finlandiakoaren antzeko mailan dago eta ekonomiaren ikuspegitik garrantzitsuenetakoak diren EBko lau herrialdetakoaren gainetik, Frantzia, Alemania, Italia eta Erresuma Batuaren gainetik hain zuzen ere. Aipagarria da EAE, Madril, Kantabria eta Aragoi direla adierazleetan igoera izan duten erkidego bakarrak; gainerako autonomia erkidegoek beherakada izan dute.

Aipagarria da baita ere euskal biztanleriaren % 6,9 42 hilabete arterainoko ekimen ekintzaileetan sartuta dagoela. EAEko TEA (Total Entrepreneurship Activity) adierazleak azken bi urteotan gorakada garrantzitsua egin izanak, aurtengo krisiari aurre eginez, jarduera ekintzailearen tasa % 6aren gainetik egotea gertakari egonkorra dela pentsarazten du.

EAEri dagokionez, honako hauek dira Global Entrepreneurship Monitor, GEM Euskal Autonomia Erkidegoa 2008 Txostenak jasotzen dituen datu esanguratsuenetako batzuk:

- Jarduera ekintzailearen "kantitateari" dagokionez, 2008ko jarduera ekintzailearen tasa, lehen adierazi den bezala, % 6,9koa izan da, 2008ko urtean krisi ekonomikoko egoera izan arren, 2007an lortutako % 6,4ko tasa baino hobea.
- Esanguratsua izaten jarraitzen du aukeragatik ekiteko motibazioaren nagusitasunak (% 82) "premiagatiko" motibazioarekin alderatuta. Pertsona batek aukeragatik ekiteko arrazoi nagusia burujabetasunarena da (aukeragatik ekiten duten pertsonen % 50ek arrazoi horregatik egiten du) eta, zehazkiago, diru-sarrera handiagoak lortzeko desirarena. Azken arrazoi hori berria da aurreko urteekiko.
- Aipagarria da enpresa "Finkatuak" dituzten pertsona sustatzaileen kolektiboan nabaritzen den susperraldia (% 42 baino gehiago). 2008an bikoiztu egin da 2007ko datua: % 9. Horregatik, EAE EBko herrialdeen laugarren tokian dago, gainerako Autonomia Erkidegoak baino askoz aurrerago.
- Halaber, goraipatu egin behar da pertsona ekintzaile potentzialei buruzko (alegia, hurrengo 3 urteetan ekiteko asmoa adierazi duten pertsonei buruzko) adierazlearen aurrerapen esanguratsua. 2008an adierazlea % 7,5ean kokatu zen, 2007an adierazle horrexek lortutakoa baino hiru puntu portzentual gorago.
- Pertsona ekintzailearen profilari dagokionez, ez da aldaketa handirik nabaritzen: emakumeen kolektibo ekintzaileen presentzia handiagoa antzeman den arren, ekintzaile gizonezkoen proportzioak emakumeenak baino handiagoa izaten jarraitzen du. Batez besteko adina 40 urte ingurukoa da eta unibertsitateko ikasketak dituzten ekintzaileen portzentajeak behera egin du. Oro har, iragan ekintzailea izan

ez duten pertsona ekintzaileak dira (pertsona ekintzaileen % 25ak baino gutxiagok ekin dute edo inbertitu dute eurena ez den proiektu ekintzaileren batean iraganean).

- EAEn gero eta gutxiago sortzen dira enpresa berriak autoenpleguko proiektuen ondoriozko estrategietatik.
- Aurten enpresen batez besteko tamaina txikitu egin da. Hala ere, GEM Txostenaren arabera, hasieran enpleguak sortzeaz gain, enpresa berriek enpresa finkatuek baino hazteko batez besteko ahalmen handiagoa dute (5 urteko epean espero den enpleguaren arabera).
- GEM Txostenaren emaitzek baieztatu egiten dute ekimen ekintzaileek, finkatutako enpresekin alderatuta, merkatuan berrikuntzak sartzeko ahalmen handiagoa dutela, bezeroarentzako produktu edo zerbitzu berri gisa. Aitzitik, ekimen ekintzaile berriek arazo gehiago dituzte produktuen fabrikazioan edo zerbitzu-prestazioan teknologia berriak eskuratzeko.
- Barne ekintzailetzarako ahalmenak edo lehendik dauden enpresek negozio berriak sortzeko duten ahalmenak 2008an beherakada handia izan duela ikusten da, aurreko urtean maila nahiko altua izan ondoren.

Bizkaia

Global Entrepreneurship Monitor, GEM Euskal Autonomia Erkidegoa 2008 Txostenak jasotzen dituen datu garrantzitsuenetako batzuk aurkeztuko ditugu ondoren, bai ekintzailearen profilaren ikuspegitik eta baita sortutako enpresaren profilarenetik ere.

Ekintzailearen profilari dagokionez:

- Emakume ekintzaileak 2007an Bizkaiko pertsona ekintzaile guztien % 30 izatetik 2008an % 40 baino zertxobait gehiago izatera pasatu dira.
- Batez beste, pertsona ekintzaileak 40 bat urterekin hasten dira negozioa merkaturatzea planifikatzen. Jardueraren lehen hiruzpalau urteetan negozioa finkatzea lortzen dutenek 45 urte dituzte batez beste. Enpresa bertan behera uztea erabakitzen duen pertsonak 40 eta 41 urte bitartean ditu batez beste. Ekintzaileak gero eta adin handiagoarekin hasten dira negozioan eta gero eta adin txikiagoarekin uzten dute negozioa. Aldi berean, 45 urtetik gorakoen kolektiboak Bizkaiko ekintzaileen artean gero eta presentzia handiagoa duela nabarmendu behar da.
- Pertsona ekintzaileen bi herenek, gutxi gorabehera, unibertsitateko prestakuntza dute. Negozioa itxi zuten lautik hiruk karrera unibertsitarioren bat egina zuen.

2008an Lan-Ekintza Bilbaok 144 lanpostu zuzen sortu dituzten 96 enpresa berri sortzen lagundu du.

- Elkarrizketa egin zaien Bizkaiko pertsona ekintzaile gehienek diote enpresa martxan jarri aurretik zituzten diru-sarrerak handitzeko eratu zutela negozioa. 2007an, aldiz, bere negozioa modu autonomoan zuzentzeko burujabetasuna izateko gogoa zen nagusi.
- Bizkaiko hamar pertsona ekintzailetatik batek adierazten du aurretik beste negozio bat sortuta eta/edo beste pertsona batek abiarazitako proiektu ekintzaile batean inbertituta hartu duela eskarmentu ekintzailea.

Sortutako enpresen profilari dagokionez:

- Negozioen hasierako kapitala 42.000 eta 82.000 euro artekoa da, 2007 edizioko zifrak baino zerbait txikiagoa.
- Hasierako kapitalaren % 30 eta % 60 arteko kopurua negozioaren bazkide sortzaileek jartzen dute.
- Negozioaren bazkide sortzaileen kopurua bi kidekoa da batez beste.
- Negozio gehienak mikroenpresak dira (10 langile baino gutxiago), eta ia % 20k 5 langiletik gora ditu.
- Negozio ekintzaileen heren bat, gutxi gorabehera, manufaktura-jardueretan aritzen da eta ia bi heren zerbitzu-jardueretan (enpresa-zerbitzuak eta pertsonentzako zerbitzuak).
- Enpresen ia % 40k atzerriko bezeroei fakturatzen die. Hamar enpresatatik bik, gutxi gorabehera, urteko fakturazio osoaren % 25etik gora fakturatzen die atzerriko bezeroei.

Bizkaiko jarduera ekintzailearen panorama osatzeko, enpresa berriak martxan jartzen laguntzen duten erakunde garrantzitsuenen ekintzak xehatuko dira ondoren:

Lan Ekintza-Bilbao Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Udal Sozietateak lan-munduan lanpostu baten bila dabiltzan 3.696 langaberi lagundu die 2008an. Horrez gain, 144 lanpostu sortu dituzten eta 4,3 milioi eurotik gorako inbertsioa egin duten 96 enpresa berri sortzen lagundu du.

Bestalde, 1.273 enpresari lagundu die finkatzeko, lehiakortasuna hobetzeko eta giza baliabideak lortzeko proiektuetan. Udal Sozietateak enplegu-eskatzaileei, enpresariei edo negozio berri bat sortzeko interesa zuten pertsonei zuzendutako aholkularitza pertsonalizatuaren bitartez bete du bere egitekoa.

Laguntza indibidualizatu horrekin batera, 125 prestakuntza-ikastaro baino gehiago antolatuta, horietara joan diren 1.369 pertsonaren ezagutzak eta trebetasunak hobetzeko aukera eman du, guztira.

Bizkaiko, EAEko, Estatuko eta GEM herrialdeetako jarduera ekintzailearen 2008ko panorama orokorra.

JARDUERA EKINTZAILEA	*GEM*	*Estatua*	*EAE*	*Bizkaia*
Jarduera ekintzailearen tasa	*%10,5*	*%7*	*%6,85*	*%6.9*
Enpresa sortu berriak (≤ 3 hilabete)	*--*	*%3,3*	*%3,55*	*--*
Enpresa berriak (3-42 hilabete)	*--*	*%3,7*	*%3,30*	*--*
Enpresa finkatuak (> 42 hilabete)	*7,76*	*%9,1*	*%8,95*	*--*
Enpresen itxierak	*3,45*	*%1,37*	*%0,95*	*--*
Ekiteko motibazioa: aukeragatik	*--*	*%80*	*%81,8*	*--*
Ekiteko motibazioa: premiagatik	*--*	*%14,8*	*%11,7*	*--*

Iturria: Babson eta Garapenaren unibertsitatea. Global Entrepreneurship Monitor 2008.
Business School Enpresa Institutua. GEM 2008 Espainia Txosten Betearazlea
Orkestra. Eusko Ikaskuntza. GEM Euskal Autonomia Erkidegoa 2008.

CEDEMI Ezkerraldeko Enpresak Garatzeko Zentroak 22 enpresa berri sortzen eta lehendik zegoen ETE baten proiektua garatzen lagundu du 2008an. 3 urteko epean 250 enplegu berri sortuko ditu eta 16,5 milioi €-ko inbertsioa eragingo du.

BBK Gazte Lanbideanek, bestalde, 180 enpresari lagundu die Bizkaian. Enpresa horiek 271 lanpostu sortu dituzte guztira eta 11,8 milioi euroko inbertsioa eragin dute. Emandako finantziazioa 7,3 miloi eurokoa izan da.

Euren lana metropoli ingurunean egiten duten Garapeneko garapen-agentzia lokalek ere datu interesgarriak dituzte ondorengo taulan ikus daitekeen bezala.

Jarduera ekintzaileari buruzko adierazle totalek Udalek pertsona sustatzaileei negozioak martxan jartzeko fasean egiten duten sustapen- eta laguntza-lan garrantzitsuaren ikuspegia eskaintzen dute: 464 enpresa berri Bizkaian. Inbertsio totala 15.227.757 €-koa izan da.

Spritaldeko Sprilurbaltzu publikoak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiru lurralde historikoetan enplegua eta enpresen lehia-faktorea bultzatzeko helburuarekin ekonomia-jardueretarako industria-azpiegiturak sustatzea eta kudeatzea xede duenak, 42 poligono propio ditu eta 27 industrialdetan parte hartzen du gaur egun.

Poligono propioetan 506 enpresa daude ezarrita eta 7.629 enplegu zuzen sortzen dituzte.

Zuzenean 42 poligono kudeatzen ditu eta zeharka, Industrialdeak Sozietateen bitartez, beste 66.

Jarduera ekintzailearen hainbat eremuren arteko 2008ko konparazioa.

TOKIKO GARAPEN-AGENTZIAK	Enpresa berriak	Sustatzai-leak	Inbertsioa €
Lan Ekintza-Bilbao	96	138	4.346.494,00
Basauri	55	69	1.987.550,00
Erandio	22	78	--
Forlan Behar-gintza	21	28	910.350,74
Galdakao	7	7	--
Getxo	37	47	--
Inguralde	55	71	4.561.756,00
Leioa	4	6	--
Portugalete	17	30	682.200,00
Sestao	7	8	--
Txorierri	23	35	1.537.106,55
Uribe Kosta	22	33	--

Iturria: Garapen.

biltzarrak

Foto: Bilbao Turismo.

BilbaoLan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

turismoa

kapitulua

10.

Biltzarrak eta turismoa

10. kapitulua

Biltzarrak eta turismoa

Biltzarrak eta topaketak

Negozioen turismoa aurrerapen ekonomikoari laguntzen dioten jardueren bultzatzaile bilakatu da.

Bilbao Convention Bureauk turismoaren merkatu-segmentu horren erronka berri eta zehatzen aurrean udalerriak hartu beharreko jarrera finkatzen duen Batzorde Estrategikoaren sorrera sustatu du.

Biltzarrak, batzarrak, pizgarri modura egindako bidaiak zein azokak edo erakusketak dira negozioetako turismo gisa ezagutzen duguna, gero eta nabarmengarriago bihurtzen ari den balio handiko jarduera.

Turismoaren sektorean duen garrantziak eta balio erantsiak -ekipamenduak, enpresa-sareak eta aberastasuna sorrarazten dituen heinean- denek irrikatzen duten sektore bihurtu dute. Hala, ohi denez negozioen turismoaren hartzaile izan diren hiriez gain, beste askok ere nahi dute negozioek eskaintzen dituzten aukerez baliatu. Hori lortzen ahalegintzen dira enpresak, bada, halako egitura garatzeko gai direla erakusteko.

Irrika hori ez da inondik inora hutsala, hiri askotan, negozioen turismoa ohiko turismoaren jarduera osagarri izatetik aurrerapen ekonomiko nabaria lortzen duten jardueren bultzatzaile bihurtu baita. Negozioen turismoak ohiko turismoaren behe-denboraldiko sasoietan okupazio-maila hobetzen du; hortaz, sasoitik sasoira bitarteko aldea murrizteko estrategiak sortzeko balio du. Batetik, gastua eragiten duten erosteko ahalmen ertaineko edo altuko pertsonei zuzendua dago. Bestetik, hirietako turismoarengatiko diru-sarrerak hobeto banatzea dakar.

Testuinguru honetan, lehiakortasuna areagotuz doan heinean, Bilbao Convention Bureauk, Bilbao Turismo udal sozietatearen sailetik Batzorde Estrategiko baten sorrera bultzatu du. Hala, sektorean eta erakunde publikoetan esku hartzen duten eragile nagusien ezagutzak eta sinergiak bat eginez, turismo mota honek eskaintzen dituen erronka berrien aurrean udalerriak bere tokia har dezan du xede ekimen honek.

Hona hemen Batzordea osatzen duten eragileak: Bilboko Udala, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera, Bilbao Metropoli 30, Bizkaiko Ostalaritzako Enpresarien Elkartea, Bilbao Dendak, Destino Bilbao, Bilboko Portu Agintaritza, Euskalduna Jauregia, Bilbao Exhibition Centre, Bilbao Air eta Bilbao Ría 2000, baita Bilboko Aireportuaren lankidetza ere, besteak beste.

Bilbon izan den eraldaketa prozesu nabarmengarriak eta bere hiri-egiturak biltzar jarduera bultzatu dute. Hala, tradizio handiko ibilbide historikoarekin batera hazkunde prozesua piztu egin da. Baliabide publikoak eta ekimen pribatuak bat eginik jarduera hauek garatzeko nahitaezkoak diren azpiegituren eraikuntza eta eraldaketa bideratu ahal izan da, hala nola espezializatutako aretoak, irisgarritasuna hobetzeko garraio sarea, erraztasun logistikoak eta kalitate handiko hoteletako eta zerbitzu publikoetako eskaintzaren gorakada. Hauek guztiak, noski, bisitariaren eskakizunen arabera egokitu nahi izan dira.

Hori horrela, jarduera honen etorkizuna mesedegarria izango dela esan liteke, hazteko marjina zabala aurreikusteko bezain ona, behintzat. Bilakaera hau modu horretan bilakatzekotan, Bilbok hiri nagusien arteko erreferente gisa jarrai dadin onuragarria izango da, Estatu mailan biltzar eta bilerak egiteari dagokionez.

Bizkaian egin dira EAE osoko bileren % 69. Araban, berriz, guztirakoaren % 25 egin dira eta Gipuzkoan, gainerako % 6.

TESTUINGURU OROKORRA

Turespañak plazaratu duen Negozioetako turismoaren inguruko azken txostenean ageri denez, 2007. urtean bildutako datuek negozioen turismoak bide onetik jarraitzen duela erakusten dute. Estatuan egindako 25.800 bileretan ia lau milioi parte-hartzaile izan dira, 2006koetan baino %6,3 gehiago.

Txostenak azaltzen duenez, sektorearen bizitasun nabarmen hau azken bost urteetako balantzean oso argi ikus daiteke, epe horretan ekitaldi kopuruaren gorakada ia 10.000koa eta biltzarretan izandako parte-hartzaileena ia milioi batekoa izan baitira.

Turismo jardueraren segmentu honen eragin ekonomikoak 4.200 milioi euroko zuzeneko gastua ekarri du. Guztirako gastu horretan, atzerriko turistei erdia baino gehiago dagokie. Ekitaldi hauetako xede egoitzetara parte-hartzaileen laguntzaile modura etorri direnek soilik egindako gastua 1.110 milioi eurokoa izan da (hamar parte-hartzailetik hiruk laguntzaileren bat eramaten du ekitaldi hauetara).

Biltzarretako parte-hartzaileen batez besteko eguneko gastua Espainian 178 eurokoa izan da. Dena den, datu honetan ere batzuen eta besteen arteko alderik badago, zenbat eta hiria handiagoa izan, orduan eta gastu gehiago egingo baita. Milioi bat biztanletik gorako hirietan egiten diren bileretara batez beste 211 euro gastatzeko prest dauden parte-hartzaileak joaten dira. Zifra hori 92 euro gutxiago da, ordea, 500.000tik milioi bat biztanlera duten hirietan.

Bileretan parte hartzen dutenen batezbestekoa 152koa da. Hegazkinez bidaiatzen dira, batik bat, eta hiri barneetan mugitzeko taxia erabiltzen dute gehien. Batez beste 1,14 egun pasatzen dituzte hirian eta lau (%53) edo bost izarreko (%15) hoteletan egiten dute gaua.

EAEn 2008. urtean 1.414 bilera egin dira, guztira. Hauetako 981 Bizkaian (hiriburuan, zehazki esateko) egin dira, 349 Araban eta 84 Gipuzkoan.

Guztira etorri diren 264.015 ordezkarietatik %73 Bilbon egindako bileretan batu dira. %19,6 Araban izan dira eta %7 baino pixka bat gehiago Gipuzkoan bildu dira. Azken probintzia honetan erregistratu da ordezkarien ratio handiena, ekitaldiko 240 parte-hartzaile egon baitira.



Argazkia: Bilbao Turismo.

BILBON EGINDAKO BILERAK

Bilbon egindako bilerek hazkunde eutsia eta zentzuduna izan dute erakunde publiko eta pribatuen bultzadari esker.

Bilbon egindako bilerek goranzko bidea hartu zuten orain dela hamar urte eta hazkunde eutsia erakusten jarraitzen dute, erakunde publikoen eta pribatuen ahaleginarekin bat. Izan ere, erakunde hauek mota guztietako ekitaldietarako kalitatezko guneak sortzeari ekin nahi izan diote, Bilbok topagune estrategiko bezala dagoeneko baduen tokia bermatzeko.

Eskura dauden zentro guztien artean, azpiegiturei eta tokiaren baldintzei begira –zabalera, erosotasuna, soinu eta argiztapen kalitatea- egokienak direnak honako hauek dira: Bilbao Exhibition Centre azoka-esparrua, Guggenheim Museoa, Euskalduna Biltzar eta Musika Jauregia, Bizkaiko Parke Teknologikoa, Bilboko Merkataritza Ganbera eta Arriaga Antzokia.

2008ko datuak aurreko urtekoa aise gainditu du 192.110 ordezkarirekin, hortaz, historian inoiz lortutako zifra erdietsi da beste behin. Guztira egin diren bilerak 981 izan dira, 2007an baino hogeita sei gutxiago. Parte-hartzaileen batezbestekoa 196koa izan da, Espainian 2007an erregistratutako (eskuragarri dagoen azken datua) 152koaren oso gainetik.

2001etik 2008rako bilakaeran goranzko joera eutsia nagusitu dela ageri da; izan ere, bisitarien kopurua %152 hazi da eta bileren guztirakoa %87 igo da.

Horrezaz gain, azken zazpi urteetan zehar lortutako emaitzek Bilbon erabilitako sustapen estrategien baliagarritasuna baieztatzen lagundu dute eta, ondorioz, hiria bilerak egiteko zein formatu handiagoko batzarrak antolatzeko topagune aparte gisa aurkeztu ahal izan da. Hala, 2001ean batez beste 146 ordezkari egon baziren, 2008an 196 egon dira.

Bilbon egindako bileren bilakaera, 2001-2008.



Iturria: Bilbao Convention Bureau.

Bilera mota

2008an egindako bileren motari begira ez da aurreko urtearekiko aldaketa handirik egon. Nahiz eta 26 bilera gutxiago egin diren, %3,8 hazi da parte hartu duten ordezkarien kopurua.

Bilera modalitate ohikoena jardunaldiena izaten jarraitzen du, guztirako ekitaldien %44,6 izan baitira. Mintegi eta batzarretan ere neurrizko igoerak izan dira. Sinposioen kopurua, aldiz, erdira jaitsi da: iaz 14 egin ziren arren, aurten 7 besterik ez dira egin, 2006an bezalaxe.

Egindako biltzar guztien artean, Congreso de Enfermedades Cardiovasculares (SEC, Bihotz Hodietako Gaixotasunen Biltzarra) nabarmendu beharra dago, medikuntza sektoreko 4.000 profesional batu baitzituen. Aipagarriak izan dira, baita ere, 50º Congreso de la Sociedad Española de Endocrinología y Nutrición (Endokrinologia eta Elikaduraren Espainiako Elkartearen 50. Biltzarra), III Foro Internacional de Artes Escénicas Escenium 2008 (Escenium 2008, Arte Eszenikoen Nazioarteko III. Foroa) edo, lehen aldiz egin delako, Congreso de Urbanismo y Ordenación del Territorio (Hirigintza eta Lurralde Antolamenduaren Biltzarra).

2007-2008ko urteetan Bilbon egindako bileren bilakaera, motaren arabera.

BILERA MOTA	2007	2008	Δ
Jardunaldiak	495	438	-%11,5
Mintegiak	259	290	%12
Bilerak	145	153	%5,5
Biltzarrak	94	93	-%1,1
Sinposioak	14	7	%-50
GUZTIRA	**1.007**	**981**	**-%2,3**

Iturria: Bilbao Convention Bureau.

Bileren iraupena

Bilbao Convention Bureauk bildutako datuei jarraiki, Bilbon 2008an egindako bileren batez besteko iraupena 1,68 egunekoa izan da, 2007an baino 0,18 egun gutxiago.

Beherakada horren kausa 4 egun baino gehiagoko bileren jaitsieran dugu, aurreko urtean %4,5eko datua erregistratu arren 2008an %2,1ekoa izan delako.

%81,6 bi eguneko bilerak izan dira eta %16,2 hiru eta lau egun artekoak.

2007-2008ko urteetan Bilbon egindako bileren iraupenaren bilakaera.

IRAUPENA	2007	2008	Δ
2 egunera arte	%79,8	%81,6	%2,2
3 egunetik 4ra bitartean	%15,7	%16,2	%3,2
4 egun baino gehiago	%4,5	%2,1	-%53,3
Batez besteko iraupena	1,86 egun	1,68 egun	-%9,6

Iturria: Bilbao Convention Bureau.

Argazkia: Enkartur- Turismoa Enkarterrietan.

Bilerak sasoitik sasoira

Hala, 2008ko hilabeteetan zehar bilerek eragindako mugimenduei erreparatuz gero, ohiko turismoaren kontrako joera dutela ageri da. Azaroan erregistratu zen kopuru nabarmenena (%13,4) eta abuztuan, aldiz, txikiena (%0,8).

Apiriletik ekainera bitartean egin dira bilera gehienak 2008. urtean, zehatzago esanda, %34,6. Honek zera esan nahi du, 2007ko datuarekiko 5 puntu igo dela portzentaje hori eta, beraz, turismo mota honetako ohiko hilabeteetan –urria eta azaroa, bereziki– erregistratutakoaren gainetik geratu dela.

Udazkenean urteko bileren %30 egin dira, urrian eta azaroan, batik bat, aurreko urteetan gertatukoaren ildo berean.

Uztailean, baina, nabarmen jaitsi da ekitaldi kopurua –%4 besterik ez– eta abuztuan joera hori areagotu dela ikusi dugu, guztirakoaren %0,8 baino ez baitira egin hil horretan.

2007-2008ko urteetan Bilbon egindako bileren bilakaera sasoitik sasoira (%).



Iturria: Bilbao Convention Bureau.

2007-2008ko urteetan Bilbon eta Estatuan egindako bilerak sortu dituzten sektoreen bilakaera.

SEKTOREAK	BILBO		ESPAÑA 2007
	2007	2008	
Teknologia eta industria	%27,4	%21,6	%12,7
Osasuna eta medikuntza	%19,7	%19,8	%22,3
Ekonomia eta merkataritzakoa	%16,7	%19,4	%29,5
Kultura eta gizartekoa	%12,2	%17,0	%8,5
Beste batzuk	%9,4	%7,2	%8,8
Publikoa	%8,1	%9,7	%11,3
Unibertsitatekoa	%6,5	%5,3	%6,8

Iturria: Bilbao Convention Bureau eta Spain Convention Bureau.

Bilerak eragin dituzten sektoreak

Berriz ere, industria eta teknologiaren sektorea izan da Bilbon bilera gehien eragin duena: 2008an egindakoen %21,6. Haren atzetik, osasun- eta medikuntza-sektorea eta ekonomia- eta merkataritza-sektorea daude eta, askoz atzerago, jarduera soziokulturalak.

Biltzarretako jardueren sektorekako banaketa kontuan hartuz gero, Bilbo metropolitarraren eraldaketak, zenbait sektore berebizikoren bilerentzako erakarpen-indarrari dagokionez, bere ahalmena handiagotu duela adieraz daiteke, bai jarduera sozioekonomikoarentzako, bai hiriko enpresa sarean sortzen ari diren hirugarren sektoreko beste jarduera batzuentzako.

2007ko datuekin alderatuz gero, sektore soziokulturalaren, publikoaren eta osasun- eta medikuntza-sektorearen barne egindako bilerek gora egin dute 2008an. Datuok erkatu ondoren, jaitsiera aipagarriena teknologiaren eta industriaren sektorean legoke, portzentajezko 5,8 puntu erori baita.

Bilboko segmentukako banaketa ez da Espainiako bera, Estatu mailan ekonomia- eta merkataritza-sektorea baita bilera gehienen sorburua (%29,5). Ondoren, osasun- eta medikuntza-sektorea legoke eta, oraindik ere nahiko garrantzia dutela, teknologia- eta industria-sektorea eta sektore publikoa egongo lirateke atzetik.

Teknologiaren eta industriaren sektorea bilera gehien sortzen duena izaten jarraitzen du Bilbon.

BILBAO EXHIBITION CENTRE

2004an sortu zenetik aurrera, Bilbao Exhibition Centre (BEC) azoka-esparrua erreferentziazko bihurtu da eremu geografiko aski zabalean. Zerbitzu anitz emateko diseinatuta dagoelarik, BECek baldintza zorrotzak betetzen ditu kalitateari eta funtzionaltasunari dagokienez, bai erakusketarientzako, bai bisitari edo publiko orokorrarentzako.

2004an sortu zenetik aurrera, Bilbao Exhibition Centre (BEC) erreferentziazko azoka-esparrua da eremu geografiko aski zabalean.

Zentroak duen 250.000 m²-tik gorako azaleran pabiloi ezberdinak sartzen dira. Erakusketetarako azalera handia jartzen du eskura, bada, kalitatezko akustikarekin eta zerbitzu teknologiko berri-berriekin, kontzertuak, biltzarrak zein Bizkaia Arenan egindako kirol, musika eta kultura topaketak hartzeko.

Esparruak 4.000 aparkaleku ditu, gainera, bertako ekitaldietarako ez ezik, metroko sarbideen ondoan aldirietako aparkaleku modura jadanik erabiltzen direnak. Honek eragin handia du hirian, Bilbo Handiko bide sareko trafiko zama arintzen laguntzen duelako.

2008. urtean, 17 azoka egin dira Bilbao Exhibition Centren, 152 ekitaldi ezberdin BEC Batzarrak sailean eta 20 ikuskizun Bizkaia Arenan, hau da, 2.354 erakusketari eta 1.109.176 bisitari, guztira.

Aurrenekoen artean, azpimarratzekoa da urte honetan Makina Erremintaren Espainiako Biurtekoaren (BIEMH) 25. azoka egin dela. Hori ez ezik, Expovacaciones edo Tendencias Creativas bezalako azoka nabarmengarriak ere egin dira, besteak beste. Biltzar eta ikuskizun esanguratsuenen artean, hona hemen aipagarrienak: Pasarela Difusión, Aerotrends, Sektore Aeroespazialeko Negozioen Nazioarteko 3. Topaketa, Miguel Bosé edo El Canto del Loco bezalako musikarien kontzertuak, Apassionata izeneko zaldien ikuskizuna eta Iurbentia Bilbao Basketen partidak.

Aurtengo berrienen artean GEO2 izan dugu nabarmentzeko, Garapen Jasangarriaren 1. azoka izan baita. Horrezaz gain, ezin aipatzeke utzi Euskal Herriko batzarrik handienaren egoitza izan dela, hau da, medikuntzako 4.000 aditu bildu zituen Congreso de Enfermedades Cardiovasculares (SEC, Bihotz Hodietako Gaixotasunen Biltzarra). Antolamenduari begira, On Line Denda ere aurrerapauso handia izan da, beharrezko baliabide guztiekin norbere stand-a diseinatzeko aukera ematen duen elkarreraginezko gunea den heinean.

2008an BECen egindako ekitaldiak.

EKITALDIA	ERAKUSKETARIAK	HARTUTAKO M² GARBIAK	BISITARIAK	BISITARI PROFESIONALAK
UGP	47	28.787	293.000	-
TENDENCIAS CREATIVAS	85	900	18.125	-
BIEMH	784	57.093	65.094	57.553
CONSTRULAN	242	10.056	17.916	15.612
DESEMBALAJE (maiatza)	123	5.240	2.320	-
EXPOVACACIONES*	229	9.780		2.917
EXPOCONSUMO*	67	4.505	280.699	-
CREAMODA	79	2.567		-
EUSKAL ENCOUNTER	70	10.300	5.845	-
NAGUSI	60	8.187	93.000	-
FOSMINER	73	527	42.224	-
EXPOBODAS	117	1.920	48.124	-
BISUTERIA	48	1.401	2.245	1.697
GEO2	142	4.435	4.329	3.869
EXPONATUR	77	8.338	12.785	-
DESEMBALAJE (abendua)	102	4.400	3.915	-
GUZTIRA	**2.345**	**158.436**	**889.711**	**81.648**

* *Expovacaciones azokara bertaratutakoen kopuruak Expoconsumoko bisitariak sartzen ditu barne eta alderantziz.*

(--) Datu hau ez dago eskuragarri.

Iturria: Bilbao Exhibition Centre.

Azoketan erakusketarien kopuruak behera egin du nabarmen (2.345 besterik ez), ia %33 gutxiago 2007arekiko. Bisitarien zifrak, ordea, ez du halakorik erakutsi, %1 baino gehixeago ez baita jaitsi.

Bestetik, azken batean garrantzitsuago diren zifrei begira, 2008ko 81.648ko bisitari profesionalen kopurua aurreko urtekoa baino %41 gorago dago. Hazkunde horren atzean zera dago, Makina Erremintaren Espainiako Biurtekoaren (BIEMH) 25. azoka, Estatu mailan sektoreko garrantzitsuena eta Europa mailan 3. azokatzat hartzen dena, izan ere, 66 herrialdetako bisitari profesionalak hartzen baititu.

BECek 2008an garatutako jarduerek 92.666.463 euroko eragin ekonomikoa izan dute EAEko Barne Produktu Gordinarengan (BPGd). Guztira, duela bost urte martxan jarri zenetik, 407,8 milioi euroko metatutako eragina izan du BECek, hots, inbertsioaren balioaren 78,5.

BECen adierazle nagusien bilakaera, 2006-2008.

BEC	2006	2007	2008
Eragin ekonomikoa (BPGdeko zifratan)	76.100.000	89.475.281	92.666.463
Enplegua	1.761	2.060	2.150
Azokak	20	24	17
Ekitaldiak	86	128	152
Ikuskizunak (Bizkaia Arena)	14	24	20
Erakusketariak	2.551	3.555	2.354
Bisitariak	1.207.373	1.212.065	1.109.176
Okupazioa (Azoka egunak eta muntatze edo desmuntatze lanak)	286	274	291

Iturria: Bilbao Exhibition Centre - BEC.

EUSKALDUNA JAUREGIA

2003. urtean "World´s Best Congress Centre 2003" Apex Award deritzona jaso zuelarik, hau da, nazioarte mailan dagoen saririk gorena, Bilbo berriaren eraldatze eta sendotzearen mugarri adierazgarrienetarikoa dugu. 53.000 m²–ko azalera duen erabilgarritasun anitzeko konplexua da, instalazio berritzaileekin hornituriko hainbat gune barne sartzen dituena. Azken hauen kalitatea eta konplexuak eskaintzen duen zerbitzu sorta dira onespen maila altuaren berebiziko oinarria.

Gainera, Euskalduna Biltzar eta Musika Jauregiak ondoko ziurtagiriak bereganatu ditu: Kalitatezko ISO 9001, Ingurumen kudeaketako ISO-14.001, Lan-arriskuen prebentziorako OHSAS-18001 eta Turismo kalitatearen Q saria.

Halaber, Jauregia Jatetxe eta Catering Zerbitzua Ingurumen Kudeaketako ISO 14001 ziurtagiriaren eta Turismo kalitatearen Q sariaren jabe da eta Etxanobe Jatetxeak, bere aldetik, Michelin izar bat eskuratu du.

Aurtengoa bere ekitaldirik onena izan delarik, Estatuko Biltzar Jauregien buru izaten jarraitzen du Jauregiak biltzar eta bilera jardueretan. Guztira, 515 ekitaldi antolatu dira bertan (biltzarrak, bilerak, jardunaldi eta mintegiak, bilkura eta batzar nagusiak eta hainbat gizarte-ekitaldi).

Entzungela publikoen buru ere bada; hona hemen hori islatzen duten zifrak: 346 emanaldi (kontzertu, opera, ballet, dantza), 326.227 ikusle eta 9 milioi euro inguru sarrera salmentarekin.

2008an zehar 850 ekitaldi eta emanaldi hartu ditu, okupazioaren %94, eta inauguratu zutenetik inoiz izan duen bisita kopururik altuena ere lortu du, 494.994.

Pasa den urtean 1.471 pertsonari lan eman diolarik eta 800.000 euroko superabita izan duelarik, Euskalduna Jauregiaren kudeaketa ekonomikoak inolako diru-laguntzarik gabe hasiera-hasieratik aurrera egin izana du bere alde.

Are gehiago, Euskadiko BPGdarengan 60 milioi euroko eragin ekonomikoa izan du 2008an Jauregiak bultzatutako jarduerak.

Euskalduna Jauregia Estatuko Biltzar Jauregien buru da biltzar eta bilera jardueretan.

2008an Euskalduna Jauregian egindako bilerak.



Iturria: Palacio Euskalduna - Euskalduna Jauregia.

Turismo jarduera

2008. urtean turismo sektoreak ere igarri ditu krisialdiaren ondorioak Espainian. Ziklo aldaketak ere eragin nabarmenagoa izan du uda ostean, batez ere. Turismoaren sektorean -%1,1eko beherakada nabaritu da Excelturren Espainiako Turismoaren Adierazle Sintetikoaren (ISTE) arabera, hots, beste sektoreetan baino handiagoa.

ISTE adierazle edo BPGd turistikoaren bilakaera Estatuko BPGdarekin alderatuz gero, 2001-2008.



Iturria: Exceltur, ISTE.

Adierazle honen eta BPGdaren arteko alderatutako urteko hazkundearen eboluzioak fluktuazio nabarmenagoa erakutsi du. Grafikoan ageri den legez, ISTE adierazlea ez da Espainiako ekonomiaren BPGdarena bezain egonkorra izan.

Turismoaren BPGda zifra negatiboetara erori da, 2002az geroztik behin ere gertatu ez dena. Ekonomiaren BPGd orokorraren datua, aldiz, positiboa da, %1,2koa, nahiz eta honek ere beheranzko joera ageria duen.

Argazkia: Bilbao Turismo.

Datu absolutuetan, bidaiarien kopurua 82.998.878koa izan da eta horien artean atzerrian bizi direnak, berriz, 35,7 milioi izan dira, 2007an baino -%1,7 gutxiago. EINen datuen arabera, Espainiako eskariak egin du behera bereziki –galdu den guztiaren %98– eta, era berean, etorritako atzerritarrak eta hauek egindako gastua ere jaitsi egin dira, Erresuma Batuko bisitariei dagokienez, batik bat.

Datu horiei jarraiki, ez da harritzekoa egoera hau gehien sufritu duten produktu lerroak Espainiako hirietara egindako bidaia laburrak izatea, azken urteetan Espainiako turismo sektorearen gorakadaren eragile nagusia izan direnak, hain justu. Ohiko eskaintzatik gehien bereizten diren helburuak soilik libratu dira.

2008. urteko balantzea -%3,5ekoa izan da EAEn hartutako bidaiarien datuari dagokionez eta, horren inguruan, ostatu-gauen kopuruak %4,2 egin du behera. Estatuko bilakaeraren ildo beretik, 2002. urteaz geroztik lurralde honetan bizitako goranzko joera bertan behera geratu da 2008an.

Etorritako bidaiarien kopurua 2.020.446ekoa izan da, hau da, aurreko urtean hartu genituenak baino 73.000 gutxiago. Hala ere, segidako hirugarren urtez, bi milioi baino gehiago izan dira EAEn ostatu hartu duten bisitariak, nahiz eta zazpi urtez hazkunde eutsia izan ostean lehen aldiz behera egin duen. Bisitari kopurua %5 gutxitu da Araban eta %3 Bizkaian zein Gipuzkoan.

Eremu geografikoei begira, jardueraren atzeraldia hiriburuetan (-%3,8) nabaritu da gehien, izan ere, bisita kopuruaren %60 hartzen baitute, kostaldean eta barrualdean ez bezala.

2008an erregistratu diren ostatu-gauak 3.789.563 izan dira, aurreko urtean baino 167.000 gau gutxiago. Bilakaera negatibo hori Araban (-%5), Bizkaian (-%4) zein Gipuzkoan (-%5) igarri da.

Batez beste, turistek 1,88 eguneko bisitak egin dituzte 2008an (1,89 aurreko urtean). Okupazio-maila, bestalde, 2007an %46,94koa izan bazen, 2008an %44,16koa izan da EAEn.

Euskadira etorritakoen artean ere, Estatuko turismoak azaldu du beherakada nabarmenena, segidako bigarren urtez -%6koa izan dena. Era berean, atzerriko turismoaren goranzko joerak beheranzko bidea hartu du, baina ez da horrenbeste jaitsi (-%2,5).

Estatuko turista kopuruaren beherakada Gipuzkoan gehien nabaritu delarik (-%8,2), Bizkaia izan da atzerritarren bisiten galera handiena nozitu duen eskualdea (-%4;4). Batez ere, urte honetan britainiar askoz gutxiago etorri delako gertatu da hori. Nolanahi ere, Bizkaia helburu nagusia da Euskadira datozen turista atzerritarrentzako, bisita guztien %50 eskualde honetan hartzen baitira.

Orain arte bezala, Bizkaia da Euskadira datorren atzerriko turismoaren lehen helburua.

Bilboko turismoaren adierazleak sektorearen hazkundea bertan behera geratu den erakusgarri dira.

BILBOKO TURISMO JARDUERAO

Bilboko turismoaren adierazle nagusiak sektorearen hazkundea bertan behera geratu den erakusgarri dira, gainerako arloetan gertatu den bezalaxe.

Honen inguruan, daturik txarrenak bidaiarien kopuruaren beherakada eta horrek ostatu-gauetan izan duen eragina lirateke. Alde onena, berriz, ostatu ematen duten establezimenduen eskaintza areagotu dela da, sektore pribatuaren jarrera baikorraren isla, alegia. Hala, hurrengo urterako egin diren aurreikuspen ekonomiko makurren gainetik, udalerriko instalazioen kalitateak eta baliabide turistikoek hobera egin dute.

2006az geroztik gertatu den bezala, gurutzaldien kopuruak eta horietan bidaiatzen direnen guztirakoak gorantz jarraitzen dute. Horrez gain, 1997an Guggenheim Bilbao Museoa ireki zenetik, Bilboko Portua nazioarteko gurutzaldi zenbaiten ibilbidetako geldialdien artean dago. Ondorioz, Getxoko kaian porturatu diren ontziak nabarmen igo dira. Zehazki esanda, 2008an 38 gurutzaldi iritsi dira, hau da, 2007an etorritakoak bikoiztu dira. Hauek ekarritako bisitariak 37.126 izan dira, guztira.

Bilboko turismoaren datu esanguratsuenen bilakaera, 2007-2008.

ADIERAZLEAK	2007	2008	Δ
Establezimendu irekiak	51	53	%3,9
Urteko tokien eskaintza	2.263.170	2.337.368	%3,3
Toki kopuruarekiko okupazioa	%51	%48	-%5,8
Bidaiari kopurua	623.229	604.318	-%3
Ostatu-gauak	1.148.891	1.115.693	-%2,9
Aire bidezko bidaiaria	4.254.395	4.172.901	-%1,9
Gurutzaldiak	21	38	%80,9
Gurutzaldietako bidaiariak	22.972	37.126	%61,6
Bilerak	1.007	981	-%2,5
Ordezkariak	185.035	192.110	%3,8

Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Etorritako bidaiarien kopurua eta jatorria

2008. urtean zehar, 604.318 bidaiari, kanpokoak zein estatukoak, etorri dira Bilbora. Estatuko turismo sektorearen joera orokorraren ildo beretik, adierazle honek %3 egin du behera eta, horrela, 2001ean hasitako hazkundea eten egin du, ondoko grafikoan ikus daitekeen bezala.

Bilbora etorritako bisitarien bilakaera, 2001-2008.



Iturria: Bilbao Convention Bureau.

Bilbon batzen dira, hain zuzen ere, Euskadi osoan erregistratutako 2.020.446 sarreren %30. Hala, gure erkidegoko turismoaren hiriburua izaten jarraitzen du, baita bidaiarien portzentajezko galera txikiena nozitu duena ere.

Beste bi hiriburuei kasu egiten badiegu, Donostia-San Sebastiánen guztirako bisitarien %20 hartu dira (406.138) eta Vitoria-Gasteizen, %10 (205.022). Lehenengoak, bada, urtetik urterako %3,4ko beherakada izan du, eta bigarrenak, -%6,9koa.

Bidaiarien kopuru eta jatorriaren bilakaera, 2007-2008.

JATORRIA	2007	2008	Δ
Estatukoak	*393.462*	*383.402*	*-%2,6*
Atzerrikoak	*229.767*	*220.916*	*-%3,8*
Guztira	***623.229***	***604.318***	***-%3***

Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Jatorriaren araberako azterketa egiten badugu, Bilbo bisitatu duten 3 turistatik 2 Estatukoak izan dira, aurreko urteko datuarekiko hamarren batzuk gehiago baino ez, beraz.

Hiribildura etorri diren atzerriko 220.916 bisitariak guztirakoaren %36,5 izan dira, 2007an bezalaxe.

Bilbora etorritakoen jatorria autonomia erkidegoka alderatuz gero, Madril da bisitari gehien eman dituena (101.230), hots, Estatu osokoen %26,4 eta bidaiarien guztirakoaren %16,7.

Autonomia erkidegoko bertako bisitariak bigarren tokian daude (71.058 bisitari eta %18,5eko portzentajea), %14 hazi eta ohi denez toki horretan egon diren Kataluniako turistak atzerantz bota dituela. 2008an %16,7 igo da azken hauen kopurua; 64.765 bisita egin dituzte, beraz, 2007an baino 8.133 gutxiago.

Bisitari kopurua nabarmen igo dutenen artean Andaluzia dugu -Valentziako Erkidegokoak gainditu ditu jadanik-, baita Galizia ere.



2008an Estatutik etorritako bisitarien jatorria.

Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Nazioarteko bisitariei begira, azken urteetan gertatu den legez, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Italia eta EEBB-Kanada dira udalerrira etorritako turisten jatorri nagusia. Denen artean, nazioarteko bisita guztien %53 osatzen dute, nahiz eta urte batetik bestera kopuru hau gero eta txikiagoa den. Alderantziz, Portugal eta Iberoamerikako zenbait herrialdeetatik etorritako bisitari kopurua asko igo da.

Erresuma Batutik etorritakoek nabarmen egin dute behera urte honetan ere: 2007ko datuarekiko -%21 jaitsi da herrialde honetako bisitarien kopurua. Frantziak, ordea, itxaropentsu izateko datua eskaini du, bertatik etorri direnak %6,4 izan baitira 2008an, hau da, 36.205 turista, guztira. Alemaniak bere horretan dirau, aurreko urtearekiko alde handirik gabe (-%1,5).

Autonomia Erkidegoaren hiriburu turistikoa Bilbo da, bisitari gehien erregistratu dituena baita.

2008an atzerritik etorritako bisitarien jatorria.



Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Argazkia: Bilbao Turismo.

Ostatu-gauak

Aurreko atalean aipatutako bisitari kopuruen beherakadak eragin zuzena du ostatu-gauen kopuruan. Ezinbestean, hauek ere -%2,9 jaitsi dira (1.115.693 gau erregistratu dira). Halarik ere, Bilbo izan da behera gutxien egin duen hiriburua, Vitoria-Gasteizeko zein Donostia-San Sebastiáneko datuetan -%6tik gorako galerak izan baitira.

Bilbon egindako ostatu-gauen bilakaera, 2001-2008.



Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Bilboko turismoa gutxien jaitsi dena da EAEko hiriburuen artean.

Urte honetan eskainitako tokiak %3,3 hazi dira 2007arekiko (2.337.368, guztira). 53 hotelek eguneko 6.403 tokiko eskaintza jarri dute bisitarien eskura Bilbon 2008an, beraz, establezimendu bakoitzeko 121 toki eskaini dira, batez beste. Hotelei dagokienez, 21ek 3 izar edo gehiago dituzte. Gehienak, baina, 4 izarrekoak izan dira, 10 establezimendu guztira. Azkenik, 5 izarreko hotelak 4 dira Bilbon.

Hori horrela, EAE osoan hotel dentsitate handiena eta establezimendu nabarmengarrienak dituen udalerria Bilbo da. Donostiak, esaterako, 13 hotel gehiago ditu eta establezimenduko 62 tokiko batez besteko eskaintza.

Bilbora hurbiltzen diren turistek azken urteotako jokabide bera erakutsi dute ostatua aukeratzerakoan eta, horri esker, hotelek uda partean eta udazken hasierako hilabeteetan jaso dituzte bisitari gehien.

Hilabetekako banaketaren arabera abuztukoa da kopurutsuena hiribilduan jasotako turisten aldetik (60.585). Alderantziz, bilera eta batzarren segmentuan edo bestela esanda, “negozioetako turismoan”, abuztuan erregistratzen da bisitari kopururik txikiena.

Gainera, 2008ko uztailan abuztuko zifra berak lortu dira, hortaz, aurreko urteko datuak hobetu dira. Izan ere, 2008. urte osorako aurreikusitako makalaldiagatik ere, udako hilabeteetan 178.801 bisitari etorri da Bilbora, zera, aurreko urteko sasoi berean baino 1.915 turista gehiago.

Bilbora etorritako bisitarien bilakaera sasoitik sasoira, 2007-2008.



Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Ostatu eskaintza osatzeko, Bilboko Udalak Udal aterpetxea jartzen du ibiltarien esku, bertaratzen den inori ostatu hartzeko moduko baldintzak eskaintzen dizkioten instalazioak barne. Aterpetxeak kalitate/prezio erlazio ona eskaintzen du, sektorean nazioarteko mailan aintzat hartu diren kalitatezko instalazio berritzaileak dituen heinean.

Aurten 17.056 pertsonek ostatu hartu dute bertan, aurreko urtean baino %2,8 gutxiago. Alderantziz, ostatu-gauek portzentajezko 5 puntu egin dute behera, 32.528ko kopurura jaitsi arte.

Estatutik eta EAEtik datozen bisitariak guztirakoaren %56,5 dira, 2007ko datuarekiko portzentajezko 4 puntu gorago. Ostatu mota hau gehien erabiltzen duten atzerritarren %37,2 Europatik dator, iaz baino 5 hamarren gehiago. Gainerako jatorrietako bisitariei deritzonez, hau da, Amerika, Asia, Ozeania eta Afrika, portzentajezko zenbait puntu jaitsi dira.

2008an Bilboko Aterpetxean erregistratutako pertsonen banaketa, jatorriaren arabera.



Iturria: Bilbao Convention Bureau.

BILBOREN ETA BIZKAIAREN, EAE-REN ETA BESTE ARLOEN ARTEKO TURISMO JARDUERAREN KONPARAZIOA

2008ko adierazle nagusiek agertutako egoera ekonomiko ahulak eta 2009. urterako egin diren aurreikuspen are negatiboagoek izan dute eraginik EAEko turismoaren sektorean eta azken urteetan bertan erregistratutako hazkunde eutsian.

Hala, bada, bai EAEn, bai Bizkaia eta Bilbon, beheranzko joera abian jarri da bisitarien kopuruari zein ostatu-gauen kopuruari dagokionez. Erregistratutako bidaiarien zifraren (2.020.446) beherakada (-%3,5) orokortu egin da erkidego osoan eta ostatu-gauen zifra oraindik gehiago jaitsi da (-%4,2).

Bilbon ere bi adierazle hauek behera egin dute, nahiz eta horrenbesteko galera izan ez duten: bidaiarien guztirakoa -%3 jaitsi da eta ostatu-gauena -%2,9, nolabaiteko joera neurrizkoago horren adierazgarri modura.

Bidaiarien kopurua eta ostatu-gauak lurraldearen arabera, 2007-2008.

Kopurua	2007	2008
EAE	2.093.346	2.020.446
BIZKAIA	994.357	963.042
BILBO	623.229	604.318
DONOSTI SAN SEBASTIAN	420.527	406.466
VITORIA GASTEIZ	220.305	205.023
Ostatu-gauak	**2007**	**2008**
EAE	3.956.867	3.789.563
BIZKAIA	1.826.987	1.761.063
BILBO	1.148.891	1.115.693
DONOSTI SAN SEBASTIAN	837.844	782.638
VITORIA GASTEIZ	393.858	369.392

Iturria: Bilbao Turismo eta Eustat: Turismo establezimendu hartzaileen gaineko inkesta.

Bizkaia eta EAEren barne Bilboko zifrek duten garrantzia apur bat igo da 2007arekiko, bidaiarien zein ostatu-gauen kopuruan. Bilbo bisitatu duten 604.318 bidaiariak Bizkaiko guztirakoaren %62,7 eta EAE osoko %30 izan dira. Bilbon bisitariek ostatu hartu duten 1.115.693 gauak Bizkaiko guztirakoaren %63,3 eta EAE osoko %29,4 izan dira.

Donostia-San Sebastiánen bisitarien %20 hartu dira eta ostatugau kopuru bera erregistratu da. Vitoria-Gasteiz, bestetik, bisita guztien %10 izanik ostatu-gauen zifra beretik hiru hamarrenera dago. Horra hor euskal hiriburuen 2008ko bidaiari kopuruen nondik norakoak.

Toki kopuruarekiko okupazio-maila %44,1ekoa izan da EAEn, zera, aurreko urtean baino -%5,9 gutxiago. 2007. urtearekin alderatuz gero, Bilbon ere %4,2 jaitsi da toki kopuruarekiko okupazio-maila %47,7ra iritsi arte. Donostia-San Sebastiánen okupazio-mailarik altuena lortu da, nahiz eta beherakada handiena (-%6,2) sufritu duen hiriburua izan.

Lurralde historikoei erreparatuz gero, okupazioaren beheranzko joera nagusitu dela ikusiko dugu: %43,7 Bizkaian eta %40,4 Araban. Gipuzkoako datua %46,1ekoa da, beraz, emaitza hoberena lortu duen lurraldea dugu.

Urteko bilakaeraren datuek zera erakusten digute, Bilboko hoteletan azken hamar urteotan erregistratutako okupazio-maila Euskadiko batezbestekoaren gainetik egon dela. Gainera, epe horren barruan gorabehera oso gutxi azaldu dituen zifra dugu Bilbokoa.

Hoteletako eskaintza orokorraren inguruan, establezimendu kopuruak hazkunde izugarria izan du azken hamarkadan. 1998an 271 ziren EAEn irekirik zeuden establezimenduak; 2008an, aldiz, 425 zenbatu dira. Bilboko udalerria %47,2 igo da epe berean eta 36 hotel izatetik 53 izatera pasatu da, Bizkaia osoan dauden 179 hotelen barne.

EAEko eta Bilboko okupazio-mailen bilakaera alderatua 1998-2008 urteetan.



Iturria: Eustat. Turismo establezimendu hartzaileen gaineko inkesta.

Ostatu emateko ahalmenak garrantzizkoa izaten jarraitzen du Bilbon eskualde osoarekiko. Bilbon 2008an izan diren establezimendu irekietan eskaini diren urteko 2.337.368 tokiek Bizkaiko kopuru osoaren erdia baino gehiago (%58) osatzen dute, aurreko urtean baino %3,3 gora. EAEri dagokionez, proportzio hori %27,2koa da, aurreko urtean baino apur bat txikiagoa.

2008ko hotelak lurraldearen arabera.



Iturria: Eustat. Turismo establezimendu hartzaileen gaineko inkesta.

Bilboko establezimendu irekietako urteko gela kopurua 1.267.832koa izan da, 2007an baino %3,1 gehiago. Guztira, Bizkaiko %58,3 izan da eta EAEko %27,8.

Hurrengo grafikoak argi uzten duenez –oraingoan eguneko tokiak neurtzen dira establezimendu irekietan–, eskainitako tokien kopuruaren aldetik, ez dago Bilboko udalerriko ostatu-eskaintzaren parekoa duen hiribururik. Arabaren kasuan, probintzia osoko datua ere ez da Bilboko kopuruari hurbiltzeko modukoa.

Hotelen eskaintza gero eta nabarmenagoak sektoreko enpresarien apustu sendoa du atzetik. Horrezaz gain, eskaintza horren barne kategoria handieneko proposamenak ere badira, “aisialdiko eta negozioetako” turismoa hartzen duen hiri gisa Bilboko irudia erakargarriagoa eta kalitatezkoa bihurtzen dutenak. Bisitaria erosotasun maila egokienarekin hartzeko dela edo jarduera sozialen eta biltzarren eskakizunak betetzeko dela, abangoardiako instalazioak, zerbitzuak eta teknologia jartzen ditu eskura Bilboko hiriak.

2008ko hoteletako eguneko toki kopuruaren eskaintza lurraldearen arabera.



Iturria: Eustat. Turismo establezimendu hartzaileen gaineko inkesta.

.Azkenik, EAEko hoteletan enplegatutako pertsonei begira, 2008an 3.876 izan direla esan behar da, aurreko urtean baino -%4,5 gutxiago. Lurraldekako ikuspegiari arreta eginez gero, Bizkaian dago turismoaren sektorean lanean ari direnen kopururik handiena (1.948 lanpostu); bere atzean Gipuzkoa (1.462) eta Araba daude (466). Lanpostuen galerak eragin gutxien izan duen lurraldea Bizkaia izan da, Bilbo, batik bat. Udalerrian galdutako lanpostuen portzentajea Euskadiko batezbestekotik %1,6 behera dago, hain zuzen.

Informazio gizartea

I+G+B

Bilbao Lan Ekintza

Bilboko Behatoki Sozioekonomikoa
Observatorio Socioeconómico de Bilbao

teknologikoa

kapitulua

11.

Informazio gizartea. Ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoa

11. kapitulua

Informazio gizartea. Ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoa

Informazio Gizartea

Informazio Gizarteak aurrera jarraitu du 2008an, bereziki zenbait herrialde ugari jendeztatutan, zelan Txina, Brasil edota Pertsiar Golkoko Emirerrietan, eta hauetan Interneten edo telefono mugikorraren erabilerak dagoeneko utzi dio pribilegiozkoa izateari. Espainian ere, krisiaren eragina iritsi zaio IKTen makrosektoreari, nahiz eta Espainiako Informazio Gizarteak hazten jarraitu duen, eta honen egoera, Europako gainerako herrialdeen aldean, Europako batez bestekoaren nahikoa hurbil kokatzen da.

Espainiako Informazio Gizartearen garapenaren inguruko urteko Txostenak, eEspaña 2008, Orange Fundazioak argitaratu ohi duenak, argi erakusten zuen zelan Espainiak 2007an hiru postu aurreratu zituen Europako rankingean, hamazazpigarren postura helduz, 12 puntuko hazkundearekin, eta aurreko urteko beherakada zuzenduta. 2008an, adierazle berbera kontuan, Espainiak beste postu bat egin du aurrera, eta hamaseigarrenean kokatu. Baina hobekuntzatxo hau lortu arren aurreko urtearen aldean, Estonia eta Lituania lako herrialdeak (2007an Espainiak baino adierazle okerragoak erakusten zituztenak), hau baino postu aurreratuagoetan kokatu dira jada, eta Eslovakia berak hartzen du ondore justuko lekua.

Orange Fundazioak lantzen duen Espainia Adierazleak, Informazioaren Gizartea aztertzen du, IKT Inguruen garapen maila, IKTetarako Irisgarritasuna, eta IKTen Erabilera mailak ikertzen dituzten adierazle multzo baten bitartez.

Hain zuzen, telekomunikazioen, inbertsioaren eta berrikuntzaren barneratze mailak biltzen dituen Inguruen Azpi-adierazleari dagokionean, Espainiak 17. postua hartzen du jada Europan (Norvegia eta Islandia ere kontuan hartuta), aurreko urtean zuen 21. tokiaren aldean.

Espainiak datu erlatibo hoberenak erakusten dituen azpi-indizea, IKTen Erabileretakoa da, eta honetan, 16. postura igaro da, aurreko urteko 21.aren aldean. Merkataritza elektronikoari dagokionez, nahikoa garapen mugatua, eta zerbitzu publiko elektronikoen erabilera urria erakusten jarraitzen du, eskaintza eta erabilgarritasuna zabala izan arren.

Espainiak datu erlatibo okerrenak erakusten dituen azpi-indizea berriz (18. lekua hartzen du), IKTetarako Irisgarritasunarena da, hiru postu atzerago aurreko urtean baino.

Oro har, 2007an lez, eta Avanza Planaren diru bultzada eta guzti, gaitzak dirudite lortzen Lisboako Agendak 2010. urterako finkatutako helburuek, Espainian, zein EBko herrialdeetako askotan ere.

IKTen eta merkataritza elektronikoaren erabilera 10 edo behargin gehiagoko enpresetan Espainian eta EB27an.



Iturria: EUROSTAT, INEren bitartez.

Estatuko Administrazio Orokorrak 2008ko urtean IKTen mantentzeko eta garapenerako esleitu duen aurrekontua, 2.000 milioi eurotik gorakoa da.

Informazio eta komunikazioaren teknologia berrien agerpenak, aldaketa esanguratsuak ekarri ditu azken urteotan hiritarren jardueretan, bai hauek kontsumoaren aurrean erakusten dituzten jarreretan, eta bai, beren giza jardueretako ohituretan. Denbora aurrera doan neurrian, Interneteko erabiltzaileek eskatzen dituzten zerbitzuak gero eta sofistikatuagoak dira, oso bereziki beste internautekiko elkarreraginetan. eEspaña 2009 txostenak adierazten du 2008an Espainiako internauten % 94k baino gehiagok erakusten duela gutxieneko urtebete baino gehiagoko antzinatasuna Interneten erabileran, eta % 70ek inguru, 5 urtetik gorako antzinatasuna ere bai. Munduan 300 milioitik gora pentsatzen da direla sare sozialen erabiltzaileak, eta Espainian, oso bereziki, sare hauek sekulako fenomenoa bihurtu dira, eta 15 urtetik gorako internauten % 73,7 izan da jadaneko zerbitzu mota honen erabiltzaile 2008ko abendurako. Datu hauek erakusten dute Espainia Europako bigarren herrialdea dela sare sozialen erabiltzaile portzentaje kopuru handienekoen artean (% 74 eskas), Erresuma Batuaren ondoren (% 80 ia).

E-Administrazio edo Administrazio Elektronikoari dagokionean, eEspaña 2009 Txostenaren azterketak aipatzen du -INEk eta EUROSTATek emaniko datuetatik abiatuta- hiritarrek eta enpresek egiten duten zerbitzu hauen erabilerak oso garapen desberdina erakusten duela Espainian, Europar Batasuneko 15en batez bestekoaren aldean; zerbitzu hauen erabiltzeari dagokionean, Espainia ozta-ozta ageri denez Europako batez bestekoaren gainetik (% 51 Espainiaren kasuan eta % 48 EB 15etako batez bestekoan). Hala ere, enpresek egiten duten

Espainia Europako bigarren herrialdea da sare sozialen pertsona erabiltzaile portzentajerik handienetan (ia % 74).

Espainia Europako batez bestekoaren gainetik ageri da hiritarrek Administrazio Elektronikoaren zerbitzuak erabiltzen. Baina enpresek egiten duten erabilerak atzerapen nabarmenez kokatzen du Espainia EB15eko batez bestekoaren aldean.

eAdministrazioaren zerbitzuen erabileran, Espainiak atzerapen garrantzizkoa erakusten du Europaren aldean (% 64 Espainiako kasuan eta % 70 EB15en batez bestekoan), eta zerbitzu hauen erabilera tasa txikiagoa ageri du Italiak edo Portugalek baino, eta oso urrun Finlandia edo Danimarkakoetatik, azken herrialde hauetan enpresen % 90ek baino gehiagok bideratzen duenez AAPPekiko harremana Internet bitartez.

Telefonia mugikorrari dagokionez, hazten jarraitzen du erabiltzaile kopuruak, baina banakoen gastuak behera egiten du. Sektore honetako diru sarrerek azken urtean behera egin dute ekonomia krisiaren, langabeziaren hazkundearen, eta ziurgabetasun handiagoaren ondorio, eta zelanbaiteko marka ezarri. Bestalde, baieztatu egiten da Internet bidezko datu zerbitzuek lortzen datozen pisu nabarmena. Espainian bikoiztu egin dira teknologia hauekin bateragarriak diren telefonoetako erabiltzaileak azken bi urteetan, eta dagoeneko badira 15,6 milioi Espainian banda zabal mugikorraren erabiltzaile potentzialak behintzat badirenak. 2008an Espainia bosgarren lekuan kokatua ageri da banda zabal mugikorraren barneratze mailari dagokionean, Japonia, Hego Korea, Australia eta Italiaren ondoretik, ordena horretan. Hala ere, eta banda zabal mugikorra etengabean ari bada ere hazten, Espainia ez da oraindik honen benetako erabileraren merkatuaren buru.

INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN BILAKAERA

Orange Fundazioak landutako eEspaña 2009 Txosteneko azterketatik abiatuta, IKTen mundu mailako merkatuak 2008an 2,8 bilioi euroko kopurua mugitu zuen, batez ere Iparramerikan eta Europan kontzentratuak. Mundu mailan merkatu kuota handiena gozatzen duen sektorea, telekomunikazioetako zerbitzuena da, eta ondotik datozkio softwarearena eta zerbitzu informatikoena. Europaren barruan, merkatu kuotarik handiena dagokie Alemania, Erresuma Batua eta Frantziari. Espainiak berriz, Italiaren pareko maila erakusten du informatika ekipoetako mundu merkatuan.

Espainiako Elektronika, Informazio Teknologia eta Telekomunikazioetako Enpresen Elkarteak (AETIC), eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak jasotzen dituzte Espainiako Elektronika, Informazio Teknologia eta Telekomunikazioetako Sektorearen 2008 Urteko Txostenean (2009ko argitalpena), 2008. urteko garapenaren estatu mailako datu garrantzizkoenak IKTen Hipersektorearen inguruan, eta honen azpi-sektoreei dagozkienak: Kont-sumo Elektronika, Osagai Elektronikoak, Elektronika profesionala, Telekomunikazioaren Industriak, Telekomunikazio eta Informazio Teknologia Zerbitzuen Operatzaile/Hornitzaileak.

Txostenean 102.668 milioi eurotako fakturazioa aipatzen da, eta datu honek eten egiten du fakturazioaren gehikuntza dinamika, zelanbaiteko geldialdia sumatzen denez aurreko ekitaldiaren aldean (101.353 milioi euro).

Hipersektorearen osotasunean, telekomunikazio zerbitzuek hartzen dute merkatu osoaren % 44, 44.690 milioi euroko fakturazioz; eta bertan, zerbitzu mugikorrek -azpi-sektore honetan sartzen direnez- erakusten dute pisurik handiena (% 45), barne diren gainerako zerbitzuen aldean: Zerbitzu eramaileak eta finkoak (% 32), Interneterako Sarrera Zerbitzuak eta beste zerbitzuak (% 15).

Informazioaren teknologiek hartzen dute IKTen Hipersektorearen merkatu osoaren % 17, 17.761 milioi euroko fakturazioz, eta honek % 4ko igoera esan gura du aurreko urtekoaren aldean.

Informazio Teknologien Merkatuaren banaketa jasotzen da ondoren dagoen grafikoan, eta bertan ikusi liteke informatika zerbitzuek beren portzentajea mantentzen dutela, % 41, nahiz aurreko urtekoa baino zer edo zer baxuxeagoa izan (% 44,1). Azpi-sektore honetako fakturazio bolumenaren hazkundea ekarri dute softwarearen zerbitzuen segmentuetan (% 18 hartzen du, aurreko urteko % 14ren aldean) izandako aurrerapen esanguratsuek, nahiz eta beherakada jazo den ekipoen salmentan.

Sektoreko enplegu zuzenak 2008an 356.000 pertsona bereganatzen ditu, eta horrek gehikuntza arina adierazten du aurreko urtekoaren aldean.

I+G gastua 3.351 milioi eurotakoa da, eta horrek 2007an baino % 8 gehiago esan gura du. Berrikuntzari dagokionean, gastua 9.086 milioi eurotara dator, % 4 haziaz 2007koaren aldean.

IKTen merkatu banaketa estatuan 2008.



Iturria: Espainiako Elektronika, Informazio Teknologia eta Telekomunikazioetako Sektorearen 2008 Urteko Txostena (2009ko argitalpena). Espainiako Elektronika, Informazio Teknologia eta Telekomunikazioetako Enpresen Elkartea (AETIC).

INFORMAZIO GIZARTEA ENPRESETAN

EEnpresen ekipamenduak informazio teknologietan EAEn

2008an barrena euskal enpresek beren IKTen -Informazio eta Komunikazio Teknologien- ekipamenduen hobekuntza etengabea jarraitu dute, eta hau hazi egiten da azterturiko ekipamendu kategoria guztietan, Eustatek "Informazioaren Gizartearen Panorama Euskadi 2007-2008" txostenean landutako datuen arabera. Azken zazpi urteetako garapenaren datuek garapen erritmo positiboa erakusten dute, eta Internet eta posta elektronikoa dira hazkunde handiena garatu duten ekipamenduak.

Euskal enpresen IKTen erabileraren azken 7 urteetako datuek garapen erritmo positiboa erakusten dute. Internet eta posta elektronikoa dira hazkunde handiena garatu duten ekipamenduak.

EAEn, enpresen % 74,08k dauka ordenagailua (honek 3,38 puntuko gehikuntza esan gura du ehunekoetan aurreko urtekoaren aldean), % 66,4k Internet, eta % 63,5ek posta elektronikoa. Telefono mugikorra da enpresek gehien daukaten

ekipamendua (% 79,2). 10 edo enplegatu gehiago dituzten enpresek are ehuneko altuagoak erakusten dituzte, eta zehatz, enpresa hauetako % 98,2k darabilte ordenagailua beren jardueraren garapenerako, % 95,7k posta elektronikoa, eta % 94,4k Internet. Mugikorra 10 edo enplegatu gehiagoko enpresen % 91,5etan ageri da.

Bizkaiko 2008ko datuek EAEkoen joera berbera erakusten dute, eta enpresa bizkaitarretan ere gero eta gehiago ageri dira halako ekipamenduak.

Ordenagailu pertsonalaren kasuan, 2007aren aldean hazkundea ehuneko 4,5 puntutan kokatzen da, eta Bizkaiko enpresen % 72,8tara iristen da. Posta elektronikoak are hazkunde nabarmenagoa erakusten du (ehuneko 5,95 puntu), % 62,3tara iritsiz. Bere aldetik, Internet enpresen % 64,7tan ageri da, ehuneko 4,8 puntuko haziera erakutsiz 2007aren aldean. Telefono mugikorrak igoera txikiagoa ageri du (% 2,8), baina bera da ekipamendu zabalduena Bizkaiko enpresetan, eta hauetako % 78,8tan ageri da.

Enpresen tamaina da eragin handiena duen faktorea hauen ekipamendu mailan, eta 10 pertsona edo gehiago enplegatzen dituztenak dira, orokorrean, enpresa txikiagoek baino hainbateko ehuneko altuagoa erakusten dutenak IKT ekipamenduetan. Orange Fundazioaren eEspaña 2009 Txostenaren arabera, Espainiako estatuko osotasunean, 10 enplegatu edo gehiagoko enpresen ia-ia guztiek dute Interneteko sarrera, eta enpresa txikerretan ostera, portzentajea % 53tara ere jaisten da. Aldagai hau kontuan izanik, Bizkaian 10 enplegatu edo gehiago dituzten enpresek ekipamendu maila garaia jarraitzen dute erakusten % 90etatik gorako balioekin, hau da, 10 enpresatatik 9k badauzka ekipamendu hauek.

Ekipamendu mailaren xehetasunak ere aurrekoak bezain altuak diren kopuruak erakusten ditu alor bakoitzean. Hala, ordenagailu pertsonalaren kasuan, Bizkaiko enpresen % 98,1ek dauka, % 96,1ek posta elektronikoa, % 93,9k dauka Interneterako sarrera, eta % 98,1ek telefonia mugikorra. INEk, enpresek erakusten duten IKTen eta Merkataritza Elektronikoaren erabileraren gaineko Inkestan eskainitako datuak kontuan, EB27k zer edo zer ehuneko txikiagoa erakusten du tamaina berdineko enpresen artean, ordenagailu pertsonalaren aukerari dagokionean (% 96), eta oso antzekoa Interneterako sarreran (% 93). Iturri berak adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresak daudela IKTen erabilera ugarienak erakusten dituztenen artean, Madrileko, Kataluniako eta Nafarroako Foru Erkidegokoekin batera.

EAEn sarbide txikiena duten ekipamenduak dira: extraneta, soilik ageri denez 10 edo enplegatu gehiagoko enpresen % 26,9tan, eta enpresa guztien arteko % 9,2tan; intraneta, 10 edo enplegatu gehiagoko enpresen % 44,3tan, eta enpresa guztien arteko % 14,5etan; eta datuen trukaketa elektronikoa (DTE), 10 edo enplegatu gehiagoko enpresen % 39,2tan, eta euskal enpresa guztien arteko % 15,6tan.

INEk estatu mailarako eskaintzen dituen datuak konparatzen baditugu, Bizkaia 3,5 puntu beherago ageri da Espainiako enpresek erakusten duten portzentajearen aldean Interneterako sarrerari dagokionean.

Lurralde arteko konparaketa eginez, eta aldeak oso nabarmenak ez diren arren, Bizkaiak kopuru txikixeagoak erakusten ditu teknologia hauetan Arabak eta Gipuzkoak baino.

Enpresek garatzen dituzten jardueren ikuspuntutik, IKTetarako duten egokitze mailaren azterketak argi adierazten du EAEn jarduera industrialetako sektoreak ezarpen teknologiko industrialaren maila handiagoa erakusten duela (% 80,8k dauka ordenagailua), beste sektore batzuetako enpresek baino, zelan zerbitzuak (% 74,4) edota eraikuntza (% 73,9). Enpresen arteko portzentaje alde hauek puztu egiten dira, sektorearen arabera, beste ekipamendu teknologiko batzuk alderatzean, zelan posta elektronikoa, industria sektoreko euskal enpresen % 73,1ean dagoena, eta soilik ostera, % 63,5etan eta % 58,1ean zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreetan, hurrenez hurren.

EAEko enpresen tamaina kontuan, hazi egiten dira teknologia ekipamendu kopuruak 10 edo behargin gehiagoko enpresen artean, industria, eraikuntza eta zerbitzuen jardueretan, eta hauen artean, ordenagailua, posta elektronikoa eta Internet erabiltzen dute enpresa hauen % 95 eta % 98 inguruk. Estatu mailan, industria eta zerbitzuetako sektoreetan 10 edo pertsona gehiago enplegatzen dituzten enpresetan teknologia ekipamenduaren erabilerak EAEko enpresen antzeko portzentajeak erakusten dituzte.

Oro har, euskal enpresen artean, beharrizan teknologiko berri hauetara egokitzeko zailtasun handiena erakusten duen jarduera, Ostalaritza da. Honetan 2008an ordenagailua daukaten enpresak % 43,7 baino ez dira, eta aurreko urtekoen aldean 0,2 puntuko gehikuntza erakusten du portzentajeak.

Enpresetako langileen IKTetarako irisgarritasun maila kontuan hartuaz, ageri da, euskal enpresetako langileen % 60,5ek erabiltzen duela ordenagailua eta % 49,5ek Internet. Bizkaia da lurralde historikoen artean, pertsona enplegatuen kopururik handiena erakusten duena (% 61,5 eta % 51,5 hurrenez hurren). Oro har, zerbitzu sektorean enplegatutako pertsonak dira irispide handiena daukatenak Informazio teknologietara, kasuan berdintsu diolarik enpresaren tamainak.

Bizkaiko enpresak 2008, informazio teknologietako ekipamenduen eta enpresa tamainaren arabera. (%).



Iturria: Eustat. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. IGI-enpresak.

EAEren barruan industria da IKTetarako egokitze handiena duen sektorea, eta ondotik datozkio zerbitzuena eta eraikuntza. Ostalaritza da egokitze maila txikiena duena.

Interneterako sarrera

2008an barrena Interneterako sarbide nagusia izaten jarraitzen du ADSL lineak, eta handitu egiten du bere nagusitasuna. Hala, EAEn sarera sartzen diren enpresen % 85,9k darabil bide hau. Bizkaian sarbide hau darabilen enpresen portzentajea % 87koa da, eta horrek ehuneko 5,1 puntuko gehikuntza esan gura du 2007ko urtearen aldean. Europa mailan, Espainia da lider, Frantzia eta Maltarekin batera, Interneterako sarbidea Banda Zabalaren bidez egiten duten enpresen portzentajean.

Bizkaian gehien erabiltzen den bigarren irispidea, oso tarte handiz bada ere, modemek darabilten telefono lineen bitartekoa da, eta hala egiten du enpresen % 19,9k, ehuneko 3,8 puntu gutxiago aurreko urtean baino. % 13,8 konektatzen da Internetera Kable bidez (zuntz optikoa), eta gainerako % 12,5 telefono mugikorraren bidez. RDSI lineak ageri dira berriz, Bizkaian konektatuta dauden enpresa guztien % 5,7tan. Baina konexio mota honek ere behera egiten du, modem bitartekoak bezala.

Interneterako sarrera duten enpresak EAEn 2008, erabilera motaren arabera. (%).



Iturria: Eustat. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. IGI-enpresak.

Informazio bilaketak jarraitzen du izaten euskal enpresek Internet erabiltzeko arrazoi nagusia (erantzunen % 96), 2 puntu gora 2007koen aldean. Bigarren erabilera ohikoena, bankuetako informazioa eskuratzeko da, erantzunen % 73,5ekin, eta ondoren, bankuekiko transakzioak egiteko, % 66,6rekin. 2008an, bertan aipatutako aukera guztiak hazten diren arren, bereziki nabarmentzekoa da Interneten erabilerak Formazio materialetara iristeko erakusten duen gorakada, 19,3 puntu aurrerago ageri denez 2007an erregistraturiko ehunekoen aldean.

Azken hondarrean, erantzunen % 5,5ez, ondasun eta zerbitzuen salmenta ageri da, nahiz eta 10 behargin edo gehiagoko enpresen artean, portzentajea % 8,2tara ere igotzen den. Jardunbide hau ez dago oraindik gaur egun behar beste bideratua euskal gizartean. INEren arabera, EB27ko 10 pertsona enplegatu edo gehiagoko enpresen % 16k egiten ditu salmentak merkataritza elektroniko bidez.

Administrazio elektronikoa

Euskal enpresek egiten duten Administrazio elektronikoaren erabilerari dagokionean, 10 edo behargin gehiagoko enpresen % 78,8k bideratzen ditu izapide telematikoak Administrazio Publikoarekin. Ehuneko hau % 52,8taraino jaisten da 10 pertsona baino gutxiagoko enpresetan. Eta joera berau azpimarratu ohi da oro har Espainiako enpresentzako ere. eEspaña 2009 Txostenaren arabera, 50 eta 249 enplegatu bitarteko enpresa ertainek, kopuru berdintsuan dihardute elkar eraginean Administrazio Publikoekin Internet bidez Espainian eta Europan, baina hauek baino enpresa txikiagoak (10-49 pertsona bitartekoak) dira oso maila baxua erakusten dutenak Europako batez bestekoaren aldean. Eta hauek, mikroenpresekin batera, Espainiako enpresa ehunduraren % 90 baino gehiago osatzen dute.

10 edo pertsona gehiagoko euskal enpresen % 78,8k burutzen ditu tramite telematikoak Administrazio Publikoarekin. 10 pertsona baino gutxiagoko enpresen kasuan portzentaje hori % 52,8tara jaisten da.

Erkidego Autonomoetako Zerbitzu Publiko on-line-en Ikerketa Konparatibo 2009-ren arabera (Orange Fundazioa - Capgemini Consulting), Asturiasek jarraitzen du izaten azterturiko 26 zerbitzu publikoen artean on-line zerbitzuen garapen maila garaiena erakusten duen erkidego autonomoa, eta ondoren datozkio Andaluzia eta Nafarroa. Madril, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Galizia, aipatutako beste erkidego biekin batera, dira % 74ko aukera baino zabalagoa lortzen dutenak, eta horrek irisgarritasunaren 3. Etapan-edo kokatuko lituzke, “Etapa Interaktiboa” deitu ohi denean, zeinetan Administrazio Publikoak hainbat zerbitzu eskaintzen dituen, zelan, zergak ordaintzeko dokumentuak jaitsi ahal izatea, edota lizentziak berritzeko aplikazioak; bestalde, dagoeneko agerikoa da elkarreragineko atari baten beharrizana hiritarren AAPPekiko elkarreragina samurtzeko.

Web orria edukitzea

Enpresek teknologia berrien erabilera mailan duten postua aztertzeko, adierazle garrantzizkoa da hauen Interneteko presentzia aztertzea beren Web orrialdeen bitartez. Datuek, bai estatu mailan, eta hala EAEn ere, enpresen oso presentzia mugatua erakusten dute sarean, eta hobekuntza sumatzen den arren aurreko urtearen aldean, enpresa handiek jarraitzen dute izaten web orrien aukerarik handiena erakusten dutenak, alde handiz, enpresa txikien aldean.

2008an Bizkaiko enpresen % 29,9k dauka web orrialdea, ehuneko 2,6 puntu gorago aurreko urtean baino.

Informatika ekipamendu mailarekin jazotzen zen lez, zenbat eta handiagoa izan enpresaren tamaina, hainbat handiagoa da Webdun enpresen ehunekoa. Sareko presentzia Web orrialdeen bitartez 10 edo enplegatu gehiagoko enpresa guztien % 68,4k erakusten du Bizkaian. Eta kopuru hau EB27ko enpresek erakusten dutenaren parekoa da, eta alde handi barik, baita ere, EAEko gainerako lurralde historikoetakoaren berdina.

Bizkaian zehatz, tamaina guztietako enpresa guztiak kontuan, % 29,9k dauka web orria, propioa edo besterenean, eta hori ehuneko 2,6 puntu gehiago da 2007ko urtearen aldean. Kopuru hau asko hurbiltzen da EAEko batez bestekora, honek % 30,3ko

portzentajea erakusten duenez, eta ehuneko 4,1 puntuko hazkundea 2007ko urtekoaren aldean. Portzentaje hau gora joango da soilik Interneteko konexioa duten enpresak hartzen baditugu kontuan, eta EAEn hauetako % 42,6 ageri da Interneten Web orri baten bitartez. Baina 10 edo behargin gehiagoko % 70,4 enpresa ere bai.

Jarduera sektoreak kontuan, nabarmentzekoa da industria sektoreko eta zerbitzuetako enpresen garapen positiboa Web orrialdeen jabetzaren inguruan. Zehatz, Industriako jarduera sektoreak biltzen du web orrialdedun enpresa kopururik handiena (% 36,1), zerbitzu sektoreko ehunekoa baino handiagoa, honek % 31,9koa erakusten duenez. Urrunago ageri da eraikuntza sektorea % 18,3rekin. Kasu guztietan aurkitzen ditugu hazkuntzak 2007ko datuen aldean.

Jabetza terminoetan, Bizkaiko enpresetan Web orrialde hauen % 14,8 dira enpresenak beraienak, eta gainerako % 15,9k dauzkate bere Web orrialdeak kokatuak besteren zerbitzarietan. Kopuru hauek EAEren osotasunean erakusten direnen antzekoak dira.

Eskaintzen dituzten zerbitzuen inguruan zehatz esan liteke enpresen % 98,3k eskaintzen dutela informazio propio orokorra, eta % 80,8k erakusten duela ondasun eta zerbitzuen zerrenda edo katalogoa.

Web gunedun enpresak EAEn 2008, eskaintza moten arabera. (%).



Iturria: Eustat. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. IGI-enpresak.

Erositako produktu eta zerbitzuen ordainketak Webaren bidez burutzeko aukera, batez ere, zerbitzuetako enpresen sektoretik eskaintzen da.

Produktu digitalen banaketa zuzena da gutxiena ageri den zerbitzuetakoa, eta gainera, 2008an beherakada ageri da zerbitzu hau eskaintzen duten enpresa portzentajean EAEn.

Merkataritza elektronikoa

INEren azken datuen arabera, 2008an, Europar Batasuneko 10 behargin edo gehiagoko enpresen % 28k, eta Espainiako % 20,3k, egin dituzte erosketak merkataritza elektronikoaren bitartez. Salmentei dagokienez, Espainiako enpresen % 11,1ek egin ditu modu honetan ere, eta Europako enpresen % 16k.

Estatu mailan, Ostatu Zerbitzuak, Bidaia Agentziak eta Operatzaile Turistikoak dira merkataritza elektronikoan portzentajerik garaiena erakusten dutenak. Iturri berak adierazten du erosketei dagokienean, Bidaia Agentziak eta Operatzaile Turistikoak direla portzentajerik altuena erakusten duten jarduera adarrak. EAEko enpresetan merkataritza elektronikoak oso banaketa desberdina erakusten du 3 aldagairen arabera: produkzio sektorea, erabileraren helburua, eta zerbitzu hauetara bideratzen diren enpresen tamaina.

Oro har, merkataritza elektronikodun enpresak EAEn % 15 dira, Bizkaiak (% 13,5) eskaintzen duen ehunekotik gora. 2008ko datuek erakusten dute merkataritza elektroniko bidezko erosketek EAEn 3.452 milioi eurotik gorakoak direla, eta Bizkaian 1.873 milioikoak. Salmenta elektronikoei dagokienean, kopuruak kasu guztietan dira handiagoak. EAEn 7.157 milioi euro, eta Bizkaian 2.456 milioi euro, aurreko urtean baino 685 milioi gehiago. EAEren osotasunean, kopuru hauek 2007koen aldean % 11,3ko hazkundea ageri dute erosketen kasuan, eta % 11,9koa salmentenean. Eta salmentak, kopurutan, erosketak baino askoz ugariagoak diren arren, askoz gutxiago dira salmentak bitarteko elektronikoen bidez egiten dituzten enpresak, erosketak bide honetaz egiten dituztenak baino.

Jarduera sektoreak kontuan, Industriak eta Zerbitzuek antzeko kopuruak ematen dituzte erosketetan; baina salmentei dagokienean, Industria nabari da gailen, Zerbitzuen eta Eraikuntzaren gainetik. Enpresen tamainari erreparatzen badiogu, 10 behargin edo gehiagokoak dira kopuru esanguratsuenak bereganatzen dituztenak merkataritza elektronikoan, % 24ko proportzio batez, eta 3,6 puntuko hazieraz.

Merkataritza elektronikoaren garapenak hala, hazkundea erakusten du, eta hau, mugitzen dituen zifretan islatzen da eta merkataritza trukearen objektu diren produktuetan. Baina hala ere, mugatua izaten jarraitzen du edozein kasutan, sektore jakin batzuetan kontzentratua, eta soilik negozio bolumen handieneko enpresetan. Oro har, merkataritza elektronikoak hazkundea mantentzen segitu du zifra ekonomikoetan, nahiz eta zer edo zer murriztu den berau darabilen enpresa kopurua.

Merkataritza elektronikoa ez erabili izanaren arrazoien garapena EAEn 2007an eta 2008an.

Iturria: Eustat. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. IGI-enpresak.

Enpresek aipatzen dituzten arrazoiak merkataritza mota hau ez erabiltzeko askotarikoak dira, baina denek ere, badirudi, erabiltzen duten euskarriarekiko eta honen erabilerak eskaintzen dituen segurtasun bermeekiko zelanbaiteko mesfidantza ageri dutela. Eta grafikoan azaldutako arrazoiez gain, kasuen % 32,5etan aipatzen da, behargin gutxi edota gutxi formatuak edukitzearen arrazoia, eta beste % 35,7k aipatzen du merkataritza elektronikoak garatu eta mantentzeko eragiten duen kostu handia.

INFORMAZIO GIZARTEA ETXEETAN

Informatika, telebista eta telefonia ekipamenduak familietan, Bizkaian eta EAEn

Eustaten arabera, “Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGIF)” eta”Informazioaren Gizartearen Panorama. Euskadi 2007-2008” txostenean, euskal familien erdia baino gehiagok dauka, 2008ko azken hiruhilekoan, ordenagailu pertsonalen bat (% 58,7). Nabarmentzekoa da ordenagailu eramangarriek erakusten duten hazkundea urte honetan, PDAek lez, % 22 baino gehiagoko gehikuntza erakusten dutenez, aurreko urteko % 17,4koaren aldean. Datu hauek Espainia osoko familietan agertzen den bilakaera berdina erakusten dute ekipamendu teknologikoaren alorrean.

Orange Fundazioaren eEspaña 2009 Txostenean jasotzen da Espainian gutxi gorabehera bi etxetik batean dagoela mahai gaineko ordenagailua, eta ez da alde handirik ageri aurreko urteko datuen aldean. Ostera, ordenagailu eramangarrien portzentajeak % 30 baino gehiagoko gehikuntza izan du urte osoan zehar familietan; beste gailu mota batzuek ere, PDAek tartean, hazkuntza nabarmenak (% 22) erakutsi dituzte 2007ko urtearen aldean, eta dagoeneko Espainiako lau etxetatik batean ere ageri dira. Bizkaian ordenagailuen presentzia etxeetako % 58,2an ageri da, Eustaten datuen arabera, 2008ko azken hiruhilekoan. Eramangarritasun eta mugikortasun gehien duten teknologien hazkundea ere islatua ageri da ordenagailu eramangarriren bat daukaten familien urteko batez bestekoan, % 23 direnez 2008an.

Comparativa de acceso de los hogares a las TIC,s 2008, por ámbitos %.



Iturria: Eustat. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGIF).

Bizkaian Interneterako sarrera daukate etxean familien % 49,4k, eta ehuneko hau zer edo zer txikiagoa da EAEren osotasunean lortzen dena baino (% 50,1); % 89,2k dauka telefono mugikorra, eta Bizkaiko etxeetako % 45ek baino gehixeagok dauka posta elektronikoa.

Bizkaiko etxeetako garapen teknologikoaren mailari dagokionez telebista ekipamenduetan, esan behar da desberdintasunak ageri direla lurralde historikoen artean hauen ezarpen mailari dagokionean. Gipuzkoa eta Arabaren aldean, Bizkaiak erakusten du bideo, DVD, eta kable bidezko telebistadun

etxe kopururik altuena. Teletestua duen telebista ere ehuneko zabaletan ageri da, eta Bizkaiko etxeetako % 82an dago. LTDdun telebistari dagokionean, Eustatek honen presentziaren hazkunde nabarmena aipatzen du euskal familia etxeetan 2008an barrena, eta Bizkaiak, zehatz, EAE guztiko LTDdun etxe guztien % 55,7 hartzen du 2008ko azken hiruhilekoan. Azkenik, kable bidezko telebistak aurreko urteko datu bertsuak erakusten ditu (% 32,25).

15 urtetik gorako biztanle etxeko Interneten erabiltzaileak

eEspaña 2009 txostenean jasotzen da gure inguru ekonomikoko beste herrialde batzuetan jazotzen den lez, ordenagailu pertsonalaren eta Interneten arteko bateratze joera mantentzen segitzen dela Espainian, eta ordenagailu pertsonalaren erabileraren eta Interneten erabileraren arteko aldea ez da lau puntukoa baino 2008an. Hala, desagertzen doa soilik ordenagailuaren erabiltzaile izanda, Internet erabiltzen ez duenaren figura. Eta hala ere, Internet-ordenagailu bateratze honen bilakaeraren azterketatik eratortzen da, Espainian Interneten erabilpen mailetan gertatzen den atzerapena, hazi egin dela Europar Batasuneko batez bestekoaren aldean.

Euskal biztanleen artean, teknologia ekipamenduak gero eta gehiago dira, nahiz ekipamendu guztiak ez diren modu berean ageri. IKTen banaketa biztanleen artean, desberdina da, eta hainbat aldagairen baitakoa, zeinen artean, adina, norberaren jarduera mota, eta ikasketa maila.

EAEn Internet erabiltzen duen 15 urte edo gehiagoko pertsona kopuruak % 6,4ko hazkundea izan du aurreko urtearen aldean. Bizkaian % 3,6koa izan da hazkundea.

Interneten erabiltzaile den 15 urte edo gehiagoko pertsonen kopurua, adin horretako euskal biztanleria osoaren % 50,5 da EAEn 2008ko laugarren hiruhilekoan, eta % 6,4 gehiago aurreko urteko hiruhilabeteko berdinaren parean.

Bizkaiak 15 urte edo gehiagoko % 50,4 pertsona ditu Interneten erabiltzaile, eta % 3,6ko gehikuntza erakusten du 2007aren aldean. Arabak bere aldetik, lehen postua hartu du Lurralde historikoen artean, % 51,1eko portzentajearekin.

Internet darabilten pertsonen adinari begiratuaz, EAEn, Eustatek erakusten dituen datuek, 2008ko laugarren hiruhilekoari dagokionean, Interneteko erabiltzaileen hazkunde nabarmena erakusten dute (urte bereko bigarren hiruhilekoaren aldean), 55 eta 64 urteko pertsonen artean, eta 65 urtetik gorakoen artean, batzuk eta besteak % 11,2 eta % 18,8 gehiago direnez, hurrenez hurren. 25 eta 34 urteak artean aurkitzen diren pertsonek hazkunde txiki bat erakusten dute Interneten erabileran. Bizkaian ostera, jaitsiera jazo da 15 eta 34 urte bitarteko erabiltzaileen artean, eta hazkunderik nabarmenena, 55 edo urte gehiagokoen artean ageri da (% 23,7)).

Eustaten arabera, puzten ari da “genero arteko etena” Interneteko erabiltzaileen artean. Zehatz, Interneteko erabiltzaile gizonezkoak, gizonezko biztanleria osoaren % 55 dira. Interneteko pertsona erabiltzaile guztien artean, % 52,9 dira gizonezkoak, eta emakumezkoak % 47,1. Bizkaian ere antzekoak dira datuak, eta genero multzo bien arteko aldea 4,5 puntukoa da ehunekoetan.

Jarduera mota kontuan izanik, EAEko biztanleria ikaslearen % 94,5 da Interneteko erabiltzaile, biztanleria langilearen artean % 68,7 den bitartean. Pertsona ez-aktibo eta langabetuen artean berriz, % 17,7 soilik. Azken multzo honetan jazo da, hala ere, hazkunderik nabarmenena 2008ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Bizkaiko Internet konexioen erabilera nagusia, maila pertsonal pribatuko jardueretan ematen da, eta 2008ko azken hiruhilekoan gehien erabilitako sei zerbitzuak dira, ordena honetan, posta elektronikoa, ondasun eta zerbitzuen gaineko informazioa lortzea, hedabideetako orrialdeetarako bisitak, aisialdi zerbitzuak, administrazioaren informazioa, eta turismo erreserbak. Nabarmen ageri da erabilpenaren hazkundea, alde batetik, matrikulazioekin eta beste kontsulta akademikoekin zerikusia duten zerbitzuetan, eta bestetik, turismo erreserbetan. Batek zein besteak, % 94,9 eta % 87ko hazkundeak erakusten dituzte hurrenez hurren aurreko urtekoen aldean.

Bizkaiko 15 urte edo gehiagoko biztanleek gehien bisitatu dituzten Webak 2008ko IV. hiruhil.



Iturria: Eustat. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. (IGIF).

EAEko internautek gehien bisitatutako Web orrialdeei dagokienean berriz, Eustatek azpimarratzen du 2008ko azken hiruhilekoan tuenti.com-en agerpena, sare sozial birtuala hau, jada erabileraren hamaikagarren postuan ageri dena, 18.600 aipamenekin, eta kuotaren % 2 bereganatzen du. Orrialde bisitatuenen rankingean postuak irabazten dituzten beste orrialde batzuk dira lanpostua bilatzearekin lotutakoak, zelan, inem.es, lanbide.net. edo infojobs.com, zeinak hamaseigarren postua betetzen duen orrialde bisitatuenen rankingean. Lurralde historikoen artean, Bizkaiak joera berezia erakusten du mezularien orrialdeen aldeko, eta Araban eta Gipuzkoan bitartean nabarmenagoak dira, batean, turismoarekin zerikusia duten orrialdeetako bisitak, eta bestean, banku eta instituzioetakoak, hurrenez hurren.

2008ko laugarren hiruhilekoan EAEn bisitatuenak izan diren web orrialdeen artean lehen postua hartzen dute prentsa digitalarenek, eta zehatz, elcorreodigital.com (950.500 aipamenekin 2008. urteko azken hiruhilekoan) eta diariovasco.com (67.000 aipamen), eta ondoren datozkie youtube.com, euskadi.net eta hotmail.com. Nabarmen ageri da aipamenen kopuruaren ugaltzea euskadi.net orrialde publikoan (ehuneko 50 puntutik gora, urte bereko bigarren hiruhilekoaren aldean).

Garrantzizkoa da Interneterako konexiorik ez daukan pertsonen kopurua, eta hala jokatzeko ematen dituzten arrazoiak. Eta zenbakiak aurreko urtekoak baino apalagoak baldin badira ere, arrazoi aipatuena da, Bizkaian zein EAEren osotasunean, ez dutela hau behar, edo ez dutela ezagutzen. “Informazioaren Gizartearen Panorama. Euskadi 2007-2008” txostenak azaltzen

du Interneterako konexiorik ez daukaten pertsonen profila, hauen ezaugarri soziodemografikoen arabera, eta aipatzen, bakarrik bizi diren pertsonei dagokiela, eta 55 urte edo gehiagokoak direla, ikasketa maila baxukoak, eta langabezian daudenak edo ez-aktibo. Zentzu honetan bereziki aipatzen da zenbait talde bazterturik geratzen ari ote diren informazio eta komunikazio teknologiei dagokienean.

15 urte eta gehiagoko biztanle Interneten erabiltzaileak, merkataritza elektronikoarekin duen zerikusia dela eta

Merkataritza elektronikoak Espainian Europan baino garapen maila baxuagoa erakusten jarraitzen du. Topatutako aldeak txikiagoak dira zerbitzu turistikoen erosketa elektronikoei dagokienean, baina gainerako ordainketa zerbitzuetan Espainia atzeratua ageri da Europaren aldean. Beraz, oraindik ezin da Espainian Interneteko merkatu gisa definitu, Espainiako eskaerak ez duelako oraindik behar besteko garapen mailarik bereganatu.

Bizkaia da Internet bidezko erosketa portzentaje handiena erakusten duen lurralde historikoa (% 53,8).

EAEn, Internet bidez erosi duen pertsona kopuruak gorakada txiki bat erakusten du 2008an, eta laugarren hiruhilekoan 230.400 pertsona zenbatzen dira.

Lurralde historikoei begira, Bizkaia da Internet bidezko erosketa portzentajerik garaiena erakusten duena (% 53,8), EAEko osotasunaren aldean, azken denbora aldian Interneten konektatu diren 15 edo urte gehiagoko biztanleen artean. Generoa kontuan izanik, gizonezkoek 6 puntu ateratzen dizkiete ehunekoetan emakumezkoei.

Bizkaian sarean gehien erositako ondasun edo zerbitzuak dira bidaiak eta ostatuak, eta ondoren datozkie ikuskizunetarako sarrerak, urte honetan, kirol materiala eta arropa hirugarren postura atzeratzen dutenak; laugarren postua etxeko produktuek hartzen dute. Proportziorik handienean 35 eta 55 urte arteko gizonezkoak dira batez ere bidaia eta ostatuetarako erosketak egiten dituztenak; ikuskizunetarako sarreren erosketak hainbatean egiten dituzte adin tarte horretako emakume zein gizonezkoek. Bidaiak eta ostatuak dira ere 15 eta 34 urte bitarteko gazteenek nahiago dituzten produktuak, baina tarte honetan emakumezkoak dira gailen. Gazteenek ondoren kirol materiala eta arropa erosten dituzte, eta kasu honetan gizonezko dira gehienak.

AGENDA DIGITALA

Ekonomia garatuen lehentasunetako bat da zerbitzu publikoen modernizatzea, IKTen erabilerari emaniko bultzadaren bitartez, eta aldi berean, Administrazioak hiritarrekin dituen harremanak hobetzea. Horretarako ezinbestekoa da Administrazio Publiko (AAPP) desberdinen inplikazioa, hala aurrekontuen esparruan, zein esparru operatzailean. Espainian, AAPPen inplikazioa gero eta nabarmenagoa ageri da azken urteotan.

Bilbo 2012 Agenda Digitalak aurrera jarraitzen du hainbat ekintzaren bitartez, zelan, ONA txartelaren ezarpena, edota erroldaren ziurtagiria Internet bidez lortzeko aukera.

Administrazioaren ahalegina gizarte barneratze guztiak bultzatzeko eta eten digitalari honen era guztietan aurre egiteko borondatea, Eusko Jaurlaritzak bereziki jasotzen du Euskadi Informazio Gizartean 2010 Planaren alor desberdinetan. "Euskadiko Agenda Digitala": Balio estrategiko bereziko jarduera alorretako bat da Administrazio Publikoen rol esanguratsua indartzea. Hauentzat, Euskadiko Agenda Digitala, kultura aldaketa da, eta bere buruaren egokitzea zerbitzu publiko digitalak eskaini ahal izateko, hala zelan, hiritarren eta Administrazioaren beraren eskueran eduki aurreratuak jartzea.

Zentzu honetan, Bilbo 2012 Agenda Digitalak jarraitu egiten du aipatu jarduerak betetzeko aurrera bidean, zelan esaterako, ONA txartelaren ezarpena (Osasun Txartel Elektronikoa herri-erabilera anitzekoa), Osakidetzaren txartelaren ordezkoa, eta dagoeneko 2008an 100.000 euskal hiritarrek baino gehiagok dutena. ONA txartelak zabaldu egiten ditu Bilboko Udalak hiritarrei eskaintzen dizkien harreman moduak; gainera, atea irekitzen du eraikuntza publikoetan, isunak ordaintzeko balio du, edota errenta aitorpena egin ahal izateko Internet bidez. 2008an abian jarri den beste proiektu bat izan da erroldaren ziurtagiria web orrialdearen bidez lortzeko aukera.

Bestalde, Bilbo 39.net planak (Internet doan Bilboko hiritarrentzat) 2008an hasi zuen bere ibilbidea, ekainean Plaza Berrian inauguratuz (Alde Zaharrean) lehen Wifi zonaldea, eta urteko bigarren seihilekoan 3.300 bat pertsona izan dira zerbitzu honi etekina atera diotenak. Bilbo 39.net planak helburu du Bilboko 39 auzoek izatea banda zabaleko Wifi zonalde bat, zeinetara sartu ahal izango diren hiritarrak modu libre eta doanekoan.

Euskadi Informazio Gizartean Planak aldi berean eratzen du laguntza sail bat erakundeek irispide libre eta doaneko WIFI inguruak instalatu ditzaten erabiltzaileentzat. Bilbon arrunta da jada haririk gabeko sareak instalatzea Interneterako sarbiderako WIFI teknologiarekin (Wireless Fidelity), eta honek azken batean, nabarmen murrizteko aukera ematen du, fisikoki bulegoan edota bidaian (mugitzen) egotearen arteko aldea, bi egoeretan ere informazio berberaren jabe izateko aukera eskaintzen denez. 2008ko urtean, SPRIk (Industria Sustapen eta Birmoldaketarako Elkarteak) 50 erakundetik gora zenbatu ditu Bilbon beren eraikuntzetan zerbitzua instalatua dutenak. Instalazio hauen parte handia aurkitzen da espazio pribatuan, baina baita beste batzuk ere ohiko pasabideetako lekuetan, zelan diren, Euskalduna Jauregia, Zubiarte merkataritza zentroa, Indautxuko merkataritza galeriak, edota Termibus geltokia.

Berrikuntza, ikerketa eta garapen teknologikoa

Europako Batzordeak, EIE, Europako Ikerketa Espazioaren, inguruan landutako liburu berdearen arabera, ikerketa eta teknologiaren globalizazio gero eta azkarragoaren eraginez, eta potentzia zientifiko eta teknologiko berriak sortu direlako, EIEk bihurtu behar du Europako ezagutzaren gizartearen giltzarri. Eta honetan, ikerketak, hezkuntzak, formazioak eta berrikuntzak beren indar guztiekin eragin behar dute EBren itxaropen ekonomiko, sozial eta ingurunekoak bete daitezen, hala zelan, bertako biztanleen beharrizanak ere. Eta nahiz eta Europako Ikerketa Espazio honek erreferentzia giltzarri izan behar duen Europako ikerketa politiketan, oraindik ere aurre egiteko hainbat erronka geratzen zaizkio bere eraikuntzan, eta oso bereziki Europa osoan ematen diren jardueren, programen eta ikerketa politiken fragmentazioa gainditzeko. Hau da, ondoko helburu hauek lortu behar ditu:

- Ikertzaile adituen mugikortasun handia.
- Mundu mailako kategoria izango duten ikerketa azpiegiturak.
- Ikerketa erakunde bikainak.
- Ezagupenen bateratze eraginkorra, eta oso bereziki, ikerketa publikoaren eta industriaren artean, hala zelan, oro har, hiritar guztiekin ere.
- Koordinazio ona ikerketa programen eta lehentasunen artean.
- Europako Ikerketa Espazioa munduari zabal irekitzea.

Informazio alderagarria eduki ahal izateko I+G+b-aren inguruan, Europako Batzordeak EIS lan tresna garatzen du, helburu duena, EBko 27 herrialdeen, gehi Kroazia, Turkia, Islandia, Norvegia eta Suitzaren jardueren, azterketa konparatiboa egin ahal izatea.

Horregatik guztiagatik, eta I+G+B-aren inguruan informazio alderagarria eskuratu ahal izateko asmoz, Europako Batzordeak EIS tresna garatu zuen (European Innovation Scoreboard). EIS lan tresna bat da, helburu duena, EBko 27 herrialdeen, gehi Kroazia, Turkia, Islandia, Norvegia eta Suitzaren, jardueren azterketa konparatiboa eskaintzea, bereziki berrikuntzaren alorrean. Adierazle hau, batera lantzen dute Maastricht Economic and Social Research-ek eta Training Centre on Innovation and Technology-k, eta urtero argitaratzen dute ikerketa konparatiboa, European Innovation Scoreboard izenekoa. Txostena Pro Inno Europe-k argitaratzen du, hau, Europako Batzordearen erakundea da, eta helburu du, Europako herrialdeen berrikuntza politikak eta hauen garapena aztertzea. Eustatek aldi berean burutzen du azterketa berau EAEren esparruan.

2008an Suitza da Europako abangoardia berritzaileko lehen postua hartzen duen herrialdea. EB 27ren barruan berrikuntzan lider jo litezkeen herrialdeak dira: Suedia, Finlandia, Alemania, Danimarka eta Erresuma Batua.

Txosten honen arabera, 2008an, Suedia, Finlandia, Alemania, Danimarka eta Erresuma Batua dira EB-27an berrikuntzaren lidertzat jo litezkeenak, nahiz eta Europako abangoardia berritzailean dagoen herrialdea, Suitza, ez den Europar Batasunaren parte. Adierazleak, Suediako 0,64 eta Erresuma Batuko 0,55en artean mugitzen dira. Suitzaren adierazleak berriz, 0,68ko maila bereganatzen du.

EIS Europako Berrikuntza Adierazlea 2008, EAEn eta EB-27an.



Iturria: Eustat eta PRO INNO Europe: INNO-Metrics. Europako Batzordea.

Bigarren multzoan aurkitzen dira, berrikuntza maila altuko herrialdeak, Austria, Irlanda, Luxenburgo, Belgika, Frantzia eta Herbehereak, eta Europako batez bestekoaren gainetiko puntuaziok eskuratzen dituzte, 0,49 eta 0,53 artean. EIS Europako Berrikuntza Adierazleak EAEn 0,49ko maila hartzen du 2008an Eustaten datuen arabera, eta honek Europar Batasuneko 11. postura garamatza, Europako batez bestekoaren (0,48) gainetik.

Hirugarren multzoan ageri dira ondoren, zelanbaiteko berrikuntza baduten herrialdeak, Txipre, Estonia, Eslovenia, Txekiar Errepublika, Espainia, Portugal, Grezia eta Italia. Azkenik, berrikuntza maila baxuz ageri dira Malta, Hungaria, Eslovakia, Polonia, Lituania, Errumania, Letonia eta Bulgaria.

Finlandia, Irlanda, Txipre eta Bulgaria dira, bakoitza bere multzoan, gehien hobetu duten herrialdeak.

Europako Berrikuntza Adierazlea zazpi dimentsiotan egituratzen da, denera 29 adierazletarako.

Espainiarentzat, hainbateko berrikuntza erakusten duten herrialdeen multzoan, berrikuntzaren adierazlea, EB-27koenaren azpitik aurkitzen da, eta hobekuntza ratioa ere gutxigatik, baina EB-27koen azpitik dago. Finantzazioa, eta laguntza eta eragin ekonomikoak, indar-gunetzat hartu litezke, Batasuneko batez bestekoarekin konparatzen baditugu. Ahuleziatzat azpimarratu behar dira, EB-27koen batez bestekoaren oso azpitik, enpresa inbertsioak, eta enpresa ekimenak eta loturak.

Aurreko bost urteetan, finantzazio eta enpresen laguntza eta inbertsio adierazleak izan ziren berrikuntzaren adierazlearen jokaeraren eragile nagusiak, oso bereziki kreditu pribatuaren hazkuntza sendo baten (% 12,7), enpresen banda zabalerako irispidearen (% 15,3), eta I+Gz kanpotik zetorren berrikuntza gastuaren (% 13,4) ondorio. Nabarmendu beharra dago adierazle partzialotako emaitzen okerragotzea, eta baita enpresa ekimen eta loturekin zerikusia duten dimentsioena ere, azken hau batez ere enpresetako berriztatze ratioaren beherakadaren eraginez (-% 6). Era berean, azpimarratu beharra dago giza errekurtsoen adierazlearen emaitzaren hazkundea, nahiz artean EB-27koen batez bestekoaren nabarmen azpitik dagoen.

EAEra begira jarrita, Eustatek landutako datuen arabera, EIS Europako Berrikuntza Adierazle 2008ren arabera, EAE 11. postuan ageri da, EB-27koen batez bestekoaren gainetik. Berrikuntzarako oinarrizko datu lez, oso kalifikazio eta heziketa handiko pertsonen aukera neurtzen duen giza errekurtsoen dimentsioari dagokionean, EAE nahiko nabarmen ageri da honen hainbat adierazletan:

- 20 eta 29 urte arteko gazteen milako 47,9 lizentziatua da Zientziak eta Ingeniaritzak edota Giza Zientziak eta Humanitateetan, Europako batez bestekoaren gainetik, hau milako 40,3ra baino iristen ez denez.
- 25 eta 64 urte bitarteko, goi mailako ikasketak (unibertsitatekoak edota goi mailako lanbide heziketakoak) dituen biztanleriaren portzentajea % 42,5etara iristen da, ia Batasuneko batez bestekoaren (% 23,5) bikoitza.
- 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen % 13,2k hartzen du parte etengabeko formazio jardueretan, eta Europan berriz % 9,7k.
- 20 eta 24 urte bitarteko biztanleen % 79,7k bukatu du gutxieneko bigarren hezkuntza, eta honetan ere Europakoaren (% 78,1) pixkaren bat gainetik ageri da.

"Enpresa ekimen eta loturak" dimentsioak enpresen lankidetzarako ahaleginak neurtu nahi ditu, eta kooperazioaren garrantzia, bai enpresa berritzaileen artean, eta baita ere, sektore publikoan. Hemen, enpresen berriztatze portzentajea, % 12,4, Europan lortzen den % 5,1ekoaren oso gainetik ageri da, nahiz eta berrikuntzan lankidetzan diharduten ETE berritzaileen portzentajea zer edo zer txikixeagoa den Erkidegoan, % 8,2, Europako batez bestekoaren aldean (% 9,4).

"Ondorio ekonomikoak" dimentsioari dagokionean, eta hemen biltzen dira berrikuntza jarduerek enpleguan, esportazioetan eta salmentetan eragiten duten arrakasta ekonomikoa, azpimarratu genezake:

- Enplegu guztiaren % 19,3 aurkitu liteke ezagutza maila altuko zerbitzuen sektoreetan, Europan ostera, % 14,5 da.
- Enpleguaren % 8,8 aurkitzen da teknologia ertain-altu eta altuko manufaktura sektoreetan, Batasuneko batez bestekoaren (% 6,7) gainetik.
- Teknologia ertain-altu eta altuko esportazioak, esportazio guztien % 53,6 dira, eta honek ehunekoetan 5,5 puntu gehiago esan gura du Europako Batasunean baino (% 48,1).
- Produktuen berrikuntzek negozioaren bolumen osoan eragiten duten ondorioa % 15,4koa da Euskal Herrian, Europako batez bestekoa % 14,9 denean.

Eta nahiz eta gainerako dimentsioetan lortutako puntuazioa Europako batez bestekoaren azpitikoa izan, hemen ere azpimarratu litezke zenbait adierazle, zeinetan EAEk Europar Batasunaren antzeko emaitzak edota are hobeak lortzen dituen. Horrela EAEn 10 enplegatu edo gehiagoko enpresen artean, banda zabalerako sarbidea duten enpresen portzentajea nahikoa altuagoa da, % 87,4, Europan batez beste lortzen dena baino (% 77,0).

EIS Europako Berrikuntza Adierazlea 2008 eta honen dimentsio adierazleak.

	EB-27	Euskadiko AE	Espainia
EIS berrikuntza adierazleen panela	***0,48***	***0,49***	***0,37***
Bideratzaileak	***0,49***	***0,49***	***0,44***
Giza errekurtsoak	*0,44*	*0,57*	*0,32*
Finantzazioa eta laguntza	*0,55*	*0,40*	*0,59*
Enpresa jarduerak	***0,42***	***0,42***	***0,25***
Enpresa inbertsioak	*0,46*	*0,36*	*0,15*
Enpresa ekimen eta loturak	*0,41*	*0,56*	*0,25*
Etekinak	*0,40*	*0,35*	*0,32*
Produktibitateak	***0,53***	***0,56***	***0,45***
Berritzaileak	*0,44*	*0,34*	*0,30*
Ondorio ekonomikoak	*0,57*	*0,67*	*0,55*

Iturria: Eustat eta PRO INNO Europe: INNO-Metrics. Europako Batzordea.

Berrikuntzaren dimentsioak EAEn eta EB-27an. EIS Europako Berrikuntza Adierazlea 2008.



Iturria: Eustat eta PRO INNO Europe: INNO-Metrics. Europako Batzordea.

Berrikuntza teknologikoren bat garatu duten ETEek % 30,5 dira, EBko % 33,7ren aldean.

Berrikuntzaren ondoriozko errekurtsoen eraginkortasunak esan gura du enpresa berritzaileen % 19,6k murrizten dituela bere beharginen kostuak, eta % 9,4k gutxitzen dituzte materialen eta energiaren kontsumoak. Aldiz Europan portzentaje hauek % 18,0 eta % 9,6 dira hurrenez hurren.

Gainera, I+G gastu publikoa BPGd-aren aldean baxuagoa da EAEn Europan baino (% 0,31, Europako % 0,65en aldean), eta gastu pribatua altuagoa da, EAEn % 1,34koa eta EB-27an % 1,17.

Puntu ahul lez, badago ere adierazle sail bat oraindik ere urrun agertzen dena Europar Batasunean ematen diren kopuruetatik. Arrisku kapitaletara bideratzen den BPGd-aren portzentajea % 0,03ra baino ez da iristen euskal kasuan, Europako batez bestekoaren % 0,16ren oso azpitik. Txikiagoa da ere berrikuntza jardueretako gastua (I+Ga alde bat utzita) salmenten aldean, 10 edo enplegu gehiagoko enpresetan (% 0,75 EAEn eta % 1,03 EB27an).

Era berean, ETEen % 27,1ek erakusten dituzte berrikuntza ez teknologikoak (marketin edo antolaketakoak), oso urrun hau ere Europako Batasunean lortzen den % 40tik.

Aipatu behar da edonola, EIS Berrikuntza Adierazleen 2008 Panel berriak aldaketa metodologiko mamitsua jasan duela, eta horregatik, ezin direla aurreko ekitaldietakoekin konparaketa zuzenak burutu.

IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO JARDUERAK

2007-2008 ekitaldian zehar enpresetako I+G inbertsioa Europar Batasunean % 8,8koa izan da.

Europako Batasunak lantzen duen “EU Industrial R&D Investment Scoreboard 2008”, EBko enpresen I+G inbertsio adierazleen koadroaren arabera, Europako enpresek beren I+G, ikerketa eta garapen inbertsioa, handitzen jarraitzen dute, enpresa estatubatuarrek edota japoniarrek egiten duten baino erritmo biziagoan.

Urtez urte, koadroaren oinarrian dira, alde batetik, EBn I+G inbertsioetan gehien gastatzen duten mila enpresen datuak, eta beste aldetik, egoitza EBtik kanpo izanda ezaugarri beretako beste mila enpresenak.

Azken koadroak erakusten du 2007-2008 ekonomia ekitaldian, bi mila enpresok % 9an handitu zituztela beren I+G inbertsioak, aurreko ekitaldiko inbertsioa % 10ekoa izan zenean. EBko enpresek etengabean datoz beren I+G inbertsioa handitzen azken bost urteetan erreskadan. 2004-2005 ekitaldian, Batasuneko enpresek % 1 baino gutxiagoan hazi zuten beren I+G inbertsioa, baina 2007-2008 ekitaldian inbertsio mota hau % 8,8raino igo zen.

Batasuneko enpresek I+Gn eginiko inbertsioen hazkundeak lehenengo aldiz gainditu zuen enpresa estatubatuarrek inbertsioan eginiko % 8,6ko gehikuntza. Gainera EBko enpresek eginiko inbertsio hazkundeak era berean gainditu zuen hirugarren urtez erreskadan Japoniako industriek eginikoa ere.

2008an Batasuneko enpresek I+Gn eginiko inbertsioa handiagoa izan zen, lehenbiziko aldiz, estatubatuarrek egin zuten inbertsioa baino, eta hirugarren urtez erreskadan, Japoniako industriaren inbertsioa baino.

Lehen hiru postuak hartzen dituzten enpresak, estatubatuarrak dira. Microsoft da zerrendaburu eta 5.580 milioi gastatu zituen ikerketan aurreko ekitaldian, eta hirugarren postura atzeratzen du Pfizer (5.530 milioi euro), General Motorsen atzetik (5.540 milioi euro). Zerrendan ageri den Batasuneko lehen enpresa, telefonia mugikorreko Nokia enpresa finlandiarra da, eta bosgarren postuan ageri da, I+Gn egindako 5.280 milioi euroko inbertsioari esker. Lehen hamar enpresen artean ez dira ageri egoitza Europar Batasunean duten beste bi enpresa baino, Volkswagen eta Daimler automobil fabrikatzaileak.

Farmazia eta bioteknologiaren sektoreek jarraitzen dute izaten mundu osoan I+G inbertitzaile handienak eta beraiek biltzen dute zerrendako enpresa guztien artean I+Gn eginiko inbertsioaren % 19. EB eta Suitza bereziki ondo ordezkatuak ageri dira sektore honetan, Roche, Novartis eta AstraZeneca bezalako enpresen bidez, eta hauek % 20tik gora gehitu dituzte beren I+G inbertsioak.

Farmazia eta bioteknologia sektoreko enpresek jarraitzen dute izaten mundu osoan I+Gn gehien inbertitzen dutenak. I+G inbertsioetan indar handia duen beste sektore bat energiarena da.

Beste inbertitzaile handia, energiaren sektorea da, eta sektore honetako enpresa nabarmen batzuek oso modu ikusgarrian gehitu dute azken urte hauetan beren I+G gastua. Sektore honetan, eguzki energia edo energia eolikoa lako ordezko energiekin behar egiten duten enpresek erakusten dituzte hazkunde tasa gorenak.

Europan gehien inbertitzen duten 1.000 enpresen arteko 12 dira Espainiakoak. Lehen lauak, Telefonica, Repsol IPF, Indra sistema informatikoak eta Amadeus. Telefonicak 594 milioi inbertitu zituen, Indra sistemak 141,05 milioi, Almirallek 101,4 milioi eta Repsolek 77 milioi euro guztira.

Espainian gehien inbertitzen duten enpresen artean ageri dira EAEko lau: Gamesa, denera 3.091 milio euroko inbertsioa egin duena I+Gn, Fagor etxetresna elektrikoak, 5,38 milioi eurorekin, eta CIE Automotive, 5,34 milioi euro inbertiturekin I+Gn azken ekitaldian.

I+Gn inbertitzeko ahalegin handiena egiten duten erkidegoak Madril, Nafarroa, Euskadi eta Kataluniakoa dira.

INEren 2007ko I+G Jarduerei buruzko azken Estatistikan jasotzen den lez, estatu mailan, I+G gastua aurten BPGd-aren % 1,27tara iristen da, % 12,9ko hazkundez aurreko urtearen aldean. % 13,7ko garrantzizko hazkundea jazotzen da enpresa sektoreak I+G jardueretan 2007an eginiko gastuan 2006koaren aldean. Gainera, nabarmentzekoa da sektore honetan % 16,3 hazi dela ikerketan diharduen unitate kopurua, aurreko 2006ko urtearen aldean. Erkidego autonomoak kontuan, Madril, Nafarroako Foru Erkidegoa, Euskadi eta Kataluniakoak nabarmentzen dira, I+Gn ahalegin handiena egiten dutenen artean, estatuko batez bestekoaren gainetik.

I+G adierazleen konparatiboa hainbat esparrutan 2007.

ADIERAZLEAK	BIZKAIA	EAE	ESTATUA	EB 27
I+G GASTUAK				
BPGDAREN ALDEAN	%1,52	%1,65	%1,27	%1,83
I+G GASTUAK FINANTZAZIOAREN ARABERA				
Enpresak	%56,2	%58,9	%45,5	%54,5
Administrazioa	%40	%37,6	%43,7	%34,2
Beste iturri batzuk	%0,2	%0,3	%3,8	%2,3
Atzerria	%3,7	%3,2	%7	%9
I+G BEHARGINAK (erabateko arduraldian)				
Beharginak denera	6.519	14.435	201.109	2.237.606
Ikertzaileak	4.481	9.220	122.625	1.349.808

**Europako Batasuneko finantzazio datuak 2006. urtekoak dira. Iturria: Eustat, Bizkaia eta EAErako. Ine Espainiako estaturako eta Eurostat Europako Batasunerako.*

I+Gn eginiko barne gastua Bizkaian BPGd-aren % 1,52ra iritsi zen portzentajean, Espainiako batez bestekoaren (% 1,27) gainetik.

Eustatek landutako datuen arabera, EAEn urte berean 1.090,265 milioi euro inbertitu ziren denera I+G ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueretan, aurreko urtean baino % 20,1 gehiago.

Gastu hau 2007an EAEko BPGd-aren % 1,65etara iristen da, 18 ehunen gehiago aurreko urtean baino. Euskal BPGd-aren hazkuntza nominalek eragiten dute portzentaje honen gorakada nahikoa iraunkorra azken urteetan. Horregatik, EAE, Espainiako batez bestekoaren gainetik ageri da (% 1,27), baina oraindik jarraitzen du Europako Batasuneko batez bestekoaren (% 1,85, 2007an) azpitik.

Bizkaiak I+Gn eginiko gastua BPGd-aren aldean % 1,49tan ageri da, 15 ehunen gorago 2006. urtean baino, eta honek 502,796 milioi euro esan gura du (EAEko osokoaren % 46,1).

2007ko Ikerketa eta Garapen Teknologikoko jardueren Estatistikako datuen arabera, I+Gko barne gastua, BPGd-aren portzentajetan, Bizkaian % 1,52tara iritsi zen, Espainiako batez bestekoaren gainetik (% 1,27)

Bakarrik kapital gastuak kontuan hartuaz (lurzoru, eraikuntza, ekipo eta tresnerietako inbertsioak), EAEn 212 milioi euro inbertitu dira, eta honek batez besteko % 57ko hazkundea esan gura du aurreko urtekoaren aldean. Bizkaiko kasuan, hazkuntza hau % 46koa izan zen, eta denera 503 milioi euro inbertitu ziren.

Sektore exekutiboari dagokionean, Bizkaian nabarmendu beharra dago % 22ko hazkundea gertatu dela 2007. urtean Administrazioari eta Enpresa Sektoreari dagozkien gastuetan 2006ko urtearen aldean. Bizkaiko lurralde historikoak jarraitzen du izaten unibertsitate sektoreak pisu handiena erakusten duen lurraldea (Bizkaia osoko % 18,8), batez ere Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Fakultateak Leioako campusean bateratuak daudelako.

Espainian, I+G gastuaren % 45,5 finantzatzen da enpresa pribatutik, % 43,7 Administrazio Publikotik, % 7,0 atzerriko kapitalaren laguntzaz, eta gainerako % 3,8a beste zenbait iturritatik.

Europar Batasuneko osotasunean ere enpresa pribatuak dira finantzazio ahalegin handiena egiten dutenak, gastu guztien % 54,5ekin. Hurrena ageri da Administrazio Publikoa, % 34,2rekin eta atzetik atzerriko kapitala % 9rekin. Azkenik beste zenbait iturritatik finantzatzen da gainerako % 2,3a.

I+G gastuaren exekuzio moduen inguruko banaketa oso berdintsua gertatzen da aztertutako hiru esparruetan, EBn, Espainian eta EAEn. Enpresa pribatuak dira gastuaren ehunekorik handiena exekutatzen dutenak, % 63,7, % 63,3 eta % 81,3, hurrenez hurren, eta ikusten den lez, euskal enpresak dira gastuaren portzentajerik handiena eroaten dutenak. Administrazioaren kasuan, Espainiako estatuan du eraginik nabarmenena, osoko gastuaren % 17,3rekin. Europan gastu hau % 13,5ekoa da, eta EAEko osotasunean oso nabarmen jaisten da kopurua % 3,5etaraino.

Emakumezkoak I+G jardueretan parte hartzeari dagokionez, Gipuzkoan langile guztien % 30 dira emakumezko, Araban % 33, eta Bizkaian % 36.

50 behargin baino gutxiagoko enpresek exekutatu zuten enpresa sektoreko I+G gastuaren % 32. Portzentaje hau Bizkaiko kasuan % 30era jaisten da.

Bestalde, beren jarduna batez ere I+Gren Zerbitzu sektorean kokatzen duten enpresek burutu zuten I+G barne gastua 367 milioi eurotik goitikoa izan zen (enpresek I+Gn eginiko gastu guztiaren % 41; % 37 Bizkaian).

I+G gastua EAEn 2007 (mila eurokoetan).



Iturria: Eustat. Ikerketa zientifikoari eta garapen teknologikoari buruzko estatistika.

Berrikuntza teknologikoa enpresetan

Gure arreta Eustatek argitaraturiko datuetara ekarrita eta EAEko enpresetako Berrikuntza Teknologikoari buruzko Inkestaren arabera, euskal enpresek 2007an berrikuntza teknologikorako jardueretan egindako gastua 2.610 milioi eurokoa izan zen, eta % 10,9 hazi aurreko urtekoaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Gastu hau BPGd-aren % 4,0 da. Berrikuntzarako beharrezko diren jarduera nagusien artean, azpimarratzekoa da barne I+Grako gastua, guztizkoaren % 41,8 hartzen duena.

Sumatu liteke, berrikuntzarako gastua urtero modu nabarmenean hazten doan lez, berrikuntza burutzen duten enpresen kopurua berriz, berdintsu mantentzen dela portzentajetan. 2005-2007 aldian 30.202 enpresa izan ziren berritzaileak EAEn, hau da enpresen % 16,1. Enpresa berritzailetzat jotzen da, batetik, merkatuan produktu berri edo nabarmen hobeturen bat sartzeko gauza izan direnak (dela ondasun edo zerbitzu), eta halakoak

izan dira 2007an enpresen % 5,5, eta bestetik, enpresa beraren barruan prozesu berri edo nabarmen hobetu bat ezartzen dutenak, eta halakoak dira aipatu denbora aldi honetan, enpresen % 14,5.

Azterketa hau 10 enplegatu edo gehiago dituzten enpresen artean egiten badugu, portzentajeak % 32ra igotzen dira, eta hauen artean % 14,1 dira produktu berritzaile, eta % 26,9 prozesu berritzaile.

EAE da enpresa berritzaile kopururik handiena duen autonomia erkidegoa, % 32. Lurralde historikoen artean Bizkaiak erakusten du enpresa berritzaileen portzentajerik garaiena (% 16,7).

Espainia eta beste Erkidego Autonomoekiko konparaketa eginez, azpimarratu behar da EAEn ematen dela enpresa berritzaileen kopururik nagusiena (% 32), 10 edo enplegatu gehiagoko enpresen artean, atzetik dihoakiolarik Nafarroa (% 30,5) eta Katalunia (% 27,4). Espainiako batez besteko % 23,5etan dago.

Enpresa berritzaile kopururik handiena biltzen duen lurralde historikoa Bizkaia da (% 16,7). Bere aldetik Arabak enpresa berritzaileen % 15,9 ditu, eta Gipuzkoak enpresa hauetako % 15,1.

Aurreko taulan ikusi liteke berrikuntza teknologiko mota, hala EAEn zein Bizkaian, batez ere Prozesukoa dela, % 14,5 eta % 15,2rekin, hurrenez hurren. Atzetik datozkio, hainbateko tartez, Produktu berrikuntzak, EAEn berrikuntza guztien % 5,5 direnak, eta Bizkaian guztien % 5,1. Huts egindako berrikuntzei dagokienean, Bizkaiak postu hobea hartzen du, % 1,1ekin portzentaje txikiagoa erakusten duenez EAEko osotasuneko % 1,5a baino.

EAEko enpresa berritzaileen jarduera esparruaren araberako azterketak ikusarazten du industria dela enpresa berritzaileen ratio altuena erakusten duena (% 18,4), eta oso nabarmen dela industria kimikoa (% 50,4) eta makineriakoa (% 37,5). Zerbitzuek % 18,6 enpresa berritzaile dute bereen artean, baina hauetan ere nabarmentzen dira Hezkuntzakoak, % 36,6rekin, eta Osasungintzakoak % 26,7rekin.

Euskal enpresek 2007. urtean zehar 2.610 milioi euro bideratu zituzten denera berrikuntza teknologikorako jardueretara, aurreko urteko kopuru berdintsua. Lurralde historikoak kontuan hartuz, Bizkaiak 1.253.518 milioi eurotik hurbileko gastu kopurua egin zuen Berrikuntzarako jardueretan, Arabakoaren (545.696 milio) eta Gipuzkoakoaren (810.701 milioi euro) gainetik.

Jarduera esparruei begira, urte honetan Zerbitzuetako sektorea da berrikuntza teknologikoko jardueretan gehien inbertitzen duen sektorea, 1.362.508 milioi eurorekin, Industria sektorearen (1.220.787 milioi euro) eta Eraikuntzaren (26.618 milioi euro) gainetik.

Garatzen duten berrikuntza teknologikoko jarduera motari dagokionean, gastu kontzentraziorik handiena barne I+Gn biltzen da, EAEn eginiko berrikuntza guztien % 41,8rekin. Atzetik datozkio makinetan eginiko berrikuntzak, % 34ren inguruko portzentajez.

Berrikuntzako osoko gastua portzentajean BPGd-aren aldean % 4koa da Euskal Herriko batez bestekoan. Lurraldeka aldatzen da portzentaje hau, eta Araba da portzentaje altuena erakusten duena % 5ekin; Gipuzkoan eta Bizkaian portzentaje hauek % 3,7 eta % 3,8koa dira hurrenez hurren.

EAEko lurraldeei begira, berrikuntzan denera eginiko gastua BPGd-aren aldean portzentajetan, % 5ekoa da Araban, % 3,8koa Bizkaian eta % 3,7koa Gipuzkoan.

Inkesta honetan bertan jasotzen da ere enpresek I+Gn inbertitzeko garaian aurkitzen dituzten zailtasunen gaineko informazioa: faktore ekonomikoak, kasuen % 44,8tan; berrikuntzaren kostu garaiekin zerikusia dutenak (% 42); arrisku ekonomiko handiegiak (% 35,8); eta finantzazio iturri falta (% 31,9).

Beste alde batetik, kasuen % 34,3tan aipatzen diren barne faktoreen artean dira, behar beste kalifikaturiko beharginen falta (% 23,2), teknologiaren gaineko informazio edo ezagutza falta (% 21), merkatuaren ezagutza eza (% 18,1), eta azken lekuan, erakundearen malgutasun faltarekin zerikusia duten arazoak (% 12,8). Eta beste zenbait barne eta ekonomia faktorerekin batera aipatzen dira beste faktore batzuk ere, zeinen artean, bezeroen sentsibilitate falta (% 23), edota arauen behar besteko malgutasun eza (% 17,7).

PATENTEAK ETA MARKAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Patenteak eta berrikuntzak guztiz lotuak daude elkarrekin. Egia esan, gero eta globalagoak diren merkatu eta inguru ekonomiko, etengabeko aldaketan dauden hauetan, ezinbestekoa da produktuak, berrikuntzak eta prozesuak babestea enpresen lehiakortasun maila mantendu ahal izateko.

Seguru asko inongo konpainiak ez lituzke bere gain hartuko, edozein berrikuntza garapen edo ikerketa proiektuk eragindako kostu altuak, konfiantzarik ez balu gero patenteek eskaintzen dioten babesean. Patentea Jabetza Erregistroan inskribatzeak ziurtatzen du ikerketa proiektuetako emaitzak babestuak geratzen direla, kopiatik, edota beste enpresa eta lehiakide batzuen ustiapenetik.

Enpresen sektorean usu aitortzen da patenteak dituztela beren aktiborik garrantzitsuenak, hauek ukiezinak eta immaterialak izan arren, eta lehiakortasun abantaila ugari eskaintzen dituzte, zeinen artean, produktu propioen berezitasuna lehiakideenen aurrean, esklusibotasuna, eta defentsa juridikorako ahalmena. Patenteak pizgarri dira berrikuntzarako.

2008. urtean barrena, Espainiako Patente eta Marken Bulegoak, era honetako erregistroak erregulatu eta kudeatzen dituen erakunde publikoak, denera 3.783 patente eskaera jaso zituen, eta modu positiboan ebatzi ziren eskaera hauetako 3.639.

Patente eta Marka eskaeren bilakaera Espainian 2000-2008.



Iturria: Espainiako Patente eta Marketako Bulegoa.

Espainiako Asmamen Jardueraren Rankinga (Asmakizun eskaera/Biztanle kopurua) Erkidego Autonomoetan 2008.

Rank.	Erkidego Autonomoak	Eskaera kopurua	Asmamen Jarduera Eskaerak / 10^6 biztanle
1	NAFARROA	171	276
2	ARAGOI	307	231
3	KATALUNIA	1.488	202
4	MADRIL	1.172	187
5	EUSKAL HERRIA	363	168
6	VALENTZIAKO ERK.	797	158
7	ERRIOXA	49	154
8	MURTZIA	167	117
9	ASTURIAS	105	97
10	GALIZIA	255	92
11	GAZTELA ETA LEON	170	83
12	ANDALUZIA	659	80
13	BALEARRAK	86	80
14	KANTABRIA	31	53
15	KANARIAK	106	51
16	GAZTELA-MANTXA	128	50
17	EXTREMADURA	49	45
18	CEUTA ETA MELILLA	2	13
	EZ DA AGERI	5	
GUZTIRA ESPAINIA		**6.110**	**132**

Iturria: Espainiako Patente eta Marketako Bulegoa.

2001. urtean erregistraturiko eskaera mailaren atzerakadaren ondoren, ondoko ekitaldiek urteko 3.000 eskaeratik gorako kopuruak mantendu dituzte. 2008an Patente eskaerak 3.783ra iritsi dira, eta horrek aurreko urtekoen aldean 344 eskaera gehiago esan gura du, eta portzentajean % 10eko igoera.

Asmakizun eskaera kopuru absolutuak kontuan, eta hauek Patenteez gain Baliagarritasun ereduak ere barne hartzen dituzte, 2008. urtean barrena Espainia osoan denera 6.110 eskaera aurkeztu ziren, eta horrek % 6ko gehitzea esan gura du 2007. urteko eskaera kopurua.

Katalunia da eskaera kopuru handiena aurkeztu duen Autonomia Erkidegoa, denera 1.488 eskaerarekin, eta hauek % 1,4 eskaera gehiago dira 2007an baino. Hurrena ageri da Madrileko Erkidegoa, eta datu hau ere hazi egin da aurreko urtearen aldean 1.172 eskaerarekin, eta hauek % 16 gehiago dira.

Nahikoa atzetik datozkie bi lurralde hauei Valentziako Erkidegoa 797 eskaerarekin eta Andaluzia 659rekin.

Euskal Autonomia Erkidegoak 2008an 363 eskaera aurkeztu zituen eta estatuko bosgarren autonomia erkidegoa da kopuru absolutuetan. Gero postu hau berbera izango du berriro, ikusiko dugun legez, asmamen jardueren rankingean.

Sano interesgarria da kopuru hauek alderatzea erkidego bakoitzeko biztanleria osoaren kopuruarekin eta hala eskuratu ahal dugu erkidego bakoitzaren asmamen jardueraren ratioa. Eta Adierazle honetan Nafarroakoa da, aurreko urtean legetxe, lehen postua bereganatzen duen erkidegoa, 276 eskaerarekin milioi biztanleko. Ondoren datorkio Aragoi 231 eskaerarekin, Katalunia gainditzen duena urte honetan. Azken hau 202 eskaerarekin hirugarren da, eta Madril laugarren, 187rekin.

EAEk bere aldetik, 168 eskaerarekin milioi biztanleko, aurreko urtean baino 10 eskaera gehiago aurkeztu zituen, eta bi postu igo, rankingean bosgarrenera igaroaz.

EAEren eta Madrilen igoerak beherantz bultzatu ditu 2008an Errioxa eta Valentziako Erkidegoa, lehena 3 postu eta bigarrena postu bat.

Patente eta Marka Bulegoan, EAEtik eta berezikiago Bilbotik jasotako era askotako eskaera multzoaren azterketatik, oso nabaria da Bilboren gaitasun berritzailea, berak bakarrik ere % 2 inguruko pisu erlatiboa hartzen duenez kategoria guztietan Espainiako estatuko osotasunaren barnean.

Bilboko asmamen jarduerak 139 patente eta baliagarritasun eredu biltzen ditu eta hauek EAE osoko % 38 esan gura dute. Denera 16 gehiago dira 2007koak baino. Gainera 1.198 marka berri eskatu ziren, eta horrek EAE osoko % 52 esan gura du. Baita 19 diseinu industrial ere (% 39) eta 123 izen komertzial.

Sektorekako ikuspegi batetik begiratuta, EAEn berrikuntza kopururik handienak zerikusia du industria teknikekin eta garraioarekin, denera 55 patente eta 25 baliagarritasun eredu biltzen dituztenez. Ondoren datoz mekanikoak, argiztapenezkoak eta berokuntzakoak, 37 eta 18 patente eta baliagarritasun eredurekin, hurrenez hurren. Bizitzako beharrizan arruntak hirugarren lekuan ageri dira, baina 30ekin bera da baliagarritasun eredu gehien erakusten duena.

Patente eta marka eskaeren bilakaera EAEn 2007-2008.

ESKAERAK	2008	URTEKO ALDAKETA %	ESTA-TUAREN ALDEAN %
EAE			
Patenteak	229	%13.4	%6,0
Baliagarritasun ereduak	133	-%2,9	%5,0
Diseinu industriala	49	-%14,0	%3,4
Markak	2.299	-%17,0	%4,6
Izen komertzialak	227	-%5,4	%3,9
BILBO			
Patenteak	89	%7,2	%2,3
Baliagarritasun ereduak	50	%25,0	%1,9
Diseinu industriala	19	-%36,7	%1,3
Markak	1.198	-%19,8	%2,4
Izen komertzialak	123	%12,8	%2,1

Iturria: Espainiako Patente eta Marken Bulegoa.

Patente eta baliagarritasun ereduen emateak EAE 2008, NPS (Nazioarteko Patente Sailkapen) sailetan.



Iturria: Espainiako Patente eta Marken Bulegoa.

Patentea, edo beren asmakizun eta berrikuntzetarako beste babes modu batzuk erabili dituzte 2005-2007 denbora aldian euskal enpresa berritzaileen % 24k, eta kopuru hau % 19 garaiagoa da aurreko aldikoa baino. Portzentaje hau % 26,7taraino igotzen da 10 edo pertsona gehiago enplegatuak dituzten enpresak bakarrik hartuaz kontuan.

Patentearen erabilerari dagokionean zehatzago, urtean zehar euskal enpresa berritzaileen % 1,4k zuen patenteren bat eskatua, eta % 1,9k berriz, bazuen patenteren bat indarrean 2007ko amaieran.

Enpresa berritzaileen % 23,4k erabiltzen dituzte gainera beste babes modu batzuk ere, zelan ereduen erregistroa, fabrika markak edota autore eskubideak.

EHUk aurkeztutako patenteen bilakaera. 2004-2008.



Iturria: Espainiako Patente eta Marken Bulegoa.

Patenteak eta Unibertsitatea

Patente eskaera, adierazle garrantzitsua da erakunde baten ahalmen ikertzailearen maila neurtzeko. Esparru unibertsitarioaren kasuan garrantzi berezia bereganatzen du, azken honek berarekin dituen ezagutzen transferentzia eta jarduera produktiboaren balioztatze esangurengatik.

Horregatik, I+G+b-aren alorretan burututako jardueren ebaluazioak, gero eta gehiagotan hartzen du kontuan adierazle hau, unibertsitatearen ahalmen ikertzailea neurtzeko aukera ematen duen datu gisa.

2008ko ekitaldiari begiratuaz, EHUk 43 patente eskaera aurkeztu ditu, eta honek % 26ko hazkundea esan gura du aurreko urtean aurkeztutakoen aldean, eta % 330ekoa, 2004-2008 denboraldiaren parean. Patente eskaera, ondoko modu honetan banatzen da alor zientifiko desberdinetan: % 54 Osasun Zientzietan, % 29 Esperimentazio Zientzietan, eta % 17 Ingeniaritza eta Teknologian.

BERRIKUNTZAREN TESTUINGURUA. KOOPERATIBA-IKERKETARAKO ZENTROAK, TEKNOLOGIA PARKE ETA ZENTROAK

Berrikuntza testuingurua

INNOBASQUE, Berrikuntzaren Euskal Agentzia, euskal gizarteari 2008ko urte hasieran Bilboko Euskalduna Jauregian aurkeztu zitzaion erakunde honen helburua da, Euskadin, Berrikuntzaren tresna koordinatzaile eta bultzatzaile gisa jardutea. Eginkizuna du, Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren nortasun bateratua sortzea eta garatzea. Eta zeregin honek ondoko helburu handiak hartzen ditu bere barne: Euskal Herriko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Agenteen multzo osoa ordezkatzea; bazkideen arteko harremanak dinamizatzea; elkarrizketa bultzatzea Agenteon eta Eusko Jaurlaritzako zientzia eta teknologia politiketako erakundeetako arduradunen artean; Berrikuntzaren kultura sustatzea gizartean; eta Zientzia-Teknologia-Enpresa-Gizarte Sistema integratzea Euskal Herrian.

INNOBASQUE, Bigarren Giza eta Ekonomia Eraldaketaren lidergoa hartzeko jaio zen berrikuntzaren sustatze lanean, eta erronka honetan bat egiten dute, instituzioek, enpresek eta gizarteak, elkarren lankidetzan jarduteko konpromisoarekin. Era berean, parte hartzeko bide izan gura du era guztietako pertsona fisiko eta juridikoei irekia, eta foro bihurtu nahi du agente guztiek beren gaitasunak bertara ekarri ahal izan ditzaten, eta hala, aldaketa prozesuak arrakasta izan dezan gizarte berritzaile baterant.

Innobasqueren helburua da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearekin batean (ZTBES), agente guztien koordinazio eta lankidetza eraginkorra sustatzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren esparruetan, elkarreragina samurtzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako agenteen artean, eta aldi berean ehun produktiboaren eskakizunak sistemaren gaitasunekin uztartzea. ZTBESa 1997. urtean sortu zen azpiegitura teknologikoki adimenduna garatzeko helburuz, modu elkar osagarrian eta koordinatuan jardungo duena beharrean, baita merkatu ikuspegi batetik ere, eta bezeroengandik hurbil, euskal enpresa ehunari eskaintza teknologiko, integral, sofistikatu eta berezitua eskaintzeko gauza izango dena.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea hiru azpisistemetan dago egituratua:

1. Azpisistema Zientifiko eta Unibertsitarioa

- Unibertsitateak
- KIZ - Kooperatiba-Ikerketarako Zentroak
- BERC - Oinarrizko Ikerketarako eta Bikaintasunezkoetarako Zentroak

2. Garapen Teknologiko eta Berrikuntzako Azpisistema

- Teknologia Zentroak
- Sektoretako Zentroak
- Nazioarteko Teknologia Garapen eta Transferentzia Zentroak
- Egiaztapen Erakundea eta Laborategia
- Ikerketa Erakunde Publikoak
- I+G Enpresa Unitateak
- I+G Enpresa Unitateak
- I+G Osasun Unitateak

3. Berrikuntzarako Laguntza Azpisistema

- Teknologia Parkeak eta Enpresa eta Berrikuntza Zentroak
- Bitarteko Berrikuntza Erakundeak

Era berean, eta Euskadin ikerketa zientifikoa garatzeko helburuz, Eusko Jaurlaritzak 2007. urtean IKERBASQUEren sorrera bultzatu zuen. Fundazio honen helburua euskal ikerketa sistema indartzea da, kanpotiko ikertzaileak erakarriaz, eta Euskadi Europako bikaintasun erreferentzia lez sendotzea ikerketaren alorrean. Hala, 2008. urtean 20 herrialde desberdinetako 50 zientzialari hartu ditu Euskadiko unibertsitate eta ikerketa zentroetan.

Bere aldetik, Bizkaian Bizkaiko Berrikuntza Agentzia (BAI) da arduraduna. 2006. urtean Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak sortua, eta 21 urtez diseinua sustatzeko asmoz hainbat behar egindako DZ Diseinu Zentroa enpresaren azpiegituran, beharginetan eta esperientzian oinarritua, eta Bizkaiko enpresen berrikuntza bultzatzeko helburuarekin. BAI, Bizkaiko Berrikuntza Agentziak berrikuntza bultzatzeko borondatea dakar Bizkaiko enpresetara, hainbat lantresna eta metodologiaren bitartez, ahalik eta gehien erraztu guran Bizkaiko enpresek proiektu berritzaileak garatzea, enpresetarako hurbiltze handiagoa eragingo duten era guztietako jardueren aldeko apustu garbian, eta sarean behar eginez berrikuntza sistemaren gainerako agente guztiekin.

Kooperatiba-Ikerketa Zentroak (KIZ)

KIZak ikerketa kooperatiborako zentroak dira, ezagutza berria sustatzeaz gain, borondate berezia dutenak, ezagutza hau industria ehunera transferitzeko, eta hala lehiakortasun abantailak ekartzeko euskal enpresei.

Euskal Herriko Zientzia eta Teknologia gaitasunak optimizatzeko jaioak, eskalako ekonomiak sortuaz, eta masa kritiko nahiko bat ziurtatuz bere eginbeharren betetze eraginkorrerako, Kooperatiba-Ikerketako Zentroek ezagutza berria sortzen dihardute, hala nola teknologia transferentzia bideratzen, maila altuko formazioa sustatzen, eta ikerketaren emaitzen merkataritza ustiapena ere. KIZek ez dute bakarrik ikerketa egiten, borondate berezia dute eragindako emaitzak ustiatzeko, eta hauek industria ehunera transferitzeko, hainbat lantresnaren bidez, zelan diren spin-off-ak, patenteak eta lizentziak, eta abar.

KIZ hauek kopartizipatuak izan litezke, bakoitzaren helburu eta interesen arabera, eta hala egin lezakete, instituzio publikoek, EAEn kokaturiko Ikerketa, Garapen eta Teknologia Berrikuntzako Erakundeek, nazioarteko zientzia eta teknologi agenteek, edota, oro har, Zentroaren helburuetarako intereseko gertatu litekeen beste edozein agente motak ere.

Gaur egun hurrengo Kooperatiba-Ikerketa Zentroak ditugu abian:

- CIC bioGUNE: Ikerketa Kooperatiboko Zentro Elkartea Bioteknologiarako. Bikaintasuneko zentroa da ikerketa biomedikorako, eta batez ere osasunari aplikatutako bioteknologiaren alorretan: genomika funtzionala, proteomika, metabolomika, zelula amak eta zelula biologia, eta bioinformatika.

- CIC Nanogune: Ikerketa Kooperatiboko Zentro Elkartea Nanozientzietarako. Zentroa sortu zen mundu mailako oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatuari ekiteko nanozientzietan eta nanoteknologian.
- CIC biomaGUNE: Ikerketa Kooperatiboko Zentro Elkartea Biomaterialetarako. Oinarrizko helburu du zientzia eta teknologia ezagutza sortzea, ekoiztea, sustatzea eta aplikatzea biomaterialen alorrean, ikerketa eta esperimentazio garapen jarduera sistematikoen bidetik.
- CIC marGUNE: Errendimendu Altuko Fabrikazioaren euskal adabegia izateko apustua egiten du, eta Europa eta mundu mailan sortuko diren bikaintasun sareetan integratuko da.
- CIC microGUNE: Ikerketa Kooperatiboko Zentro Elkartea Mikro-Nano-Teknologietarako (MNT). Helburu du mikrosistemen teknologia sustatzea eta hau industriarantz zabaltzea ondoko arlootan: mikrosentsore mekanikoak, mikrofluidika/mikroanalitika, eta mikrooptika. Nanoteknologia bidez garatutako osagarriak txertatu mikrosistemen gaitasunak indartzeko.
- CIC energiGUNE: Maila altuko ikerketaren garapenerako aukera emango du energiaren alorrean. Helburua da energia kontuetan dugun gaitasun zientifikoa biltzea eta garatzea, eta ikerketa eta ordezko teknologien sorrera-foku bihurtzea.
- CIC tourGUNE: Ikerketa Kooperatiboko Zentro Elkartea Turismorako. Lankidetza plataforma bat da, turismo sektorean ikerketa gaitasun berrien garapena bultzatzeko asmoarekin, eta dagoeneko badauzkagun, eta potentzialki behintzat turismoaren alorrean aplikatu litezkeen, gaitasunak eta ezagutza biltzeko asmoz sortua.
- BIOEF: Euskal Fundazioa Osasun Ikerketa eta Berrikuntzarako/B+I+O Eusko Fundazioa, lan tresna bat da, eta sorrerako helburu du berrikuntza eta ikerketa bultzatzea Euskadi Osasun Sisteman.

Teknologia Parkeak

Euskal Herria aitzindari izan zen Espainiako estatuan Teknologia Parkeen ezarpenean, eta gaur egun lau Parke dauzka, Sare koordinatua osatzen dutenak, Europa osoko sare sendoenetakoa bihurtua, eta hazteko gaitasun handiak erakusten dituena. Teknologia Parke hauek dira: Arabako Teknologia Parkea, Miñanon dagoena; Bizkaiko Teknologia Parkea, Zamudion kokatua; Donostiako Teknologia Parkea, Miramon izena eman ohi zaiona; eta azkenik, Garaiako Berrikuntza Poloa, Arrasaten. Sare honek gaur egun 370 bat enpresa eta teknologia zentro biltzen ditu, eta 2007an 2.934 milioi euroko negozio zenbatekoa mugitu zuen, 12.730 pertsona enplegatuz.

Euskal Herria aitzindaria da estatuan Teknologia Parkeen ezarpenean, eta lau dauzka gaur egun, denera 370 enpresa eta teknologia zentro biltzen dituztenak.

Lau Teknologia Parkeen arteko konexio errealak eta funtzionamenduak samurtu egiten du ezagutzen transmisioa eta kooperazioa unibertsitate, I+G+b zentro, eta enpresen artean.

Hauen diseinua, mundu osoan Teknologia Parkeentzako onartutako ikusmoldean oinarritu da, bertan bultzatuaz bikaintasunezko enpresa, Unibertsitate, eta Ikerketa eta Teknologia Transferentzia Zentroak kokatzea, ingurune aldetik kalitate handiko inguru iraunkorretan, eta testuinguru egokia eratuz zientzia, teknologia, eta enpresa elkarrekin uztartu ahal izan daitezen.

Igarotako denboran, sendotu egin da Teknologia Parkeen errealitatea, eta hauek agente pro-aktibo gisa dihardute Euskadiko teknologia eta berrikuntzaren garapenean; ekarri erabakigarriak eginez; ezagutza eta teknologien jarioa bultzatuz unibertsitate, ikerketa erakunde, enpresa eta merkatuen artean; eta enpresa berritzaileen sorrera eta hazkundea bultzatuz; eta aldi berean balio erantsiko zerbitzuak eskainiz, eta baita kalitate handiko espazio eta instalazioak ere.

1985ean sortu zen Bizkaiko Teknologia Parkea; orduz geroztik, 90etan sortu ziren Arabako eta Donostiako Teknologia Parkeak, eta eratu zen “Euskal Herriko Teknologia Parkeen Sarea”. Geroago, 2005ean, gehitu zitzaion sareari Garaiako Berrikuntza Poloa.

Lau zentroen arteko konexio errealak eta funtzionamenduak samurtu egiten du ezagutzen transmisioa eta kooperazioa, unibertsitate, I+G+b zentro, eta enpresen artean.

Euskal Herriko Teknologia Parkeen Sarearen filosofia, lau Parkeen jardueren koordinazioan oinarritzen da, teknologia arlo osagarrietarantz bideratutako estrategia batez, eta telekomunikazioen Intranet sare bat eratuta, aukera zuzena ematen duena Parke hauetan kokatutako enpresa guztien arteko interkonexiorako. Jarduera arloei begira, gero eta nabarmenagoa da sektoreen dibertsifikazioa, eta oraingoz enpleguen arloko lidergoa informazioaren eta komunikazioaren teknologiei dagokie (% 32), aeronautikari (% 14), eta I+G zentroei, % 16rekin. Jada 2007. urtetik nabarmentzen hasi da ere biozientzien sektorearen bultzada, enplegu osoaren % 9 hartzen duenez, eta baita ere, ingurunearen eta energiaren arloen abiatze sendoa, jadaneko lanpostuen % 6 hartzen dutenez gero.

Bizkaiko Teknologia Parkea

Egoitza Zamudion duela, Bizkaiko Teknologia Parkea 1985ean sortu zen Euskal Herriko Instituzioen bultzada lagun, eta honen helburua industriaren dibertsifikazioa bultzatzea izan da, eta teknologiaren eta berrikuntzaren transferentzia, eta hau zabaltzea.

250 hektarea, pribilegiozko ingurune eremu batean, bertan kokatzen dira ikerketa zentroak eta teknologia aurreratuko enpresak, komunikazioetarako azpiegitura bikainenekin.

Bizkaiko Teknologia parkea euskarri zaio berrikuntzari, berrikuntzaren euskal sistemaren barruan. Honek bere jardueraren bilakaera ezagutu du urte hauetan, eta zerbitzu eta azpiegitura berriak garatu, higiezinetako berezko jardueraz harago.

Parkearen elkarte kudeatzaileak, berrikuntza, eta ikerketa eta garapena bultzatzen ditu bere inguruan, hainbat jardueraren bitartez, zelan, enpresa arteko elkar harremanak eta lankidetzak sortzea, teknologia eta ezagutzen transferentzia sustatzea, berrikuntzaren teknologia eta kultura zabaltzea, enpresa ekintzailetza eta oinarri teknologikodun enpresa berrien (OTEBen) sorrera laguntzea, I+G proiektuetarako laguntzak kudeatzea oinarri teknologikodun enpresentzako, eta abar.

Lortutako garapen eta sendotasun mailak, eta helburuei atxikitzen lortutako arrakastak, estatu osoko Teknologia Parkeen bandera ontzi bihurtu dute Bizkaiko Teknologia Parkea. Gainera erreferentzia eredu legez erabili izan da beste hainbat herrialdetako parke proiektuetarako.

Bizkaiko Teknologia Parkeak 2008. urtean 210 enpresa, teknologia zentro, ikerketa zentro, eta abar. dauzka, 7.270 pertsona baino gehiagori ematen dio enplegu, eta hauetako % 45 baino gehiagok dihardu zuzenean ikerketa eta garapenean. Enpresa hauek denera 2.525 milioi euro fakturatzen dute.

Teknologia Parkeko enpresen I+G gastua, 2008ko ekitaldian, 231 milioi eurokoa izan zen. Bolumen hau, gutxi gorabehera da Autonomia Erkidego osoko I+G gastu osoaren % 16, eta urruti asko gabe Bizkaiko I+G gastuaren % 34, eta berak erakusten du zein kontzentrazio maila garaia erakusten duten I+G jarduerek Parkean. Kontrataturiko behargin kopuruari begira, Parkeko sektore nagusiak dira Informazio eta Komunikazio Teknologiena, IKTak, (% 39), eta ondoren datozkio I+G Zentroak (% 14), Aeronautika (% 12) eta jada sendotuak diren Medikuntza eta Biozientziak (% 9), Elektronika (% 9), edota Energia eta Ingurunea (% 7)..

Era berean, oinarri teknologikodun enpresa berrien garapena eta sorrera bultzatzen du. Proiektuek kokapen berezia eduki ohi dute, eta baita ere, kudeaketa eta teknologia izaerako tutoretza, hazi-kapitaletarako irispide aukerak, lehentasunezko finantzazioak hainbat agenterekin lankidetzan, eta laguntza instituzionaletarako irispidea ere.

Horretarako hainbat azpiegitura ditu bere, zeinen artean:

- Bioinkubagailu-Biokabi-a, eta berak eskaintzen du era guztietako laguntza biozientzien sektoreko enpresak sortzeko eta garatzeko: tutoretza, kooperazioa, finantzazio iturrietarako irispidea, sustatzaile gela, inkubazio moduluak, eta laborategi hornituak.
- Elkartegi Teknologikoa, multienpresetarako eraikuntza, bereziki diseinatua garapen fasean diren teknologia enpresentzako, ekintzaileentzako gela berezia du.
- Kabi Eraikuntza, enpresa berritzaileen inkubazio eta garapenerako pentsatua hauen bizitzaren lehen hiru urteetarako.
- Izartek ekimena, berak eskaintzen du era guztietako laguntza enpresen sorrera eta garapenerako.

Eta gaur egun Bizkaiko Teknologia Parkeak hurrengo proiektuotan dihardu beharrean:

- Ezkerraldea, Ezkerraldeko Teknologia Parkea. Bizkaiko Abanto eta Ortuellako udalerrietan kokatuko da. Lehen aurreikuspenen arabera 150 bat enpresa bereganatuko ditu, eta 4.000 enplegu inguru sortu.
- Zorrozaurreko Parke Urbanoa (Bilbon). Pribilegiozko kokagune batean, Bilbo erdian, eta hiriaren portu iraganarekin zuzenean lotutako inguru historiko batean. Bertan bateratuko dira etxebizitza, aisialdi, eta enpresa erabilerak. Bereziki gordea du etorkizunari eskainitako espazio bat.
- Teknologia Berrien Interpretazio Zentroa, BTEK. 2009aren amaierarako argia ikusiko duen proiektu honen helburu orokorra da teknologia berrien ezagutza eta interpretazioa indartzea eta sustatzea, modu berritzaile eta elkarreraginezkoan, gizartea bera ere Parkean garatutako zientzia eta teknologia aurrerapen berrien parte hartzaile bilakatuz. Helburua, gazteriari teknologia hurbiltzea da, eta lehentasunez, DBH, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei, hauek teknologiaren funtsak eta aplikazioak ezagutu ditzaten, eta beren inguru hurbilenekoan eratzen doazen garapen teknologikoen partaide bihurtu daitezen, etorkizuneko bokazio teknologikoak bultzatu guran.
- EHU, Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Parkea Leioan.

Unibertsitateko Zientzia Parkea

Unibertsitateko Zientzia Parkearen proiektua Leioako campusean eraikiko da, eta uste da lanak 2009. urte amaieran hasiko direla. 123 milioi euroko inbertsioa edukiko du, eta pentsatzen da 2.500 bat pertsonari emango diola enplegu zuzena. Leioako campuseko ipar magala aukeratu da zientzia gunea eraikitzeko leku. Benetako mugarri izango da alor honetan, denera 188.000 m^2 edukiko ditu, eta 75.000 m^2ko azalera eraikia.

Unibertsitateko Zientzia Parkearen helburuak dira enpresen eta unibertsitatearen arteko harremanak bultzatzea, oinarri teknologikodun enpresa berriak eta kalifikazio altuko enpleguak sortzea.

Ekipamendu honen helburu nagusia enpresaren eta unibertsitateen arteko harremanak suspertzea da, oinarri teknologikodun enpresa berriak eta enplegu guztiz kalifikatuak sortzea, ahalik eta gehien aprobetxatuz unibertsitate campuseko zientzia eta teknologia gaitasunak.

Parkean egoitza-eraikuntza nagusi bat izango da, eta honek hartuko ditu enpresen inkubagailua, aholkularitza eta informazio zerbitzuak eta erabilera askotarikoak ere (bulegoak, bilera gelak edo transferentzia zentroa). Era berean edukiko ditu plataforma teknologikoak, hau da, beste bi eraikuntza, zeinetan kokatuko diren bost behar talde diziplina anitzekoak, enpresa eta unibertsitatearen arteko plataforma mistoak osatuko dituztenak. Eraikuntza hauetako lehenak, ikertzaileak eta enpresak bilduko ditu, Bizitza Zientzien, eta Materialen eta hauen Prozesuetako arloen inguruan. Bigarrenean elkarreraginean jardungo dute Arte Eszenikoek eta Giza Zientziek, Inguruneak eta Energiak, eta Komunikazio Teknologiek eta Mikroelektronikak.

Azken diseinuan era berean edukiko ditu beste 14 eraikuntza I+G+b-ari eskainiak, zientzia eta teknologia oinarri edukiko duten enpresak kokatzeko asmoan, eta baita ere, jada sendotutako enpresetako berrikuntza eta garapen sailak.

188.000 m^2 hauei, ikasle eta ikertzaileentzako ostatu-erresidentzia bat erantsiko zaie, 280 pertsonentzakoa, aisialdirako gunea, eta beste eraikuntza bat ere bai jatetxe eta merkataritzarako.

Teknologia Zentroak

Teknologia Zentroak, enpresa erakundeak dira, eta hauen, eta oro har gizartearen, Berrikuntza eta Teknologia Garapena sustatzen dute, eta funtsezko papera jokatzen dute aberastasuna eta enplegua sortzen.

FEDIT, Espainiako Teknologia Zentroen Federazioak, Madrileko Carlos III.a Unibertsitatearekin eta Espainiako INE, Estatistika Institutu Nazionalarekin lankidetzan koordinatutako ikerketa baten arabera, ia 150 enpresatako lagina aztertuta eratortzen da zelan Teknologia Zentroekin behar egin duten enpresek uste duten beren negozio guztiaren % 31,4, etekinen igoeraren % 31,1, esportazioen igoeraren beste % 31,1, enplegu gehikuntzaren % 30,6, eta beren lan produktibitatearen hazkundearen % 28,95 dagoela zuzenean loturik Zentro Teknologikoekin garatu duten lankidetzari.

Beste alde batetik, ikerketak era berean erakusten du Zentro Teknologikoekin beharrean diharduten enpresek uste dutela beren kanpoko I+G inbertsioaren gehikuntzaren % 62,6, barneko I+G inbertsioaren hazkuntzaren % 43, beraiek informazio eta software sistemetan eginiko inbertsio hazkundearen % 25,8, eta instalazioetan eta makinetan egindako inbertsioaren % 22,3, dagoela zuzenean lotua Zentro Teknologikoekin garatu duten lankidetzari.

Euskal Herriko Teknologia eta Ikerketa Zentroek, parkeotan eta hauen inguruetan kokatuta daudenek, Europako erreferentzia eredu dira ikerketaren eta teknologia transferentziaren esparruan, eta teknologia zerbitzu eskaintza zabala eskuratzen diete enpresei.

Euskadin, bi korporazio handi daude Teknologia Zentro desberdinak bateratzen dituztenak. Ondokoak:

- Tecnalia. Teknologia Korporazio pribatu eta independentea, euskal inguru teknologikotik sortua, nazioartean erreferentzia dena, eta ondoko Teknologia Zentroek osatzen dutena: Azti, European Software Institute (ESI), Fatronik, Inasmet, Labein, Neiker, Robotiker. Sektoreak ekipo diziplina anitzetakoek eratuak dira, eta beren eskaintza egokitzen dihardute sektore estrategiko desberdinei, azkenik proposamen integralago, berezituago eta bikainagoak lortzeko asmoz enpresa ehundurarentzako eta administrazioentzako. Ondoko esparru hauek lantzen ditu: Aeroespaziala, Galdaketa, Siderurgia, Nekazaritza, Infotech, Berrikuntza Sistemak, Elikagaiak, Ingurune urbano eta industriala, Informazio Gizartea, Automozioa, Ingurunea eta Natura errekurtsoak, Softwarea, Eraikuntza, Arrantza eta Itsasoa, Telekom, Energia, Osasuna.

- IK4. CEIT, CIDETEC, GAIKER, IDEKO, IKERLAN, TEKNIKER eta VICOMTech Teknologia Zentroek erabaki zuten IK4 Aliantza osatzea, aldi berean bakoitzak bere autonomia gordetzen zuela erakunde independente lez, baina konbergentzia proiektu bateratuak eskaintzen dizkien abantailak aprobetxatuz. 8 area nagusiren inguruan eratzen da: Mekatronika, Mikroteknologiak, Industria Kudeaketa eta Ekoizpena, Bioteknologia, Informazioaren Teknologiak, Energia, Materialak eta Prozesuak, Ingurunea.

Unibertsitatea-enpresa

Euskal Unibertsitatea da eraldaketa ekonomiko eta sozialaren arrakastaren arduradunetako bat I+Garen esparruan. Horretarako eskatzen zaio plan bereziak abian jartzea gaur egun hazkundea mugatzen duten barne eta kanpoko trabak konpontzeko jada ikasketetan eta ikerlarien beharrean.

Hauxe da EUSKOIKER, Jakintza Lanezko Ikerkuntza Fundazioaren helburua. Hau erakunde pribatua da, irabazi asmorik bakoa, eta 1979 sortu eta osatu zuten Euskal Herriko Unibertsitateak, hiru Foru Aldundiek, eta Euskal Herriko hiru Merkataritza Ganbarak. Fundazioa, RED FUE, Unibertsitate - Enpresa Fundazioen Sarearen partaide sortzaile da, eta baita ere, SARETEK, Euskal Teknologia Sarearen parte, Bitartekaritza Erakunde legez.

Estatuko OTRI Sareko partaide ere bada, eta urte hauetan guztietan EUSKOIKERrek foro askotan hartu du parte, Euskal Herriko Unibertsitateko ikerketa taldeek izenpetutako ikerketa kontratuen emaitzak aurkezten, FOROTECH, PROMA edo TECNOVA bezalako lehiaketetan.

Ikerketa Aplikatua sustatzeko, Fundazioak EUSKOIKER sariak banatzen ditu, eta Burdinola Sariak kudeatzen. Bere bizitzako 28 urteetan aurrera, EUSKOIKER Fundazioak jarduera kopuru ugari garatu du Unibertsitatearen eta Enpresaren arteko harremanak suspertzeko helburuz.